

Kerexeta

**ALKARTASUN
BARRIA**

••••

KEREXETA

ALKARTASUN
BARRIA

1988

EUSKERATZAILLEA:
Kerexeta-tar Jaime, abadea.

NIHIL OBSTAT:
Goitia-tar Joseba A., OFM.

IMPRIMATUR:
Larrea-tar Koldobika Mirena
Bilbo-ko Gotzaiña.
Bilbo-n, 1981, orriak 7.

BIBLI-ALKARTE BATUAK-en baimena:
Virgilio F. Vangioni.
Madrid, 1983, urriak 28.

© Jaime de Kerexeta y Gallastegi.
Elizburu, 24.
48230 ELORRIO (Bizkaia).

IRARKOLA ta ARGITARATZAILLEA:
PRAKOR Industrias Gráficas.
Muelle de Olabeaga, 21.
48013 Bilbo.

ISBN: 84-85918-37-1

Depósito Legal: BI-1883-88

BARRI ONA

JESUKRISTOREN BARRI ONA

SAN MATEOK DAKARRENEZ

Jesusen jatorria (Lk 3, 23-28)

1 1 Auxe da Dabiden eta Abrahamen ondorengo dan Jesukristoren jatorria:

2 Abraham, Isaaken aita izan zan; Isaak, Jakobena, eta Jakob, Judarena ta onen anaiena. 3 Juda, Fares eta Zararen aita izan zan; ama, barriz, Tamar. Fares, Esronen aita izan zan, eta Esron, Aranena. 4 Aran, Aminadaben aita izan zan; Aminadab, Naasonena, eta Naason, Salmonena. 5 Salmon, Boozen aita izan zan; ama, barriz, Errajab. Booz, Obeden aita izan zan; ama, barriz, Errut. Obed, Isairen aita izan zan, 6 eta Isai, Dabid erregaren aita.

Dabid, Salomonen aita izan zan; ama, barriz, Uriasen emazte izan zana. 7 Salomon, Erroboanen aita izan zan; Erroboan, Abiasena, eta Abias, Asarena. 7 Asa, Josafaten aita izan zan; Josafat, Joranena; Joran, Oziasena; 9 Ozias, Joatanena; Joatan, Akazena, eta Akaz, Ezekiasena. 10 Ezekias, Manasesen aita izan zan; Manases, Amosena, eta Amos, Josiasena. 11 Josias, Jekoniasen aita izan zan, baita onen anaiena be Babiloniako erbestaldian.

12 Erbestaldi-ostean, Jekonias, Salatielen aita izan zan; Salatiel, Zorobabelena; 13 Zorobabel, Abiudena; Abiud, Eliakinena, eta Eliakin, Azorena. 14 Azor, Sadoken aita izan zan; Sadok, Ajinena, eta Ajin, Eliudena. 15 Eliud, Eleazaren aita izan zan; Eleazar, Matanena, eta Matan, Jakobena. 16 Azkenez, Jakob, Mariaren senar zan Joseren aita izan zan. Eta Maria, Mesias dan Jesusen ama.

17 Beraz, Abrahamandik Dabideganaiño, amalau belaunaldi izan ziran; beste amalau Dabidegandik Babiloniako erbestaldiraiño, eta beste amalau erbestalditik Mesiaseganaiño.

Jesusen jaiotza (Lk 2, 1-7)

18 Jesus Mesiasen jaiotza olantxe izan zan: Maria, Josegaz ezkontzeko berbatuta egoan; baiña aregaz emazte lez bizi izan baiño leen, Espiritu Santuaren egiñez seindun geratu zan. 19 Josek, aren senarrak, gizon zuzena zan ezkerro, ez eban Maria agirian salatu nai, eta aregandik isillean alde egitea erabagi eban. 20 Baiña, asmo ori gogoan erabillela, amesetan Jaunaren aingerua* agertu yakon, eta onek auxe esan eutsan: "Jose, Dabiden ondorengo ori: ez izan bildurrik Maria, zure emaztea, zeure etxean artzen: onek sortu dauan semea Espiritu Santuaren egiñez da-ta. 21 Eta bere semea izan dagianean, zuk izena Jesus* jarriko dautsazu, bere erria beronen pekatuetatik Berak atarako dau-ta."

22 Guzti ori, Jaunak profetaren bidez esan izan eban au bete zeiten jazo zan: 23 *Birjiña batek, seindun geraturik, seme bat izango dau, eta izena 'Emanuel' * ezarriko dautsoe;* (izen onek *Jaungoikoa gugaz'* adirazoten dau.)

24 Josek, amesetatik iratzartu zanean, Maria, bere emaztea, bere etxean artu eban, Jaunaren aingeruak agindu izan eutsanez. 25 Eta aregaz ezkontzako artu-emonik izan bagarik, Mariak bere semea izan eban, eta Josek izena Jesus jarri eutsan.

Eguzkialdeko jakitunak

2 1 Jesus Belenen*, Judeako errian, jaiotzean, Erodosen* erregetzaldian. Aldi aretan, Eguzkialdeko* jakitun batzuk etorri ziran Jerusalemenera, 2 auxe itauntzen ebela: "¿Non dago judarren errege jaiobarria? Guk aren izarra agertzen ikusi dogu, eta gur egitera gatorkioz."

3 Ori entzunik, Erodosen* erregea larritu be larritu egin zan, eta orixe berori jazo yakon Jerusalemgo bizilagun guztiai be. 4 Orduan, abadeburu ta Lege-irakasleak batu zeiteezala agindu eban Erodosen erregeak, Mesias non jaiotzean izan jakiteko. 5

Areik auxe erantzun eben: "Judako Belenen, profetak auxe idatzi eban-eta:

6 Zu, Judako Belen ori, ez zara, ez, Judako uri nagusien artean txikiena; izan be, zeugandik urtengo da buruzagi bat, Israel nire erria zuzenduko dauana*."

7 Orduan, Erodesez Eguzkialdeko jakitunai isilllean dei egin eutsen, eta, areik esan eutsoenetik, izarra noiz ikusi izan eben jakin eban. 8 Gero, Belenera bialdu ebazan, eta auxe esan eutsen: "Zoaze ara eta jakin egizue ume orretzaz aal dagizuen guztia. Eta aurkitu dagizuenean, jakifierazo egidazue, neu be bera gurtzera joan naiten."

9 Jakitunak, erregearen berbak entzunda gero, Belenerantz urten ziran, eta agertzen ikusi izan eben izarrak umea egoan tokiraiño jarraitu eutsen. 10 Izarra barriro ikusten ebelako pozez beterik, 11 etxean sartu ziran eta umea ikusi eben beronen ama Mariagaz. Orduan, Aren aurrean belaunikotu egin ziran, eta, eurakaz eroiezan ondasunak atarata, urrea, intzetzua ta mirra* eskiñi eutsoezan. 12 Gero, jakitunak euren errialdera biurtu ziran; baiña beste bide bat artu eben arako, Erodesez egoan tokira ez biurtzeko burubidea emon izan yaken amesetan-eta,

Ejiptora igesi

13 Eguzkialdeko jakitunak joan ziranean, Jaunaren aingeruak, Joseri amesetan agertuta, auxe esan eutsan: "Jagi zaitetz, eta, umea ta onen ama arturik, eurokaz Ejiptora igesi egizu. Geratu zaitetz an neuk esan dagitzudan arte: umea ilteko, Erodesez aren billa ibiliko da-ta."

14 Josek, jagi eta umea ta onen ama arturik, gabez arekaz Ejiptoko bidea artu eban, 15 eta antxe egon zan Erodesez eriotzararte. Olantxe bete zan Jaunak profetaren bidez esan eban au: *Ejiptotik etorteko dei egin neutsan nire Semeari**.

Belenen il ebezan umeak

16 Erodesez, Eguzkialdeko jakitunak iruzur egin eutsoela konturatu zanean, asarre-bitsetan jarri zan, eta arek Belenen eta onen inguruetan izan zeitekezan urte birik beerako ume guztiak ilteko agindu eban, jakitunakandik jakindako sasoi gogoan arturik. 17 Olantxe bete zan Jeremias profetaren bidez esandako au:

18 *Negar eta garrasi andien deadarra entzuten da Erraman. Errakel da, bere semeakaitik negarrez, eta ez dau pozbiderik nai, ilda dagoz-ta* *.

Ejiptotik Nazaretera

19 Erodesez ilda gero, amesetan Jaungoikoaren aingerua agertu yakon Joseri, an Ejipton, 20 eta arek auxe esan eutsan: "Umeagaz eta onen amagaz bidean jarri eta eurakaz Israelera biurtu zaitetz: umea il nai ebenak il dira-ta."

21 Jose, ibillaldia atondu eta umea ta onen ama arturik, arekaz Israelera biurtu zan. 22 Baiña, Judean errege, Erodesez orde, onen seme zan Arkelao* egoala jakitean, ara joateko bildur izan zan. Beraz, amesetan burubidea artuta, Galileako lurraldera jo eban, 23 eta Nazaret izeneko errian bizilagun geratu zan. Olantxe bete zan profetak iragarri izan ebena: Jesusi Nazaretarra esango eutsoela.

Joan Bateatzaillearen iragartea
(Mk 1, 2-8; Lk 3, 1-18; Jn 1, 19-28)

3 1 Aldi aretan, Judeako basamortuan*, Joan Bateatzaillea iragarten asi zan. 2 Auxe iñoan: "Onbideratu zaitetze, Jaungoikoaren erregetza* oso ur dago-ta."

3 Joan au Isaias profetak aitatu izan ebana zan,

urtego au esan ebanean:

*Abots bat entzun da; norbaitek basamortuan deadarka diardu: Atondu egizue Jaunaren bidea; zuzendu bide-zidorrak Arentzat!**"

4 Joan ganbelu-ulez jantzita ebillen, eta narruzko gerrikoaz; eta aren janaria matxingorrikoak eta baso-eztia ziran. 5 Jerusalem, Judea guztiko eta Jordango ibar guztiko bizilagunak aregana yoiazan. 6 Euren pekatuak autortzen ebezan, eta Joanez Jordanen bateatu egiten ebazan.

7 Baiña, bateoa artzera yoiazan parastar eta sadokar askori, Joanez auxe zirautsen: "¿Nok iragarri dautsue, sugekumeoi, gaiñean dozuen zigorrari igesi egiten? 8 Agertu egizue egintzen bidez zuen onbideratzea, 9 eta ez egizue asmakeriarik sortu zuen barruan, Abrahamen ondorengoak zareela uste izanik. Izan be, arri oneitatik Abrahami ondorengoak atarateko lain Jaungoikoa badala dirautsuet nik. 10 Onezkerok, gertu dago aizkorea zugatzak zuzartetik ebagiteko; eta frutu onik ekarri ez dagian zugatza, ebagi ta sutara jaurtiko dabe. 11 Nik uraz bateatzen zaituet, onbideratu zaitezen; baiña nire ostean ni baiña aaltsuago bat dator. Ari sandaliak eroateko be ez naz ni duin. Arek Espiritu Santuaz eta suaz bateatuko zaitue. 12 Bere larraiña garbitzera dator, sardea eskuan daukala; bere garia garautegian gordeko dau; gari-lastoa, barriz, atzamatzen ez dan sutan erreko dau."

Jesusen bateoa
(Mk 1, 9-11; Lk 3, 21-22; Jn 1, 29-34)

13 Egun areitan, Jesus Galileatik Jordanera etorri zan, emen Joanez bateatu egian. 14 Baiña Joanez ez eutsan lakezen: "Neu naz ni zuk bateatu bear nozuna; ¿eta zeu zatorz nigana nik bateatu zagidazan?" 15 Eta Jesusez ari: "Itzi orrela oraingoz!

Jaungoikoak erabagi dauana betetea dagokigu." Orduan, Joanez itzi egin eutsan.

16 Jesus, bateatuta gero, uretatik urten egin zan. Orduan, zerua zabaldurik, Jaungoikoaren Espiritua uso-irudiz bere gaiñera jatsiten ikusi eban Jesusek. 17 Eta zerutik urten zan berbots batek auxe esan eban: "Auxe da nire Seme maitea; Beronegan dot nire atsegiña".

Jesusen tentaldiak (Mk 1, 12-13; Lk 4, 1-13)

4 1 Orren ostean, Espiritu Santuak Jesus basamortura eroan eban, deabruak zirikatatu egian. 2 Jesusek berrogei egunez eta berrogei gabez barau egin eban, eta azkenean gose izan zan Jesus. 3 Orduan, deabruak, aregana urreraturik, auxe esan eutsan: "Benetan Jaungoikoaren Semea bazara, esan egizu arri oneik ogi biurtu daitezala." 4 Eta Jesusek ari: "Liburu Santuak auxe diño: *Gizona ez da ogi utsez bizi izango, Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño**."

5 Gero, deabruak uri santura* eroan eta jauretxeko gaillurrera jaso eban, 6 eta auxe esan eutsan: "Benetan Jaungoikoaren Semea bazara, jaurti egizu zure burua goitik beera, Liburu Santuak auxe diño: *Zaindu ta euren eskuetan artu zagiezala aginduko dautse Jaungoikoak aingeruai, zure oiñak arriren baten tope egin ez dagian**." 7 Eta Jesusek ari: "Liburu Santuak auxe be badiño: *Ez dozu zure Jainko Jauna zirikatuko**."

8 Barriro be deabruak mendi goi-goi batera eroan eban, eta, Ari munduko erri guztiak eta arein edertasuna erakutsirik, 9 auxe esan eutsan: "Guzti au emongo dautsut nik, nire aurrean belaunikotzen bazara eta gurtzen banozu." 10 Baiña Jesusek ari: "Alde emendik, Satanas!, Liburu Santuak auxe diño: *Zeure Jainko Jauna gurtuko dozu, eta Berari bakarrik emongo dautsazu gurtza**."

11 Orduan, deabruak Jesusegandik alde egin eban, eta aingeruak etorri yakozan zerbitzera.

Jesusen egikizunaren asierea Galilean
(Mk 1, 14-15; Lk 4, 14-15)

12 Joan Bateatzaillea kartzelan egoala jakitean, Jesus Galileako lurraldera baztatu zan. 13 Baiña, Nazaret* itzirik, Zabulon eta Neftaliko mugetan*, itsasondoan dagoan Kafarnaunera joan zan bizi izatera. 14 Olantxe bete zan Isaias profetak esandako au:

15 *Zabulon eta Neftaliko lurraldea,
itsas-bidea, Jordango sortzaldean,
jentillen Galilea!*

16 *Illunpeetan egoan erriak
argi ditziratsu bat ikusi eban;
eriotz-gerizpeko errialdean bizi ziranak
argiak argitu egin ebazan*.*

17 Arrezkero, Jesus auxe asi zan iragarten: "Onbideratu zaitze, Jaungoikoaren erregetza* ur dago-ta."

Jesusen leenengo ikasleak
(Mk 1, 16-20; Lk 5, 1-11)

18 Jesusek, Galileako itsasertzean ebillela, anai bi ikusi ebazan: Pedro eritzon Simon, eta Ander. Arrantzaleak ziran, eta sarea uretara botaten ziarduen. 19 Jesusek auxe esan eutsen: "Zatoze nigaz, eta nik gizon-arrantzale egingo zaituet." 20 Areik, bereala sareak itzirik, Jesusegaz joan ziran.

21 Zerbait aurrerago, beste anai bi ikusi ebazan Jesusek: Santiago ta Joan, Zebedeoren semeak; txalupan euren aitagaz sareak konpontzen ziarduen. Eta dei egin eutsen; 22 eta areik, bereala sareak eta euren aita itzirik, Jesusegaz joan ziran.

Jesusek irakasten eta osatzen diardu
(Mk 1, 39; Lk 6, 17-18)

23 Jesus Galilea guztian ebillen, sinagogetan irakasten. Erreiñuko barri ona iragarten eban, eta errikoen edozetariko geiso ta gatxak osatu egiten ebazan. 24 Orrela, Jesusen entzute ona Siria* guztian zabaldu zan, eta edozein gatxek jotako guztiak ekarten eutsoezan: geisoak eta mindunak, eta deabrudunak, alditsuak* eta elbarridunak. Eta Jesusek osatu egiten ebazan. 25 Eta Galileatik eta Dekapolis-lurraldeko* errietatik etorritako laguntalde andiak jarraitzen eutsan, baita Jerusalemendik, Judeatik eta Jordango sortzaldetik etorritakoak be.

Mendiko berbaldia

5 1 Laguntalde andi a ikusi ebanean, Jesus menditxora igo eta jesarri egin zan. Bere ikasleak urreratu yakozan, 2 eta Jesus irakasten asi yaken, esanez:

Benetako zoriona
(Lk 6, 20-23; 14, 34-35; Mk 9, 50)

3 "Zorionekoak espiritu lauak diranak, Jaungoikoaren erreiñua euren da-ta.

4 Zorionekoak lur onetan biotz-minduta dagozanak, Jaungoikoak berak poztuko dauz-ta.

5 Zorionekoak apalak, Jaungoikoak lurra emon-go dautse-ta, aren jabe izateko.

6 Zorionekoak zuzena ta ona dana garaille urtetea gura dabenak, euren guraria bete egingo da-ta.

7 Zorionekoak errukiorrak, Jaungoikoa erruki izango yake-ta.

8 Zorionekoak euren barrua garbi daukenak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta.

9 Zorionekoak bakearen alde lan egiten dabenak, orrei Jaungoikoak bere seme esango dautse-ta.

10 Zorionekoak zuzenak eta onak izateagaitik aurrean erabiliak, Jaungoikoaren erreiñua euren da-ta.

11 Zorionekoak zuek, neure ikasle zareelako iraindu ta aurrean erabili zagiezenean eta guzurrez zuen aurka edozetariko txarkeriak esan dagiezanean. 12 Poztu zaitze orduan! Pozik egon zaitze, zeruan sari andia izango dozue-ta! Orrelaxe erabili ebezan aurrean zuek baiño leen bizi izan ziran profetak be!

Munduaren gatza ta argia
(Mk 9, 50; Lk 14, 34-35)

13 "Mundu onen gatza zaree zuek. Gatza gazatzen bada, barriz, ¿zek gazitu? Ezetarako be ez da, kanpora jaurtiteko ta laguntaldeak zapaltzeko baiño.

14 Munduaren argia zaree zuek. Mendi-tontorrean dagoan uria ezin gorde daiteke. 15 Argiontzia be ez dabe iziotuta gero ontzi bat az estaltzen, okerretara baiño: gaiñean ipinten dabe, etxean dagozan guztiak argi egin dagitsen*. 16 Orrelaxe egin bear dau argi zuen argiak enparaduen aurrean, zuek egiten dozuezan egintza onak ikusi dagiezan eta orrela zeruko zuen Aita goratu dagien.

Moisesen legea betetea

17 "Ez uste izan Moisesen legea* edo profeten irakaspak kentzera etorri nazanik. Ez naz orreik kentzera etorri, orrei benetako esanaia emotera baiño. 18 Benetan dirautsuet: zeru-lurrak iraun dagine artean, Legeak ez dau letra bat edo izpitxo bat, be galduko. Guztia oso-osorik beteko da. 19 Beraz, Legeko aginduetariko bat —txikia izanarren be— ausi eta orixe berori egiten irakatsi dagiana, Jaungoikoaren erreiñuan txikiena izango da. Aginduok bete eta enparaduai beteten irakatsi dagitsena, aundia izango da orrelakoa Jaungoikoaren erreiñuan. 20 Eta auxe dirautsuet: zuen Lege-

irakasleak eta parastarrak baiño obeak ez bazaree, ez zaree Jaungoikoaren erreiñuan sartuko.

Irriña ta adiskidetzeta (Lk 6, 27-36)

21 "Badakizue asabai esan yaken au: *Ez egizu iñor il**. Iltzaillea auzitegira eroango dabe. 22 Nik, barriz, auxe dirautsuet: bere anaiaren aurka asarratu daitena, auzitegira eroango dabe; bere anai iraindu dagiana, Batzar Nagusiaren aurrera eroango dabe, eta bere anai astunkiro iraindu dagiana, lezako sutarako gai izango da.

23 "Beraz, zure opari-gaia Jaungoikoaren altaran eskintzean, zure anaiak zure aurka zerbait badaukala gogoratzen badozu, 24 itzi egizu zure opari-gaia antxe bertan, altara-aurrean, eta zoaz leenen zure anaiagaz adiskidetzera. Gero, barriro etorrita, orduantxe eskiñi aal izango dozu zure opari-gaia."

25 "Norbaitegaz auzitan badiarduzu, auzia onez ebazteko aalegiñak egizuz, ori egin aal dagizun artean: zure arerioak auzi-epaillearen eskuetan itzi ez zagizan, eta auzi-epailleak ertzaiñen eskuetan, eta kartzelan sartu ez zagiezan. 26 Benetan dirautsuet: ez zara andik urtengo zure zorraren azkenengo txanpona ordaindu arte.

Ezkontzaustea

27 "Badakizue esandako au: *Ez egizu ezkontzausterik egin**. 28 Nik, barriz, auxe dirautsuet: beste baten emakumea lizunkeriaz begiratzen dauanak, bere biotz-barruan aretzaz ezkontza austen diardu.

29 "Beraz, eskumako zure begia pekatutarako bide bayatzu*, atara ta jaurti egizu zugandik urrin. Zure gorputz osoa lezara jaurtia izatea baiño obe dozu gorputz-atal bat galtzea. 30 Eta zure eskumea pekatutarako bide bayatzu, ebagi ta jaurti egizu zugandik urrin. Zure gorputz osoa lezara* jaurtia

izatea baiño obe dozu gorputz-atal bat galtzea.

Bizi-alarguntza

31 "Beste au be esan zan: *Bere emazteagandik banandu daitenak, banantze-agiria emon beardautso* *. 32 Nik, barriz, auxe dirautsuet: bere emazteagandik banantzen dan edonok (sasi-ezkontzagaitik izan ezik), emaztea ezkontza urratzeko arriskuan jarten dau. Eta norbait emakume bananduagaz ezkontzen bada, orrelakoak be ezkontza urratu egiten dau.

Ziña

33 "Badakizue gure asabai auxe be esan yakena: *Ez egizuz ausi zure agintzariak; bete egizuz Jaunaren aurrean ziñez egindako agintzariak* *. 34 Nik, barriz, auxe dirautsuet: ez egizu iñola be ziñik egin. Ez egizu ziñik egin zeruagaitik, Jaungoikoaren jarlekua da-ta; 35 ezta lurragaitik be, Aren oiñazpikoa da-ta; ezta Jerusalengaitik be, Errege andiaren uria da-ta. 36 Ezta zeure buruagaitik be ez egizu ziñik egin, zure ule bat bera be ezin zuritu edo baltzitu daikezu-ta. 37 Auxe bakarrik esan egizue: "Bai" edo "Ez"; orren gaiñerakoa Gaiztoagandik dator.

Ordaiña zelan emon

38 "Badakizue beste au be esan zana: *Begi-ordain, begia; eta agin-ordain, agiña* *. Nik, barriz, auxe dirautsuet: ez egin gogorkeriarik kalte egin dagitzuenen aurka. Bestetara bai: norbaitek ma-traillan joten bazaitu, eskifiñ egiozu bestea be. 40 Eta, jantzia zuri kentzearren, auzitegira eroan nai zagizanari, emon egiozu soingaiñekoa be. 41 Eta norbaitek sorta bat kilometro batetako bidean eroatera beartzen bazaitu, egizuz aregaz kilometro bi. 42 Zerbait eskatu dagitzunari, emon egiozu, eta zerbait aurreratu dagiozula eskatu dagitzunari, ez

egiozu ukatu.

Arerriokanako maitasuna

43 "Badakizue esan zan au: *Maite egizu zure lagun-urkoa eta gorroto izan egiozu zure arerio-ari* *. 44 Nik, barriz, auxe dirautsuet: maite egizuez zuen arerioak eta egizue otoitz aurrean zarabillezenen alde. 45 Orrela, zeruan dagoan zuen Aitaren seme-alaba izango zaree benetan: Arek bere eguzkia on eta gaiztoen gaiñera atarazo eta euria zuzen eta zuzenbageen gaiñera bialtzen dau. 46 Izan be, maite zaituenak bakarrik maite badozuez, ¿ze(r) sari itxaron daikezue? Diru-batzailleak* eurak be egiten dabe ori! 47 Eta zeuen lagunak bakarrik agurtzen badozuez, ¿zer egiten dozue apartekorik? Jentillak eurak be egiten dabe ori! 48 Zuek bikaiñak izan bear dozue, zeruan dagoan zuen Aita bikaiña danez.

Limosnea

6 1 "Zuen erlejiño-egintzak ez agertu, gero, laguntaldearen aurrean, oneik ikusteagaitik! Bestela, zeruan dagoan zuen Aitaren saririk ez dozue izango. 2 Beraz, beartsuren bati laguntza emon dagiozunean, ez iragarri bazter guztietan, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan egiten dabenez, laguntaldeak goratu dagizan. Benetan dirautsuet: orreik artu dabe euren saria. 3-4 Beartsuari laguntza emon dagiozunean, ostera, isillean egizu; ez dagiala zure ezkerrek jakin zure eskumeak egiten dauana. Eta, isillean egiten dozuna ikusten dauan zure Aitak, saria emongo dau.

Otoitza (Lk 11, 2-4)

5 "Otoitz egin dagiozunean*, ez egin itxurazaleak lez; oneik sinagogetan eta kale-ertzetan zutunik egiten dabe otoitz, guztiak ikusi dagiezan. Benetan dirautsuet: orreik artu dabe euren saria. 6 Zu,

otoitz egin dagiozunean, sartu zaitez zeure gelan, eta, atea itxita, otoitz egiozu zugaz an isillean dagoan zure Aitari. Eta, isillean egiten dozuna ikusten dauan zure Aitak, saria emongo dau.

7 "Eta otoitz egitean, ez egin berba ta berba, jentillak egiten dabenez; oneik, otoitz luzeak eginda bakarrik entzuten dauzala Jaungoikoak, uste dabe. 8 Ez egin ori, badaki zuen Aitak zuek bear dozuena-ta, zuek Ari ezer eskatu baiño leen. 9 Zuek olantxe egin bear dozue otoitz:

Gure Aita, zeruan zareana;
santu izan bedi zure izena.

10 Betorkigu zure erregetza.

Egin bedi zure naia lurrean
zeruan egiten danez.

11 Emon egiguzu gaur egun oroko gure ogia.

12 Parkatu gure iraiñak,
geuk be iraintzen gaituenai
parkatzen dautsegunez.

13 Ez egiguzu itzi Zugandik alde egiten,
eta atara gagizuz Gaiztoagandik*.

14 "Izan be, zuei egin dautsuen okerra zuek enparaduai parkatzen badautsezue, zeruan dagoan zuen Aitak be parkatu egingo dautsue. 15 Enparaduai parkatzen ez badautsezue, barriz, zuen Aitak be ez dautsue zuek egiten dozuen okerra parkatuko.

Baraua

16 "Barau egin dagiozunean, ez jarri biotz-saminduta, itxurazaleak egiten dabenez: oneik, barau egiten diarduela guztiak jakin dagien, euren aurpegia tamal-itxuraz jarten dabe. Benetan dirautsuet: artu dabe euren saria. 17 Zuk, ostera, barau egin nai dagiozunean, garbitu aurpegia ta orraztu ulea ondo, 18 barau egiten dozunik iñok be jakin ez dagian, eta bai an zugaz isillean dagoan zeure Aitak. Eta, isilpeko guztia ikusten dauan zure

Aitak, saria emongo dautsue.

Aberastasunak zeruan (Lk 12, 33-34)

19 "Ez pillatu aberastasunik mundu onetan; mundu onetako aberastasunak zerendu ta ondatu egiten dira, eta lapurrak, sartuta, ostu egiten dabez*. 20 Zeruan, bai, pillatu zeruan aberastasunak; an ez dira zerentzen, ez ondatzen, ezta ostuteko lapurrik be ez dago. 21 Izan be, zure aberastasunak euki dagiozunean lekuan, biotza be antxe izango dozue.

Gorputzaren argia (Lk 11, 34-35)

22 "Gorputzaren argia begiak dira. Zure begiak garbiak badira, zeu zarean guztia be argitsua izango da; 23 zure begietan gaiztakeria badago, barriz, zeu zarean guztia be illuntasuna izango da. Eta zuegan argia izan bear leukena illuntasuna bada, zure illuntasuna bai illuna!

Jaungoikoa ta dirua (Lk 16, 13)

24 "Ugazaba biren morroi ezin iñor izan daiteke batera; izan be, batari gorroto izango dautso eta bestea maite izango dau; edo-ta batari zintzoa izango yako eta besteari ez dautso jaramonik egingo. Jaungoikoaren eta diruaren morroi ezin izan zaitekeze batera.

Jaungoikoaren ardurapean (Lk 12, 22-34)

25 "Auxe dirautsuet: ez arduraz ibili bizi izateko zer jan edo zer edango dozuen, edo gorputza zein jantziz estalduko dozuen. ¿Ez al-da bizitza janaria baiño geiago, eta gorputza jantzia baiño geiago? 26 Begira txoriak: ez dabe ereiten, ez batzen, ezta garautegetan gordeten be; eta, alan be, zeruan dagoan zuen Aitak janaritu egiten dauz. Zuek, orraitio, txoriak baiño askozaz geiago balio dozue!

27 ¿Zuetariko nok, barriz, aalegin guztiak egiñarren, luzatu daike bere bizia ordubete be?

28 “¿Eta zegaitik arduratu jantzia? Ikasi egizue zelaiko liriostatik, zelan azten diran. Ez dabe lanik egiten, ezta goruetan be; 29 eta, alan be, Salomon erregea bera be, bere aintzarik andienaz, ez zan orreitariko bat lez jantzi. 30 Beraz, gaur eze egon eta biar laban erreko dan zelaiko bedarra Jaungoikoak orrela jazten badau, ¿ez ete-dau egingo askozaz geiago zuekaitik? Otza benetan zuen sinismena!

31 “Ez arduratu, ba, zer jango dozuen, zer edango dozuen edo zer jantziko dozuen pentsatzen. 32 Jaungoikoa ezagutzen ez dabenak arduratzen dira gai orretzaz; zeruan dagoan zuen Aitak, barriz, badaki guzti orrean bearrizanean zagozena. 33 Zuek, leenen, billatu egizue Jaungoikoaren erreñua eta aretan dagoan zuzena ta ona dan guztia, eta Jaungoikoak gauza guztiok emongo dautsuez gaiñera

34 “Ez estutu, ba, biarkoari buruz: biarkoak, berak ekarriko dau bere artegasuna. Egun bakotxari naikoa yakoz bere arazoak!

Abea norbere begian (Lk 6, 37-38. 41-42)

7 1 “Iñor ez epaitu, Jaungoikoak epaitu ez zagian. 2 Izan be, enparaduak epaitu dagizuezan epai berberaz epaituko zaitue Jaungoikoak, eta enparaduak negurtu dagizuezan negurri berberaz negurtuko zaitue Berak.

3 “¿Zegaitik begiratzen dozu zure anaiak bere begian daukan samarra, eta ez dozu zeure begian daukazun abea ikusten? 4 Zelan esan aal izango dautsazu zure anaiari: ‘Itzi egidazu begian daukazun samarra ataraten’, zurean abea daukazula? 5 Itxurazale ori! Atara egizu, leenen, abea zeure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu argiro, zure anaia-aren begitik samarra atarateko.

6 “Ez emon santua danik txakurrai, zeuen aurka biurtu ez daitezkan eta zatitu ez zagiezen. Ezta zuen pitxiak txakurrai jaurti be, zapaldu egingo dabez-ta.

Otoitzaren indarra (Lk 11, 9-13)

7 “Eskatu egizue, eta emon egingo dautsue; billatu egizue, eta aurkitu egingo dozue; dei egin, eta Jaungoikoak zabaldu egingo dautsue atea. 8 Izan be, eskatzen dauanak artu egiten dau, eta billatzen dauanak aurkitu egiten dau, eta dei egiten dauanari Jaungoikoak zabaldu egingo dautso atea.

9 “¿Nor da zuen artean, bere semeak ogia eskatzen badautso, arria emongo dautsanik? 10 ¿Edo-ta, arraiña eskatzen badautso, sugea emongo dautsanik? 11 Beraz, zuek, gaiztoak izanik, zuen semeai gauza onak emoten badakizuen ezker, ¿zenbat geiago ez ete-dautsez zeruan dagoan Aitak, Berari eskatu dagioezanai, gauza onak emongo?

12 “Enparaduak zuei egitea nai dagizuen guztia, zeuek be egiezue arei. Orretantxe dagoz Moisesen legea* ta profeten irakatsiak!

Bide blak (Lk 13, 24)

13 “Sartu zaiteze ate estutik. Ondapenera daroan atea zabala da, eta bidea erraza, eta eurotatik sartzen diranak asko dira. 14 Betiko bizitzara daroan atea, ostera, estua da, eta bidea gatxa, eta eurok aurkitzen dabezanak gutxi dira.

Sasi-profetak (Lk 6, 43-44)

15 “Zaindu zuen buruak sasi-profetakandik. Ardi tolesbageen antzera datorkizue, baiña barrutik otso amorratuak dira. 16 Euren frutuetatik ezagutuko dozue; izan be, ezin batu daiteke elorrietatik maatsik, ezta garduetatik be pikurik. 17 Edozein zugatz onek frutu onak dakaz; zugatz geisoak, barriz, frutu txarrak. 18 Eta okerretara: zugatz onak ezin ekarri daike frutu txarrak, ezta zugatz geisoak be frutu onik.

19 “Frutu txarra dakarren zugatzak ebagi egiten dira eta sua egiten da arekaz. 20 Orrelaxe, sasi-profetak euren frutuetatik ezagutuko dozue.

Jaungoikoaren erreñuan sartuko diranak (Lk 13, 25-27; 6, 46-49)

21 “Ez dira Jaungoikoaren erreñuan sartuko ‘Jauna, Jauna!’ diñoen guztiak, zeruko nire Aitaren naia egiten dabenak baiño. 22 Auzi-egunean askok auxe esango daste: ‘Jauna, Jauna: zure izenaz Jaungoikoaren mandatua iragarri dogu, eta zure izenaz mirari asko egin doguz.’ 23 Alan be, nik auxe erantzungo dautset: ‘Ez zaituet iñoiz be ezagutu. Alde nigandik, bizitza guztia gaiztakeritan egin dozuenok!’

Oiñarri blak

24 “Nire berbak entzuten eta egiñez beteten dauzan edonor, bere etxea arri-biziaren oiñarri-gaiñean jaso eban gizon zuurraren antzekoa da. 25 Etorri ziran euriak, ibaiak gaiñez egin eben eta aizeak etxe a indartsu jo eban; baiña etxe a ez zan jausi, arri-biziaren oiñarri-gaiñean jasota egoan-eta. 26 Nire berbak entzunda gero, egiñez beteten ez dauzan edonor, ostera, bere etxea lur aretsuaren gaiñean jaso eban gizon tentelaren antzekoa da. 27 Etorri ziran euriak, ibaiak gaiñez egin eben eta aizeak etxe a indartsu jo eban; eta beera jausi zan, eta aren ondamentia andia izan zan.”

28 Jesusek berbaldia amaitu ebanean, laguntaldea Aren irakatsiaz guztiz ikaratuta geratu zan, 29 benetako eskubidez irakasten eutsen-eta; ez, ostera, euren Lege-irakasleak lez.

Jesusek legenardun bat osatzen dau (Mk 1, 40-45; Lk 5, 12-16)

8 1 Menditik jatsitean, Jesusi laguntalde andiak jarraitzen eutsan. 2 Orduan, legenardun bat urreratu yakon, eta, Aren aurrean belaunikoturik, arek auxe esan eutsan: “Jauna, nai badozu, garbitu naikezu geiso tik.” 3 Jesusek eskua luzatu eta ikutu egin eban,

esanez: “Nai dot. Garbi geratu zaitez.” Eta bat-batean, legenarduna garbi geratu zan. 4 Eta Jesusek ari: “Begira: ez esan ori iñori be; baiña zoaz, aurkeztu zaitez abadeagana eta eskiñi egizu Moisesek agindutako opari-gaia. Orrela, guztiak izango dabe zure osatzearen agiria.”

Kapitanaren morroia osatzen dau (Lk 7, 2-10; Jn 4, 46-54)

5 Jesus Kafarnaunen sartu zanean, erromatar gudarozteko kapitan bat urreratu yakon erreguka: “Jauna, nire morroia etxean elbarrituta dago, oiñaze gorritan.” 7 “Neu joango naz eta neuk osatuko dot”, esan eutsan Jesusek. 8 Baiña kapitanak auxe erantzun eutsan: “Jauna, ni ez naz duin zu neure etxean sartu zaitezkan. Baiña esan egizu berba bat eta nire morroia osatu egingo da. 9 Izan be, neu be neure nagusien menpean nago, eta neuk be gudariak dodaz nire agindupean. Areitariko bati ‘Zatoz’ badirausat, etorri egiten da; eta nire morroiari ‘Au egizu’ badirausat, egin egiten dau.”

10 Ori entzutean, Jesus ikaratuta geratu zan. Eta berari jarraitzen eutsoenai auxe esan eutsen: “Benetan diraustuet: orrenbesteko sinismen berorik ez dot Israelen iñogan be aurkitu. 11 Eta auxe diraustuet: asko etorriko dira eguzki-sortzaldetik eta sartzaldetik, eta Abraham, Isaak eta Jakobegaz jesarriko dira maian Jaungoikoaren erreñuan. 12 Erreiñurako leenen deituak, ostera, kanpora, illunpetara izango dira jaurtiak. An negar egingo dabe eta agiñak karraska egingo dautsee.”

13 Gero, Jesusek kapitanari auxe esan eutsan: “Zoaz etxera eta sinistu dozunez egin daitela.” Eta, une aretan, morroia osatuta geratu zan.

Pedroren amagiñarreba osatzen dau (Mk 1, 29-31; Lk 4, 38-39)

14 Jesusek, Pedroren etxera eltzean, onen

amagiñarreba ogean aurkitu eban, beroenaz. 15 Jesusek eskua ikutu eutsan eta beroenak alde egin eban aregandik. Eta andrea jagi eta zerbitzen asi yakon.

Beste osatze batzuk (Mk 1, 32-34; Lk 4, 40-41)

16 Illuntzean, deabrudun asko ekarri eutsuezan Jesusi. Onek, berba batatz, espiritu gaiztoak jaurti eta geiso guztiak osatu egin ebazan. 17 Alantxe bete zan Isaias profetak iragarri izan eban au:

Gure argaltasunak bere kontartu ebazan eta geure geisoak eroan.*

Jesusen jarraitzaileak (Lk 9, 57-62)

18 Jesusek, bere inguruan laguntalde andia ikusirik, beste aldeko itsasertzera eroan egiela agindu eban. 19 An, Lege-irakasle batek, Jesusegana urreraturik, auxe esan eutsan: "Irakasle, gertu nago zu joan zaitez an edonora zeuri jarraitzeko." 20 Eta Jesusek ari: "Azeriak euren gordelekuak daukez, eta txoriak abiak; Gizaseme one, barriz, ez dauko burua non ezarri be."

21 Bere ikasleetariko beste batek auxe esan eutsan: "Jauna, laketu egidazu leenen neure aita illobiratzera joaten." 22 "Zatoz neugaz—erantzun eutsan Jesusek—, eta itzi egie ildakoai euren ildakoak illobiratzan."

Ekatzia, baretuta (Mk 4, 35-41; Lk 8, 22-25)

23 Orduan, Jesus txalupara igo zan, bere ikasleak lagun ebazala. 24 Bat-batean, itsasoan ikaragarritzko aize-boladea sortu zan, olatuak txalupea estaltze-ragiño. Jesus, barriz, lo egoan. 25 Ikasleak, Aregana urreraturik, iratzartu egin eban: "Jauna, salbatu gagizuz! Ondoratzeko zorian gagoz!" 26 Eta Jesusek arei: "¿Zeren bildur zaree? ¿Non dago zuen sinis-

mena?" Orduan, Jesusek, zutundurik, aizeari ta olatuak agiraka egin eutsen, eta itsasoa bare-bare geratu zan. 27 Eta ikasleak, ikaratuta, auxe iñoen: "¿Nor da au, aizeak eta itsasoak be esana egiten dautsoe-ta?"

Gadarako deabrudunak
(Mk 5, 1-20; Lk 8, 26-39)

28 Jesus beste itsasertzera, Gardarako* lurraldera, eldu zanean, deabrudun* bi, illobietatik urtenda, bidera urten yakozan. Biak deabruak artuta egozan; gaiztoak be gaiztoak ziran, bide aretatik igaroteko adorerik iñok be ez izateraiño. 29 Deardarka asi ziran: "Baketan itzi gagizuz, Jaungoikoren Seme orrek! Sasoa baiño leen guri oiñazeakartera etorri zara ona?"

30 Andik ur, txarri-pillo andi batek larratzen ziarduan. 31 Eta deabruak erregu au egin eutsoen Jesusi: "Kanpora jaurtiten bagaitzuz, bialdu gagizuz txarri-pillo orregana." 32 "Joan zaitez orra", esan eutsen Jesusek. Deabruak urten eta txarriakan sartu ziran, eta, bat-batean, txarri-pilloa aldapa-beera itsasora amildu eta an ito egin zan.

33 Txarriazaiñak iges egin eban, eta, errira eltzean, deabrudun arei jazo izan yaken guztia azaldu eban. 34 Orduan, erriko laguntaldea Jesusen billa joan zan, eta, Jesus ikustean, lurralde aretatik alde egiteko erregutu eutsoen.

Jesusek elbarridun bat osatzen dau
(Mk 2, 2-12; Lk 5, 17-26)

9 1 Orren ostean, Jesus txalupara biurtu, itsasoan zear joan eta bera bizi zan urira* eldu zan. 2 An elbarridun bat eroan eutsoen, ogetxoan etzunda; eta Jesusek, gizona eroien sinismena ikusirik, "Izan egizu adorea, seme —esan eutsan elbarridunari—. Zure pekatuak parkatuta geratzen dira."

3 Orduan, Lege-irakasle batzuek eurekautan

auxe esan eban: "Biraoka diardu onek." Baiña Jesusek, arein bururapenak ulerturik, auxe esan eutsen: "¿Zegaitik dozuez orrelako bururapen gaiztoak? 5 ¿Zer da errazago, Zure pekatuak parkatuta geratzen dira' esatea, ala 'Jagi ta zoaz' esatea? 6 Gizaseme onek mundu onetan pekatuak parkatzeko aginpidea badaukala egiaztu bear dautsuet." Eta elbarridunagana biururik, "Jagi zaitez —esan eutsan—, artu zure ogetxoa ta zoaz etxera." 7 Eta gizona jagi eta bere etxera joan zan.

8 An egozanak, ori ikustean, bildurtuta geratu ziran, eta Jaungoikoa goratu eban, gizonai ainbeste-ko aginpidea emon izan eutselako.

Mateori deia (Mk 2, 13-17; Lk 5, 27-32)

9 Jesusek bere bideari jarraitu eutsan. Andik igarotean, Mateo izeneko gizon bat dirubatzemaian jesarrita ikusi eban, eta, "Zatoz neugaz", esan eutsan. Eta Mateo zutundu eta Jesusegaz joan zan.

10 Geroago, Jesus bere ikasleak Mateoren etxera bazkaltzera joan zan; eta diru-batzaille ta entzute-txarreko asko be, arekaz batera, maian jarri ziran. 11 Parastarrak, ori ikusirik, ikasleak auxe itandu eutsoen: "Zuen Irakasleak, ¿zegaitik jaten dau diru-batzaille ta entzute-txarreko* gizonakaz?" 12 Jesusek, ori entzutean, auxe esan eutsen: "Osasundunak ez dabe osagillerik bear, geisoak baiño. 13 Zoaze ikastera arelako a zer dan: *Nik ez dot nai zuen opari-eskintzarik, errukioarrak izan zaitezela baiño**. Ni ez naz zintzoai dei egitera etorri, pekatariak baiño."

Baraua zala-ta (Mk 2, 18-22; Lk 5, 33-39)

14 Orduan, Joan Bateatzaillearen ikasleak urreratu yakozan Jesusi eta auxe itandu eutsoen: "Guk eta parastarrak barau egiten dogu sarritan; eta zure ikasleak, ¿zegaitik ez dabe baraurik egiten?" 15 Eta Jesusek arei: "¿Biotz-minduta egon ete-daitezke

eztegurako deituak, ezkonbarria eurakaz dagoan artean? Etorriko da, bai, ezkonbarria kenduko yaken eguna; orduantxe egingo dabe barau. 16 Iñok ez dautso soiñeko zaarrari oial gogorrezko ipingirik ezarten; izan be, ezarritako txatalak soiñekoa urratu egiten dau, eta tarratada andiagoa egiten da. 17 Zaragi zaarretara be ez da ardao barririk botaten; izan be, zaragiak lertu eta zaragiak eta ardao ondatu egiten dira batera. Ardao barria zaragi barrietara bota bear da, biak iraun dagien."

Andikiaren alabea. — Emakume geisoa
(Mk 5, 21-43; Lk 8, 40-56)

18 Jesusek orrela berba egiten eutsen artean, andiki bat urreratu yakon, eta, Aren aurrean be-launikoturik, auxe esan eutsan: "Oraintxe il yat alabea; baiña zeu bazatoz eta zuk eskua gaiñean ipinten badautsazu, barriro bizi izango da." 19 Jesus jagi eta bere ikasleakaz batera aregaz joan zan.

20 Bitartean, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume batek, Jesusegana atzetik urreraturik, soingaiñeko-ertza ikutu eutsan; 21 Soingaiñekoa ikutzen badautsat ikutu bakarrik, osatu egingo naz', iñoan berekautan-eta. 22 Baiña Jesusek, atzeruntz biururik eta emakumea ikustean, "Izan adorea, emakume! —esan eutsan—. Zeure sinismenagaitik geratu zara osatuta." Eta emakumea, une aretan bertan, osatuta geratu zan.

23 Andikiaren etxera eldu zanean, illetarako gertu egozan soiñulariak* eta erostaka ziarduan laguntaldea ikusirik, 24 "Alde emendik! —esan eban Jesusek—. Neskatilea ez dago ilda; lo dago!" Ori entzutean, guztiak barre egin eban Jesusen lepotik; 25 baiña, laguntaldeari alde eraginda, Jesus barruan sartu zan, eta, neskatileari eskutik oraturik, neskatilea jagi egin zan. 26 Eta jazoriko onen barria errialde guzti aretan zabaldu zan.

Jesusek itsu bi osatzen dauz

27 Andik urteteen, itsu bik jarraitu eutsen, deadarka iñoela: "Erruki izan zakiguz, Dabiden Seme ori!" 28 Etxean sartu zanean, itsuak urreratu egin yakozan; eta Jesusek auxe itandu eutsen: "¿Nik ori egin daikedala sinisten dozue zuek?" "Bai, Jauna", erantzun eutsen areik. Orduan, arei begiak ikutu eutsezan eta auxe esan eutsen: "Sinistu dozueenez jazo bekizue." 30 Eta arein begiak osatuta geratu ziran. Jazo izan zan ezer be iñori ez esateko agindu eutsen Jesusek; 31 baiña areik, urtenda batera, barria errialde guzti aretan zabaltzen asi ziran.

Jesusek mutu bat osatzen dau

32 Itsuak bayoiazala, batzuek, Jesusegana urreraturik, deabrudun mutu bat ekarri eutsen. 33 Jesusek deabru a jaurtita batera, mutua berba egiten asi zan. Eta ori ikusi ebenak, arrituta, auxe iñoen: "Orrelako antzekorik ez da iñoiz be ikusi Israelen!" 34 Parastarrak, ostera, auxe iñoen: "Deabruen nagusiak berak emoten dautso orri deabruak jaurtiteko indarra."

Solo-aria, ugari; baiña langilleak, gutxi (Mk 6, 34; Lk 10, 2)

35 Jesus erri ta auzuna guztietan ebillen, sinagoga bakotxean irakasten. Erreiñuko barri ona iragarten eban eta edozetariko geiso ta gaitz guztiak osatu egiten ebazan. 36 Eta, laguntalde guzti a ikustean, erruki izan yaken, gogo-illun eta jausiak egozan-eta; artzain bagariko ardiak zirudien. 37 Orduan, bere ikasleai auxe esan eutsen: "Solo-aria ugaritsua da, baiña langilleak gutxi dira. 38 Eskatu egiozue, ba, solo-ariaren jabeari, bere solora langilleak bialdu dagizala."

Jesusek amabi apostoluak aukeratu (Mk 3, 13-19; Lk 6, 12-16)

10 1 Jesusek, bere amabi ikasleak baturik, espiritu zikiñak* jaurtiteko eta edozetariko geiso ta gatxak osatzeko aginpidea emon eutsen.

2 Oneixek dira amabi apostoluen izenak: leenen, Simon —Pedro (Arria) deritzona—, eta Ander, Pedroren anaia; Zebedeoren semeak: Santiago ta onen anai Joan; 3 Felipe, Bartolome, Tomas, eta Mateo diru-batzaillea; Santiago, Alfeoren semea, eta Tadeo; 4 Simon Kanaandarra, eta Judas Iskariote, gero Jesus saldu ebana.

Amabi apostoluen egikizuna (Mk 6, 7-13; Lk 9, 1-6)

5 Jesusek amabiok bialdu ebazan, arei urrengo irakaspenak emonda gero: "Ez joan jentillen errialdeetara, eta Samariako* errietan be ez sartu; 6 zoaze, bai, Israelgo ardi galduen billa. 7 Zoaze ta Jaungoikoaren erregetza* onezkero ur dagoala iragarri egiezue. 8 Osatu egizue geisoak, biztu ildakoak, garbitu legenardunak euren geisotik, jaurti deabruak. Baiña guztia utsean egizue, aal-izatea be utsean artu dozue-ta.

9 "Ez eroan urerrik, ez zidarrik, ez dirurik sakelean; 10 ezta biderako zorrerik be, ez soiñeko bi, ez zapatarik, ez makillarrik: lan egiten dauanak bere lan-saria jasoteko eskubidea dauko-ta.

11 "Erri edo auzunaren batera eldu zaitezenean, itandu egizue aukerakorik an nor izan leitekean, eta geratu aren etxean, toki aretatik urten arte. 12 Eta etxean sartu zaitezenean, agurtu egizuez angoak, arei bakea opa izanik. 13 Areik bakea* merezi badabe, zuen agurraren bakea arekaz geratuko da; eta bakerik merezi ez badabe, bakea zeuekana biurtuko da. 14 Eta iñok artu nai ez bazaitue, ezta zuen barbarik be entzun nai ez badabe, orduan itzi egizue etxe edo erri a eta astindu zuen oiñetan itsasita dagoan autsa. 15

Benetan dirautsuet: Sodoma ta Gomorra erri ori baiño errukiorrago izango dira erabiliak.

Aurrean erabiliak (Mk 13, 9-13; Lk 21, 12-17)

16 "Ardiak otso-artera lez bialtzen zaituet. Orregaitik, sugeak baizen maltzurak izan zaitezue, baiña usoak baizen lauak be bai. 17 Zaindu zuen bu-ruak gizonakandik, agintarien* eskuetan itziko zaitue eta sinagogetan zigorkadak emongo dautsuez-ta. 18 Nigaitik, agintari ta erregeen aurrera eroango zaitue, arein eta jentillen aurrean zeuen testigantza egin dagizuen. 19 Baiña agintarien eskuetan itzi zagiezenean, ez arduratu zelan egingo dozuen berba edo zer esango dozuen, une aretan Jaungoikoak berba egokiak emongo dautsuez-ta. 20 Berba egingo dozuenak ez zaree zuek izango: zeuen Aitaren Espirituak egingo dau berba zuen ordez.

21 "Anaiak bere anaia salatuko dau eriotzarako. Aitak bere semea salatuko dau, eta semeak euren gurasoen aurka jagiko dira eta il egingo dabez. 22 Guztiak gorroto izango dautsue nigaitik; baiña azkenerarte sendo iraun dagiana, orixe salbatuko da.

23 "Uri bate(ta)n aurrean erabili zagiezenean, iges egizue beste batera; benetan dirautsuet: zuek Israelgo uri guztietan zear ibili baiño leen etorriko da Gizaseme au.

24 "Ikaslea ez da bere irakaslea baiño geiago, ezta morroia be bere ugazaba baiño geiago. 25 Ikasleak naikoa dau bere irakaslea lakoa izateaz, eta morroiak bere ugazaba lakoa izateaz. Etxeko ugazabari izena Beeltzebul ezarri badautsoe, ¿zer ez dautsee ezarriko aren etxeokoi?

Nori izan bildur (Mk 8, 38; Lk 12, 2-9)

26 "Ez izan gizonai bildurrik. Izan be, ezer be ez dago estalduta, agiri izango ez danik; ezta gordeta be, jakingo ez danik. 27 Nik illunetan dirautsuedana,

esan egizue zuek egunaren argitan; eta isilpean entzuten dozue, etxe-gaiñetatik* iragarri egizue.

28 "Ez izan bildurrik gorputza il eta arimea ezin il daikenai. Gorputza ta bizia lezan ondatu daikenai, bai, orri bildur izan egiozue.

29 "¿Ez ete-dira txori bi diru apur bate(ta)n saltzen? Alan be, areitariko bat bera be ez da lurrera jausten zuen Aitak laketzen ez badau. 30 Zuei buruz, uleak be zenbatuta daukazue banan-banan. 31 Ez izan, ba, bildurrik; txori guztiak baiño geiago balio dozue zuek.

Alde ala aurka

32 "Gizonen aurrean neure alde agertu daiten edonor, neu be aren alde agertuko naz zeruko nire Aitaren aurrean. 33 Eta, okerretara: norbaitek gizonen aurrean ukatzen banau, neuk be alakoa ukatu egingo dot zeruan dagoan nire Aitaren aurrean.

Jesus dala-ta, banakuntza

(Lk 12, 51-53; 14, 26-27) 34 "Ez uste izan mun uari bakea ekartera etorri nazanik. Ez naz bakea ekar era etorri, gudua ekartera baiño! 35 Izan be, ezta aidea sortzera etorri naz, semea bere aitaren aurka artera, alabea bere amaren aurka jartera, eta errana bere amagiñarrebaren aurka jartera; 36 eta bakotx ren arerioak bere txekoak eurak izango dira.

37 "Bere aita naiz ama, ni baiño geiago maite dauana, ez da niretzako duin. Bere semea naiz alabea ni baiño geiago maite dauana, ez da niretzako duin. 38 Eta niri jarraitzeko, bere gurutzea artzeko gertu ez dagoana, ori be ez da niretzako duin. 39 Bere bizia onik atara nai dagianak, galdu egingo dau; baiña bere bizia neugaitik galdu dagianak, aurkitu egingo dau.

Sariak (Mk 9, 41)

40 "Norbaitek zuek onartzea, neu onartzea lez

da; eta norbaitek ni onartzea, ni bialdu nauan A onartzea lez da. 41 Profeta bat profeta dalako onartzen dauanak, profetari dagokion saria izango dau; eta gizon zuzen bat gizon zuzena dalako onartzen dauanak, gizon zuzenari dagokion saria izango dau.

42 "Eta nire ikasleatariko txikienari, neure ikasle dalako, edontzi bete ur otz emon dagiona, benetan dirautsuet: ez da alakoa sari bagarik geratuko."

11 1 Bere amabi ikasleai irakaspenok emonda gero, Jesus andik lurraldeko errietan mandatua irakastera ta iragartera joan zan.

Joan Bateatzaillearen itauna(Lk 7, 18-35)

2 Joan Bateatzailleak, kartzelan egoala, Kristoren egintzak entzun ebazan, eta bere ikasle batzuk bialdu utsazan, 3 Ari itaun au egitera: "¿Zeu zara etortekoa*, ala beste baten zain egon bear dogu?" 4 Eta Jesusek arei: "Zoaze barrero Joanegana eta esan egiozue ikusten eta entzuten diarduzue: 5 itsuak ikusi egiten dabe, errenak badabiz, legendar-dunak garbi geratzen dira euren geisotik, gorrak entzun egiten dabe, illak biztu egiten dira, eta beartsuak salbamen-mandatu iragarten yake. 6 Eta zorionekoak, nigan galdubiderik artu ez dagienak!"

7 Joanen mandatariak joan ziranean, Jesus laguntaldeari Joani buruz berba egiten asi yakon. Auxe iñoan: "Basamortuan Joan ikustera urten zintzazenean, ¿zer uste zenduen aurkitzea? Aizeak darabilen kaiñaberaren bat? 8 ¿Apain-apain jantzitako gizonen bat uste zenduen aurkitzea? Dotore ta apain jazten diranak errege-jauregietan bizi dira! 9 ¿Zer uste zenduen aurkitzea, bestela? ¿Profetaren bat? Bai orixe, benetan dirautsuet: profeta baiño geiago be bai. 10 Joani buruz diño Liburu Santuak urrengo au: *Neure mandataria bialtzen dot zure aurrean, bidea atondu dagitzun* *. 11 Benetan dirautsuet: ez dago Joan baiño gizon andiagorik; alan be, Jaungoikoaren erreñuan txikiena, a baiño andiagoa

da.

12 "Joan Bateatzaillea etorri zanetik orain arte, Jaungoikoaren erregetzak eraso artzen dau. Indartsuak nai dabe aren jabe egin. 13 Izan be, profeta guztiak eta Moisesen legeak erregetza au iragarri eben, Joan etorri arte. 14 Eta Joan, ain zuzen be, Elias da, etorteko zan profeta. 15 Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala.

16 "¿Noren parean jarriko dot oraingo laguntalde au? ¿Noren antzekoa da? Kalean jesarten diran mutikoen antzekoa izan daiteke, alkarri deadarka dirautsoela: 17 'Guk txilibitua jo dautsuegu, eta zuek ez dozue dantzaz egin nai izan; guk negar-soiñuak abestu dautsueguz, eta zuek ez dozue negar egin nai izan!' 18 Izan be, etorri zan Joan Bateatzaillea, jan-edan egiten ez ebala, eta 'Orrek deabrua dauko barruan' esan eben aretzaz. 19 Baiña gero Gizaseme au etorri da, jan-edan egiten dauala, eta, 'Au, jatun eta moskorra da, diru-batzaille ta entzute-tzarrekoen adiskidea', diño. Baiña jakiturari bere egiñak emoten dautsoe izen ona."

Galleako errien aurka(Lk 10, 13-15)

20 Jesusen miraririk geienak ikusi izan ebezan erriak ez ziran onbideratu. Orduan, ori aurpegira jaurtiten asi yaken Jesus: 21 "Ai zu, Korazain! Ai zu, Betsaida!* Zuen erdian egin diran mirariak Tiron eta Sidonen* egin balitzaz, arein bizilagunak aspaldian onbideratuko litzakezan, eta ori doluz eta errautsez* agertuko leukeen. 22 Beraz, badirautsuet: auzi-egunean, Tiro ta Sidon zuek baiño errukiorrago erabiliko dabez. 23 Eta zuk, Kafarnaun, ¿zeruraino igoko zareala uste dozu? Lezaraino jausiko zara! Izan be, zukan egin diran mirariak Sodoman egin balitzaz, ez zan Sodoma ondatur izango. 24 Beraz, badirautsuet: auzi-egunean, Sodoma zu baiño errukiorrago erabiliko dabe."

Mesiasen apaltasuna(Lk 10, 21-22)

25 Aldi aretan, Jesusek auxe esan eban: "Aita, zeru-lurren Jauna, eskerrak emoten dautsudaz guzti au jakitunai ta ikasiai estaldu eta persona lau ai agertu dautsezulako. 26 Bai, Aita, zuk orrelaxe izan dozu nai.

27 "Nire Aitak dana erakutsi daust*. Semea nor dan, Aitak bakarrik daki; Aita nor dan, Semeak bakarrik daki eta Semeak agertu nai dagionak. 28 "Zatoze neugana, nekatuta eta sortaz makurtuta zagozen guztiok, eta nik atsedena emongo dautsuet! 29 Ipiñi egizue buztarria zuen gaiñean, eta ikasi nigandik, biotzez laua ta apala naz-ta! Orrela, atsedena aurkituko dozue zuen espirituarentzat; 30 izan be, nire buztarria, eroateko erraza da, eta nire sorta, ariña."

Jaiegunez artutako galburuak (Mk 2, 23-28; Lk 6, 1-5)

12 1 Aldi aretan, Jesus gari-soloetan zear yoian, jaiegunez. Aren ikasleak gose izan ziran, eta galburuak artu eta garauak jaten asi ziran. 2 Parastarrak, ori ikustean, Jesusi auxe esan eutsen: "Begira: zure ikasleak jaiegunez bidezko ez dana egiten diardue." 3 Eta Jesusek arei: "¿Ez al-dozue irakurri Dabidek egin ebana, bera ta bere lagunak gosetu ziranean? 4 Jaungoikoaren etxean sartuta, eskintza-ogietatik jan eben, berak eta bere lagunak ezin jan egikeezanak, abadeak bakarrik baiño. 5 Ala, ¿ez dozue Moisesen legean irakurri, abadeak ez dabela pekatu egiten, jauretxean jaiegunez lan egiñarren? 6 Begira, ba: badago emen jauretzea baiño zerbait andiago dana. 7 Zuek ez dozue ulertu zer adierazoten dauan arélako arek: *Nik ez dot eskintza-oparirik nai, errukiorrak izan zaitezela baiño* *. Ori ulertu bazenduen, ez zeukeezan errubageak galduko. 8 Gizaseme au jaiegunaren Jaun da-ta."

Gizon esku-igarra(Mk 3, 1-6; Lk 6, 6-11)

9 Jesusek, bere bideari jarraiturik, uriko sinagogan sartu zan. 10 Eskua igartuta eukan gizon bat egoan an; eta, Jesus salatzekeo zerbaiten billa ziar-duenak, Jesusi auxe itandu eutsen: "¿Bidezko da jaiegunez osatzea?" 11 Eta Jesusek arei: "Zuetariko norbaitek, ardi bakarra eukirik, jaiegunez osin batera jausten bayako, ¿ez ete-dau andik atarako? 12 Eta gizonak ardiak baiño askozaz geiago balio dau. Beraz, bidezko da jaiegunez on egitea."

13 Orduan, "Zabalduegizu zure eskua", esan eutsan geisoari. Arek zabaldu egin eban, eta osatuta geratu yakon, beste eskua lez.

14 Alan be, parastarrak, urtetean, Jesus ilteko erea asmatzeko batu ziran.

Jaungoikoaren morroia

15 Jesusek, ori jakitean, alde egin eban andik. Askok jarraitzen eutsen, eta geisorik egozan guztiak osatu egiten ebazan; 16 baiña Bera nor zan ez egiela agirian jarri be agintzen eutsen. 17 Olantxe bete zan Isaias profetak iragarri izan eban au:

18 *Auxe da nire morroia, nik aukeratu nebana; maite dot nik eta bera da nire poz guztia.*

Neure espiritua emongo dautsat nire zuzentasuna mundu guztiari iragarri dagion.

19 *Ez dau inogaz eztabaidarik izango, ezta deadarrik be atarako; inok ez dau kalean aren berbotzik entzungo.*

20 *Ez dau ausiko kaiñabera brintzatua, kea dariola dagoan argizaria be ez dau atzamatuko, zuzentasuna garaipenera eroan arte.*

21 *Arexegan jarriko dabe erri guztiak euren itzaropena* *.

Jesus eta Beeltzebul
(Mk 3, 20-30; Lk 11, 14-23; 12, 10)

22 Orduan, itsu ta mutua zan deabrudun bat eroan eben Jesusen aurrera. Jesusek osatu egin eban, mutuak berba ta ikusi egiten ebala. 23 Ori ikusi eben guztiak arrituta iñoen: "¿Au ete-da, ba, Dabiden Semea?" 24 Baiña parastarrak, ori entzutean, auxe esan eben eurekautan: "Beeltzebulek, orren nagusiak, deabruak jaurtiteko aal-izatea emoten dausalako jaurtiten dauz orrek deabruak." 25 Baiña Jesusek, arein bururapenak baekizan ezkerro, auxe esan eusen: "Taldeka bananduta dagoan erriak, bere burua ondatzen dau. Eta taldeka bananduta dagoan uriak naiz sendiak (*familiak*), ezin irauñ daike zutunik. 26 Satanasek Satanas jaurtiten badau, bere buruaren aurka dago bananduta; ¿zelan irauñ dau, ba, aren aal-izateak? 27 Eta deabruak jaurtiteko indarra Beeltzebulek emoten badaust, ¿nok emoten dautse indarra zuen jarraitzailei eurai? Eurak dira zuen errakuntzaren agiria! 28 Baiña, nik deabruak Jaungoikoaren Espirituaren aal-izatez jaurtiten badodaz, agirian dago Jaungoikoaren erregetza etorri yatzue-na.

29 "¿Nor sartu daiteke gizon indartsu baten etxean eta onen ondasunak zelan ostu daike, leenen indartsua lotzen ez badau? Olantxe bakarrik ustu aal izango dau aren etxea.

30 "Nire alde ez dagoana, neure aurka dago; nigaz batzen ez dauanak, sakabanatu egiten dau.

31 "Orregaitik, badirautsuet: gizonai euren pekatu guztiak eta birao guztiak parkatuko yakez. Parkatuko ez yakena, Espiritu Santuaren aurkako biraoa da. 32 Norbaitek Gizasemearen aurka berba egiten badau be, alakoari parkatu egingo yako; baiña, Espiritu Santuaren aurka berba egin dagianari, ez mundu onetan ez gerokoan ez yako parkatuko."

Zugatza eta frutua (Lk 6, 43-45)

33 "Egizue zugatz ona dala, eta aren frutua be ona izango da; eta egizue zugatz txarra dala, eta aren frutua be txarra izango da. Frututik ezagutzen da zugatza zelakoa dan. 34 Sugekumeok! ¿Zelan izan daiteke ona zuek doñozuena, zuek bazaree gaiztoak? Biotzari gaiñez dariona diño agoak-eta. 35 Gizon onagandik, ontasunez aberatsa dan ezkerro, ona sortzen da; baiña gizon gaiztoagandik, gaiztakeriz aberatsa dan ezkerro, txarra sortzen da. 36 Badirautsuet: alperrik esandako berba guztien kontua emongo dau bakotxak auzi-egunean. 37 Izan be, zeure berbak dirala-ta izango zara epaitua eta zintzotzat ala erruduntzat artua."

Ezaugarri miragarri baten eske
(Mk 8, 11-12; Lk 11, 29-32)

38 Aldi aretan, Lege-irakasle ta parastar batzuek auxe esan eutsoen Jesusi: "Trakasle, ezaugarri miragarri bat egiten ikusi nai zendukeyuz." 39 Eta Jesusek arei: "Zuek bai gaiztoak eta sinisbageak! Ezaugarri miragarri bat eskatzen dozue, baiña Jonas profetarena baiño beste ezaugarririk ez dozue izango. 40 Izan be, Jonas iru egunez eta iru gabez arrain andiaren sabelean egon zanez, Gizaseme au be iru egunez eta iru gabez egongo da lurraren sakonean. 41 Ninibeko bizilagunak, auzi-egunean, laguntalde guzti onegaz batera jagirik, laguntalde au galdu egingo dabe: Jonasen mandatua entzutean, areik onbideratu egin ziran-eta. Ona emen, barriz, Jonas baiño zerbait geiago dana! 42 Egoaldeko erregiñak, auzi-egunean, laguntalde guzti onegaz batera jagirik, laguntalde au galdu egingo dau: Salomonen jakituria entzuteran, erregiña ori urriñeko lurraldeetatik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon baiño zerbait geiago dana!

Espiritu zikiña (Lk 11, 24-26)

43 "Espiritu zikiña, gizonagandik urtetan danean, toki legorretan zear atsedan-billa ara-onaka ibiltan da, baiña ez dau atsedan aurkitzen. 44 Orduan, Urten nintzan neure etxera joango naz barriro, dirautso bere buruari. Ara eltzean, utsik, garbi ta apain aurkitzen dau. 45 Orduan, badoa, eta beste zazpi deabru, bera baiño gaiztoagoak baturik, guztiak batera antxe sartzen dira, bizi izatera; eta gizon orren azkenaldia asierakoa baiño txarragoa da. Orixek jakoko yako laguntalde gaizto oni be."

Jesusen ama ta senideak
(Mk 3, 31-35; Lk 8, 19-21)

46 Jesusek arteetan berba egiten ziarduala, Aren ama ta senideak eldu ziran. Kanpokaldean geratu ziran, baiña Jesusegaz berba egin nai eben.

47 [Norbaitek Jesusi auxe esan eutsan: "Zure ama ta senideak or kanpoan dagoz, eta zugaz berba egin nai dabe.']* 48 "¿Nor da nire ama eta nortzuk dira nire senideak?", erantzun eban Jesusek.

49 Eta eskua bere ikasleakana luzaturik, auxe esan eban: "Oneixek dira nire ama ta nire senideak. 50 Izan be, zeruan dagoan nire Aitaren naia egiten dauan edonor, orixek da nire anaia, eta nire arrebea, eta nire ama."

Ereillearen ipuiña (Mk 4, 1-9; Lk 8, 4-8)

13 1 Egun aretan, Jesus etxetik urten eta itsasertzean* jesarri zan. 2 Eta inguruan laguntalde andia be andia batu yakon, txalupa batera igo ta bertan jesarri bear izateraiño, bitartean laguntalde itasertzean geratzen zala. 3 Orduan, Jesus arei gai asko esatan asi yaken, ipuiñen bidez. Auxe esan eutsan:

"Bein, ereille bat ereitera urten zan. 4 Azia jaurtikeran, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran; eta txoriak, ara eldurik, jan egin ebezan. 5 Beste azi batzuk

lur askorik ez eukan arri-artean jausi ziran; eta, lurrak sakonik ez eukan ezkerro, aziak berealaxe erne ziran; 6 baiña, eguzkia urtenda batera, legortu egin ziran; eta, zuzarrrik ez eukan ezkerro, igartu egin ziran. 7 Beste azi batzuk gardu-artean jausi ziran, eta garduak azi egin ziran eta ito egin ebezan. 8 Azkenez, beste azi batzuk lur emokorrean jausi ziran, eta frutua emon eben: galburu batzuek bateko eun, beste batzuek irurogei eta beste batzuek ogetamar. 9 Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala."

¿Zegaitik ipuiñetan? (Mk 4, 10-12; Lk 8, 9-10)

10 Ikasleak, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsoen: "¿Zegaitik egiten dautsazu berba laguntaldeari ipuiñen bidez?" 11 Eta Jesusek arei: "Zuei Jaungoikoak bere erregetzako ezkutak ezagutzen izten dautsue, baiña arei ez dautse izten. 12 Izan be, euki daukanari, geiago emongo yako, eta alakoak gaiñezka eukiko dau; ez daukanari, barriz, euki dagian gutxia be kendu egingo yako. 13 Orrexegaitik egiten dautset berba ipuiñen bidez. Izan be, begiraturaren be, ez dabe ikusten, eta adi-adi egonarren be, ez dabe entzuten, ez ulertzen. 14 Orrexekan beteten da Isaias profetak esan eban au:

*Entzungo dozue, baiña ez dozue ulertuko;
begiratuko dozue, baiña ez dozue ikusiko.*

15 *Erri onenbiotza gogortu egin da-ta.*

*Biotz-gogorak dira eta begiak itxita daukez
ez ikusteko, ez entzuteko, ez ulertzeko
eta nigana ez dagidazan*.*

16 "Zuei buruz, barriz, zorionekoak zaree, ikusi daikeen begiak eta entzun daikeen belarriak daukatzue-ta. 17 Benetan dirautsuet: zuek ikusten diarduzuena, profeta ta gizon zintzo askok gura izan eben ikusi, baiña ez eben ikusi; baita zuek entzuten diarduzuena be gura izan eben entzun, baiña ez eben

entzun.

Ereillearen ipuiña azaltzen dautse
(Mk 4, 13-20; Lk 8, 11-15)

18 "Entzun egizue ereillearen ipuiñak adierazoten dauana: 19 Badagoz erreñuko mandatu entzun bai eta aditzen ez dabenak; eta gaiztoak, etorrita, kendu egiten dautse biotzean ereindakoa. Bide-ondoan jausitako azia lez dira orreik. 20 Beste batzuk, arri-artean jausitako azia lez dira: mandatu entzun eta bereala pozik be pozik onartzen dabe; 21 baiña ez dauke zuztarrak eta aldakorrak dira; beraz, mandatu orregaitik larrialdi edo erasoaldiren batzuk eltzen yakezanean, orreik ezin irauan daikee zutik. 22 Beste batzuk, gardu-artean jausitako azia lez dira: mandatu entzun bai, entzuten dabe, baiña fruturik ekarri bagarik izten dautsoe ilten, bizitza onetako gora-beera ta irabazpideen ardurea bakarrik dabe-ta. 23 Baiña beste batzuek mandatu entzun eta aditu egiten dabe. Oneik, lur emokorrean jausitako azia lez dira, eta frutua dakarre: bateko eun, irurogei edo ogetamar."

Gari-arteko galbedarraren ipuiña

24 Gero, Jesusek beste ipuin au esan eutsen: "Jaungoikoaren erregetza, bere soloan azi ona erein eban gizonaren antzekoa izan daiteke. 25 Baiña gau baten, guztiak lo egozala, aren arerioa, etorri ta gari-artean galbedarra* ereinda, joan egin zan. 26 Garia erne eta galburua osotu zanean, galbedarra be agertu egin zan. 27 Orduan, morroiak, soloaren ugazabagana joanda, auxe esan eutsoen: 'Jauna, erein zenduan azia ona bazan, ¿zelan dago, ba, galbedarra soloan?' 28 'Ni maite ez nauan norbaitek egin dau ori', erantzun eutsen ugazabak. Eta morroiak ari: 'Ondo baderitzazu, galbedarra ataratera joango gara'. 29 'Ez egin ori orain —esan eutsen ugazabak—, galbedarra ataratearren, garia be atara ez

dagizuen. 30 Itzi bai galebaterarte batera azten. Orduan, leenen galbedarra ebagi dagiela esango dautset galepailleai, eta eskutatetan lotu dagiela, erreteko, eta gero garia neure garautegian gorde dagiela."

Moztaza-aziaren eta legamiñaren ipuiñak
(Mk 4, 30-34; Lk 13, 18-21)

31 Ipuin au be esan eutsen Jesusek:

"Jaungoikoaren erregetza, nekazariak soloan ereiten dauan moztaza-aziaren antzekoa izan daiteke. 32 Ain zuzen be, azi guztietarik txikiena da; baiña gero, ortuko beste landarak baiño geiago azten da eta zugatza lakoa egiten da, aren adarretan txoriak abiak egiteraiño."

33 Auxe be esan eutsen: "Jaungoikoaren erregetza, legamiñaren antzekoa izan daiteke: emakume batek legamiña iru urun-negurritan naastu eban, ora guztia jagi zeiten."

34 Jesusek ipuin guztiok laguntaldeari esan eutsazan, eta, ipuiñetan izan ezik, ez eutsen ezer esatan, 35 profetak iragarritako au bete zedin:

*Ipuiñen bidez egingo dot berba;
munduaren asierarik ezkutuan egon diranak
agirian jarriko dodaz*.*

Galbedarraren ipuiña azaltzen dau

36 Orren ostean, laguntaldea bialduta, Jesus etxean sartu zan. Bere ikasleak, Aregana urreraturik, auxe esan eutsoen: "Azaldu egiguzu gari-arteko galbedarraren ipuiñak adierazoten dauana." 37 Eta Jesusek arei: "Azi ona ereiten dauan nekazaria, Gizaseme au da; 38 soloa, barriz, mundua. Azi ona, erreñuko bizilagunak dira; galbedarra, barriz, Gaiztoaren jarraitzailleak. 39 Ugazabaren arerioa, galbedarra erein ebana, Deabrua da; galebatea, munduaren amaiera; eta galepailleak, aingeruak. 40 Galbe-

darra batu ta sutan erreten danez, alantxe jazoko da munduaren amaieran be. 41 Orduan, Gizaseme onek bere aingeruak bialduko dauz, eta oneik pekaturagilleak* eta gaiztakeria egiten dabenak batu eta Aren erreñutik baztatu egingo dabez. 42 Eta laba iziotura jaurtiko dabez; an negar egingo dabe eta agiñak karraska egingo dautsee. 43 Orduan, zintzoak eguzkia lez egingo dabe dizdiz euren Aitaren erreñuan. Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala.

Dirutzaren, pitxiaren eta sarearen ipuiñak

44 "Jaungoikoaren erregetza, landan gordetako dirutzaren antzekoa izan daiteke. Dirutza aurkitzen dauanak, leenen gorde egiten dau barriro; gero, pozez beterik, daukan guztia saldu eta landa a erosi egiten dau.

45 "Jaungoikoaren erregetza, pitxi ederren billa dabillen merkatariaren antzekoa be izan daiteke. 46 Balio andiko pitxi bat aurkitzen dauanean, daukan guztia saldu eta pitxi a erosi egiten dau.

47 "Jaungoikoaren erregetza, sarearen antzekoa be izan daiteke: sarea itsasora jaurtita, guztietariko arraiñez beteten da. 48 Sarea beteta dagoanean, arrantzaleak itsasertza ataraten dabe eta arraiñak aukeratzera jesarten dira: onak otzaretan batu eta txarrak jaurti egiten dabez. 49 Orrelaxe jazoko da munduaren azkenean be: gaiztoak zintzoen artetik banantzera urtengo dira aingeruak. 50 Eta gaiztoak laba iziotura jaurtiko dabez; an negar egingo dabe eta agiñak karraska egingo dautsee.

Gauza barriak eta gauza zaarrak

51 "¿Guzti au ulertu dozue?"; itandu eutsen Jesusek. "Bai", erantzun eben areik. 52 Eta Jesusek arei: "Zuen Lege-irakasleatariko norbait Jaungoikoaren erreñuko ikasle egiten danean, bere kutxetatik gauza barriak eta gauza zaarrak ataraten dauzan etxagunaren antzekoa da."

Jesus, baztartua Nazaretan
(Mk 6, 1-6; Lk 4, 16-30)

53 Ipuiñok amaitu ebazanean, 54 Jesus bere errialdera* joan zan. An, irakasten asi zan sinagogan, eta laguntaldeak, ikaratuta, auxe iñoan: "¿Zelan daki orrenbeste gizon onek? ¿Zelan egin daikez egiten dauzan mirariak? 55 ¿Au ez da, ba, arotzaren semea? ¿Maria ez da, ba, onen ama, eta onen anaiak Santiago, Jose, Simon eta Judas? 56 Eta onen arrebak be, ¿ez al-dira bizi, guztiak, emen gure artean? ¿Nondik ataraten dau, ba, guzti ori?" 57 Orrela, ba, Jesus areintzat galdubide zan. Orregaitik, Jesusek auxe esan eutsen: "Profeta dana toki guztietan onartzen dabe, bere errialdean eta bere etxean izan ezik."

58 Eta, laguntalde aren sinismen-egaitik, ez eban an mirari askorik egin.

Joan Bateatzaillearen eriotza
(Mk 6, 14-29; Lk 9, 7-9)

14 1 Aldi aretan, Erodesek, Galilean* jaurlari zala, Jesusi buruz berba egiten entzun eban; 2 eta auxe aitatu eutsen bere errege-etxeokoi: "Joan Bateatzaillea da ori; biztu egin da. Orregeaitik dauko mirariak egiteko aal-izatea."

3 Erodesek Joan atxillotu, katez lotu eta kartzelan sartu eban, bere anai Filiporen emazte zan Erodiasegaitik. 4 "Ez yatzu bidezko emaztetzat eukitea", esan izan eutsan Joaneke-eta.

5 Orregaitik, Erodesek Joani bizia kendu nai eutsan. Alan be, ez zan ori egiten azartzen, erriari bildur eutsan-eta; izan be, guztiak Joan profetatzat euken. 6 Baiña Erodesen urtebetete-egunean, Erodesen alabeak dantzan egin eban mai-lagunen aurrean. Erodes atsegin-bitsetan jarri zan, 7 eta berari eskatu egion guztia emongo eutsala agindu eutsan Erodesek, zin eginez. 8 Orduan, neskeak, amak eraginda, auxe esan eutsan: "Emon egidazu oraintxe, erratillu onetan, Joan Bateatzaillearen burua."

9 Eskabide orrek biotz-minduta jarri eban erregea; baiña, mailagunen aurrean egindako ziñagaitik berbatuta geratu izan zan ezker, Joanen burua neskeari emoteko agindu eban Erodese. 10 Joani kartzelan samea ebagitera bialdu ebazan, ba. 11 Berealaxe ekarri eutsoen burua neskeari erratillu baten, eta onek bere amari emon eutsan.

12 Orren ostean, Joanen ikasleak aren gorpua artu eta illobiratu egin eben. Gero, albistea Jesusi jakifierazotera joan ziran.

Jesusek bost millari emoten dautse jaten
(Mk 6, 30-44; Lk 9, 10-17; Jn 6, 1-14)

13 Jazorikoa jakinda, Jesus txalupara igo eta toki bate(ta)ra baztatu zan, bakarrean. Laguntaldeak, ori jakin ebanean, errietatik urtenda, jarraitu egin eutsan, oiñez, itsasertzean zear. 14 Jesusek, legorretzean eta laguntalde a ikustean, arei erruki izanik, osatu egin ebazan geisoak. 15 Arratsalde-beranduan, ikasleak, Aregana urreraturik, auxe esan eutsoen: "Ja berandu da eta toki onetan ez da iñor bizi. Bialdu egizu laguntaldea, jatekoa erostera auzunetara joan daitezcan." 16 "Ez dabe joan-bearrik —erantzun eusen Jesusek—. Zeuek emon egiezue jaten." Eta areik Jesusi: "Bost ogi ta arrain bi baiño ez daukaguz emen." "Ekarri egidazuez", esan eban Jesusek.

19 Laguntaldea bedar-gaiñean jesarteko agindu eban Jesusek. Gero, bost ogiak eta arrain biak artu ebazan, eta, zerura begiraturik, Jaungoikoari esker-rrak emon eutsazan, eta, ogiak eta arraiñak zatiturik, ikasleai emon eutsezcan, oneik laguntaldearen artean banatu egiezan. 20 Guztiak jan eben, ase arte, eta, geratu ziran ogi-zatiz, oraindiño be amabi otzara bete batu ebazan. 21 Jan ebenak, bost bat milla izan ziran, emakumeak eta urneak zenbatu bagarik.

Jesus ur-gaiñean ibiltzen
(Mk 6, 45-52; Jn 6, 16-21)

22 Gero, txalupara igo zeiteezala agindu eutsen

Jesusek bere ikasleai, beste itsasertzera bera baiño leen eldu zeiteezcan, berak laguntaldea bialtzen eban artean. 23 Laguntaldea bialduta gero, mendira igo zan, bakarrean otoitz egitera, eta, gaba eltzean be, antxe irauten eban.

24 Bitartean, txalupea legorretik oso urrin egoan eta olatuak indartsu jotzen eben, aizea aurretik etorkien-eta. 25 Gabeko iruretan-edo, Jesus arekanantz joan zan, itsas-gaiñean oiñez. 26 Ikasleak, Jesus itsas-gaiñean ibiltzen ikusi ebanean, zearo ikaratuta geratu ziran. Bildurrez beterik, "Mamua da!", egiten eben deadar 27 Orduan, Jesusek berba egin eta auxe esan eutsen: "Geldi!, neu naz. Ez bildurtu!" 28 Eta Pedrok Jesusi: "Jauna, zeu bazara, ur-gaiñean ibiltzen ni zukanaiño joateko agindu egizu." 29 "Zatoz", esan eutsan Jesusek.

Pedro, txalupatik zapart egiñik, ur-gaiñean ibiltzen asi zan, Jesuseganantz joateko. 30 Baiña, aizearen indarra somaturik, bildurra sartu yakon. Bereala ondoratzen asi zan, eta, "Jauna, salbatu nagizu!", esan eban Pedrok deadarka. 31 Jesusek, ari bereala eskua luzaturik, oratu eta auxe esan eutsan: "Zuk bai siniste otza! ¿Zegaitik egon zara ez baitan?"

32 Gero, txalupara igo ziran eta aizea gelditu egin zan. 33 Eta txalupan egozanak, gurtu egin eben Jesus, esanez: "Jaungoikoaren Semea zara zu benetan!"

Ainbat osatze Jenesareren(Mk 6, 53-56)

34 Itsasoan zear igarota, Jenesarereko legorrera eldu ziran. 35 Toki aretako laguntaldeak berealaxe ezagutu eben Jesus, eta Jesus antxe egoaneko albistea errialde guztian zabaldua batera, edozetariko geisoak ekarri eutsuezcan, 36 eta, besterik ezean, bere soingaiñeko-ertza ikutzen izteko eskatzen eutsoen. Eta ikutzen eben guztiak, osatuta geratzen ziran.

Ekanduen auzia(Mk 7, 1-23)

15 1 Jerusalemendik etorritako parastar eta Lege-irakasle batzuek, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsoen: 2 "Zure ikasleak, ¿zegaitik austen dabez gure asaben ekanduak? Jatera doazanean, ¿zegaitik ez dabe eskurik garbitzen?" 3 Eta Jesusek arei: "Zuek, barriz, ¿zegaitik austen dozuez Jaungoikoaren aginduak zeuen ekanduak jarraitzearen?" 4 Izan be, Jaungoikoak auxe esan eban: *Aintzat izango dozuz zure aita ta ama*; eta auxe be bai gaiñera: *Bere aita naiz ama madarikatu dagiana, eriotz-errudun izango da* *. 5 Zuek, ostera, auxe diñozue: norbaitek bere aitari naiz amari ba-dirautso: "Zeuretaz neukan laguntza-bidea, Jaungoikoari eskiñi dautsat", 6 orrek ez dau bere aita naiz ama lagundu bearrik. Orrela, zuen ekanduagaitik, Jaungoikoak erabagitekoko ez-ereztu egiten dozue zuek. 7 Itxurazaleok! Zuei buruz ederto iragarri eban aurretiaz Isaiasek, urrango au esan ebanean:

*8 Erri onek ezpenez kanpora goratzen nau,
baiña orrein biotz nigan dik oso urrin dago.
9 Alperrik gurtzen nabe,
giza-aginduak beteten bakarrik
irakasten dabe-ta* *."

10 Orren ostean, laguntaldea batu eta auxe esan eban Jesusek: "Entzun eta ulertu au: 11 agotik sartzen danak ez dau gizonik zikintzen. Agotik urteten danak, orrexek zikintzen dau benetan gizona."

12 Orduan, ikasleak, Jesusegana urreraturik, auxe esan eutsoen: "¿Ba-al dakizu parastarrak, zurē berbok entzutean, asarratu egin dirana?" 13 Eta Jesusek arei: "Zeruko nire Aitak sartu ez dauan edozein landara, atara egingo dabe zuztarretik. 14 Itzi egizuez: beste itu batzuk zuzentzen dabezcan ituak dira-ta. Eta itu batek beste itu bat zuzentzen badau, biak zulora jausiko dira."

15 "Azaldu egiguzu ipuin ori", eskatu eutsan

Pedrok Jesusi. 16 Eta Jesusek arei: "¿Zuek be ez zaree ulertzeko gauza? 17 ¿Ez al-dozue ulertzen, ba, agotik sartzen dana sabelera doana eta gero komunera joaten dana? 18 Agotik urteten dana, ostera, biotzetik dator, eta orrexek zikintzen dau gizona. 19 Izan be, biotzetik datoz asmo txarrak, giza-ilteak, ezkontzusteak, lizunkeriak, lapurretak, guzurrezko testigantzak, biraoak. 20 Guzti ori da gizona zikintzen dauana; eskuak garbitu bagarik jateak, ostera, ez dau iñor zikintzen."

Kanaandar emakumea(Mk 7, 24-30)

21 Jesus andik urten eta Tiro ta Sidon-alderantz joan zan. 22 Orduan, toki areitan bizi zan kanaandar emakume* bat bidera urten yakon deadarka: "Jauna, Dabiden Seme ori, erruki izan zakidaz! Nire alabea deabruak artuta dauko eta oiñaze gorritan dago."

23 Jesusek barbarik be erantzuten ez eutsan ezker, ikasleak, Aregana urreraturik, "Bialdu egizu —esan eutsoen—, gure atzean deadarka dator-eta." 24 Orduan, Jesusek arei: "Israel-erriko ardi galduek kana bakarrik bialdu nau Jaungoikoak."

25 Baiña emakumeak, Jesusen aurrean belau-nikoturik, errege au egin eutsan: "Jauna, lagun izan zakidaz!" 26 Eta Jesusek ari: "Ez dago ondo ogia semeai kendu eta txakurrai jaurtitea." 27 "Bai, Jauna, bai —erantzun eutsan emakumeak—; baiña txakur-rrak be euren jabeen maitik jausten diran ogi-apurrak jaten dabez." 28 Orduan, Jesusek ari: "Oso beroa da zure sinismena, emakume! Zeuk gura dozunez egin daitela!" Eta aren alabea, une aretan bertan, osatuta geratu zan.

Ainbat osatze

29 Orren ostean, Jesus andik Galileako itsasertzera* joan zan. Ara eldu zanean, mendira igo eta jesarri egin zan. 30 Bereala laguntalde andia asi zan batzen, eurakaz erren, elbarridun, mutu eta beste

geiso asko ekazela. Jesusen oiñetan jarri ebezan, eta Arek osatu egin ebazan guzti-guztiak. 31 Laguntaldea ikaratuta egoan, mutuak berba egiten ebela, elbarridunak osatuta geratzen zirala, errenak ibili egiten zirala eta itsuak ikusi egiten ebela ikustean. Eta goratu egin eben Israelen Jaungoikoa.

Jesusek lau milla baiño geiagori emoten dautse jaten (Mk 8, 1-10)

32 Jesusek bere ikasleai dei egin eta auxe esan eutsen: "Laguntalde oni erruki nakio. Iru egun badira emen neugaz dagozala eta ez dauke jatekorik. Ez dodaz baraurik bialdu nai, bidean ondezki jarri ez daitezan." 33 "Baiña toki oso bazartuan gagoz —esan eutsoen ikasleak—. ¿Nondik atarako dogu onenbesteko laguntalde au aseteko aiña ogi?" 34 "¿Zenbat ogi daukazue(z)?" itandu eutsen Jesusek. "Zazpi, eta arrain batzuk", erantzun eutsoen areik.

35 Laguntaldea lurtean jesarri zeitela agindu eban Jesusek. 36 Gero, zazpi ogiak eta arraiñak artu ebazan eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, zatitu eta bere ikasleai emon eutsezan, oneik laguntaldearen artean banatu egiezan. 37 Guztiak jan eben, ase arte; eta, geratu ziran ogiakaz, zazpi otzara ondakiñez beterik batu ebezan. 38 Une aretan jan ebenak lau milla izan ziran, emakumeak eta umeak zenbatu bagarik. 39 Gero, laguntaldea bialduta, Jesus txalupara igo eta Magadan-errialdera* joan zan.

Ezaugarri miragarri baten eske (Mk 8, 11-13; Lk 12, 54-56)

16 1 Parastar eta sadokar batzuek Jesus ikustera joan ziran. Azpikeriz, ezaugarri miragarriren bat egiteko eskatu eutsoen, mirariak Jaungoikoak Jesus egiaztu egian. 2 Jesusek auxe erantzun eutsen: ["Arratsalde-beranduan, zerua gorri-gorri dagoanean, 'Eguraldi ona izango dogu', diñozue. 3 Eta gogozean, zerua gorri-illun dagoanean, 'Gaur ekatxa

izango dogu', diñozue. Beraz, badakizue zeruaren itxurea ezagutzen; aldien ezaugarriak, oster, ez zaree antzik emoteko gauza.]* 4 Zuek bai gaiztoak eta sinisbageak! Ezaugarri bat eskatzen dozue, baiña Jonas profetarena baiño beste ezaugarriarik ez dozue izango!"

Eta, areik alde batera itzirik, joan egin zan.

Parastarren eta sadokarren legamiña (Mk 8, 14-21)

5 Ikasleak beste itsasertzera eldu ziranean, ogia eroatea aaztu egin yakela konturatu ziran. 6 Jesusek auxe esan eutsen: "Begira: kontuz parastarren eta sadokarren legamiñaz!" 7 Ikasleak alkarregaz berbetan asi ziran: "Ogirik ekarri ez dogulako diño ori." 8 Baiña Jesusek, orretzaz konturaturik, auxe esan eutsen: "¿Zetan diarduzue berbetan, ogirik ez daukazuela-ta? Sinismena da ez daukazuena! 9 ¿Oraindiño be ez zaree ulertzeko gauza? ¿Ez dozue gogoan bost milla lagunuen artean banatutako bost ogiak eta zenbat otzara batu zenduezan? 10 ¿Ezta lau milla lagunuen artean banatutako zazpi ogiak eta zenbat otzara batu zenduezan be? 11 ¿Zelan ez dozue ulertzen, ba, ez niarduala ogiai buruz berbetan, Kontuz parastarren eta sadokarren legamiñaz niraustuenean?"

12 Orduantxe konturatu ziran ikasleak, ez eutsela ogi-legamiñetik alde egiteko esaten, parastarren eta sadokarren irakaspenetatik baiño.

Pedroren autorpena Jesusi buruz

Mk 8, 27-30; Lk 9, 18-21) 13 Filiporen Zesa ea-errialdera eldu zanean, Jesusek bere ikasleai au e itandu eutsen: "Gizaseme au nor dala diñoegiz nak?" 14 Eta areik Jesusi: "Joan Bateatzaille dala diñoegiz batzuek; beste batzuek, Elias, eta beste batzuek Jeremias edo beste profetaren bat." 15 "Eta zuek, nor nazala diñoegiz?" itandu eutsen Jesusek.

16 Orduan, Simon Pedrok auxe autortu eban: "Zu Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea!" 17 Eta Jesusek Pedrori: "Zorionekoa zu, Simon, Jonasen seme ori, ez dautsu ori gizonek* agertu-ta, zeruan dagoan neure Aitak baiño! 18 Orregaitik, nik auxe dirautsut: zu Pedro (Arria) zara, eta arri orren gaiñean jasoko dot nire Elizea, eta illobiko indarrak ez dau azpiratuko. 19 Jaungoikoaren erreñuko giltzak emongo dautsudaz: lurtean lotu dagizuna, zeruan be lotuta geratuko da, eta lurtean askatu dagizuna, zeruan be askatuta geratuko da."

20 Orduan, bera Mesias zanik iñori be ez esateko agindu eutsen Jesusek bere ikasleai.

Jesusek bere erlotza ta biztuerea aurretiaz iragarten dauz (Mk 8, 31-9, 1; Lk 9, 22-27)

21 Arrezkero, Jesus bere ikasleai argi ta garbi asi yaken esaten: Jerusalemenera joan bear ebela, eta erriko zaar, abadeburu ta Lege-irakasleen aldetik neke andiak eroan bear izango ebazala, eta gero il egingo ebela, baiña irugarren egunean biztu egingo zala. 22 Pedrok, Jesus bakarrean arturik, asarre egiten asi yakon: "Jaungoikoak ez dagiala nai orrelakorik jazo dakizun, Jauna!" 23 Baiña Jesusek, aregana biurturik, auxe esan eutsen: "Alde nigandik, Satanas ori! Zu jauspide-arri* zara niretzat, zure bururapenak ez dira Jaungoikoaren bururapenak-eta, gizonenak baiño."

24 Gero, bere ikasleakana biurturik, Jesusek auxe be esan eban: "Norbaitek neure ikasle izan nai badau, bere buruaz aazturik, bere gurutzea artuta, jarraitu egin bear izango daust. 25 Izan be, bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau; baiña bere bizia neugaitik emon dagianak, aurkitu egingo dau. 26 ¿Zetarako yako gizonari mundu osoa irabaztea, bere bizia galtzen badau? Edo-ta, ¿zer emon aal izango dau gizonak bere biziaren truk? 27 Gizaseme au bere Aitarene aintzaz inguratuta eta bere aingeruak lagun dauzala etorteko zorian dago. Eldu daitenean,

bakotxari bere egiñai dagokienez emongo dautso ordaiña.

28 "Benetan dirautsuet: emen dagozanetariko batzuk ez dira ilgo, Gizaseme au Errege lez etortzen ikusi izan baiño leen."

Jesusen antz-aldatzea (Mk 9, 2-13; Lk 9, 28-36)

17 1 Sei egun geroago, Jesusek Pedro, Santiago ta onen anai Joan beragaz artu eta mendi goi batera eroan ebazan. An antz-aldatu egin zan arein aurrean. Aren aurpegia eguzkia baizen zuri biurtu zan. 3 Orduan, ikasleak Moises eta Elias ikusi ebezan Jesusegaz berbetan. 4 Pedrok Jesusi auxe esan eutsen: "Jauna, emen bai gagozala ederto! Nai badozu, iru txabola egingo dodaz emen: bat zeuretzat, beste bat Moisesentzat eta beste bat Eliasentzat."

5 Pedrok arteetan berbetan ziarduala, odei argitsu batz estalduta geratu ziran, eta odeitik berbots au urten zan: "Auxe da nire Seme maitea; Beronegan dot nire atsegiña. Entzun egiozue Beroni."

6 Ori entzutean, ikasleak auspaz jausi ziran, bildurrez beterik. 7 Baiña Jesusek, arekana urreraturik eta areik ikururik, "Jagi zaitezte —esan eutsen—; ez izan bildurrik." 8 Areik, begiak jasorik, Jesus baiño beste iñor ez eben ikusi.

9 Menditik jatsiten ziran artean, Jesusek auxe esan eutsen: "Ez esan iñori be ikusitako au, Gizaseme au biztu arte." 10 Ikasleak auxe itandu eutsoen: "¿Zegaitik diñoegiz, ba, gure Lege-irakasleak, Eliasek etorri bear dauala leenen?" 11 Eta Jesusek arei: "Egia da Elias etorriko dana leenen eta guztia egoki jarriko dauana. 12 Baiña benetan dirautsuet: etorri zan Elias, baiña areik ez eben ezagutu, eta txarto erabili eben, eta nai izan eben guztia egin eutsoen. Eta Gizaseme onek be gorriak ikusiko dauz arein aldetik."

13 Orduantxe konturatu ziran ikasleak, Jesusek

Joan Bateatzailleari buruz egiten eutsela berba.

Mutil deabruduna osatzen dau
(Mk 9, 14-29; Lk 9, 37-43a)

14 Laguntaldea egoan tokira eldu ziranean, gizon bat urreratu yakon Jesusi, eta, Aren aurrean belaunikoturik, 15 auxe esan eutsan: "Jauna, erruki izan zakioz nire semeari. Txarraldi gogorrak* izaten dauz, eta askotan sutara edo uretara botaten dau bere burua. 16 Zeure ikasleai ekarri dautset, baiña ezin osatu izan dabe." 17 "Au bai laguntalde sinisgogor eta gaiztoa! —esan eban Jesusek—. ¿Noiz arte egon bear izango dot zuen artean? ¿Noiz arte eroan bear izango zaituet? Ekarri egidazue ona mutilla."

18 Bereala, Jesusek deabruari agiraka egin eutsan, eta deabrua* mutillagandik urten egin zan; eta, une aretan bertan, osatuta geratu zan.

19 Geroago, ikasleak, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsoen isillean: "¿Zegaitik ezin jaurti izan dogu, ba, guk deabru ori?" 20 "Zeuen sinismen otzagaitik —erantzun eutsen Jesusek—. Benetan dirautsuet: moztaza-azia aiñako sinismena bazeukee, mendi oni 'Kendu ortik eta jarri an!' esango zeuskioe, eta mendia araxe aldatuko litzake. Ez litzake zuentzat eziñezkorik izango. 21 [Orretariko deabruak, barriz, otoitzaren eta barauaren bidez baiño ez dira urteten.]"*

Bere eriotza ta biztuereaa bigarrenez iragarten dauz (Mt 9, 30-32; Lk 9, 43b-45)

22 Bein, Galilean guztiak batuta egozala, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: "Gizaseme au gizonen eskuetan itzi 23 eta il egingo dabe; baiña irugarren egunean biztu egingo da barriro." Ori entzutean, ikasleak oso atsekabetuta geratu ziran.

Jauretxeko diru-ordaiña

24 Kafarnaunera eldu ziranean, jauretxeko diru-ordaiñak batzeko arduradunak, Pedrogana joanda, auxe itandu eutsoen: "¿Zuen Irakasleak ez dau jauretxeko diru-ordaiñik* emoten, ala?" 25 "Bai", erantzun eu tsen Pedrok.

Geroago, Pedro etxera eltzean, Jesusek aurrea artu eta auxe esan eutsan: "Simon, ¿zer deritzazu? Mundu onetako erregeak, ¿nortzukandik jasoten dabez diru-ordaiñak? ¿Euren menpekoakandik, ala arrotzakandik?" 26 "Arrotzakandik", erantzun eutsan Pedrok. Eta Jesusek ari: "Beraz, menpekoak euren burujabe dira. 27 Alan be, iñor iraindu ez daiten*, urreratu zaitez itsasora eta jaurti egizu amoa uretara. Artu dagizun leenengo arraiñaren agoan, bear dan dirua* aurkituko dozu. Artu eta emon egiezu diru-ordaiña zure ta nire izenean."

¿Nor da nagusia? (Mk 9, 33-37; Lk 9, 46-48)

18 1 Une aretan, ikasleak, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsoen: "Nor da nagusia Jaungoikoaren erreñuan?" 2 Jesusek, ume bati dei egiñik eta a guztien erdian jarririk, 3 auxe esan eban: "Benetan dirautsuet: zuen jokabidea aldatzen ez badozue eta umeak lakoak biurtzen ez bazaree, ez zaree Jaungoikoaren erreñuan sartuko. 4 Bere burua beeratzen dauana eta ume au lez biurtzeko gauza dana, axe da nagusia Jaungoikoaren erreñuan. 5 Eta onelako umeren bat neure izenean onartzen dauanak, neu onartzen nau.

Pekatutara bultza egiten dabenak
(Mk 9, 42-48; Lk 17, 1-2)

6 "Baiña ni sinisten naben txikitxo oneitariko batentzat pekatu-bide izan daitenari, obe litzakio errota-arriaz samatik lotuta itsas-sakonera jaurtiko balebe. 7 Munduaren zoritxarra pekatutara bultza

egiten dabezanakaitik! Izan be, pekatutarako bultzagilleak nai ta nai ez izango dira; baiña bai zoritxarrekoa enparaduai pekatutarako bidera bultza egin dagitsena!

8 "Beraz, zure eskua naiz oiña pekatutan jausteko bide bayatzu, ebagi ta jaurti egizu zugandik urrin: esku biak naiz oin biak dozuzala, betiko sutara jaurtia izatea baiño obe dozu eskumotz naiz erren betiko bizitzan sartzea. 9 Eta zure begia pekatutan jausteko bide bayatzu, atara eta jaurti egizu zugandik urrin: begi biak dozuzala, lezako sutara jaurtia izatea baiño obe dozu begibakar betiko bizitzan sartzea.

10 "Ez gutxitzat artu, gero, txiki oneitariko bat bera be!: onein aingeruak zeruan beti zeruko neure Aitarean aurrean dagozala dirautsuet-eta. 11 [Gizaseme au, galduta egoana salbatzera etorri da!]*

Ardi galduaren ipuiña (Lk 15, 3-7)

12 "¿Zer deritzazue oni? Gizon batek eun ardi badaukaz eta areitariko bat galtzen bayako, ¿ez ete-dauz larogeta emeretzaki mendian itziko, galdutakoaren billa joateko? 13 Eta aurkitzen badau aurkitu, ziur egon: galdu bagariko larogeta emeretzakiak baiño galdutako bakar arek poz andiagoa emongo dautso. 14 Orretaraxe, zeruko zuen Aitak be ez dau txiki oneitariko bat bera be galtzerik nai.

Lagun-urkoa, ¿zelan zuzendu? (Lk 17, 3)

15 "Zure anaiak noizbait iraintzen bazaitu, zoaz aren billa eta berba egiozu bakarrean, ari bere obena ikusi-azoteko. Entzuten bazaitu, irabazi dozu zure anaia. 16 Entzun nai ez bazaitu, zoaz barriro a ikustera, lagun bat edo bi zeugaz eroanik, auzia bi edo iru ikusleren aurrean ebatzi daiten*. 17 Arei be jaramonik egiten ez badautse, batzarrari esan egiozu. Eta batzarrari be jaramonik egiten ez badautso, jentiltzat edo diru-batzailletzat artu egizu.

18 "Benetan dirautsuet: lurrean lotu dagizuen

edozer, zeruan be lotuta geratuko da; eta lurrean askatu dagizuen edozer, zeruan be askatuta geratuko da.

19 "Auxe be badirautsuet: zuetariko bik, egon zaitez tokian egon, otoitzean zerbait eskatzeko bat egiten badozue, zeruko nire Aitak emon egingo dautsue. 20 Bi edo iru neure izenean batzen diran tokian, neu be arein erdian nago-la."

Parkatu nai izan ez eban morroiaren ipuiña

21 Orduan Pedrok, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsan: "Jauna, ¿zenbatetan parkatu bear dautsat nire anaiari, iraintzen banau? ¿Zazpi bidar bai?" 22 Eta Jesusek ari: "Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeta amar bidar zazpi aldiz be. 23 Orregaitik, Jaungoikoaren erregetza, bere zerbitzariak kontuak garbitu nai izan eutsezan erregearen antzekoa izan daiteke. 24 Kontu-garbitzen astean, millo asko* zor eutsazan bat etorri yakon. 25 Gizon onek bere zorra ezin ordaindu eikean ezker, gizona, onen emaztea ta seme-alabak morroitzat saltzeko agindu eban ugazabak, baita aren ondasun guztiak be saldu egiezala, zor ebana kitatzeko. 26 Morroiak, bere ugazabaren aurrean belaunikoturik, erreguka zirautsan: 'Txaron egidazu, guztia ordainduko dautsut-eta.' 27 Ugazabak, morroi aretzaz errukituta, zorra parkatu eta joaten itzi eutsan.

28 "Baiña andik urtetean, morroi arek uskeria bat* zor eutsan bere morroi-lagunetariko bat aurkitu eban. A ikusita batera, samatik oratu eta auxe esan eutsan: 'Ordaindu egidazu zor daustazuna!' 29 Aren lagunak, aren aurrean belaunikoturik, erreguka zirautsan: 'Txaron egidazu, guztia ordainduko dautsut-eta.' 30 Baiña besteak ez eban entzun nai izan eta, joanda, kartzelan sarrerazo eban, zorra ordaindu arte.

31 Beste morroi-lagunak, guzti ori ikustean, atsekabez bete ziran, eta jazotakoa ugazabari esatera joan ziran. 32 Orduan, ugazabak morroi ari dei egin

eta auxe esan eutsan: 'Gaizto ori, zor guztia parkatu neutsun nik zuri, zuk erreguka eskatu zeustalako; 33 baiña zuk ez dozu zure lagunaz erruki izan nai, ni zutzaz erruki izan nintzanez.' 34 Eta ugazabak, asarratuta, zigortzaileen eskuetan itzi eban, zor guztia ordaindu egian arte.

35 "Orixe egingo dautsue zeuei be zeruko nire Aitak —amaitu eban Jesusek—, bakoxtak bere anaiari biotzez parkatzen ez badautso."

Ezkontza ta ezkon-banantzea

(Mk 10, 1-12; Lk 16, 18)

19 1 Irakaspenok amaituta, Jesus Galileatik urten eta Jordan-sortzaldean dagoan Judeako errialdera joan zan. 2 Laguntalde andiak jarraitzen eutsan, eta antxe bertan osatu ebazan geisoak.

3 Orduan, parastar batzuk urreratu yakozan, eta azpikeriz auxe esan eutsoen: "¿Bidezko yako senarrari bere emazteagandik edozegaitik banantzea?" 4 Eta Jesusek arei: "Jaungoikoak, gizadia egin ebanean, gizon eta emakume egin ebazala irakurri dozue zuek. 5 Eta auxe esan ebala: *Orregaitik, bere gurasoak itzirik, gizona emakume bati alkartuko yako, eta biok persona bakarra lez izango dira*.*. 6 Eta arrezkero ez dira persona bi, bat bakarra baiño. Beraz, Jaungoikoak lotu dauana, ez dau gizonak askatu bear." 7 Areik auxe esan eutsoen: "¿Zegaitik agindu eban, ba, Moisesek, senarrak emazteari banantze-agiria emoteko, onegandik banantzean?" 8 Eta Jesusek arei: "Jaungoikoaren asmoak ulertzeko gauza ez zintzazelako. Zuen emazteagandik banantzeko baimena emon eutsuen Moisesek, bai; baiña asieran ez zan orrela izan. 9 Eta nik auxe dirautsuet: ezkontza ausi daualako izan ezik, bere emazteagandik banandu eta beste bategaz ezkontzen danak, ezkontza urratu egiten dau."

10 Ikasleak Jesusi auxe esan eutsoen: "Gizonaren egoerea emakumeari buruz orrela izatekotan, obe da ez ezkontzea." 11 Eta Jesusek

arei: "Guztiak ezin ulertu daikee nik diñodana; Jaungoikoak orretarako adimena emon dautsenak bakarrik ulertzen dabe ori. 12 Batzuk ez dira, jaiotez, ezkontzarako gauza; beste batzuk gizonak egiten dabez gai-ez, areik iren bihurturik; eta beste batzuk ezezkoa emoten dautsoe ezkontzari, Jaungoikoaren erregetzaren zerbitzurako gaiago izateko. Au onartu aal dagianak, onartu dagiala."

Jesus eta umeak (Mk 10, 13-16; Lk 18, 15-17)

13 Orduan, ume batzuk ekarri eutsoezan Jesusi, arein gainean eskuak ezarrita, otoitz egin egian. Ikasleak asarre egiten eutseen, 14 baiña Jesusek auxe esan eban: "Itzi umeai nigana etorten eta ez egiezue galerazo, eurak lakoak diranena da Jaungoikoaren erreñua-ta." 15 Eta, umeen gainean eskuak ezarrita gero, joan egin zan andik.

Gazte aberatsa (Mk 10, 17-31; Lk 18, 18-30)

16 Bein, gazte batek, Jesus ikustera etorririk, auxe itandu eutsan: "Irakasle, ¿zer onik egin bear dot nik betiko bizitza jaristeko?" 17 Eta Jesusek arei: "¿Zegaitik itauntzen daustazu onari buruz? Jaungoikoa bakarrik da ona. Bizitzan sartu nai badozu, bete egizuz aginduak." 18 "¿Zeintzuk?", esan eban gazteak. Eta Jesusek arei: "Ez inñor il, ez urratu ezkontzarik, ez egin lapurretarik, ez egin guzurrezko testigantzarik, 19 zure aita ta ama aintzat artu, eta zure lagun-urkoa zeure burua lez maite izan *." 20 Gazteak auxe erantzun eutsan: "Beti gorde dot nik guzti ori. Baiña, ¿zer egin bear dot besterik?" 21 Eta Jesusek arei: "Bikaiña izan nai badozu, daukazun guztia saldu eta obaria beartsuen artean banatu egizu. Orrela zeruan ondasuntzia egingo dozu zuretzat. Gero, zatoz barriro ona eta jarraitu egidazu."

22 Ori entzun ebanean, gaztea biotz-minduta joan zan, aberatsa zan-eta.

23 Orduan, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: "Benetan dirautsuet: nekez sartuko dira aberatsak Jaungoikoaren erreñuan. 24 Entzun egizue dirautsuedan au: aberatsa Jaungoikoaren erreñuan sartzea baiño errazago izango yako ganbe-luari jostorraz-zulotik igarotea."

25 Ikasleak, ori entzutean, ikaratuta geratu ziran, eta auxe itandu eutsoen: "Orretara, ¿nor salbatu aal izango da, ba?" 26 Jesusek, arekana begiraturik, auxe esan eutsen: "Ori gizonentzat eziñezkoa da, bai, baiña Jaungoikoarentzat guztia da eginkor."

27 Orduan, Pedrok auxe itandu eutsan: "Zuk badakizu, zuri jarraitzeko, guk guztia itzi doguna; ¿zer jasoko dogu, ba?" 28 Eta Jesusek arei: "Benetan dirautsuet: gauza guztien barritze-egunean, Giza-seme au bere aulki goragarrian jesarri daitenean, zeuek be, niri jarraitu daustazuenok, amabi aulkitan jesarriko zaree, Israelgo amabi jatorri-taldeak epaitzeko. 29 Eta emaztea, anai-arrebak, gurasoak, seme-alabak naiz lurak neugaitik itzi dagizanak, irabazitzat bateko eun jasoko dau eta betiko bizitzako oiñordetza. 30 Orain leenen diran asko, azken izango dira; eta orain azken diran asko, leenen izango dira."

Maastiko langilleen ipuñia

20 1 "Jaungoikoaren erregetza, goizean-goizean bere maastirako langille-billa urten zan ugazabaren antzekoa izan daiteke. 2 Lan-egunari egokion lan-saria ordaintzeko, langilleakaz berbatuta gero, maastira bialdu ebazan. 3 Goizeko bederatzietan-edo* barriro urtenda, beste langille batzuk merkatuko plazan ezer egin bagarik egozala ikusi eban, 4. eta' auxe esan eutsen: 'Zoaze zeuek be nire maastira. Bidezko izan daitena ordainduko dautsuet.' 5 Eta areik joan egin ziran. Eguerdian-edo*, baita arratsaldeko irurretan* be, barriro urtenda, beste ainbeste egin eban. 6 Azkenez, arratsaldeko bostetan-edo*, barriro plazara bihurturik, lan bagarik egoan talde bat aurkitu eban. '¿Zegaitik zagoze emen egun guztian

ezer egin bagarik?', itandu eutsen. 7 Tñok be ez gaitu lanerako artu', erantzun eutsoen areik. Eta ugazabak arei: 'Zoaze zeuek be maastira.'

8 "Eguneko lana amaitzean, maasti-jabeak langille-zaiñari auxe agindu eutsan: 'Dei egin langilleai eta ordaindu egiezu lan-saria, azkenengoetatik asi ta leenengoetaraiño.'

9 "Etorri ziran, ba, arratsaldeko bostetan-edo lanean asi izan ziranak, eta lan-egun osoari egokion lan-saria jaso eben. 10 Orduan, goizetik lan egiten jardun izan ebenak geiago jasoko ebela uste izan eben; baiña, euren txandea eldu zanean, lan-sari berbera jaso eben. 11 Eta lan-saria jasotean, ugazabaren aurka mormoxetan asi ziran: 12 'Ordubete baiño ez dabe lan egin orreik; eta guk, eguneko beroa eronik, egun guztian lan egin dogunarren be, geuri lez ordaindu dautsezu.' 13 Baiña ugazabak areitariko bati auxe esan eutsan: 'Adiskide, ez dautsut bidebagekeriarik egiten. ¿Ez zenduan, ba, nigaz bat egin lan-sari ori jasoteko? 14 Artu egizu, ba, eta zoaz. Zuri zer, azkenengo orduan eldu zan orri be zeuri aiña emon nai badautsat? 15 ¿Ezin egin ete-daike, ba, nireaz neuk nai dagidanik? ¿Ala, nire eskuzabaltasunak ikusi-eziña sortuko ete-dautsu?'

16 "Olan, ba, orain azken diranak, leenen izango dira; eta orain leenen diranak, azken izango dira."

Bere nekaldia ta biztuerea irugarrenez iragarten dauz (Mk 10, 32-34; Lk 18, 31-34)

17 Jerusalemenerako bidean yoiala, amabi ikasleai isillan dei egin eta auxe esan eutsen: 18 "Ikusten dozue Jerusalemenerako bidean goazana. An, Giza-seme au abadeburuen eta Lege-irakasleeren eskuetan itziko dabe; areik eriotzara galdu 19 eta jentillen eskuetan itziko dabe, Aren lepotik barre eginda gero, astindu eta gurutzean il dagien. Baiña irugarren egunean biztu egingo da."

Zebedeoren semeak
(Mk 10, 35-45; Lk 22, 24-27)

20 Orduan, Zebedeoren semeak ziran Santiagoren eta Joanen ama Jesusegana etorri eta beluniko jarri zan, zerbait eskatzeko asmoz. 21 "¿Zer nai dozu nigandik?", itandu eutsan Jesusek. Eta andreak Jesusi: "Nire semeak, zu errege izan zaitezanean, zeure ondoan jesarri daitezala agindu egizu: bata zeure eskumaldean, eta bestea zeure ezkerrealdean." 22 "Ez dakizue zer eskatzen dozuen —erantzun eban Jesusek—. Edateko zorian nagoan saminiñeko edontzi bera, ¿zuek edan aal izango dozue?" "Bai, edan aal izango dogu!", erantzun eutsoen areik. 23 Eta Jesusek arei: "Samiñezko nire edontzitik edango dozue, bai; baiña zuek bata neure eskumaldean eta bestea neure ezkerrealdean jesarte, ez dago nire eskuan lortzea; neure Aitak atondu dautsenentzat da ori."

24 Beste amar ikasleak, ori entzun ebenean, minduta geratu ziran anai bien aurka. 25 Baiña Jesusek, guztiak baturik, auxe esan eutsen: "Ondo dakizuenez, agintariak erria euren menpean jarri eta aaltsuak nausikeriaz erabilten dabe. 26 Baiña zuen artean ez da orrela izan bear, bestetara baiño: zuetariko norbaitek andi izan nai badau, enparaduen zerbitzari izan bear dau; 27 eta zuetariko norbaitek nagusi izan nai badau, alakoa guztien zerbitzari egin daitela. 28 Gizaseme au be ez da zerbitzariak eukiter a etorri, zerbitzari izatera eta bere bizia guztien askatasunaren ordaintzat emotera baiño."

Jesusek itsu bi osatzen dauz
(Mk 10, 46-52; Lk 18, 35-43)

29 Jerikotik urtetean, laguntalde andiak jarraitzen eutsan Jesusi. 30 Orduan, bide-ondoan jesarrita egozan itsu bi, andik Jesus igaroten zala entzutean, deadarka asi ziran: "Jauna, Dabiden Seme ori, erruki izan zakiguz!" 31 Laguntaldeak isildu zeiteezala

zirautsen; baiña areik errimeago egiten eben deadar: "Jauna, Dabiden Seme ori, erruki izan zakiguz!"

32 Orduan, Jesus gelditu egin zan; eta arei dei egin eta auxe esan eutsen: "¿Zer nai dozue egin dagitzuedan?" 33 "Jauna —erantzun eben areik—, ikustea biurtu daiguzula." 34 Jesusek, errukituta, begiak ikutu eutsezan, eta bat-batean itsuak ikustea artu eben barrero, eta jarraitu egin eutsoen.

Jesus Jerusalem sartzten da
(Mk 11, 1-11; Lk 19, 28-38; Jn 12, 12-16)

21 1 Jerusalem eraurreratzean, Oriomendi-ondoko Betfajera eldu ziranean, Jesusek bere ikasle bi bialdu ebazan 2 mandatu oneaz: "Zoaze or aurrean dagoan auzuna orretara; eta bereala, astoama bat aurkituko dozue lotuta, eta astakume bat aren ondoan. Askatu ta ekarri egidazue. 3 Eta norbaitek zerbait itauntzen badautsue, Jaunak bear dauzala eta berealaxe biurtuko dauzala esan egiozue."

4 Orretaraxe beteten zan profetak iragarri izan eban au:

*5 Esan egiozue Jerusalemi, Siongo uriari:
Begira: zure Erregea apaltasunez beterik
datorkizu,
asto baten gaiñean, astakume baten gaiñean,
buztarpeko aberearen gaiñean jesarrita*.*

6 Ikasleak, joanda, Jesusek agindu izan eutsena egin eben. Astoama ta astakumea eroan eutsoezan; arein gaiñean euren soingaiñekoak ezarri ebezan, eta Jesus gaiñean jesarri zan. 8 Bereala laguntalde andia batu zan. Askok soingaiñekoak bidean zear zabalitzen ebezan; beste batzuek zugatzetako adarrak ebagi eta Jesus andik igarotean zabalitzen ebezan.

9 Eta Jesusen aurrean eta atzean yoiazanak deadarka iñoen: "Gora Dabiden Semea! *Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!* Aintza Jaungoiko gorenagoari!"

10 Jesus Jerusalem sartzu zanean, urian artegatasun andia izan zan. "¿Nor da au?", itauntzen eutsoen alkarri. 11 Eta Jesusi lagun egiten eutsan laguntaldeak auxe iñoan: "Jesus profeta da au, Galileako Nazaretetkoa."

Jauretxeko saltzailleak
(Mk 11, 15-19; Lk 19, 45-48; Jn 2, 13-22)

12 Jesusek, jauretxean sarturik, saltzen eta erosten ziardeen guztiak kanpora bota ebazan. Diru-aldatzailleen maiak eta uso-saltzailleen jarlekuak itzuli egin ebazan, 13 eta auxe esan eutsen: "Liburu Santuak auxe diñoen: *Nire etxea otoitz-etxe izango da**; baiña zuek lapur-zulo biurtu dozue."

14 Geroago, itsu ta erren batzuk urreratu yakozan Jesusi jauretxean, eta osatu egin ebazan. 15 Baiña abadeburu ta Lege-irakasleak, Jesusek egin izan ebazan mirariak ikustean eta umeak Dabiden Semeari goraka ziarduela entzutean, minduta geratu ziran. 16 Orregaitik, auxe itandu eutsoen: "¿Ez dozu entzuten orreik diñoena?" "Bai orixe! —erantzun eutsen Jesusek—. ¿Ez al-dozue iñoiz be irakurri Liburu Santuetan, gorapena txikien eta bularrekoen ezpanetatik sortuko dala?*"

17 Eta areik itzirik, uritik urten eta Betaniara joan zan, eta antxe egin eban gaba.

Pikondo agorra (Mk 11, 12-14. 20-24)

18 Goizean-goiz, barrero urira yoiala, Jesus gose izan zan. 19 Bide-ondoan pikondo bat ikustean, aregana urreratu zan; baiña pikondoak orriak baiño ez eukazan. Orduan, pikondoari auxe esan eutsan: "Ez egizu iñoiz be fruturik ekarri!" Eta une aretan bertan pikondoa igartu egin zan. 20 Ori ikustean, ikasleak arrituta geratu ziran, eta auxe iñoen: "¿Zelan igartu aal izan da bat-batean pikondoa?" 21 Eta Jesusek arei: "Benetan dirautsuet: ez bai bagariko sinistea badaukazue, pikondo onena bakarrik ez

dozue egingo, baita mendi orri ortik kentzeko eta itxasora jausi daitela badirauntsazue be, alantxe jazoko da. 22 Otoitzean sinismenez eskatu dagizuen edozer, lortu egingo dozue."

Jesusen aginpidea (Mk 11, 27-33; Lk 20, 1-8)

23 Jesus jauretxean sartu eta irakasten asi zan. Orduan, abadeburu ta erriko zaarrak Aregana urreraturik, auxe itandu eutsoen: "Ze(r) eskubidez egiten dozu zuk egiten diarduzun guzti ori? Nok emon dautsu aginpide ori?" Eta Jesusek arei: "Neuk be itaun bat egingo dautsuet. Erantzuten badaustazue, neuk be esango dautsuet guzti au ze(r) eskubidez egiten dodan. 25 ¿Nogandik artu eban Joanek bateatzeko agindua: zerutik, ala gizonakandik?"

Areik alkarregaz asmatzen asi ziran: "Zerutik artu ebal arantzuten badogu, ¿Zegaitik ez zeutsen, ba, sinistu?, esango dausku. 26 Eta gizonakandik artu ebal badiñoegu, erriari bildur dautsagu, guztiak Joan profetatzat dabe-ta." 27 Beraz, "Ez dakigu", erantzun eutsoen Jesusi. Eta Jesusek arei: "Neuk be ez dautsuet esango guzti au ze(r) eskubidez egiten dodan."

Seme bien Ipluñia

28 "Ea zer deritzazuen esango dodan oni: Bein, seme bi ebazan gizon batek, areitariko bati auxe esan eutsan: 'Seme, gaur maastira joan bear dozu lan egitera.' 29 'Ez dot joan nai', erantzun eutsan arek; baiña gero, bere pentsakerea aldatu, joan egin zan. 30 Orix berori esan eutsan aitak beste semeari be, eta onek, 'Bai, aita, joango naz', erantzun eutsan; baiña ez zan joan. 31 Esan egidazue: ¿biotarik nok egin eban euren aitaren gogo?" "Leenengoak", erantzun eben areik. Eta Jesusek arei: "Benetan dirautsuet: diru-batzailleak eta emagalduek zuek baiño leenago sartuko dira Jaungoikoaren erreñuan. 32 Izan be, bere bizikereaz salbamen-bidea erakus-

ten etorri zan Joan, eta ez zenduen sinistu; diru-batzailleak eta emagalduek, oster, sinistu egin eben. Eta zuek, ori ikusita be, ez zenduen damutu nai izan, ari sinisteko.

Nekazari iltzailleen ipuiña
(Mk 12, 1-12; Lk 20, 9-19)

33 "Entzun egizue beste ipuin au: Bein, etxagun batek maasti bat landu, esiaz inguratu, dolara bat egin eta torre bat jaso eban, maastia zaintzeko; gero, maastia nekazari batzui errentan itzirik, urriñera joanaldi bat egitera joan zan. 34 Maatsarua eldu zanean, bere morroiak bialdu ebazan, berari egokion frutu-obaria nekazariakandik jasoteko. 35 Baiña nekazariak, morroiak eldurik, bata zartadaka astindu, bestea il eta besteari arrika egin eutsuen. 36 Ugazabak beste morroi batzuk bialdu ebazan, leenengoak baiño geiago; baiña nekazariak arei be bardin egin eutseen. 37 Azkenez, bere semea bialdu eban, berekautan iñoala: 'Nire semeari, beintzat, lotsa izango dautsoe.' 38 Baiña nekazariak ugazabaren semea ikusi ebenean, alkarri auxe esan eutsuen: 'Orain datorren au oiñordekoa da. Il dagigun, eta maastia geurea izango da.' 39 Eta, ari eskuak ezarririk, maastitik kanpora jaurti eta il egin eben.

40 Beraz, ugazabak, bera maastira etorri daiteanean, zer egingo ete-dautse nekazari arei?" 41 "Zoritxarrekoak dira —erantzun eutsuen Jesusi—; erruki bagarik ilgo dauz, eta bere maastia beste nekazari batzui emongo dautse, berari egoki dakion frutu-obaria bere sasoiz emon dagioen." 42 Eta Jesus-ek arei: "¿Ez dozue Liburu Santuetan iñoiz be irakurri au?"

*Etzegilleak baztartutako arria
giltzarri biurtu da.
Jaunak egin dau au,
eta ikusgarria da gure begientzat! **

43 "Orregaitik, badirautsuet: Jaungoikoaren erreñua zuei kendu eta erreñuari dagokiozan frutuak emoteko gauza dan erriari emongo yako. 44 [Arriari buruz, barriz, arri orren gaiñera jausi daitena, zatitu egingo da; eta arri ori gaiñera jausi dakiona, zapalduta geratuko da.]"*

45 Abadeburuak eta parastarrak, Jesusen ipuiñok entzutean, eurai buruz esaten ebazala ulertu eben. 46 Orregaitik, Ari eskuak ezartea nai eben; baiña laguntaldeari bildur eutsuen, askok Jesus profetatzen eben-eta.

Ezteguen ipuiña (Lk 14, 15-24)

22 1 Jesusek, barriro berbea arturik, ipuin au esan eutsen:

2 "Jaungoikoaren erregetza, bere semearen eztegua ospatu eban erregearen antzekoa izan daiteke. 3 Bere morroiak bialdu ebazan, eztegurakoai dei egitera; baiña oneik ez eben etorri nai izan. 4 Barriro beste morroi batzuk bialdu eutsezan, mandatu oneaz: 'Esan egiezue deituai: Begira, gertu daukat bazkaria; nire zekor eta abere gizenduak illerazo egin dodaz eta gertu dago guztia. Etorri daitezala, ba, eztegura.' 5 Baiña deituak ez eben jaramonik egin nai izan, eta bakotxa bere lurretara edo arazoetara joan zan. 6 Beste batzuek, barriz, morroiak eskuak ezarririk, astindu eta il egin ebazan.

7 "Orduan, erregeak, asarre-bitsetan, iltzaille areik il egiezala eta arein uriari sua emon egioela agindu eban. 8 Gero, bere morroiak auxe esan eutsen: 'Eztegua gertu dago, baiña deituak ez ziran etorteko duin. 9 Zoaze, ba, uriko bidegurutzeetara eta eztegura dei egiezue aurkitu dagizuezan guztiai.' 10 Morroiak, bideetara urtenda, aurkitu ebazan guztiak batu ebazan, on eta gaizto. Orrela, eztegu-tokia mailagunez bete zan. 11 Erregea, bere deituak ikustera sartu zanean, areitariko batek eztegu-jantzirik ez eroiala konturatu zan. 12 Eta erregeak ari: 'Adiskide, ¿zelan sartu zara emen eztegu-jantzi bagarik?'

Arek, barriz, berbarik be ez. 13 Orduan, erregeak bere morroiak auxe esan eutsen: 'Esku ta oin lotu ori eta kanpora jaurti egizue, illunetara. An negar egingo dau eta agiñak karraska egingo dautsoe.' 14 Izan be, deituak asko dira; aukeratuak, barriz, gutxi."

Diru-ordaiña zala-ta
(Mk 12, 13-17; Lk 20, 20-26)

15 Orduan, parastarrak Jesus berbaren baten zelan-alan artzeko asmatzera batu ziran. 16 Eta euren alderdikoetariko batzuk bialdu eutsoezan, Erodesen alderdikoakaz* batera, Jesusi auxe esan egioen: "Irakasle, badakigu egizale zareana eta Jaungoikoak nai dauanez bizi izaten irakasten dozuna bene-benetan; ez dozu ardurarik enparaduak zer esango daben, eta itxuretatik be ez dozu iñor epaitzen. 17 Emon egiguzu, ba, zure eretxia onetzaz: Guk, judarrok, ¿erromatar enperadoreari diru-ordaiña emotera beartuta gagoz, ala ez?"

18 Jesusek, arekan egoan asmo txarra beingoan ezaguturik, auxe erantzun eutsen: "¿Zegaitik jarten daustazue azpikeriak, itxurazaleok? 19 Erakutsi egidazue diru-ordaiña emoteko erabilten dan dirua." Areik denario bat erakutsi eutsuen; 20 eta Jesusek arei: "¿Norenak dira irudi au ta idazkun au?" 21 "Enperadorearenak", erantzun eutsuen areik. Orduan, Jesusek arei: "Emon egiozue, ba, enperadoreari enperadorearena, eta Jaungoikoari Jaungoikoarena."

22 Erantzun ori entzutean, arrituta geratu ziran, eta, Jesus an itzirik, alde egin eben andik.

Ildakoen biztuerea
(Mk 12, 18-27; Lk 20, 27-40)

23 Egun aretan bertan, sadokar batzuk Jesus ikustera joan ziran. Sadokarrak ez dabe biztuerearik sinisten, eta orregaitik itaun au egin eutsuen: 24 "Irakasle, Moisesek auxe esan eban: *Gizon ezkondua*

*semerik izan bagarik ilten bada, aren anaiak alargunagaz ezkondu bear izango dau, eta onegandik izan dagizan semeak, ildakoaren ondorengoak lez izango dira artuak.** 25 Alan ba, bein gure artean zazpi anai ziran; areitariko leenengoa —ezkondua zan bera—semerik izan bagarik il zan, eta orregaitik aren alarguna urrengo anaiagaz ezkondu zan. 26 Baiña bardin jazo yakon bigarrenari, eta gero irugarrenari, eta olan zazpigarrenari be. 27 Azkenengo il zana emakumea izan zan. 28 Beraz, biztuerean, ¿zazpi anaietariko norena izango da emazte, guztiak egon ziran aregaz ezkondu-ta?"

29 Jesusek auxe erantzun eutsen: "Oso oker zagoze; ez dozue Liburu Santuak ezagutzen, Jaungoikoaren aal-izatea zer danik be ez dakizue. 30 Biztuerean ez da ezkontzarik izango; zeruan dagozan aingeruak lez izango dira guztiak. 31 Ildakoen biztuereari buruz, barriz, ¿ez al-dozue irakurri Jaungoikoak esan eban au: *32 Abrahanen Jaungoikoa, Israelen Jaungoikoa eta Jakoboen Jaungoikoa naz ni?** Beraz, bizien Jaungoikoa da eta ez ildakoena."

33 Jesus berbetan entzutean, laguntaldea Aren irakaspenaz ikaratuta geratu zan.

Agindurik nagusiena
(Mk 12, 28-34; Lk 10, 25-28)

34 Parastarrak, Jesusek sadokarrak isillerazo egin izan ebazala jakin ebenean, batu egin ziran. 35 Eta areitariko batek, azpikeriz, auxe itandu eutsan Jesusi: 36 "Irakasle, ¿zein da Legeko agindurik nagusieena?" 37 Eta Jesusek ari: "Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, zeure arima guztiaz eta zeure adimen guztiaz izango dozu maite*." 38 Auxe da agindurik nagusiena ta leenena. 39 Baiña bigarren agindua orren antzekoa da: *Zure lagun-urkoa zeure burua lez izango dozu maite**. 40 Agindu bi oneitan batzen dira Moisesen lege guztia* ta profeten irakaspenak."

Mesias, Dabiden seme ta Jaun
(Mk 12, 35-37; Lk 20, 41-44)

41 Parastarrak batuta egozala, Jesusek, arekana joanda, auxe itandu eutsen: 42 “¿Ze(r) eretxi dozue zuek Mesiasi buruz? ¿Noren semea da?” “Dabidena”, erantzun eutsoen areik. 43 Eta Jesusek arei: “Dabidek, Jaungoikoaren Espirituak eraginda, ¿zelan deritzo, ba, Jauna, urrango au diñoanean?”

44 *Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan:
jesarri zaitez nire eskumaldean,
zure arerioak zeure oinpean
jarri dagidazan arte*.*

45 “Beraz, Dabidek Mesiasi Jauna baderitzo, ¿zelan izan daiteke Mesias Dabiden seme?”

46 Iñok be ez eban jakin orri erantzuten. Eta, egun aretatik, ez eban izan iñok Jesusi itaun barririk egiteko aurpegirik.

Lege-irakasleen eta parastarren itxurakeria
(Mk 12, 38-40; Lk 11, 37-52; 20, 45-47)

23 1 Orduan, an egozan guztiai eta bere ikasleai auxe esan eutsen Jesusek: 2 “Lege-irakasleak eta parastarrak dira Moisesen legea argitzeko arduradunak*. 3 Eurak esan dagitzuena egin eta bete bear dozue, ba; baiña ez egin eurak egiten dabenik, irakasten dabena ez dabe eurak egiten-eta. 4 Enparaduen lepo-gaiñera sorta astunak botaten dabez; eurak, barriz, atzamarraz be ez dabez sortok ikutu nai. 5 Gizonak begiratu dagiezan egiten dabe guztia. Beste iñok baiño kutun* zabalagoak eta arizai luzeagoak darabillez, 6 janaldietan leenengo lekuak dabez atsegin, guztien aurrean agurtuak izatea, sinagogetan aurrengo lekuetan jesarte, 7 eta laguntaldeak ‘irakasle’ esan dagitsela.

8 “Zuek, oster, ez artu ‘irakasle’ izenik, zuen irakasle bakarra Kristo da-ta. Zuek alkarren anai

zaree. 9 Esan be, ez esan mundu onetan iñori ‘aita’, zuen aita bakarra zeruan dagoana da-ta. 10 ‘Zuzendari’ izenik be ez artu, zuen zuzendari bakarra Kristo da-ta. 11 Zuen artean andiena, enparaduen zerbitzari izateko gertu dagoana da. 12 Enparaduak baiño nagusiagoa izatea gura dagiana, beeratua izango da; bere burua beeratzen dauana, barriz, goratua izango da.

13 “Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Jaungoikoaren erreñuko sarbidea itxi egiten dautsezue guztiai. Zuek ez zaree sartzen, eta enparaduai ez dautsezue sartzen izten.

14 [“Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Emakume alargunen ondasunak iruntsi eta, orren atxakiaz, otoitz luzeak esaten dozue. Orre-gaitik, zuek zigor andiagoa artuko dozue.]*

15 “Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Jarraitzaille* baten billa itsaso ta legor zabize, eta, jarraitzaille ori irabazitakoan, su-lezako seme egiten dozue, zeuek baiño birritan txarragoa.

16 “Ai zuek, itsuen bide-erakusleok! Zuek auxe diñozue: ‘Jauretxeagaitik egindako ziña, ezer ez da. Baiña jauretxeko urreagaitik egiten dan ziña, bete egin bear da.’ 17 Kirten eta itsuok! ¿Zer da geiago: urrea ala urrea santu egiten dauan jauretxea? 18 Auxe be badiñozue: ‘Altareagaitik egindako ziña, ezer ez da. Baiña altara-gaiñean dagoan opariagaitik egiten dan ziña, bete egin bear da.’ 18 Itsuok! ¿Zer da geiago: oparia ala oparia santu egiten dauan altarea? 20 Altareagaitik zin egiten dauanak, altaran dagoan guztiagaitik be egiten dau zin; 21 jauretxeagaitik zin egiten dauanak, jauretxean bizi dan Aregaitik be egiten dau zin. 22 Eta zeruagaitik zin egiten dauanak, Jaungoikoaren aulkiagaitik eta aulki orretan jesarten dan Jaungoikoagaitik beragaitik be egiten dau zin.

23 “Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Jaungoikoari batan, anis eta txarpoil-bedarraren amarrenak eskiñi bai, baiña Legean nagusi diran zuzentasun, erruki ta sinismenaren ardurarik ez dozue. Azken au, bai, egin bear zeukee,

bestea be beteaz aaztu bagarik baiña. 24 Bide-erakusle itsuok! Eltxoa irazi eta gabelua iruntsi egiten dozue.

25 “Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Edontzia ta platera kanpokaldetik garbitzen dozue, bai, baiña barrukaldetik zikin irauten dabe zuen lapurkeriaren eta diru-gosearen obariaz. 26 Garbitu egizu leenen edontzia barrutik, parastar itsu orrek, eta orrela kanpotik garbi geratuko da!

27 “Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Illobi zurituak* lakoak zaree, ederrak kanpotik, baiña barrutik ildakoan azurrez eta ustelkeriz beterik. 28 Orrelaxe zeuek be: laguntaldearen aurrean zuzen-itxuraz agertzen zaree, baiña zuen barrua itxurakeriz eta gaiztakeriz beterik dago.

29 “Ai zuek, Lege-irakasle ta parastar itxurazaleok! Profeten illobiak egin eta zintzoen arri-illobiak apaintzen dozue, 30 eta auxe diñozue: ‘Gure asaben aldian bizi izan bagintzaz, ez gendukean guk profeten odoletan arekaz eskuartuko.’ 31 Orrela, profetak il ebezanen ondorengoak zareela autortzen dozue zuek. 32 Amaitu egizue, ba, zeuek, zuen asabak asi eben egintza!

33 “Sugeok! Larra-sugekumeok! ¿Zelan egin aal izango dautsazue iges su-lezako zigorrari? 34 Entzun ondo: mandatariak, jakintsuak eta Lege-irakasleak bialduko dautsuedaz nik; batzuk il eta gurutzean josiko dozue, eta beste batzuk sinagogetan zigorkadaz astindu eta uririk-uri aurrean erabiliko dozue. 35 Orrela, mundu onetan isuritako odol guztiaren errudun egingo zaree, Abel zintzoaren odoletik asita jauretxetik altarara-bitartean il zenduen Barakiasen seme zan Zakariasen odole-raiño. 36 Benetan dirautsuet: irabazitako zigorra oraingo laguntalde onen gaiñera jausiko da!

Jerusaleni agiraka (Lk 13, 34-35)

37 “Jerusalen, Jerusalen, profetai bizia kendu eta Jaungoikoak bialtzen dautsuzan mandatariak arrika

egiten dautsezun ori! Amaikaxo bidar batu nai izan dodaz, ba, zure semeak, oilloak bere txitak batzen dauzanez; eta zuk ez dozu nai izan! 38 Entzun ondo: zuen uria utsik geratuko da*. 39 Benetan dirautsuet: ez nozue barriro ikusiko, *Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena**, esan dagizuen unerarte.”

Jesusek jauretxearen ondamendia
iragarten dau (Mk 13, 1-23; Lk 21, 5-24)

24 1 Jesus jauretxetik urten egin zan, eta, bayoiala, bere ikasleak urreratu yakozan, Ari jauretxeko arri-lanak erakustera. 2 Eta Jesusek arei: “¿Ikusten dozue guzti ori? Benetan dirautsuet: ez da or arri bat bestearen gaiñean geratuko. Guzti ori ondatu egingo dabe!”

Munduaren azkenaren ezaugarriak
(Mk 13, 3-13; Lk 21, 7-19)

3 Orduan, Oriomendira* joan ziran. Jesus jesarri egin zan, eta ikasleak urreratu egin yakozan, Ari isillean itauntzeko: “Esan egiguzu: ¿noiz jazoko da guzti ori? ¿Zelan jakingo dogu zure etorrerea ur dagoala eta munduaren azkena badatorrela?” 4 Eta Jesusek arei: “Kontuz, gero! Ez zagiezala iñok azpikeriz eroan. 5 Etorri be asko etorriko dira nire izenaz ‘Neu naz Mesias’ esanez, eta lagun asko okerbidera eroango dabez. 6 Gudu ta guda-otsai buruz berba egiten entzungo dozue. Begira: ez ikaratu; guzti ori jazobearrekoa danarren be, ez da arteetan azkena izango. 7 Erri batzuk beste erri batzuen aurka eta erreñu batzuk beste erreñu batzuen aurka jagiko dira, eta toki guztietan zear goseteak eta lurrikarak izango dira. 8 Baiña zoritxar orreik, gaiñera etorri bear diran gatxen asiera baiño ez dira izango.

9 “Egun areitan txarto erabili eta il egingo zaitue. Guztien gorrotagarri izango zaree nigaitik. 10 Orduan, askok galdu egingo dabe sinismena*, eta beste

batzuek alkar salatu egingo dabe eta alkarri gorroto izango dautsoe. 11 Toki guztietan zear sasi-profetak agertuko dira, eta lagun asko okerbidera eroango dabez. 12 Eta, gaiztakeria geroago ta geiago ugaritzean, askoren maitasuna otzitu egingo da. 13 Baiña azkenerarte sendo iraun dagiana, orixe urtengo da onik. Erreñuko barri on au mundu guztian iragarriko da, erri guztiak ezagutu dagien. Orduantxe etorriko da azkena.

15 "Daniel profetak iragarritako ondamendiaren sasi-jainko iguingarria toki santuan jarten dala ikusi dagizuenean (irakurleak ori buruan erabili begi), 16 orduan, Judean egon daitezana ikus egin begie mendiatarra; 17 etxe-gaiñean egon daitena, ez beite bere etxeko zerbait artzera jatsi; 18 landan egon daitena, ez beite etxera biurtu bere soingaiñekoa artzera be. 19 Seindunen eta egun orreitan umea azten diarduenen zoritxarra! 20 Otoitz egizue zuen igesia neguz edo jaiegunez izan ez daiten; 21 izan be, miñaldi andia be andia izango da; a lakorik ez da izan mundua danetik, ezta barrero iñoiz izango be. 22 Jaungoikoak aldi ori laburtuko ez baleu, ez litzake iñor onik urten aal izango. Baiña, aukeratuakaitik, aldi ori laburtu egingo dau Jaungoikoak.

23 "Orduan, norbaitek badirautsue: 'Begira, ementxe dago Mesias', edo 'Begira, antxe dago', ez sinistu. 24 Izan be, sasi-mesiasak eta sasi-profetak agertuko dira, eta ezaugarri arrigarriak egingo dabez, aal balitz, Jaungoikoak aukeratutakoak eurak be okertzeko asmoz. 25 Aurretiaz iragarri dautsuet, gero! 26 Beraz, norbaitek badirautsue: 'Mesias ortxe dago, basamortuan', ez joan ara; eta, 'Ortxe dago, etxe orretan gordeta', ez sinistu. 27 Izan be, Gizaseme onen etorrerea bat-batekoa izango da, zerua sortzaldetik sartzaldera argitzen dauan oiñaztua lez. 28 Gorpua egon daiten tokian, antxe batuko dira saiak!

Gizasemearen etorrerea (Mk 13, 24-27; Lk 21, 25-28)

29 "Egun areitako miñaldiak igaro daitezanean, eguzkia illundu egingo da, eta illargiak galdu egingo dau bere dirdira; izarrak jausi egingo dira zerutik, eta zeruko egiturak dardaraka asiko dira.

30 "Orduantxe agertuko da zeruan Gizaseme onen ezaugarria, eta munduko erri guztiak negar egingo dabe Gizaseme au indar eta aintza andiz zeruko odeien gaiñean etorten ikustean. 31 Eta Arek bere aingeruak bialduko dauz, turuta-otsez munduko ertz batetik beste ertzeraño Aren aukeratuak batu dagiezan.

Pikondoa adibidetzat (Mk 13, 28-31; Lk 21, 29-33)

32 "Begira pikondoaren adibide au: aren adarrak ziltzen diranean eta adarra orriak urtetan yakezala ikusten dozueanean, badakizue udaldia ur dagoana. 33 Orrelaxe, ba: iragarten dautsuedan guzti au ikusi dagizuenean, jakin egizue azkena ur dagoana, ataurrean dagoana. 34 Benetan dirautsuet: ez da oraingo gizaldi au igaroko, guzti au jazo baiño leen. 35 Zerulurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko.

"Zoll egon"(Lk 17, 26-30. 34-36)

36 "Egunari ta orduari buruz, barriz, iñok be ez daki ezer; ez zeruko aingeruak, ez Semeak. Aitak bakarrik daki ori.

37 "Noeren aldietan jazo zan antzera jazoko da Gizaseme onen etorrera-aldian be. 38 Izan be, uriolaurreko egunetan eta Noe kutxan sartu zan unerarte, guztiak jaten eta edaten ziarduen, eta gizonak eta emakumeak, ezkontzen, 39 eta iñok ez eban ezertxoren susmorik izan uriolak guztiak eroan ebazan arte. Orixo izango da Gizaseme au etorri daitenean

be. 40 Orduan, gizon bik soloan lan egiten jardungo dabe: bata eroan eta bestea itzi egingo dabe. 41 Emakume bik eioteen jardungo dabe: bata eroan eta bestea itzi egingo dabe.

42 "Zoli egon, ba, ez dakizue zuen Jauna zein egunetan etorriko dan-eta. 43 Aditu ondo: etxeko ugazabak lapurra zein ordutan etorriko litzakean baleki, iratzarrik egongo litzake, etxea erasoten ez izteko*. 44 Egon, ba, zeuek be gertu, asmatu be ezin egin daikezue Gizaseme au zein unetan etorriko dan-eta.

Zerbitzaritzan zintzotasuna(Lk 12, 41-48)

45 "Morroi zintzo ta zuurrarena lakoa izan bedi zuen jokabidea. Bere ugazabak etxeko arduradun jarri eban, eta morroientzako jatekoa aldi egokian gertu eukiteko agindu eutsan. 46 Zorionekoa, ugazabak, etortean, eginbearra beteten aurkitu dagian morroia! 47 Benetan dirautsuet: bere ondasun guztien ardurea emongo dautso. 48-49 Baiña morroi ori gaiztoa bada, eta bera arduradun dala-ta, ugazaba urrin dagoala, bere morroi-lagunak txarto erabilten badauz eta moskorrakaz jan-edatera batzen bada, 50 ugazabak, egunen baten bat-batean etorriko, morroi ori gogor zigortuko dau. Ari dagokiona emongo dautso: itxurazaleen artean leku bat. An negar egingo dau eta agiñak karraska egingo dautsoe.

Amar nesken ipuiña

25 1 "Jaungoikoaren erreñuaren etorrerea, amar nesken antzekoa izan daiteke: eztegu baten, argi-ontzi bana arturik, senar ezkonbarriaren billa urten ziran. 2 Neska areitariko bost buruariñak ziran, eta beste bostak zuurrak. 3 Buruariñai, euren argiontzia artzean, aaztu egin yaken bear eben orioa eroatea. 4 Zuurrak, ostera, euren argiontzia batera, orioa be eroan egin eben ontzietan.

5 "Senarrak etortea luzatu egiten ebalà-ta,

guztiak loguratu eta lo geratu ziran. 6 Baiña gaberdian-edo, deadar au entzun zan: 'Badator senarra! Urten zakioze bidera!' 7 Orduan, amar neskak iratzartu eta euren argiontzia atontzen asi zira. 8 Buruariñak, zuurrakana joanda, auxe esan eutseen: 'Gure argiontzia atzamatzen asi dira. Emon egiguzue orio apur bat.' 9 Eta zuurrak arei: 'Ezin emon daikegu, bestela geuk be ez geuke naikoa eukiko. Obe dozue dendara joan eta antxe eroste.' 10 "Areik orrelaxe egin eben; baiña orioa erosten ziarduen artean, senarra etorri zan. Orduan, guztia gertu eukenak, aregaz batera ezteguetara sartu ziran, eta gero atea itxi egin zan.

11 "Geroago, beste neskak etorri eta deika asi ziran: 'Jauna, jauna, zabaldu egiguzu!' 12 Baiña arek auxe erantzun eutsen: 'Benetan dirautsuet: ez dakit nortzuk zareen.'

13 "Zoli egon, ba —amaitu eban Jesusek—, Gizaseme onen etorrerearen egunik ez ordurik ez dakizue-ta.

Dirutza ta irabaziak(Lk 19, 11-27)

14 "Arako gizon baten antzekoa be izan daiteke Jaungoikoaren erreñua: joanaldi bat urriñera egite-rakoan, bere morroia dei egiñik, bere ondasunak bere morroien zainpean itzi ebazan. 15 Bakotxari, bere trebetasunari egokionez, diru-pillo bat itzi eutsan: bati bost diru-pillo emon eutsazan, beste bati bi, eta beste bati bat. Gero, urriñera joan zan. 16 Bost diru-pillo jaso izan ebazan, dirua irabazitan jarri-rik, beste bost irabazi ebazan. 17 Diru-pillo bi jaso izan ebazan be, beste bi irabazi ebazan. Diru-pillo bat jaso izan ebanak, ostera, ugazabaren dirua artu, lurrean zulo bat egin eta gorde egin eban.

19 "Andik luzarora, ugazaba etorri eta bere morroia kontuak garbitzen asi yaken. 20 Bost diru-pillo jaso izan ebazana eldu zan leenen, eta, irabazi izan ebazan beste bostak ugazabari ekarri-rik, 'Jauna —esan eutsan—, zuk bost diru-pillo itzi zeustazan;

begira: beste bost irabazi dodaz. 21 'Ondo da —erantzun eutsan ugazabak—. Arduradun burutsu ta zintzoa izan zara. Eta gutxian zintzoa izan zanean ezker, beste askozaz geiagoren buru jarriko zaitut. Sartu zaitetz eta eskuartu egizu nire pozetan.'

22 'Diru-pillo bi jaso izan ebazanek be, ugazabagana etorririk, 'Jauna —esan eutsan—, zuk diru-pillo bi emon zeustazan; begira: beste bi irabazi dodaz.' 23 'Ondo da —esan eutsan ugazabak—. Arduradun burutsu ta zintzoa izan zara. Eta gutxian zintzoa izan zanean ezker, beste askozaz geiagoren buru jarriko zaitut. Sartu zaitetz eta eskuartu egizu nire pozetan.'

24 'Azkenez, diru-pillo bat jaso izan ebana etorririk, auxe esan eban: 'Jauna, banekian gizon zorrotza zareana, erein ez zenduan tokian be artu eta zabaldu ez zenduan tokian be batu nai izaten dozuna. 25 Bildurrak artu nenduan, eta zure dirua lurpean gorde neban. Ementxe daukazu.' 26 Eta ugazabak ari: 'Arduradun gaizto ta nagi ori!: erein ez dodan tokian be artu, eta zabaldu ez dodan tokian be batu egiten dodana bazekian, 27 'Zegaitik ez zenduan eroan, ba, dirua diru-etxera? Orrela, nik, barrero etortean, dirutza ta irabaziak jaso izango nebazan. 28 Kendu egiozue, ba, nik emon neutsan diru-pilloa eta emon egiozue amar pillo daukazanari! 29 Izan be, euki daukanari, geiago be emongo yako, eta alakoak gaiñezka eukiko dau; baiña ez daukanari, euki dagian gutxia be kendu egingo yako. 30 Eta ezetarako be ez dan morroi ori, jaurti egizue kanpora, illunetara. An negar egingo dau eta agiñak karraska egingo dautsoe.'

Azken-auzia

31 'Gizaseme au, bere aingeru guztiak lagun dauzala, bere aintza guztiaz etorri daitenean, bere aulki goragarrian jesarriko da. 32 Bere aurrean izango dira batuak munduko erri guztiak, eta Arek alkarregandik banandu egingo dauz, artzaiñak

ardiak akerrakandik banantzen dauzanez, 33 eta ardiak alde batean eta akerrak bestean jarriko dauz. 34 Gero, erregeak batzui auxe esango dautse: 'Zatoze, nire Aitaren bedeinkatuok; artu egizue munduaren asierarik zeuentzat atondutako erreñua. 35 Izan be, gose izan nintzan eta zuek jaten emon zeusten; egarri izan nintzan, eta edaten emon zeusten; arrotz lez etorri nintzan, eta zeuen etxean artu nenduzuen; 36 billoizik ikusi nenduzuen, eta jantzia emon zeusten; geisorik egon nintzan, eta ikustaldia egin zeusten; kartzelan egon nintzan, eta ikustera etorri zintzakidazen.'

37 'Orduan, zintzoak auxe erantzungo dautsoe: 'Jauna, ¿noiz ikusi zenduguzan, ba, geisorik edo egarri, eta noiz emon geutsun jaten edo edaten? 38 ¿Noiz etorri zintzazan, ba, arrotz lez, eta noiz artu zenduguzan gure etxean? ¿Noiz ikusi zenduguzan billoizik, eta noiz emon geutsun jantzirik? 39 ¿Noiz egon zintzazan geisorik edo kartzelan, eta noiz joan gintzazan zu ikustera? 40 Eta erregeak auxe erantzungo dautse: 'Benetan dirautsuet: nire anai oneitariko apalenaren alde egin dozuena, neuri egin daustazue.'

41 'Besteai, ostera, auxe esango dautse: 'Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta beronenak diranentzat atonduta dagoan betiko sutara! 42 Izan be, gose izan nintzan, eta ez zeusten jaten emon; 43 arrotz lez etorri nintzan, eta ez nenduzuen zuen etxean artu; billoizik ikusi nenduzuen, eta ez zeusten jantzirik emon; geisorik eta kartzelan egon nintzan, eta ez zeusten ikustaldirik egin.'

44 'Orduan, areik auxe esango dautsoe: 'Jauna, noiz ikusi zenduguzan, ba, goserik, edo egarri, edo arrotz, edo billoizik, edo geisorik, edo kartzelan, eta ez geutsun laguntzarik eskiñi?' 45 Eta erregeak auxe erantzungo dautse: 'Benetan dirautsuet: apalenen alde egin ez zenduena, neuri be ez zeusten egin.' 46 Beraz, oneik betiko zigorrera joango dira; zintzoak, ostera, betiko bizitzara.'

Azpi-jokoa Jesusen aurka

(Mk 14, 1-2; Lk 22, 1-2; Jn 11, 45-53)

26 1 Jaunak, berbaldi ori amaitu ebanean, auxe esan eutsen bere ikasleai: 2 'Ondo dakizuenez, egun bi barru Pazko-eguna da, eta Gizaseme au gurutzean josteko salduko dabe.'

3 Egun areitan, abadeburu ta erriko zaarrak Kaifas eritzon abade nagusiaren etxean batu ziran. An, Jesusi, azpikeriz, eskuak ezarteko ta eriotza emoteko erabagia artu eben. 5 Baiña auxe iñoen: 'Ez dagigun jai-bitartean egin, errian zarraparrarik sortu ez daiten.'

Emakume batek usaingarria isurten dau Jesusen gaiñera (Mk 14, 3-9; Jn 12, 1-8)

6-7 Jesus Betanian*, legenarduna eritzon Simonen maian jarrita egoala, emakume bat urreratu yakon, artzuri-ontzi bate(ta)n usaingarri oso balioetsua beragaz eroiala, eta usaingarria Jesusen buru-gaiñera isuri eban. 8 Egitada orrek mindu egin ebazan ikasleak, eta auxe esan eben: '¿Zetarako alperrik-galtze ori? 9 Usaingarri orrek saltzeko balio oso ona izan eikean eta dirua beartsuai emon leitekien.' 10 Baiña Jesus, orretzaz konturaturik, auxe esan eutsen: '¿Zegaitik mintzen dozue emakume au? Egitada ona da niri egin daustana. 11 Beartsuak beti izango dozuez zuen artean, baiña ni ez nozue beti izango. 12 Usaingarri au neure gaiñera isurtean, nire gorpua illetarako atontzea lez izan da. 13 Benetan dirautsuet: salbamen-mandatu au iragarri daiten munduko edozein tokitan, emakume au be gogorá ekarriko dabe, baita onek egin dauana be.'

Judasek Jesus saldu egiten dau

Mk 14, 10-11; Lk 22, 3-6) 14 Orduan, amabi ikasleatariko batek, Judas Iskariote* izenekoak, a adeburuak ikustera joanda, 15 auxe esan eutsen: '¿Z

(r) sari emongo daustazue, Jesus zeuen eskuetan izten badot?' Areik ogetamar zidar-diru eskiñi eutsoezan. 16 Arrezkero, Jesus arei saltzeko aukerabilla asi zan Judas.

Jaunaren aparta (Mk 14, 12-26; Lk 22, 7-23; Jn 13, 21-30; Ko 1^a, 11, 23-25)

17 Legamin bagariko ogien leenengo jaiegunean, ikasleak, Jesusegana urreraturik, auxe esan eutsoen: 'Non nai dozu Pazko-aparia atondu dagitzugun?' 18 Eta Jesus, arei: 'Zoaze urira, urliaren etxera, eta mandatu au emon egiozue: 'Trakasleak auxe diño: Nire ordua ur dago, eta zeure etxean ospatuko dot Pazkoa nire ikasleakaz.'

19 Ikasleak Jesusek agindu izan eutsena egin eta Pazko-aparia atondu eben.

20 Arratsalde-beranduan, Jesus amabi ikasleak maian jarri zan. 21 Gero, apaltzen ziarduen artean, Jesusek auxe esan eban: 'Benetan dirautsuet: zuetariko batek saldu egingo nau.'

22 Berba oneik samieñez beterik itzi ebazan ikasleak, eta banan-banan Jesusi itauntzen asi yakozan: '¿Neu ete-naz, ba, Jauna?' 23 Eta Jesus, arei: 'Agokadea neure plateretik artu dauan bat da ni salduko nauana. 24 Gizaseme onek bere bideari jarraitu bear dautso, bai, Liburu Santuak beronetzaz diñoenez. Alan be, zoritxarrekoa Gizaseme au saltzen dauana! Obe leuke orrek jaijo ez balitz.'

25 Judasek, saltzailleak, auxe itandu eutsan: '¿Neu ete-naz, ba, Irakasle?' Eta Jesus, arei: 'Bai, zeuk esan dozu.'

26 Apartan, Jesusek ogia artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, zatitu egin eban eta bere ikasleai emon eutsen, esanez: 'Artu, jan egizue: au, neure gorputza da.'

27 Gero, bere eskuetan edontzia artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, bere ikasleai emon eutsen, esanez: 'Edan egizue guztiok onetatik, 28 au neure odola da-ta, Jaungoikoak sendotzen dauan

alkartasuna, guztien alde pekatuak parkatzeko isuriko dana. 29 Benetan dirautsuet: onezkero ez dot maats-frutu onetatik edango, nire Aitaren erreñuan ardao barria zeukaz edan dagidan egunerarte.”

30 Gero, eskerrak emoteko gorapen-kantua abestu eben, eta Orio-mendirantz urten ziran.

Jesusek Pedroren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz

(Mk 14, 27-31; Lk 22, 31-34; Jn 13, 36-38)

31 Orduan, Jesusek auxe esan eutsen: “Gau onetan zuek nigan dozuen sinismenak uts egingo dau, Liburu Santuak olantxe diño-e-ta: *Artzaiña zaurituko dot eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira* *. 22 Baiña, nire biztuera-ostean zeuen aurrean joango naz Galileara.”

33 Pedrok auxe esan eutsen: “Zuganako sinismena guztiak galduarren be, nik ez dot galduko!” 34 Eta Jesusek ari: “Benetan dirautsut: gau onetan bertan, oillarrak jo baiño leen, zuk iru aldiz ukatuko nozu.” 35 Eta Pedrok Jesusi barriro be: “Ezta onetan neure bizia galdu bear badot be, ez zaitut nik ukatuko!” Eta orixe berori iñoen beste ikasleak be.

Jesusen otoitza Jetsemanin

(Mk 14, 32-42; Lk 22, 39-46)

36 Jesusek, bere ikasleakaz Jetsemani izeneko tokira eltzean, auxe esan eutsen: “Geratu zaitze emen, ni aruntzago otoitz egitera noan artean.” 37 Eta Pedro ta Zebedeoren seme biak beragaz eroan ebazan. Orduan, mintzen eta larritzen asi zan, 38 eta auxe esan eutsen: “Eriotz-larriak artu nau. Geratu emen eta iratzarrik egon zaitzeze nigaz batera.”

39 Zerbait aurrerago joan zan, eta, lurreraiño auspaturik, olantxe egin eban otoitz: “Nire Aita, aal bada, urrindu egizu nigandik samieñzko edontzi au; baiña ez bedi neuk nai dodana egin, zeuk nai dagizuna baiño.”

40 Orduan, ikasleak egozan tokira biurtu zan, eta, areik lotan aurkitzean, Pedrori auxe esan eutsen: “¿Ordubete be ezin egon izan zaree nigaz iratzarrik? 41 Egon zaitzeze iratzarrik eta otoitz egizue, ur dagoan tentaldian jausi ez zaitzezen. Gogo ona dozue, bai, baiña ez daukazue indarrrik.”

42 Arekandik bigarrenez alde egin eta olantxe egin eban otoitz: “Nire Aita, samieñzko edontzi au nik edan bagarik ezin igaro bada, egin bedi zeuk nai dagizuna.”

43 Ikasleak egozan tokira barriro etorririk, barriro be lotan aurkitu ebazan, logureak jota. 44 Beraz, egozan lez itzi ebazan, eta, arekandik alde egiñik, irugarren aldiz berba berberakaz egin eban otoitz. 45 Barriro etorri zanean, auxe esan eutsen: “¿Oraindiño be lotan eta atsedean artzen irauten dozue? Eldu da ordua: Gizaseme au pekatarien eskuetan izango da itzia! 46 Jagi zaitzeze, goazan. Ementxe dago ni saltzen nauana.”

Jesus, lotuta daroe

(Mk 14, 43-50; Lk 22, 47-53; Jn 18, 2-12)

47 Jesusek berbetan ziarduala, Judas, amabi ikasleetariko bat, eldu zan. Gizatalde andia lagun ebalta etorren, ezpata eta makillakaz, abadeburu ta erriko zaarrak bialduta. 48 Judasek, saltzailleak, ezaugarri au emon izan eutsen: “Nik laztandu dagidana, axe da. Lotu egizue.”

49 Jesusegana urreraturik, ba, “Agur, Irakasle!” esan eutsan Judasek. Eta laztan bat emon eutsan. 50 Eta Jesusek ari: “Adiskide, egitera etorri zareana, egizu onezkero.”

Bereala besteak etorri ziran, eta, Jesusi eskuak ezarrik, lotu egin eben. 51 Orduan, Jesusegaz egoan batek, ezpatea atarata, zartada bat az abade nagusiaren morroiari belarria ebagi eutsan. 52 Baiña Jesusek ari: “Gorde ezpata ori. Ezpatea darabilen guztiak, ezpataz ilgo dira. 53 ¿Ez al-dozu uste nire Aitari laguntza eskatu daikeodanik, eta Arek

oraintxe bertan amabi aingeru-gudaroze* bialduko leuskidazanik? 54 Baiña orretara, ¿zelan beteko litzake Liburu Santuetakoa, au olantxe jazo bear dala diño-ta?”

55 Orduan, Jesusek laguntaldeari auxe esan eutsan: “Zegaitik etorri zaree ni lotzera ezpata eta makillakaz, lapur-billa lez? Egun oro jardun izan dot zuen artean jauretzean irakasten, eta ez nozue atxillotu. 56 Baiña guzti au, profetak idatzi ebana bete daiten jazoten da.”

Une aretan, Jesusen ikasle guztiak Jesus bertan-beera itzi eta iges egin eben.

Jesus, Batzar Nagusiaren aurrean

(Mk 14, 53-65; Lk 22, 54-55. 63-71; Jn 18, 12-14. 19-24)

57 Jesus lotu izan ebenak Kaifas abade nagusiaren etxera eroan eben, Lege-irakasleak eta zaarrak batuta egozan tokira. 58 Pedrok Jesusi urrindik jarraitu eutsan, abade nagusiaren etxeko atarteraiño; bera be barruan sartu eta morroiaren ondoan jesarri zan, guzti a zetan amaitzen zan ikusteko.

59 Abadeburuak eta Batzar Nagusiko guztiak Jesusen aurka guzurrezko testigantza baten billa ziarduen, Ari eriotza emoteko; 60 baiña arein aurrean guzurrezko testigu asko aurkeztuarren be, ez eben ezer aurkitzen. Azkenez, testigu bi aurkeztu ziran, 61 eta auxe esan eben: “Onek auxe esan dau: Jaungoikoaren etxea beera bota daiket nik, eta iru egunen barruan barriro jaso.” 62 Abade nagusiak, zutundurik, auxe itandu eutsan: “¿Ez dozu ezer erantzuten oneik diñoenaren aurka?”

63 Baiña Jesus isilik geratu zan. Orduan, abade nagusiak auxe esan eutsan: “Jaungoiko biziaren izenean agintzen dautsut: esan egiguzu Mesias, Jaungoikoaren Semea, zeu zanean!” 64 “Zeuk esan dozu —erantzun eutsan Jesusek—. Baiña auxe be esango dot: *aurrerantzean Gizasemea Jaungoiko guztiaaldunaren ondoan leku goragarrian jesarrita*

*eta zeruko odei-gaiñean etorten** ikusiko dozue.”

65 Ori entzutean, abade nagusiak, asarre-ezaugarritzat bere jantziak urraturik, auxe esan eban: “Bira esan dau! ¿Zetarako nai dogu testigantza geiagorik? Entzun dozue orren bira esan! 66 ¿Zer diñozue orretzaz?” “Eriotzarako errudun dala!” erantzun eben areik.

67 Bereala aurpegira txistua jaurtiten eta ma-trailakoak eta ukabilkadak emoten asi yakozan, 68 deadarka iñoen artean: “Igarri, Mesias, nok jo zaituan!”

Pedrok Jesus ukatu egiten dau

(Mk 14, 66-72; Lk 22, 56-62; Jn 18, 15-18. 25-27)

69 Bitartean, Pedro jesarrita egoan kanpoan, atartean. Neskame batek, aregana urreraturik, auxe esan eutsan: “Galileako Jesusi lagun egiten eutsone-tariko bat zara zu.” 70 Pedrok ukatu egin eban guztien aurrean: “Ez dakit zertaz egiten dozun berba!” 71 Gero, ateruntz jo eban, eta, urteteko egoala, beste neskame batek ikusi eban, eta an egozanai auxe esan eutsen: “Ori be Nazaretoko Jesusegaz ebillen.” 72 Barriro be, Pedrok ukatu, zin egiñez: “Ez dakit gizon ori nor dan!” 73 Zerbait geroago, an egozan batzuek, Pedrogana urreraturik, auxe esan eutsen: “Bai, zeu be areitarikoa zara benetan. Zeure berbakeran be igarten yatzu!”

74 Orduan, Pedro aiñenka eta araoka asi zan: “Ez dakidala, ba, gizon ori nor dan!” Eta bat-batean oillar batek kukurruru egin eban. 75 Ori entzutean, Jesusek esan izan eutsan au ekarri eban gogora Pedrok: “Oillarrak jo baiño leen, zuk iru bidar ukatuko nozu.” Eta, andik urtenda, negar baten asi zan.

Jesus, Pilatogana daroe

(Mk 15, 1; Lk 23, 1-2; Jn 18, 28-32)

27 1 Goizean-goiz, abadeburuak eta erriko

zaarrak Jesus ilteko erabagia artu eben. 2 Lotuta eroan eben, eta Pilato jaurlariari emon eutsoen.

Judasen eriotza (Ap Eg 1, 18-19)

3 Bitartean, Judas, saltzaillea, Jesus eriotzara galdu izan ebela ikustean, kezkaz beterik, abadeburu ta zaarrai ogetamar zidar-diruak biutzera joan zan. 4 Auxe esan eutsen: "Gizon errubagea ilgo da eta neuk dot orren errua!" "Ori zeure arazoa da eta ez gurea", erantzun eutsoen areik. 5 Orduan, Judasek dirua jauretxean jaurti eban. Gero, joanda, bere burua urkatu egin eban.

6 Abadeburuak, diruak batuta, auxe esan eben: "Diru au odolez loituta dago. Ezin sartu daikegu eskingai-kutxan." 7 Azkenez, diruaz Ontzigiñaren Soloa izeneko lurra erostea erabagi eben eta kanpotarren illobitegitzat erabiltea. 8 Orregaitik, solo arek izena "Odol-solo" artu eban, eta gaur arte be solo ari orrelaxe deritzoe. 9 Olantxe bete zan Jeremias profetak esan eban au: *Ogetamar zidar-diru jaso ebezan israeldarrak, salgai egoanari eurak jarritako baliua, 10 eta arekaz ontzigiñaren soloa erosi eben, Jaunak agindu izan eustanez**.

Jesus, Pilatoren aurrean

(Mk 15, 1-4; Lk 23, 1-5; Jn 18, 33-38)

11 Jesus, jaurlariaren aurrean aurkeztu zan, eta onek auxe itandu eutsan: "¿Judarren errege zara zu?" "Zeuk diñozu", erantzun eutsan Jesusek. 12 Eta abadeak eta zaarrak salatzen ebenarren be, Jesusek ez eban arrezkero ezer erantzun. 13 Pilatok auxe itandu eutsan: "¿Ez dozu entzuten oneik zure aurka esaten diarduena?" 14 Baiña Jesusek ez eutsan berbarik be erantzun; beraz, zer pentsatu ez ekiala geratu zan jaurlaria.

Jesus eriotzara galtzen dabe

(Mk 15, 1-4; Lk 23, 1-5; Jn 18,33-38)

15 Pazko-egunean, erromatar jaurlariak kartzelan egoanetariko norbaiti askatasuna emon oi eutsan, laguntaldeak aukeratu egianari. 16 Baegoan orduan giltzapeko entzutetsu bat, Barrabas* izenekoa. 17 Pilatok, laguntaldea batuta ikusi ebanean, auxe itandu eban: "¿Nor nai dozue askatu dagituedan, Barrabas ala Jesus ori, Mesias deritzoena?" 18 Jesus ikusi-eziñagaitik emon izan eutsoena baekialako itandu eban ori Pilatok.

19 Jaurlaria auzi-aulkian jesarrita egoan artean, bere emazteak mandatu au bialdu eutsan: "Gizon ori errubagea da. Ez zaitez sartu gizon orren gorabeeretan. Ez artu zure gaiñean orri jazo dakionik. Bart amesetan, berori dala-ta, gorriak ikusi dodaz."

20 Baiña abadeburuak eta zaarrak laguntaldea berotu egin eben, Barrabasen askatasuna eta Jesusen eriotza eskatu egien.

21 Jaurlariak barriro be auxe itandu eban: "¿Biotarik nor nai dozue askatu dagituedan?" "Barrabas!", erantzun eben areik. 22 Eta Pilatok arei: "¿Eta zer egingo dautsat, ba, Mesias deritzoen Jesus oni?" "Gurutzean josi!", erantzun eben guztiak. 23 "Baiña, ¿ze(r) gaiztakeri egin dau, ba?", itandu eban Pilatok. Baiña areik geroago ta gogorrago iñoen deadarka: "Gurutzean josi!"

24 Pilatok, ezer aurreratu bearrean, geroago ta zarraparra andiagoo sortzen zala ikustean, ura ekarteko agindu eban, eta guztien aurrean eskuak garbitu ebazan, esanez: "Nik ez dot errurik gizon onen eriotzaz! Or konpon zeuek!" 25 Eta guztiak batera auxe erantzun eben: "Geure gaiñera eta geure semeen gaiñera eriotza ori!"

26 Orduan, Barrabas askatzeko agindu eban Pilatok, eta Jesus zigorkadaz astindu eta gurutzean il egiela. 27 Bereala, jaurlariaren gudariak Jesus gudaletxe-barrura eroan eta gudari-talde guztia Jesusen inguruan batu eben; 28 eta, Jesusi soñekoak

erantzirik, estalki gorri bat* jarri eutsoen sorbaldan zear; 29 buruan arantzazko koroea ezarri eutsoen, eta kaiñaberazko makillea eskumako eskuan. Gero, Aren aurrean belaunikoturik, iraindu egiten eben, "Gora judarren erregeal!", deadarka. 30 Eta txistua jaurtiten eutsoen eta kaiñabereaz buruan joten eben. 31 Jesusen lepotik naikoa barre eginda gero, Ari gaiñeko estalkia erantzi eta barriro be bere soñekoak jantzi eutsoezan, eta gurutzean ilteko eroan eben.

Jesus, gurutzean

(Mk 15, 21-32; Lk 23, 26-43; Jn 19, 17-27)

32 Kanpora urtetean, Simon eritzan Zireneko gizon bat aurkitu eta Jesusen gurutzea eroatera beartu eben. 33 Golgota (edo "Buruazurtegi") deritzan tokira elduta, 34 beaztunaz naastutako ardaoa eskiñi eutsoen Jesusi; baiña Arek, miartzuta gero, ez eban edan nai izan.

35 Gurutzean josi izan ebanean, gudariak Aren jantziak banatu egin ebezan alkarren artean, zotz egiñik. 36 Eta antxe geratu ziran, Jesus zaintzen.

37 Jesusen buru-gaiñean idazkun au ezarri eben: "Au, Jesus da, judarren erregea." 38 Jesusegaz batera, bidelapur bi be josi ebezan gurutzean, bata Aren eskumaldean eta bestea Aren ezkerrekaldean.

39 Andik igaroten ziranak, iraindu egiten eben Jesus, 40 eta, buruari eragiñik, auxe iñoen: "Jau-retxea beera bota eta iru egunen barruan jasoten dozun orrek, askatu egizu zeure burua! Jaungoikoaren Semea bazara, jatsi zaitez gurutzetik!" 41 Era berean, abadeburuak, Lege-irakasleak eta zaarrak be barre egiten eben Aren lepotik, esanez: 42 "Beste batzuk onik atara dauz, eta bere burua ezin onik atara! Jatsi dadilla oraintxe gurutzetik Israelgo errege ori, eta orduantxe sinistuko dautsagu. 43 Bere ueste ona Jaungoikoagan jarri dauan ezker, Jaungoikoak askatu dagiala, ba, orain, benetan maite badau beintzat, eta bera Jaungoikoaren Semea dala diño-ta."

44 Jesusen ondoan gurutzean eskegita egozan bidelapurak be iraiñez beteten eben.

Jesusen eriotza

(Mk 15, 33-41; Lk 23, 44-49; Jn 19, 28-37)

45 Eguerditik arratsaldeko irurak arte, lurralde guzti a illunetan geratu zan. 46 Irurak aldean, Jesusek deadar andi bat egin eban: "Eli, Eli, lemá sabaktani? * (edo bardin dana: 'Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, ¿zegaitik itzi nozu bertan-beera?')*" 47 An egozan batzuek, ori entzutean, auxe esan eben: "Eliasi deika diardu orrek."

48 Bereala, areitariko batek, arrapataka joanda, belaki bat ozpiñetan busti eta kaiñabera baten muturrean ezarri, Jesusi urreratu eutsan, edan egian. 49 Bitartean, besteak auxe zirautsoen: "Geldi, ikusi dagigun salbatzera Elias ete-datorcion." 50 Baiña Jesus, barriro deadar andi bat eginda, il egin zan. 51 Bereala, jauretzekeo oiala zati bitan urratu zan, goitik beera; lurak ikara egin eban eta atxak brintzatu egin ziran; 52 illobiak zabaldu eta ilda egozan sinistedun asko biztu egin ziran. 53 Oneik, Jesusen biztuera-ostean, euren illobietatik urten eta Jerusalemgo uri santuan sarturik, askori agertu yakezan.

54 Erromatar kapitana ta onegaz Jesus zaintzen ziarduenak, lurrikarea ta an jazoten zana ikusirik, bildurrez beterik auxe esan eben: "Benetan, au Jaungoikoaren Semea zan!"

55 Emakume asko be baegozan an, urrindik begira. Galileatik Jesusi zerbitzen jarraitu izan eutsoenak ziran. 56 Arein artean, Mari Madalen, Santiagoren eta Joseren ama zan Mari, eta Zebedeoren semeen ama egozan.

Jesusen illobiratzea

(Mk 15, 42-47; Lk 23, 50-56; Jn 19, 38-42)

57 Arratsalde-beranduan, Jose eritzan Arima-

teako* gizon aberats bat etorri zan; au be Jesusen jarraitzaileetarikoa zan. 58 Gizon onek, Pilatogana aurkezuta, Jesusen gorpua eskatu eutsan. Pilatok emon egioela agindu eban; 59 eta Josek, Jesus izara garbi batatz batuta gero, 60 berak arri-bizian zuluatuzotako illobi barrian ipiñi eban. Gero, arri andi bat txirringolaka jarrerazo eban, arriaz illobi-agoa itxirik; eta alde egin eban andik. 61 Bitartean, antxe egozan Mari Madalen eta beste Mari, illobi-aurrean jesarrita.

Illobia zaintzen

62 Biaramon-goizean, Atontze-eguna* igaro zanean, abadeburuak eta parastarrak, guztiak batera, Pilato ikustera joan ziran, 63 eta auxe esan eutsen: "Jauna, gogoan dogu, iruzurti arek, arteetan bizi zala, irugarren egunean biztu egingo zala esan ebana. 64 Agindu egizu, ba, zaindu dagiela ondo illobia, irugarren eguna igaro arte: Aren jarraitzaileak, ara joanda, gorpua ostu ez dagien eta gero laguntaldeari biztu egin dala esan ez dagioen. Eta azken-guzur ori, leenengoa baiño okerragoa izango litzake." 65 Eta Pilatok arei: "Or dozue gudari-talde bat; zeuek zoaze eta zaindu illobia, zeuek obeto deritzazuenez." Joan ziran, ba, eta illobia ondo itxita geratu zan. Illobia isten eban arria sillutu eta an, zaintzen, gudari-taldea itzi eben.

Jesusen biztuerea

(Mk 16, 1-8; Lk 24, 1-12; Jn 20, 1-10)

28 1 Jaieguna igarota, astearen leenengo eguna argitzean, Mari Madalen eta beste Mari* illobia ikustera joan ziran. 2 Bat-batean, lurrikara andi bat izan zan: Jaunaren aingerua, zerutik jatsi ta illobira urreratuta, illobi-agoa isten eban arria alde batera kendurik, arriaren gainean jesarri zan. 3 Aingeruak tximisteak lez egiten eban dizdiz eta aren soñekoak edurra baizen zuriak ziran. 4 Illobia zaintzen

ziarduen gudariak bildurrez beterik dardaraka asi eta ilda lez geratu ziran. 5 Orduan, aingeruak emakumei auxe esan eutsen: "Ez bildurtu. Badakit gurutzean ildako Jesusen billa diarduzuena. 6 Ez dago emen; biztu egin da, Berak iragarri ebanez. Etorri zaitze ta ikusi egizue Bera jarri izan eben lekua. 7 Orain, zoaze arin, eta Jesus biztu egin dala iragarri egizue Aren ikasleai, eta euren aurrean doala Galileara. Antxe ikusiko dozue. Auxe da nik esan bear neutsuena."

8 Emakumeak illobitik arin-arin urindu ziran, eta bildur-ikaraz, baiña pozez beterik be bai, ikasleai albistea eroatera ariñeketan joan ziran. 9 Orduan, Jesusek, arei bidera urtenik, agurtu egin ebazan; emakumeak, Jesusen aurrean belaunikoturik, mun egin eutsen oiñetan. 10 "Ez izan bildurrik —esan eutsen Jesusek—. Zoaze nire anaiak albistea eroatera. Galileara joan daitezala esan egizue; antxe ikusi aal izango nabe."

Gudariak erosten

11 Emakumeak bidean yoiazala, zaintzaileetariko batzuk urira joan ziran eta jazo izan zana abadeburui jakiñerazo eutseen. 12 Oneik erriko zaarakaz batu ziran; eta guztien artean gudariak diru-pilloaz erostea erabagi eben, 13 Jesusen ikasleak gabez, zaintzaileak lo egozan artean, gorpua ostu egin izan ebela esan egien. 14 Gudariai auxe be esan eutseen: jaurlariak gai ori jakin balegi, eurak askatuko leukezala erantzunbear guztitik. 15 Gudariak dirua jaso eta adierazo izan yakenez egin eben. Eta auxe da gaur arte be judarrak egiten daben jazorikoaren azalpena.

Apostoluen egikizuna

(Mk 16, 14-18; Lk 24, 36-49; Jn 20, 19-23; Ap Eg 1, 6-8)

16 Amaika ikasleak Galileara joan ziran, ba,

Jesusek izentatu izan eutsen mendira. 17 Jesus antxe aurkitu eta gurtu egin eben, batzuk arteetan ezbaitan egozarren be. 18 Jesusek, arekana urreraturik, auxe esan eutsen: "Jaungoikoak zeru-lurretan agintaritz osoa emon daust. 19 Zoaze, ba, eta ikasleak egizuez erri guztietako bizilagunen artean, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuz, 20 eta neuk agindu dautsuedana beteten irakatsiz. Eta auxe jakin egizue: Neu nagoala zuekaz egun oro munduaren azkenerarte."

JESUKRISTOREN BARRI ONA

SAN MARKOSEK DAKARRENEZ

Joan Bateatzaillearen iragartea
(Mt 3, 1-12; Lk 3, 1-9. 15-17; Jn 1, 19-28)

1 1 Jesukristo [Jaungoiko-Semearen]* barri onaren asiera. 2 Isaias profetaren liburuan olantxe dago idatzita:

*Neure mandataria bialtzen dot zure eurrean,
bidea atondu dagitzur*.*

3 Abots bat entzun da;
*norbaitek deadarka diardu basamortuan:
Atondu egizue Jaunaren bidea;
zuzendu bide-zidorrak Arentzat!**

4 Joan Bateatzaillea laguntaldea bateatzen agertu zan basamortuan*. Pekatuen parkamena artzeko, onbideratzea bearrezkoa zala iragarten eban. 5 Judeako errialdeko eta Jerusalemgo bizilagun guztiak Joanek iñoana entzutera urteten ziran. Euren pekatuak autortzen ebezan eta Joanek, Jordanen, bateatu egiten ebazan. 6 Joan ganbelu-ulez jantzita ebillen, narruzko gerrikoa eroian eta matxingorrigoz eta baso-etziaz janaritzen zan. 7 Eta auxe zan arek iragarten ebana: "Nire ostean ni baiño aaltsuago dana dator. Ni ez naz duin, makurtuta, Aren sandalien ugalak askatzeko be. 8 Nik uraz bateatu zaituet, baiña Arek Espiritu Santuaz bateatuko zaitue."

Jesusen bateoa (Mt 3, 13-17; Lk 3, 21-22)

9 Aldi aretan, Jesus Galilea-errialdeko Nazaretetik etorri zan, eta Joanek, Jordanen, bateatu egin eban. 10 Uretatik urteteen, zerua zabaltzen eta Espiritu Santua uso-irudiz bere gaiñera jatsiten ikusi eban Jesusek. 11 Eta zerutik etorren berbots batek

auxe iñoan: "Zeu zara nire Seme maitea; zeugan dot nire atsegiña."

Jesusen tentaldlak (Mt 4, 1-11; Lk 4, 1-13)

12 Gero, Espiritu Santuak Jesusi basamortura egin eutsan bultza, 13 eta an Satanasek zirikatu egin eban berrogei egunez. Jesus basoko abereen artean bizi zan, eta aingeruak ebazan zerbitzari.

Jesusen egkizuna Galilean
(Mt 4, 12-17; Lk 4, 14-15)

14 Joan Bateatzaillea kartzelan sartuta gero, Jesus Galileara joan zan, Jaungoikoaren erreñuko barri ona iragartera. 15 Auxe iñoan: "Eldu da aldia eta Jaungoikoaren erregetza ur dago. Onbideratu zaitze eta sinistu egizue salbamen-mandatua."

Jesusen leenengo ikasleak
(Mt 4, 18-22; Lk 5, 1-11)

16 Galileako itsasertzean* ebillela, Jesusek anai bi ikusi ebazan: Simon eta Ander. Arrantzaleak ziran eta sarea uretara botaten ziarduen. 17 Jesusek auxe esan eutsen: "Neugaz etorri zaitze, eta nik gizon-arrantzale egingo zaituet." 18 Areik, euren sareak berealaxe itzita, Jesusegaz joan ziran. 19 Zerbait aurrerago, Zebedeoren seme zan Santiago eta onen anai Joan ikusi ebazan; txalupan sareak konpontzen ziarduen. 20 Jesusek dei egin eutsen, eta areik, Zebedeo euren aita, lanerako berbatuta eukezan arrantzale batzukaz txalupan itzirik, Jesusegaz joan ziran.

Deabrudun bat osatzen dau Jesusek
(Lk 4, 31-37)

21 Kafarnaunen sartu ziran, eta jaieguna eldu zanean, Jesus sinagogara joan eta an irakasten asi

zan. 22 Aren irakaspenaz guztiak ikaratuta geratzen ziran; izan be, benetako aginpidez irakasten eutsen, eta ez euren Lege-irakasleak lez. 23 An, sinagogan, espiritu zikiñak* artuta eukan gizon bat egoan, eta auxe iñoan deadarka: 24 "Nazaretoko Jesus, bake-tan itzi gazizuz! ¿Geu ondatzera etorri zara? Ondo ezagutzen zaitut: Jaungoikoaren Santua zara zu!" 25 Jesusek agiraka egin eutsan: "Isilik zagoz eta urten zaitez orregandik!" 26 Espiritu zikiñak, gizona indartsu astindurik eta garrasi andi bat egitiñik, itzi egin eban. 27 Jazorikoa ikusi eben guztiak ikaratuta geratu ziran, eta alkarri auxe itauntzen eutsen: "¿Zer jazoten da emen? Irakaspen barria da, aginpidez beterik. Gaiñera, gizon onek espiritu zikiñai agindu egiten dautse, eta orreik esana egiten dautsoe." 28 Berealaxe zabaldu zan Jesusen entzute ona toki guztietan Galileako errialdean.

Pedroren amagiñarreba osatzen dau
(Mt 8, 14-15; Lk 4, 38-39)

29 Sinagogatik urteteen, Simonen eta Anderren etxera joan zan Jesus, Santiago ta Joan be lagun eba-zala. 30 Simonen amagiñarreba, beroenaz, ogean egoala esan eutsen. 31 Eta Jesusek, ari eskutik oraturik, jagierazo egin eban. Berealaxe itzi eutsan beroenak, eta andrea zerbitzen asi yaken.

Beste osatze batzuk(Mt 8, 16-17; Lk 4, 40-41)

32 Illuntzean, eguzkia ostendu zanean*, geiso ta deabrudun* asko eroan eutsuezan. 33 Erri guztia egoan atean pillatuta, 34 eta geisorik egozan asko osatu egin ebazan Jesusek, eta deabru asko jaurti be bai. Deabru onei ez eutsen Beratzaz barbarik egiten izten, ezagutzen eben-eta.

Jesusek mandatua Galilean iragarten dau
(Lk 4, 42-44)

35 Goizaldean, argitu baiño leen, Jesus jagi eta,

uritik urtenda, toki ezkutu batera joan zan, otoitz egitera. 36 Simon eta onen lagunak Aren billa joan ziran, 37 eta, aurkitu ebenean, "Guztiak zeure billa diardue", esan eutsen. 38 Eta Jesusek arei: "Goazan inguruko errietara, an be mandatua iragartera. Orretarakoxe etorri naz." 39 Olan, Galilea guztian ibili zan, mandatua iragarten eta deabruak jaurtiten.

Legenardun bat osatzen dau
(Mt 8,2-4; Lk 5, 12-16)

40 Legenardun bat urreratu yakon Jesusi, be-launiko eskatzen eutsala: "Nai badozu, garbitu nai-kezu nire geisotik." 41 Jesusek, errukituta, eskua luzaturik, ari ikutu bat egin eta auxe esan eutsan: "Nai dot. Garbi geratu zaitez." 42 Bat-batean legenarra kendu egin yakon, eta legenarduna garbi geratu zan. 43 Orduan, Jesusek bialdu egin eban, agindu au gogor emoten eutsala: "Begira, gero: ez esan ezer iñori; baiña zoaz, aurkeztu zaitez abadea-gana eta, zure osatzeagaitik, eskiñi egizu Moisesek agindutako opari-gaia. Orrela, guztiak izango dabe zure osatzearen ezaugarria." 45 Baiña gizona, andik alde eginda batera, jazorikoa azaltzen asi zan; eta albistea berealaxe zabaldu zan ezkerro, Jesus ezin zeitekean uri baten be agirian sartu, eta toki ezkutue-tan geratzen zan. Alan be, laguntaldea toki guztietatik yoian Aren billa.

Elbarridun bat osatzen dau
(Mt 9, 1-8; Lk 5, 17-26)

2 1 Egun batzuk geroago, Jesus Kafarnaunera biurtu zan. Urian Jesus etxera biurtu izan zala jakin ebenean, 2 laguntalde andia batu zan, ataurrean be lekurik geratzen ez zala. Eta Jesusek salbamen-mandatua iragarten eutsen. 3 Orduan, lau gizonen artean, elbarridun bat ekarri eutsen. 4 Laguntaldea zala-ta, Jesusegana eldu eziñik, Jesus egoan etxe-sabaiko* zati bat jaso eben, eta egin eben zulotik

beera jatsi eben ogetxoa elbarridunagaz batera. 5 Jesusek, gizon arein sinismena ikusirik, elbarridunari auxe esan eutsan: "Seme, zure pekatuak parkatuta geratzen dira." 6 Lege-irakasle batzuk be ba-egozan an, eurekaunt pentsatzen ebela: 7 "¿Zer diño onek? Biraoka diardu! Jaungoikoak bakarrrik parkatu daikez pekatuak!" 8 Areik pentsatzen ebenaz berealaxe konturaturik, Jesusek auxe itandu eutsen: "¿Zegaitik pentsatzen dozue orrela? 9 ¿Zer da errazago, elbarridunari Zure pekatuak parkatuta geratzen dira' esatea, ala Jagi zaitez, artu egizu zure ogetxoa ta zabiz' esatea? 10 Gizaseme onek mundu onetan pekatuak parkatzeko aginpidea badaukala agertuko dautsuet, ba." Eta elbarridunagana biur-turik, auxe esan eutsan: 11 "Zeuri dirautsut: jagi zaitez, artu zure ogetxoa eta zoaz etxera." 12 Eta gizona, guztien aurrean jagi eta bere ogetxoa arturik, joan egin zan. Aurrean egozan guztiak arrituta geratu ziran, eta Jaungoikoa goratu eben, esanez: "Onelakorik ez dogu iñoiz be ikusi."

Lebiri deia(Mt 9, 9-13; Lk 5, 27-32)

13 Jesus barriro itsasertzera biurtu zan, eta guztiak Aregana jotzen eben, Aren irakatsiak artzeko. 14 Andik igarotean, Lebi, Alfeoren semea, ikusi eban; dirubatzte-maian* jesarrita egoan, eta, "Zatoz neugaz", esan eutsan Jesusek. Eta Lebi jagi eta Jesusegaz joan zan.

15 Geroago, Jesus eta onen ikasleak Lebiren etxean maian jarri ziran, eta diru-batzaille ta entzute-tzarreko asko be arekaz jarri ziran, Jesusi jarraitzen eutsenak asko ziran-eta. 16 Baiña parastarren alder-dikoak ziran Lege-irakasle batzuek, Jesus diru-batzaille* ta entzute-tzarrekoakaz jaten ikustean, Jesusen ikasleai auxe esan eutsen: "¿Zegaitik jaten dau orrek diru-batzaille ta entzute-tzarrekoakaz batera?" 17 Jesusek, ori entzunik, auxe esan eutsen: "Osasundunak ez dabe osagillerik bear, geisorik dagozanak baiño. Ni ez naz zintzoai dei egitera eto-

ri, pekatariak baiño.

Baraua zala-ta(Mt 9, 14-17; Lk 5, 33-39)

18 Bein, Joan Bateatzaillearen ikasleak eta parastarrak barau egiten ziarduen, eta areitariko batzuek, Jesusegana urreraturik, auxe itandu eutsen: "Joanen ikasleak eta parastarren ikasleak barau egiten dabe; zure ikasleak, ostera, ¿zegaitik ez dabe baraurik egiten?" 19 Eta Jesusek arei: "¿Egin ete-daikee, gero, baraurik, ezteguetarako deituak, senar barria eurakaz dagoan artean? Ez; ezkonbarria euren ondoan euki dagien artean, ezin baraurik egin daikee. 20 Etorriko da, bai, ezkonbarria kenduko yaken eguna; orduantxe egingo dabe barau. 21 Iñok ez dautso soiñeko zaarrari oial gogorrezko ipingirik ezarten; izan be, oial barria estutu egiten da, arek oial zaarrari tiratu egiten dautso, eta tartatadea andiagoa egiten da. 22 Ezta zaragi zaarretara be ez dau iñok ardao barririk botaten; izan be, ardao barriak lertu egiten dau zaragia, eta zaragiak eta ardaoa ondatu egiten dira batera. Ardao barria zaragi barrietara bota bear da."

Ikasleak jaiegunez galburuak artzen
(Mt 12, 1-8; Lk 6, 1-5)

23 Jaiegun baten, Jesus gari-soloetan zear yoian. Ikasleak, andik igarotean, galburuak artzen asi ziran. 24 Ori ikustean, parastarrak Jesusi auxe esan eutsen: "Begira: orreik egiten dabena ez da bidezko jaiegunez." 25 Eta Jesusek arei: "¿Ez al-dozue iñoiz be irakurri Dabidek egin ebana, bera ta bere lagunak gosetu ziran-eta? 26 Abiatar abade nagusi zanean, Dabidek, Jaungoikoaren etxean sartuta, eskintza-ogietatik jan eban, abadeak baiño beste iñok ezin jan egikeezanak. Eta beragaz egozanai be emon egin eutsezan Dabidek. 27 Eta auxe be esan eutsen Jesusek: "Jaungoikoak jaieguna gizonagaitik egin eban, eta ez gizona jaiegunagaitik. 28 Gizaseme au,

jaiegunarena be bada Jaun!"

Gizon esku-igarra (Mt 12, 9-14; Lk 6, 6-11)

3 1 Jesus sinagogan sartu zan barriro. Eskua igartuta eukan gizon bat egoan an; 2 eta Jesus salatzeko zerbaiten billa ziardenak, Jesus zaintzen jarri ziran, jaieguna izanarren be, ea osatuko ete-eban ikusteko. 3 Esku-igarra eukan gizonari Jesusek auxe esan eutsan: "Jarri zaitex emen erdian." 4 Gero, auxe itandu eutsen besteai: "¿Bidezko da jaiegunez ona egitea ala txarra egitea? ¿Bizia salbatzea ala ondartzeta?" Areik isilik egon ziran. 5 Jesusek arei begiratu bat egin eutsen, arein biotz-gogorkeriaz minduta eta atsekabetuta; eta, "Zabaldu esku ori", esan eutsan geisoari. Arek zabaldu egin eban, eta osatuta geratu yakon. 6 Alan be, parastarrak eta Erodesen alderdikoak*, andik urtetean, Jesus ilteko erea asmatzeko batu ziran.

Laguntaldeak Jesusegana jotzen dau (Mt 4, 25; 12, 15-16; Lk 6, 17-19)

7 Jesus bere ikasleakaz itsasertzera* joan zan. Galileako laguntalde andia Aren billa joan zan, 8 baita beste asko be, Judeatik, Jerusalemik, Idumeatik*, Jordango sortzalde-ondotik eta Tiro ta Sidongo* errialdeetatik etorritakoak, Jesusek egiten eban guztia entzun ebenean. 9 Txalupa bat atondu egiela agindu bear izan eutsen Jesusek, laguntaldeak estutu egiten eban-eta. 10 Lagun asko osatu ebazan ezkerro, gatxen bat eukan guztiak, orain bultza-bultzaka etorten ziran, Jesus ikutzeko. 11 Eta espiritu zikiñak* be, Jesus ikustean, belaunikotu egiten ziran Aren oiñetan, "Jaungoikoaren Semea zara zu!", deadarka. 12 Jesusek, barriz, bera nor zan iñori be ez egioela agertu, agintzen eutsen gogor be gogor.

Amabi apostoluak aukeratzen dauz (Mt 10, 1-4; Lk 6, 12-16)

13 Orren ostean, Jesusek, mendira igota, Berak ondo eritzenai dei egin eutsen. Eta Jesusegana urreratu ziran. 14 Amabi be aukeratu eta apostolu egin ebazan, beragaz egon zeiteezan eta mandatua iragartera bialtzeko. 15 Eta deabruak jaurtiteko aalizatea emon eutsen. 16 Amabi aukeratuak oneixek izan ziran*: Simon —oni Jesusek izena Pedro (Arria) jarri eutsan—; 17 Zebedeoren semeak: Santiago ta onen anai Joan —onei izena Boanerjes, edo bardin dana, "Trumoi-seme" jarri eutsen—; 18 Ander, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago, Alfeoren semea; Tadeo, Simon Kanaandarra*, 19 eta Judas Iskariote*, gero Jesus saldu ebana.

Jesusen senideak

20 Jesus bere ikasleakaz etxean sartu zan, eta barriro be laguntalde andia batu zan, jaten be izten ez eutsela. 21 Jesusen senide batzuk, Jesus antxe egoala jakin ebenean, indarrez eroatera joan ziran, burutik eginda egoala iñoen-eta.

Jesus eta Beeltzebul (Mt 12, 22-32; Lk 11, 14-23; 12, 10)

22 Jesusek Beeltzebul*, deabruen nagusia bera, eukala barruan, iñoen Jerusalemik etorritako Lege-irakasle batzuek, eta orrexegaitik eukala deabruak jaurtiteko aalizatea 23 Orduan, Jesusek, irakasle arekana biuriturik, ipuiñen bidez auxe esan eutsen: "Satanasek Satanasek, ¿zelan jaurti daike, ba? 24 Erri bat bere buruaren aurka banantzen bada, erri orrek ezin iraun daike zutunik. 25 Bere buruaren aurka banandu daiten sendiak (*familiak*) be ezin iraun daike zutunik. 26 Eta Satanasek be, bere buruaren aurka jagiten eta banantzen bada, ezin iraun aal izango dau zutunik; eldu yako bere azkena. 27 Iñok ezin

daike, gizon baten etxean sartuta, onen ondasunik ostu, leenen indartsua lotzen ez badau; lotu ezkerro, bai, orduantxe bakarrik ustu aal izango dau aren etxea. 28 Benetan dirautsuet: gizonai guztia parkatuko yake: euren pekatuak eta biraoak. 29 Baiña Espiritu Santuaren aurka birao egin dagianak, iñoiz be ez dau parkamenik izango, eta alakoa beti errudun izango da."

30 Espiritu zikiñak artuta egoala iñoelako esan eban ori Jesusek.

Jesusen ama ta senideak (Mt 12, 46-50; Lk 8, 19-21)

31 Bitartean, Jesusen ama ta senideak etorri ziran; baiña, kanpokaldean geraturik, deia bialdu eutsoen. 32 Jesusen inguruan jesarrita egozan batzuek auxe esan eutsoen: "Zure ama ta senideak or kanpoan dagoz eta zeure billa diardue." 33 Eta Jesusek arei: "¿Nortzuk dira nire ama ta nire senideak?" 34 Eta, bere inguruan egozanakana begiraturik, auxe esan eban: "Oneixek dira nire ama ta nire senideak. 35 Izan be, Jaungoikoaren naia beteten dauana, orixe da nire anaia, eta nire arrebea, eta nire ama."

Ereillearen ipuiña (Mt 13, 1-9; Lk 8, 4-8)

4 1 Beste bein, Jesus itsasertzean irakasten asi zan. Eta Aren inguruan laguntalde andia batu zan ezkerro, itsasoan egoan txalupa batera igotea eta antxe jarrea erabagi eban Jesusek, laguntaldea itsasertzean geratzen zan artean*. 2 Orduan, Jesus gai asko ipuiñen bidez asi yaken irakasten. Bere irakastaldian auxe zirautsen:

3 "Entzun: bein, ereille bat ereitera urten zan. 4 Azia jaurtitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran, eta txoriak, etorrita, jan egin ebazan. 5 Beste azi batzuk lur askorik ez eukan arri-arteon jausi ziran; eta, lurak sakonik ez eukan ezkerro, berealaxe erne

ziran; 6 baiña, eguzkia urtenda batera, legortu ta igartu egin ziran, ez eukan zuztarrik-eta. 7 Beste azi batzuk gardu-arteon jausi ziran, eta, burutu baiño leen, garduak azi eta ito egin ebazan. 8 Beste azi batzuk lur emokorrean jausi ziran, eta erne ta azi egin ziran, eta frutua ekarri eben: galburu batzuek bateko amarrak; beste batzuek irurogei, eta beste batzuek eun." 9 Jesusek auxe esan eban gaiñera: "Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala."

¿Zegaitik ipuiñetan? (Mt 13, 10-17; Lk 8, 9-10)

10 Geroago, Jesus amabiakaz eta beste ikasle batzukaz bakarrean geratu zanean, ipuiñak zer adierazoten eben itandu eutsoen areik. 11 Eta Jesusek arei: "Zuei, Jaungoikoak bere erreñuko ezkutua ezagutzen izten dautsue; baiña besteai, kanpokoai, ipuiñen bidez egiten dautse berba: 12 begiratuarren be, ikusi ez dagien, eta entzunarren be, ulertu ez dagien, bada-ezpada be onbideratu ta parkatuak izan ez daitezana*."

Ereillearen ipuiña azaltzen dautse (Mt 13, 18-23; Lk 8, 11-15)

13 Eta gero, Jesusek auxe esan eutsen: "¿Ez dozue ipuin au ulertzen? ¿Zelan ulertuko dozuez, ba, beste guztiak? 14 Ereillea, mandatua iragarten dauana da. 15 Batzuk, bide-ondoan jausitako azia lez dira: entzuten dabe mandatua, bai; baiña Satanasek, arekana etorrita, arekan ereinda egoan mandatua eroan egiten dau. 16 Beste batzuk, arri-arteon jausitako azia lez dira: mandatua entzun eta pozik artzen dabe; baiña ez dauke zuztarrik eta iraupen-bageak dira; beraz, mandatuagaitik larrialdi edo erasoaldia eltzen yakezanean, ezin iraun daike zutunik. 18 Beste batzuk, gardu-arteon jausitako azia lez dira: mandatua entzun bai, entzuten dabe, 19 baiña fruturik ekarri bagarik izten dautsoe ilten, bizitza onetako gora-beera, irabazpide ta zalekerien ardurea

bakarrik dabe-ta. 20 Baiña beste batzuk, lur emokorrean jausitako azia lez dira; oneik mandatua entzun eta onartu egiten dabe, baita frutua ekarri be: bateko ogetamar, irurogei edo eun.”

Argiontzia ta negurria

(Mt 5, 15; 10, 26; 7, 2; Lk 8, 16-18; 11, 33; 6, 38)

21 Auxe be esan eutsen: “¿Ontziaz* estaltzeko edo ogepean sartzeko ete-da argiontzia? ¿Goian ipinteko ta argi egiteko ez ete-da iziotzen, gero? 22 Izan be, ezer be ez dago gordeta, agirian jarriko ez danik; ezta isilpean egindakorik be, argitara urtengo ez danik. 23 Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala.”

24 Auxe be esan eutsen: “Adu entzuten dozuen au: enparaduak negurtu dagizuezan negurri berberaz negurtuko zaitue Jaungoikoak, eta eurrez negurtu be. 25 Izan be, euki daukanari, geiago emongo yako; baiña ez daukanari, euki dagian gutxia be kendu egingo yako.”

Berez azten dan aziaren ipuiña

26 Auxe be esan eutsen: “Jaungoikoaren erregetzaz, gizon batek lurreen ereiten dauan lez jasoten da: 27 gizona lo egon naiz iratzarririk, gabez naiz egunez, azia erne ta azi egiten da, gizonak zelan jakin ezarren be. 28 Lurak, berez, azitik frutua dakar: leenen, bedarra erneten da, gero galburua eratzen da, eta azkenez, galburua beteten dauan garaua. 29 Eta garaua eltzen danean, segalariak joaten dira batzera, solo-ariaren sasoia eldu da-ta.”

Moztaza-aziaren ipuiña

(Mt 13, 31-32; Lk 13, 18-19)

30 Auxe be esan eutsen: “¿Zeren antzekoa egingo dogu Jaungoikoaren erregetza? ¿Zein ipuiñez azalduko dogu? Moztaza-aziaren antzekoa da: lurreen ereiten danean, azi guztietarik txikiena da; 32

baiña, ereinda gero, ortuko beste landarak baiño geiago azten da, eta adar andiak be andiak emoten dauz, aren gerizpean txoriak abiak be egiteraiño.”

33 Orrelako ta beste ipuin askoren bidez iragarten eban Jesusek mandatua, bere entzuleak ulertu aal izateko eraz. 34 Eta ipuin bagarik ez eutsen ezer esaten. Gero, bakarrean, bere ikasleai azaltzen eutsen guztia.

Jesusek ekatxa baretzen dau

(Mt 8 23-27; Lk 8, 22-25)

35 Egun aretan bertan, illuntzean, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: “Goazan beste itsasertzera.” 36 Bereala, laguntaldea bertan itzirik, txalupan eroan eben, egoan lez. Beste txalupa batzuk atzean yoiazan. 37 Bat-batean, ikaragarriko aize boladea sortu zan, eta olatuak txalupa-barruraino sartzan ziran, txalupea ia urez beteteraiño. 38 Jesus, bitartean, lo egoan atzekaldean, burupeko baten gainean etzanda. Ikasleak iratzartu egin eben: “Trakasle, ¿ez dauzu ardurarik gu urperatzeak?” 39 Jesusek, jagirik, aizeari agiraka egin eta itsasoari auxe esan eutsan: “Txo! Isilik ago!” Aizea gelditu, eta barealdi ederra egin zan. 40 Orduan, Jesusek arei: “¿Zegaitik bildurtu zaree? ¿Non dago zuen sinismena?” 41 Baiña areik arrituta geratu ziran, alkarri itauntzen eutsoela: “Nor da au, aizeak eta itsasoak be esana egiten dautsoe-ta?”

Jerasatarra osatzen dau

(Mt 8, 28-34; Lk 8, 26-39)

5 1 Beste itsasertzera eldu ziran, Jerasako* errialderra. 2 Jesus txalupatik jatsi zanean, illobitegitik, espiritu zikiñak* artuta eukan gizon bat urten yakon bidera. 3 Gizon ori illobitegian bizi zan, eta katez be ezin eikean iñok lotuta euki. 4 Sarritan burdiñazko estunez eta katez lotu izan eben, baiña arek kateak ausi eta iñok be ezin eikean a ezi. 5 Egunez eta gabez

illobi-artean* eta mendietan zear ebillen, deadarka eta bere burua arriakaz jotzen. 6 Urrindik Jesus ikustean, ariñeketan asi eta Aren oiñetan belaunikotu zan, bere indar guztiaz iñoala: “Baketan itzi nagizu, Jesus, Jaungoiko gorengoaren Seme orrek! Jaungoikoarren, ez nagizula oiñazetu eskatzen dautsut!” 8 Jesusek espiritu zikiñari gizon aregandik urteteko esaten ziarduan-eta. 9 “¿Zelan dozu izena?”, itandu eutsan Jesusek. Eta arek: “Taldea* dot izena, asko gara-ta.” 10 Eta lurralde aretatik ez egiala jaurti, eskatzen eutsan erreguka.

11 Mendi-barrenean txarri-talde* andi batek larratzen ziarduan, 12 eta espirituak Jesusi erregu au egin eutsoen: “Bialdu gagizuz txarriokana, eurokan sartu gaitezau.”

13 Jesusek baimena emon eutsen, eta espiritu zikiñak gizonagandik urten eta txarriakan sartu ziran. Bat-batean, txarri-taldea aldapa-beera itsarora amildu zan, eta txarriak —bi milla-edo— antxe ito ziran.

14 Txarriaiñak iges egin eta jazoriko guztia erri ta basarrietan zabaldu eben. Laguntaldea jazorikoa ikustera joan zan ara. 15 Eta, Jesus egoan tokira eldu ziranean, leen deabru-taldeak artuta eukan gizona ikusi eben, eta orain jesarrita, jantzita eta bere senera biurtuta egoala. Eta guztiak bildurrez bete ziran. 16 Jazorikoa ikusi ebenak, enparaduai deabrudunarena ta txarriena azaldu eutseen, 17 eta orregaitik, lurralde aretatik alde egiteko erregutzen eutsoen Jesusi.

18 Orduan, Jesus txalupara igo zan. Deabrudun izandako gizonak lagun egiten laketu egiola eskatzen eutsan Jesusi. 19 Baiña Jesusek ez eutsan laketu, eta beste au esan eutsan: “Zoaz etxera, zeureakana, eta azaldu egiezu Jaunak egin dautsun guztia eta izan dautsun errukia.”

20 Gizona joan egin zan, eta Jesusek egin eutsan guztia zabaltzen asi zan Dekapolisko* lurraldeko errietan. Eta laguntaldea ikaratuta geratzen zan.

Jairoren alabea. — Emakume geisoa

(Mt 9, 18-26; Lk 8, 40-56)

21 Jesus barriro beste itsasertzera biurtu zan, eta bereala laguntalde andia batu yakon inguruan. 22 Jesus itsasertzean egoala, Jairo izeneko bat, sinagogako nagusietarikoa, urreratu zan; eta, Jesus ikustean, beronen oiñetan belaunikoturik, 23 auxe eskatu eutsan: “Nire alabea il-zorian dago; baiña, zeu bazatoz eta zuk gainean zeure eskuak ezarten badautsazuz, osatu eta bizi izango da.” 24 Jesus aregaz joan zan. Laguntalde andiak jarraitzen eutsan Jesusi, berau estutzen ebala.

25 Laguntaldearen artean, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume bat zan. 26 Osagille askogandik neke asko igaro eta bere ondasun guztiak eralgita gero, osatu bearrean geroago ta txarrago egoan. 27 Jesusi buruz berba egiten entzun izan eban emakume arek, laguntaldearen artean naasturik eta Jesusegana urreratuta, atzetik soingaiñekoa ikutu eutsan, 28 berekautan iñoala: “Soingaiñekoa ikutzen ba-dautsat ikutu bakarrik, osatu egingo naz.” 29 Eta alantxe izan zan. Bat-batean, odol-jarioa osatu egin yakon, eta geisotik osatuta geratzen zala igarri eutsan bere gorputzean. 30 Jesusek, bere aal-izatez norbait osatu egin ebala konturaturik, laguntaldeaganuntz biurtuta, “¿Nok ikutu dau nire soingaiñekoa?”, itandu eban 31 Eta ikasleak Jesusi: “Ondo ikusten dozu laguntaldeak estutu egiten zaituana alde guztietatik; ¿eta nok ikutu zaituan itauntzen dozu?” 32 Baiña Jesusek ingurura begira irauten eban, ori egin izan ebana agirian jarteko. 33 Orduan, emakumeak, jazo izan zana baekialako bildur-ikaraz, Jesusen oiñetan belaunikotzera joanda, egia guztia esan eutsan. 34 Eta Jesusek ari: “Alaba, zeure sinismenagaitik gera-ta zara osatuta. Zoaz bakean, zure geisotik osatuta.”

34 Jesusek berbetan ziarduala, sinagogako nagusiaren etxetik norbaitzuk eldu ziran, oni auxe esatera: “Zure alabea il egin da. Ez egiozu gogaitik

eragin geiago Irakasleari." 36 Baiña Jesusek, berba arei jaramonik egin bagarik, sinagogako nagusiari auxe esan eutsan: "Ez izan bildurrik. Sinismena bakarrik izan egizu!" 37 Eta Pedro, Santiago eta onen anai Joan baiño beste iñor ez eban lagun artu nai izan. 38 Sinagogako nagusiaren etxera joan ziran. Ara eltzean, ango zarraparrea eta uluka negarrez egozanak ikusi ebazan. 39 An sarturik, auxe esan eutsen: "¿Zegaitik zarraparra au ta negar oneik? Neskatoa ez dago ilda; lo dago." 40 Baiña areik barre egiten eban Aren lepotik. Jesusek bialdu egin ebazan andik kanpora, eta, neskatoaren gurasoak eta beragaz joan izan ziranak lagun artuta, neskatoa egoan tokian sartu zan. 41 Neskatoari eskutik oratu eta auxe esan eutsan: "Talitha kum"* (edo bardin dana: "Neskato, zeuri dirautsut: jagi zaitez"). 42 Neskatoa — amabi urtekoa bera —, jagi eta ibiltzen asi zan. Laguntaldea senetik be urtenda geratu zan. 43 Jazorikoa iñori be ez esateko agindu eutsen gogor be gogor Jesusek, eta neskatoari jaten emon egioela agindu eban.

Jesus, baztartua Nazaretan
(Mt 13, 53-58; Lk 4, 16-30)

6 1 Jesus andik urten eta bere lurraldera biurtu zan, bere ikasleak lagun ebazala. 2 Jaieguna eldu zanean, sinagogan irakasten asi zan; eta Jesusek iñoana entzuten eban askok, ikaratuta, auxe iñoen: "¿Nondik atara dau onek guzti ori? ¿Zelan daukaz orrenbeste ezaguera eta zelan egiten dauz orrenbeste mirari bere eskuz? 3 ¿Ez da, ba, au arotza, Mariaren semea, eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta onen arrebak be, ¿ez dira, ba, emen bizi diran oneik?" Beraz, Jesus jauspide zan areintzat. 4 Orregaitik, Jesusek auxe esan eutsen: "Profeta dana toki guztietan onartzen dabe, bere errialdean, bere senitartean eta bere etxean izan ezik." 5 Eta ezin egin izan eban an miraririk; geiso banaka batzuk, orraitño, arei gaiñean eskuak ezarririk osatu ebazan. 6 Jesus

ikaratuta egoan, benetan, laguntalde aren sinismenezagaitik.

Amabien egikizuna (Mt 10, 1.5-15; Lk 9, 1-6)

Orren ostean, Jesusek inguruetako auzunetan irakasten jardun eban. 7 Amabi ikasleak batu eta biñan-biñan bialtzen asi zan, espiritu zikiñai* buruzko aginpidea emoten eutsela. 8 Biderako, makillea baiño ez eroateko agindu eutsen. Ez ogirik, ez zorrorik, ez sakelean dirurik; 9 oiñetarako sandaliak eroan egiezala eta jantzi bat baiño geiago ez egiela eroan. 10 Urrengo irakatsiok emon eutsezan: "Etxe baten sartu zaitezenean, geratu bertan toki aretatik urten arte. 11 Eta tokiren baten ondo artzen eta entzuten ez bazaitue, alde egizue andik eta zuen oiñai itsasitako autsa astindu egizue, arein aurkako agiritzat."

12 Ikasleak, urtenda, onbideratu zeiteezala iragarri eban. 13 Deabru asko be jaurti eta geiso asko orioaz igurtzita osatu ebazan.

Joan Bateatzaillearen erlotza
(Mt 14, 1-2; Lk 9, 7-9)

14 Jesusen entzutea Erodes* erregearen beraren belarrietara eldu zan. Batzuek auxe iñoen: "Ori, Joan Bateatzaillea da; biztu egin da. Orrexegaitik dauko mirariak egiteko aal-izatea." 15 Beste batzuek, ostera, Elias* zala iñoen; eta beste batzuek, antxiñako profeten antzeko profeta bat zala. 16 Erodesek, guzti ori entzutean, auxe esan eban: "Ori Joan da. Nik ari burua ebagiteko agindu neban, baiña biztu egin da." 17 Ain zuzen be, Erodes onek Joan lotu eta kartzelan katepean euki eban, bere anai Feliperen* emazte zan Erodiasegaitik; Erodes, barriz, Erodiasegaz ezkondu izan zan. 18 Izan be, Joaneke auxe esan eutsan: "Ez yatzu bidezko zure anaiaren emaztea eukitea."

19 Orregaitik, Erodiasek gorroto eutsan eta bizia kendu nai eutsan, baiña ez eban arteetan aldi egokirik aurkitu. 20 Erodes berak be Joani bildur eutsan,

gizon zintzo ta santua zana jakiñik; eta bere ardurapean eukan eta gogotsu be entzuten eutsan, beti ez baitan geratzen zanarren be. 21 Azkenez, Erodesen urtebetete-egunean, berak billatzen eban une egokia eldu yakon Erodiasei. Egun orretan, erregeak bere errege-etxeke nagusai, gudalburuai eta Galileako aurrengoai aparti eder bat emon eutsen. 22 Janalbitartean, Erodiaseen alabea dantzan egitera sartu zan; atsegin andia be andia izan eban Erodesek eta onen mailagunak, eta erregeak neskatilleari auxe esan eutsan: "Eskatu egidazu nai dagizuna, eta nik emon egingo dautsut." 23 Zin au egin eutsan bein eta barrero: "Eskatu daistazun guztia emongo dautsut, baita neure erreñu-erdia izanda be!"

24 Orduan, neskatillea zer eskatu leikion itauntzera joan yakon bere amari, eta onek: "Joan Bateatzaillearen burua eskatu egizu." 25 Neskatilleak, bizkor bihurturik, erregeari auxe esan eutsan: "Erratillu baten, oraintxe bertan, Joan Bateatzaillearen burua emon daistazula nai dot."

26 Eskari ori entzutean, erregea biotz-mindu egin zan zearo; baiña bere ziñaz bere mailagunen aurrean berbatuta geratu zan ezkerro, ez eban atzeruntz egin nai izan. 27 Beraz, gudari bat bialdu eban, Joanen burua ekarteko aginduaz. Gudariak, kartzelara joanda, Joani samea ebagi eutsan 28 eta burua erratillu baten ekarri eban. Gero, neskatilleari emon eutsan, eta onek bere amari.

29 Joanen ikasleak, jazorikoa jakin ebenean, aren gorpua eskatzera joan ziran, eta illobi baten ipiñi eban.

Jesusek bost millari emoten dautse jaten
(Mt 14, 13-21; Lk 9, 10-17; Jn 6, 1-15)

30 Apostoluek Jesusegaz batu ziran barrero, eta egin eta irakatsi izan eban guztia jakiñerazo eutsoen. 31 Eta Jesusek arei: "Zatoze bakarrean neugaz. Artu dagigun atsedean labor bat toki gorde baten." Izan be, asko be asko ziran arei alde guztietara jarraitzen

eutseenak, eta jateko astirik be ez eban.

32 Beraz, txalupara igo eta, eurak soillik, toki bazartu batera joan ziran. 33 Baiña laguntaldeak urrintzen ikusi ebazan; eta areik egiten ebanaz konturatu ziran askok, erri guzti areitatik urten eta, itsasertzetik oiñez ariñeketan, aurea artu eutseen. 34 Jesus txalupatik jatsi zanean, laguntalde guzti a batuta ikustean, erruki izan yaken, artzain bagariko ardiak zirudien-eta. Eta gai asko irakasten asi yaken. 35 Egunak aurrera egin eban eta berandutu egin zan; orduan, ikasleak, Jesusegana urreraturik, auxe esan eutsoen: "Ia berandu da eta emen ez da iñor bizi. 36 Bialdu egizu laguntalde au, jatekoa eroatera basarri ta auzunetara joan daitez." 37 Eta Jesusek arei: "Zeuek emon egiezue jaten." Eta areik Jesusi: "¿Zelan erosiko dogu guk ainbeste ogi onei jaten emoteko?" Eta Jesusek arei: "¿Zenbat ogi daukazuez?" Ori ondo ikusita gero, "Bost ogi ta arrain bi", esan eutsoen areik.

39 Laguntaldea bedar eze-gaiñean taldeka etzan zeitela agindu eban Jesusek. 40 Eta eunka ta berrogeta amarnaka jarri ziran. 41 Gero, Jesusek, bost ogiak eta arrain biak arturik, bere ikasleai emon eutsezan, oneik laguntaldearen artean banatu egiezan. 42 Eta guztiak jan eban, ase arte; 43 eta geratu ziran ogi ta arrain-zatiz, oraindiño be amabi otzara-bete batu ebazan. 44 Ogi areitatik jan ebanak bost milla gizonezko izan ziran.

Jesus, ur-gaiñean ibiltzen
(Mt 14, 22-33; Jn 6, 15-21)

45 Gero, txalupara igoteko agindu eutsen Jesusek bere ikasleai, beste itsasertzera, Betsaida-aurrera, bera baiño leen eldu zeiteezan, berak laguntaldea bialtzen eban artean. 46 Guztiak bialdu ebazanean, otoitz egitera joan zan mendira.

47 Gaba eltzean, txalupea itsas-erdian* egoan, eta Jesus legorrean, bakarrik. 48 Gabeko iruretan-édo, txalupakoak arraunka oso nekatuta egozala

ikusirik —aizea aurretik etorkien-eta—, Jesus arekanantz joan zan itsas-gaiñean oiñez, aurrera yoialakoa egiñik. 49 Areik, Jesus itsas-gaiñean ibiltzen ikusirik, mamua zala uste izan eben eta deadarka asi ziran. 50 Izan be, guztiak ikusi eben, eta ikaratu egin ziran. Baiña bereala Jesusek berba egin eta auxe esan eutsen: "Geldi!, neu naz. Ez ikaratu!" 51 Gero, txalupara igo zan, eta aizea gelditu egin zan. Areik arrituta geratu ziran; 52 izan be, ogiai buruz jazo zana ez eben ulertu izan, eta arteetan adimena itsututa euken.

Osaketak Jenesareren (Mt 14, 34-36)

53 Itsasoan zear igaro eta Jenesareren* legorreratu ziran. Itsasertzera elduta, 54 txalupatik jatsitean, laguntaldeak Jesus ezagutu egin eban. 55 Eta errialde guzti aretatik edozetariko geisoak eroaten ebezan, ogetxoetan, Jesus egoala iñoen tokira. 56 Eta edozein tokitara eltzen zala, auzuna, erri naiz basarri izan, geisoak plazetan jarten ebezan, eta, besterik ezean, soingaiñeko-ertza ikutzen izteko eskatzen eutsoen. Eta ikutzen eben guztiak osatuta geratzen ziran.

Ekanduen auzia (Mt 15, 1-20)

7 1 Parastarrak eta Jerusalemik etorritako Lege-irakasle batzuk Jesusegana urreratu ziran. 2 Jesusen ikasle batzuek esku loiakaz, edo bardin dana, esku-garbitze-ekandua* bete bagarik jaten ebela ikusi izan eben. 3 (Izan be, parastarrak eta enparadu judarrak, euren asaben ekanduari* jarraiturik, ez dabe jaten eskuak arduraz garbitu bagarik. 4 Olan, merkatutik biurtzen diranean, ez dabe jaten leenen euren buruak garbitzen ez badabez. Eta beste oitura zaar asko be gordeten dabez, esate baterako, edon-tziak, lapikoak, metalezko ontziak eta ogeak be garbitzea.)

5 Orregaitik, parastar eta Lege-irakasle areik

Jesusi auxe itandu eutsoen: "Zure ikasleak, ¿zegaitik ez dautsoe gure asaben ekanduari jarraitzen? ¿Zegaitik jarten dira jatera esku loiak dabezala?" 6 Eta Jesusek arei: "Itxurazaleok! Zuei buruz ederto iragarri eban aurretiaz Isaiasek, urrengo au idatzi ebanean:

*Erri onek ezpaneaz kanpora goratzen nau,
baiña orrean biotza nigandik oso urrin dago.
7 Alperrik gurtzen nabe,
giza-aginduak beteten bakarrik irakasten dabe-ta*.*

8 "Gizonen aginduai jarraitzearen, Jaungoikoaren aginduetatik alde egiten dozue zuek." 9 Jesusek auxe esan eban gaiñera: "Orrela, ba, zeuen ekanduari eustearren, Jaungoikoaren aginduak zearo alde batera izten dozuez. 10 Izan be, Moisesek auxe esan eban: Aintzat izango dozuz zure aita ta ama; baita beste au be: *Bere aita naiz ama madarikatu dagiana, eriotzara izango da eroana**. 11 Zuek, ostera, auxe diñozue: Norbaitek bere aitari naiz amari badirautso: *Zeuretzat neukan laguntza-bidea, jaurtxeko opari* biurtu dot', 12 orrek ez dau bere aita naiz ama(ri) lagundu bearrik. 13 Orrela, alkarrri izten dautsazuezan zuen ekandu orrekaitik, Jaungoikoak erabagetakoa indar bagarik izten dozue. Orrean antzeko beste gauza asko egiten dozuez zuek.*"

14 Jesusek, laguntaldeari barrero dei egiñik, auxe esan eutsen: "Entzun egidazue guztiok eta ulertu au: 15 gizonagan sartzen dan ezek be ezin loitu daike gizonik. Biotzetik urteten danak, bai, orrexek loitzen dau gizona. 16 [Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala.]*"

17 Gero, Jesus, laguntaldea itzirik, etxean sartu zanean, zer zan esan nai izan ebana itandu eutsoen ikasleak. 18 Eta Jesusek arei: "Beraz, ¿zuek be ez zaree au ulertzeko gauza? ¿Ez al-dozue ulertzen, gizonagan sartzen dan ezek be ezin loitu daikena gizonik? 19 Izan be, ez yako biotzean sartzen,

sabelean baiño, eta gero komunean botaten da". (Orrela, janari guztiak garbiak zirala esan nai izan eban Jesusek.) 20 Eta auxe esan eban gaiñera: "Barrutik urteten danak, bai, orrexek loitzen dau gizona; 21 izan be, barrutik, gizonaren biotzetik, datoz asmo txarrak, lizunkeriak, lapurretak, giza-ilteak, 22 ezkontzausteak, diru-gosea, dongakeria, maltzurkeria, nasaikeria, ikusi-eziña, biraoa, arro-keria, kirtenkeria. 23 Dongakeria guzti orreik barrutik urteten dira, eta loitu egiten dabe gizona."

Siri-fenziar emakumea (Mt 15, 21-28)

24 Jesus toki aretatik Tiroko errialdera joan zan. Etxe baten sartu zan, eta ez eban nai ori iñoak jakin egian; baiña ez eban ezkutuan egoterik aal izan. 25 Alabea espiritu zikiñiak* artuta eukan emakume batek laster jakin eban Jesus an egoana, eta Beronen oiñetan belaunikotzera etorri zan. 26 Emakumea jentilla zan, jaiotez siri-fenziarra*, eta bere alabea oiñazetzen eban deabrua jaurti egiala eskatzen eutsan Jesusi. 27 Eta Jesusek ari: "Ondo da, baiña leenen semeak geratu bear dira aseta. Ez yake semeai ogirik kendu bear txakurrai jaurtiteko." 28 Eta emakumeak Jesusi: "Egia da, Jauna; baiña txakurrak be jaten dabez maipen semeai jausten yakezan ogi-ondarrak." 29 Orduan, Jesusek ari: "Esan dozun orregaitik, zoaz etxera; urten da deabrua zure ala-beagandik."

30 Emakumeak, bere etxera biurtzean, bere alabea ogean etzunda aurkitu eban, baiña deabruagandik askatuta.

Gor-mutu bat osatzen dau

31 Jesus Tiroko errialdetik barrero urten eta, Sidondik igarota, Galileako itsasora joan zan, Dekapolisko* lurraldean zear. 32 An egoala, gorra ta berbartua zan gizon bat eroan eta eskua aren gaiñean ipiñi egiala eskatu eutsoen. 33 Jesusek, gizona

laguntalde-artetik atara egin eban, eta, bakarrean egozala, atzamarrak belarrietan sartu eutsazan eta bere txistuaz miiña ikutu eutsan. 34 Gero, zerura begiraturik, antzi egin eta auxe esan eutsan: "Effatá!"* (edo bardin dana, "Zabaldu zaitetz!"). 35 Bat-batean, gorraren belarriak zabaldu egin ziran, miiña askatu egin yakon eta arek garbi berba egin aal izan eban. 36 Jazorikoa iñori be ez esateko agindu eutsen Jesusek aurrean egozanai; baiña Jesusek gogorrago agindu eta geiago zabaltzen eben besteak albistea. 37 Eta laguntaldeak, guztiz arrituta, auxe iñoan: "Onek ondo egin dau guztia. Gorrai be entzutea eta mutuai berbetea emoten dautse."

Jesusek lau millari emoten dautse jaten (Mt 15, 32-39)

8 1 Egun aretantxe, barrero be laguntalde andia batu zan. Jatekorik ez eukan ezkerro, Jesusek bere ikasleai dei egin eta auxe esan eutsen: 2 "Erruki nakio laguntalde oni. Badira iru egun neugaz dagozala eta ez dauke jatekorik. 3 Bialdu ta baraurik joaten izten badodaz, ondezik jarriko dira bidean. Eta batzuk urrindik etorri dira." 4 Eta ikasleak Jesusi: "Baiña, ¿nondik atara aal izango dogu onenbesteko laguntaldeari jaten emoteko aiña ogi, toki baztatu onetan?" 5 Eta Jesusek arei: "¿Zenbat ogi daukazuez?" "Zazpi", erantzun eben areik.

6 Jesusek lurrean jesarteko agindu eutsan laguntaldeari. Gero, zazpi ogiak artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, zatitu eta bere ikasleai emon eutsezan, oneik banatu egiezan. Eta ikasleak laguntalderen artean banatu ebezan. 7 Arrain batzuk be baeukezan: Jesusek bedeinkatu egin ebazan eta banatu egiezala agindu eban. 8 Guztiak jan eben, ase arte; eta geratu ziran ogiakaz, zazpi otzara ondakiñez beterik batu ebezan. 9 Gero, Jesusek laguntaldea bialdu egin eban. Lau bat milla ziran; 10 eta bere ikasleakaz txalupara igo eta Dalmanuta-aldera* joan zan.

Ezaugarri miragarri baten eske(Mt 16, 1-4)

11 Parastarrak etorri eta Jesusegaz eztabaidan asi ziran. Azpikeriz, ezaugarri maragarriren bat egiteko eskatu eutsoen, mirariak Jaungoikoak Jesus egiaztu egian. 12 Baiña Jesusek, sakonkiro antzi egirik, auxe esan eban: "Laguntalde onek, ¿zegaitik eskatzen dau ezaugarri miragarri bat? Benetan dirautsuet: ez yake ezaugarri emongo!" 13 Eta, areik alde batera itzirik, barriro txalupara igo eta beste itsasertzera joan zan.

Parastarren eta Erodesen legamiña (Mt 16, 5-12)

14 Ikasleai aaztu egin yaken ogia eroatea. Ogi bat baiño ez euken txalupan. 15 Jesusek oarpen au egin eutsen: "Begira: kontuz parastarren eta Erodesen legamiñaz!" 16 Ikasleak, ori entzutean, alkarregaz berbetan asi ziran, ori Jesusek ogirik ez eukelako esan izan eutsela-ta. 17 Baiña Jesusek, orretzaz konturaturik, auxe esan eutsen: "¿Zegaitik diarduzue berbetan ogirik ez daukazuela-ta? ¿Orren itsututa dozue adimena, ezer be ulertzeko gauza ez izateko? 18 Begiak daukazue, baiña ez dozue ikusten; belarriak daukazue, baiña ez dozue entzuten! 19 ¿Ez al-dozue gogoan, bost milla lagunentzat bost ogi banatu nebazaneko? ¿Zenbat otzara batu zenduezan geratutako ogi-zatiz beterik?" "Amabi", erantzun eutsoen areik. 20 "Eta lau milla lagunentzat zazpi ogi banatu nebazanean, ¿zenbat otzara batu zenduezan geratutako ogi-zatiz?" "Zazpi", erantzun eutsoen areik. 21 Eta Jesusek arei: "¿Eta oraindiño be ez dozue ulertzen?"

Betsaidako itsua osatzen dau

22 Betsaidara eldu ziranean, Jesusi itsu bat ekarri eta ikutu egiala eskatu eutsoen. 23 Jesusek, itsuari eskutik oraturik, auzunatik kanpora atara eban. An

ari begiak txistuaz igurtzi eta aren gainean eskuak ezarririk, auxe itandu eutsen: "¿Ezer ikusten dozu?" 24 Itsuak, begiak zabaldurik, auxe esan eutsen: "Lagunak ikusten dodaz. Ibili dabizan zugatzak dira." 25 Jesusek begien gainean barriro eskuak ezarri eutsazan, eta orduan itsuak garbiro ikusi eban. Osatuta egoan; arrezkero argi-argi ikusten eban. 26 Gero, Jesusek etxera bialdu eban, ari auzunan be ez zeitela sartu agindurik.

Pedroren autorpena Jesusi buruz (Mt 16, 13-20; Lk 9, 18-21)

27 Guzti orrean ostean, Jesus eta onen ikasleak Filiporen Zesareako* auzunetara joan ziran. Bidean Jesusek auxe itandu eutsen: "¿Nor nazala diño laguntaldeak?" 28 Eta areik Jesusi: "Joan Bateatzaillea zareala diño batzuek; beste batzuek, Elias; eta beste batzuek, profetatariko bat." 29 Jesusek barriro be arei: "Eta zuek, ¿nor nazala diñozue?" "Zu, Mesias zara!", esan eban Pedrok. 30 Baiña ori iñori be ez esateko agindu eutsen Jesusek.

Jesusek bere erlotza ta biztuerea aurretiaz iragarten dauz (Mt 16, 21-28; Lk 9, 22-27)

31 Arrezkero, Jesus auxe asi yaken iragarten: Gizasemeak oiñaze andiak eroan bear ebazala; erriko zaarrak, abadeburuak eta Lege-irakasleak baztatu egingo ebela; gero il egingo ebela, baiña irugarren egunean biztu egingo zala. 32 Argi ta garbi egin eutsen berba. Orduan, Pedrok, Jesus bakarrean arturik, Ari asarre egiten asi yakon. 33 Baiña Jesusek, bihurturik eta bere ikasleakana begiraturik, Pedrori agiraka egin eutsan: "Alde nigandik, Satanas ori! Zure bururapenak ez dira Jaungoikoarenak lakoak, gizonenak lakoak baiño!"

34 Gero, Jesusek laguntaldeari ta bere ikasleai dei egin eta auxe esan eutsen: "Norbaitek neure

ikasle izan nai badau, bere buruaz aazturik, bere gurutzea artuta, jarraitu egin bear izango daust. 35 Izan be, bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau; baiña bere bizia neugaitik eta salbamen-mandatuagaitik emon dagianak, gorde egingo dau. 36 Izan be, ¿zetarako yako gizonari mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badau? 37 Edo-ta, ¿zer emon aal izango dau gizonak bere biziaren truk? 38 Izan be, norbait laguntalde maltzur eta pekatari onen aurrean nitzaz eta nire mandatuaz lotsatzen bada, Gizaseme au be orretzaz lotsa izango da, bere Aitaren aintzaz inguratuta eta aingeru santuak lagun dauzala etorri daitenean."

9 1 Jesusek auxe be esan eutsen: "Benetan dirautsuet: emen dagozanetariko batzuk ez dira ilgo, Jaungoikoaren erregetza aal-izatez eltzen ikusi baiño leen."

Jesusen antz-aldatzea (Mt 17, 1-8; Lk 9, 28-36)

2 Sei egun geroago, Jesusek Pedro, Santiago ta Joan beragaz artu eta mendi goi batera eroan ebazan. An antz-aldatu egin zan arein aurrean. 3 Aren jantzia diztiratsu ta zuri-zuri biurtu zan, mundu onetako zuritzaillek ezin zuritu leikean eraz. 4 Eta ikasleak Elias eta Moises ikusi ebezan Jesusegaz berbetan. Orduan, Pedrok Jesusi auxe esan eutsan: "Irakasle, emen bai gagozala ederto! Egin dagiguzan iru txabola: bat zeuretzat, beste bat Moisesentzat eta beste bat Eliasantzat." 6 Ez ekian zer iñoan be, ikaratuta egozan-eta.

7 Orduan, odei baten gerizpeaz estalduta geratu ziran, eta odeitik berbots au urten zan: "Auxe da nire Seme maitea. Entzun egiozue Beroni." 8 Bat-batean, euren ingurura begiratzen irauten ebenarren be, ez eben eurakaz Jesus baiño beste iñori ikusi.

9 Menditik jatsiten ziran artean, ikusi izan ebana iñori be ez esateko agindu eutsen Jesusek, Gizase-

mea barriro biztu arte. 10 Eta, ain zuzen be, areik ondo gorde eben isilpeko ori, "barriro biztute" a zer izan zeitekean alkarregaz eztabaidan jardunarren be. 11 Orduan, areik auxe itandu eutsoen Jesusi: "¿Zegaitik diño, ba, gure Lege-irakasleak Eliasek etorri bear dauala leenen?" 12 Eta Jesusek arei: "Egia da Elias etorriko dana leenen, guztia egoki jarteko. Alan be, ¿ez al-diño Liburu Santuak Gizasemeak neke andiak eroango dauzala eta A iraindu egingo dabela? 13 Eliasi buruz, barriz, a etorri zala dirautsuet nik; baiña txarto erabili eben eta nai izan eben guztia egin eutsoen, Liburu Santuak ori jazobearra zala diñoenez."

Mutil deabrudun bat osatzen dau (Mt 17, 14-21; Lk 9, 37-42)

14 Beste ikasleak egozan tokira biurtu ziranean, arekaz batuta laguntalde andia egoala ikusi eben, eta Lege-irakasleak eztabaidan ziarduela. 15 Jesus ikustean, laguntaldea ikaratuta geratu zan eta guztiak Jesus agurtzera joan ziran arin. 16 Jesusek auxe itandu eutsen bere ikasleai: "¿Zertaz diarduzue eztabaidan orrekaz?" 17 Eta laguntaldeko batek Jesusi: "Irakasle, neure semea ekarri dautsut; espiritu mutu* batek artuta dauko. 18 Gutxien uste danean, artu eta lurrera botaten dau, barautsa dariola ta agin-karraska, gogortuta itzi arte. Jaurti dagiela eskatu dautset zure ikasleai, baiña ez dabe lortu." 19 "Au bai laguntalde sinisgogorra! —esan eban Jesusek—. ¿Noiz arte egon bear izango dot zuen artean? ¿Noiz arte eroan bear izango zaituet? Ekarki egidazue mutilla."

20 Eroan eutsoen, ba, mutilla, eta espirituak, Jesus ikusi ebanean, mutilla astin-astin egin eban, eta au lurrera jausi zan, lorrintzen zala eta barautsa eriola. 21 "¿Noiztik jazoten yako ori?", itandu eutsan Jesusek aitari. "Umetarik —erantzun eutsan aitak—. 22 Askotan, espiritu orrek sutara edo uretara jaurtiten dau, ilteko. Aal badozu, lagun izan zakiguz.

Erruki izan zakiguz!” 23 “¿Zelan ‘aal badozu’ ori? Sinismena daukanarentzat, guztia da eginkor.”

24 Orduan, mutillaren aitak deadarka: “Badot sinismena nik, baiña lagun egidazu geiago eukiten!” 25 Jesusek, laguntaldea batzen zala ikustean, espiritu zikiñari agiraka agindu eutsan: “Espiritu mutu ta gor ori, neuk agintzen dautsut: urten zaitez orregandik, eta ez zaitez orregan iñoiz be sartu!” 26 Espiritua, deadarka eta mutilla gogor biurrerazorik, urten egin zan aregandik, eta mutilla zutunik geratu zan.

28 Geroago, ikasleak, etxean sartu ziranean, Jesusi auxe itandu eutsoen isillean: “¿Zegaitik ezin jaurti izan dogu, ba, guk deabru ori?” 29 Eta Jesusek arei: “Otoitzaz izan ezik, iñok be ezin jaurti daike orreitariko deabrurik.”

Jesusek bere eriotza ta biztuerea bigarrenez iragarten dauz (Mt 17, 22-31; Lk 9, 33-45)

30 Andik joan eta Galilean zear igaro ziran. Jesusek ez eban ori iñok jakiterik nai, bere ikasleai irakatsiak emoten ziarduan-eta. 31 Auxe zirautsen: “Gizaseme au gizonen eskuetan itzi eta oneik il egingo dabe, eta irugarren egunean biztu egingo da barriro.” 32 Baiña areik ez eutsoen orretariko ezer be ulertzen. Eta Ari itaun geiago egiteko aurpegirik be ez eben.

¿Nor da nagusiena? (Mt 18, 1-5; Lk 9, 46-48)

33 Kafarnaunera eldu ziran, eta, etxean egozala, Jesusek auxe itandu eutsen: “¿Zertaz ziarduen zuek eztabaidan bidean zear?” 34 Areik isilik egozan, euretariko nagusiena nor ete-zan, bidean alkarregaz eztabaidan jardun izan eben-eta. 35 Orduan, Jesusek, jesarririk, amabiai dei egin eta auxe esan eutsen: “Norbaitek nagusiena izan nai badau, bere burua txikiena lez artu dagiala eta alakoa enparaduen zerbitzari izan dadilla.”

36 Gero, arein erdian ume bat jarri eban, eta, besoetan arturik, auxe esan eutsen: “Oneitariko umeren bat neure izenean onartzen dauanak, neu onartzen nau; eta ni onartzen nauanak, neu bakarrik ez, baita ni bialdu nauan A be onartu egiten dau.”

“Gure aurka ez dagoana, geure alde dago” (Lk 9, 49-50)

38 Joanek auxe esan eutsan: “Irakasle, norbait deabruak zeure izenaz jautiten ikusi dogu eta debekatu egin dautsagu, guretarikoa ez da-ta.” 39 Baiña Jesusek arei: “Ez egiezu debekatu; izan be, ezin egin daike iñok miraririk nire izenean eta batera nitzaz txarto berba egin. 40 Gure aurka ez dagoana, geure alde dago. 41 Eta Mesiasenak zareelako, edontzi bete ur edaten emon dagitzuena, ez dala sari bagarik geratuko dirautsuet bene-benetan.

Pekaturara bultza egiten dabena (Mt 18 6-9; Lk 17, 1-2)

42 “Ni sinisten nabon txikitxo oneitariko baten-tzat pekatu-bide* izan daitenari, obe litzakio errota-arriaz samatik lotuta itsasora jaurtiko balebe. 43 Zure eskumea pekatutan jausteko bide bayatzu, ebagi egizu: esku biak dozuzala iñoiz atzamatzen ez dan lezako sutara joatea baiño obe dozu eskumotz betiko bizitzan sartzea. 44 [An ez yake arra ilten eta sua ez da atzamatzen.]* 45 “Eta zure oiña pekatutan jausteko bide bayatzu, ebagi egizu: oin biak dozuzala lezako sutara jaurtia izatea baiño obe dozu ankamotz betiko bizitzan sartzea. 46 [An ez yake arra ilten eta sua ez da atzamatzen.]* 47 Eta zure begia pekatutan jausteko bide bayatzu, jaurti egizu gundik urrin: begi biak dozuzala lezako sutara jaurtia izatea baiño obe dozu begibakar Jaungoikoaren erreiñuan sartzea. 48 An ez yake arra ilten eta sua ez da atzamatzen.

49 “Dana sutan izango da gazitua*. 50 Ona da

gatza; baiña gatza gazatzen bada, ¿zek gazitu? Euki egizue gatza zeuekan, eta izan bakea alkarregazi!”

Ezkontza ta ezkon-banantzea (Mt 19, 1-12)

10 1 Jesus toki aretatik urten eta Judeako erri-aldera ta Jordango sortzalderra joan zan. An laguntaldea Aren inguruan batu zan, eta Jesus, oi ebanez, irakasten asi yaken barriro. 2 Orduan, parastar batzuk urreratu yakozan, eta senarrak bere emazteagandik banantzeko eskubiderik ete-eban itandu eutsoen. Itaun ori azpikeriz egin eutsoen. 3 “¿Zer agindu eutsuen Moisesek?”, erantzun eutsen Jesusek. 4 Eta areik Jesusi: “Moisesek erabagi ebanez, banantze-agiria idatzi eta beste bearkizunik egin bagarik banandu daiteke senarra bere emazteagandik*.” 5 Orduan, Jesusek arei: “Jaungoikoaren asmoak ulertzeko gauza ez zintzazelako idatzi eban Moisesek erabagi ori; 6 baiña Jaungoikoak, gizadia egin ebanean, gizon eta emakume egin ebazan*. 7 Orregaitik, gizonak itzi egingo dauz bere gurasoak [eta gizona bere emazteari lotuko yakd]*, 8 eta biak persona bakarra lez izango dira*. Olan ba, arrezkero ez dira persona bi, bat bakarra baiño. Beraz, Jaungoikoak alkartutakoa, ez dau gizonak banandu bear.”

10 Barriro etxera biurtu ziranean, zer zan esan nai ebana itandu eutsoen ikasleak Jesusi. 11 Eta Jesusek arei: “Bere emazteagandik banandu ta beste bategaz ezkontzen danak, leenengoaren aurka ezkontza urratu egiten dau; 12 eta, emakume banandua beste gizon bategaz ezkontzen bada, arek be urratu egiten dau ezkontza.”

Jesus eta umeak (Mt 19, 13-15; Lk 18, 15-17)

13 Ume batzuk eroan eutsoezan Jesusi, be-deinkatu egizan. Ikasleak asarre egiten eutseen umeak eroaten ebezanai; 14 baiña Jesusek, ori ikustean, suminduta, auxe esan eutsen: “Itzi umeai nigana etortzen eta ez egiezue galerazo, Jaungoi-

koaren erreiñua eurak lakoak diranena da-ta. 15 Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren erreiñua ume batek lez artzen ez dauana, ez da an sartuko.”

16 Eta umeak bere besoetan artu eta, eskuak arein gaiñean ezarririk, bedeinkatu egiten ebazan.”

Gazte aberatsa (Mt 19, 16-22; Lk 18, 18-23)

17 Bein, Jesus bidean yoiala, gazte batek, arifeketan etorri eta Aren aurrean belaunikoturik, auxe itandu eutsan: “Irakasle bikain ori, ¿zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?” 18 Eta Jesusek ari: “¿Zegaitik dirautstazu niri bikaiña? Iñor be ez da bikaiña, Jaungoikoa bakarrik baiño. 19 Badakizuz aginduak: Ez iñor il; ezkontzarik ez urratu; lapurretarik ez egin; guzurrezko testigantzarik ez egin; ez iñori iruzurrik egin; zure aita ta ama aintzat artu*.” 20 Eta gazteak Jesusi: “Irakasle, guzti ori umetarik gorde dot.” 21 Orduan, Jesusek, gaztea maitekiro begiraturik, auxe esan eutsan: “Gauza bat ez dozu egin: zoaz, daukazun guztia saldu eta obaria beartsuen artean banatu egizu. Orrela, zeruan ondasuntzia egingo dozu zuretzat. Gero, zatoz barriro ona eta jarraitu egidazu.”

22 Gaztea, ori entzutean, aurpegi illunez jarri ta biotz-minduta joan zan, oso aberatsa zan-eta.

23 Orduan, Jesusek, bere ingurura begiraturik, bere ikasleai auxe esan eutsen: “Bai izango yakela gaitz aberatsai Jaungoikoaren erreiñuan sartzea!*

24 Ikasleak, ori entzutean, ikaratuta geratu ziran; baiña Jesusek barriro be arei: “Semeok, nekeza izango da, bai, Jaungoikoaren erreiñuan sartzea! 25 Aberatsa Jaungoikoaren erreiñuan sartzea baiño errazago izango yako ganbeluari jostorratz-zulotik igarotea.”

26 Orreaz, ikasleak geiago ikaratu ziran, eta alkarri auxe itauntzen eutsoen: “Orrela, ¿nor salbatu aal izango da, ba?” 27 Jesusek, arekana begiraturik, auxe esan eutsen: “Gizonentzat eziñezkoa da ori; ez, ostera, Jaungoikoarentzat, Jaungoikoarentzat

edozer da eginkor-eta."

Esku-zabalentzat agindutako saria
(Mt 19, 27-30; Lk 18, 28-30)

28 Orduan, Pedrok auxe esan eutsan: "Zuk badakizu, zuri jarraitzearren, guk dana itzi doguna." 29 Eta Jesusek ari: "Benetan dirautsuet: etxea, anai-arrebak, gurasoak, seme-alabak naiz lurak neugaitik eta salbamen-mandatuagaitik itzi dagizanak, 30 mundu onetan eun bidar geiago artuko dau etxe, anai-arreba, ama, seme ta lurretan, guzti ori erasoaldiak izanarren be, eta geroko munduan betiko bizitza artuko dau. 31 Orain leenen diran asko, azken izango dira; eta orain azken diran asko, leenen izango dira."

Jesusek bere nekaldia ta biztuera irugarrenez iragarten dauz
(Mt 20, 17-19; Lk 18, 31-34)

32 Jerusalemenerako bidean, Jesus bere ikasle guztien aurrean yoian, areik ikaratuta eta bildurtuta jarraitzen eutsoela. Orduan, Jesusek, amabiak beragaz artuta, jazoteko zorian egoan guztiaz berba egiten asi yaken. 33 Auxe esan eutsen: "Begira: Jerusalemenerako bidean goaz. An, Gizaseme au abadeburuen eta Lege-irakasleen eskuetan itziko dabe; 34 Aren lepotik barre egingo dabe, txistua botako dautsoe, zigorkadaz astindu eta il egingo dabe. Baiña irugarren egunean biztu egingo da barriro."

Zebedeoren semeak(Mt 20, 20-28)

35 Santiago ta Joan, Zebedeoren semeak, bidean yoiatzala Jesusegana urreratuta, auxe esan eutsoen: "Irakasle, mesede bat egin dagiguzula eskatu nai

dautsugu." 36 Eta Jesusek arei: "¿Eta zer nai dozue zuen alde egin dagidan?" 37 Eta areik Jesusi: "Zure aintzan, bata zeure eskumaldean eta bestea zeure ezkerrekaldean jesarri gaitezala jadetsi egiguzu." 38 "Ez dakizue zer eskatzen diarduzuen —erantzun eutsen Jesusek—. Nik edaten dodan saminezko edontzi bera, ¿edan aal izango dozue zuek?, ¿edo-ta nik artzen dodan bateo bera artu?" 39 "Bai, egin aal izango dogu!", erantzun eutsoen areik. Eta Jesusek arei: "Saminezko nire edontzitik edango dozue, bai, eta neure bateoaz be izango zaree bateatuak; 40 baiña nire eskumaldean naiz ezkerrealdean jarrerazoteko eskubiderik ez dot nik; ori, atondu yakenentzat da*."

41 Beste amar ikasleak, ori entzun ebenean, Santiago ta Joanen aurka asarratzen asi ziran. 42 Orduan, Jesusek guztiai dei egin eta auxe esan eutsen: "Ondo dakizueenez, agintari lez dagozanak erria euren menpean jarri eta nausikeriz erabilten dabe. 43 Baiña zuen artean ez da orrela izan bear, bestetara baiño: zuetariko norbaitek andi izan nai badau, enparaduen zerbitzari izan bear dau; 44 eta zuetariko norbaitek nagusi izan nai badau, guztien morroi izan bear dau. 45 Izan be, Gizaseme au be ez da zerbitzariak eukitera etorri, zerbitzari izatera eta bere bizia guztien askatasunaren ordaintzat emotera baiño."

Bartimeo itsua osatzen dau
(Mt 20, 29-34; Lk 18, 35-43)

46 Jerikora eldu ziran. Geroago, Jesus, bere ikasleak eta laguntalde andia lagun ebazala, andik urteteen, Timeoren seme zan Bartimeo izeneko itsua bide-ondoan jesarrita egoan, eskean. 47 Andik igaroten zana Nazaretoko Jesus zala entzutean, deadarka asi zan: "Dabiden seme ori, erruki izan zakidaz!" 48 Isildu zeitela zirautsoen askok; baiña arek gero ta deadar andiangoak egiten ebazan: "Dabiden seme ori, erruki izan zakidaz!" 49 Orduan, Jesusek, gelditurik, "Dei egiozue", esan eban. Itsuari dei egin eta auxe

esan eutsoen: "Uste ona izan; jagi zaitez, dei egiten dautsu." 50 Eta itsua, bere soingaiñekoa jaurtirik eta salto bat egiñik, Jesusegana urreratu zan. 51 "¿Zer nai dozue egin dagituzan?" itandu eutsan Jesusek. Eta itsuak Jesusi: "Irakasle*, ikusi dagidala barriro." 52 Eta Jesusek ari: "Joan zaitez, Zeure sinismenagaitik geratzen zara osatuta." Eta, bat-batean, Bartimeok ikusmena artu eban barriro, eta Jesusi beronen bidean jarraitzen eutsoenai batu yaken.

Jesus Jerusalemenera sartzen da
(Mt 21, 1-11; Lk 19, 28-38; Jn 12, 12-16)

11 1 Jerusalemenera urreratzean, Oriomendi-aurreko Betfaje ta Betaniara* eldu ziranean, Jesusek bere ikasleatariko bi bialdu ebazan 2 mandatu oneaz: "Zoaze or aurrean dagoan auzuna orretara; eta bereala, oraindiño iñor gaiñean jarri ez yakon astakume bat aurkituko dozue lotuta. Askatu ta ekarri egidazue. 3 Eta norbaitek ori zegaitik egiten dozuen itauntzen badautsue, Jaunak bear dauala eta berealaxe biurtuko dauala erantzun egiozue."

4 Joan ziran, ba, ikasleak, eta astakume bat aurkitu eben ate-ondoan lotuta, kalean; eta askatu egin eben. 5 An egozantetariko batzuek auxe esan eutseen: "¿Zegaitik askatzen dozue astakumea?" 6 Jesusek esan izan eutsena erantzun eutseen ikasleak, eta areik itzi egin eutseen astakumea Jesusentzat eroaten.

7 Astakumea Jesusegana eroanik, euren jantziak astakumearen gaiñean ipiñi ebazan, eta Jesus gaiñean jarri zan. 8 Askok euren soingaiñekoak zabaldu ebazan bidean zear, eta beste batzuek landan ebagitako adarrak eroiezan. 9 Eta aurrean eta aizean yoiazanak, deadarka iñoen: "Gora!* Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!" 10 Bedeinkatua eldu dan erregetza, Dabid gure aitaren erregetza! Aintza Jaungoiko gorengoari!"

11 Jesus Jerusalemenera sartu zanean, jauretsera joan zan. Alde guztietara begiratu bat eginda gero,

illuntzean, amabi apostoluakak Betaniara joan zan.

Pikondo agorra(Mt 21, 18-19)

12 Biaramonean, Betaniatik urten ziranean, Jesus gose izan zan. 13 Urrindik pikondo orritsu bat ikustean, aregana urreratu zan, fruturik eukan ikustera; baiña orriak baiño ez eukazan, ez zan pikusasoia-ta. 14 Orduan, Jesusek, bere ikasleak entzuteko eraz, pikondoari auxe esan eutsan: "Iñoiz be ez begi iñok zure fruturik jan!"

Jauretserako saltzailleak
(Mt 21, 12-17; Lk 19, 45-48; Jn 2, 13-22)

15 Jerusalemenera eldu ziran, eta, jauretsera* sarturik, an saltzen eta erosten ziardeenak kanpora bialtzen asi zan. Diru-aldatzailleen maiak eta usosaltzailleen jarlekuak itzuli egin ebazan, 16 eta ez eutsan iñori laketzen jauretsera batetik bestera ontzirik eroaten. 17 Gero, irakasten asi yaken: "Auxe diño Liburu Santuak: *Nire etxea otoitz-etxe izango da erri guztientzat**, baiña zuek lapur-zulo biurtu dozue."

18 Abadeburuak eta Lege-irakasleak berbok entzun ebezanean, Jesus ilteko erea billatzen asi ziran. Baiña bildur eutsoen, laguntalde guztia Aren irakaspinari adi-adi egoan-eta. 19 Gaba eltzean, Jesus eta onen ikasleak uritik kanpora urten ziran.

Pikondoari jazo yakona(Mt 21, 20-22)

20 Biaramon-goizean andik igaro ziranean, pikondoa zustrerariño igartuta egoala ikusi eben. 21 Orduan, Pedrok, jazorikoa gogora ekarririk, Jesusi auxe esan eutsan: "Irakasle*, begira: zuk madarikatu zenduan pikondoa igartu egin da." 22 Eta Jesusek ari: "Jarri egizue sinismena Jaungoikoagan. 23 Benetan dirautsuet: norbaitek mendi orri ortik kentzeko eta itsasora amiltzeko badirautso, eta mendiari agindu

dautsana jazo egingo dala biotz-biotzez sinisten badau, lortu egingo dau. 24 Orregeaitik dirautsuet: otoitzean eskatu dagizuen edozer, lortu egingo dozue, artuko dozuela sinisten badozue. 25 Eta otoitz egiten jardun dagizuenean, norbaiten aurka zerbait badozue, parkatu egiozue, zeruan dagoan zuen Aitak be zuek egiten dozuen okerra parkatu dagitzuen. 26 [Baiña zuek parkatzen ez badozue, zuen Aitak be ez dautsue parkatuko zuek egiten dozuen okerra.]*”

Jesusen aginpidea (Mt 21, 23-27; Lk 20, 1-8)

27 Barriro be Jerusalemenera eldu ziran. Jesus jauretxean ebillen artean, abadeburuak, Lege-irakasleak eta zaarrak urreratu yakozan, 28 eta auxe itandu eutsoen: “¿Ze(r) eskubidez egiten dozu zuk egiten diarduzun guzti ori? ¿Nok emon dautsu orretarako aginpidea?” 29 Eta Jesusek arei: “Neuk be itaun bat egingo dautsuet. Erantzuten badaustazue, neuk be esango dautsuet guzti au ze(r) eskubidez egiten dodan. 30 ¿Nogandik artu eban Joan Bateatzailleak bateatzeko agindua: zerutik, ala gizonakandik? Erantzun egidazue!”

31 Areik alkarregaz asmatzen asi ziran: “Zerutik artu ebalu erantzuten badogu, ¿Zegaitik ez zeutsen, ba, sinistu?’, esango dausku. 32 Baiña, ¿zelan esango dogu gizonakandik artu ebalu?” Izan be, erriari bildur eutsoen, guztiak Joan profetatzat eben-eta. 33 Beraz, “Ez dakigu”, erantzun eutsoen Jesusi. Eta Jesusek arei: “Neuk be ez dautsuet esango guzti au ze(r) eskubidez egiten dodan.”

Nekazari iltzailleen ipuñia
(Mt 21, 33-36; Lk 20, 9-19)

12 1 Orduan, Jesusek ipuin au esan eutsen:

“Bein, gizon batek maasti bat landu, esiaz inguratu, dolara bat egin eta torre bat jaso eban, maastia zaintzeko; gero, maastia nekazari batzui errentan itzirik, urriñera joanaldi bat egitera joan zan.

2 Aldi egokian, morroi bat bialdu eban, maastiko frututik egokiona nekazariakandik jasoteko. 3 Baiña areik, morroiari eldurik, astindu eta esku-utsik bialdu eben. 4 Beste morroi bat bialdu eutsen barriro; au be buruan zauritu eta iraiñez bete eben. 5 Gero, beste morroi bat bialdu eban, eta au il egin eben. Eta beste ainbeste egin eutseen beste askori be: batzuk zauritu eta beste batzuk il egin ebezan. 6 Oraindiño ugazabari bere semea, bere seme maitea, geratzen yakon; eta axe be maastira bialdu eban, berekautan iñoala: ‘Nire semeari, beintzat, lotsa izango dautsoe’. 7 Baiña nekazari areik alkarri auxe esan eutsoen: ‘Orain datorren au oiñordekoa da. Il dagigun, eta maastia geurea izango da’. 8 Eta, ari eskuak ezarririk, il eta maastitik kanpora jaurti eben.

9 “¿Zer egingo ete-dau, ba, maastiko ugazabak? Nekazari orrein aurka etorriko da, il egingo dauz eta maastia beste batzui emongo dautse. 10 ¿Ez al-dozue irakurri Liburu Santuak diñoan au?”

*Etzegilleak baztartutako arria
giltzarri biurtu da.*

11 *Jaunak egin dau ori,
eta ikusgarria da gure begientzat! ** “

12 Aren arerioak Jesusek ipuin ori eurai buruz esan ebalu ulertu eben. Orregeaitik, Jesusi eskuak ezartea gura eben; baiña, azkenez, asmoa alde batera itzirik, joan egin ziran, laguntaldeari bildur eutsoen-eta.

Diru-ordaiña zala-ta
(Mt 22, 15-22; Lk 20, 20-26)

13 Parastarrak eta Erodesen alderdikoak* eurentariko batzuk bialdu ebezan, Jesus zerbaitetan zelalan artzeko, gero A salatzeko. 14 Etorri ziran, ba, eta auxe esan eutsoen: “Irakasle, badakigu egizale zareana eta ez dozuna ardurarik enparaduak zer esango daben; izan be, iñor itxuretatik epaitu bagarik, Jaun-

goikoak nai dauanez bizi izaten irakasten dozu benebenetan. Emon egiguzu, ba, zure eretxia: Guk, judarrrok, ¿erromatar enperadoreari diru-ordaiña emotera beartuta gagoz, ala ez? ¿Emon egin bear dautsagu diru-ordaiña, ala ez dautsagu emon bear?” 15 Jesusek, arekan egoan maltzurkeria ezaguturik, auxe erantzun eutsen: “¿Zegaitik jarten daustazue azpikeriak? Ekarki egidazue diru bat, ikusi dagidan.” 16 Areik erakutsi egin eutsoen, eta Jesusek auxe itandu eutsen: “¿Norenak dira irudi au ta idazkun au?” “Enperadorearenak”, erantzun eutsoen. 17 Eta Jesusek arei: “Emon egiozue, ba, enperadoreari enperadorearena, eta Jaungoikoari Jaungoikoarena.”

Erantzun orreaz arrituta itzi ebazan.

Ildakoen biztueria
(Mt 22, 23-33; Lk 20, 27-40)

18 Orren ostean, sadokar batzuk Jesus ikustera joan ziran. Sadokarrak ez dabe biztuerarik sinisten, eta orregeaitik itaun au egin eutsoen Jesusi: 19 “Irakasle, Moisesek auxe itzi euskun idatzita: Gizon ezkondua semerik izan bagarik ilten bada, aren anaiak alargunagaz ezkondu bear izango dau, eta onegandik izan dagizan semeak, ildakoaren ondorengoak lez izango dira artuak*. 20 Alan, ba: bein zazpi anai ziran; areitariko leenengoa ezkondu egin zan, baiña ondorengorik izan bagarik il zan. 21 Orduan, bigarren anai alargunagaz ezkondu zan, baiña au be ondorengorik izan bagarik il zan. Bardin jazo zan irugarrenagaz be, 22 eta zazpirakaz; areitariko batek be ez eban ondorengorik itzi emakume aregandik, eta azkenez, emakume il zan. 23 Beraz, biztueran, guztiak biztu daitezanean, ¿areitariko norena izango da emazte, zazpirak egon ziran aregaz ezkondu-ta?”

24 Jesusek auxe esan eutsen: “¿Ez deritzazue orretan oso oker zagozela? Ez dozuez Liburu Santuak ezagutzen, Jaungoikoaren aal-izatea zer danik be ez dakizue. 25 Biztueran ez da ezkontzarik izan-

go; guztiak zeruan dagozan aingeruak lez izango dira. 26 Ildakoen biztuerari buruz, barriz, ¿ez aldozue irakurri Moisesen liburuan, sasiko atal arētan, Jaungoikoak esan eban au?: *Abrahamen Jaungoikoa, Isaaken Jaungoikoa eta Jakoberen Jaungoikoa naz ni **. 27 Beraz, bizien Jaungoikoa da eta ez ildakoen. Oso oker zagoze!”

Agindurik nagusiena
(Mt 22, 34-40; Lk 10, 25-28)

28 Eztabaida guztia entzun izan eben Lege-irakasleatariko batek, Jesusek oso ondo erantzun izan eutsela ikustean, Aregana urreraturik, auxe itandu eutsan: “¿Zein da agindu guztietarik leenena?” 29 Eta Jesusek ari: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jaungoikoa, Jaun bakarra da. 30 *Jauna, zure Jaungoikoa, zeure biotz guztiaz, zeure arima guztiaz, zeure adimen guztiaz eta zeure indar guztiaz izango dozu maite **. 31 Eta bigarrena auxe da: *Zure lagunurkoa zeure burua lez izango dozu maite **. Orreik baiño agindu nagusiagorik ez dago.” 32 Eta Lege-irakasleak Jesusi: “Ederto, Irakasle! Egia da zuk diñoazuna: Jaungoikoa bakarra da, eta Bera baiño besterik ez dago. 33 Eta Jaungoikoa geure biotz guztiaz, geure adimen guztiaz eta geure indar guztiaz maite izateak, eta lagunurkoa geure burua lez maitatzeak, erre-opariak eta opari guztiak baiño geiago balio dau.”

34 Orduan, Jesusek, jakituriaz erantzun izan ebalu ikusirik, “Zu ez zagoz Jaungoikoaren erreñutik urrin”, esan eutsan.

Orren ostean, ez eban iñok Jesusi itaun geiago egiteko aurpegirik.

Mesias, Dabiden seme ta Jaun
(Mt 22, 41-46; Lk 20, 41-44)

35 Jesusek jauretxean irakasten ziarduan. Auxe iñoan: “¿Zelan diño Lege-irakasleak, Dabiden se-

mea dala Mesias? 36 Dabidek berak, Espiritu Santu-aren eragiñez, urrango au esan eban:

*Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan:
Jesarri zaitetz nire eskumaldean,
zure arerioak zeure oiñazpian
jarri dagidazan arte*.*

37 "Dabidek berak Mesiasi Jauna baderitzo, zelan izan daiteke Mesias Dabiden seme?"

Lege-irakasleen itxurakeria
(Mt 23, 6-7; Lk 20, 45-47)

Laguntaldeak atsegiñez entzuten eban Jesusek iñoana. 38 Auxe be baiñoan Jesusek bere irakastaldian: "Gorde zuen buruak Lege-irakasleakandik; oneik, jantzi dotoreaz ibiltea, guztien aurrean agurtuak izatea, 39 sinagogetan aurrenengo lekuak eta janaldietan leenengo jarlekuak artzea gura izaten dabe. 40 Emakume alargunen ondasunak irutsi eta, orren atxakiaz, otoitz luzeak egiten dabezan orreik, zigorrik gogorrera artuko dabe!"

Emakume alargunaren eskintza(Lk 21, 1-4)

41 Jesus, jauretxean eskingai-kutxaren aurrean jesarrita, ara dirua botaten ebenai begira egoan. 42 Aberats askok dirua ugari botaten eben. 43 Emakume alargun beartsu batek, ostera, ara elduta, balio oso gutxiko diru* bi bota ebazan. 44 Orduan, Jesusek bere ikasleai dei egin eta auxe esan eutsen: "Benetan dirautsuet: emakume alargun beartsu orrek enparadu guztiak baiño geiago bota dau kutxara. 45 Izan be, beste guztiak gaiñezka ebena bota dabe; orrek, ostera, berak bear ebana bota dau: berak eukan guztia, bizi izateko eukan guztia."

Jesusek jauretxearen ondamendia iragarten dau(Mt 24, 1-3; Lk 21, 5-7)

13 1 Jesus jauretsetik urtetea, bere ikasle-tariko batek auxe esan eutsan: "Irakasle: begira orko arri ta arri-lan ederrak!" 2 Eta Jesusek ari: "¿Ikusten dozuz etxagintza ikusgarriok? Ez da or arri bat bestearen gaiñean geratuko. Guzti ori ondatu egingo dabe!"

Munduaren azkenaren ezaugarriak
(Mt 24, 3-14; Lk 21, 7-19)

3 Orduan, Oriomendira* joan zan. Jesus antxe jesarri zan, jauretxearen aurrean; eta, Aregana urreraturik, Pedrok, Santiagok eta Anderrek, isillan, auxe itandu eutsen: 4 "Esan egiguzu: ¿noiz jazoko da guzti ori? Zelan jakingo dogu, gauza orreik beteteko zorian dagozala?" 5 Eta Jesusek arei: "Kontuz, gero! Ez zagiezala iñok azpikeriz eroan. 6 Izan be, asko etorriko dira nire izenaz Neu naz Mesias' esanez, eta lagun asko okerbidera eroango dabez. 7 Gudu ta guda-otsai buruz berba egiten entzun dagizuenean, ez ikaratu. Guzti ori jazobearrekoa danarren be, ez da arteetan azkena izango. 8 Erri batzuk beste erri batzuen aurka eta erreñu batzuk beste erreñu batzuen aurka eta erreñu batzuk beste erreñu batzuen aurka jagiko dira, eta toki guztietan zear lurrikarak eta goseteak izango dira. Zoritxar areik, gaiñera etorri bear diran gatzen asiera baiño ez dira izango."

9 "Gorde zuen buruak. Agintarien eskuetan itzi eta sinagogetan astindu egingo zaitue. Jaurliaren eta erregeen aurrera eroango zaitue nigaitik, arein aurrean testigantza egin dagizuen. 10 Izan be, azkena baiño leen, erri guztiak salbamen-barri ona iragarri bear yake. 11 Baiña, agintarien eskuetan izteko eroan zagiezenean, ez arduratu esan bear dozuenez, une aretan Jaungoikoak berba egokiak emongo dautsuez-ta. Berba egin dagizuenak ez zaree zuek izango, Espiritu Santua baiño. 12 Orduan, anaiak

bere ania salatu eta illerazo egingo dau. Aitak bere semea salatuko dau, eta semeak euren gurasoen aurka jagiko dira eta il egingo dabez. 13 Guztiak gorroto izango dautsue nigaitik; baiña, azkenerarte sendo iraun dagiana, orixe urtengo da onik.

Larrialdi andia(Mt 24, 15-28; Lk 21, 20-24)

14 Ondamendiaren sasi-jainko iguingarria egon bear ez dauan lekuan ikusi dagizuenean (irakurleak ori buruan erabili begi), orduan, Judean egon daitezana mendietara iges egin begie; 15 etxegaiñean egon daitena, ez bedi jatsi, ezta zerbaiten billa bere etxean sartu be; 16 solano egon daitena, ez beite etxera biurtu bere soingaiñekoa artzera be. 17 Seindunen eta egun orreitan umea azten diarduenen zoritxarra! 18 Otoitz egizue guzti ori neguz izan ez daiten; 19 izan be, miñaldi andia be andia izango da; a lakorik ez da izan Jaungoikoak mundua egin ebantetik gaur arte, ezta barrio izango be. 20 Jaunak aldi ori laburtuko ez baleu, ez litzake iñor onik urten aal izango. Baiña, aukeratuakaitik, aldi ori laburtu egingo dau Jaungoikoak.

21 "Orduan, norbaitek badirautsue: Begira: ementxe dago Mesias', edo Begira: antxe dago', ez sinistu. 22 Izan be, sasi-mesiasak* eta sasi-profetak agertuko dira, eta ezaugarri arrigarriak eta mirariak egingo dabez, aal balitz, Jaungoikoak aukeratutakoak eurak be okertzeko asmoz. 23 Kontuz, bal Aurretiaz iragarten dautsuet guztia.

Gizasemearen etorrerea
(Mt 24, 29-31; Lk 21, 25-27)

24 "Egun areitako miñaldiak igaro daitezanean, eguzkia illundu egingo da eta illargiak galdu egingo dau bere dirdira; 25 izarrak jausi egingo dira zerutik, eta zeruko egiturak dardaraka asiko dira. 26 Ordu-antxe ikusiko dozue Gizaseme au aal-izate ta aintza andiz odeietan etorten. 27 Eta bere aingeruak

bialduko dauz, bere aukeratuak lau alde nagusietatik batu dagiezan, lurreko ta zeruko ertz batetik beste ertzera iño*.

Pikondoa adibidetzat
(Mt 24, 32-35; Lk 21, 29-33)

28 "Begira pikondoaren adibide au: aren adarrak ziltzen diranean eta adarrai orriak urtetean yakezala ikusten dozuenean, badakizue udaldia ur dagoana. 29 Orrelaxe, ba: iragarten dautsuedan au ikusi dagizuenean, jakin egizue azkena ur dagoana, ataurrean dagoana. 30 Benetan dirautsuet: ez da oraingo gizaldi au igaroko, guzti au jazo baiño leen. 31 Zerulurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko.

"Zoli egon!"(Mt 24, 36-44; 25, 13)

32 "Egunari ta orduari buruz, barriz, iñok ez daki ezer, ez zeruko aingeruak, ez Semeak. Aitak bakarrik daki ori. 33 Beraz, iratzarrik egon zaitetze, une a noiz elduko dan ez dakizue-ta. 34 Urriñera joanaldi bat egitera doan gizonaren antzera: etxetik urten baiño leen, bere gauzak bere morroia izten dautsez, bakotxari bere eginbearra emonik, eta zoli egon daitela agintzen dautso atezaiñari.

35 "Iratzarrik egon, ba, zeuek be, etxeko jauna noiz elduko dan ez dakizue-ta: illuntzean, ala gaberdian, ala goizaldean, ala goizean. 36 Ez zagiezala lotan aurkitu, bat-batean etorriaren be! 37 Eta zuei dirautsuedan au, guztiak dirautset: zoli egon!"

Azpi-jokoa Jesusen aurka
(Mt 26, 2-5; Lk 22, 1-2)

14 1 Egun bi barru, Pazko-jai ta legamin bagariko egunak ziran; eta abadeburuak eta Lege-irakasleak Jesusi azpikeriz eskuak ezarri eta eriotza emotea zelan egin zeitekion asmatzen ziarduen. 2

Baiña auxe iñoen: "Ez dagigun jai-bitartean egin, errian zarraparrarik sortu ez daiten."

Emakume batek usaingarria isurten dau Jesusen galiñera (Mt 26, 6-13; Jn 12, 1-8)

3 Jesus Betanian* egoan, legenduna eritzan Simonen etxean. Maian jarrita egoala, emakume bat etorri zan, artzuri-ontzi bate(ta)n balio andiko akara-usaingarririk* onetarikoa beragaz eroiala. Ontzia ausi eta usaingarria Jesusen buru-gaiñera isuri eban. 4 Batzuek, ori ikustean, mindu egin ziran eta auxe esan eben euren artean: "Usaingarri au, ¿zetarako galdu da alperrik? 5 Saltzeko balio oso ona izan eikean eta dirua beartsuai emon leitekien." Alantxe ziarduen mormoxetan emakume aren aurka. 6 Baiña Jesusek auxe esan eutsen: "¿Zegaitik mintzen dozue emakume au? Egitada ona da niri egin daustana. 7 Beartsuak beti dozuez zuen artean eta zeuek nai dagizuen on guztia egin daikoeozue; baiña ni ez nozue beti izango. 8 Emakume onek egin dauana, nire gorpua illobirako atontzea* lez izan da. 9 Benetan dirautsuet: salbamen-mandatua iragarri daiten munduko edozein tokitan, emakume au be gogora ekarriko dabe, baita onek egin dauana be."

Judasek Jesus saldu egiten dau (Mt 26, 14-16; Lk 22, 3-6)

10 Orduan, Judas Iskariote*, amabi ikasleatariko bat, abadeburuakana joan zan, Jesus arein eskuetan izteko. 11 Areik, ori entzutean, poz-pozik jarri ziran eta trukean dirua emongo eutsoela agindu eutsoen. Beraz, Jesus arei emoteko aukera-billa asi zan Judas.

Jaunaren aparria (Mt 26, 17-30; Lk 22, 7-23; Jn 13, 21-30; Ko 1^a, 11, 23-25)

12 Legamin bagariko ogien leenengo jaiegu-

nean, oparizat Pazko-bildotsa ilten ebenean, ikasleak Jesusi auxe itandu eutsoen: "¿Nora nai dozu joan gaitazan, zuri Pazko-aparria atontzera?"

13 Jesusek bere ikasleatariko bi bialdu ebazan eta auxe esan eutsen: "Zoaze urira, eta ur-pedar bat daroan gizon bat aurkituko dozue. Jarraitu egiozue, 14 eta, bera sartu daiten tokian, etxeko ugazabari urrengo au esan egiozue: 'Trakasleak auxe diño: Non dago nire jantokia, nire ikasleak Pazkoa jan dagidan?' 15 Gela zabal bat erakutsiko dautsue goiko bizitokian, gertu ta atonduta. Antxe atondu guztia gureztat."

16 Ikasleak urten eta urira joan ziran, eta Jesusek esan izan eutsenez aurkitu ebazan an gauza guztiak. Eta Pazkoa atondu eben.

17 Arratsalde-beranduan, Jesus amabiakaz etorri zan, eta maian jarri ziran. 18 Gero, apaltzen ziarduen artean, Jesusek auxe esan eban: "Benetan dirautsuet: zuetariko batek saldu egingo nau. Agokadea neure plateretik artu dauan bat da ni salduko nauana." 19 Berba orreik biotz-mindu egin ebazan ikasleak, eta banan-banan auxe asi yakozan esaten: "¿Neu etenaz, ba, Jauna?" 20 Eta Jesusek arei: "Amabietariko bat da; nire plateretik agokadea artu dauana. 21 Gizaseme onek bere bideari jarraitu bear dautso, bai, Liburu Santuak Aretzaz diñoenez. Alan be, zoritxarrekoa Gizaseme au saltzen dauana! Obe leuke orrek jaio ez balitz."

22 Aparitan, Jesusek ogia artu eta, bedeinkapena eginda, zatitu egin eban eta bere ikasleai emon eutsen, esanez: "Artu egizue, au neure gorputza da."

23 Gero, bere eskuetan edontzia artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, bere ikasleai emon eutsen, eta guztiak bertatik edan eben. 24 Eta auxe esan eutsen: "Au, neure odola da, Jaungoikoak sendotzen dauan alkartasuna, guztien alde isuriko dana. 25 Benetan dirautsuet: onekero ez dot maats-frutu onetatik edango, Jaungoikoaren erreñuan ardao barria edan dagidan egunerarte."

26 Gero, eskerrak emoteko gorapen-kantua*

abestu eben, eta Oriomendirantz urten ziran.

Jesusek Pedroren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz (Mt 26, 31-35; Lk 22, 31-34; Jn 13, 36-38)

27 Jesusek auxe esan eutsen: "Zuen sinismenak uts egingo dau*, idatzita dago-ta: *Artzaiña zaurituko dot, eta ardiak sakabanatu egingo dira**. 28 Baiña nire biztuera-ostean, zeuen aurrean joango naz Galileara." 29 Eta Pedrok Jesusi: "Euren sinismena zuan guztiak galduarren be, nik ez dot galduko!" 30 Eta Jesusek ari: "Benetan dirautsut: gau onetan bertan, oillarrak birritan jo baiño leen, zuk iru aldiz ukatuko nozu." 31 Eta Pedrok Jesusi barriro be: "Ezta onetan neure bizia galdu bear badot be, ez zaitut nik ukatuko!" Eta orixe berori iñoen beste guztiak be.

Jetsemaniko otoitza (Mt 26, 36-46; Lk 22, 39-46)

32 Jetsemani izeneko tokira elduta, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: "Geratu zaiteze emen, ni otoitz egitera noan artean." 33 Eta Pedro, Santiago ta Joan beragaz eroan ebazan. Gero, ikarutzen eta larritzen asi zan. 34 Auxe esan eutsen: "Eriotz-larriak artu nau. Geratu emen eta iratzarririk egon zaiteze."

35 Zerbait aurrerago joan zan, eta, lurtean auspazturik, otoitz egin eban, Jaungoikoari auxe eskaturik: aal bazan beintzat, igaro ekiola une a. 36 Eta auxe iñoen: "Aita*, zuk edozer egin daikezu! Kendu egizu nigandik samiñezko edontzi au; baiña ez bedi neuk nai dodana egin, zeuk nai dagizuna baiño."

37 Orduan, barriro etorri zan, eta, ikasleak lotan aurkitzean, Pedrori auxe esan eutsan: "Simon, ¿lo zagoz? ¿Ordubete be ezin egon izan zara iratzarririk? 38 Egon zaiteze iratzarririk eta otoitz egizue, ur

dagoan tentaldian jausi ez zaitezzen. Gogo ona dozue, bai, baiña ez daukazue indarrik."

39 Arekandik barriro urrundurik, otoitz egin eban, berba berberak esanez. 40 Ikasleak egozan tokira barriro etorririk, barriro be lotan aurkitu ebazan, logureak jota. Eta ez eben jakin Jesusi zer erantzun.

41 Irugarrenez etorri zanean, auxe esan eutsen: "¿Oraindiño be lotan eta atsedean artzen irauten dozue? Naikoa da! Eldu da ordua: Gizaseme au pekatarien eskuetan itziko dabe. 42 Jagi zaiteze, goazan. Ementxe dago ni saltzen nauana."

Jesus, lotuta daroe (Mt 26, 47-56; Lk 22, 47-53; Jn 18, 1-12)

43 Jesusek berbetan ziardua, Judas, amabi ikasleatariko bat, aurkeztu zan. Gizatalde andia lagun ebalta etorren, ezpata ta makillakaz, abadeburu, Lege-irakasle ta zaarrak bialduta. 44 Judasek, saltzailleak, ezaugarri au emon izan eutsen: "Nik laztandu dagidana, axe da. Lotu ta arduraz eroan egizue."

45 Ara eltzean, Jesusegana urreraturik, "Irakasle!", esan eutsan Judasek; eta laztan bat emon eutsan.

46 Bereala, besteak Jesus artu eta lotu egin eben. 47 Jesusegaz egoan batek, ezpatea atara eban, eta, zartada bataz, abade nagusiaren morroiari belarria ebagi eutsan. 48 Jesusek auxe esan eutsen: "¿Zegaitik etorri zaree ni lotzera ezpata ta makillakaz, lapur-billa lez? 49 Egun oro jardun izan dot zuen artean jauretxean irakasten, eta ez nozue atxilllotu. Baiña au, Liburu Santuak bete daitezaz jazoten da."

50 Orduan, ikasle guztiak Jesus bertan-beera itzi eta iges egin eben. 51 Mutil batek Jesusi jarraitzen eutsan, izareaz bakarrik estalduta. Ari be oratu egin nai eutsoen; 52 baiña arek, izarea itzita, iges egin eban, billoizik.

Jesus, Batzar Nagusiaren aurrean
(Mt 26, 57-68; Lk 22, 54-55. 63-71;
Jn 18, 15-15. 25-27)

53 Jesus, abade nagusiaren aurrera eroan eben; eta abadeburu, zaar eta Lege-irakasle guztiak be batu egin ziran. 54 Pedrok urrindik jarraitzen eutsan, abade nagusiaren etxeko atarteraifio, eta morroiakaz jesarri zan, sutondoan berotzen.

55 Abadeburuak eta Batzar Nagusiko guztiak Jesusen aurkako testigantza baten billa ziarduen, Ari eriotza emoteko; baiña ez eben aurkitzen. 56 Izan be, askok Jesusen aurka guzurrezko testigantzak egiten ebezanarren be, arein testigantzak ez etozan bat. 57 Batzuek, zutundurik, guzurrezko testigantza au egin eben: 58 "Geuk entzun dautsagu urrengo au esaten: 'Gizonak egindako jauretze au neuk botako dot beera, eta gizonak egindakoa ez dan beste bat jasoko dot iru egunen barruan.'" 59 Baiña, alan be, arein testigantzak ez etozan bat.

60 Orduan, abade nagusiak, guztien aurrean zutundurik, Jesusi auxe itandu eutsan: "¿Ez dozu ezer erantzuten? ¿Ez dozu esatekorik oneik diñoenaren aurka?" 61 Baiña Jesus isilik geratu zan, barbarik be erantzun bagarik. Barriro be abade nagusiak auxe itandu eutsan: "¿Mesias, Jaungoiko bedeinkatuaren Semea, zara zu?" 62 Eta Jesusek erantzun: "Bai, neu naz; eta *Gizaseme au Jaungoiko guztiaaldunaren ondoan leku goragarrian jesarrita eta zeruko odei-artean etorten ikusiko dozue.*"

63 Ori entzutean, abade nagusiak, asarre-ezau-garriztat bere jantziak urraturik, auxe esan eban: "¿Zetarako nai dogu testigantza geiagorik? 64 Zeuek entzun dozue orren biraoa! ¿Zer derizazue?"

Guztiak emon eben euren erabagia, Jesus erioztzara galdurik. 65 Eta batzuk txistua botaten asi yakozan; eta, Ari aurpegia estaldurik, zartadak emoten eutsoezan eta auxe zirautsoen: "Ea, igarri egizu!" Morroiak be matraillakoak emoten eutsoezan.

Pedrok Jesus ukatu egiten dau
(Mt 26, 69-75; Lk 22, 55-62; Jn 18,
15-18. 25-27)

66 Bitartean, Pedro beean egoan, etxeko atartean. Abade nagusiaren neskame bat etorri zan; 67 eta, Pedro sutondoan berotzen ikustean, aregana begira-begira jarrita, neskameak auxe esan eutsan: "Zu, zeu be Nazaretoko Jesusegaz zengozan." 68 Pedrok ukatu egin eban: "Nik ez dakit ori nor dan, ezta zertaz egiten dozun berba be ez dakit." Eta ataurrera urten zan. Orduan, oillar batek kukurruku egin eban. 69 Neskameak, Pedro barriro ikusirik, an egozanai be auxe esan eutsen: "Au be areitariko bat da." 70 Pedrok barriro be ukatu. Zerbait geroago, an ego-zan batzuek barriro be Pedrori: "Bai, zeu be areitarikoa zara benetan. Galilearra zara gaiñera!"

71 Orduan, Pedro aiñenka eta araoka asi zan: "Ez dakit zuek diraustazuen gizon ori nor dan!" 72 Batbatean, bigarrenez, oillarrak jo eban. Ori entzutean, Jesusek esan eutsan au ekarri eban gogora Pedrok: 'Oillarrak birritan jo baiño leen, zuk iru bidar ukatuko nozu'. Eta negarrez asi zan.

Jesus, Pilatoren aurrean
(Mt 27, 69-75; Lk 22, 54-62; Jn 18, 15-18. 25-27)

15 1 Egunsentian, abadeburuak, zaarrakaz, Lege-irakasleakaz eta Batzar Nagusiko* guztiakaz batera, erabagia artzeko batuta gero, Jesus lotuta eroan eta Pilatoren eskuetan itzi eben. 2 Pilatok auxe itandu eutsan: "¿Judarren errege zara zu?" "Zeuk diñozu", erantzun eutsan Jesusek. 3 Abadeburuak ainbat gaiez salatzen eben ezkerro, Pilatok auxe itandu eutsan barriro: "¿Ez dozu ezer erantzuten? Begira zelan salatzen zaituen!" 5 Baiña Jesusek ez eban ezer erantzun; beraz, zer pentsatu ez ekiala geratu zan Pilato.

Jesus erioztzara galtzen dabe
(Mt 27, 16-26; Lk 23, 13-25; Jn 18, 39-19, 16)

6 Pazko-jaiegunean, Pilatok kartzelan egoan-eriko norbaiti askatasuna emon oi eutsan, erriak eskatu egianari. 7 Bazan orduan Barrabas izeneko bat, beste naastaille batzukaz batera zarraparra batetan giza-ilte bat egin ebana. 8 Laguntaldea eldu eta Pilatori oi ebana egiteko eskatzen asi yakonean, 9 Pilatok auxe erantzun eutsen: "¿Nai dozue judarren erregea askatu dagitzuedan?" 10 Ondo konturatzen zan Pilato abadeburuak Jesus ikusi-eziñez emon eutsoena-ta. 11 Baiña oneik laguntaldea berotu egin eben, Barrabas askatu egitsen.

12 Orduan, Pilatok auxe itandu eban: "¿Eta zer nai dozue, ba, egin dagiodan judarren errege dirautsazuen oni?" 13 "Gurutzera ori!", egin eben deadar areik. 14 "¿Zein da, ba, onen gaiztakeria?", itandu eban Pilatok. Baiña areik geroago ta gogorrago egiten eben deadar: "Gurutzera ori!"

15 Orduan, Pilatok, laguntaldearen aurrean ondo geratzearren, Barrabas askatu eta Jesus zigorkadaz astindu* eta gurutzean ilteko'agindu eban.

16 Gudariak Jesus jauregi-barrura eroan eben, edo bardin dana, gudaletxera, eta, an gudatalde guztia baturik, 17 purpurazko* soingaiñeko bat jantzi eta buruan arantzazko koroea ipiñi eutsoen. 18 Eta agurka asi yakozan: "Gora judarren erregeal!" Eta kaiñabera batz buruan jotzen eben, eta txistua jaurtiten eutsoen, eta, Aren aurrean belaunikoturik, burua makurtzen eben. 20 Aren lepotik naikoa barre eginda gero, Ari purpurazko soingaiñekoa erantzirik, bere soifekoa bera jantzi eutsoen eta atara egin eben andik, gurutzean josteko.

Jesus, gurutzean
(Mt 27, 32-44; Lk 23, 26-43; Jn 19, 17-27)

21 Bidean, gizon bat aurkitu eben, Zirenoko Simon, Alexanderren eta Erruporen aita, solotik

etorrela, eta Jesusen gurutzea* eroatera beartu eben. 22 Jesus, Golgota izeneko tokira eroan eben, edo bardin dana, "Buruazurtegi"-ra. 23 An, mirraz naastutako ardaoa emon eutsoen, baiña ez eban edan. 24 Orduan, gurutzean josi eben. Gero, gudariak Aren jantziak banatu egin ebezan, zotz egiñik, bakotxa zein jantziz geratzen zan ikusteko.

25 Goizeko bederatziak ziran gurutzean josi ebenean. 26 Ipiñi izan eben idazkun baten, erioztz-agiri au irakurten zan: "Judarren erregea". 27 Jesusegaz batera, bidelapur bi gurutzeratu ebezan, bata Aren eskumaldean, eta bestea Aren ezkerrekaldean. 28 [Oiantxe bete zan Liburu Santuak diñoan au: *Gaizkilleen artean jarri eben*]*

29 Andik igaroten ziranak iraindu egiten eben, eta, buruari eragiñez, auxe iñoen: "Eup, zu!, jau-retxea beera bota eta iru egunen barruan barriro jasoten dozun orrek: 30 onik atara egizu zeure burua! Jatsi zaitze gurutzetik!" 31 Abadeburuak eta Lege-irakasleak be barre egiten eben Aren lepotik, alkarri zirautsoela: "Beste batzuk onik atara dauz, baiña bere burua ezin dau onik atara. 32 Jatsi dadilla orain gurutzetik Israelgo errege dan mesias ori! Ori ikusi dagigunean, orduantxe sinistuko dogu." Jesusen ondoan gurutzean egozanak be iraiñez beteten eben.

Jesusen erioztza
(Mt 27, 45-56; Lk 23, 44-49; Jn 19, 28-37)

33 Eguerdia eltzean, lur guzti a illunetan geratu zan arratsaldeko irurak arte. 34 Iruretan, Jesusek deadar andi bat egin eban: "Eloí, Eloí, lemá sabaktani?*" (edo bardin dana: "Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, ¿zegaitik itzi nozu bertan-beera?") 35 An egozan batzuek, ori entzutean, auxe esan eben: "Begira: Eliasi deika diardu orrek." 36 Areitariko batek, arrapataka joanda, belaki bat ozpiñetan* busti eta kaiñabera baten muturrean ezarririk, Jesusi urreratu eutsan, edan egian, esanez: "Geldi, ikusi dagigun salbatzera Elias ete-datorkion."

37 Baiña Jesus, deadar andi bat eginda, il egin zan.

38 Orduan, jauretxeko oiala* zati bitan urratu zan, goitik beera. 39 Jesusen aurrean egoan zainzailleen kapitanak, zelan il izan zan ikustean, auxe esan eban: "Benetan, au Jaungoikoaren Semea zan!"

40 Emakume batzuk be baegozan an, urrindik begira. Arein artean Mari Madalen, Santiago gaztearen eta Joserren ama zan Mari, eta Salome egozan; 41 oneik, Jesus Galilean egoala, Beroni jarraitu eta zerbitzen eutsoenak ziran. Baita beste emakume asko be baegozan, Jesusegaz Jerusalemara etorri izan ziranak.

Jesusen illobiratzea

(Mt 27, 57-51; Lk 23, 50-56; Jn 19, 38-42)

42 Arratsalde-beranduan, Atontze-eguna zan ezker —edo bardin dana, jaiegun-aurreko eguna— 43 Arimateako Josek, Batzarreko gizon agurgarriak, Jaungoikoaren erregetzaren zain be baegoanak, Pilatogana adoretu aurkezturik, Jesusen gorpua eskatu eutsan*. 44 Pilatok, Jesus il egin zala-ta mirarituta, zaintzailleen kapitanari dei egiteko agindu eban, eta Jesus benetan il ete-zan itandu eutsan. 45 Zaintzailleen kapitanak baietz esan eutsan, eta orduan Pilatok gorpua Joseri emoteko agindu eban. 46 Onek gurutzetik eratsi, berak erosi izan eban izareaz batu eta arri-bizian zulatutako illobian ipiñi eban. Gero, arri bat txirringolaka jarrerazo eban, arriaz illobi-agoa itxirik. 47 Mari Madalen eta Mari, Joserren ama, Josek gorpua non ipiñi eban begira egozan.

Jesusen biztuerea

(Mt 28, 1-8; Lk 24, 1-12; Jn 20, 1-10)

16 1 Jaieguna igarota*, Mari Madalenek, Santiagoren ama zan Marik eta Salomek usaingarriak erosi ebezan, Jesusen gorpua illontzeko. 2 Eta astearen leenengo egunean, goizean-goiz, eguzkia

urtetean, illobira joan ziran. 3 Emakumeak alkarri auxe itauntzen eutsoen: "¿Nok kenduko dausku arria illobi-agotik?"

4 Baiña, ara eltzean, arria kenduta egoala ikusi eben. Eta arria andia be andia zan. 5 Illobian sartzean, gazte bat ikusi eben, eskumaldean jesarrita, soingaiñeko zuriz jantzita, eta ikaratu egin ziran. 6 Baiña gazteak auxe esan eutsen: "Ez ikaratu. Gurutzean il eben Nazaretoko Jesusen billa diarduzue. Biztu egin da, ez dago emen. Ikusi egizue ipiñi eben tokia. 7 Eta orain, zoaze ta iragarri egiezue Aren ikasleai, baita Pedrori be, Jesus zuen aurrean Galileara doala. Antxe ikusiko dozue, Berak esan eutsenez."

8 Emakumeak igesi urten ziran illobitik. Bildurikaraz yoiazan eta euren senetik urtenda lez, eta ez eutsoen iñori ezer esan, bildur ziran-eta*.

Jesus, Mari Madaleni agertzen yako

(Jn 20, 11-18)

[9 Jesus astearen leenengo egunean biztu zan, goizean-goiz, eta Mari Madaleni agertu yakon leenen, zazpi deabru jaurti eutsazanari berari. 10 Au, Jesusegaz bizi izan ziranai albistea emotera joan zan. Areik naibagez beterik egozan, eten bagarik negarrez. 11 Marik Jesus bizi be bizi zala eta berak ikusi izan ebal esan eutsen, baiña areik ez eutsoen sinistu.

Jesus, ikasle biri agertzen yake(Lk 24, 13-35)

12 Orren ostean, Jesus ikasle biri agertu yakon beste antz-irudiz, landan etxalde baterako bidean yoiazala. 13 Areik enparaduai albistea emotera joan ziran, baiña arei be ez eutseen sinistu.

Apostoluen egikizuna

(Mt 28, 16-20; Jn 20, 19-23)

14 Azkenez, Jesus amaika ikasleai agertu yakon, maian jarrita egozala. Eta aurpegira jaurti eutsezan

euren sinisgogorkeria ta itsukeria, Bera barrero biztuta ikusi izan ebenai sinistu ez eutseelako. 15 Eta auxe esan eutsen Jesusek: "Zoaze mundu guztian zear eta guztiai salbamen-mandatua iragarri egiezue. 16 Sinistu dagiana ta bateatu daitena, salbatu egingo da; sinistu ez dagiana, barriz, galdu egingo da. 17 Eta oneixek izango dira sinistu dagienai jarraituko dautseezan ezaugarriak: nire izenaz deabruak jaurtiko dabez; berbeta barriak egingo dabez berba; 18 sugeak euren eskuetan artuko dabez; ilgarririk edanarren be, ez dautse arek kalterik egingo; geisoen gaiñean eskuak ezarri eta osatu egingo dabez."

Jesusen zerura igoerea (Ap Eg 1, 9-11)

19 Bere ikasleai berba eginda gero, Jesus, Jauna, zerura igo eta Jaungoikoaren ondoan jesarri zan, leku ospatsuan. 20 Ikauleak alde guztietan zear mandatua iragartera joan ziran. Eta Jaunak berak egiten eutsen lagun, eta mandatua ezaugarri miragarrien laguntzaz sendotzen eban.]

JESUKRISTOREN BARRI ONA

SAN LUKASEK DAKARRENEZ

Teoflori eskintza

1 1 Gaur arte lagun asko aalegindu dira gure artean jazotako egiñak azaltzen, 2 asierarik guztiaren ikusle izanik, gero Jaungoikoaren mandatua iragar-teko agindua artu ebenak jakiñerazo euskuenez. 3 Neuk be, ba, Teofilo agurgarri ori, asierarik jazoriko guztia zeatz-meatz aztertuta gero, era egokiz idaztea erabagi dot, 4 artu dozun irakaspenaren sendotasuna ezagutu aal dagizun.

Joan Bateatzaillearen jaiotzaren barri-emotea

5 Judean, Erodesen* erregetzako egunetan, Abiasen taldeko abade bat zan, Zakarias izenekoa. Elisabet, Zakariasen emaztea be, abade-sendi batetik zuzen-zuzen etorren Aaronen ondorengoa zan. 6 Senar-emazte biak zuzenak ziran Jaungoikoaren aurrean, eta Jaunaren agindu ta erabagi guztiak utsik egin bagarik beteten ebezan. 7 Urteetan oso aurrerratuak ziran eta ez eben umerik, Elisabet sabel-legorra zan-eta.

8 Bein, Zakariasek, bere taldearen txandan, Jaungoikoaren aurrean abade-eginbearretan ziar-duan; 9 eta, abadeen oituren eraz, zotz egiñik, berari izan yakon egoki Jaunaren etxean sartu eta intzentzua eskintzea. 10 Sartu zan, ba, jauretxean, eta, intzentzua eskintzen zan artean, erriko laguntaldeak otoitz egiten ziarduan, kanpoan.

11 Orduan, Jaunaren aingerua agertu yakon intzentzu-altarearen eskumaldean. 12 Zakarias, aingerua ikustean, ikaraka asi zan, bildurrez beterik; 13 baiña aingeruak auxe esan utsan: "Ez izan bildurrik, Zakarias. Jaungoikoak entzun egin dau

zure otoitza, eta zure emazteak, Elisabetek, seme bat izango dau, eta izena Joan jarriko dautsazu. 14 Pozgarri andia izango da bera zuretzat; eta areh jaiotzaz beste asko be poztu egingo dira, 15 zure semea Jaunaren aurrean andia izango da-ta. Inoiz be ez dau edango ardaorik, ez edari-bizirik. Jaio aurretik be Espiritu Santuz beterik egongo da, 16 eta israeldar seme asko euren Jainko Jaunagana biurtuko dauz. 17 Eliassen espiritu ta aal-izate beraz, Jaunaren aurrelari izango da, gurasoi semeakaz adiskidetzera eragingo dautse*, eta biurriak sen oneko eredu izatera erakarriko dauz. Onetara, Jauna onartzeko erri bikaiña atonduko dau."

18 Zakariasek aingeruari auxe esan utsan: "Baiña, ¿zelan egon aal izango naz ziur orretzaz? Ni, onezkero, zaarra naz; nire emaztea, barriz, urteetan aurreratua." 19 "Ni Gabirel naz —erantzun utsan aingeruak—, Jaungoikoaren aurrean nagoana. Berak bialdu nau zuri berba egitera eta barri on au emotera. 20 Esan dautsudan guztia aldi egokian beteko da; baiña, nire berbok sinistu ez dozuzan ezkeru, ordurarte mutu geratuko zara. Zure semea jaiio arte ez dozu barriro barbarik egingo."

21 Bitartean, jauretzetik kanpo Zakariasen zain egoan laguntaldea mirarituta egoan Zakariasen luzatzeaz. 22 Azkenean be Zakarias kanpora urten zanean, onek ezin ebala berba egin ikustean, jauretxean ikuspenen bat izan ebala igarri eutsoen, eta orregaitik mutu geratu izan zala. Kiñuka egiten eutsen berba.

23 Bere abade-arazoaldia beteta gero, Zakarias bere etxera biurtu zan. 24 Aldi aretan, Elisabet, areh emaztea, seindun egin zan eta bost illabetetan etxetik urten bagarik egon zan; eta bere buruari auxe zirautsan: 25 "Jaunak orain seme bat emoten daust, eta kendu egiten daust olan sabel-legor izateaz neban lotsea."

Jesusen jaiotza iragartea

26 Seigarren illabetean, Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret izeneko Galileako errira bialdu eban, 27 Maria izeneko neskatilla bati ikustaldia egitera; neskatilla au, Jose eritzon Dabid erregearen jatorriko bati ezkontzeko berbea emon eutsana zan. 28 Aigeruak, Maria egoan tokian sartuta, auxe esan eutsan: "Poztu zaitez, Jaungoikoaren gogoko ori! Jauna da zugaz." 29 Berbok entzunda, Maria ikaratu egin zan, alako agurra zer izan zeitekean itauntzen eutsala bere buruari. 30 Baiña aingeruak auxe esan eutsan: "Ez izan bildurrik, Maria. Jaungoikoak gogoko zaitu. 31 Seindun geratuko zara, eta semea izango dozu, eta izena Jesus jarriko dautsazu. 32 Andia izango da Bera, Gorengoaren Semea izango da. Jainkoak, Jaunak, Dabid bere aurretikoaren errege-aulkia emongo dautso, 33 eta Jakoben etxeko* errege izango da betiko. Aren erregetzak ez dau azkenik izango." 34 Mariak aingeruari auxe erantzun eutsan: "Nik ez daukat ezkontzako artu-emonik iñogaz; ¿zelan jazoko yat, ba, orrelakorik?" 35 Eta aingeruak ari: "Espiritu Santua etorriko da zure gaiñera eta Jaungoiko gorengoaren indarrak batuko zaitu. Orregaitik, zugandik jaioko dan umea santua izango da, Jaungoikoaren Semea izango da. 36 Begira, bestela, Elisabet zure senidea: berak be seme bat izango dau, zaarra izanarren be. Sabellegorra esaten eutsoena, seindun dago sei illabetetan. 37 Izan be, Jaungoikoarentzat ez dago eziñezkorik ezer be*." 38 Eta Mariak auxe esan eban: "Ni Jaungoikoaren mirabea naz. Egin daistala Berak zeuk diñozunez." Orduan, aingeruak, Maria itzirik, alde egin eban andik.

Mariak Elisabeti egin eutsan ikustaldia

39 Egun batzuk geroago, Maria, bidea arturik eta aal izan eban ariñen, Judako mendi-aldeko erri batera joan zan; 40 Zakarias bizi zan an. Mariak, aren

etxean sarturik, Elisabet agurtu eban. 41 Elisabetek Mariaren agurra entzun ebanean, bere sabelean erorian seiña pozez saltoka asi zan. Elisabet Espiritu Santuz beterik geratu zan, 42 eta, poz-deadarka, arek auxe esan eban: "Beste edozein emakume baiño geiago bedeinkatu zaitu Jaungoikoak, eta zure sabelean dagoan semea be bedeinkatu dau! 43 ¿Nor naz ni, baiña, nire Jaunaren ama ikustaldia egitera etorri dakidan? 44 Izan be, zure agurra entzunda batera, seiña pozez saltoka asi da nire sabelean. 45 Zorionekoa zu, Jaunak egin dautsuzan agintzariak beteko dauzala sinistu dozulako!"

Mariak Jauna goratzen dau

46 Orduan, Mariak auxe esan eban:

"Nire izate guztiak Jauna goratzen dau.
47 Nire biotza pozez beterik dago
nire Salbatzaille dan Jainkoagaitik,
48 bere begiak neugan jarri dauzalako,
Aren mirabe apala naz-ta.
Aurrerantzean, guztiak zorioneko esango dauste:
49 guztiz aaltsua dan Arek,
izena santu dauan Arek,
nire alde arrigarriak egin dauz-ta.
50 Arek beti izango dautse errukia
Bera goratzen dabenai.
51 Bere besoaren indarrak
arroen asmoak ondatu egiten dauz.
52 Andikia aulkitik lurterra bota
eta apala gora jasoten dau.
53 Gose diranak ondasunez bete
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.
54 Bere morroiari, Israel-erriari,
laguntza ekartera dator,
bere errukia gogoan izanik,
55 geure asabai
—Abrahani ta onen ondorengo guztiai—

egin eutsen betiko balio dauan agintzariaren arauz."

56 Maria iru illabetetan-edo geratu zan Elisabetegaz, eta gero bere etxera biurtu zan.

Joan Bateatzaillearen jaiotza

57 Seiña argitara ekarteko aldia bete zanean, Elisabetek seme bat izan eban. 58 Jaunak, bere errukiz, doai andi au egin izan eutsala jakin eben Elisabeten auzoko ta senideak, eta zorionak emotera joan yakozan. 59 Jaio ta zortzigarren egunean, umea erdaintzera eroan eben. Aitaren izena jarri nai eutsoen guztiak: Zakarias. 60 Baiña amak auxe esan eban: "Joan izango dau izena." 61 Areik, bere etxekoen artean izen ori ebanik iñor be ez egoala Elisabeti adierazota gero, 62 aitagana joan ziran, eta umeari zein izen jarri nai eutsan itandu eutsoen, kiñuka. 63 Zakariasek idazteko oltxo bat eskatu eta auxe idatzi eban: "Joan da orren izena." Guztiak arituta geratu ziran. 64 Une aretan bertan, Zakarias berbea etorri yakon, eta Jaungoikoa goratzen asi zan. 65 Jazoten zana ikusten ziarduen auzokoak bildurrez bete ziran. Jazopen guzti orreik berealaxe zabaldu ziran Judeako mendi-aldean ertzetik ertzera. 66 Eta jazorikoaz berba egiten entzuten eben guztiak, euren barruan ausnartzen geratzen ziran eta auxe itauntzen eben eurekautan: "¿Zer izango da ume au? Izan be, agirian dago Jauna berorregaz dagoana."

Zakariasen igarpena

67 Zakariasek, Joanen aitak, Espiritu Santuz beterik, iragarri egin eban aurretiaz, esanez:

68 "Bedeinkatua Israelen Jainko Jauna,
bere erriari laguntza ekartera
eta askatasuna emotera etorri da-ta.

69 Dabid bere morroiaren ondorengoan artetik orain salbatzaille indartsu bat sortu dausku.
70 Au, aspaldidanik agindu izan eban bere profeta santuen bidez:
71 gure arerio ta gorrotatzailleakandik onik atarako genduzala;
72 gure asabai erruki izango yakela eta beteko ebal bere alkartasun santua.
73 Eta auxe da Abraham gure aitari egin eutsan zin sendoa:
74 gure arerioakandik askatu egingo genduzala, bildur bagarik otseindu dagigun
75 gure bizitza guztian,
Berari eskiñiak izan yakozanak lez,
zumentasunaren billa diarduenak lez.
76 Zu, barriz, nire seme ori,
Jaungoiko gorengoaren profeta izango zara, Jaunaren aurrean joango zara-ta Aren etorrerea atontzen.
77 Zeuk iragarriko dautsazu salbamena Aren erriari,
baita pekatuen parkamena be;
78 izan be, gure Jaungoikoa,
guganako ontasunez beterik,
goitik zeru-egunaren egunsentia dakarsku,
79 illunetan eta eriotz-gerizpean bizi diranak argitasunez beteteko,
gure oinkadak bake-bideetan zuzentzeko."

80 Umea azi eta aren espiritua indartu egin zan. Eta bakartadeetan bizi izan zan, Israel-erriaren aurrean aurkeztu zan egunerarte.

Jesukristoren jaiotza (Mt 1, 18-25)

2 1 Egun areitan, Augustok*, erromatar enperadoreak, erabagi bat iragarri eban, bere aginterriko bizilagun guztiak izena emon egiela agindurik. 2 Leenengo izen-emote au egin zanean, Zirino zan Siriako* jaurleri. 3 Guztiak joan bear eben izena

emotera, bakotxa bera jαιο zan urira. 4 Orregaitik, Jose be, Dabid erregearen jatorrikoa, Galilea-errialdetako Nazaretetik Belenera, Judeako errira, joan zan; emendixek etorren Dabiden jatorria. 5 Jose araxe joan zan, ba, izena emotera, Maria bere emazteagaz batera; Maria seindun egoan. 6 Eta Belenen egozala, Mariari seiña argitara ekarteko egunak bete yakozan. 7 Eta an Mariak bere leensemea izan eban; oiaiez batu eta aska baten ipiñi eban, areintzat ostatuan lekurik ez egoan-eta.

Aingeruak eta artzaiñak

8 Belen-inguruko landa batzuetan, gabez kanpoan euren artaldeak zaintzen ziarduen artzain batzuk egozan. 9 Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu yaken, eta Jaungoikoaren aintzaren dirdirak argitasunez bete ebazan. Artzaiñak bildur-ikaraz beterik geratu ziran; 10 baiña aingeruak auxe esan eutsen: "Ez izan bildurrik, guztientzat poz andia izango dan barri ona ekartera natorkizue-ta. 11 Salbatzaillea jαιο yatzue gaur Dabiden urian, Mesias, Jauna. 12 Auxe izango da ezaugarria, ezagutu dagizuen: umea oiaiez batuta eta askan etzunda aurkituko dozue."

13 Une aretan bertan, aingeruaren ondoan zeruko beste aingeru-talde bat agertu zan, Jauna goratzen; eta auxe iñoen: 14 "Aintza goietan Jaungoikoari! Bakea lurtean Aren gogoko gizonai!"

15 Gero, aingeruak zerura biurtu ziran, eta artzaiñak alkarri auxe esan eutsoen: "Goazan Belenera, jazo dana eta Jaunak ezaguerazo dauskuna ikustera." 16 Leenbaileen joan ziran, ba, eta Maria, Jose eta askan etzunda egoan jaiobarria aurkitu ebezan. 17 Umea ikustean, aingeruak ume aretzaz esan eutsen guztia azaldu eban. 18 Eta artzaiñai entzuten eutseen guztiak, areik iñoenaz arrituta geratzen ziran. 19 Mariak, barriz, guztia bere biotz-barruan gordeten eban, etenbagarik ausnartzen ebalu. 20 Artzaiñak, entzun eta ikusi izan eban

guztiagaitik, Jauna ospatzen eta goratzen biurtu ziran, iragarri izan yakenez jazo izan zan guztia-ta.

Umearen izena. — Jaurettxera daroe

21 Zortzi egun geroago, umea erdaintzera eroan eban, eta izena Jesus jarri eutsoen, Maria seindun geratu baiño leen aingeruak ari esan izan eutsanez.

22 Geroago, Moisesen legeak agindutako garbikuntzarako egunak igarota, Jesus umea Jerusalemenera eroan eban, jauretxean Jaunari eskintzeko, 23 Jaunaren legeak agintzen dauanez: *Leenen jaioa, gizo-nezkoa edo abere arra bada, Jaunari eskiñiko yako* *. 24 Bide batez, *usapat bi edo usakume bi eskiñi bear ebezan oparitarako, ori be Jaunaren legean aginduta dagoanez* *.

25 Aldi aretan, Simeon izeneko bat bizi zan Jerusalemenera, gizon zintzoa ta Jaungoikozalea, Israelen askatasuna itxaroten ebana. Espiritu Santua egoan Simeonegaz, 26 eta Jaunak bialdutako Mesias ikusi baiño leen ez zala ilgo jakiñerazo izan eutsan Espiritu Santuak. 27 Umeari buruz Legeak agintzen ebana egiteko, Simeon, Espiritu Santuak eraginda, jaurettxera joan zan, Jesusen gurasoak euren semea eroien une berean. 28 Eta Simeonek, umea besoetan arturik, Jaungoikoa goratu eban, esanez:

29 "Orain, Jauna, baketan il naiteke, zure agintzaria bete dozu-ta.
30 Neure begiz ikusi dot Salbatzaillea,
31 erri guztien aurrean atondu dozuna.
32 Bera da jentillai agertzeko argia
eta Israel zure erriaren aintza."

33 Jesusen gurasoak arrituta egozan, Simeonek umeari buruz iñoenaz. 34 Simeonek bedeinkatu egin ebazan, eta Mariari, umearen amari, auxe esan eutsan: "Begira: ume onegaitik asko jausi eta beste asko jagi egingo dira Israelen. Ukatzte-ezaugarria da, 35 askoren barru-barruko bururakizunak agertzeko

ipiñia. Zu, barriz, ezpata batek zulatuko zaitu alderik alde."

36 Emakume profeta bat be bazan an, Ana izeneko, Fanuelen alabea, Aseren jatorri-taldekoa. Emakume au oso gazterik ezkondu izan zan, baiña ezkondu ta zazpi urte geroago alargun geratu zan. 37 Orduan, larogeta lau urte ebazala, jauretxean egoten irauten eban, barau ta otoitz, gau ta egun Jauna zerbitzen. 38 Une aretan bertan aurkeztu zan, ba, Ana, eta Jaungoikoari eskerrak emonda gero, Jerusalemenera askatasunaren zain egozan guztiai Jesusi buruz berba egiten sai yaken.

Nazaretera biurtzea

39 Jaunaren legeko agindu guztiak beteta gero, Galileara biurtu ziran, euren errira, Nazaretera. 40 Jesus umea azi ta indartu egiten zan, jakituriaz beterik, eta Jaungoikoaren ederra Aren gaiñean egoan.

Jesus umea, jauretxean

41 Jesusen gurasoak urte oro Jerusalemenera joaten ziran, Pazko-jaiak ospatzera. 42 Jesus umea amabi urtekoa* zala, guztiak batera jaietara joan ziran, oiturea ebenez. 43 Gero, egun areik igarota, etxerako bidea artu eban. Baiña Jesus umea Jerusalemenera geratu zan, gurasoak jakin bagarik. 44 Bide-lagunen artean joango zala uste eban, eta olan egun guztian bideari ekin eutsoen. Egun bateko bidea egitean, Aren billa asi ziran senide ta ezagunen artean; 45 eta, aurkitzen ez ebela ikustean, Jerusalemenera biurtu ziran, an Aren billa jarraitzeko. 46 Azkenez, iru egun geroago, jauretxean aurkitu eban, Lege-irakasleen erdian jesarrita, arei entzuten eta itaunak egiten. 47 Jesusi entzuten eutsoen guztiak ikaratuta egozan Aren adimenaz eta erantzunez. 48 Gurasoak arrituta geratu ziran Jesus ikustean; eta Aren amak auxe esan eutsan: "Seme, ¿zegaitik egin

dauskuzu ori? Zure aita ta ni estu ta larri ibili gara zure billa." 49 Eta Jesusek arei: "¿Zegaitik ibili zaree nire billa? ¿Ez dakizue, ba, neure Aitaren gajetan jardun bear dodana?" 50 Baiña areik ez eban ulertu Jesusek zirautsena.

51 Gero, Jesus umea, gurasoakaz batera Nazaretera biurturik, arein menpean bizi zan. Jesusen amak gauza guztiok bere biotz-barruan gordeten ebazan. 52 Eta Jesus azi egiten zan, baita geitu be adiñaz bere jakituria, eta Jaungoikoak eta gizonak geroago ta gogokoago eban.

Joan Bateatzaillearen iragartea (Mt 3, 1-12; Mk 1, 1-8; Jn 1, 19-28)

3 1 Tiberio* enperadorearen erregetzako amabosgaren urtea zan. Judean jaurlari, Pontzio Pilato* zan; Erodes*, Galilean; onen anai Felipe, Iturean eta Trakonitidan; eta Lisaniak, Abilenen. 2 Eta Anas eta Kaifas*, abade nagusiak ziran. Aldi orretan, Jaungoikoak basamortuan* Joani Zakariasen semeari, berba egin eutsan. 3 Eta Joan, Jordan-ondoko lurralde guztian zear, lagun-taldea bateatzen asi zan. Pekatuen parkamenerako, onbideratzea bearrezkoa dala iragarten eban. 4 Olantxe egoan idatzita Isaias profetaren liburuan:

*Abots bat entzuten da:
nor bait deadarka basamortuan:
Atondu egizue Jaunaren bidea;
zabaldu egizue bide-zidor zuzenak Arentzat!
5 Sakon guztiak bete
eta muiño ta mendi-bizkarrak lautu daitezala!
Bide okertuak zuzendu
eta laztasun guztiak ezereztu daitezala,
6 gizaki guztiak Jaungoikoak bialtzen dauan
salbamera ikusi dagien!**

7 Beragandik bateoa artzera etozan askori, Joaneke auxe zirautsen: "Sugekumeok! ¿Nok iragarri

dausue gainean dozuen zigorrari iges egiten? 8 Erakutsi egizue egintzen bidez zuen onbideratzea, eta ez erabili asmakeriarik buruan Abrahamen ondorengoak zareela-ta. Esan be badirausuet: Jaungoikoak arri oneitatik sortu daikeoz Abrahami ondorengoak. 9 Onezkerok, zugatzak zuzarretik ebagitekote gertu dago aizkorea, eta frutu onik ekarri ez dagian edozein zugatz, ebagi ta sutara jaurtikote dabe."

10 "¿Eta zer egin bear dogu?", itauntzen eutsan laguntaldeak Joani. 11 Eta Joaneke arei: "Soingaiñeko bi euki dagizanak, emon dagiola bat ez daukanari; jatekorik euki dagianak, banatu dagiala ez daukanagaz."

12 Diru-batzaille* batzuk be bateatuak izatera urreratu yakozan Joani, eta auxe itandu eutsoen areik: "Irakasle, ¿zer egin bear dogu guk?" 13 Eta Joaneke arei: "Ez eskatu iñori legeak agintzen dauan baiño diru-ordain geiago."

14 Gudari batzuek be auxe itandu eutsoen: "Eta guk, ¿zer egin bear dogu?" Eta Joaneke arei: "Naikoa izan egizue zeuen soldateaz eta ez egin iñori indarkeriarik, ezta guzurrezko salakuntzarik be."

15 Laguntaldea kezka egoan, Joan au Mesias izan zeitekean alkarri itaunka. 16 Joaneke auxe esan bear izan eban guztien aurrean: "Nik uraz bateatzen zaituet, baiña nire ostean ni baiño aaltsuagoa dator. Ni ez naz duin Aren sandalietako lokarriak askatzeko be. Arek Espiritu Santuaz eta suaz bateatuko zaitue. 17 Eskuan dauko sardea, eta bere larraina garbitzeko gertu dator; garia bere garautegian gordeko dau; lastoa, barriz, iñoiz be atzamatzen ez dan sutan erreko dau."

18 Orrelako eta beste irakatsi askoren bidez, Joaneke laguntaldeari burubideak emoten eutsazan, eta salbamen-barri ona iragarten eban. 19 Erodes erregeari be aurpegia emon eutsan, bere anaiaaren emazte zan Erodiasegaz izan eban jokabideagaitik eta egin izan eban beste gaiztakeriakaitik ari

agiraka egiñik. 20 Orduan, Erodesek Joan kartzelan sartu eban, leengo gaiztakeriai beste azken au ezarririk.

Jesusen bateoa (Mt 3, 13-17; Mk 1, 9-11)

21 Joaneke laguntaldea bateatzen ziarduan artean, Jesus be bateatua izan zan. Eta, otoitz egiten eban artean, zerua zabaldu egin zan, 22 eta gorputz-irudiz, uso bat lez, Espiritu Santua jatsi yakon. Eta zerutiko berbots batek auxe esan eban: "Auxe da nire Seme maitea; Beronegan dot nire atsegiña."

Jesusen jatorria (Mt 1, 1-17)

23 Bere ekintza asi ebanean, Jesus ogeta amar bat urtekoa zan, eta Joseren semea zala uste eben guztiak. Auxe da Jesusen asaben izen-zerrenda: Jose, Eli, 24 Matat, Lebi, Melki, Janai, Jose, 25 Matatias, Amos, Nahun, Esli, Nagai, 26 Maat, Matatias, Semain, Josek, Yoda, 27 Joanan, Erresa, Zorobabel, Salatiel, Neri, 28 Melji, Addi, Kosan, Elmadan, Er, 29 Jesus, Eliezer, Jorin, Matat, Lebi, 30 Simeon, Juda, Jose, Jonan, Eliakin, 31 Melea, Mena, Mataza, Natan, Dabid, 32 Isai, Booz, Sala, Naason, 33 Aminadab, Admin, Ami, Esron, Fares, Juda, 34 Jakob, Isaak, Abraham, Tare, Nakor, 35 Seruk, Erragau, Falek, Eber, Sala, 36 Kainan, Arfaxad, Sen, Boe, Lamek, 37 Matusala, Enok, Jared, Meleleel, Kainan, 38 Enos, Set eta Adan. Eta Adan, Jaungoikoak egin eban zuzen-zuzenean.

Jesusen tentaldak (Mt 4, 1-11; Mk 1, 12-13)

4 1 Jesus Jordandik Espiritu Santuz beterik biurtu zan. Espiritu berak basamortura eroan eban, 2 eta an deabruak zirikatatu egin eban, berrogei egunetz. Aldi guzti orretan, ez eban ezer be jan; eta azkenean, gose izan zan. 3 Orduan, deabruak auxe esan eutsan: "Jaungoikoaren Semea bazara benetan, esan egizu

arri au ogi biurtu daitela." 4 Eta Jesusek ari: "Liburu Santuak auxe diño: *Ez da gizona ogi utsez bizi izango**."

5 Gero, deabruak toki goi batera eroan eban, eta, Ari bat-batean andik munduko erri guztiak erakutsirik, 6 auxe esan eutsan: "Erri orrean aginpide ta andi-izate guztia zeuri emongo dautsut, guzti ori neurea da-ta; emon, barriz, nai dautsadanari emon daikeot. 7 Belaunikotzen bazara eta gurtzen banozu, zeurea izango da guzti ori." 8 Eta Jesusek ari: "Liburu Santuak auxe diño: *Zeure Jainko Jauna gurtuko dozu, eta Berari bakarrik emongo dautsazu gurtza**."

9 Orduan, deabruak Jerusalemgo jauretsera eroan eta ango gaillurrera jaso eban, eta auxe esan eutsan: "Jaungoikoaren Semea bazara benetan, jaurti egizu zure burua emendik beera, 10 Liburu Santuak auxe diño-ta: *Zaindu zagiezala aginduko dautse Jaungoikoak bere aingeruai; 11 eta euren eskuetan artu zagiezala, zure oiñak arriren baten tope egin ez dagian**." 12 Eta Jesusek ari: "Auxe be badiño Liburu Santuak: *Ez dozu zure Jainko Jauna zirikatuko**."

13 Orduan, deabruak, Jesus zirikatzeke beste erarik ez aurkitzean, alde egin eban Aregandik beste aldi egokiagoren bat arte.

Jesusen egikizunaren asiera Galilean (Mt 4, 12-13; Mk 1, 14-15)

14 Jesus, Espiritu Santuaren indarrez beterik, Galileara biurtu zan. Aren entzute ona errialde guzti aretan zabaldu zan. 15 Sinagogetan irakatsi egiten eban eta guztien aurrean entzute andia eban.

Jesus, Nazareten (Mt 13, 53-58; Mk 6, 1-6)

16 Nazaretera*, bera azi izan zan tokira, eldu zan, eta, oi ebanez, jaiegunez sinagogan sartu eta zutunik jarri zan, Liburu Santuak irakurteko. 17

Isaias profetaren liburua emon eutsoen, eta, liburua zabaltzean, idatzitako txatal au aurkitu eban:

18 *Jaunaren Espiritua neure gainean dago; izan be, beartsuai salbamen-barri ona eroateko igortzi nau; katiguai askatasuna iragartera eta itsuai ikusmena emotera bialdu nau, zapalduak askatzera*
19 *eta Jaunak bere erriari emongo dautsan parkamen-urtea iragartera**.

20 Gero, liburua itxi eta sinagogako laguntzaileari biurturik, jesarri egin zan. Aurrean egozan guztiak Jesusegana begira egozan, 21 eta Jesus berbetan asi zan. Auxe esan eutsen: "Gaur bete da oraintxe, zeuen aurrean, igarpen au."

22 Guztiak agertzen eutsoen euren baiezkoa, eta arrituta egozan Arek esan izan eban berba ederrakaitik. Auxe zirautsoen alkarri: "¿Au ez da, ba, Joseren semea?" 23 Eta Jesusek arei: "Esakera au ezarriko daustazue, urrean: 'Osagilea, osatu egizu zeure burua'. Kafarnaunen egin ei-dozun guztia, egizu ementxe be, zeure errialdean."

24 Eta auxe esan eban gainera: "Benetan dirautsuet: ez da profetarik onartua izaten bere errialdean. 25 Geiago oraindiño: emakume alargun asko bizi ziran Israelen Eliasen egunetan, iru urte ta sei illabetetan zerutik ur tantarik jausi ez zanean eta errialde guztian gosete gorria izan zanean. 26 Alan be, areitariko iñogana be ez zan bialdua izan Elias, Sidon-errialdeko Sareptan bizi zan emakume alargun bategana baiño. 27 Eta legenardun asko ziran Israelen Eliseo profetaren egunetan, baiña areitariko iñor be ez zan osatua izan bere legenarretik, Naaman siriarra baiño."

28 Ori entzutean, sinagogan egozan guztiak asarre-bitsetan jarri ziran, 29 eta, Jesusi oraturik, andik atara eta uria jasota egoan mendi-troka batera eroan eben, andik beera jaurtiteko. 30 Baiña Jesusek,

arein artean zear igarorik, bere bideari jarraitu eutsan.

Deabrudun bat osatzen dau (Mk 1, 21-28)

31 Andik Galileako Kafarnaun-urira joan zan, eta jaiegunetan irakatsi egiten eutsen. 32 Aren irakaspenez guztiak ikaratuta geratzen ziran, aginpidez egiten eutsen berba-ta.

33 Deabru zikiñak artuta eukan gizon bat egoan sinagogan, eta deadarka asi zan: 34 "Nazareteko Jesus, baketan itzi gagizuz! ¿Geu ondatzera etorri zara? Ondo ezagutzen zaitut: Jaungoikoaren Santua zara zu." 35 Jesusek agiraka egin eutsan: "Isilik zagoz eta urten zaitez orregandik!" Eta deabrua urten egin zan aregandik, gizona guztien aurrean botaten ebala, baiña ari miñik egin bagarik. 36 Jazorikoa ikusi eben guztiak arritu egin ziran, eta alkarri auxe zirautsoen: "Aaltsua benetan gizon onen berbea! Aginpidez agintzen dautse espiritu zikiñai urteteko, eta orreik esana egiten dautsoe." 37 Eta Jesusen entzute ona toki guzti aretan zear zabaldu zan.

Pedroren amagiñarreba osatzen dau (Mt 8, 14-15; Mk 1, 29-31)

38 Sinagogatik urtetean, Simonen etxera joan zan Jesus. Simonen amagiñarreba geisorik egoan, berebiziko beroenaz. Osatu egiala eskatu eutsoen; 39 eta Jesusek, aregana makurturik, beroenari agiraka egin eutsan, eta beroenak alde egin eban aregandik. Bereala, geisoa jagi egin zan eta zerbitzen asi yaken.

Beste osaketa batzuk (Mt 8, 16-17; Mk 1, 32-34)

40 Geroago, illunabarrean, edozetariko geisoak eroan ebezan Jesusen aurrera, eta Onek, bakotxaren gaiñean eskuak ezarririk, osatu egiten ebazan. 41 Ask, deabruak artuta egozan, eta deabruak urten

egiten ziran arekandik, "Jaungoikoaren Semea zara zu!", deadarka. Baiña Jesusek agiraka egin eta ez eutsen Beratzaz berba egiten izten, baekien Mesias zana-ta.

Jesusek mandatua Galilean iragarten dau (Mk 1, 35-39)

42 Egundu zanean, Jesus urtik urten eta bakartade batera baztatu zan. Laguntaldea Jesusen billa ebillen, eta, aurkitu ebenean, eurakaz geratu zeitela eskatu eutsoen. 43 Baiña Jesusek auxe esan eutsen: "Beste uri batzuetara be joan egin bear dot, arei be Jaungoikoaren erreñuko barri ona eroatera. Orretarakoxe izan naz bialdua." 44 Eta Galileako* sinagogetan mandatua iragarten jardun eban.

Jesusen leenengo ikasleak (Mt 4, 18-22; Mk 1, 16-20)

5 1 Bein, Jesus Galileako itxasertzean egoan, eta Jaungoikoaren mandatua entzutera Aren inguruan batu zan laguntalde andiak estutu egiten eban. 2 Urtezean txalupa bi egozan utsik; arrantzaleak legorrera jatsi ziran, euren sareak garbitzera. Jesusek txalupak ikusi ebazan, 3 eta, areitariko batera igorik, jabeari, Simoni, legorretik zerbait alde egiala eskatu eutsan. Gero, txalupan jesarririk, andik laguntaldeari irakasten jardun eban.

4 Bere berbaldia amaitu ebanean, Simoni auxe esan eutsan: "Eroan egizu txalupea itsaso zabalera, eta jaurti an sareak arrantzarako." 5 Eta Simonek Jesusi: "Irakasle, gau guztia lanean egin dogu, eta ez dogu arrain bat be atara; baiña, zeuk diñozun ezker, botako dodaz, ba, sareak."

6 Alantxe egin eta sareak ia urratzeraiñoko arrain-pillo andia artu eben. 7 Orduan, laguntzera joateko eskatu eutseen kiñuka beste txalupan egozan lagunai. Eldu ziran, ba, eta ondoratze zorian bete ebezan txalupa biak. 8 Ori ikustean, Simon Pedrok,

Jesusen aurrean belaunikoturik, auxe esan eutsan: "Jauna, alde egizu nigandik, pekatari naz-ta."

9 Izan be, atara izan eben arrain-pillo andia zala-ta, bera ta bere lagun guztiak bildurak artu izan ebazan. 10 Orixe berori jazo yaken Zebedeoren semeak ziran Santiago ta Joani be, Simon lez arrantzaleak ziran-eta. Baiña Jesusek Pedrori auxe esan eutsan: "Ez izan bildurrik. Aurrerantzean, gizon-arrantzale izango zara." 11 Eta, txalupak legorrera atara eta guztia itzirik, Jesusegaz joan ziran.

Legenardun bat osatzen dau (Mt 8, 1-4; Mk 1, 40-45)

12 Jesus egon zan errietariko baten, legenarrez jositako gizon bat zan. Jesus ikustean, lurrerañño auspazturik, auxe esan eutsan: "Jauna, nai badozu, garbitu naikezu nire legenarretik." 13 Jesusek, bere eskua luzatu ta gizona ikuturik, auxe esan eutsan: "Nai dot, bai; garbi geratu zaitez." Eta bat-batean, legenarrak alde egin eutsan. 14 Iñori ez esateko agindu eutsan Jesusek. Eta auxe be esan eutsan gaiñera: "Zoaz, aurkeztu zaitez abadeagana, eta, zure osatzeagaitik, eskiñi egizu Moisesek agindutako opari-gaia. Orrela, guztiak izango dabe zure osatzearen ezaugarria."

15 Jesusen entzute ona geroago ta geiago zabalzen zan, eta laguntalde andia etorkion entzutera eta euren geisoetatik osatuak izatera. 16 Baiña Jesus toki ezkutuetara baztarten zan, otoiitz egitera.

Elbarridun bat osatzen dau (Mt 9, 2-8; Mk 2, 1-12)

17 Egun baten, Jesusek irakasten ziarduan. Galileako ta Judeako auzuna guztietatik, baita Jerusalemdik be, ara eldutako parastar eta Lege-irakasle batzuk jesarri ziran Aren ondoan. Jaungoikoaren indarra Jesusek egindako geiso-osaketetan

agertzen zan. 18 Orduan, gizon batzuek elbarridun bat ekarri eutsoen, ogetxo baten, eta etxean sartzeko aalegiñak egiten ebezan, geisoa Jesusen aurrean jarteko. 19 Baiña, laguntaldea zala-ta, geisoa nondik sartu ikusi eziñik, teillatura igo ziran, eta, teilla batzuk jasorik, elbarriduna beronen ogetxoan utsu-netik jatsi eta erdian jarri eben, Jesusen aurrean.

20 Jesusek, geisoa eroien sinismena ikustean, geisoari auxe esan eutsan: "Adiskide, parkatuta geratzen dira zure pekatuak." 21 Lege-irakasleak eta parastarrak pentsatzen asi ziran: "¿Nor da biraoak diñozan au? Jaungoikoak bakarrik parkatu daikez pekatuak!" 22 Jesusek, areik pentsatzen ziarduenaz konturaturik, auxe itandu eutsen: "¿Zegaitik pentsatzen dozue orrela? ¿Zer da errazago, Parkatuta geratzen dira zure pekatuak' esatea, ala 'Jagi ta ibili zaitez' esatea? 24 Gizaseme onek mundu onetan pekatuak parkatzeko aginpidea badaukala agertuko dautsuet, ba." Eta, elbarridunagana biurturik, "Zeuri dirautsut —esan eutsan—: Jagi zaitez, artu zure ogetxo ta zoaz etxera."

25 Eta gizona, bereala guztien aurrean jagirik eta bera etzunda egoan ogetxo arturik, bere etxera joan zan, Jaungoikoari eskerrak emonez.

26 Aurrean egozan guztiak arrituta geratu ziran eta Jaungoikoa goratzen asi ziran. Bildurrez beterik, "Arritzekoak ikusi doguz gaur!", iñoen.

Jesusek Lebiri dei egiten dautso (Mt 9, 9-13; Mk 2, 13-17)

27 Orren ostean, andik urtenda, Jesusek Lebi izeneko diru-batzaille bat ikusi eban dirubatzemaian jesarrita. Eta, "Zatoz neugaz", esan eutsan. 28 Lebi jagi eta, guztia itzirik, Jesusegaz joan zan.

29 Geroago, Lebi bere etxean jai andi bat egin eban Jesusen omenez, eta biak maian jarri ziran dirubatzaille askogaz eta beste lagun batzukaz batera. 30 Parastarrak eta onein Lege-irakasleak mormoxetan asi ziran, eta Jesusen ikasleai auxe itandu eutseen:

"¿Zegaitik batzen zaree zuek diru-batzaille ta entzute-txarrekoakaz jan-edatera?" 31 Jesusek, berbea arturik, auxe erantzun eutsen: "Osasundunak ez dabe osagillerik bear, geisorik dagozanak baiño. 32 Ni ez naz zintzoai dei egitera etorri, pekatariak baiño, onbideratu daitezana."

Baraua zala-ta (Mt 9, 14-17; Mk 2, 18-22)

33 Orduan, areik Jesusi auxe esan eutsoen: "Joanen ikasleak barau egiten dabe sarritan, baita otoitz be, eta parastarren ikasleak be bardin. Zureak, ostera, jan eta edan egiten dabe." 34 Eta Jesusek arei: "¿Barau eragin ete-daikeozue zuek eztegurako deituai, senar barria eurakaz dagoan artean?" 35 Etorriko da, bai, senar barria kenduko yaken eguna; orduantxe egingo dabe barau."

36 Adibide au jarri eutsen gaiñera: "Iñok ez dautso soiñeko barriari zapi-zati bat ebagiten soiñeko zaarrari ipingirik ezarteko. Orrela egin ezker, soiñeko barria ondatuta eta zaarra txarto konponduta geratuko litzakez. 37 Zaragi zaarretara be ez dau iñok ardao barririk botaten; izan be, ardao barriak lertu egiten dau zaragia, ardao isuri egiten da eta zaragia ondatu. 38 Ardao barria zaragi barrietara bota bear da. 39 Eta ardao zaarra edanda gero, ez dau iñok ardao barririk edan nai izango, zaarra ohea dala esango dau-ta."

Ikasleak jaiegunez galburuak artzen
(Mt 12, 1-8; Mk 2, 23-28)

6 1 Jaiegun baten*, Jesus gari-soloetan zear yoian. Aren ikasleak galburuak artzen, esku-artean urkultzen eta garauak jaten asi ziran. 2 Parastar batzuek, ori ikustean, auxe esan eben: "¿Zegaitik egiten dozue jaiegunez bidezko ez dana?" 3 Eta Jesusek arei: "¿Ez al-dozue iñoiz be irakurri Dabidek egin ebana, bera ta bere lagunak gosetu ziranen? 4 Jaungoikoaren etxean sartuta, eskintza-ogietatik jan

eban, abadeak baiño beste iñok ezin jan egikeezanak. Eta beragaz egozanai be emon egin eutsezana." 5 Eta Jesusek auxe esan eban gaiñera: "Gizaseme au jaiegunaren Jaun da."

Gizon esku-igarra (Mt 12, 9-14; Mk 3, 1-6)

6 Beste jaiegun baten, Jesus sinagogan sartu eta irakasten asi zan. Eskua igartuta eukan gizon bat egoan an. 7 Jesus salatzeko atxaki-billa ziarduen Lege-irakasle ta parastarrak adi-adi jarri ziran, jaieguna izanarren be, geiso a osatuko ete-eban ikusteko. 8 Jesusek, areik pentsatzen ziarduen jakiniñik, eskua igartuta eukan gizonari auxe esan eutsan: "Jagi ta geratu zaitez zutunik or erdian." Gizona jagi eta antxe jarri zan. 9 Orduan, Jesusek beste arei auxe esan eutsen: "Itaun bat egiten dautsuet: ¿Bidezko da jaiegunez ona egitea ala txarra egitea? ¿Bizia salbatzea ala ondatzea?" 10 Eta, guzti arei begiratu bat egiñik, "Zabaldu esku ori", esan eutsan gizonari. Arek zabaldu egin eban eta eskua osatuta geratu yakon.

11 Areik, ostera, asarre-bitsetan, Jesusi zer egin-go ete-eutsoen asmatzen ziarduen alkarregaz.

Jesusek amabi apostoluak aukeratzen dauz
(Mt 10, 1-4; Mk 3, 13-19)

12 Egun areitan, Jesus mendira joan zan, otoitz egitera, eta gau guztia Jaungoikoari otoitz egiten egin eban. 13 Egundu zanean, bere ikasleak batu ebazan, eta, arein artetik amabi aukeraturik, apostolu egin ebazan. 14 Oneixek izan ziran: Simon —oni izena Pedro (Arria) jarri eutsan— eta onen anai Ander; Zebedeoren semeak: Santiago ta onen anai Joan; Felipe ta Bartolome; 15 Mateo, Tomas, Alfeoren semea* zan Santiago, eta Zelote* eritzan Simon; 16 Santiagoren seme* zan Judas, eta Judas Iskariote, gero Jesus saldu ebana.

Jesusek irakatsi eta osatu egiten dau
(Mt 4, 23-25; Mk 3, 7-12)

17 Jesus arekaz menditik toki lau batera jatsi zan. Ikasle-talde andiak eta judar-errialde guztiak, Jerusalemendik eta Tiro ta Sidongo itsas-ertzetik etorri ziran askok be lagun egiten eutseen; 18 Jesusen berbea entzutera eta euren geisoetatik osatzera etorri izan ziran. Espiritu zikiñiak artuta egozanak be osatu egiten ebazan. 19 Guztiak nai eben Jesus ikutzea, Ari erion indarrak guztiak osatzen ebazan-eta.

Bedeinkapenak eta zemaik (Mt 5, 1-12)

20 Jesusek, bere ikasleakana begira, auxe esan eutsen:

"Zorionekoak zuek, beartsuok, Jaungoikoaren erreñua zeuena da-ta.

21 Zorionekoa zuek, orain gose zareenok, aseak izango zaree-ta.

Zorionekoak zuek, orain negar egiten dozu-enok, gero barre egingo dozue-ta.

22 Zorionekoak zuek, gizonak gorroto izan daitzuenen, eta euren ondotik baztatu eta iraindu zagiezenean, eta, Gizaseme onegaitik, zuen izena lotsagarritzat artu daitzuenen.

23 Poztu ta alaitu zaiteze une ori eldu daitenean, zeruan sari andia izango dozue-ta. Profetai be beste ainbeste egin eutseen laguntalde onen asabak.

24 Ai zuek, ostera, aberatsok, orain daukazuen zoriona baiño ez dozue izango-ta!

25 Ai zuek, orain aseta zagozenok, gose izango zaree-ta!

Ai zuek, orain barre egiten dozuenok, antzi ta negar egingo do zue-ta

26 Ai zuek, guztiak goratu zagiezenean, sasi-profetai be laguntalde onen asabak beste ainbeste egin eutseen-eta!

Arerriokanako maitasuna (Mt 5, 38-48)

27 "Zuei, barriz, entzuten nozuenoi, auxe dirautsuet: Maite egizue zuen arerioak eta on egiezue gorroto dautsuenai. 28 Bedeinkatu egizue madarikatzen zaituenak eta otoitz egizue iraindu zagiezenean alde. 29 Norbaitek matrailla baten jotn bazaitu, eskiñi egiozu bestea be. Norbaitek soingaiñekoa kendu nai badautsu, barruko jantzia be emon egiozu. 30 Eskatu dagitzunari, emon egiozu, eta zeurea dan zerbait kendu dagitzunari, ez egiozu barriro eskatu. Enparaduak zuei egitea nai dozue, egizue orrelaxe zuek be. 32 Izan be, maite zaituenak bakarrik maite badozue*, ¿ze(r) eskerron zor yatzue? Gaiztoak be maite izaten dabez euren maitatzailleak! 33 Eta zuei on egiten dautsuenai bakarrik egiten badautsezue on, ¿ze(r) eskerron zor yatzue? Ori, gaiztoak be egiten dabe! 34 Zerbait atzera biurtuko dautsuenai bakarrik aurreratzen badautsezue, ¿ze(r) eskerron zor yatzue? Gaiztoak be emoten dautsee aurretiaz gaiztoai, arekandik beste ainbeste artzekotan! 35 Zuek, ostera, maite egizue zuen arerioak, on egizue beti eta emon aurretiaz, ordaiña artzeko usterik izan bagarik. Orrela, sari andia izango dozue eta Jaungoiko goren-goren seme izango zaree: bera be esker-txarreko ta gaiztoai buruz biozpera da-ta. 36 Izan zaiteze errukiorrak, zuen Aita be errukiorra danez.

Abea norbere begian (Mt 7, 1-5)

37 "Iñor ez epaitu, eta Jaungoikoak be ez zaitue epaituko. Ez iñor galdu, eta Jaungoikoak be ez zaitue galduko. Parkatu egizue, eta Jaungoikoak parkatu egingo dautsue. 38 Emon egizue, eta Jaungoikoak emon egingo dautsue: zuen zorroa gaiñez egiteraiño beteko dau Berak. Enparaduak negurtu dagizuezan negurri berberaz negurtuko zaitue."

39 Jesusek adibideen bidez jarraitu eban berba egiten: "¿Zelan zuzendu daike itsu batek beste itsu

bat? Ez ete-dira biak zulora jausiko? 40 Ikaslea be ez da bere irakaslea baiño geiago, ikasle ondo ikasia bere irakaslea lakoa izan leitekenarren be.

41 "¿Zegaitik begiratzen dozu zure anaiak bere begian daukan samarra, eta ez dozu somatzen zeure begian daukazun abea? 42 ¿Zelan esan aal izango dautsazu zure anaiari: 'Anaia, itzi egidazu begian daukazun samarra ataraten', zeure begian daukazun abea ikusten ez badozu? Itxurazale ori! Atara egizu leenen abea zure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu garbi, zure anaiaren begiko samarra atarateko.

Zugatza ta frutua (Mt 7, 16-20; 12, 33-35)

43 "Zugat onak ez dau frutu txarrik ekarten, ezta zugatz geisoak be frutu onik. 44 Frututik ezagutzen da zugatz. Ezin batu daiteke garduetatik pikurik, ezta sasietatik be maatsik. 45 Gizon zintzoagandik, beronen biotza ontasunez aberatsa dan ezkerro, ona sortzen da; eta gaiztoagandik, beronen biotza gaiztakeriz aberatsa dan ezkerro, txarra sortzen da. Izan be, biotzari gaiñezka darionetik esaten dau goak.

Oñiarri biak (Mt 7, 24-27)

46 "¿Zegaitik egiten daustazue dei 'Jauna, Jauna', eta ez dozue nik diñodanik egiten? 47 Nigana etorrita, nire berbak entzuten eta egiñez beteten dauzan edonor, 48 etxe bat jasotean, sakon-sakon zulatu eta oiñarriak arri-biziaren gaiñean jarri ebazan gizonaren antzekoa izan daiteke. Gero, ibaiak gaiñez egin ebenean eta uriolea etorri zanean, etxe arek eutsi egin eutsan ur-boladeari, etxea ondo eginda egoan-eta.

49 "Niri entzun bai, baiña entzundakoa egiñez beteten ez dauana, ostera, etxea oiñarri bagarik, lur utsean jaso eban gizonaren antzekoa izan daiteke. Ibaiak gaiñez egin ebenean eta urak etxearen gaiñera jausi ziranean, etxea bat-batean beera jausi zan eta

aren ondamendia andia izan zan."

Kapitanaren morroia osatzen dau (Mt 8, 5-13; Jn 4, 46-54)

7 1 Laguntaldeari egindako berbaldi ori amaitu ebanean, Jesus Kafarnauna biurtu zan. 2 Erromatar kapitan bat bizi zan an, eta berak oso maite eban morroia il-zorian egoan. 3 Kapitan onek, Jesusen barri entzunda, judarretariko zaar batzuk bialdu eutsazan, bere morroia osatzera joan zeitela eskatzera. 4 Joan ziran, ba, bialduak Jesusegana eta erregu au egin eutsoen: "Gizon onek merezi dau zure laguntza, 5 gure erria benetan maite dau-ta. Sinagoga bat be jaso-azo dau guretzat bere lepotik."

6 Jesus arekaz joan zan. Etxetik ur samar egoala, kapitanaren adiskide batzuk urten yakozan bidera; arek mandatu oneaz bialdu izan ebazan: "Jauna, ez artu nigaitik nekerik. Ni ez naz duin neure etxean sartu zaitez. 7 Zeure billa urteteko be ez dot adorerik izan. Baiña esan egizu berba bat eta nire morroia osatuta geratuko da. 8 Izan be, neu be neure nagusien menpean nago, eta neuk be gudariak dodaz nire agindupean. Areitariko bati 'Zoaz' badirausat, joan egiten da; eta beste bati 'Zatoz' badirausat, etorri egiten da; eta nire moroiari 'Egizu au' badirausat, egin egiten dau."

9 Ori entzutean, aretzaz mirarrituta geratu zan Jesus. Eta, jarraitzen eutsan laguntaldeagana biurturik, auxe esan eban: "Benetan dirautsuet: orrelako sinismen berorik Israelen bertan be ez dot aurkitu."

10 Eta bialduak etxera biurtu ziranean, morroia osatuta aurkitu eban.

Naingo emakume alargunaren semea biztuten dau

11 Zerbait geroago, Jesus, bere ikasle ta laguntalde andiagaz batera, Nain* izeneko auzunara joan zan. 12 Erriko atera urreratzean, andik urtetan zan

illeta-talde bat aurkitu eban. Ama alargun baten seme bakarra eroien, illobiratzera. 13 Jaunak, alarguna ikustean, aretzaz errukiturik, "Ez egin negarrik", esan eutsan. 14 Eta, ilkuxara urreraturik, ilkuxa ikutu egin eban, eta eroienak gelditu egin ziran. Orduan, Jesusek auxe esan eban: "Mutil, zeuri dirautsuet: jagi zaitez!" 15 Ildakoa jagi eta berba egiten asi zan, eta Jesusek amari emon eutsan. 16 Ori ikustean, aurrean egozan guztiak bildurrez bete ziran eta Jaungoikoa goratu eban. Auxe iñoen: "Gure artetik profeta andi bat urten da. Jaungoikoa bere erria salbatzera etorri da."

17 Jazorikoaren albistea Judea* guztian eta inguruko errialdeetan zabaldu zan.

Joan Bateatzaillearen itauna (Mt 11, 2-19)

18 Bere ikasleen bidez guzti orren jakitun egin da, Joan Bateatzailleak, areitariko biri dei egiñik, Jaunari urrengo au itauntzera bialdu ebazan: "¿Zeu zara etorteko zana, ala beste baten zain egon bear dogu?"

20 Areik, ba, Jesusegana aurkezturik, auxe esan eutsoen: "Joan Bateatzailleak bialdu gaitu zuri itauntzera: ea zeu zanean etorteko zana, ala beste baten zain egon bear dogun."

21 Orduantxe bertan, Jesusek lagun asko osatu ebazan euron geiso, gaitz eta espiritu gaiztoetatik*, eta itsu askori ikusmena biurtu eutsen. 22 Auxe erantzun eutsen, ba, bialduak: "Zoaze barrero Joanegana eta esan egiozue ikusten eta entzuten diarduzuen: itsuak ikusi egiten dabe, errenak badabiz, legenardunak garbi geratzen dira euren geisotik, gorrak entzun egiten dabe, ildakoak biztu egiten dira, eta beartsuai salbamen-mandatu iragarten yake. 23 Eta zorionekoak nigan jauspiderik izan ez dagienak!"

24 Joanen mandatariak joan ziranean, Jesus laguntaldeari Joani buruz berba egiten asi yaken. Auxe iñoen: "Basamortura Joan ikustera urten

zintzazenean, ¿zer uste zenduen aurkitzea? ¿Aizeak darabilen kaiñaberaren bat? 25 ¿Ala, apain-apain jantzitako gizon bat aurkitzea uste zenduen? Dotore ta apain jazten diranak errege-jauregietan bizi dira. 26 ¿Zer uste zenduen aurkitzea, bestela? ¿Profetaren bat? Bai, badirausuet: baita profeta baiño andiagoa be. 27 Joani buruz diñoe Liburu Santuak urrengo au: *Neure mandataria bialtzen dot zure aurrean, bidea atondu dagitzun**. 28 Auxe dirautsuet: Ez dago Joan baiño gizon andiagorik; alan be, Jaungoikoaren erreñuan txikiena, a baiño andiagoa da."

29 Joanek iñoana entzuten eban erri guztiak, baita diru-batzailleak eurak be, aren mandatu Jaungoikoagandik etorrela autortu eta Joanen bateoa artu eban. 30 Parastarrak eta Lege-irakasleak, ostera, Joanen bateoa ez artzeaz, Jaungoikoak eurak egin nai eutsena bazartu egin eban.

31 Jesusek auxe be esan eban gaiñera: "¿Noren parean jarriko dot oraingo laguntalde au? ¿Noren antzekoa da? 32 Kalean jesarten diran mutiko orrein antzekoa da, alkarri deadarka dirautsoela: 'Guk txilibitua jo dautsuegu, eta zuek ez dozue dantzan egin nai izan; negar-soiñuak abestu dautsueguz, eta zuek ez dozue negar egin nai izan!' 33 Izan be, etorri zan Joan Bateatzaillea, jan-edan egiten ez ebala, eta 'Orrek deabrua dauko barruan', esan zenduen aretzaz. 34 Baiña gero Gizaseme au etorri da, jan-edan egiten dauala, eta 'Au, jatun eta moskorra da, diru-batzaille* ta entzute-txarrekoen adiskidea', diñozue. 35 Baiña jakituriari bera benetan daukenak emoten dautsoe izen ona."

Simon parastarra

36 Parastar batek Jesusi bazkaltzera egin eutsan dei. Joan zan, ba, Jesus parastarraren etxera eta maiian jarri zan. 37 Uri aretan entzute-txarreko emakume bat bizi zan, eta, Jesus parastarraren etxean egoala jakin ebanean, usaingarriz beteriko artzuri-ontzi bat arturik, 38 Jesusen atzean* jarri zan, Aren

oiñen ondoan. Emakumeak, negarrez, bere negar-malkoakaz Jesusen oiñak bustiten ebazan, eta oiñai mun egiten eutsen eta bere uleakaz sikatzen ebazan. Azkenez, usaingarria oiñen gaiñera isuri eban. 39 Jesusi dei egin eutsan parastarrak, ori ikustean, auxe esan eban berekautan: "Au profeta balitz, jakingo leuke onek berau ikutzen dauan emakume ori nor dan eta zelako entzute-txarrekoa dan."

40 Orduan, Jesusek, Simonegana bihurturik, auxe esan eutsan: "Simon, badot, ba, nik zuri esateko zerbait." "Esan, ba, Irakasle", erantzun eutsan Simonek. 41 Eta Jesusek ari: "Bein, diru-artzekodun batek zordun bi ebazan: areitariko batek besteak baiño amar bidar geiago zor eutsan. 42 Biotariko batek be ezin ordaindu eiketan ezkerro, zorra bai parkatu egin eutsen. Biotarik, ¿nok izango ete-dau maiteago bere artzekoduna?" 43 "Nire ustez, zor andiagoo parkatu yakonak", erantzun eban Simonek. "Errazoia dozu", esan eutsan Jesusek.

44 Eta emakumeagana bihurturik, Simoni auxe esan eutsan: "Begira emakume au. Zure etxera eldu nazanean, ez daustazu oiñetarako urik* eskiñi; onek, ostera, bere negar-malkoakaz busti eta bere uleakaz sikatu daustaz. 45 Agur-laztanik be ez daustazu emon: au, ostera, sartu nazanetik, ez da nire oiñai mun egiten aspertu. 46 Orioa be ez dozu isuri nire buru-gaiñera; baiña onek usaingarria isuri dau nire oiñen gaiñera. 47 Orregaitik, auxe dirautsut: onelako maitasuna agertzen badau, bere pekatu ugariak parkatu izan yakozalako da. Gutxi parkatzen yakonak, maitasun gutxi agertzen dau." 48 Gero, emakumeari auxe esan eutsan: "Parkatuta geratzen dira zure pekatuak."

49 Ori entzutean, enparadu mailagunak eurekautan itauntzen asi ziran: "¿Nor da pekatuak be parkatzen dauzan au?" 50 Baiña Jesusek emakumeari auxe esan eutsan: "Zeure sinismenak salbatu zaitu. Zoaz bakean."

Jesusi lagun egiten eutsoen emakumeak

8 1 Geroago, Jesus erri ta auzunetan ebillen, toki guztietan Jaungoikoaren erregetza iragarten. Amabi ikasleak yoiazan Jesusegaz, 2 baita espirtu gaiztoetatik* eta beste geiso batzuetatik osatu izan ebazan emakume batzuk be: Madalen eritzon Mari, beronegandik Jesusek zazpi deabru atarazo ebazana; 3 Joana, Erodesen etzezain zan Kusaren emaztea; Susana, eta beste asko. Guztiak euren ondasunakaz Jesusi ta beronen ikasleai lagun egiten eutseen.

Ereillearen ipuñia

(Mt 13, 1-9. 18-23; Mk 4, 1-9. 13-20)

4 Bein, inguruetakoko errietatik laguntalde andia batu izan zan, eta Jesusek ipuin au esan eutsen:

5 "Ereille bat ereitera urten zan bere solora. Azia ereitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran; zapaldu egin ebezan eta txoriak jan. 6 Beste azi batzuk toki arritsuan jausi ziran, eta, emeta batera, igartu egin ziran, bustirik ez eben-eta. 7 Beste azi batzuk garduen erdian jausi ziran; eta garduak, arekaz batera emetean, ito egin ebezan. 8 Azkenez, beste azi batzuk lur emokorrean jausi ziran, eta, erneta, bateko eun emon eben."

Ipuin au amaitzean, Jesusek auxe esan eban gaiñera: "Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala." 9 Ipuin onek zer adierazo eiketan itandu eutsoen ikasleak. 10 Eta Jesusek arei: "Zuei Jaungoikoak bere erregetzako ezkutua ezagutzen izten dautsue; baiña enparaduai ipuñien bidez egiten dautse berba, *begiratuarren be ikusi ez dagien, eta entzunarren be ulertu ez dagien* *." 11 Ipuin onek auxe adierazoten dau: Azia, Jaungoikoaren mandatu da. 12 Bide-ondoan jausitako aziak, mandatu entzuten dabena dira; baiña deabruak, etorrita, kendu egiten dautse biotzetik, sinistu ta salbatu ez daitezana. 13 Arri-artean jausitako aziak, mandatu entzun eta pozik artzen dabena dira; baiña onek ez dauke

zustarrrik; sinistu, bai, sinisten dabe aldi baten, baiña eragozpenak elduta batera, bertan-beera izten dabe. 14 Gardu-artean jausitako aziak, mandatu entzuten dabena dira; baiña, bizitza onetako gora-beera, arazo ta atsegiñakaz arduratuta, euren bideari jarraitzen dautsoe, eta orreik ez dira eltzen eta ez dabe fruturik ekarten. 15 Azkenez, lur emokorrean jausitako aziak, mandatu entzuten eta biotz zintzo ta onez gordeten dabena dira. Oneik, ekiñez-ekiñez, frutua dakarre.

Argiontzia (Mk 4, 21-25)

16 "Ez dau iñok argiontzia iziotu ta ontzia ez estaltzen edo ogepean sartzen, bestetara baiño: goian ipinten dau, etxean sartzen diran guztiak ikusi dagien. 17 Izan be, ezer be ez dago gordeta, agirian jarriko ez danik; ezta isilpean egindakorik be, ezagutu ta argitara urtengo ez danik. 18 Entzun, ba, ardura andiz: zerbait daukanari, geiago be emongo yako; baiña ezer euki ez dagianari, badaukala uste dagiana be kendu egingo yako."

Jesusen senideak (Mt 12, 46-50; Mk 3, 31-35)

19 Bein, Jesus ikustera joan ziran bere ama ta senideak; baiña, laguntaldea zala-ta, ezin eldu ziran Aregana. 20 Norbaitek dei au bialdu eutsan: "Zure ama ta senideak or kanpoan dagoz, eta zeu ikusi nai zaitue." 21 Eta Jesusek arei: "Jaungoikoaren mandatu entzun eta beteten dabena guztiak dira nire ama ta nire senideak."

Jesusek ekatxa baretzen dau (Mt 8, 23-27; Mk 4, 35-41)

22 Egun baten, Jesusek, bere ikasleakaz txalupa batera igorrik, "Goazan beste itsasertzera", esan eutsen. Eta itsasora jo eben*. 23 Itsasoan zear yoiazan artean, Jesus lo geratu zan. Bat-batean, ikara-

garrizko aize-boladea sortu zan itsas-gaiñean; txalupea urez beteten asi yaken, eta arrisku anditan egotzan. 24 Ikasleak, Jesusegana urreraturik, iratzartu egin eben: "Irakasle, Irakasle, ondoratzeke zorian gagoz!"

Orduan, Jesusek, zutundurik, aizeari ta olatuai agiraka egin eutsen, eta gelditu egin ziran bereala, itsasoa bare-bare geratzen zala. 25 Gero, auxe esan eban Jesusek: "¿Non dago zuen sinismena?" Baiña ikasleak, bildurrez beterik eta arrituta, alkarrri auxe zirautsoen: "¿Nor da au, aizeari ta itsasoari aginduta, onek esana egiten dautsoe-ta?"

Jerasatarra osatzen dau (Mt 8, 27-34; Mk 5, 1-20)

26 Orren ostean, beste itsasaldean, Galilearen aurrez-aurre dagoan Jerasako errialdera* eldu ziran. 27 Jesusek legorrera salto eginda batera, uritik etorren gizon bat urten yakon bidera. Deabruak artuta euken, eta aspaldian billoizik ebillen eta ez zan etxean bizi izaten, illobitegian baiño. 28 Jesus ikustean, aurrean belaunikotu yakon alaraoka baten. Bere indar guztiaz deadarka, auxe iñoan: "Baketan itzi nagizu, Jesus, Jaungoiko gorengoaren Seme orrek! Ez nagizula oiñazetu eskatzen dautsut!" 29 Jesusek espirtu zikiñari gizon aregandik urten zedilla agintzen eutsan-eta. Izan be, deabruak askotan artzen eban; eta, katez eta burdiñazko estunez lotzeko aalegiñak egin izanarren be, arek loturak ausi eta, deabruak bultza eginda, bakartadeetara egiten eban iges*.

30 "Zelan dozu izena", itandu eutsan Jesusek. "Taldea* dot izena", erantzun eutsan arek, aregan deabru asko sartu izan ziran-eta. 31 Eta barriro lezara* bialdu egizala eskatzen eutsoen areik Jesusi.

32 Txarri-talde andi bat egoan an, mendian zear larratzen, eta arekan sartzen laketu egitsela eskatu eutsoen deabruak. Jesusek laketu egin eutsen, 33 eta gizon aregandik urten eta txarrikan sartu ziran. Bat-

batean, txarri-taldea aldapa-beera itsasora amildu eta an ito egin zan.

34 Txarri-ziñak jazorikoa ikusi ebenean, iges egin eben eta jazo izan zan guztia errian eta inguruetan zabaldu eben. 35 Laguntaldea jazorikoa ikustera joan zan ara, eta, Jesus egoan tokira eldu ziranean, deabruak urten izan yakozan gizona aurkitu eben, Jesusen oiñetan jesarrita, jantzita eta bere senere biurtuta. Eta guztiak bildurrez bete ziran. 36 Jazorikoa ikusi izan ebenak, deabrudun a zelan izan zan osatua azaldu eutseen. 37 Eta Jerasa-errialdeko bizilagun guztiak, eurakandik alde egiteko eskatzen eutsoen Jesusi, bildur-ikareak artuta egozan-eta.

Orduan, Jesus barriro txalupara igo eta emendiko alderantz biurtu zan. 38 Deabruak urten izan yakozan gizonak Jesusegaz joatea nai eban, baiña Jesusek bialdu egin eban, esanez: 39 "Biurtu zaitez zure etxera eta Jaungoikoak egin dautsun guztia esan egiezu guztiai."

Joan zan, ba, gizona, eta Jesusek egin izan eutsana azaltzen eban erri guztian.

Jairoren alabea. — Emakume gelsoa
(Mt 9, 18-26; Mk 5, 21-43)

40 Beste itsasaldera biurtu zanean, Jesus pozpizik artu eben, guztiak Aren zain egozan-eta. 41 Orduan, sinagogako nagusi zan Jairo izeneko gizon bat etorri zan; eta, Jesusen oiñetan belaunikoturik, bere etxera joateko eskatzen eutsan, 42 amabi bat urteko alaba bakarra il-zorian eukala-ta. Jesus ara yoian artean, laguntaldea Aren inguruan pillatzen zan.

43 Bidean yoiala, amabi urte areitan odol-jarioz gessorik egonik, osagilleak zirala-ta, bere ondasun guztiak eralgita gero, iñok be osatu eziñik egoan emakume batek, 44 atzetik Jesusegana urreratuta, soingaiñeko-ertza ikutu eutsan. Eta une aretan bertan odol-jarioa gelditu egin yakon. 45 "¿Nok ikutu nau?", itandu eban Jesusek. Guztiak ezetz iñoen, eta

Pedrok* auxe esan eutsan: "Irakasle, laguntaldea da; inguratu ta estutu egiten zaitue." 46 Baiña Jesusek barriro be: "Norbaitek ikutu egin nau, nigandik osatzeko indarra urten dala somatu dot-eta."

47 Orduan, emakumea, bere burua ezin gorde eikeala ikustean, ikara-ikara Jesusen oiñetan belaunikotzera joan zan, eta Jesus zegaitik ikutu izan eban eta bat-batean osatuta zelan geratu izan zan azaldu eban guztien aurrean. 48 Jesusek auxe esan eutsan: "Alaba, zeure sinismenagaitik geratu zara osatuta. Zoaz bakean."

49 Jesusek berba egiten ziarduala, sinagogako nagusiaren etxetik norbait eldu zan, oni auxe esatera: "Zure alabea il egin da. Ez egiozu gogaitik eragin Irakasleari." 50 Baiña Jesusek, ori entzunda, "Ez izan bildurrik —esan eutsan Jairoi—. Izan egizu sinismena bakar-bakarrik, eta zure alabea osatu egingo da!"

51 Joan ziran, ba, etxera, eta Jesus sartu egin zan, lagun egiten iñori be itzi bagarik, Pedro, Joan, Santiago eta neskatoaren gurasoai izan ezik. 52 Etxean, neskatoaren eriotzagaitik, guztiak negarrez eta dolu egiten ziarduen. Jesusek auxe esan eutsan: "Ez egin negarrik, ez dago ilda-ta; lo dago." 52 Baiña guztiak Jesusen lepotik barre egiten eben, baekien neskatoa ilda egoana-ta. 54 Jesusek, neskatoari eskutik oraturik, "Neskato, jagi zaitez!", esan eutsan. 55 Eta neskatoari espiritua etorri yakon barriro, eta jagi egin zan bat-batean. Eta jaten emon egioela agindu eban Jesusek. 56 Gurasoak arrituta geratu ziran, baiña jazo izan zana iñori be esateko agindu eutsen Jesusek.

Amabien egikizuna(Mt 10, 5-15; Mk 6, 7-13)

9 1 Jesusek, amabi ikasleai dei egiñik, edozeritariko deabruak* botateko eta geisoak osatzeko aalizate ta aginpidea emon eutsezan. 2 Jaungoikoaren erregetza iragartera eta geisoak osatzera bialdu eban.

3 Auxe esan eutsen: "Ez egizue ezer eroan bide-rako: ez makillarik, ez zorrerik, ez ogirik, ez dirurik. Ezta jantzi bi be. 4 Etxe baten sartu zaitezenean, geratu bertan, toki aretatik urten arte. 5 Erriren baten artu nai ez bazaitue, urten andik eta astindu egizue zuen oiñai itsasitako autsa, arein aurkako agiritzat."

6 Areik urten eta auzuna guztietan ibili ziran, toki guztietan salbamen-mandatu iragarten eta geisoak osatzen.

Erodes eta Jesus(Mt 14, 1-2; Mk 6, 14-29)

7 Erodes, Galilean jaurlari zala, jazoten zanaren jakitun egin zanean, ezpaitan geratu zan, batzuek Joan Bateatzaillea biztu egin zala iñoen-eta; 8 beste batzuek, barriz, Elias profeta agertu izan zala; eta beste batzuek, antxiñako profetatario bat biztu egin zala. 9 Baiña Erodesek auxe esan eban: "Joani neuk ebagi neutsan samea. ¿Nor izan aal izango da, ba, orretzaz orrelakoak esaten dabezan ori?" Eta Jesus ezagutzeko aukera-billa ebillen.

Jesusek bost millari emoten dautse jaten
(Mt 14, 13-21; Mk 6, 30-44; Jn 6, 1-14)

10 Apostoluak biurtu ziranean, eurak egin izan eben guztia azaldu eutsoen Jesusi. Jesusek beragaz eroan ebazan, Betsaida izeneko errira. 11 Baiña laguntaldea, orretzaz konturaturik, jarraitu egin eutsan. Jesusek ondo artu ebazan, Jaungoikoaren erregetzari buruz egin eutsen berba, eta osatu egin ebazan geisoak.

12 Eguna illuntzen astean, amabi apostoluak, Jesusegana urreraturik, auxe esan eutsoen: "Bialdu egizu laguntalde guzti au, inguruko auzuna ta baserrietara joan daitezcan eta ostatua ta jatekoa billatu dagiezan, emen ez da iñor bizi-ta." 13 "Zeuek emon egiezu jaten", erantzun eutsen Jesusek. Eta areik Jesusi: "Bost ogi ta arrain bi baiño ez daukaguz guk, joan eta guztientzat janaria erosten ez badogu

beintzat." 14 Bost bat milla gizonezko ziran. Eta Jesusek bere ikasleai: "Agindu egiezu etzun daitezala lurrean taldeka, berrogeta amarnaka-edo." 15 Ikasleak Jesusek esan eutsena egin eben, eta guztiak etzun egin ziran. 16 Gero, Jesusek, bost ogiak eta arrain biak artu ebazan eta, zerura begiraturik, be-deinkatu ta zatituta, bere ikasleai emon eutsezan, oneik laguntaldearen artean banatu egiezan. 17 Guztiak jan eben, ase arte, eta, geratu ziran ogi-zatiz, amabi otzara bete be batu ebazan.

Pedroren autorpena Jesusi buruz
(Mt 16, 13-20; Mk 8, 27-30)

18 Bein, Jesus, bakarrean, otoitz egitera baztatu zala, ikasleak Aregana batu ziran. Jesusek auxe esan eutsen: "¿Nor nazala diño lagun-taldea?" 19 Eta areik Jesusi: "Joan Bateatzaillea zareaala diño batzuek; beste batzuek, Elias; eta beste batzuek, antxiñako profetatario bat, biztuta. 20 Eta Jesusek arei barriro be: "Eta zuek, ¿nor nazala diño zue?" Orduan, Pedrok auxe erantzun eutsan: "Zu, Jaungoikoak bialdutako Mesias zara!" 21 Baiña orretzaz iñori be ezer ez esateko agindu eutsen Jesusek gogor be gogor.

Jesusek bere eriotza ta biztuerea aurretiaz iragarten dauz
(Mt 16, 21-28; Mk 8, 31-9, 1)

22 Auxe be esan eban Jesusek: Gizasemeak neke andiak eroan bear izango ebazala; erriko zaarrak, abadeburuak eta Lege-irakasleak baztatu egingo ebela; gero, il egingo ebela, baiña irugarren egunean biztu egingo zala.

23 Eta auxe zirautsen guztiai: "Norbaitek neure ikasle izan nai badau, bere buruaz aazturik, egun oro bere gurutzea artuta, jarraitu egin bear izango daust. 24 Izan be, bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau; baiña bere bizia neugaitik emon dagianak, aurkitu egingo dau. 25 ¿Zetarako izango yako gizo-

nari mundu guztia irabaztea, bera galtzen bada edo arek bere burua ondatzen badau? 26 Izan be, norbait nitzaz eta nire mandatuaz lotsatzen bada, Gizaseme au be orretzaz lotsa izango da bere aintzaz, Aitaren aintzaz eta aingeru santuen aintzaz inguratuta etorri daitenean. 27 Benetan dirautsuet: emen dagozan batzuk ez dira ilgo Jaungoikoaren erregetza ikusi baiño leen.”

Jesusen antz-aldatzea (Mt 17, 1-8; Mk 9, 2-8)

28 Zortzi egun geroago, Jesusek Pedro, Joan eta Santiago artu eta mendira eroan ebazan, otoitz egitera. 29 Eta Jesusek otoitz egiten ziarduan artean, Aren aurpegi-itxurea aldatu egin zan, eta Aren jantzia zuri-zuri ta diztiratsu biurtu zan. 30 Orduan, lagun bi agertu ziran Jesusegaz berbetan. Moises eta Elias ziran: 31 oneik, ditzira aintzatsuz inguratuta, Jerusalemen Jesusi jazotekoa zanan egiten eben berba Jesusegaz. 32 Pedro ta onen lagunak loguraz beterik egozan, baiña iratzaririk irauan eben, eta Jesusen aintza ta Beronegaz egozan lagun biak ikusi ebezan. 33 Gero, oneik Jesusegandik alde egiten eben artean, Pedrok auxe esan eban: “Irakasle, emen bai gagozala ederto! Egin dagiguzan iru txabola toki onetan: bat zeuretzat, beste bat Moisesentzat eta beste bat Elia-sentzat.”

Pedrok ez ekian zer iñoan be. 34 Arteetan berbetan ziarduala, odei baten gerizpeaz estalduta geratu ziran, eta, euren buruak odei aren erdian ikustean, larritu egin ziran. 35 Odeitik berbots bat urten zan, esanez: “Auxe da nire semea, nire Aukeratu. Entzun egiozue Beroni.” 36 Berbotsa entzunda gero, Jesus bakar-bakarrrik egoan. Ikasleak isilik egon ziran, eta iñori be ez eutsoen ikusitakorik egun areitan esan.

Mutil deabruduna osatzen dau
(Mt 17, 14-18; Mk 9, 14-27)

37 Biaramonean, menditik jatsi ziranean, lagun-

talde andia urten yakon bidera Jesusi. 38 Bat-batean, gizon batek laguntalde-artetik deadar au egin eban: “Irakasle, mesedez, begiratu egizu nire semea, bakarra dot-eta! 39 Espiritu gaizto batek artu, garrasi egitera beartu eta astin-astin egiten dau, barautsa jaurti-azoten dautsala; semea triskatzen eta indar bagarik izten diardu, nekez egiten dau alde aregandik-eta. 40 Jaurti dagiela eskatu dautset zure ikasleai, baiña ez dabe lortu.” 41 “Au bai laguntalde sinisgogor eta gaiztoa! —esan eban Jesusek—. ¿Noiz arte egon bear izango dot zuen artean? ¿Noiz arte eroan bear izango zaituet? Ekarri egidazu ona zure semea.”

42 Mutilla Jesusegana urreratzen zala, deabruak lurrera jaurti ta biurrazo egin eban. Orduan, Jesusek espiritu zikiñari agiraka egin eutsan, mutilla osatu egin eban eta aitari biurtu eutsan. 43 Eta guztiak ikaratuta geratu ziran Jaungoikoaren andizateaz.

Bere erlotza bigarrenez iragarten dau
(Mt 17, 22-23; Mk 9, 30-32)

Jesusek egin izan ebanaz areik arrituta egozan artean, Arek bere ikasleai auxe esan eutsen: 44 “Entzun egidazue ondo eta ez aaztu onetzaz: Gizaseme au gizonen eskuetan itzia izateko zorian dago.”

45 Baiña areik ez eben ulertu Berak zirautsena; izan be, Jesusen berben esanaia ezkutuan egoan areintzat, eta ez eben ulertzen. Eta gai ori argitu egitsela eskatzeko be ez eben aurpegirik.

¿Nor da nagusiena? (Mt 18, 1-5; Mk 9, 33-37)

46 Euretarik nagusiena nor ete-zan eztabaidan asi ziran ikasleak. 47 Baiña Jesusek, areik pentsatzen ebanaz konturaturik, ume bat artu eta bere ondoan ipiñirik, 48 auxe esan eutsen: “Ume au neure izenean onartzen dauanak, neu onartzen nau; eta ni onartzen nauanak, ni bialdu nauan A onartzen dau. Zuen guztion artean txikiena dana, orixe da nagusiena-ta.”

“Zuen aurka ez dagoana,
zeuen alde dago” (Mk 9, 38-40)

49 Joanek auxe esan eutsan: “Irakasle, norbait deabruak zeure izenaz jaurtiten ikusi dogu eta debekatu egin dautsagu, guretarikoa ez da-ta.” 50 Eta Jesusek ari: “Ez egiozue debekatu: zuen aurka ez dagoana, zeuen alde dago-ta.”

Samaritar erri batek ez dau Jesus ondo artzen

51 Zerura igoteko aldia urreratzean, Jesusek Jerusalemenera joateko erabagia artu eban. 52 Mandatariak bialdu ebazan bere aurrean, eta oneik Samariako* auzuna baten sartu ziran, Jesusi ostatua atontzeko. 53 Baiña toki aretako bizilagunak, Jesus Jerusalemenera yoiala jakin ebenean, ez eben artu nai izan. 54 Ori ikustean, Santiago ta Joan ikasleak auxe esan eben: “Jauna, ¿orreik zerutiko suaz ondatu dagiguzan nai dozu?” 55 Baiña Jesusek, arekana biurturik, asarre egin eutsen. 56 Eta beste auzuna batera joan ziran.

Jesusen jarraitzaileak (Mt 8, 19-22)

57 Bidean yoiatzala, gizon batek Jesusi auxe esan eutsan: “Joan zaitez edonora jarraituko dautsut.” 58 Eta Jesusek ari: “Azeriak gordelekuak daukez, eta txoriak abiak; Gizaseme onek, barriz, ez dauko bere burua non ezarri.”

59 Beste bati, “Jarraitu egidazu”, esan eutsan. Eta arek Jesusi: “Jauna, itzi egidazu leenen neure aita illobiratzera joaten.” 60 Eta Jesusek ari: “Itzi egiezu, ildakoai euren ildakoak illobiratzan. Zu zoaz Jaungoikoaren erregetza iragartera.”

61 Beste batek be auxe esan eutsan: “Gertu nago zuri jarraitzeko, Jauna; baiña itzi egidazu leenen nire etxeokai agur egiten.” 62 Eta Jesusek ari: “Eskua goldean ezarri eta atzeruntz begiratzen dauana, ez da Jaungoikoaren erreñurako gai.”

Irurogeta amabi ikasleak
(Mt 9, 37-38; 10, 7-16; Mk 6, 8-11)

10 1 Orren ostean, Jaunak beste irurogeta amabi* be aukeratu eta bere aurrean biñan-biñan bialdu ebazan, Bera joateko zan erri ta toki guztietara. 2 Auxe esan eutsen: “Solo-aria ugaritsua da, baiña langilleak gutxi dira. Eskatu egiozue, ba, solo-ariaren jabeari bere solora langilleak bialdu dagizala. 3 Zoaze; bieldotsak otso-artera lez bialtzen zaituet. 4 Ez egizue diru-zorrorik, ez zakutorik, ez oiñetakorik eroan; eta gelditu be ez gelditu bidean iñor agurtzen. 5 Etxeren baten sartu zaitezenean, esan leenen: ‘Bakea etxe oni.’ 6 An bizi diranak bake-lagunak badira, zuen agurraren bakea arekaz geratuko da; bake-lagunak ez badira, bakea zeuekana biurtuko da. 7 Etxe aretan bertan geratu zaitez, euki dagiena jaten eta edaten: lan egiten dauanak bere lan-saria jasoteko eskubidea dauko-ta. Ez joan etxe batetik bestera. 8 Ondo artu zagiezan erri batera eldu zaitezenean, jan egizue eskiñi dagitzuena. 9 Osatu egizue geisoak eta auxe iragarri: ‘Jaungoikoaren erregetza ur dozue.’ 10 Baiña artu nai ez zaituen errian sartzen bazaree, urten zaitez arein kaleen erditik, esanez: 11 ‘Oiñetan itsasi yakun zuen erriko autsa be zeuen aurka astintzen dogu! Jakin egizue, orraituño, Jaungoikoaren erregetza ur dagoana.’ 12 Auxe dirautsuet: auzigunean, Sodomako bizilagunak erri orretakoak baiño errukiorrago izango dira erabiliak.

Galileako errien aurka (Mt 11, 20-24)

13 “Ai zu, Korazin! Ai zu, Betsaida! Zuen erdian egin diran mirariak Tiron eta Sidonen egin balitzaz, arein bizilagunak aspaldian onbideratuko litzakezan, eta ori doluz eta errautsez agertuko leukeen.

14 “Orregaitik, auzi-egunean Tiro ta Sidon zuek baiño errukiorrago erabiliko dabez 15 Eta zuk, Kafarnaun, ¿zeruraituño igoko zareala uste dozu? Lezaraituño jausiko zara!”

16 "Zuek entzuten zaituena, neu entzungo baneu lez da; zuek baztartzten zaituena, neu baztartzuko baneu lez da; eta ni baztartzten nauana, ni bialdu nauana baztartzuko baleu lez da."

Irurogeta amablak barrero datoz

17 Irurogeta amablak pozez beterik biurtu ziran, esanez: "Jauna, deabruak eurak be zure izenaz esana egiten daukue!" 18 Eta Jesusek arei: "Oinaztarria lez zerutik jausten ikusi dot Satanaz. Sugeak, lupuak eta arerioaren indar guztiak zapaltzeko aginpidea emon dautsuet, eta ez dautsue ezek ez inok be kalterik egingo. 20 Baiña, alan be, ez zaitezte poztu espiritu zikiñak esana egiten dautsuela-ta; poztu zaitezte, ostera, zuen izenak onezkero zeruan idatzita dagozalako."

Jesusen poza (Mt 11, 25-30; 13, 16-17)

21 Une aretan bertan, Espiritu Santuak Jesus pozez bete eban, eta Jesusek auxe esan eban: "Aita, zeru-lurren Jauna, eskerrak emoten dautsudaz guzti au jakitunai ta ikasiaz estaldu eta persona lauai agertu dautsezulako. Bai, Aita, zuk orrelaxe izan dozu nai."

22 "Nire Aitak dana erakutsi daust*. Semea nor dan, Aitak bakarrik daki; Aita nor dan, Semeak bakarrik daki eta Semeak agertu nai dagionak"

23 Gero, bere ikasleakana biurturik, auxe esan eutsen: "Zorionekoak, zuek ikusten diarduzuen guztia ikusi aal dagienak! 24 Badirautsuet: profeta ta errege askok ikusi nai izan eben zuek ikusten dozuena, baiña ez eben ikusi; baita zuek entzuten dozuena entzun nai be, baiña ez eben entzun."

Samaritar onaren ipuina (Mt 22, 34-40; Mk 12, 28-31)

25 Orduan, Lege-irakasle batek, Jesus zirikatatu nairik, itaun au egin eutsan: "Irakasle, zer egin bear

dot betiko bizitza jaristeko?" 26 Eta Jesusek ari: "Zer dago Moisesen legean idatzita? Zer irakurten dozu an?" 27 Arek auxe erantzun eban: "Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, zeure arima guztiaz, zeure indar guztiaz eta zeure adimen guztiaz izango dozu maite; eta zure lagun-urkoa zeure burua lez*." Eta Jesusek ari: "Ederto erantzun dozu. Orixe egizu eta bizi izango zara."

29 Baiña Lege-irakasleak, bere itauna zuritzeko, auxe itandu eutsan barrero: "Zer eta nor da nire lagun-urkoa?" 30 Eta Jesusek ari:

"Gizon bat, Jerusalemik Jerikora jatsiten zala, bidelapurren eskuetan jausi zan, eta oneik arek eroian guztia ari kendu ta gizona astin-astin eginda gero, erdi illik itzirik, joan egin ziran. 31 Zerbait geroago, bide aretatik bertatik abade bat igaro zan, eta zauritua ikusita, arek aurrera egin eban. 32 Lebitar batek* be, toki aretara eltzean, ikusi bai, ikusi eban zauritua, baiña arek be aurrera egin eban. 33 Azkenez, samaritar* bat eldu zan, eta, zauritua ikustean, erruki izan yakon. 34 Aregana urreraturik, osatu egin eban, eta, aren zaurietan orioa ta ardaoa* ezarririk, zauriak lotu egin eutsazan, bere astogaiñean jarri, ondoko ostatura eroan eta bere ardurapean artu eban. 35 Biaramonean, samaritarrek bere bideari jarraitu bear izan eutsanean, ostalariari dirua emonik, auxe esan eutsan: 'Zaindu ondo gizon au. Orain izten dautsudana baiño geiago eralgiten badozu, onuntz etortzerakoan ordainduko dautsut.'

36 Ea, ba: iru gizonotarik, zer deritzazu bidelapurren eskuetan jausitakoaren lagun-urkoa izan zala?" 37 "Erruki izan yakona", erantzun eban Lege-irakasleak." Eta Jesusek ari: "Zoaz, ba, eta egizu zeuk be bardin."

Marta ta Mariri ikustaldia

38 Bidean yoiatzala, Jesus auzuna baten sartu zan, eta Marta izeneko emakume batek ostalua emon eutsan. 39 Martak Mari eritzon aizta bat eukan;

Marik, Jaunaren oinietan jesarrita, Jesusen berbak entzuten ebazan. 40 Martak, ostera, etxeko arazoetan arduratsu ziarduan; orregaitik, Jesusegana urreraturik, auxe esan eutsan: "Jauna, zer deritzazu nire aizeak etxeko lan guztian ni bakarrik iztea? Esan egiozu, mesedez, lagun egin daistala." 41 Eta Jaunak Martari: "Marta, Marta, arduraz eta urduri diarduzu gauza askotan. 42 Alan be, bat bakarra da bearrezkoa. Marik arlorik onena aukeratu dau eta ori inok be ez dautso kendu aal izango."

Otoitza (Mt 6, 9-15; 7, 7-11)

11 1 Bein, Jesusek, toki baten, otoitz egiten ziarduan. Otoitz egitea amaitu ebanean, ikasle-tariko batek auxe esan eutsan: "Jauna, irakatsi egiguzu otoitz egiten, Joan Bateatzailleak bere ikasleai irakatsi eutsenez." 2 Eta Jesusek arei: "Otoitz egin dagizuenean, auxe esango dozue:

Aita, santu izan bedi zure izena.

Betor zure erregetza.

3 Emon egiguzu egun oro guk bear dogun ogia.

4 Parkatu egiguzuz gure pekatuak, geuk be oker egiten daukuenai parkatzen dautsegunez.

Eta ez egiguzu itzi Zugandik alde egiten."

5 Gero, auxe esan eutsen: "Egizue, zuetariko batek, gaberdian bere adiskide bategana joanda, auxe dirautsala: 'Adiskide, itzi egidazuz iru ogi: 6 nire adiskide bat, bidez yoiala, etxera etorri yat, eta ez daukat ari eskintzekorik ezer be.' 7 Besteak, barrutik, auxe erantzuten dautso: 'Mesedez, ez egidazu orain gogaitik eragin. Atea be itxita daukat, eta nire semeak eta ni ogean gagoz. Ezin jagi naiteke orain zuri ogiak emotera.' 8 Benetan dirautsuet: eskatutako ogiak emotera adiskide dalako jagiten ez bada be, gogaitik eragin ez dagion beintzat, jagita, arek bear dauan guztia emongo dautso. 9 Orregaitik, auxe

dirautsuet: Eskatu egizue, eta emon egingo dautsue; ibili billa, eta aurkitu egingo dozue; dei egizue, eta Jaungoikoak zabaldu egingo dautsue atea. 10 Izan be, eskatzen dauan edonok, artu egiten dau; eta billa dabillenenak, aurkitu egiten dau; eta dei egiten dau-nari, Jaungoikoak zabaldu egingo dautso atea.

11 "Zer eta nor da zuen artean, bere semeak arraiña eskatzen badautso, sugea emongo dautsan aitarik?* 12 Edo-ta, zerarrutzea eskatzen badautso, lupua emongo dautsanik? 13 Beraz, zuek, gaiztoak izanik, zuen semeai gauza onak emoten badakizue, zerbat geiago ez ete-dautse Espiritu Santua emongo zeruko zuen Aitak, Berari eskatzen dautsoenai?"

Jesus eta Beeltzebul

(Mt 12, 22-30; Mk 3, 22-27)

14 Egun baten, Jesusek deabru bat jaurtiten ziarduan; deabruak gizona artu eta mutu itzi izan eban. Deabrua aregandik urtenda gero, mutua berba egiten asi zan. Ori ikusi ebenak arrituta geratu ziran; 15 baiña batzuek auxe inoen: "Beeltzebulek, deabruen nagusiak berak, emoten dautso orri deabruak jaurtiteko indarra."

16 Beste batzuek, azpikeriz, ezaugarri arrigarriren bat egiteko eskatzen eutsen, orrela Jaungoikoak Jesus egiaztu egian. 17 Baiña Jesusek, arein bururapenak jakiñik, auxe esan eutsen: "Taldeka bananduta dagoan erriak, bere burua ondatzen dau, eta sendia (familia) banantzen bada, beera dator. 18 Beraz, Satanaz bere buruaren aurka banantzen bada, zerlan eutsi aal izango dautso bere indarrari? Orixe da zuek diñozuena-ta: nik deabruak Beeltzebulen indarrez jaurtiten dodazala. 19 Baiña, deabruak jaurtiteko indarra niri Beeltzebulek emoten badaust, zer nok emoten dautse indarra zuen jarraitzaileai? Eurak dira zuen erra-kuntzaren agiria! 20 Baiña, nik deabruak Jaungoikoaren indarrez jaurtiten badodaz, Jaungoikoaren erregetza eldu yatze benetan.

21 "Bere etxea gizon errime ta armadun batek

zaintzen dauanean, bere ondasunak ondo gordeta dagoz; 22 baiña, bera baiño indartsuagoak, etorrta, burrukan irabazten badautso, besteari uste osoa emoten eutsoen iskillioak (*armak*) kendu egiten dautsaz eta aren ondasun guztiak arrapakin lez banatzen dauz.

23 "Nire alde ez dagoana, neure aurka dago; nigaz batzen ez dauanak, sakabanatu egiten dau."

Espiritu zikiña (Mt 12, 43-45)

24 "Espiritu zikiña*. gizonagandik urteten danean, toki legorretan zear atsedeen-billa ibiltzen da; eta, atsedeen ez aurkitzean, auxe dirautso bere buruari: 'Urten nintzan neure etxera joango naz barriro.' 25 Ara eltzean, utsik, garbi ta apain aurkitzen dau. 26 Orduan, badoa, eta, beste zazpi deabru, bera baiño gaiztoagoak baturik, guztiak batera antxe sartzen dira, bizi izatera; eta gizon orren azken-aldia asierakoa baiño txarragoa da."

Benetako zoriona

27 Jesusek gaiok esaten ebazan artean, laguntaldekoko emakume batek auxe esan eban deadarka: "Zorionekoa argitara ekarri zenduzan emakumea eta zuri bularra emon eutsuna!" 28 Eta Jesusek ari: "Zorionekoagoak, orraitio, Jaungoikoaren mandata entzun eta beteten dabena."

Ezaugarri miragarri baten eske (Mt 12, 38-42; Mk 8, 12)

29 Aren inguruan laguntalde andia batu zan ezker, olantxe asi zan Jesus esaten: "Laguntalde au gaiztoa da. Ezaugarri miragarri bat eskatzen dau; baiña Jonas ezaugarri izan zanez, olantxe izango da Gizaseme au be laguntalde onentzat. 31 Egoaldeko erregiñak, auzi-egunean gizaldi onen laguntaldea-gaz batera jagirik, laguntalde au galdu egingo dau;

Salomonen jakituria entzutea, erregiña ori urriñeko lurraldeetatik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon baiño zerbait geiago dana! 32 Ninibeko bizilagunak, auzi-egunean laguntalde guzti onegaz batera jagirik, laguntalde au galdu egingo dabe; Jonasen mandatu entzutean, areik onbideratu egin ziran-eta. Ona emen, barriz, Jonas baiño zerbait geiago dana!

Gorputzaren argia (Mt 5, 15; 6, 22-23; Mk 4, 21)

33 "Iñok ez dau argiontzia iziotu eta ezkutuan gordeten, ezta ontzi bat azaltzen be, bestetara baiño: gaiñean ipinten dau, etxean sartu daitezaz guztiak aren argitan ikusi aal dagien. 34 Gorputzaren argia begiak dira. Zure begiak garbiak badira, zu zurean guztia be argitsua izango da; zure begietan gaiztakeria badago, barriz, zu zurean guztia be illuntasuna izango da. 35 Begira, ba, zukan dagoan argia illuntasuna izan ez daiten. 36 Orrela, argitsua bazara eta zukan illuntasunik ez badago, zu zurean guztia argitsua izango da, argiontzia argiak argituko bazenduz lez."

Parastarren eta Lege-irakasleen aurka (Mt 23, 1-36; Mk 12, 38-40; Lk 20, 45-47)

37 Jesusek berbaldia amaitu ebanean, bazkaltzera bere etxera joan zedilla esan eutsan parastar batek. Deia onarturik, Jesus maian jarri zan. 38 Parastarra, Jesusi adi-adi begira, arrituta geratu zan, jan-aurretik Jesusek eskuak garbitzeko agindua bete ez ebalako. 39 Orduan, Jesusek auxe esan eutsan: "Zuek, parastarrok, edontzia ta erratillua kanpokaldetik garbitzen dozue, baiña barrutik lapurkeriz eta gaiztakeriz beteta zagoze. 40 Burubageok! Kanpokaldekoa egin ebanak, lez eban, ba, barrukoa be egin? 41 Egizue zuen limosnak barruan dagoanetik, eta orrela garbi geratuko da guztia zuekan."

42 "Ai zuek, parastarrok!: menta, boskoitz eta guztietariko ortu-arien amarrenak Jaungoikoari eskintzen dautsazue, bai, baiña zuzentasunari ta Jaungoikoaganako maitasunari eusteaz ez zaree arduratzen. Azken au da egin bear zeukeena, baiña bestea be beteteaz aaztu bagarik."

43 "Ai zuek, parastarrok!: sinagogetan aurrenengo jarlekuak artzea eta kale-erdian agurtuak izatea maite dozue-ta."

44 "Ai zuek, ikusten ez diran illobiak lakoak zareenok!: gizonak, eurak ez dakiela, illobi-gaiñetik ibiltzen dira-ta."

45 Lege-irakasleetariko batek auxe erantzun eutsan: "Irakasle, ori esanda, geuri be irain egiten daukuzu." 46 Baiña Jesusek olantxe ekin eutsan: "Ai zuek be, Lege-irakasleok!: enparaduai, ezin eroan daikeezan sortak ezarten dautseuzue; zuek, barriz, atzamar batzuek ez dozue sortok ikutzen. 47 "Ai zuek, zeuen asabak ildako profeten omenezko arrillobiak jasoten dozuezanok! 48 Orrela, areik egin ebenaz bat zotozela agertzen dozue; izan be, areik il egin ebezan profetak, eta zuek arrillobiak egiten dozue."

49 "Orregaitik, Jaungoikoak auxe esan dau bere jakiturian: Nik mandatariak eta apostoluak bialduko dautsedaz; batzuk il eta beste batzuk aurrean erabiliko dabez. 50 Baiña munduaren asierarik gaur arte ildako profeta guztien odolaren kontuak artuko dautsaz Jaungoikoak oraingo laguntalde oni: 51 Abelen odoletik asita, altara ta jauretze-bitartean il eben Zakariasen odoleraio. Bai, badirautesuet: Jaungoikoak arein eriotzaz kontuak artuko dautsaz oraingo laguntalde oni!

52 "Ai zuek, Lege-irakasleok, ezagurearen ateko giltza eroan dozuenok! Zuek sartu ez eta enparaduai be ez dautsezue sartzen izten."

53 Jesus andik urten zanean, Lege-irakasleak eta parastarrak, Aren aurka amorruez beterik, Jesusi gogor be gogor egiten eta gai askori buruz berba eragiten asi yakozan, 54 zirika-zirika, Arek esan

egian zerbaitetan artzeko asmoz.

Parastarren legamiña (Mt 10, 28-31; 16, 5-12; Mk 8, 14-21)

12 1 Bitartean, millaka lagun batu ziran Jesusen inguruan, ia alkar zapaltzen ebela. Jesusek, leenen bere ikasleakana biurturik, auxe esan eban: "Kontuz, gero, parastarren legamiña dan itxurakeriaz! 2 Izan be, ezer be ez dago estalduta, agiri izango ez danik; ezta gordeta be, jakingo ez danik. 3 Izan be, illunetan esan zenduena, argi-argitan entzungo da; etxebarruan belarrira berba egin zenduena, etxegaiñetatik* iragarriko da."

4 "Zuei dirautsuet, nire adiskideoi: ez izan bildurrik gorputza il baiño besterik ezer ezin egin daikeenai. 5 Irakatsiko dautsuet, ostera, nori izan bildur: il daikenari bakarrik ez, baita gero zu-lezara jaurtiteko aal-izatea daukan ari izan egiozue bildur. Bai, orrexeri izan bear dautsazue bildur."

6 "Ez ete-dira bost txori balio gutxiko diru bitan saltzen? Alan be, areitariko bat bera be ez yako aaztuten Jaungoikoari. 7 Zuei buruz, barriz, uleak be zenbatuta daukazue banan-banan. Ez izan bildurrik, zuek txori guztiak baiño geiago balio dozue-ta."

Alde ala aurka (Mt 10, 32-33; 12, 32; 10, 19-20)

8 "Auxe dirautsuet gaiñera: Gizonen aurrean neure alde agertu daiten edonor, Gizaseme au be aren alde agertuko da Jaungoikoaren aingeruen aurrean. 9 Eta, okerretara: norbaitek gizonen aurrean ukatzen banau, bera be ukatua izango da Jaungoikoaren aingeruen aurrean."

10 "Gizasemearen aurka berba egin dagianari, parkatu aal izango yako. Baiña Espiritu Santuaren aurka berba egin dagianari, ez yako parkatuko."

11 "Sinagogetara naiz auzi-gizonen eta agintarien aurrera eroan zagiezenean, ez arduratu zelan

gingo dozuen berba edo zer esango do-uen zuen alde: 12 esan bear dozuena Espiritu Santua irakatsiko dautsue une aretan bertan."

Aberats kirtenaren ipuina

13 Laguntalde-artean egoan norbaitek Jesusi auxe esan eutsan: "Irakasle, esan egiozu nire anaiari oiñordetza erdibana egin dagiala nigaz." 14 Eta Jesusek ari: "Adiskide, ¿nok jarri nau ni zuen artean auzi-epaille edo erdibanatzaille?" 15 Eta guztiakana bihurturik, auxe be esan eban: "Begira: gorde zuen buruak diru-gosetatik: ugari eukiarren be, gizonaren bizia ez dago bere ondasunetan indartuta-ta."

16 Eta ipuin au esan eutsen: "Bein, gizon aberats baten soloak frutua ugari ekarri eben. Frutua ikustean, auxe iñoan berekautan: 'Zer egingo dot orain? Ez daukat frutua gordeteko naikoa leku!' 18 Eta auxe erabagi eban: 'Nire garaitegiak lurrera bota eta beste andiago batzuk egingo dodaz; antxe sartu aal izango dot garia ta daukadan guztia. 19 Gero, auxe esan aal izango dautsat nire buruari: Urte askotarako aberastan asko pillatuta daukazuzan ezker, atsedean artu, jan, edan eta oparo bizi zaitezke.' 20 Baiña Jaungoikoak auxe esan eutsan: 'Kirten ori! Gaur gabeen bertan ilgo zara. ¿Norentzat izango da pillatu dozun guzti ori?'"

21 Eta Jesusek auxe esanez amaitu eban: "Orixe jazoten yako, aberastan beretzat pillatu bai, baiña Jaungoikoaren aurrean aberats egiten ez danari*."

Jaungoikoaren ardurapean (Mt 6, 19-21. 25-34)

22 Gero, auxe esan eutsen Jesusek bere ikasleai: "Ez arduraz ibili bizi izateko zer jango dozuen edo zuen gorputza zein jantziz estalduko dozuen. 23 Izan be, bizia janaria baiño geiago da, eta gorputza jantzia baiño geiago. 24 Begira belak: ez dabe ereiten, ez

batzen; ez dauke janaritegirik, ez gordetegirik, eta, alan be, Jaungoikoak janaritu egiten dauz. Zuek, orraitño, txoriak baiño geiago balio dozue! 25 ¿Zuetariko nok, barriz, aalegin guztiak egiñarren be, luzatu daike bere bizia ordubete be? 26 Beraz, gauzarik txikienak egiteko gauza ez bazaree, osterantzekoetan ¿zegaitik ibili arduratsu?"

27 "Begira zelan azten diran liriok. Ez dabe goruetan egiten, ez eunik eioten, eta, alan be, badi-rautsuet: Salomon bera be, bere aintzarik andienaz, ez zan orreitariko bat lez jantzi. 28 Beraz, gaur landan eze egon eta biar laban erreko dan bedarra Jaungoikoak orrela jazten badau, ¿ez ete-dau zuek kaitik askozaz geiago egingo? Otza benetan zuen sinismena! 29 Ez estutu zuek, zer jango edo zer edango ete-dozuen billa. 30 Gauza orre in billa Jaungoikoa ezagutzen ez daben guztiak ibiltzen dira; baiña zuen Aitak badaki guztion bearrizanetan zagozena. 31 Zuek billatu egizue leenen Jaungoikoaren erregetza, eta Jaungoikoa arduratuko da zuei gauza guztiok be emoteko."

32 "Ez izan bildurrik, artalde txiki orrek, zuen Aitaren naia zuei erreñua emotea da-ta. 33 Saldu zuen ondasunak eta obaria beartsuai emon egiezue. Egin orrela galtzen ez diran ondasunak, aberastan ezin-agortuak zeruan; an ez dago ostuteko lapurrik, ezta ondatzeko sitsik be. 34 Izan be, zuen aberastan euki dagizuezan lekuan, biotza be antxe izango dozue."

Gertu egon Jaunaren etorrerarako (Mt 24, 45-51)

35 "Gertu egon zaitezte eta zuen argiontzia iziotuta euki egizue. 36 Eztegutik euren ugazaba noiz bihurtuko dan zain dagozan morroien antzekoak izan zaitezte: a eldu ta arek atea joala, berealaxe zabaltzeko gertu. 37 Zorionekoak, ugazabak, etortean, iratzaririk aurkitu dagizan morroiak! Benetan dirausuet: maian jarrazoko dauz eta bera asiko

yake jatekoa zerbitzen. 38 Ugazabak, gaber dian naiz goizaldean eltzean, morroiak iratzaririk aurkitzen badauz, zorionekoak morroi areik!

39 Aritu au be: lapurra zein ordutan etorriko yakon etxeko jaunak baleki, ez leuskio bere etxea erasoten laketuko. 40 Gertu egon zaitezte, ba, zeuek be, Gizaseme au gutxien uste dagizuenean etorriko da-ta."

Zerbitzaritzan zintzotasuna

41 Pedrok auxe itandu eutsan Jesusi: "Jauna, ¿ipuin ori geuretzat ala guztientzat diñozu?" 42 Eta Jaunak ari: "Zuek etxezain zintzo ta zentzunduna lakoa izan zaitezte: bere ugazabak etxeko arduradun jarri eban eta morroientzako jatekoa ordu egokian gertu eukiteko agindu eutsan. 43 Zorionekoa, ugazabak, eltzean, bere eginbearra beteten aurkitzen dauan morroia! 44 Benetan dirausuet: bere ondasun guztien ardurea emongo dautso. 45 Baiña morroi ori, bera arduraduna dala-ta, ugazaba urrin dagoala, enparadu morroi-neskameak txarto erabilten asten bada eta jaten eta moskortzeraiño edaten, 46 ugazabak, egunen baten bat-batean elduta, morroi ori gogor zigortuko dau. Ari dagokiona emongo dautso: zintzoak ez diranai dagokien tokia."

47 "Bere ugazabaren naia jakinda, zerbitzeko gertu egon ez, ezta esana be egiten ez dauan morroiak zigor gogorra izango dau. 48 Bere ugazabaren naia jakin ez, eta zigorra artzeko lain dan zerbait, jakin bagarik, egin dauan morroia, zigortua izango da bai, baiña ez ain gogor. Askok emon yakonari, asko eskatuko yako; askoren ardurea emon yakonari, askozaz geiago eskatuko yako."

Jesus dala-ta, banakuntza(Mt 10, 34-36)

49 "Lurrean sua iziotzera etorri naz, eta nik bai nai neukela su ori onezkero iziotuta egotea! 50 Baiña azterraldi bat eroan bear dot, ori bete arte oso larri

jarten nauan bateoa. 51 ¿Munduari bakea ekartera etorri nazala uste dozue? Ezetz dirausuet; banakuntza ekartera etorri naz. 52 Izan be, aurrerantzean, bost lagun bizi diran etxe baten, iru biren aurka jarriko dira, eta bi iruren aurka. 53 Aita semearen aurka jarriko da, eta semea aitaren aurka; ama alabearen aurka, eta alabea amaren aurka; amagiñarriba erranaren aurka, eta errana amagiñarribaren aurka."

Alden ezaugarriak(Mt 16, 2-3)

54 Jesusek laguntaldeari auxe be esan eutsan: "Sartzaldean odei bat agertzen ikusten dozueanean, euria egingo dauala diñozue, eta alantxe jazoten da. 55 Eta ego-aizeak jotzen dauanean, bero egingo dauala diñozue, eta bero egiten dau. 56 Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurea ezagutzen, eta ez zaree oraingo aldi oni antzik emoteko gauza."

Adiskidetzea (Mt 5, 23-26)

57 "¿Zegaitik ez zaree zuzen ebazteko gauza? 58 Norbaitek agintarien aurrera eroaten bazaitu, egin aal dagizun artean aregaz bakeak egiteko aalegiñak egizuz: zure arerioak auzi-epaillearen eskuetan itzi ez zagizan, eta auzi-epailleak ertzaiñen eskuetan, eta ertzaiñak kartzelan sartu ez zagiezan. 59 Auxe dirausut: ez zara andik urtengo zure zorraren azkenengo txanpona ordaindu arte."

Onbiderako dela

13 1 Une aretan, norbaitzuek, Jesusegana aurkeztuta, galilearrena aitatu eutsoen: areik oparia eskintzen eben artean, Pilatok* illerazo egin ebazan, olan euren odola ildako abereenaz naasturik. 2 Jesusek auxe esan eban: "Galilear orreik orrelako ezbearra izan ebelako, ¿beste guztiak baiño pekatariagoak zirala uste dozue? 3 Nik ezetz dirausuet, ba. Eta auxe esango dot gaiñera: onbideratzen ez

bazaree, zuek guztiok be il egingo zaree. 4 ¿Ala, Siloeko torrea jaustean il ziran amazortzi areik, Jerusalemgo enparadu bizilagunak baiño errudunagoak zirala uste dozue? 5 Nik ezetz dirautsuet, ba. Eta auxe esango dot gaiñera: onbideratzen ez bazaree, zuek guztiok be il egingo zaree.”

Pikondo agorra

6 Orduan, Jesusek ipuin au esan eutsen:

“Gizon batek bere maastian pikondo bat sartu izan eban; baiña piku-billa joan yakonean, ez eutsan bat bera be aurkitu. 7 Orduan, maasti-zaiñari auxe esan eutsan: ‘Badira iru urte pikondo onetara piku-billa natorrela, eta iñoiz be ez daukaz. Ebagi egizu, ba, lurra alperrik artu ez dagian.’ 8 Baiña maasti-zaiñiak auxe erantzun eutsan: ‘Jauna, itzi egizu urtebete geiago. Inguruan lurra atxurtu eta satsa botako dautsat. 9 Gero frutua ekartea izan daiteke; eta, fruturik ez badakar, orduantxe ebagi.’”

Osatze bat jalegunez

10 Jaiegun baten, Jesusek sinagogan irakasten ziarduan. 11 Amazortzi urte areitan espiritu gaizto* batek geisorik eukan emakume bat zan an. Makurmakur eginda geratu izan zan eta ez zan ezelan be bere gorputza zuzen jarteko gauza. 12 Jesusek emakumea ikusi ebanean, ari dei egin eta auxe esan eutsan: “Emakume, zure geiso orretatik askatuta geratzen zara.” 13 Eta eskuak ezarri ebazan aren gaiñean. Bat-batean, emakumea zuzen jarri eta Jaungoikoa goratzen asi zan.

14 Sinagogako nagusiak, Jesusek osatzea jaiegunez egin izan ebalako asarratuta, aurrean egozan guztiak auxe esan eutsen: “Sei egun dagoz lan egiteko. Etorri, ba, egun orreitariko baten, osatuak izatera, eta ez jaiegunez.” 15 Baiña Jesusek auxe erantzun eutsan: “Itxurazaleok! ¿Zuetariko nok ez dau bere idia naiz astoa askatik askatzen, edatera

eroateko, jaieguna izanarren be? 16 Emakume au Abrahamen ondorengo bat da eta Satanasek amazortzi urteotan lotuta euki dau: ¿eta ezin leitekiola lokarri ori jaiegunez askatu?”

17 Jesusek ori esatean, beronen arerio guztiak lotsatuta geratu ziran. Erria, oster, Jesusek egiten ebazan egintza miragarriakaitik poztu egiten zan.

Moztaza-aziaren eta legamiñaren ipuiñak (Mt 13, 31-33; Mk 4, 30-32)

18 Jesusek auxe esan eban: “¿Zeren antzekoa izan daiteke Jaungoikoaren erregetza? ¿Zeren antzekoa dala egingo dogu? 19 Gizon batek bere ortuan erein eban moztaza-aziaren antzekoa izan daiteke; gero, azi ta zugatza lakoa egin zan, eta txoriak aren adarretan abiak egin ebezan.”

20 Auxe be esan eban: “¿Zeren antzekoa egingo dot Jaungoikoaren erregetza? 21 Legamiñaren antzekoa izan daiteke: emakume batek legamiña iru urun-negurritan sartu eban, ora guztia jagi zeiten.”

Ate estua (Mt 7, 13-14. 21-23; 25, 10-12)

22 Jerusalemenerantz yoiala, bera igaroten zan erri ta auzunetako laguntaldeai irakatsi egiten eutsen Jesusek. 23 Bein, norbaitek auxe itandu eutsan: “Jauna, ¿gutxi al-dira salbatzen diranak?” 24 Eta Jesusek ari: “Aalegiñak egizuez ate estutik sartzen, auxe dirautsuet-eta: askok izango dabe sartzeko gogoa, baiña ezin sartu izango dira. 25 Etxeko ugazabak, jagirik, atea itxi dagianean, kanpoan geratu zaitezzenok dei egingo dozue, ‘Jauna, zabaldu egiguzu!’ Baiña arek auxe erantzungo dautsue: ‘Ez dakit nongoak zareen.’ 26 Orduan zuek auxe asiko zaree esaten: ‘Guk zeugaz jan eta edan dogu, eta zuk geure plazetan irakatsi dozu!’ 27 Baiña arek barriro be auxe esango dautsue: ‘Ez dakit nongoak zareen. Alde nigandik, zuen bizitza gaiztakeritan egiten dozuenok!’ 28 An negar egingo dozue eta agiñak

karraska egingo dautsue, Abraham, Isaak eta Jakob eta profeta guztiak Jaungoikoaren erreinuan ikusi dagizuezanean, zuek andik kanpora jaurtiak izan zaitezzen artean. 29 Eta eguzki-sortzaldetik eta sartzaldetik, iparraldetik eta egoaldetik etorri eta maian jesarriko dira Jaungoikoaren erreinuan. 30 Izan be, orain azken diranak, leenen izango dira; eta orain leenen diranak, azken izango dira.”

Jerusaleni agiraka

31 Egun aretan bertan, parastar batzuek, etorrita, Jesusi auxe esan eutsen: “Zoaz emendik, Erodeselek il egin nai zaitu-ta.” 32 Eta Jesusek arei: “Zoaze eta azeri orri auxe esan egiozue: ‘Nik deabruak jaurtiten eta geisoak osatzen diardut gaur eta biar, eta irugarren egunean izango da nire azkena.’ 33 Baiña gaur, biar eta etzi neure bideari jarraitu bear dautsat, Jerusalemendik kanpora ezin il daiteke profetarik-eta.”

34 “Jerusalen, Jerusalem, profetai bizia kendu eta Jaungoikoak bialtzen dautsuzan mandatariaai arrika egiten dautsezun ori! Amaikatxo bidar batu nai izan dodaz, ba, zure seme-alabak, oilloak bere txitak egapean batzen dauzanez; eta zuk ez dozu nai izan! 35 Entzun egidazue, ba, ondo: zuen uria utsik geratuko da. Benetan dirautsuet: ez nozue barriro ikusiko, *Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!** esan dagizuen unerarte.”

Beste osatze bat jalegunez

14 1 Jaiegun baten, Jesus parastarren nagusi baten etxera bazkaltzera joan zan. Areik, adi-adi, Jesus zaintzen ziarduen. 2 An, Jesusen aurrean, gizon ur-geiso bat egoan, 3 eta Jesusek, orduan, Lege-irakasle ta parastarrai auxe itandu eutsen: “Jaiegunez osatzea, ¿legezko da, ala ez?” 4 Baiña areik ez eben erantzun. Orduan, Jesusek, geisoa artu, osatu eta bialdu egin eban. 5 Gero auxe esan eutsen: “Zuetariko bati semea naiz idia osiñera jausten

bayako, ¿zuetariko nor ez da ataratera joango, jaieguna izanarren be?” 6 Areik ezin emon izan eutsen orretzaz erantzunik.

Jarlekuak aukeratzea

7 Mai-lagunak aurrenengo lekuak aukeratzen ebezala ikustean, Jesusek auxe esan eutsen adibide-eraz:

8 “Norbaitek eztegu-bazkaritara dei egin dagitzunean, ez zaitez aurrenengo lekuan jesarri; baleiteke deituen artean zu baiño nagusiagoren bat egotea, 9 eta, a eldu daitenean, bioi dei egin eutsuenak, ‘Onexeri itzi bear dautsazu lekua’ esan ez dagitzun; eta orduan zuk, lotsatuta, azkenengo lekua artu bear izango zeuke. 10 Bestetara bai: bazkal-deia artu dagitzunean, azkenengo tokian jarri zaitez; olan, zuri dei egin eutsunak, eltzean, ‘Adiskide —esango dautsu—, zatoz ona. Jesarri zaitez leku onetan, gorago’. Orduan, ori goragarri izango yatzu beste mailagunen aurrean. 11 Izan be, enparaduak baiño nagusiago izan nai dagiana, beeratua izango da; baiña bere burua beeratu dagiana, goratua izango da.”

12 Gero, bazkaritara dei egin eutsagana biurturik, auxe esan eutsan: “Bazkaria naiz aparia emon dagitzunean, ez egin dei zure adiskideai, ezta zure anai-arreba, senide edo auzoko aberatsai be; izan be, gero zeuri egingo dautsue dei, eta olan ordaiña artuta geratuko zara. 13 Bazkari eder bat emon dagitzunean, oster, dei egiezu beartsu, elbarri ta itsuai. 14 Areik ezin daiketue ordaiñik biurtu; eta, orrexegaitik, ain zuzen be, zorieko izango zara, zure ordaiña zintzoak biztu daitezanean jasoko dozu-ta.”

Apari andia (Mt 22, 1-10)

15 Maian jarrita egoanetariko batek, ori entzutean, Jesusi auxe esan eutsan: “Zorieko, Jaungoikoaren erreinuan jatera deitua izan daitena!” 16 Eta Jesusek ari: “Gizon batek apari eder bat eratu

eban, eta askori egin eutsen dei. 17 Apari-eguna eldu zanean, bere morroia bialdu eban, deituai esatera: 'Zatoze, guztia gertu dago-ta.' 18 Baiña guzti areik aiko-maikoetan asi ziran. Batek auxe esan eutsan: 'Lur batzuk erosi dodaz, eta areik ikustera joan bear dot. Parkatu, ba, mesedez.' 19 Eta beste batek: 'Bost idi-buztarrri erosi dodaz, eta areik aztertzeraz joan bear dot. Parkatu, ba, mesedez.' 20 Eta irugarrenak: 'Ezin joan naiteke, ezkondu egin naz oraintsu-ta.'

21 "Morroiak, etxera biurturik, jazo izan zana bere ugazabari azaldu eutsan. Orduan, ugazabak, oso asarre, morroiari auxe agindu eutsan: 'Urten bereala uriko plaza ta kaleetara eta ekarri ona beartsu, elbarri, itsu ta errenak.' 22 Morroiak, barriro etorririk, auxe esan eutsan: 'Egin dot agindu zeustana eta oraindiño be lekuak utsik geratzen dira.' 23 Eta ugazabak ari: 'Urten bide ta bide-zidorretara eta sarrerazoz egizuz beste batzuk, nire etxea bete arte.' 24 Benetan dirautsuet: deituta egozantzariko batek be ez dau nire aparria miatzuko."

Jesusen ikasle izateko bidea (Mt 10, 37-38)

25 Bidean laguntalde andia yoian Jesusegaz batera. Jesusek, arekana biurturik, auxe esan eutsen: 26 "Nigana etorri nai dagianak, aita, ama, emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak izteko gertu egon bear dau, baita bere bizia izteko be. Orrela ez bada, ezin izan daiteke nire ikasle. 27 Niri jarraitzeko, bere gurutzea artzeko gertu ez dagoana be, ezin izan daiteke nire ikasle."

28 "Zuetariko batek torre bat egin nai badau, ¿ez al-da alakoa, leenen, eralgi bear dauana ataratera jarriko, bere lana amaitzeko naikoa diru daukan ikusteko? 29 Bestela, oiñarriak ezarrita gero, etxea amaitu eziñik, barregarri geratuko litzake enparaduen aurrean, 30 eta, a ikustean, auxe esango leukee: 'Gizon orrek, etxea egin asita, ezin amaitu izan eban.' 31 Edo-ta, errege batek, beste errege baten aurka gudaketara urteterakoan, ¿ez al-dau aurretiaz

astiro asmatzen, amar milla gizonegaz gogor egingo ete-leuskion ogei milla gizonegaz gaiñera datorkionari? 32 Eta ezin daikela ikusten badau, beste erregea arteetan urrin dagoala, mandatariak bialduko dautsaz, bakea eskatzeko.

33 Era berean, zuen artean bere ondasun guztiak ukatzen ez dauzana, ezin izan daiteke nire ikasle.

Gatzaren ipuiña (Mt 5, 13; Mk 9, 50)

34 "Ona da gatzia; baiña gatzia gazatzen bada, ¿zek gazitu? 35 Ez lurrerako, ez sastegirako be ez da gauza; jaurti egiten dabe. Au ulertu aal dagianak, ulertu dagiala."

Ardi galduaren ipuiña (Mt 18, 12-14)

15 1 Diru-batzaille* ta entzute-txarreko guztiak Jesusi entzutera batzen ziran. 2 Ori ikustean, parastar eta Lege-irakasleak mormoxetan asi ziran*: "Ori pekatariakaz dabil eta jan be egiten dau orrek arekaz." 3 Orduan, Jesusek ipuin au esan eutsen: "Eun ardi euki eta oneitariko bat galdu ezker, ¿zuetariko nor ez doa, larogeta emeretzia bazoan itzita, galdu izan yakonaren billa? 5 Eta aurkitzen dauanean, bere lepoan artzen dau pozez beterik. 6 Eta etxera eltzean, bere adiskide ta auzokoak baturik, auxe dirautse: 'Poztu zaiteze nigaz batera, aurkitu dot galdu izan yatan ardia-ta!' 7 Badirautsuet: era berean, zeruan poz andiagoa izaten da, onbideratze-bearrik ez daben larogeta emeretzi zintzogatit baiño onbideratzen dan pekatari bategatit."

Galdutako dirua

8 "Edo-ta, ¿zein emakumek, amar diru euki eta bat galtzen bayako, ez al-dau argiontzia iziotzen eta etxea garbitzen eta dirua arduraz billatzen, aurkitu arte? 9 Eta aurkitzen dauanean, bere adiskide ta auzokoak baturik, auxe dirautse: 'Poztu zaiteze

nigaz batera, aurkitu dot galdu izan yatan dirua-ta!' 10 Ba-dirautsuet: orrelaxe poztan dira Jaungoikoaren aingeruak, onbideratzen dan pekatari bategatit."

Seme ondatzaillearen ipuiña

11 Ipuin au be esan eban Jesusek:

"Bein, aita batek seme bi ebazan. 12 Areitariko gazteenak aitari auxe esan eutsan: 'Aita, emon egidazu ondasunetarik dagokidan zatia.' Orduan, aita bere ondasunak seme bien artean banatu ebazan. 13 Egun gutxi barru, gazteena, eukan guztia batuta, urriñeko errialde batera joan zan; eta an, nasaikerietan bizi izanik, bere ondasun guztiak eralgi ebazan.

14 "Diru bagarik egoala, errialde aretan gosete gorria sortu zan, eta bera be bear izaten asi zan. 15 Orduan, errialde aretako bizilagunetariko bati lana eskatzera joan zan, eta arek bere lurretara bialdu eban, txarri-zain*. 16 Bere urdailla txarriak jaten ebazan ezkurrez beteteko gogoa izaten eban, baiña ez eutsan inok ezer emoten. 17 Orduan, bere senera biurturik, auxe esan eban berekautan: 'Nire aitaren amaikatxo morroik badauke, ba, janaria eurrez; ni, barriz, emen goseak ilten! 18 Neure aitagana biurtuko naz, eta auxe esango dautsat: 'Aita, pekatu egin dot Jaungoikoaren*' eta zure aurka, 19 eta nik ez dot, arrezkero, zure seme-izenik merezi; artu nagizu zure morroietariko bat lez.'

20 "Bereala, bere aitaren etxera biurtzeko bidea artu eban. Oraindiño andik urrin egoala, bere aita ikusi eban, eta, erukiz beterik, ari bidera ariñeketan urtenda, semea bere besoetan estutu eta laztandu egin eban. 21 Semea auxe asi yakon esaten: 'Aita, pekatu egin dot Jaungoikoaren*' eta zure aurka, eta nik ez dot, arrezkero, zure seme-izenik merezi.' 22 Baiña aita bere morroiari auxe agindu eutsen: 'Ekarri egizuez bizkor soiñekorik omenak eta jantzi egizuez; eraztuna* atzamarrean eta oiñetakoak

oiñetan ipiñi egizuez. 23 Gero, zekor gizona atara eta il egizue. Jan eta jai egingo dogu; 24 izan be, nire seme au ilda egoan, eta bizitzara biurtu da; galduta egoan, eta aurkitu egin dogu.'

Eta jai egiten asi ziran.

25 "Bitartean, soloan zan seme nagusia etxera biurtu zan. Etxe-ingurura eldu zanean, soiñua ta dantza-otsak entzun ebazan. 26 Eta, morroietariko bati dei egiñik, guzti a zer izan zeitekean itandu eutsan. 27 Eta morroiak ari: 'Zure aita zekor gizona illerazoz dau, zure anaia onik biurtu dalako.' 28 Anai nagusiak, ori entzutean, oso asarre, ez eban etxean sartu nai, orretarako aita erreguka urten yakonarren be. Bere aitaren erreguai erantzunik, 29 auxe esan eutsan: 'Onenbeste urtetan zeuretzat egiten dot lan, eta ez dot inoiz be zure esanik ausi, eta aume bat be ez daustazu inoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko. 30 Eta zure ondasunak emagalduekaz eralgi dauzan zure seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizona illerazoz dozu.' 31 Aita auxe erantzun eutsan: 'Seme, zu beti neugaz egon zara, eta nire guztia zeurea da. 32 Baiña orain jai eta poztu egin bear dogu: izan be, zure anaia ilda egoan, eta bizitzara biurtu da; galduta egoan, eta aurkitu egin dogu!'"

Etxezain galztoa

16 1 Jesusek ipuin au be esan eutsen bere ikasleai:

"Gizon aberats batek etxezain bat eban; eta ondasunak ondatu egin eutsazala-ta, ugazabaren aurrean salatu egin eben. 2 Ugazabak dei egin eta auxe esan eutsan: '¿Zer da zutzaz dirausten au? Garbitu egidazuz zure etxezaintza-kontuak, onezkeron nire etxezain ezin izan zaitezke-ta.'

3 Etxezainiak auxe esan eban berekautan: '¿Zer egingo dot nik orain? Nire ugazabak kendu egiten daust etxezaintza, eta ez daukat atxurran egiteko indarrik, eta lotsatu egiten naz eskean asten. 4 Badakit zer egin, etxezaintza itzi dagidanean, beste

batzuek euren etxeetan artu nagien.'

5 "Orduan, bere ugazabaren zordunai banan-banan dei egiten asi zan. Areitariko leenengoari auxe itandu eutsan: 'Zenbat zor dauzazu nire ugazabari?' 6 'Eun upa orio', erantzun eutsan arek. 'Begira, ba —esan eutsan etxezaiñak—: artu zure ordain-agiriak eta berrogeta amar bakarrik idatzi.' 7 Urrengoari auxe itandu eutsan: '¿Zuk zenbat zor dauzazu?' 'Eun saku gari', erantzun eutsan arek. 'Begira, ba —esan eutsan etxezaiñak—: artu zure ordain-agiriak eta larogei bakarrik idatzi.'

8 "Ugazabak, ori jakin ebanean, etxezain gaitzo aren maltzurkeria goratu egin eban. Izan be, mundu onetakoak diranak, euren artu-emonetan argiaren semeak baiño zuurragoak dira.

9 "Entzun burubide au: egizuez adiskideak mundu onetako aberastasanak erabilirik. Orrela, aberastasanok izteko eguna eldu daitenean, izango da betiko bizitokian artu zagiezan norbait.

10 "Gauza txikietan zintzoa dana, andietan be zintzoa izango da; eta gauza txikietan zintzoa ez dana, andietan be ez da izango. 11 Beraz, mundu onetako aberastasanetan zintzoak ez bazaree, ¿nok jarriko dauz benetako aberastasanak zuen zainpean? 12 Eta iñorenaz zintzoak ez bazaree, ¿nok emongo dautsue zuei dagokizuenik?

13 "Ugazaba biren morroi ezin iñor izan daiteke batera; izan be, batari gorroto izango dautso eta bestea maite izango dau; edo-ta, batari zintzoa izango yako eta besteari ez dautso jaramonik egingo. Jaungoikoaren eta diruaren morroi ezin izan zaitezke batera."

Legea ta Jaungoikoaren erregetza (Mt 11, 12-13)

14 Parastar diruzaleak ori entzuten ziarduen, eta barre egiten eben Jesusen lepotik. 15 Eta Jesusek arei: "Zuek laguntaldearen aurrean zuzentzat agertzen dozuek zuen buruak, baiña badaki Jaungoikoak

zuen biotzean dagoana; eta gizonai goragarrien yakena, Jaungoikoarentzat zaborreria baiño ez da.

16 "Moisesen legea* ta profeten irakatsiak Joan Bateatzaillea etorri arte izan eben indar guztia; arrezkero, Jaungoikoaren erregetza iragarten da, eta bertan sartzeko indarka diardue guztiak.

17 "Legetik izpitxo bat bakarra jausi baiño errazago igaroko dira zeru-lurrak.

Ezkontza, askatu-eziña (Mt 5, 32; Mk 10, 11-12)

18 "Beste bategaz ezkontzeko bere emazteagandik banantzen danak, ezkontza urratu egiten dau. Eta emazte banandu bategaz ezkontzen danak be, ezkontza urratu egiten dau."

19 Jesusek auxe be esan eban: "Bein, gizon aberats bat zan, purpuraz eta liñoaz egindako soñekoakaz jazten zana, eta egun oro jai ederrak ospatzen ebazana. 20 Baita Lazaro* izeneko eskeko bat be bazan, aberats aren ataurrean zauriz beterik lurtean etzunda egoten zana. 21 Aberatsaren maitik jausten zana gura izaten eban bete eskekoak bere urdaila. Eta, batzuetan, txakurrak be urreratzen yakozan, zauriak miazkatzera. 22 Eskekoa il zanean, aingeruak Abrahamen altzora eroan eben. Geroago, aberatsa be il egin zan, eta obiratu egin eben.

23 "Eta begira: aberatsak, lezan oiñazetan egoala, begiak jaso eta urriñean Abraham ikusi eban, baita onegaz batera Lazaro be. 24 Orduan, aberatsak auxe esan eban deadarka: 'Aita Abraham, erruki izan zakidaz! Bialdu egizu Lazaro, bere atzamar-ertza uretan busti eta nire miñña oztu dagian, sugar oneitan kiskaltzen nago-ta!' 25 Eta Abrahamek ari: 'Adiskide, gogoratu egizu lurreko zure bizitzan ondasunak ugari artu zenduzala, eta Lazarok, ostera, atsekabeak bakarrik artu ebazala. Orain, ba, au pozik dago, eta zu oiñazetan. 26 Gaiñera, gure ta zuen artean leza andi bat dago, eta ezin joan daitezke iñor emendik zuekana, ezta ortik be ezin etorri daitezke

iñor gugana.'

27 "Aberatsak auxe esan eban: 'Orduan, aita, Lazaro ori neure aitaren etxera bialdu dagizula eskatzen dautsut, 28 nire bost anaiai berba egin dagitsen, eurak be oiñaze-toki onetara etorri ez daitezan.' 29 Baiña Abrahamek ari: 'Badauke eurak Moisesek eta profetak idatzi dabena*. Entzun dagitseea.' 30 'Ez, aita Abraham —esan eban aberatsak—, ori ez yake naikoa izango. Ildakoren bat berba egitera joaten bayake, ostera, onbideratu egingo dira.' 31 Eta Abrahamek ari: 'Moisesi ta profetai jaramonik egiten ez badautsee, ildakoren bat biztuarren be ez dabe sinistuko.'"

Iraiña ta parkatzea. — Sinismena (Mt 18, 6-7. 21-22; Mk 9, 42)

17 1 Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: "Eziñezkoa da munduan pekatutara bultza egin dagienik* ez izatea; alan be, pekatua eragiten dauanaren zoritxarra! 2 Txiki oneitariko bat pekatutan jaustearen* errudun izatea baiño obe litzakio orrelako orri errota-ari bat samatik lotuta, itsasora jaurtiko balebe. 3 Kontuz ibili!

"Zure anaia iraintzen bazaitu, asarre egiozu, eta bere jokabidea aldatzen badau, parkatu egiozu. 4 Egun baten bakarrik, zazpitan iraintzen bazaitu be, beste zazpitan zeugana biurtzen bada eta 'Ez dautsut barriro egingo' badiraitsu, parkatu egiozu."

5 Apostoluak Jaunari auxe esan eutsoen: "Geitu egiguzu sinismena." 6 Eta Jaunak arei: "Moztazaziazia aiñako sinismena bakarrik bazeukee, masustondo oni 'Kendu ortik eta itsasoan jarri zaitez' esango zeuskioe zuek, eta arek esana egingo leuskizue.

7 "¿Zuetariko nok esango ete-dautso, goldaketa edo abereak zaintzen diarduan morroiari, kanpotik etxeratzean: 'Zatoz ona eta jarri zaitez oraintxe apaltzera'? 8 Beste au esango dautso: 'Atondu egidazu aparria eta zerbitu niri, nik jan-edan dagidan artean. Zuk gero jan aal izango dozu.' 9 Eta, agindu

izan yakon guztia egin ebalako be, ez dauko morroiari eskerrak emonenik. 10 Bardin zeuek be: Jaungoikoak agindu dautsuen guztia egin dagizuenean, auxe esan egizue: 'Morroi gauza-ebak gara; egin bear genduana bakarrik egin dogu.'

Amar legenardunak

11 Jesus Jerusalemenera yoiala, Samaria* ta Galilea-artetik igaro zan. 12 Auzuna batera eltzean, amar legenardun urten yakozan bidera, eta, urrindik, 13 deadarka asi yakozan: "Jesus, Irakasle, erruki izan zakiguz!" 14 Eta Jesusek arei: "Zoaze ta abadeakana aurkeztu zaitez." Eta bidean yoiazala, euren legenartetik garbituta geratu ziran.

15 Areitariko batek, bera osatu egin zala konturaturik, atzeruntz egin eban, Jaungoikoa deadarka goratzen ebala. 16 Eta, Jesusen oiñetan lurrerañño auspaturik, eskerrak emoten eutsazan. Gizon au samaritarra zan. 17 Orduan, Jesusek auxe itandu eban: "¿Ez al-dira amar izan, garbi geratu diranak? ¿Non dira, ba, beste bederatzia? 18 ¿Atzerritar au baiño ez da biurtu Jaungoikoa goratzera?" 19 Eta Jesusek legenardunari auxe esan eutsan: "Jagi ta zoaz. Zeure sinismenagaitik osatu zara."

Jaungoikoaren erregetzaren etorrerea (Mt 24, 23-28. 37-41)

20 Parastarrak Jesusi auxe itandu eutsoen: "¿Noiz elduko da Jaungoikoaren erregetza?" Eta Jesusek arei: "Jaungoikoaren erregetza ez da agirian elduko. 21 Ez da esan aal izango: 'Emen dago' edo 'An dago'. Ain zuzen be, Jaungoikoaren erregetza zeuen artean dago."

22 Orren ostean, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: "Elduko da, bai, Gizaseme onen egunetarik bat beñik-bein ikusi gura izango dozuen aldia, baiña ez dozue ikusiko. 23 Orduan, auxe esango dautsue: 'Begira, emen dago' edo 'An dago'; baiña ez joan

zuek, ez egiezue jarraitu. 24 Izan be, oiñaztuak, dizdiz egitean, zerua ertz batetik bestera argitzen dauanez, alantxe egingo dau Gizaseme onek be bere etorrera-egunean. 25 Baiña leenen, neke andiak eroan bear izango dauz eta oraingo laguntalde onek baztatu egingo dau.

26 "Noeren aldietan jazo zan antzera jazoko da Gizaseme onen etorrera-aldian be: 27 Noe kutxan sartu zan egunerarte, guztiak jaten eta edaten ziar- duen, eta gizonak eta emakumeak, ezkontzen. Baiña urioleak, eldu zanean, guztiak irutsi ebazan. 28 Bardin jazo zan Lot-en aldian be: guztiak jaten, edaten, erosten, saltzen, ereiten eta etxeak egiten ziar duen. 29 Baiña Lot Sodomatik urten zan egu- nean, zerutik jatsitako suzko ta azufrezko euriak guztiak galdu ebazan. 30 Bardin jazoko da Gizaseme au agertu daiten egunean be.

31 "Orduan, etxe-gaiñean egon daitena eta bere gauzak etxe-barruan euki dagizana, ez daitela areik artzera jatsi; eta soloan egon daitena be ez daitela etxera biurtu. 32 Ekarrri egizue gogora Lot-en emaztea! 33 Bere bizia gorde dagianak, galdu egingo dau; bere bizia galdu dagiana, ostera, bizi izango da.

34 "Badirautsuet: gau aretan, bi egongo dira oge baten: bata eroan eta bestea itzi egingo dabe. 35 Emakume bik alkarregaz eioten jardungo dabe: bata eroan eta bestea itzi egingo dabe. 36 [Gizon bik soloan lan egiten jardungo dabe: bata eroan eta bestea itzi egingo dabe.]"*

37 Ori entzutean, Jesusi auxe itandu eutsoen: "¿Non jazoko da ori, Jauna?" Eta Jesusek arei: "Gorpua egon daiten tokian, antxe batuko dira saiak!"

Emakume alarguna eta auzi-epaillea

18 1 Beti ta etenbagarik otoitz egin bear ebela irakasteko, 2 Jesusek ipuin au esan eutsen:

"Bein, uri baten, auzi-epaille bat zan; eta gizon arek, ez Jaungoikoari eutsan bildurrik, ez iñori lotsa-

rik. 3 Uri aretan, emakume alargun bat be bazan; eta egun baten, auzi-epailleagana jo eban, auxe erregu- tzen eutsala: 'Egidazu zuzenbidea nire arerioaren aurka.' 4 Auzi-epailleak ez eutsan jaramonik egin nai luzaro, baiña berekautan auxe esan eban: 'Jaun- goikoari bildurrik, ez iñori lotsarik ez dautsadana- rren be, 5 alargun oni zuzenbidea egingo dausat, geiago gogait egitera etorri ez dakidan. Olan baketan itziko nau beingoz.'"

6 Jaunak auxe esan eban gaiñera: "Entzun dozue auzi-epaille gaizto arek esan ebana. 7 ¿Eta Jaungoi- koak ez ete-dautse bere aukeratuai zuzenbiderik egingo, Berari gau ta egun deadar egiten badautsoe? ¿Itxaronazo egingo ete-dautsela uste dozue? 8 Bene- tan dirautsuet: berealaxe egingo dautse zuzenbidea. Gizaseme onek, barriz, etorri daitenean, ¿aurkituko ete-dau sinismenik mundu onetan?"

Parastarra ta diru-batzaillea

9 Euren buruak zuzentzat eta enparadu guztiak gutxitzat artzen ebezanai, Jesusek ipuin au esan eutsen:

10 "Bein, gizon bi jauretxera joan ziran, otoitz egitera. Areitariko bata parastarra zan, eta bestea diru-batzaillea*. 11 Parastarrak, zutunik, oso tente, olantxe egiten eban otoitz: 'Eskerrak emoten dau- tsudaz, Jaungoiko orri, enparaduen antzera lapur, zuzenbage eta ezkontza-naastaille ez nazalako. Or dagoan diru-batzaillea lakoa be ez naz. 12 Astean birritan egiten dot barau, eta nire irabazi guztien amarrenak eskintzen dautsudaz.'

13 Diru-batzailleak, ostera, parastarragandik urrin geraturik, begiak lurretik jasoteko be ez eban aurpegirik; eta, bular-joka, auxe iñoan: 'Erruki izan zakidaz, Jaungoiko ori, pekatari naz-ta.'

14 Benetan dirautsuet: diru-batzaille au bere pekatuak parkatuta biurtu zan etxera; ez, ostera, parastarra. Izan be, enparaduak baiño nagusiago izan nai dagiana, beeratua izango da; bere burua beeratu

dagiana, barriz, goratua izango da."

Jesús eta umeak (Mt 19, 13-15; Mk 10, 13-16)

15 Ume batzuk eroan eutsoezan Jesusi, bedein- katu egizan. Ikasleak, ori ikustean, asarre egiten eutseen umeak eroaten ebezanai; 16 baiña Jesusek, umeai dei egiñik, auxe esan eban: "Itzi umeai nigana etorten eta ez egiezue galerazo, eurak lakoak dira- entzat da Jaungoikoaren erreñua-ta. 17 Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren erreñua ume batek lez artu ez dagiana, ez da an sartuko."

Gizon aberatsa (Mt 19, 16-30; Mk 10, 17-22)

18 Judarren nagusietariko batek Jesusi auxe itandu eutsan: "Irakasle bikain, ¿zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?" 19 Eta Jesusek ari: "¿Ze- gaitik dirautsazu niri bikaiña? Iñor be ez da bikaiña, Jaungoiko bakarrrik baiño. 20 Badakizuz aginduak: *Ezkontzarik ez urratu, ez iñor il, lapurretarik ez egin, guzurrezko testigantzarik ez egin, zure aita ta ama aintzat artu **." 21 Eta arek Jesusi: "Guzti ori gaz- tetarik gorde dot nik." 22 Jesusek, ori entzutean, auxe esan eutsan: "Zerbait ez dozu egin oraindiño: Dauka- zun guztia saldu eta obaria beartsuen artean banatu egizu. Orrela zeruan ondasunegia egingo dozu zuretzat. Gero, zatoz barrero ona eta jarraitu egi- dazu."

23 Ori entzutean, gizona biotz-minduta jarri zan zearo, oso aberatsa zan-eta. 24 Jesusek, gizona ain naibagetuta ikusirik, auxe esan eban: "Bai izango yakela gaitz aberatsai Jaungoikoaren erreñuan sar- tzea! 25 Aberatsa Jaungoikoaren erreñuan sartzea baiño errazago izango yako ganbeluari jostorratz- zulotik igarotea."

26 Entzuten ziar duenak auxe itandu eben: "Orrela, ¿nor salbatu aal izango da, ba?" 27 Eta Jesusek arei: "Gizonentzat eziñezkoa dana, Jaun- goikoarentzat eginkor da."

28 Orduan, Pedrok Jesusi: "Zuk badakizu, zuri jarraitzearren, geure gauzak itzi doguzana." 29 Eta Jesusek arei: "Benetan dirautsuet: etxea, emaztea, anai-arrebak, gurasoak edo seme-alabak Jaungoiko- aren erregetzagaitik itzi dagizanak, 30 mundu onetan askozaz geiago artuko dau, eta geroko munduan betiko bizitza."

Bere nekaldia ta biztuerea irugarrenez iragarten dauz (Mt 20, 17-19; Mk 10, 32-34)

31 Jesusek, amabi ikasleak beragaz arturik, auxe esan eban: "Begira: Jerusalemeko bidean goaz, eta profetak Gizaseme oni buruz idatzi eben guztia beteko da an. 32 Jentillen eskuetan itziko dabe an, areik barre egingo dabe Aren lepotik, iraindu egingo dabe, txistua jaurtiko dautsoe, 33 zigorkadaz astindu eta il egingo dabe. Baiña irugarren egunean biztu egingo da."

34 Ikasleak ez eben ezer ulertzen. Ezin ulertu eben Jesusek zirautsena, Aren berben esanaia areintzat estalduta egoan-eta.

Itsu bat osatzen dau Jesusek (Mt 20, 29-34; Mk 10, 46-52)

35 Jesus Jerikora urreratzean, bide-ondoan eske- an egoan itsu batek, laguntaldearen zarraparrea entzunik, a zer zan itandu eban. "Nazaretoko Jesus igaroten da emendik", erantzun eutsoen. 38 Orduan, itsua deadarka asi zan: "Jesus, Dabiden seme ori, erruki izan zakidaz!"

39 Aurrean yoiazanak isildu zedilla zirautsoen, baiña arek gero ta geiago egiten eban deadar: "Dabi- den seme ori, erruki izan zakidaz!"

40 Orduan, Jesusek, gelditurik, itsua beragana ekarteko agindu eban. Urreratu yakonean, auxe itan- du eutsan: "¿Zer nai dozu egin dagitzudan?" "Jauna, ikusi dagidala barrero", erantzun eban arek. 42 Eta Jesusek ari: "Ikusi egizu barrero. Zeure sinismena-

gaitik geratzen zara osatuta." 43 Une aretan bertan, itsuak ikusi egin eban, eta, Jaungoikoa gurturik, Jesusi jarraitzen eutsoenai batu yaken. Eta jazorikoa ikusi eban guztiak be Jaungoikoa goratu eban.

Jesus eta Zakeo

19 1 Jesus, Jerikon sartuta, urian zear yoian. 2 Zakeo izeneko gizon aberats bat bizi zan an, diru-batzaille nagusia, 3 eta arek Jesus ezagutzea gura eban. Baiña gorputzez txikia zan, eta laguntaldeak galerazo egiten eutsan Jesus ikustea. 4 Beraz, ariñeketan asi eta guztiai aurea artuta, piku-ARBOLA* batera igo zan, Jesus andik igaro zeitenean ikusteko. 5 Jesusek, toki aretara eltzean, goruntz begiratu ta Zakeo ikusi eban, eta auxe esan eutsan: "Zakeo, jatsi arin, gaur zeure etxean geratu bear dot-eta."

Beingo baten jatsirik, Zakeok poz-pozik artu eban Jesus bere etxean. 7 Ori ikustean, guztiak mormoxetan asi ziran: "Orrek, ostatutzat, entzute-txarreko gizon baten etxea artu dau."

8 Zakeok, zutundurik eta Jesusegana biurturik, auxe esan eban: "Jauna, nire ondasunen erdia bear-tsuai emoteko gertu nago, baita norbati zerbait bide-txarrez kendu badautsat, alakoari lau bidar geiago biurtzeko be." 9 Orduan, Jesusek auxe esan eban: "Gaur eldu da salbamena etxe onetara, au be Abrahamen ondorengoa da-ta. 10 Eta Gizaseme au galduta egoana billatzera ta salbatzera etorri da!"

Dirutza ta Irabaziak (Mt 25, 14-30)

11 Entzuten ziarduenai, Jesusek beste ipuin bat esan eutsen, Jerusalemik ur egoan-eta; areik, barriz, Jaungoikoaren erregetza agertzeko zorian egoala uste eban. 12 Auxe esan eutsen: "Andiki bat urriñeko errialde batera joan zan, ango erreñua beraganatzeko ta barrio etorteko. 13 Urten baiño leen, bere amar morroi dei egiñik, baktaxari diru-pillo* bat itzi eutsan, auxe esaten eutsela: 'Diru ori irabazitan

jarri egizue, neu etorri arte.'

14 "Errialdeko menpekoak gizon ari gorroto eutsoen ezker, atzean mandatariak bialdu eutsoezan, auxe esan egien: 'Ez dogu ori gure errege izate-rik nai.' 15 Alan be, arek bere erretza eskuratu egin eban.

"Barriro etorri zanean, dirua itzi izan eutsen morroi dei egiteko agindu eban, baktaxak zenbat irabazi ete-eban jakiteko. 16 Areitariko leenengoak, aurkezturik, auxe esan eban: 'Jauna, zure dirutzak amar bidar geiago emon dau.' 17 Eta erregeak ari: 'Ondo dago. Arduradun ona izan zara. Eta gutxian zintzoa izan zanean ezker, artu egizu amar uriren agintaritzat.' 18 Gero, bigarren morroiak, aurkezturik, auxe esan eban: 'Jauna, zure dirutzak bost bidar geiago emon dau.' 19 Oni be erregeak auxe erantzun eutsan: 'Zeuri be bost uriren agintaritzat emoten dautsut.'

20 "Baiña gero beste morroi bat aurkeztu zan, esanez: 'Jauna, emen daukazu zure dirua. Zapi bataz ondo batuta gorde dot, 21 zeuganako bildurragaitik; badakit gizon zorrotza zarena, ipiñi ez zenduana artzea eta erein ez zenduana batzea nai dozu-ta.' 22 Eta erregeak ari: 'Zu arduradun txarra zara, eta zeure berbetatik galtzen zaitut. Ni gizon zorrotza nazana, ipiñi ez dodana artzea eta erein ez dodana batzea nai dodana bazekian, 23 ¿zegaitik ez zenduan eroan, ba, nire dirua diru-etxera? Olan, ni barriro etortean, irabaziaz batera jaso izango neban.'

24 "Eta, enparaduakana begiraturik, auxe esan eban gaiñera: 'Kendu egiozue orri dirutza eta emon amar bidar geiago daukanari.' 25 Areik auxe esan eutsen: 'Jauna, orrek badauko amar bidar geiagotat!' 26 'Egia da —erantzun eban erregeak—, baiña badirautsuet: euki daukanari, geiago emongo yako. Ez daukanari, oster, euki dagian gutxia be kendu egingo yako. 27 Ni euren errege izatea nai izan ez eban arerioak, barriz, ekarri ona eta il egizuez neure aurean.'"

Jesus Jerusalemen sartzen da (Mt 21, 1-11; Mk 11, 1-11; Jn 12, 12-19)

28 Ori esanda gero, Jesusek Jerusalemeko bideari jarraitu eutsan. 29 Betfaje ta Betania-ondoan egoala, Oriomendi-aurrean, bere ikasleatariko bi bialdu ebazan, mandatu au emoten eutsela: 30 "Zoaze or aurrean dagoan auzunara. Or sartuta batera, oraindiño iñor gaiñean jarri ez yakon astakume bat aurkituko dozue lotuta. Askatu ta ekarri egidazue. 31 Eta norbaitek zegaitik askatzen dozuen itauntzen badautsue, Jaunak bear dauala esan egiozue."

32 Areik joan eta guztia Jesusek esan izan eutsenez aurkitu eban. 33 Astakumea askatzen eban artean, ori zegaitik egiten eban itandu eutseen jabeak. 34 "Jaunak bear daualako", erantzun eban areik.

35 Astakumea Jesusi eroan eutsoen, eta, gaiñean euren jantziak ipiñirik, Jesus gaiñean jarri eban. 36 Eta Jesus aurrera yoiala, soingaiñekoak zabaltzen ebazan bidean zear. 37 Oriomendi-barren aldera urreratzean, Jesusen ikasleak —oneik asko ziran— pozez beterik deadarka asi ziran, ikusi izan ebezan mirari guztiakaitik Jaungoikoa goraturik. 38 Auxe iñoen: "Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren Erregea!* Bakea zeruan eta aintza Jaungoiko goren-goari!"

39 Laguntalde-artean egozan parastar batzuek Jesusi auxe esan eutsoen: "Irakasle, agiraka egiezu zure ikasleai!" 40 "Benetan dirautsuet —erantzun eban Jesusek—: oneik isiltzen badira, arriak egingo dabe deadar."

41 Jesusek, Jerusalem-ondora eltzean eta uria ikustean, aregaitik negar egin eta auxe esan eban: "Egun onetan beintzat, bakera daroana zelan aurkitu bazeki! Baiña ori orain zure begientzat estalduta geratu da. 43 Elduko dira egunak eta zure arerioak esiak jasoko dautsue, inguratu, alde guztietatik eraso 44 eta ondatu egingo zaitue zure bizilagun

guztiakaz batera. Ez dabe arririk arri-gaiñean itziko, Jaungoikoak zu salbatu nai izan eban aukerea eza-gutzen jakin ez dozulako."

Jauretzeko saltzailleak (Mt 21, 12-17; Mk 11, 15-19; Jn 2, 13-22)

45 Orren ostean, Jesus jauretzean sartu eta andik saltzailleak botaten asi zan, 46 auxe zirautesela: "Liburu Santuak auxe diño: *Nire etxea otoitz-etxe izango da*; baiña zuek lapur-zulo biurtu dozue*."

47 Eta Jesusek egun oro jauretzean irakasten eban. Bitartean, abadeburuak, Lege-irakasleak eta erriko nagusiak Jesus ilteko asmotan ziarduen; 48 baiña ez eban ori egiteko biderik aurkitzen, erri guztia Jesusi entzuten agoa zabalik egoan-eta.

Jesusen aginpidea (Mt 21, 23-27; Mk 11, 27-33)

20 1 Egun baten, Jesusek jauretzean irakasten eta barri ona iragarten ziarduala, abadeburuak eta Lege-irakasleak erriko zaarakaz batera aurkeztu ziran, 2 eta auxe itandu eutsoen: "Esan egiguzu: ¿Ze(r) eskubidez egiten dozu zuk egiten diarduzun guzti ori? ¿Nok emon dautsu orretarako aginpidea?" 3 Eta Jesusek arei: "Neuk be itaun bat egingo dautsuet. Esan egidazue: 4 ¿Nogandik artu eban Joan Bateatzailleak bateatzeko agindua: zerutik, ala gizonakandik?"

5 Areik alkarregaz asmatzen asi ziran: "Zerutik artu ebalu erantzuten badogu, ¿Zegaitik ez zeutsen, ba, sinistu?' esango dausku. 6 Eta gizonakandik artu ebalu badiñogu, laguntaldeak arrika egingo dausku, guztiak Joan profetatatzat eban-eta." 7 Beraz, "Ez dakigu", erantzun eban areik. Eta Jesusek arei: "Neuk be ez dautsuet esango guzti au ze(r) esku-bidez egiten dodan."

Nekazari iltzailleen ipuiña
(Mt 21, 33-46; Mk 12, 1-12)

9 Gero, Jesusek, an egozan guztiakana bihurturik, ipuin au esan eutsen: "Bein, gizon batek maasti bat landu eban; eta, nekazari batzui errentan itzirik, joanaldi luze bat egitera joan zan. 10 Aldi egokian, nekazari morroi bat bialdu eutsen, maastiko frutuetarik berari egokiona emon egioen. Baiña nekazariak, morroia zartadaka astindu eta esku-utsik bialdu eben. 11 Beste morroi bat bialdu eutsen barrero, eta areik, morroia zartadaka astindu eta iraiñez beteta gero, au be esku-utsik bialdu eben. 12 Baita irugarren morroia be bialdu eutsen, baiña au be txarto erabili eta bota egin eben andik. 13 Orduan, maastiaren jabeak auxe esan eban berekautan: '¿Zer egin daiket geiago? Neure semea bialduko dot, neure seme maitea. Lotsa izango dautsoe, urrean.' 14 Baiña nekazariak, semea etorten ikusi ebenean, alkarri auxe esan eutsoen: 'Orain datorren au oiñordekoa da. Il dagigun, eta maastia geurea izango da.' 15 Eta, a maastitik kanpora jaurtirik, il egin eben. ¿Zer egingo ete-dautse, ba, maastiaren jabeak? 16 Nekazari orrein aurka etorriko da, il egingo dauz eta maastia beste batzui emongo dautse."

Jesusi ori entzuten ziarduenak auxe esan eben: "Ori jazotea ez dagiala Jaungoikoak nai izan!" 17 Baiña Jesusek, arekana begira-begira jarririk, auxe esan eban: "¿Zer adierazoten dau Liburu Santuak diñoan onek?: *Etzegilleak baztartutako arria, giltzarri biurtu da**. 18 Arri orren gaiñera jausi daitena, zatitu egingo da, eta arri ori gaiñera jausi dakiona, arriak zapaldu egingo dau."

19 Lege-irakasleak eta abadeburuak ipuin ori Jesusek eurai buruz esan ebalu ulertu eben. Orregaitik, Jesusi eskuak ezarri nai eutsoezan une aretan bertan; baiña ez eben egin, erriari bildur eutsoen-eta.

Diru-ordaiña zala-ta
(Mt 22, 15-22; Mk 12, 13-17)

20 Baiña areik Jesus zaintzen geraturik, zelatari batzuk bialdu eutsoezan, gizon zintzo itxuraz, Jesus berbaren baten zelan-alan artu eta erromatar jaurliaren eskuetan eta menpean itzi aal izateko. 21 Oneik Jesusi auxe itandu eutsoen: "Irakasle, badakigu guztia zuzen esan eta irakasten dozuna eta ez dozuna iñor itxuretatik epaitzen: Jaungoikoak nai dauanez bizi izaten irakasten dozu bene-benetan. 22 Emon egiguzu zure eretxia: Guk, judarrok, zerromatar enperadoreari diru-ordaiña emotera beartuta gagoz, ala ez?"

23 Jesusek, arekan egoan asmo txarraz konturaturik, auxe erantzun eutsen: 24 "Erakutsi egidazue diru bat. ¿Norenak dira irudi au ta idazkun au?" 25 "Enperadorearenak", erantzun eutsoen areik. Orduan, Jesusek arei: "Emon egiozue, ba, enperadoreari enperadorearena, eta Jaungoikoari Jaungoikoarena."

26 Eta ez eben berba baten be artu aal izan erriaren aurrean. Bestetara bai: Aren erantzunaz arrituta, isildu egin ziran.

Ildakoen biztuerea
(Mt 22, 23-33; Mk 12, 18-27)

27 Orren ostean, sadokar batzuk Jesus ikustera joan ziran. Biztuerearik ez dagoala diño sadokarrak, eta orregaitik itaun au egin eutsoen: 28 "Irakasle, Moisesek auxe itzi euskun idatzita: 'Gizon ezkondua semerik izan bagarik ilten bada, aren anaiak alargunagaz ezkondu bear dau, eta onegandik izan dagizan semeak, ildakoaren ondorengoak lez izango dira artuak*'. 29 Alan ba, bein zazpi anai ziran; areitariko leenengoa ezkondu egin zan, baiña semerik izan bagarik il zan. 30 Bigarrena 31 eta irugarrena be alargunagaz ezkondu ziran, eta olantxe zazpirak be; baiña zazpirak semerik izan bagarik il ziran. 32

Azkenengo il zana, emakumea izan zan. 33 Beraz, biztuera, areitariko norena izango da emazte, zazpirak egon ziran aregaz ezkondu-ta?"

34 Jesusek auxe esan eutsen: "Ezkontza, mundu oni dagokion zerbait da. 35 Baiña biztuerea eta geroko erreñuan sartzea merezi dagienak, arrezkero ez dabe ezkontzaz ikustekorik izango, 36 ezta erioztaz be ez dabe ikustekorik izango, aingeruak lez izango dira-ta. Jaungoikoaren seme izango dira, biztu egingo dira-ta. 37 Ildakoen biztuereari buruz, barriz, Moisesek be adierazoten dau sasiko atal aretan, auxe esanez: *Jauna, Abrahamen, Isaaken eta Jakoberen Jaungoikoa**, 38 bizien Jaungoikoa dala eta ez ildakoena, Arentzat guztiak bizi dira-ta."

39 "Irakasle, errazoa dozu", esan eutsoen Jesusi Lege-irakasle batzuek. 40 Eta arrezkero iñok ez eban Ari itaun geiago egiteko aurpegirik.

Mesias, Dabiden seme ta Jaun
(Mt 22, 41-46; Mk 12, 35-37)

41 Jesusek auxe be itandu eutsen: "¿Zelan diño, ba, Dabiden seme dala Mesias? 42 Izan be, Dabidek berak Salmu-liburuan auxe idazten dau:

*Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan:
Jesarri zaitez nire eskumaldean,
43 zure arerioak zeure oinpekotzat
jarri dagidazan arte*.*

44 Beraz, Dabidek berak Mesias Jauna baderitzo, ¿zelan izan daiteke, ba, Dabiden seme?"

Lege-irakasleen itxurakeria
(Mt 23, 1-36; Mk 12, 38-40; Lk 11, 37-54)

45 Entzuten ziarduan eri guztiaren aurrean, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: 46 "Zaindu zuen buruak Lege-irakasle orrekandik: jantzi dotorez ibiltea dabe atsegin eta guztien aurrean agurtuak

izatea, eta sinagogetan aurrenengo lekuak eta janaldietan leenengo jarlekuak artzea. 47 Emakume alargunen ondasunak iruntsi eta, orren atxakiaz, otoitz luzeak esaten dabezan orreik, zigorrik gogorrena artuko dabe!"

Emakume alargunaren eskintza
(Mk 12, 41-44)

21 1 Jesusek, jauretxean egoala, aberatsak eskingai-kutxara dirua botaten ebela ikusi eban. 2 Emakume alargun beartsu bat be ikusi eban; onek balio oso gutxiko diru bi bota ebazan. 3 Eta Jesusek auxe esan eban: "Benetan dirautsuet: emakume alargun beartsu orrek enparadu guztiak baiño geiago bota dau. 4 Izan be, beste guztiak gaiñezka dabena bota dabe eskingaitzat; orrek, barriz, bizi izateko eukan guztia bota dau."

Jauretxearen ondamendia iragarten dau
(Mt 24, 1-2; Mk 13, 1-2)

5 Batzuk jauretxeari buruz berbetan ziarduen, aren arrien edertasunaz eta a apaintzen eben zineskintzaz*. Orduan, Jesusek auxe esan eutsen: 6 "Elduko da eguna, eta ikusten diarduzuen orretan ez da arririk arri-gaiñean geratuko. Guzti ori ondatu egingo dabe!"

Munduaren azkenaren ezaugarriak
(Mt 24, 3-14; Mk 13, 3-13)

7 Ikasleak auxe itandu eutsoen: "Irakasle, ¿noiz jazoko da guzti ori? ¿Zelan jakingo dogu gauza orreik beteteko zorian dagozala?" 8 Eta Jesusek arei: "Kontuz, gero! Ez zagiezela iñok azpikeriz eroan. Izan be, asko etorriko dira nire izenaz, 'Neu naz Mesias', edo 'Eldu da unea', esanez. Ez egiezue jaramonik egin. 9 Gudu ta matxiñadai buruz berba egiten entzun dagizuenean, ez ikaratu. Leenen, guzti

ori jazobearrekoa danarren be, ez da arteetan bereala azkena izango”.

10 Auxe be esan eutsen: “Erri batzuk beste erri batzuen aurka eta erreñu batzuk beste erreñu batzuen aurka jagiko dira; 11 toki guztietan zear lurrikara andiak, goseteak eta izurriteak izango dira, eta zeruan ezaugarri arrigarriak ikusiko dira.

12 “Baiña guzti ori jazo baiño leen, eskuak ezarriko dautsueez, aurrean erabili, sinagogetara eroan eta kartzelan sartuko zaitue. Nigaitik erregeen eta jaurlarien aurrean aurkeztuko zaitue; 13 orrela, testigantza egiteko aukerea izango dozue. 14 Baiña zuen alde ardurarik ez artzeko asmoa artu egizue, 15 zuen arerio batek be ezin gogor egin eta erantzun aal izango dautsuen berbetako etorria ta jakituria emongo dautsuedaz nik orduan-eta. 16 Zuen gurasoak, anaiak, senideak eta adiskideak eurak be saldu egingo zaitue, eta zuetariko asko il egingo dabez. 17 Nigaitik guztiak gorroto izango dautsuee; 18 baiña zuen ule bat be ez da galduko. 19 Sendo iraun egizue, eta benetako bizia lortuko dozue.

Jerusalen, inguratuta
(Mt 24, 15-28; Mk 13, 14-23)

20 “Jerusalen gudaroztez inguratuta ikusi dagizuenean, jakin egizue aren ondamedia ur dagoana. 21 Orduan, Judean egon daitezanak, iges egin begie mendietara; Jerusalem-barruan egon daitezanak, urten beitez andik, eta landan egon daitezanak ez beitez urian sartu. 22 Izan be, egun areik zigor-egunak izango dira, eta areitan Liburu Santuak diñoan guztia beteko da. 23 Egun areitan seindunen eta umea azten diarduenen zoritxarra! Izan be, orduan estutasun ikaragarria izango da lur onen gaiñean, eta Jaungoikoaren zigorra erri onen gaiñera etorriko da. 24 Batzuk ezpatatz jota ilgo dira eta beste batzuk katigu eroango dabez erri guztietara. Eta jentillak Jerusalem ostikopetu egingo dabe, jentillen aldia bete daiten arte.

Gizasemearen etorrerea
(Mt 24, 29-31; Mk 13, 24-27)

25 “Eguzkian, illargian eta izarretan ezaugarriak izango dira. Itsasoaren orro ta olatuen zaratotsa-gaitik, lurreko erriak naasteak eta latz-ikareak artuta geratuko dira. 26 Mundu guztiko bizilagunak bildurrez eta larri ibiliko dira gaiñera datorkienagaitik, zeruko egiturak eurak be dardaraka asiko dira-ta. 27 Orduantxe ikusiko dozue Gizaseme au, aal-izate eta aintza andiz odei baten etorten. 28 Guzti au jazoten asi daitenean, adoretu zaiteze eta jaso egizue burua, zuen askatasuna ur dago-ta.”

Pikondoa adibidetzat
(Mt 24, 32-35; Mk 13, 28-31)

29 Eta adibide au jarri eutsen: “Begira pikondoa ta beste zugatzak. 30 Ziltzen asten ikusten dozue-zanean, badakizue udaldia ur dagoana. 31 Orrelaxe, ba: iragarten dautsuedan au ikusi dagizuenean, jakin egizue Jaungoikoaren erregetza ur dagoana.

32 “Benetan dirautsuet: ez da oraingo gizaldi au igaroko, guzti au jazo bagarik. Zeru-lurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko.

34 “Zoli egon zaiteze, eta nasaikeriak, moskoriak eta bizitza onetako ardurak ez zagiezela lotu, egun a bat-batean gaiñera jausi ez dakizuen. 35 Izan be, sarea lez izango da, eta bertan artuta geratuko dira lurreko bizilagun guztiak. 36 Iratzarririk egon, ba, eta otoitz egin beti, jazoko danetik iges egin dagizuen eta Gizaseme onen aurrean akats bagarik aurkeztu aal zaitezen.”

37 Jesusek egunez jauretzean irakasten eban, eta gabetan Orio-mendira* baztartzan zan. 38 Eta laguntaldea jauretzean yoian goizean-goiz, Jesusek iñoana entzuteran.

Azpi-jokoa Jesusen aurka
(Mt 26, 1-5; Mk 14, 1-2; Jn 11, 45-53)

22 1 Laster zan Pazko-jai, legamin bagariko ogiak jaten ziranekoa. 2 Abadeburu ta Lege-irakasleak Jesus ilteko era-billa ebizan, erriari bildur eutsoen-eta.

3 Orduan, Iskariote* izeneko Judasegan Satanas sartu zan; Judas ori, barriz, amabietariko bat zan. 4 Au, abadeburu ta jauretzeko zaintzaille nagusia-kana* joan zan, Jesus eskuetan zelan itziko eutsen berba egitera. 5 Areik poztu egin ziran, eta, ordez, dirua eskiñi eutsoen. 6 Judasek baiezkoa emon eutsen, eta, laguntaldearen isillean, Jesus arein eskuetan izteko aukera-billa asi zan.

Jaunaren aparria (Mt 26, 17-30; Mk 14, 12-26; Jn 13, 21-30; Ko 1^a, 11, 23-25)

7 Legamin bagariko ogien leenengo jaieguna elduta, oparizat Pazko bildotsa ilten ebenean, 8 Jesusek Pedro ta Joan bialdu ebazan, onei auxe zirautea: “Zoaze gure Pazko-aparria atontzera.” 9 Areik auxe itandu eutsoen: “¿Non nai dozu atondu dagigun?” 10 Eta Jesusek arei: “Urian sartu zaitezenean, gizon bat aurkituko dozue, ur-pedar bat daroala; jarraitu egiozue sartu daiten etxeraiño, 11 eta etxeko ugazabari auxe esan egiozue: ‘Auxe diño Irakasleak: ¿Non dago jantokia nire ikasleak Pazkoa jan dagidan?’ 12 Arek gela zabal bat erakutsiko dautsue goiko bitokian, atonduta. Antxe gertatu egizue.”

13 Joan ziran, ba, ikasleak, eta Jesusek esan izan eutsenez aurkitu eben guztia. Eta Pazkoa gertatu eben.

14 Ordua eldu zanean, Jesus maian jesarri zan, baita apostoluak be Aregaz batera. 15 Orduan, auxe esan eutsen: “Gogo biziak gura izan dot nire eriotza baiño leen Pazko au zeuekaz jatea. 16 Badirautsuet: ez dot Pazko au barrero jango Jaungoikoaren errei-

ñuan bete daiten arte.”

17 Gero, bere eskuetan edontzi bat artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, auxe esan eban: “Artu au eta banatu egizue zuen artean. 18 Badirautsuet: onezkero ez dot maats-frutu onetatik edango Jaungoikoaren erregetza eldu arte.”

19 Gero, ogia artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, zaitu egin eban eta emon egin eutsen, esanez: “Au, neure gorputza da, zeuen alde eskiñia. Au, neure gomutaz egizue.”

20 Orixe berori egin eban edontziaz be apalduta gero, eta auxe esan eban: “Edontzi au alkartasun barria da, neure odolaz sendotuta, zeuen alde isuriko dana. 21 Baiña orain, mai-gaiñean eta nire ondoan, ni saltzen nauanaren esku dago. 22 Egia da izentatuta daukan bidea egingo dauana Gizaseme onek; baiña zoritxarrekoa Gizaseme au saltzen dauana!”

23 Orduan, ikasleak alkarrri saltzaillea nor izan zeitekean itauntzen asi ziran.

¿Nor da nagusiena?
(Mt 20, 25-27; Mk 10, 42-44)

24 Eztabaidea be sortu zan ikasleen artean, eurretariko nagusiena nor izan zeitekean. 25 Orduan, Jesusek auxe esan eutsen: “Erregeak euren menpean daukez erriak; eta erri arein gaiñean aginpidea dabenak, ‘ongille’ izena artzen dabe. 26 Baiña zuen artean ez da orrela izan bear: zuetariko nagusienak txikiena lez izan bear dau, eta aginpidea daukanak zerbitzen dauana lez.

27 “¿Nor da nagusiago, maian jarten dana, ala maia zerbitzen dauana? ¿Ez al-da maian jarten dana? Alan be, ni, zuen artean, zerbitzen dauana lez nago. 28 Baiña zuek nire estualdian neure ondoan iraun dozuenak zaree. 29 Orregaitik, zuentzat erregetza atontzen diardut, nire Aitak niretzat erregetza atondu dauanez. 30 Eta nire erreñuan neure maian bertan jan-edango dozue, eta aukietan jesarriko zaree Israelgo amabi jatorri-taldeak epaitzeko.

Jesusek Pedroren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz (Mt 26, 31-35; Mk 14, 27-31; Jn 13, 36-38)

31 Jaunak auxe esan eban: "Simon, Simon: zuek garia galbaean lez astintzeko eskubidea eskatu dau Satanasek; 32 baiña nik zeure alde erregutu dot, zure sinismena makaldu ez daiten. Eta zuk, damutu zaitenezanean, lagun egiezu zure anaiai sendo irauten." 33 Eta Pedrok Jesusi: "Jauna, gertu nago kartzelara ta eriotzaraiño be zeugaz joateko!" 34 Eta Jesusek ari: "Auxe dirautsut, Pedro: ez dau gaur oillararak joko, zuk ni ezagutzen nozula iru bidar ukatu baiño leen."

Eginbide barriak

35 Auxe be esan eutsen Jesusek bere ikasleai: "Zakuto, bide-zorro ta sandalia bagarik bialdu zenedazanean, ¿zerbaiten bearrik izan zenduen?" "Ezerenik be ez", erantzun eutsoen areik. 36 Eta Jesusek barriro arei: "Orain, oster, zakutoa euki dagianak, beragaz eroan dagiala, eta bide-zorroa euki dagianak be bardin egin dagiala; eta ezpatarik euki ez dagianak, bere soingaiñekoa saldu eta ezpatea erosi dagiala. 37 Izan be, badirautsuet: neugan beteko da Liburu Santuak diñoan au: *Gaizkilletzat artu eben* *. Nitzaz idatzi dan guztia, bete egin bear da." 38 Areik auxe esan eben: "Jauna, emen daukaguz ezpata bil!" "Naikoa da!", esan eutsen Jesusek.

Jesus, Oriomendin

(Mt 26, 30. 36-46; Mk 14, 26. 32-42)

39 Orren ostean, Jesus andik urten eta, oi ebanez, Oriomendira* joan zan bere ikasleakaz. 40 Ara eldu ziranean, Jesusek auxe esan eutsen: "Otoitz egizue, tentaldian jausi ez zaitezen."

41 Gero, arekandik zerbait urrindu ta belaunikoturik, otoitz au egin eban: 42 "Aita, nai badozu,

askatu nagizu samiñezko edontzi onetatik; baiña ez bedi neure gogoia egin, zeurea baiño."

43 [Orduan, zeruko aingeru bat agertu yakon, Ari indarrak emotera. 44 Jesusek, larritasunez beterik, otoitz egiten eban etenbagarik. Eta odol-tanta andien antzera jausten yakon izerdia lurrera.]*

45 Otoitz eginda gero, jagi ta bere ikasleakana urreratu zan. Lotan aurkitu ebazan, tristureak jota, 46 eta auxe itandu eutsen: "¿Zegaitik zagoze lo? Jagi zaitzeze ta otoitz egizue, tentaldian jausi ez zaitezen."

Jesus, lotuta daroe

(Mt 26, 47-56; Mk 14, 43-50; Jn 18, 3-11)

47 Jesusek berbetan ziarduan artean, laguntalde bat aurkeztu zan, Judas izeneko amabietariko bat buru ebela. Au Jesusegana urreratu zan, berau lantzantzera; 48 baiña Jesusek ari: "Judas, ¿laztan batatz saltzen dozu Gizaseme au?"

49 Jesusegaz egozanak, jazoten zana ikustean, auxe itandu eutsoen: "Jauna, ¿ezpateaz joko doguz?" 50 Eta areitariko batek abade nagusiaren morroiari zartada bat emon eta eskumako belarria ebagi eutsan. 51 Baiña Jesusek ari: "Geldi! Naikoa da!" Bereala, zauritutako belarria ikutu eta osatu egin eban.

52 Gero, bere aurka urten izan ziran abadeburu, jauretxeko zaintzaille nagusi ta zaarrai auxe esan eutsen: "¿Zegaitik etorri zaree nire billa ezpata ta makillakakaz, lapur-billa lez? 53 Egun oro egon naz zuen artean jauretxean, eta ez zeusten eskurik ezarri. Baiña auxe da zuen ordua. Auxe da illunpeen aal-izatearen ordua!"

Pedroren ukatzeak (Mt 26, 57-58, 69-75;

Mk 14, 53-54, 66-72; Jn 18, 12-18, 25-27)

54 Jesus lotu eta abade nagusiaren etxera eroan eben. Pedrok urrindik jarraitzen eutsan.

55 Etxeko ataurre-erdian sua iziotu izan eben, eta aren inguruan jesarrita egozan; Pedro be guztien

artean jesarrita egoan. 56 Orduan, neskame bat etorri zan, eta, Pedro sutondoan ikusirik, aregana begira-begira jarrita, arek auxe esan eban: "Au be Aregaz egoan." 57 Pedrok ukatu egin eban: "Emakume, nik ez dot ezagutzen." 58 Zerbait geroago, beste batek be Pedro ikusi eta auxe esan eban: "Zeu be orreitarikoa zara." "Ez, gizon, ez naz", esan eban Pedrok. 59 Ordubete barru-edo, irugaren batek be auxe esan eban: "Bai, ba, au be Aregaz egoan. Galilearra da gaiñera." 60 Eta Pedrok: "Gizon, ez dakit zer diarduzun esaten!" Pedrok arteetan berbetan ziarduala, oillar batek kukurruku egin eban. 61 Une aretan, Jaunak, biurtuta, Pedrori begirakune bat egin eutsan, eta Jaunak esan izan eutsan au ekarri eban gogora Pedrok: "Gaur berton, oillararak jo baiño leen, zuk iru bidar ukatuko nozu." 62 Orduan, Pedrok, andik urtenda, negar egin eban samiñez beterik.

63 Jesus zaintzen eben gizonak, Aren lepotik barre egiten eben eta zartadak emoten eutsoezan. 64 Eta, Jesusi begiak estaldurik, "Igarri egizu nok jo zaituan!", esaten eutsoen. 65 Eta edozetariko iraiñiak egiten ebezan Aren aurka.

Jesus, Batzar Nagusiaran aurrean

(Mt 26, 57-66; Mk 14, 55-64; Jn 18, 19-24)

66 Egundu zanean, erriko zaararak, abadeburuak eta Lege-irakasleak batu egin ziran, eta Jesus Batzar Nagusiaren aurrera eroan eben. 67 An auxe itandu eutsoen: "¿Mesias zara zu? Esan egiguzu!" Eta Jesusek arei: "Esaten badautsuet be, ez daustazue sinistuko; 68 eta itaunik egiten badautsuet be, ez daustazue erantzungo. 69 Alan be, oraindik, Gizaseme au leku goragarrian jesarriko da Jaungoiko guztiaaldunaren ondoan." 70 Guztiak auxe itandu eben: "Beraz, ¿zu Jaungoikoaren Semea zara?" "Zeuk diñozue —erantzun eban Jesusek—; neu naz." 71 Orduan, arek auxe esan eben: "¿Zetarako nai dogu beste testigurik? Geuk entzun dautsagu

beronen agotik."

Jesus, Pilatoren aurrean

(Mt 27, 1-2, 11-14; Mk 15, 1-5; Jn 18, 28-38)

23 1 Gero, guztiak jagi egin ziran, eta Pilatoren aurrera eroan eben Jesus. 2 Eta salatzen asi yakozan: "Geure erria naasten artu dogu au. Enperadorea-erentzat diru-ordaiñak* emotea galerazo egiten dau, eta, gaiñera, bera Mesias dala diño, edo bardin dana, erregea." 3 Pilatok auxe itandu eutsan: "¿Judarren errege zara zu?" "Zeuk diñozu", erantzun eutsan Jesusek.

4 Pilatok abadeburuak ta aurrean egozan guztiai auxe esan eutsen: "Ez dot nik gizon onegan errurik aurkitzen." 5 Baiña areik gogorrako ziarduen esaten: "Bere irakaspenaz Judea guztian erria naasten diardu. Galilean asi zan, eta onaxeño eldu da."

Jesus, Erodesen aurrean

6 Pilatok, ori entzutean, Jesus galilearra ete-zan itandu eban; 7 eta, galilearra izatean, Erodesen menpeko zala jakin ebanean, Erodesegana bialdu eban, au be egun areitan Jerusalemenean egoan-eta. 8 Erodes, Jesus ikustean, poztu egin zan; izan be, Aretzaz berba egiten sarritan entzun izan eban, eta aspaldian egoan Jesus ezagutzeko gurariz. Gaiñera, mirariren bat egiten ikusiko ebala uste eban. 9 Orregaitik, Erodesek Jesusi itaun asko egin eutsazan, baiña Jesusek ez eutsan barbarik be erantzun. 10 An ziarduen ekin eta ekin abadeburu ta Lege-irakasleak be Jesus salatzen. 11 Erodesek be, bere gudariakaz batera, Jesus iguindu eta Aren lepotik barre egin eban. Jesusi errege-soingaiñeko eder bat jantzi eta Pilatori bialdu eutsan barriro. 12 Egun aretan, Erodes eta Pilato adiskidetu egin ziran, ordurarte alkarregaz asarratuta egozan-eta.

Jesus eriotzara galtzen dabe

(Mt 27, 15-26; Mk 15, 6-15; Jn 18, 3-19, 16)

13 Pilatok, ba, abadeburuak, agintariak eta erria baturik, 14 auxe esan eutsen: "Gizon au erri-naastaille dala esanik ekarri daustazue; baiña nik zeuen aurrean itandu dausat eta ez dot ezeren errudin aurkitu. 15 Eta Erodesek* be ez, barrero onaxe bialdu dau-ta. Argi dago, ba, gizon onek ez dauana eriotzarako ezer be egin. 16 Beraz, zigortu eta gero askatu egingo dot."

17 [Pazko-jaiegunean, jaurliariak kartzelan egoanetarik norbait askatu bear eban, laguntaldeak aukeratu egiana.]* 18 Orduan, laguntalde guztia deadarka asi zan: "Ti egizu ori! Barrabas askatu egizu!" 19 (Barrabas au, urian izandako kale-zarraparra bategaitik eta gizon-ilte bat zala-ta, kartzelan egoan.)

20 Pilatok, Jesus askatu nai eban ezkerro, barrero be berba egin eutsan laguntaldeari. Baiña guztiak gogorrigo egiten eban deadar: "Gurutzera ori! Gurutzera ori!" 22 Pilatok, irugarrenez, auxe esan eutsen: "Baiña, ¿zein da onen gaizakeria? Nik ez dausat eriotzarako ezer be aurkitu; beraz, zigortu eta gero askatu egingo dot."

23 Baiña areik, deadar andiagoz, gurutzeratua izan zedilla eskatzen eban, eta arein deadarrak geroago ta gogorrigoak ziran. 24 Azkenez, Pilatok arein eskaria egitea erabagi eban; 25 eta kale-zarraparra eta gizon-ilte bategaitik kartzelan eukana askatu eta Jesus arein eskuetan itzi eban, Aregaz areik nai egiena egiteko.

Jesus, gurutzean

(Mt 27, 32-44; Mk 15, 21-32; Jn 19, 17-27)

26 Jesus gurutzean josteko eroan ebenean, solotik etorren Zireneko Simon zalako bati eldurik, gurutzea artzera eta Jesusen atzetik eroatera beartu eban. 27 Erriko laguntalde andiak jarraitzen eutsan

Jesusi, baita emakumeak be negarrez eta dolu egiñez. 28 Jesusek, une baten arekana bihurturik, auxe esan eutsen: "Jerusalengo emakumeok: ez egin negarrik nigaitik, zeuekaitik eta zeuen seme-alabakaitik baiño. 29 Eldu be elduko dira egunak eta auxe esango da: 'Zorionekoak sabel-legorrek eta umerik azi ez eban bularrak!' 30 Orduan, auxe asiko da laguntaldea mendiai esaten: 'Jausi zaitez gure gaiñera'; eta menditxoai: 'Estaldu gagizuez!' * 31 Izan be, zugatz ezeari au egiten badautsoe, ¿zer ez ete-dautsoe egingo igarrari?"

31 Gaizkille bi be baeroiezan, Jesusegaz batera ilteko. 33 "Buru-azurtegi" izeneko tokira eldu ziran, antxe gurutzeratu ebezan Jesus eta gaizkille biak: bata Jesusen eskumaldean eta bestea Aren ezkerrekaldean. 34 Orduan, Jesusek auxe iñoan: "Aita, parkatu egiezu, ez dakie zer egiten daben-eta.

Gudariak Jesusen jantziak banatu egin ebezan, zotz egiñik. 35 Laguntaldea begira egoan an; agintariak be barre egiten eban Jesusen lepotik, esanez: "Beste batzuk salbatu dauzan ezkerro, salbatu dagiala bere burua be, Mesias, Jaungoikoaren aukeratua bada." 36 Gudariak be barre egiten eban Aren lepotik. Ozpiña eskintzeko urreratzen yakozan, eta auxe zirautsoen: "Israelgo errege bazara, salbatu egizu zeure burua."

38 Jesusen buru-gaiñean idazkun au jarri izan eban: "Auxe da judarren erregea."

39 Jesusen ondoan eskegita egoan iltzailletariko batek iraindu egiten eban: "¿Ez zara, ba, zu Mesias? Salbatu egizu, ba, zeure burua eta salbatu gagizuz geu be!" 40 Baiña beste gaizkilleak asarre egiten eutsan bere lagunari: "¿Ez al-dautsazu Jaungoikoari bildurrik, oiñaze bardiñetan zagozan orrek? 41 Guk, orain, egin doguzan gaizakeriak ordaintzen diardugu, baiña onek ez dau ezetariko okerrik egin." 42 Eta, Jesusegana bihurturik, auxe esan eutsan: "Gomuta zaitez nitzaz errege lez etorri zaitezanean." 43 Eta Jesusek ari: "Gaur bertan izango zara nigaz paradisuana*."

Jesusen eriotza

(Mt 27, 45-56; Mk 15, 33-41; Jn 19, 28-30)

44 Eguerdialdean, lurralde guzti a illunetan geratu zan arratsaldeko irurak arte. 45 Eguzkia illundu eta jauretxeko oiala urratu egin zan erditik. 46 Orduan Jesusek, deadar andi bat egiñik, auxe esan eban: "Aita: zeure eskuetan izten dot nire espiritua!"

Eta, ori esanda, il egin zan.

47 Erromatar kapitanak an jazoten zana ikusi ebanean, Jaungoikoa goratu eta auxe esan eban: "Errubagea zan benetan gizon au!" 48 Eta ikuspen aretara batu ziran guztiak, jazoten zana ikustean, bular-joka biurtu ziran urira. 49 Baiña Jesus ezagutzen ebena eta Galileatik lagun egin izan eutsen emakumeak, antxe geratu ziran, guztia urrindik begiratzen ebela.

Jesusen illobiratzea

(Mt 27, 57-61; Mk 15, 42-47; Jn 19, 38-42)

50 Bazan Lege-batzarreko gizon zintzo ta on bat, Jose izenekoa; 51 onek bere lagun erabagia ta jokabidea ez ebazan ontzat artu. Judeako Arimatea errikoa zan, eta Jaungoikoaren erregetzaren zain egoan. 52 Jose onek, Pilatogana aurkeztuta, Jesusen gorpua eskatu eutsan. 53 Gero, Jesus gurutzetik eratsi, miesaz batu eta leen iñor ipiñia izan ez zan arri-bizian zulatutako illobi baten ipiñi eban. 54 Atontze-eguna zan, eta jaieguna asten.

55 Galileatik Jesusi lagun egin izan eutsen emakumeak, Joseran atzean joan ziran illobira eta Jesusen gorpua antxe ipiñita geratzen zala ikusi eban. 56 Gero, etxera biurtu ziran, eta usaingarriak eta miritzak* gertatu ebezan.

Jesusen biztuera

(Mt 28, 1-10; Mk 16, 1-8; Jn 20, 1-10)

24 Jaiegunean atsedan artu eban, Legeak agin-

tzen ebanez; 1 baiña astearen leenengo egunean, egunsentian, gertatu izan ebezan usaingarriak az illobira joan ziran. 2 Ara eltzean, illobia isten eban arria kenduta egoala aurkitu eban. 3 Barruan sartu ziran, baiña ez eban aurkitu Jesus Jaunaren gorpua; 4 arrituta geratu ziran, zer egin ez ekiela. Bat-batean, gizon bi agertu yakezan soiñeko argitsuz jantzita. 5 Gizon biok ikustean, emakumeak bildurrez bete eta lurraiño makurtu ziran. Gizonak auxe esan eutsen: "¿Zegaitik billatzen dozue illen artean, bizirik dagoana? 6 Ez dago emen, biztu egin da. Gogoratu egizue, onetzaz Berak egin eutsuela berba Galilean egoala. 7 Esan be esan eutsen Berak orduan, bearrezkoa zala Gizasemea pekatarien eskuetan itzia eta gurutzean josia izatea, baiña irugarren egunean biztu egingo zala."

8 Emakumeak gogora ekarri ebezan, bai, Jesusen berbok, 9 eta, illobitik bihurturik, albistea amakai eta beste guztiai eroan eutsen. 10 Jazo izan zana apostolui iragarri eutsen emakume areik, Mari Madalen, Joana, Santiagoren ama zan Mari, eta eurokaz egozan beste emakume batzuk ziran. 11 Baiña apostoluak ez eban sinistu emakumeak esaten eutseena, zorakeria zala eritzoen-eta. 12 Pedro, orraitioño, jagi eta illobirantz arifieketan joan zan. Ara eldu zanean, begiratza makurtu zan, baiña zapiak bakarrik ikusi ebazan; orduan, etxera biurtu zan, jazo izan zanaz ikaratuta.

Jesus, ikasle biri agertzen yake

(Mk 16, 12-13)

13 Egun berean, ikasleatariko bi amaika bat kilometrotara dagoan Emaus* izeneko auzunara yoiazan. 14 Jazo izan ziran guztiai buruz ziarduen alkarregaz berbetan; 15 eta, areik berbetan eta eztabaidan ziarduen artean, Jesus bera urreratu eta arekaz bidelagun joaten asi zan. 16 Baiña areik illunduta eukezan begiak, eta ez eban Jesus ezagutu. 17 Orduan, Jesusek auxe itandu eutsen: "¿Zertaz

diarduzue eztabaidan bidean zoazen artean?"

Areik gelditu egin ziran, aurpegia naibagez beterik ebela; 18 eta areitariko batek, Kleofas ize-nekoak, auxe erantzun eutsan: "Zeu zara, urrean, Jerusalem guztian bakarra, egunotan bertan jazo dana ez dakizun ori." 19 "¿Zer jazo da, ba?" itandu eutsen Jesusek. Eta areik Jesusi: "Na-areteko Jesus orrena; Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egíñez eta berbaz profeta aaltsua zala. 20 Gure abadeburuak eta agintariak A eriotzara galtzea eta gurutzean jostea lortu eben. 21 Israelen askatzaillea Bera zala uste genduan guk, baiña ordutik iru egun igaro dira onezkero. 22 Egia esan, gure taldeko emakume batzuek arrituta itzi gaitue: izan be, goizaldean illobira joan ziran, 23 eta ez eben Jesusen gorpua aurkitu. Aingeru batzuk agertu izan yakezala esanez biurtu ziran, eta Jesus bizirik egoala esan izan eutseela aingeruak. 24 Gero, guretariko batzuk illobira joan ziran, eta emakumeak esan izan ebenez aurkitu eben guztia. Baiña Jesus ez eben ikusi."

25 Orduan, Jesusek arei: "Zuek bai, gero, ulertzeko geldiak eta profetak esandakoa sinisteko motelak! 26 ¿Ez ete-yakon, ba, bearrezkoa Mesiasi guzti au igarotea bere aintzan sartu baiño leen?" 27 Eta, Moisesegandik asita, profetarik profeta*, Berari egokion Liburu Santuetako txataletariko bakotxa azaldu eutsen.

28 Areik yoiazan auzunara eldu ziranean, Jesusek aurrera yoialakoa egin eban; 29 baiña areik arren bai arren eskatu eutsoen: "Geratu zaitez geugaz, illunabarra da eta gaba gaiñean da-ta."

Jesus sartu eta arekaz geratu zan. 30 Gero, irurak batera maian jarri ziran; eta Jesusek ogia artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda, zatitu eta emon egin eutsen. 31 Orduantxe zabaldu yakezan begiak eta ezagutu eben Jesus; baiña Jesus ezkutatu egin yaken aurretik. 32 Orduan, auxe esan eutsoen alkarrari: "¿Ez genduan, ba, sugarretan biotza, bidean Aregaz berba egitean eta Arek Liburu Santuak azaltzean?"

33 Une aretan bertan, Jerusalemeko bidea artu

eben, eta Amaikak eta beste guztiak aurkitu ebezan batuta an. 34 Areik auxe esan eutsean: "Egia da! Jauna biztu egin da eta Simonek ikusi dau!" 35 Eta eurak be eurai jazo izan yakena azaldu eben, eta Jesus ogia zatitzean ezagutu izan ebela.

Jesus ikasleai agertzen yake (Mt 28, 16-20; Mk 16, 14-18; Jn 20, 19-23; Ap Eg 1, 6-8)

36 Jazotakoak esaten ziarduela, Jesusek, arein erdian jarririk, "Bakea zuekaz!", esan eutsen. 37 Larri ta ikaratuta, mamuren bat ikusten ebela uste eben; 38 baiña Jesusek auxe esan eutsen: "¿Zegaitik ikaratzen zaree eta zegaitik sortzen dira zuen barruan ezbaiok? 39 Begira nire esku-oiñak: neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue. Mamuak ez dauko aragirik, ez azurrik; eta ikusten dozue nik badaukadazana."

40 Ori esatean, eskuak eta oiñak erakutsi eutsezan. 41 Baiña, pozez beterik egozanarren be, arrituta egozan eta sinistu be ez eben egiten. Orregaitik, Jesusek auxe itandu eutsen: "¿Badaukazue emen jatekorik?" 42 Areik arrain erre zati bat* eskiñi eutsoen. 43 Jesusek artu eta guztien aurrean jan eban. 44 Gero, auxe esan eutsen: "Oraindiño zeuekaz nengoala, Moisesen legean, profeten liburuetan eta Salmuetan nitzaz idatzita egoan guztia betebearra zala esan neutsuen."

45 Orduan, adimena argitu eta argiro ulerterazo eutsen Liburu Santuetako esanaia. 46 Eta auxe esan eutsen: "Idatzita egoan Mesias il eta irugarren egunean biztu egingo zala; 47 eta Aren izenean erri guztiai, Jerusalem dik asita, onbideratze-mandatua eta pekatuen parkamena iragarri bear yakezala. 48 Zeuek zaree gauza guztion testigu. 49 Begira: nire Aitak agindutako doaia bialduko dautsuet nik. Geratu zaitez emen, Jerusalem en, Jaungoikoagandik datorren indarra artu dagizuen arte."

Jesusen zerura igoerea
(Mk 16, 9; Ap Eg 1, 9-11)

50 Geroago, Jesusek uritik kanpora eroan ebazan, Betania-ondoraiño*. An, eskuak jasorik, bedeinkatu egin ebazan. 51 Eta bedeinkatzen ebazan artean, arekandik alde egin eban, eta zerura eroana izan zan. 52 Areik, Jesus gurtuta gero, Jerusalem era biurtu ziran pozez beterik. 53 Eta beti jauretzean egoten ziran, Jaungoikoa goratzen ebela.

JESUKRISTOREN BARRI ONA

SAN JOANEK DAKARRENEZ

Jaungoikoaren Semea gizon egiten da

- 1 Gauza guztiak asi ziranean,
bazan Berbea zan A.
Eta Berbea dan A
Jaungoikoaren ondoan bizi zan eta
Jaungoikoa zan.
- 2 Jaungoikoaren ondoan bizi zan
gauza guztiak asi ziranean.
- 3 Aren bitartez egin zan dana
eta Bera bagarik ez zan ezer egin.
Egindako dana 4 Aregan bizia zan,
eta bizi ori gizonentzat* argia zan;
- 5 illunetan argi egiten dauan argia
eta illunpeak ezin atzamatu izan dabena.
- 6 Gizon bat etorri zan, Jaungoikoak bialduta,
Joan* izenekoa. 7 Testigu lez etorri zan, argiaren
testigantza egiteko, testigantzaren bidez guztiak
sinistu egien. 8 Bera ez zan argia, argiaren testigua
baiño. 9 Egiazko argia, gizon guztiak argitzen
dauzana, mundura* etorteko zorian egoan.
- 10 Munduan egoan
eta, mundua* Berak egiña izan zanarren be,
munduak ez eban A ezagutu.
- 11 Bereakana etorri zan
eta bereak ez eben ontzat artu;
- 12 baiña A onartu eta sinistu eben guztiai
Jaungoikoaren seme izateko eskubidea
emon eutsen.
- 13 Seme oneik ez dira giza-jatorritik jaiio
edo gizonak gura daualako,
Aitatzat Jaungoikoa dabelako baiño.

14 Eta Berbea dan A

geure artean bizi izan zan;
eta Aren aintza ikusi dogu,
Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza,
graziaz eta egiaz* betea.

15 Aretzaz Joanek egin eban testigantza,
deadarka iñoala: "Auxe da Aretzaz nik esan neban
au: Nire ostean datorrena, ni baiño nagusiagoa da, ni
baiño leen bazan-eta."

16 Aren betetasunetik bedeinkapenak erreska-
dan* artu doguz guztiok. 17 Izan be, Legea Moisesen
bidez emon zan; grazia ta argia, barriz, Jesukristoren
bitartez etorri yakuzan. 18 Jaungoikoa ez dau iñok
bein be ikusi; Seme bakarrak, Jaungoikoa danak eta
Aitagaz bat-bat eginda bizi danak, ezaguerazo
dausku Jaungoikoa

Joanen testigantza Jesusen alde (Mt 3, 1-12; Mk 1, 1-8; Lk 3, 15-17)

19-20 Jerusalemgo judarrak* Joani abade ta
lebitarren batzorde bat bialdu eutsoen, bera nor zan
itauntzera. Joanek argi ta garbi autortu eutsen: "Ni ez
naz Mesias." 21 "Orduan, ¿zer? ¿Elias* ete-zara?",
itandu eutsoen areik. "Elias be ez", erantzun eban
Joanek. Eta barriro be areik: "¿Itxaroten dogun
profeta* ete-zara, ba?" "Ez", erantzun eutsen arek.
22 Eta barriro be areik: "¿Nor zara, ba? Bialdu
gaituenai erantzuna eroan bear dautsegu. Esan egi-
guzu zerbait zeutzaz." 23 Orduan, Joanek, Isaias
profetaren berbak bere buruari ezarririk, auxe esan
eban: "Basamortuan deadarka diarduan abotsa naz
ni: Lautu egizue Jaunarenbidea! **"

24 Batzordeko baizuk parastarrak ziran. Oneik
auxe itandu eutsoen: "¿Ze(r) eskubidez bateatzen
dozu, ba, ez Mesias, ez Elias, itxaroten dogun profeta
be ez ba-zara?" 26 Eta Joanek arei: "Nik uraz batea-
tzen dot, baiña zeuen artean dago zuek ezagutzen ez
dozuen norbait; 27 neure ostean dator, baiña Aren

oiñetakoen lokarriak askatzeko be ez naz ni duin.”

28 Betanian* jazo zan ori, Jordan-ibaiaz bes-tekaldean, Joan bateatzen ziarduan tokian.

Jesus, Jaungoikoaren Bildotsa

29 Biaramonean, Joaneke Jesus beragana urratzen ikusi eta auxe esan eban: “Auxe da munduaren pekaturia kentzen dauan Jaungoikoaren Bildotsa. 30 Auxe aitatu neban nik urtego au esan nebanean: Ni baiño nagusiagoa dan bat dator nire ostean, ni baiño leen bazan-eta.” 31 Neuk be ez nekian nor zan, baiña Jaungoikoak bateatzeko agindu eustan, Arek bere burua Israeli ezaguerazoteko erea izan egian, ain zuzen be.”

32 Eta Joaneke auxe esan eban gaiñera: “Espiritua ikusi dot uso-antzean zerutik jatsiten, eta orrexen gaiñean geratzen. 33 Neuk be ez nekian nor zan; baiña, uraz bateatzera bialdu nenduanak, auxe esan eustan: Norbaitegana Espiritua jatsiten eta aren gaiñean geratzen ikusten badozu, orixe da Espiritu Santuaz bateatzen dauana.” 34 Eta, ori neuk ikusi dodan ezker, Jaungoikoaren Semea* auxe dala autortzen dot.”

Leenengo ikasleak

35 Biaramonean, toki aretan bertan egoan Joan bere ikasle bigaz. 36 Bat-batean, Jesus andixek igaroten ikusi eban, eta, “Auxe da Jaungoikoaren Bildotsa”, esan eban.

37 Ikasle biak entzun eutsoen ori esaten, eta Jesusi jarraitu eutsoen. 38 Jesusek, jarraitu egiten eutsoela ikusirik, “¿Zer billatzen dozue?”, itandu eutsen. “Irakasle*, ¿non bizi zara?”, erantzun eben areik. Eta Jesusek arei: 39 “Etorri zaitze ikustera.” Joan ziran, ba, non bizi zan ikusi eben eta Aregaz geratu ziran egun aretan. Arratsaldeko laurak-edo ziran.

40 Joanen berbak entzunda Jesusi jarraitu eutsoen bietariko bat, Ander zan, Simon Pedroren anaia. 41 Anderrek leenen egin ebana, Simon bere anaiaren billa joatea izan zan, ari auxe iragartera: “Mesias aurkitu dogu” (berba onek Kristo´ adierazoten dau). 42 Eta Jesusegana eroan eban; eta Jesusek, aregana begira-begira jarririk, auxe esan eutsan: “Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean, Kefas izango da zure izena” (edo bardin dana, ‘Arria’).

Felipe ta Natanael

43 Biaramonean, Jesusek Galileara joateko asmoa artu eban. Felipe aurkiturik, “Jarraitu egidazu”, esan eutsan Jesusek.

44 Felipe, Betsaidakoa* zan, Ander eta Pedroren errikoa. 45 Felipek, Natanael aurkiturik, auxe esan eutsan: “Moisesek Lege-liburuan idatzi ebana, baita profetak be aitatu ebana, axe bera aurkitu dogu; Jesus da, Joserren semea, Nazaretetokoa.” 46 “Nazaret! —esan eban Natanaelek—; ¿Nazaretetik ezer onik urten daiteke, gero?” “Zatoz eta ikusiko dozu”, erantzun eutsan Felipek.

47 Natanael Jesusek beragana etorten ikusi ebanean, auxe esan eban aretzaz: “Au, israeldar jatorra da, gizon zintzo ta egin-egiña.” 48 Eta Natanaelek Jesusi: “¿Nondik ezagutzen nozu, ba?” Eta Jesusek ari: “Felipek zuri dei egin baiño leen, zu pikondopean zengozala ikusi izan zaitut nik.” 49 “Irakasle —esan eban Natanaelek—, zu Jaungoikoaren Semea zara, Israelgo erregea zara zu!” 50 Eta Jesusek ari: “Ori baiño askoz andiagorik ikusiko dozu.”

51 Eta auxe esan eban gaiñera: “Benetan dirautsuet: ikusiko dozue zelan zabaltzen dan zerua eta zelan igoten eta jatsiten diran Jaungoikoaren aingeruak Gizaseme onen gaiñera.”

Kanako eztegua

2 1 Iru egun geroago, Galileako Kanan eztegu bat ospatu zan. Jesusen ama eztegurako deituta egoan, 2 baita Jesus eta beronen ikasleak be. 3 Eztegu-erdian ardaoa amaitu egin zan, eta Jesusen amak bere semeari auxe esan eutsan: “Ardaorik ez dauke.” “Andra! —erantzun eutsan Jesusek—, ez zaitetz nire gaietan* sartu; ez da oraindiño nire ordua eldu.” 5 Baiña Jesusen amak zerbitzariak: “Egizue Berak esan dagituzena.”

6 Arrizko sei ontzi egozan an, judarren oiturazko garbiketarako ipiñita, bakotxak eun bat litro artzen ebazala. 7 Jesusek zerbitzariak auxe esan eutsen: 8 “Ontziok urez bete egizuez.” Eta goragiño bete ebazan. Ontziak beteta gero, Jesusek zerbitzariak: “Atara orain apur bat eta eroan egiozue maizaiñari.”

Areik Jesusek esan eutsena egin eben. 9 Maizaiñak ardao barria miaztu ebanean, nondik etorren ez ekiala (ardaoa atara eben zerbitzariak bakarrik ekien ori), eta, ain ardao onaz miraritut, senar barriari dei egin eta auxe esan eutsan: 10 “Ardao ona, guztiak asierarako ataraten dabe, eta gero, mailagunak ugari edan dabenean, txarragoa ataraten da. Zuk, ostera, ardao ona azkenerarte gorde dozu.”

11 Galileako Kanan jazo zan ori. Jesusek egindako leenengo miraria izan zan. Alantxe agertu eban bere aintza, eta Beragan jarri eben sinistea Aren ikasleak.

12 Orren ostean, Jesus Kafarnaunera jatsi zan bere ama, senide ta ikasleakaz. Eta bertan geratu ziran egun batzuetan.

Jesus eta jauretzeko saltzaiileak

(Mt 21, 12-13; Mk 11, 15-17; Lk 19, 45-46)

13 Judarren Pazko-jaija laster zan ezker, Jesus Jerusalemenera joan zan. 14 Jauretzean idi, ardi ta usaltzaiileak eta diru-aldatzaiileak* euren mai-ostean jesarrita aurkitu ebazan. 15 Ori ikustean, lokarriaz

zarta bat egiñik, guztiak jauretzetik kanpora bota ebazan, ardi ta idiakaz batera. Diru-aldatzaiileen diruak be lurrera jaurti eta arein maiak itzuli egin ebazan. 16 Eta uso-saltzaiileak auxe esan eutsen: “Kendu au emendik. Ez biurtu nire Aitaren etxea merkatu-etxe.”

17 Aren ikasleak, orduan, Liburu Santuko berbok ekarri ebazan gogora: *Zure etxe-zaleitasunak erre egingo nau**.

18 Orduan, judarrak*, Jesusegana joanda, auxe itandu eutsoen: “¿Ze(r) ezaugarri erakusten daukuzu, ba, eskubide-agiritzat, orrela egiteko?” 19 Eta Jesusek arei: “Ondatu egizue jauretze au, eta nik iru egunen barruan jasoko dot barriro.” 20 Eta judarrak Jesusi: “Berrogeta sei urte egin ebazan jauretze au jasoten*, ¿eta zuk iru egunen barruan jasoko dozula?”

21 Baiña Jesusek bere gorputzaren Jauretzea esan nai eutsen. 22 Orregaitik, Jesus biztu zanean, egun aretan esan ebana ekarri eben gogora ikasleak, baita sinistu be Liburu Santua eta Jesusek esandako berbak.

Jesus, Jerusalemen

23 Pazko-jaietan Jesus Jerusalemen geratu zan artean, askok ikusi ebazan Arek egiten ebazan mirariak, eta Beragan jarri eben sinistea. 24 Baiña Jesus bera ez yaken guztiz zabaltzen, guztiak ondo be ondo ezagutzen ebazan-eta. 25 Ez eban, gaiñera, iñoren bearrik iñoren barri jakiteko, gizon bako- txaren barrua Berak ondotoz ezagutzen eban-eta.

Nikodemogaz alkarrizketan

3 1 Nikodemo, parastarren alderdikoa, judarren artean gizon nagusia zan. 2 Gau baten, Jesus ikustera joanda, auxe esan eutsan: “Irakasle*, badakigu Jaungoikoak geu(ri) irakastera bialdu zaituana; izan be, zuk egiten dozuzan mirariok iñok be ezin egin

daikez, Jaungoikoa aregaz ez badago beintzat.” 3 Eta Jesusek ari: “Nik, barriz, auxe dirautsut: barriro* jaioten danak bakarrik jaritsiko dau Jaungoikoaren erreñua.” 4 Nikodemok auxe erantzun eutsan: “¿Zelan jaio daiteke barriro gizona, zaartu ezkerro? ¿Sartu ete-daiteke, ba, inor barriro amaren sabelean, atzera jaioteko?” 5 “Bene-benetan dirautsut —erantzun eutsan Jesusek—: uretik eta Espirituagandik jaioten ez dana, ezin sartu daiteke Jaungoikoaren erreñuan. 6 Gizonagandik jaioten dana, gizaki da; Espirituagandik jaioten dana, espiritu da. 7 Ez zaitez ikaratu barriro jaio bear dozuela esan dautsudalako. 8 Nai dauan tokian joten dau aizeak*; entzun be egiten dozu aren ota, baiña ez dakizu nondik datorren, ezta nora doan be. Alantxe jazoten da Espirituagandik jaioten danaz be.”

9 ¿Zelan jaio daiteke ori?”, erantzun eban Nikodemok. 10 Eta Jesusek ari: “¿Zer? Irakasle zara Israelen, ¿eta ez dakizu ori? 11 Benetan dirautsut: dakiguna diñogu guk, eta ikusi doguna autortzen dogu; zuek, ostera, ez dozue gure testigantza ontzat artzen. 12 Lurreko gaiak zuei esatean, zuek sinisten ez badaustazue, ¿zelan sinistuko daustazue, ba, zeruko gaiak esan dagitzuedazanean? 13 Zerura ez da inor igo, andik etorri dana izan ezik, edo bardin dana, Gizaseme* au. 14 Moisesek basamortuan brontzezko sugea gora jaso ebanez, bearrezkoa da Gizaseme au be gora jaso izatea, 15 sinistea Beronegan jarri dagian edonok betiko bizitza* izan dagian.

16 “Jaungoikoak mundua bere Seme bakarria emoteraino izan dau maite, sinistea Beronegan jarri dagian inortxo be galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baiño. 17 Izan be, Jaungoikoak bere Semea ez dau munduaren aurka ondapen-epaia emoteko bialdu, Beronen bidez mundua salbatu daiten daiño. 18 Bere sinistea Semeagan jarten dauana, ez dago auzipean; bere sinistea Aregan jarten ez dauana, ostera, galduta dago, Jaungoikoaren Seme bakarria ez dau onartu-ta. 19 Ondapen onen auzia onetantxe dago: argia mundura etorri zala, eta gizonak argia baiño

illunpeak maiteago izan ebezala, munduaren jokabidea gaiztoa zan-eta. 20 Izan be, gaiztakeria egiten daben guztiak, argiari gorroto dautsoe eta onelakoak ez doaz argitara, euren jokabide gaiztoa agirian geratu ez daiten. 21 Egiari dagokionez diarduenak, ostera, argia billatzen dabe, euren egitada guztiak argitzen dauzana Jaungoikoa dala agertu daiten argi ta garbi.”

Joan Bateatzallearen testigantza barria

22 Orren ostean, Jesus bere ikasleakaz Judeako errialdera joan zan. Antxe egon zan arekaz aldi baten, eta bateatu egiten eban. 23 Joanek be Ainonen, Salin-ondoan*, bateatzen ziarduan, an ura ugari egoan-eta; laguntaldea, barriz, bateatua izatera etorten zan. 24 Ori, Joan kartzelan sartua izan baiño leen jazo zan.

25 Oiturazko garbiketak zirala-ta, eztabaidea sortu zan Joanen ikasleen eta judar baten* artean. 26 Ori zala-ta, Joanegana urreraturik, auxe esan eutsan: “Irakasle, ¿gogoan dozu Jordan ibaiaz bestekaldean zeugaz egoan a? Zuk aren alde testigantza egin zenduan. Orain bateatzen diardu eta guztiak Aren atzean doaz.” 27 Eta Joanek arei: “Jaungoikoak emon dautsana bakarrik euki daike gizonak. 28 Zeuek zaree nik orduan esan nebanaren testigu: ‘Ni ez naz Mesias; Beronen aurrelaritzat izan naz bialdua.’ 29 Emaztea senarrari* dagokio. Senarraren adiskidea, barriz, aren ondoan dagoana, adi-adi egoten yako, poztu be poztu egiten da senarraren berbotsa entzutean. Auxe da, ba, nire poza, eta bete-betea da, izan be. 30 Arek azi egin bear dau; nik, barriz, gerizpean geratu bear dot.

Zerutik datorrena

31 “Jaungoikoagandik datorrena, guztien gaiñean dago. Lurretik sortzen dana, lurretikoa da, eta orrelakoak lurrekoai buruz egiten dabe berba; zeru-

tik datorrena, guztien gaiñean dago, 32 eta ikusi ta entzun dauanaz egiten dau Arek testigantza; baiña Aren testigantza inok be ez dau onartzen. 33 Aren testigantza onartzen dauanak, Jaungoikoak egia diñoala onartzen dau. 34 Izan be, Jaungoikoak bialdu dauanak berba egiten dauanean, Jaungoikoa bera da berba egiten dauana, Jaungoikoak bere espiritua oso-osorik emon dautso-ta. 35 Maite dau Aitak Semea, eta Beronen eskuetan itzi dau dana. 36 Semea onartzen dauanak, betiko bizia dauko; Semea onartzen ez dauanak, barriz, ez dau bizi ori izango; Jaungoikoaren asarrea izango dau gaiñean.”

Jesus eta samaritar emakumea

4 1 Jesusek Joanek baiño jarraitzaille geiago eta bateatu be geiago egiten ebazala entzun eben parastarrak. 2 (Ez zan, orraitin, Jesus bera bateatzen ebana, Beronen ikasleak baiño.) 3 Parastarrak ori baekiela jakin ebanean, Jesus Judeatik urten eta Galileara joan zan barriro. 4-5 Samarian zear yoiala, Sikar* izeneko errira eldu zan, Jakobek bere seme Joseri emondako solo-ondora. 6 Antxe egoan Jakob ben patiña be. Jesus, bidean nekatuta etorrela, patin-ondoan jesarri zan. Eguerdi-aldea zan.

7 Orduan, samaritar emakume bat patiñetik ura ataratera etorri zan. Jesusek auxe esan eutsan: “Ura emon egidazu.”

8 (Ikasleak, jatekoa erostera, errira joan izan ziran.) 9 Samaritar emakumeak, guztiz mirarrituta, Jesusi auxe esan eutsan: “Ene! ¿Judarra ez zara, ba, zu? ¿Zelan eskatzen dautsazu ura samaritar* emakume bati?” (Izan be, judarrak ez eben samaritarraz artu-emonik.) 10 Eta Jesusek ari: “Jaungoikoaren doaia ezagutu bazengi, eta ni, ura eskatzen dautsudan au, nor nazan bazeki, zeuk eskatuko zeuskit niri edatekoa, eta nik ur bizia* emongo neuskizu.”

11 “Baiña, Jauna —erantzun eutsan emakumeak—, ura atarateko ezer be ez daukazu, eta patiña

sakona da. ¿Zelan emon daikedazu, ba, ur bizi ori? 12 Jakob gure aurretikoak itzi euskun patin au; bertotik edan eben berak, bere semeak eta bere abereak. ¿Bera baiño andiagotzat ete-dozu, ba, zure burua?” 13 Eta Jesusek ari: “Ur onetatik edaten dauana, barriro be egarri izango da; 14 nik emon nai dautsadan uretatik edan dagiana, barriz, ez da inoiz be egarrituko. Izan be, nik emon nai dautsadan ura, betiko bizia emoteko gauza dan iturburu biurtuko yako barruan.” 15 Emakumeak auxe esan eutsan: “Jauna, emon egidazu ur orretatik; orrela, ez naz barriro egarrituko eta ura ataratera etorri-bearrik be ez dot izango.” 16 Eta Jesusek ari: “Zoaz zure etxera, dei egiozu zure senarrari eta zatoz barriro ona.” 17 “Ez dot senarrik”, erantzun eutsan emakumeak. “Egia da —esan eutsan Jesusek—; ez dozu senarrik. 18 Bost senar izan dozuz, eta orain dozuna, ez da zure senarra. Orretan egia esan dozu.”

19 “Jauna —esan eutsan emakumeak—, ikusten dot profeta zareana. 20 Gure asabak Jaungoikoa mendi* onetan gurtu eben; zuek, ostera, judarrok, Jaungoikoa gurtzeko tokia Jerusalem dala diñozue.” 21 “Sinistu egidazu, emakume —esan eutsan Jesusek—; gaiñean da ordua, eta, Aita gurtzeko, ez dozue igo bear izango mendi onetara, ezta Jerusalemenera joan be. 22 Zuek, samaritarrok, ez dakizue zer gurtzen dozuen; guk, ostera, badakigu, salbamena judarrakandik dator-eta. 23 Gaiñean da ordua, edo-ta obeto esateko, eldu da onezkero, eta Aita benetan gurtzen dabenak espirituz eta egiaz gurtuko dabe. Oneiek dira, ain zuzen be, Aitak nai dauzan gurtzailleak. 24 Jaungoikoa espiritu da, eta Bera gurtzen dabenak espirituz eta egiaz gurtu bear dabe.” 25 Emakumeak auxe esan eutsan: “Badakit Mesias (edo bardin dana, Kristo) etorteko dana; etorri daitenean, Berak irakatsiko dausku guztia.” 26 Orduan, Jesusek argi ta garbi agertu eban bere burua: “Neu naz Mesias, zugaz berbetan diardudan au.”

27 Une aretan ikasleak etorri eta, Jesusek emakume bategaz berbetan ziarduala ikustean, mirari-

tuta geratu ziran; alan be, iñor be ez zan Ari itauntzera azartu emakumeagandik zer nai eban edo zertzaz ziarduen berbetan.

28 Emakumeak, barriz, ur-pedarrea antxe itzirik eta errira biurtuta, laguntaldeari auxe esan eutsan: 29 "Etorri zaiteze, nik egin dodan guztia igarri daustan gizon bat ikustera. ¿Ez ete-da au Mesias?" 30 Areik erritik urten eta Jesus ikustera joan ziran.

31 Bitartean, ikasleak esan eta esan egiten eutsoen: "Irakasle, jan egizu." 32 Baiña Jesusek arei: "Zuek ezagutzen ez dozuen janari bat daukat nik." 33 "¿Jatekoa ekarri ete-dautso, ba, norbaitek?", zirautsoen alkarri ikasleak. 34 "Nire janaria —azaldu eutsen Jesusek—, bialdu nauanaren naia egitea eta Aren salbamen-lana burutzea da. 35 ¿Ez dozue zuek esaten, ba: lau illabete barru, solo-ariak batzea? Orra or, ba: onezkero, ereintzak elduta dagoz, batzerako. 36 Batzean lan egiten dauanak, bere lan-saria jaso eta betiko bizitzarako garaua batzen dau; onela, ereiten dauana ta batzea egiten dauana biak batera pozten dira. 37 Onetan egia da esakera au: 'Bat da ereiten dauana eta beste bat batzen dauana.' 38 Zuek erein ez zenduen soloan batzera bialtzen zaituet nik; soloa beste batzuek landu eban, eta arein lana ondo daturkizue zuen onerako."

39 Erri aretako bizilagunetariko askok, samaritar emakumearen testigantzak eraginda, Jesusegan jarri eban sinistea, emakumeak auxe iñoran-eta: "Egin dodan guztia igarri daust." 40 Orregaitik, samaritarak, Jesus egoan tokira eldu ziranean, eurakaz geratu zedilla eskatzen eutsoen. Eta antxe geratu zan egun bitan. 41 Orrela, Aren berba berberak entzun aal izan ebezan, eta orregaitik askozaz geiago izan ziran sinistea Jesusegan jarri ebenak, 42 eta emakumeari auxe zirautsoen: "Onezkero ez dogu zuk esandakoagaitik sinisten, geuk entzun dautsagulako baiño; eta ziur gagoz munduaren salbatzailea Auxe dana benetan."

Errege-etxekeko baten semea osatzen dau
(Mt 8, 5-13; Lk 7, 1-10)

43 Egun biak igarota, Jesus Samariatik urten eta Galilearantz joan zan; 44 izan be, Jesusek berak autortu izan eban, profeta dana ez dabela bere errialdean aintzat artzen. 45 Galileara eldu zanean, galilearrak ondo-etorria egin eutsoen. Izan be, eurak be Pazko-jaiegunean Jerusalemen egon izan ziran eta jai aretan Jesusek egin izan eban guztia ikusi izan eban.

46 Ura ardao biurtu izan eban Galileako Kanara joan zan barriro. An, Errege-etxekeko* bat bizi zan, semea Kafarnaunen geisorik eukana. 47 Errege-etxekeok, Jesus eldu zala jakin ebanean, Jesus ikustera joanda, bere etxera bere semea osatzera joan zedilla eskatzen eutsan, il-zorian egoala-ta. 48 Jesusek auxe erantzun eutsan: "Mirariak eta arrigarriak ikusten ez badozue, ez zaree sinisteko gauza". 49 Baiña errege-etxekeok barriro be: "Zatoz laster, Jauna, nire semea il baiño leen." 50 "Zoaz zure etxera —esan eutsan Jesusek—; onezkero zure semea onik dago." Gizon arek sinistu egin eban Jesusek esan izan eutsana, eta joan egin zan.

51 Etxera yoiala, bere morroiak bidera urten yakozan, bere semea onik jarri izan zaneko albistea emotera. 52 Oberuzkoa zein ordutan izan zan itandu eutsen arek. Eta morroiak ari: "Atzo arratsaldeko ordu batetan joan yakon beroena." 53 Orduantxe igarri eutsan aitak, Jesusek esan izan eutsan une aretan bertan asi zala bere semearen oberuzkoa, bere semea onik egoala esan izan eutsanean; eta berak eta bere etxeke guztiak Jesusegan jarri eban euren sinistea.

54 Bigarren mirari au, Judeatik Galileara biurtu zanean egin eban Jesusek.

Betzatako urtegiko elbarriduna

5 1 Orren ostean, judarren jaietariko bat* zala-ta, Jesus Jerusalemenera biurtu zan. 2 Jerusalemen,

Ardi-ate ondoan, eberkeraz Betzata* deritzon urtegi bat dago, bost aterpe daukazana. 3 Aterpe oneitan, geiso asko egozan, lurtean etzunda: itsu, erren eta elbarridunak. (3b Urtegiko uraren eragin-aldiaren zain egozan; 4 izan be, Jaunaren aingeruak, noizean-bein jatsirik, urari eragin egiten eutsan. Ori jazota gero uretan leenen sartzen zana, edozein geisoz egon zeitena be, osatuta geratzen zan.)* 5 Arein artean, ogeta amazortzi urtetan geisorik egoan gizon bat zan. 6 Jesusek, gizon a etzunda ikustean eta ain luzaro egoera aretan egoala jakiñik, "Osatu nai dozu?", itandu eutsan. 7 Eta geisoak Jesusi: "Jauna, ez dot iñor, ura eragitean urtegi sartu nagianik. Ni ara eldu nai dodanean, beste batek aurea artzen daust." 8 Orduan, Jesusek auxe agindu eutsan: "Jagi zaitez, artu zure ogetxoa ta zoaz." 9 Eta bat-batean, geisoa osatuta geratu zan, eta, bere ogetxoa arturik, ibiltzen asi zan.

Baiña egun a jaieguna zan. 9 Orregaitik, judarrak*, osatua izan zanagana joanda, auxe esan eutsoen: "Gaur jaieguna da eta ez yatzu bidezko zure ogetxoa eroatea." 11 Eta osatuak arei: "Osatu nauanak esan daust neure ogetxoa artu ta joateko." 12 Areik auxe itandu eutsen: "¿Nor da zure ogetxoa artu ta joateko esan dautsun gizon ori?" 13 Baiña osatuak ez eban ezagutzen; ez ekian bera osatu izan ebana nor zan, an batutako laguntalde-artetik Jesus ezkutatu egin zan-eta.

14 Zerbait geroago, Jesusek, gizon a jauretxean aurkituta, auxe esan eutsan: "Entzun: osatuta geratu zarean ezker, ez egin pekaturik geiago; okerragoren bat jazo leitekizu." 15 Gizon arek, andik alde eginda, bera osatu izan ebana Jesus zala esan eutsen judarrai.

16 Jaiegunetan be orrelakoak egiten ebazan Jesusek; orregaitik, judarrak aurean erabilten eban. 17 Baiña Jesusek zurutu egiten eban bere egikerea, arei auxe esanez: "Nire aitak lan egiten diardu beti; orregaitik, neuk be lan egiten dot aldi oro." 18 Berba orreik Jesus ilteko gurari geiago sortu eban judarrakan: jaieguna austen ebalako bakarrik ez, Jaun-

goikoari bere Aita eritzalako be bai, bere burua Jaungoikoaren pareko egiñik.

Jaungoikoaren Semearen aginpidea

19 Jesusek berba egiteari ekin eutsan: "Bene-benetan dirautsuet: Semeak, bere buruz, ezin ezer egin daike; Aita egiten ikusten dauana baiño ez dau Semeak besterik egiten. Aitak egiten dauana, axe egiten dau Semeak be. 20 Izan be, maite dau Aitak Semea eta Berak egiten dauan guztia erakusten dautso. Eta oneik baiño egiteko andiagorik be erakutsiko dautso, zeuk be arrituta geratzeraiño. 21 Izan be, Aitak ildakoak biztuten dauzanez, arei bizia emonik, Semeak be berak nai dautsenai emoten dautse bizia.

22 "Aitak ez dau iñor epaitzen; epaitzeko aginpide guztia Semeari emon dautso. 23 Eta Aitak auxe nai dau: Aitari emoten dautsoen gorapen bera emon dagioela Semeari be. Semea goratzen ez dauanak, Bera bialdu dauan Aita be ez dau goratzen. 24 Bene-benetan dirautsuet: nire berbea onartu eta ni bialdu nauana sinisten dauanak, betiko bizia dauko; alakoa ez dago auzipean, bestetara baiño: eriotzatik bizitzara aldatu da.

25 "Benetan dirautsuet: eldu-zorian dago ildakoak Jaungoikoaren Semearen berbotsa entzungo dabeneko ordua, edo-ta obeto esateko, eldu da onezkero, eta berbots ori entzun dagienak, bizira biurtuko dira. 26 Aitak bizia emoteko aal-izatea dauko, eta aal-izate berberori emon dautso Semeari be. 27 Epaitzeko aginpidea be emon dautso, gizonaren Semea da-ta. 28 Ez ikaratu esaten diardudan onetzaz; izan be, elduko da unea, eta orduan, ildako guztiak Aren berbotsa entzungo dabe 29 eta urten egingo dira illobietatik. Ona egin ebenak, betiko bizitzarako biztuko dira; gaiztakeria egin ebenak, barriz, euren ondamendirako.

Jesusen alde testigantza egiten dabena

30 "Ezin ezer egin daiket nik nire buruz. Aitak diraustanez ebazten dot. Nire epaia zuzena da, ez dot nire guraririk billatzen-eta, ni bialdu nauanaren guraria baiño. 31 Neure buruaren testigu lez agertuko banintz, nire testigantzak ez leuke indarrik izango. 32 Beste bat da nitzaz testigantza egiten dauana, eta badakit Aren testigantza agiri sendoa dana. 33 Zeuek bialdu zenduezan mandatariak Joani itauntzera, eta arek egiaren alde egin eban testigantza. 34 Nik ez dot, gero, nire alde testigantza egiteko gizonen bearrizanik; au badirauntsuet, zuek salbatu zaitezzen dirausuet. 35 Joan Bateatzaillea, argi egiten eban argiontzi iziotua lez zan; eta zuek, unetxo baten, aren argiaz pozteko gertu egon zintzazen.

36 "Baiña Joanena baiño testigantza ohea daukat nik nire alde; izan be, Aitak neuk burutzeko itzi eustazan egitekoak, nik egiten dodazan lanak, eurak egiten dabe testigantza nire alde: ni Aitak bialdu nauala. 37 Ni bialdu nenduan Aitak be neure alde egiten dau autor; Aren berbotsik zuek ez dozue iñoiz be entzun, ezta Aren aurpegirik be ikusi. 38 Aren mandatuak ez dau zuekan abegi onik izan; argi agertzen da ori, Aitak bialdu dauana onartu nai ez dozuen ezker. 39 Gartsu ikasten dozuez* Liburu Santuak, betiko bizitza areixetan aurkituko dozuela uste izanik; or ba: ain zuzen be, Liburu Santuak egiten dabe testigantza nitzaz. 40 Ala ta guzti be, zuek ez nozue onartu nai bizi ori lortzeko.

41 "Nik ez dot gizonak emon daikeen gorapenik billatzen. 42 Ondotxo ezagutzen zaituet, gaiñera, eta badakit Jaungoikoa maite ez dozuen. 43 Neure Aitaren izenean etorri naz ni, baiña zuek ez nozue onartzen; beste norbait bere buruaren izenean bator, oster, ori onartu egingo zeuke. 44 ¿Zelan sinistuko dozue zuek, alkarregandik gorapenak artzea baiño barri ez dozuenok, eta Jaungoiko bakarragandik datorren egiazko gorapenaren ardurarik ez

dozuenok? 45 Eta ez uste izan, nire Aitaren aurrean salatu zagiezana neu izango nazanik; Moisesek salatu zaitue, zuen itxaropena Moisesegan jarrita daukazuen ezker. 46 Arek neutzaz idatzi eban*; orregaitik, Moisesi sinistuko bazengioe, neuri be sinistuko zeuskide. 47 Baiña arek idatzi ebana sinisten ez badozue, ¿zelan sinistuko dozue, ba, nik diñodanik?"

Jesusek bost milla gizoni emoten dautse jaten
(Mt 14, 13-21; Mk 6, 32-44; Lk 9, 10-17)

6 1 Zerbait geroago, Jesus Galileako (edo Tiberiadesko*) itsasoaz bestekaldera igaro zan. 2 Laguntalde andiak jarraitzen eutsan, geisoakan egiten ebazan mirariak ikusten ebezan-eta. 3 Jesus mendi batera igo eta antxe jesarri zan bere ikasleak. 4 Laster zan Pazkoa, judarren jai nagusia. 5 Jesusek, laguntalde andia ikustean, Feliperi auxe esan eutsan: "¿Non erosi geike ogia, guztioi jaten emoteko?" 6 (Ori zirikatzeke zirautsan, egingo ebana baekian Berak-eta.) 7 Felipek auxe erantzun eutsan: "Norbaitek urte-erdiko* lan-saria eralgiko baleu be, laguntalde guzti onek agokada bat artzeko be ez litzake ori naikoa izango."

8 Jesusen ikasleatariko beste batek, Anderrek, Simon Pedroren anaiak, auxe esan eban: 9 "Bost garagar-ogi ta arrain bi daukazan mutil bat badago emen; baiña, ¿zer da au onenbestentzat?" 10 Eta Jesusek arei: "Jesarrerazo egizuez guztiak." Bedargaiñean jesarri ziran, ba, guztiak; bedarra, barriz, ugari zan toki aretan. Bost bat milla gizonetako ziran.

11 Jesusek ogiak artu eta, Jaungoikoari eskerrak emonda gero, guztien artean banatu ebazan, eta bardin arraiñak be; eurak nai izan eben aiña emon eutsen. 12 Aseta geratu ziranean, Jesusek bere ikasleak auxe esan eutsen: "Batu egizue geratu dana, ezer be galdu ez dadin." 13 Areik alantxe egin eben, ba, eta geratu ziran ogi-zatiz amabi otzara bete batu

ebezan.

14 Laguntaldeak, mirari a ikustean, alkarri auxe zirautsan: "Gizon au mundura etorteko zan profeta* da benetan." 15 Jesus, orduan, bera eroatea ta errege egitea nai ebela konturaturik, barriro menditxora baztatu zan, bera bakarrik.

Jesus, ur-gaiñean lbiltzen
(Mt 14, 22-27; Mk 6, 45-52)

16 Arratsalde-beranduan, Jesusen ikasleak itsasertzera jatsi ziran, 17 eta, txalupara igorik, Kafarnaunerantz abiatu ziran. Orduko, illunduta egoan, eta Jesus ez zan eldu izan. 18 Bat-batean, aize gogorra jaso zan, eta aizeak arrotu egin eban itsasoa. 19 Bost edo sei kilometro* egin ebezan, Jesus ikusi eben ur-gaiñean ibiltzen eta txalupara urreratzen. Bildurtu be bildurtu egin ziran; 20 baiña Jesusek auxe esan eutsen: "Neu naz. Ez izan bildurrik." 21 Orduan, txalupan sartu nai izan eben Jesus, baiña txalupea berealaxe eldu zan eurak yoiazan tokira.

22 Biaramonean, itsasoaz bestekaldean geratu zan laguntaldea an txalupa bat bakarrik egon zala konturatu zan, eta baekien, gaiñera, Jesus bere ikasleak txalupa aretan sartu ez zana, ikasleak soillik joan zirala baiño.

Bizi-ogiari buruzko berbaldia

23 Bitartean, Tiberiades-uritik* txalupa batzuk ara elduta, Jaunak esker-emotea* egin ebanean laguntaldeak ogia jan izan eban toki-ondoan legorreatu ziran. 24 Ez Jesus, ezta Beronen ikasleak be, an ez egozala konturatu ziranean, txalupetara igo eta Kafarnaunera jo eben, Jesusen billa. 25 Itsasoaz bestekaldean aurkitu ebanean, auxe itandu eutsen: "Irakasle, ¿noiz etorri zara, ba, ona?" 26 Eta Jesusek arei: "Benetan dirausuet: ase arte ogia jan dozuelako zabize nire billa; ez, oster, ikusi dozuezan mirariakaitik. 27 Ez arduratu orrenbeste alperrik galtzen

dan janariagaitik; aalegindu zaitez, bai, irauten dauan janaria lortzen, betiko bizia emoten dauan janaria lortzen! Auxe da Gizaseme onek emongo dautsuen janaria; Gizaseme au da, izan be, Aita Jaungoikoak bere agintaritzaren ezaugarriaz* izentatu dauana." 28 Areik auxe itandu eutsen: "¿Zer egin bear dogu Jaungoikoak nai dauana egiteko?" 29 Eta Jesusek arei: "Jaungoikoak zuekandik itxaroten dauana auxe da: Berak bialdu dauan A sinistu dagizuela." 30 Eta areik Jesusi: "¿Zeintzuk dira, ba, zure ezaugarriak, sinistea zeugan jarri dagigun? 31 Gure asabek basamortuan mana jan eben, Liburu Santuak diñoanez: *Zerutiko ogia emon eutsen jaten* *."

32 "Benetan dirausuet —erantzun eutsen Jesusek—: zeruko ogia emon eutsuena ez zan izan Moises. Neure Aita da zeruko egiazko ogia emoten dautsua. 33 Jaungoikoak emoten dauan ogia zerutik jatsiten da, eta ogi orrek munduari bizia emoten dautso." 34 Orduan, areik auxe esan eutsen: "Jauna, emon egiguzu beti ogi ori." 35 Eta Jesusek arei: "Neu naz bizitarako ogia. Nigana etorri daitena, ez da iñoiz be gose izango; sinistea neugan jarri dagiana, ez da iñoiz be egarri izango*. 36 Baiña zuek, leen esan dautsuedanez, ni ikusi izanarren be ez dozue sinisten*. 37 Aitak emon daitan edonor, neugana etorriko da, eta nigana etorri daitena* nik ez dot iñoiz be baztartuko. 38 Izan be, ez naz ni zerutik jatsi neuk gura dodana egiteko, bialdu nauanarenak gura dauana egiteko baiño. 39 Eta auxe da Aitak gura dauana: Berak emon daustazanetarik bat bera be nik ez dagidala galdu, azken-egunean biztu dagidazala baiño. 40 Nire Aitak auxe nai dau: Semea ikusi ta onartu dagien guztiak, betiko bizia izan dagiela; nik, barriz, biztu egingo dodaz alakoak azken-egunean."

41 Judarrak Jesusetzaz mormoxetan asi ziran, "zerutik jatsitako ogia" Bera zala esan izan ebalako. 42 Auxe iñoen: "Au, Jesus da, Joserren semea. Ezagutzen doguz onen aita ta ama. ¿Zelan azartzen da, ba,

zerutik jatsi dala esaten?" 43 "Ez jardun mormoxetan alkarregaz —erantzun eutsen Jesusek—. 44 Iñok ezin onartu naike ni, bialdu nauan Aitak erakarten ez badau; nik, barriz, biztu egingo dot alakoa azken-egunean. 45 Profeten liburuetan auxe dago idatzita: *Jaungoikoaren ikasle izango dira guztiak**. Aitak diñoana entzuten eta Aren irakaspina onartzen dauan edonok, neu onartzen nau. 46 Onek ez dau adierazoten norbaitek Aita ikusi dauanik. Jaungoikoagandik etorri danak bakarrik ikusi dau Aita.

47 "Benetan dirausuet: sinisten dauanak*", betiko bizia dauko. 48 Neu naz bizitzarako ogia. 49 Zuen asabak, basamortuan mana janarren be, il egin ziran. 50 Baiña nik diñodan ogia zerutik jatsi da, ogi au jan dagiana il ez daiten. 51 Neu naz zerutik jatsitako ogi bizia. Ogi onetatik jan dagiana, betiko bizi izango da. Eta nik emongo dodan ogia, neure aragia da. Munduak bizia izan dagian emoten dot nire aragia."

52 Orrek eztabaida gogorra sortu eban judarren artean, eta alkarri auxe itauntzen eutsoen: "¿Zelan emon daiskegu (*leikigu*) Onek bere aragia jateko?" 53 "Benetan dirausuet —esan eutsen Jesusek—: Gizaseme onen aragia jaten eta beronen odola edaten ez badozue, ez dozue zuekan bizitzarik izango. 54 Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dauko, eta neuk biztuko dot alakoa azken-egunean. 55 Nire aragia egiazko janari da; nire odola egiazko edari da. 56 Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan bizi da, eta ni aregan. 57 Ni bialdu nauanak, Aitak, bizia dauko, eta ni Berari eskerrak bizi naz. Orrela, ni jan nagiana be, neuri eskerrak bizi izango da. 58 Auxe da zerutik jatsi dan ogia, eta ez da, gero, zuen asabak jan eben lako ogia*. Areik il egin ziran; ogi au jan dagiana, betiko bizi izango da."

59 Guzti ori, Kafarnaungo sinagogan esan eban Jesusek.

Jesusen berbak, betiko bizitzarako berbak

60 Jesusi jarraitzen eutsoenatariko askok, guzti ori entzutean, auxe esan eben: "Irakaspen ori onartu ezifñezkoa da. ¿Nok onartu daike orrelakorik?"

61 Jesusek, bere jarraitzaileetariko askok bere irakatsiari buruz mormoxetan ziarduela konturaturik, auxe esan eutsen: "¿Gogor egiten yatzue au ontzat artzea? 62 ¿Eta zer jazoko litzake Gizaseme au leen egoan tokira igoten ikusiko bazendue? 63 Espiritua da bizia emoten dauana; aragiak ez dau ezetariko balio. Nik esan dautsuedazan berbak, espiritu ta bizia dira. 64 Baiña zuetariko batzuek ez dabe sinisten." (Jakín be baekian Jesusek asierarik, sinisten ez ebenak nortzuk ziran eta Bera salduko ebana nor zan.) 65 Eta auxe esan eban gaiñera: "Orrexegaitik esan dautsuet, ezin onartu naikela iñok neure Aitak erakarten ez badau."

66 Arrezkero, Jesusi jarraitzen eutsoenatariko askok atzeruntz egin eben, eta gero ez ebizan Jesusegaz.

67 Orduan, Jesusek Amabiai auxe itandu eutsen: "¿Zuek be bertan-beera itzi nai nozue?" 68 Eta Simon Pedrok Jesusi: "Jauna, ¿nogana joango gintzakez? Zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira. 69 Guk sinisten dogu eta badakigu Zu Jaungoikoaren Santua zareana." 70 Eta Jesusek arei: "¿Ez zaituet, ba, nik Amabiok aukeratu? Alan be, zuetariko bat deabru da." 71 Simon Iskarioterren seme Judasi buruz iñoan ori. Izan be, Judasek, Amabietariko bat zanak, Jesus saldu egingo eban.

Txabola-jaia

7 1 Zerbait geroago, Jesus Galilean zear ebillen. Ez eban nai Judean zear ibilterik, judarrak Bera ilteko aukera-billa ebizan-eta. 2 Judarren Txabola-jaia* laster zala, 3 Jesusen senideak auxe esan eutsoen: "Emendik urten eta Judeara joan bear zeuke, zuk egiten dozuzan egintza andiak an zeure

jarraitzaileak be ikusi aal dagiezan. 4 Bere burua ezagutua izatea nai dauan iñok be ez dau ezkutuan jarduten. Izan be, orrelako egintzak egiten dozuzan ezkerro, zure burua guztiai agertzeko eraz egizuz."

5 Jesusen senideak eurak be Jesus onartzen ez ebilako egiten eben berba orrela.

6 Jesusek auxe esan eutsen: "Nire ordua ez da oraindiño eldu; zuentzat, ostera, edozein ordu da ona. 7 Munduak* ez dauko zuei gorroto izateko ziorik; baiña niri bai, niri gorroto daust, bere egintzen gaiztakeria bere begien aurrean argi-argi jarten dautsat-eta. 8 Zoaze zeuek jai orretara. Ni ez noa, nire ordua ez da oraindiño eldu-ta."

9 Ori esanda, Bera Galilean geratu zan. 10 Geroago, barriz, bere senideak jaitara joan izan ziran-ean, Jesus be araxe joan zan; baiña agirian ez, ezkutuan baiño. 11 Judarrak, jai-bitartean, Jesusen billa ebizan. "¿Non egongo ete-da gizon ori?", zirautsoen alkarri" 12 Eta laguntaldeak be Aretzaz zurrumurrua erabillen. "Gizon ona da", iñoen batzuek. "Bai, zera! —erantzuten eben beste batzuek—; erria naasten diardu." 13 Alan be, judarrakanako* bildurrez, iñok ez eban Aretzaz agirian berba egiteko aurpegirik.

Jesusek irakatsi egiten dau jauretxean

14 Jaietako erdi-aldean, Jesus, jauretxean aurkezturik, irakasten asi zan. 15 Judarrak, ikaratuta, alkarri auxe zirautsoen: "¿Zelan izan daiteke gizon onenbeste gai* jakitea, iñon ikasi bagarik?" 16 Eta Jesusek arei: "Nik irakasten dodan irakaspina ez da nirea; ni bialdu nauan Arena da. 17 Jaungoikoak nai dauana egiteko gertu dagoanak, ezagutuko dau nik irakasten dodana Jaungoikoagandik dan, ala neure buruz egiten dodan berba. 18 Berba bere buruz egiten dauanak, bere buruaren aintza billatzen dau; bialdu dauanaren aintza billatzen dauana, ostera, gizon egizale da, ez dago azpikeriarik aregan. 19 ¿Ez da, ba, Moises Legea emon eutsuena? Alan be,

zuetariko batek be ez dau Legea beteten. ¿Zegaitik nai nozue il?" 20 Laguntaldeak auxe erantzun eutsan: "Deabrua daukazu zuk barruan! Nok nai zaitu il?" 21 Eta Jesusek arei: "Jaiegunez lan egin dodalako, pekatari nazala uste dozue zuek. 22 Aunartu egizue une baten: Moisesek erdaintzua ezarri eutsuen (erdaintzua Moisesegandik datorrelako ez, orraitino, erri-gurasoakandik datorrelako baiño), eta oitura ori beteteko, jaiegunez be erdaintu egiten dozue edonor. 23 Beraz, Moisesek ezarritako lege bat ez austearren, erdaintzua jaiegunez be beteten badozue, ¿zegaitik sumindu zaree orrenbeste nire aurka, gizon bat jaiegunez osatu dodala-ta? 24 Ez dozue azaletik epaitu bear; zuzentasunez epaitu bear dozue."

Eztabaldak Jesusen nortasunari buruz

25 Alan ba, Jerusalemen bizi ziran batzuek auxe iñoen euren artean: "¿Au ez da, ba, il nai dabena? 26 Begira zelan egiten dauan berba agiri-agirian, eta iñok ez dautso ezer be esaten. ¿Gure agintariak ezagutu egin ete-dabe, au Mesias dala benetan? 27 Baiña Mesias agertu daitenean, ez dau iñok jakingo nondik datorren; au, ostera, badakigu nongoa dan."

28 Jesusek, barriz, jauretxean irakasten ziarduela, auxe esan eban deadarka: "¿Ni ezagutzen nozuela eta badakizuela nongoa nazan? Alan be, ni ez naz neure buruz etorri; egia dan Arek bialdu nau ni, eta zuek ez dozue A (*Aita Jaungoikoa*) ezagutzen. 29 Nik bai, A ezagutzen dot, Beragandik nator eta Bera da bialdu nauana-ta."

30 Orduan, Jesusi eltzea nai izan eben, baiña iñor ez zan Ari eskurik ezarten azartu, Aren ordua ez zan arteetan eldu izan-eta. 31 Askok jarri eben sinistea Jesusegan, eta alkarri auxe zirautsoen: "Mesias etorri daitenean, ¿onek egiten dauzan baiño mirari andiagorik egingo ete-dau, gero?"

32 Parastarrak jakiñean jarri ziran laguntaldeak Jesusi buruz berba egiten ebanaz; eta, abadeburua-

kaz alkar arturik, jauretxeko zaintzailleak bialdu ebezan, Jesusi eltzeko aginduaz. 33 Baiña Jesusek auxe esan eutsen: "Aldi labur baten egongo naz oraindiño zuekaz; gero, bialdu nenduagana joango naz barriro. 34 Neure billa ibiliko zaree, baiña ez nozue aurkituko, ni egongo nazan tokira zuek ezin etorri aal izango zaree-ta."

35 Judarrak alkarri auxe zirautsoen: "¿Nora joango ete-da, ba, gizon au, guk ezin aurkitu aal izateko? ¿Grezitarren* artean sakabanatuta dagozan judarrakaz bizi izatera joateko asmoa izango ete-dau, ba, grezitarrai bere mandatua irakastera? 36 ¿Zer esan nai ete-dau berba orrekaz: Neure billa ibiliko zaree, baiña ez nozue aurkituko, ni egongo nazan tokira zuek ezin etorri aal izango zaree-ta?"

Espirituaren ur bizla

37 Azkenengo egunean, jaietako egunik andie-nean, Jesusek, zutunik, auxe esan eban deadarka: "Egarri izan daitena, neugana etorri daitela; sinistea neugan jarri dagianak, edan dagiala*. 38 Ori Liburu Santuak diño: *Aren barrutik ur bizizko errekek sortuko dira**."

39 Sinistea Beragan jarri egienak artuko eben Espirituari buruz iñoan ori Jesusek. Izan be, ez zan arteetan Espiritua etorri, Jesus arteetan ez zan goratua izan-eta.

Laguntalde-arteko eztabaldak

40 Jesusen berbok entzutean, laguntaldekoetariko batzuek, "Auxe da, benetan, itxaroten dogun profeta*", iñoen 41 "Mesias da au", iñoen beste batzuek. Beste batzuek, ostera: "Baiña, ¿Galileatik etorri daiteke, gero, Mesias? 42 ¿Liburu Santuak ez diño, ba, Mesiasek Dabiden jatorrikoa eta beronen errikoa, Belengoa, izan bear dauala?"

43 Oso bananduta egozan, ba, eretxiak Jesusi buruz. 44 Batzuek Jesusi oratzea nai eben, baiña iñor

ez zan azartu Ari eskurik ezarten.

45 Beraz, jauretxeko zaintzailleak Jesus bagarik biurtu ziran. Abadeburuak eta parastarrak auxe itandu eutseen: "¿Zegaitik ez dozue ekarri?" 46 "Gizon orrek lez ez dau iñoiz be iñok berba egin", erantzun eben zaintzailleak. 47 Eta parastarrak arei: "¿Zorabiatu egin zaitue zeuek be? 48 ¿Ez zaree konturatzen, gure nagusi edo parastarretariko batek be ez dau sana orri sinisten? 49 Auxe bai: Legea ezagutzen ez daben laguntaldeko orreik madarikatuak dira."

50 Baiña areitariko batek, Nikodemok, beste bein Jesusegaz isillean alkarrizketa bat egin izan ebanak berak, auxe esan eban: 51 "Izten ete-dau, gero, gure Legeak norbait galtzen, ari aurretiaz entzun bagarik, arek egin dauana jakin baiño leen?" 52 Eta besteak ari: "¿Zu be Galileakoa zara, ala? Aztertu egizuz Liburu Santuak, eta andixek atarako dozu Galileatik iñoiz be ez dana profetarik urten."

[* 53 Eztabaidea amaituta, baktotxa bere etxera joan zan.

Emakume ezkontza-naastalllea

8 1 Jesus Oriomendira* joan zan. 2 Goizeangoiz, jauretxean aurkeztu zan, eta laguntalde guztia Aren inguruan batu zan. Jesarri eta irakasten asi yaken. 3 Orduan, Lege-irakasleak eta parastarrak ezkontza austen aurkitu izan eben emakume bategaz aurkeztu ziran. Guztien aurrean jarri eben 4 eta Jesusi gai au agertu eutsoen: "Irakasle, emakume au agiri-agirian ezkontza urratzen aurkitu dabe. 5 Onelako emakumeak arrika ilteko agintzen dausku Moisesen legeak. ¿Zer diñozu zuk?"

6 Gaia, zirikatzeke asmoz agertu eutsoen, zerbaitetan salatu aal izateko.

Jesus, makurturik, atzamarraz lurrean* idazten asi zan. 7 Areik itaunka ekiten eutsoela ikusirik, Jesusek, zutundurik, auxe esan eutsen: "Zuetariko-ren bat pekatu bagarik egon daitenak, jaurti dagiola leenengo arria."

8 Ori esanda, barriro makurturik, idatzi egiten eban lurrean. 9 Jesusen berbok entzutean, banan-banan alde egiñez yoiazan, zaarrenetarik asirik. Jesus soillik geratu zan, emakumea an erdian egoala. 10 Jesusek, zutundurik, auxe itandu eutsen: "Andra, ¿non dagoz guzti orreik? ¿Areitariko batek be ez dau izan zu galtzeko aurpegirik?" 11 "Iñok be ez, Jauna", erantzun eutsan emakumeak. Eta Jesusek ari: "Neuk be ez zaitut galtzen. Zoaz, eta ez egin pekatuak aurrerantzean.]"

Jesus, munduaren argi

12 Jesusek barriro auxe esan eutsen: "Neu naz munduaren argia. Niri jarraitu daistana, ez da illunetan ibiliko, bestetara baiño: alakoak argia eukiko dau." 13 Ori entzutean, parastarrak auxe esan eutsoen: "Zuk zeure auzian egiten dozu testigantza; beraz, zure testigantzak ez dauko indarrak." 14 Eta Jesusek arei: "Nik testigu neure auzian egiñarren be, badauko indarra nire testigantzak, nondik etorri nazan eta nora noan badakit-eta. Zuek, ostera, ez dakizue nondik natorren, ezta nora noan be."

15 Zuek aragi-bidez epaitzen dozue. Nik ez dot iñor epaitzerik nai, 16 eta, epaitzen dodanean, nire epaiak balio dau, ez nago ni bakarrik-eta; ni bialdu nenduan Aita dago nigaz. 17 Gizon biren baterako testigantzak balio dauala dago idatzita zuen Legean. 18 Onela, ba, neu naz testigu nire auzian, eta ni bialdu nenduan Aita be bada testigu nire auzian."

19 Areik auxe itandu eutsoen: "¿Non dago, ba, zure Aita?" Eta Jesusek arei: "Ez ni, ez nire Aita, ez gaitzue ezagutzen; ni ezagutu banengizue, neure Aita be ezagutuko zeukee."

20 Berbok, jauretxean irakasten ziarduan artean, esan ebazan Jesusek, eskintzak batzeko kutxak dagozan tokian.* Baiña iñor ez zan Jesusi oratzen azartu, Aren ordua ez zan arteetan eldu izan-eta.

"Ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitetekeze"

21 Jesusek auxe esan eutsen barriro: "Ni banoa. Neure billa ibiliko zaree, baiña zuen pekatuak erioztzara eroango zaitue; ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitetekeze." 22 Judarrak alkarri auxe zirautsoen: "Onek bere burua ilteko asmoa izango ete-dau, ba, Ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitetekeze diño-ta?" 23 Jesusek argiago esan eutsen: "Zuek beeko mundu onetakoak zaree; ni goiko mundukoa naz. Zuek mundu onetakoak zaree; ni ez. 24 Orregeaitik esan dautsuet zuen pekatuak erioztzara eroango zaituela. Izan be, ni, nazana nazala* sinisten ez badozue, zuen pekatuak erioztzara eroango zaitue." 25 Orduan, "¿Nor zara, ba, zu?", itandu eutsoen judarrak. Eta Jesusek arei: "Ain zuzen be, auxe da asierarik zuei esaten diardudana*. 26 Badot zuei buruz esatekorik eta ebaztekorik naikoa. Baiña munduari dirautsadan, bialdu nenduanari entzun neutsana da, eta Arek egia diño."

27 Areik ez ziran konturatu Aitari buruz berba egiten ziarduanik; 28 beraz, Jesusek auxe esan eutsen gaiñera: "Gizaseme au gora jaso dagizue-nean, orduantxe ezagutuko dozue ni, nazana nazala, eta nire buruz ez dodana ezer be egiten; Aitagandik ikasi nebana bakarrik irakasten dot. 29 Ni bialdu nenduan neugaz dago, eta Arek ez nau bakarrik itzi, nik beti Berak atsegin dauana egiten dot-eta."

30 Jesusi orrela berba egiten entzutean, askok jarri eben sinistea Aregan.

Eglak gizona askatu egiten dau

31 Sinistea Beragan jarri eben judarrai, Jesusek auxe esan eutsen: "Nire mandatuan zintzo irauten badozue, neure ikasle izango zaree benetan; 32 orrela, egia ezagutuko dozue, eta egiak askatu egingo zaitue." 33 Eta areik Jesusi: "Gu Abrahamen jatorriko gara; ez gara iñoiz be iñoren morroi izan; ¿zer adierazoten dau, ba, askatuak izango zaree orrek?" 34

“Benetan dirautsuet —erantzun eutsen Jesusek—: pekatu egiten dauan edonor, pekatuaren morroi da. 35 Eta morroia ez da etxean betiko geratzen; semea, ostera, etxekoen atal da beti. 36 Orregaitik, Semeak askatasuna emoten badautsue, askatuak izango zaree benetan. 37 Badakit Abrahamen jatorriko zareena. Alan be, nire mandatua zuekan sartzen ez dalako, il egin nai nozue. 38 Aitaren ondoan neuk ikusi dodana agertzen dabe nire berbak; zuen egitadak, barriz, zeuen aitagandik ikasi dozuena agertzen dabe.”

¿Abrahamen semeak, ala deabruaren semeak?

39 Areik auxe esan eben: “Gure aita, Abraham da.” Eta Jesusek arei: “Abrahamen seme benetan bazintzaze, berak egin ebana egingo zeukee. 40 Zuek, barriz, Jaungoikoagandik beragandik ikasi neban egia esan dautsuedalako, zuek il egin nai nozue. Ez zan ori izan Abrahamek egin ebana. 41 Zuek, zeuen aitaren egintzak egiten dozuez.” “Gu ez gara sasi-kume* —erantzun eutsuen areik—. Gure aita, Jaungoikoa bakarrik da.” 42 Eta Jesusek arei: “Zuen aita Jaungoikoa balitz benetan, maite izango nendukezue, ni Jaungoikoagandik etorri eta emen Berak bialduta nago-ta. Ez naz neure buruz etorri, Berak bialduta baiño. 43 Nik diñodana ulertzen ez badozue, nire mandatua onartu nai ez dozuelako da, argi ta garbi. 44 Zuen aita, deabrua da; arexenak zaree zuek, eta aren gurariak beteten aalegintzen zaree. A, giza-iltzaille izan da asierarik, eta arek ez dau egian iñoiz be iraun. Orregaitik, arek ez dauko egiarik beragan. Guzurra diñoanean, barruan daukanaz egiten dau berba, guzurtia ta guzuraren aita da-ta. 45 Orrexe-gaitik ez nozue zuek sinisten, nik egia diñodalako. 46 ¿Zuetariko nok egiaztu daike nigan pekatu-rik? Egia badirautsuet, barriz, ¿zegaitik ez daustazue sinisten? 47 Jaungoikoagandik danak, Jaungoikoaren berbak onartu egiten dauz; baiña, zuek Jaungoikoaren seme ez zareen ezkerro, orrexe-gaitik ez dozuez Aren ber-

bak onartzen.”

Jesús eta Abraham

48 Judarrak auxe erantzun eutsuen: “Zuen diñogu guk, zu samaritarra* zareana eta barruan deabrua daukazuna.” 49 “Nik ez daukat deabru-rik —erantzun eban Jesusek—; nik neure Aita goratzen dot; zuek, ostera, iraindu egiten nozue. 50 Ni ez naz bizi nire aintzaren arduratan. Bada beste bat orren ardurea daukana, eta Berari dagokio epaitzea. 51 Benetan dirautsuet: nire mandatua onartzen dauana, ez da iñoiz be ilgo.”

52 Judarrak, ori entzutean, auxe esan eutsuen: “Oraintxe bai gagozala ziur be ziur deabrua daukazuna! Abraham il egin zan, profetak be il egin ziran; eta, Nire mandatua onartzen dauana, ez da iñoiz be ilgo’ diñoizu, zuk. 53 ¿Gure aita Abraham baiño geiago ete-zara, ba, zu? A, il egin zan; profetak be il egin ziran. Nor egiten dozu zuk zure burua?” 54 “Nik neure burua goratu banegi —erantzun eutsen Jesusek—, nire gorapenak ez leuke indarririk izango. Baiña goratzen nauana neure Aita da, zeuen Jaungoikoa dala diñozen berbera. 55 Ezagutu, zuek ez dozue A ezagutzen; nik, ostera, bai, nik A ezagutzen dot; eta, ez dodala ezagutzen esan banegi, zeuk baizen guzurti izango nintzake. Baiña nik A ezagutzen dot benetan eta Aren agindu-ai esana egiten dautset. 56 Abraham, zuen aita, nire etorrerearen eguna ikusiko ebalakotan, poztu egin zan; eta ikusi egin eban nire eguna eta poztu egin zan.”

57 Judarrak auxe erantzun eutsuen: “Berrogeta amar urte be ez dozuz oraindiño, ¿eta Abraham ikusi dozula?” 58 “Benetan dirautsuet —erantzun eutsen Jesusek—: Abraham jai-oi baiño leen be banaz ni.”

59 Ori entzutean, judarrak arriak artu ebezan Jesusi jaurtiteko; baiña Jesus gorde eta jauret- xetik urten egin zan.

Jaiotez itsua

9 1 Jesusek, bidez yoiala, jaiotez itsua zan gizon bat ikusi eban. 2 Bere ikasleak itaun au egin eutsuen: “Irakasle, ¿zegaitik jai-oi da itsu gizon au? Nok dau errua, beronen pekatuak ala onen gurasoenak?” 3 Eta Jesusek arei: “Ez beronen pekatuak, ez onen guraso- enak ez dabe errurik; orregan Jaungoikoaren aal- izatea agertu daiten jai-oi zan orrela. 4 Egun-argi dan artean, bialdu nenduanaren lana egin bear dogu; gaba datorrenean, iñok ezin lanik egin daike. 5 Munduan nagoan artean, munduaren argia naz ni.”

6 Ori esanda, txistua jaurti eban lurrera, lokatza apur bat egin eta lokatzea gizon aren begien gaiñean zabaldu eban. 7 Gero, auxe esan eutsan: “Orain, zoaz eta garbitu zaitetz Siloeko* urtegian” (Silo- e itzak ‘Bialdua’ adierazoten dau).

Itsua joan eta garbitu egin zan, eta, barriro etorri zanean, ikusi egiten eban. 8 Auzokoak eta leen eskean ikusten ebelako ezagutzen eben guztiak, auxe iñoen euren artean: “¿Au ez da, ba, emen jesarrita egoten zana eta limosnea eskatzen ebana?” 9 “Bai, bera da”, iñoen batzuek. Beste batzuek, ostera, bera ez zala iñoen. “Ez da bera —iñoen—, bere antzeko bat baiño.” Baiña arek, “Neu naz”, iñoan. 10 “¿Zelan lortu dozu, ba, ikustea?”, itandu eutsuen areik. 11 Eta arek: “Jesus izeneko gizon orrek, bere txistuaz lokatza apur bat eginda, nire begien gaiñean za- balduta, auxe esan eustan” “Zoaz eta garbitu zaitetz Siloeko urtegian”. Ni joan, garbitu, eta ikusten asi nintzan. 12 “¿Eta non dago orain gizon ori?”, itandu eutsuen. “Ez dakit”, erantzun eutsen arek.

Parastarrak jazoaz aztertzen

13 Leen itsu izandako gizona parastarren aurrera eroan eben. 14 Jesusek, txistuaz lokatzea egiñik, ikusmena emon izan eutsan eguna, jai-eguna zan. 15 Beraz, ikustea zelan lortu izan eban itandu eutsuen parastarrak. Eta arek: “Nire begien gaiñean lokatza

apur bat zabaldu eban, garbitu nintzan eta orain ikusi egiten dot.” 16 Parastarretariko batzuek auxe esan eben: “Gizon ori ezin artu daikeite Jaungoikoagan- diko gizontzat, jai-egunik ez dau gordeten-eta.” Beste batzuek, ostera, auxe iñoen euren artean: “¿Zelan egin daike orrelako miraririk gizon pekatari batek?”

Orrek, alkar banandu egin ebazan. 17 Orduan, itsu izan zanari barriro itandu eutsuen: “Arek ikus- mena emon eutsun ezkerro, ¿ze(r) eretxi dozu zuk gizon orretzaz?” “Nire ustez, profeta da”, erantzun eutsen arek.

18 Judarrak ez eben sinisten gizon a itsua izan zanik eta arek ikustea lortu ebanik. Beraz, aren gurasoai dei egin 19 eta auxe itandu eutseen: “¿Au da zuen semea, itsu jai-oi zala diñozuen? ¿Zelan ikusten dau, ba, orain?” 20 Aren gurasoak auxe erantzun eben: “Badakigu au geure semea dana eta itsu jai-oi zana. 21 Orain zelan ikusten dauan, ostera, ez dakigu guk; ikusmena nok emon dautsan be ez dakigu guk. Itandu egiozue berari; baditu urteak; berak erant- zungo dau bere alde.”

22 Judarrai bildur eutseelako erantzun eben orrela aren gurasoak; izan be, Jesus Mesias- zat onartu egien guztiak sinagogatik kanpora botateko erabagia artu izan eben judarrak. 23 Orrexe-gaitik esan eben aren gurasoak: “Itandu egiozue berari, baditu urteak-eta.”

24 Parastarrak itsu izandakoari bigarre- nez dei egin eta auxe esan eutsuen: “Guk badakigu gizon ori pekatari dana. Autortu egizu ori zeuk be Jaungoi- koaren aurrean.”* 25 “Pekatar- i dan ala ez, nik ez dakit —erantzun eban itsu izan zanak—. Nik auxe bakarrik dakit: ni leen itsua nintzala, eta orain ikusi egiten dodala.” 26 Barri- ro be arek: “¿Zer izan zan zuri egin eutsuna?” 27 Arek auxe erantzun eutsen: “Leen be esan dautsuet eta ez daustazue jaramonik egin; ¿zegaitik nai dozue entzun barriro? ¿Ala, zeuk be Aren ikasle egin nai dozue?”

28 Parastarrak ari irainka asi yakozan, eta auxe esan eutsuen: “Zeu zara gizon orren ikasle; gu Moi-

sesen ikasle gara. 29 Guk badakigu Moisesi Jaungoikoak egin eutsana berba; gizon orretzaz, barriz, ori nongoa danik be ez dakigu." 30 Arek auxe erantzun eutsen: "Orixe bai dala arrigarria benetan! Orrek niri ikusmena emon, eta ori nongoa danik be ez dakizuela! 31 Jakiña da Jaungoikoak pekatariak ez dautsena ezer entzuten; Jaungoikoa goratzen eta Aren naia beteten dauanari, ostera, bai, orri entzun egiten dautso. 32 Iñoiz be ez da esaten entzun, iñok itsu jaiori ikusmena emon dautsanik. 33 Gizon ori Jaungoikoagandik ez baletor, ezer be ezin egin leisket niri." 34 Arek auxe erantzun eutsoen: "Pekatu utsetan jai zintzazan, ¿eta zeu guri irakatsiak emoten?" Eta sinagogatik kanpora bota eben.

Judarren barruko itsukeria

35 Jakin eban Jesusek gizon a sinagogatik kanpora bota izan ebena, eta, aren billa joanik, auxe itandu eutsan: "Jarten dozu zure sinistea Gizon aregan?" Eta arek Jesusi: 36 "Esan egidazu nor dan, Jauna, sinistea aregan jarri dagidan." 37 Eta Jesusek ari: "A ikusten diarduzu; zeugaz berba egiten diarduana da." 38 Eta gizon arek Jesusi: "Sinisten dot, Jauna." Eta auspaztu egin zan Jesusen aurrean.

39 Orduan, Jesusek auxe esan eban: "Ni zuzenbidea egitera etorri naz mundu onetara: itsuai ikusmena emotera, eta ikustea badabela uste dabenai ikusmena kentzera." 40 Ori entzutean, parastar batzuek auxe itandu eutsoen: "¿Geu be itsututa gagozala esan nai ete-dozu, ba?" 41 Eta Jesusek arei: "Zuen buruak itsutzat bazenduez, ez legoke pekatu-rik zuekan; baiña ikusi egiten dozuela uste dozuen ezker, zuen pekatuak iraun egiten dau.

Artzaiña ta artaldea

10 1 "Benetan dirautsuet: arditegira* atetik sartu bearrean, beste alde batetik sartzen dana, lapurra ta arrapatzailea da. 2 Artzaiña atetik sartzen da. 3 Oni

atezaiñak zabaldu egiten dautso atea, eta ardiak berealaxe ezagutzen dabe artzaiñaren berbotsa; artzaiñak ardiak baktoxaren izenez egiten dautse dei, eta arditegitik kanpora ataraten dauz. 4 Ardi guztiak urtenda gero, arein aurrean doa; eta ardiak jarraitu egiten dautsoe, aren berbotsa ezagutzen dabe-ta. 5 Arrotzari, ostera, ez dautsoe iñoiz be jarraitzen, bes-tetara bai: iges egiten dabe aregandik, arrotzaren berbotsa ez-ezagun egiten yake-ta."

6 Jesusek adibide ori esan, bai, esan eutsen; baiña arek ez eben ulertu adibidearen esania.

Jesus da artzain ona

7 Orduan, Jesusek berba onein bidez azaldu eutsen adibide ori:

"Benetan dirautsuet: neu naz arditegiko atea. 8 Ni etorri baiño leen, orelako gurariz aurkeztu ziran guztiak, lapurrak eta arrapatzaileak ziran. Orre-gaitik, ardiak ez eutseen jaramonik egin. 9 Neu naz egiazko atea. Arditegian ate onetatik sartu daiten edonor, onik urtengo da; sartu-urtenak zabal-zabal egingo dauz eta beti aurkituko dau alakoak bere janaria. 10 Lapurrak, etorten danean, il eta ondatu baiño ez dau egiten. Ni, guztiak bizia izan dagien etorri naz, eta izan be bizia ugari izan dagien.

11 "Neu naz artzain ona*. Artzain onak ardien alde bere bizia emoten dau; 12 morroiak, ostera, ez, egiazko artzain eta ardien jabe ez da-ta; eta orre-gaitik, morroiak otsoa etorten ikusten dauanean, ardiak bertan-beera itzita, iges egiten dau, otsoari ardi batzuk ondutzen eta beste batzuk sakabanatzen itzirik. 13 Izan be, morroiak lan-saria baiño ez dau barri; ez dauko ardien ardurarik.

14-15 "Neu naz artzain ona. Aitak ni ezagutzen nauanez eta nik Aita ezagutzen dodanez, olantxe ezagutzen dodaz nik nire ardiak eta arek be ezagutzen nabe ni. Eta nire ardien alde bizia emoten dot. 16 Arditegi onetan ez dagozan beste ardi batzuk be badodaz; orreik be erakarri egin bear dodaz, nire

berbotsa ezagutu dagien. Orduan artalde bakarra izango da, artzain bakarraren zainpean.

17 "Neure bizia emoten dodalako be maite nau Aitak, bizia barriro artuko dodanarren be. 18 Iñok be ez dauko niri bizia kentzeko aalmenik; neuk emoten dot neure gogoz. Bizia emoteko eskubidea dot, baita barriro neugantzeko be; eta auxe da nire Aitaren aginduz bete bear dodan egikizuna."

19 Jesusen berba orreik zirala-ta, judarren artean eztabaida barriak sortu ziran. 20 Askok auxe iñoen: "Deabrua dauko orrek eta galdu egin dau burua; ¿zegaitik egin jaramonik orri?" 21 Beste batzuek, ostera, auxe iñoen: "Berba orreik ez dira, ain zuzen be, deabrudunarenak. ¿Deabruak emon ete-daikeoe, gero, itsuai ikusmenik?"

Judarrak Jesus baztatu egiten dabe

22 Negua zan. Jauretze-eskintzaren* gomutapena egiten zan jai ospatzen zan Jerusalem. 23 Jesus ibili ebillen Salomonen aterpean, jauretze-barruan. 24 Orduan, judarrak urreratu eta inguruan jarri yakozan, eta auxe esan eutsoen: "¿Noiz arte euki bear gaituzu ezpaitan? Zu Mesias bazara, esan egiguzu argi ta garbi." 25 Eta Jesusek arei: "Argi ta garbi esan dautsuet eta ez dozue sinisten. Zeuen begien aurrean daukazuez nire ezaugarriak: neure Aitagandik artutako aginpideaz egiten dodazan egintzak. 26 Zuek, barriz, ez dozue sinisten, nire artaldeko ardiak ez zaree-ta. 27 Nire ardiak ezagutu egiten dabe nire berbotsa, nik ezagutu egiten dodaz eta arek jarraitu egiten dauste. 28 Nik betiko bizia emoten dautset, eta ez dira iñoiz be galduko; iñok be ezin kendu aal izango daustaz, 29 neure Aitari be ezin kendu daikeozanez; Berak emon daustaz bere aal-izate bikaiña*. 30 Aita ta ni bat gara."

31 Judarrak arriak artu ebezan barriro, Jesusi jaurtiteko. 32 Baiña Jesusek auxe esan eutsen: "Egintza on asko egin dodaz zuen aurrean nire Aitagandik artu dodan aal-izatearen indarrez; ¿egintza

areitariko zeingaitik egin nai daustazue arrika?" 33 Eta judarrak Jesusi: "Egintza on bategaitik be ez dautsugu arrika egin nai, Jaungoikoaren aurka esan dozun biraoagaitik baiño: zuk, enparaduak lez gizona izanik, zure burua Jaungoiko egiten dozu." 34 Eta Jesusek arei: "¿Ez al-dago, ba, zuen Legean idatzita, Jaungoikoak esan ebala: *jaungoiko zaree zuek**? 35 Beraz, Jaungoikoaren mandatu zuzendu izan yaken arei, Legeak jaungoiko deritze; Liburu Santuak diñoana, barriz, ezin jarri daiteke ezpaitan. 36 Beraz, Aitak mundura bialdua izateko aukeratu nauan ezker, ¿birao egiten dodala esango daustazue, ba, Jaungoikoaren Seme nazala esan dodalako? 37 Nire Aitaren egintzak egiten ez badodaz, ez ni sinistu; 38 baiña, egiten badodaz, jarri ustea arekan, ustea nigan jarri nai ezarren be. Onelaxe ezagutu aal izango dozue Aita neugan dagoana eta ni Aitagan nagoana."

39 Berba orreik zirala-ta, judarrak barriro be Jesusi eltzea nai izan eben; baiña iges egin eutsen eskuetatik.

40 Jordanez bestekaldera joan zan barriro Jesus, leen Joaneke bateatzen jardun izan eban tokira, eta antxe geratu zan. 41 Asko etorten ziran Jesusegana, eta auxe iñoen: "Joaneke ez eban miraririk bat bera be egin, ez; baiña arek Onetzaz esan eban guztia egia da."

42 Eta asko izan ziran errialde aretan sinistea Jesusegan jarri ebenak.

Lazaroren eriotza ta biztuera

11 1 Lazaro* izeneko gizon bat geisorik egoan. Betaniakoa zan, Mariren eta beronen aizta zan Martaren errikoa. 2 (Mari ori, Jaunaren oiñen gain-erra usaingaria isuri ebana eta oiñak bere uleakaz sikatu eutsazana zan; onen neba Lazaro, barriz, geisorik egoana.)

3 Lazaroren arrebak Jesusi mandatu au bialdu eutsoen: "Jauna, zure adiskidea geisorik dago." 4 Jesusek, ori jakitean, auxe esan eban: "Geiso ori ez

da eriotz-geisoa, Jaungoikoaren aintza agertzeko baiño; geiso orren bidez, Jaungoikoaren Semearen aintzak dizdiz egingo dau.”

5 Jesusek adiskidetasun andia eban iru nebarreba onekaz: Marta, Mari ta Lazarogaz. 6 Baiña, Lazaro geisorik egoala jakiñarren be, toki aretan egun bitan geratu zan. 7 Aldi ori igarota, Jesusek bere ikasleai auxe esan eutsen: “Goazan barriro Judeara.” 8 Eta ikasleak Ari: “Irakasle, judarrak oraintsu arrika egin nai eutsuen; ¿zelan nai dozu, ba, barriro be ara joatea?” 9 Eta Jesusek arei: “¿Egunak ez ditu, ba, amabi ordu? Edonor ibili daiteke egun-barruan tope egiteko bildur bagarik, mundu onetako argiak aren bidea argitu egiten dau-ta. 10 Gabez dabillanak, ostera, tope egiten dau, argiak uts egiten dautso-ta.” 11 Eta auxe esan eban gaiñera: “Lazaro gure adiskidea loak artu dau*, baiña iratzartzera noakio.” 12 “Jauna —esan eutsoen ikasleak—, loak artu badau, osatuko dala adiearazoten dau orrek.”

13 Jesusek berezko loak-artzea esan nai ebala uste izan eben areik, baiña Jesusek Lazaroren eriotzaz egiten eban berba. 14 Orduan, Jesusek argi ta garbi esan eban: “Lazaro il egin da. 15 Pozten naz an ez egoteaz, au zeuen onerako biurtuko da-ta; orrela, sinisteko errazoi bat geiago izango dozue. Goazan, ba, ara.” 16 Tomasek, “Bikotxa” eritzonak, beste ikasle-lagunai auxe esan eutsen: “Goazan geu be, Onegaz batera il gaitzan!”

Jesus, Marta ta Marigaz

17 Ara eltzean, Lazaro lau egun areitan illobian egoala jakin eban Jesusek. 18 Betania Jerusalemik oso ur dagoan ezker —kilometro bi ta erdi-edo— 19 judar asko Marta ta Mari ikustera joan izan ziran, euron nebearen eriotzagaitiko samiña arintzera. 20 Jesus etorrela jakin ebanean, Marta bidera urten yakon; Mari, barriz, etxean geratu zan. 21 Martak Jesusi auxe esan eutsan: “Jauna, emen egon izan bazintzaz, nire nebea ez litzakean ilgo. 22 Oraintxe

be badakit, orraitioño, Jaungoikoari eskatu dagiozun edozer, Jaungoikoak emon egingo dautsuna.” 23 “Biztuko da zure nebea”, erantzun eutsan Jesusek. 24 Eta Martak Jesusi: “Badakit aldien azkenean bizitzara biztuko dana, ildakoen biztuerea izan daiteanean. 25 “Neu naz biztuera ta bizitza* —erantzun eutsan Jesusek—. Sinistea neugan jarten dauana, illarren be, bizi izango da; 26 et bizi dana ta neu onartzen nauana, ez da iñoiz be ilgo. ¿Sinisten dozu au?” 27 “Bai, Jauna —erantzun eutsan Martak—; sinisten dot mundu onetara etorteko zan Mesias, Jaungoikoaren Semea, zeu zareana.”

Jesus, illobi-aurrean negarrez

28 Ori esanda, Martak, bere aizta Mariri dei egitera joanda, auxe esan eutsan belarrira: “Irakaslea ortxe dago, eta dei egiten dautsu.” 29 Mari bat-batean jagi eta Jesusegana joan zan. 30 Izan be, Jesus ez zan arteetan errian sartu izan; Martak aurkitu izan eban tokian bertan egoan.

31 Etxean Mariri samiña arintzen ziarduen judarrak, Mari jagiten eta kanpora urtetzen ikusi ebenean, jarraitu egin eutsoen, bere nebearen illobira negar egitera yoialakotan.

32 Marik, Jesus egoan tokira eldu zanean, Aren aurrean belaunikoturik, auxe esan eutsan: “Jauna, emen egon izan bazintzaz, nire nebea ez litzakean ilgo.” 33 Mari ta onegaz etozan judarrak be negarrez ikustean, Jesusek, antzi egiñik eta biotz-samurtuta, 34 “¿Non illobiratu dozue?”, itandu eban. “Zatoz ikustera, Jauna”, erantzun eben areik.

35 Jesusek negar egin eban. 36 An egozan judarrak auxe iñoen euren artean: “Benetan maite eban, gero!” 37 Baiña areitariko batzuek auxe esan eben: “Itsuari ikusmena emon eutsan onek, ¿ezin ezer egin ete-eikean bere adiskidearen eriotza galarazoteko?”

Lazaro bizitzara biurtzen da

38 Jesus, barriro be biotz-samurtuta, illobira urreratu zan. Illobi au zulo bat zan, eta aren sarlekua arri andi* batzuek estalduta egoan. 39 “Kendu egizue arria”, agindu eutsan Jesusek. “Jauna —esan eutsan Martak—onezkeru atsa dario, badira lau egun il zala-ta. 40 Eta Jesusek ari: “¿Ez dautsut esan, ba, sinisten badozu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dozula?”

41 Kendu eben, ba, arria, eta Jesusek, zerura begiraturik, auxe esan eban: “Aita, eskerrak emoten dautsudaz entzun nozulako. 42 Badakit ondotoxo be beti entzuten nozuna; onela berba egiten badot, emen dagozanokaitik da, zeuk bialdu nozula sinistu dagine.”

43 Ori esanda, deadar andi bat egin eban: “Lazaro, urten kanpora!” 44 Eta Lazaro illobitik urten egin zan. Esku-oiñak zapiz lotuta eukazan, eta aurpegia miesaz batuta. “Kendu egiozue zapiak eta itzi egiozue ibiltzen”, esan eutsan Jesusek.

Judarrak Jesus iltea erabagiten dabe (Mt 26, 1-5; Mk 14, 1-2; Lk 22, 1-2)

45 Guzti ori ikustean, Mari ikustera joan izan ziran judarretariko askok jarri eben euren sinistea Jesusegan. 46 Beste batzuek, barriz, parastarrakana joanda, Jesusek egin izan ebana esan eutseen.

47 Orduan, abadeburuak eta parastarrak Batzar Nagusikoai berealako batzarrera egin eutseen dei. An auxe esan eben euren artean: “Bearrezkoa da negurraren bat artzea. Gizon orrek arrigarririk aško diardu egiten. 48 Orrela jarraitzen izten badautsagu, guztiak onartuko dabe; eta erromatar agintariak, eskuarturik, ondatu egingo dabez gure jauretzea* ta gure erria.”

49 Areitariko batek, Kaifas izenekoak, urte aretan abade nagusi zanak, auxe esan eban: “Zorrotzak bazintzaze, 50 konturatuko zintzakeze erri guztia

galdua izatea baiño obe dala gizon bat bakarria erriagaitik iltea.”

51 Ori ez eban Kaifasek bere buruz esan: urte aretan abade nagusi zan ezkeru, Jaungoikoak argitu egin eban, Jesus erri guztiagaitik ilgo zala iragarteko; 52 eta judar erriagaitik bakarrik ez, sakabanatuta egozan Jaungoikoaren seme guztien batasuna lortzeko be bai.

53 Egun aretan, Jesusi eriotza emoteko erabagia artu eben. 54 Orregaitik, arrezkeru Jesus ez zan judarren artean agirian ibiltzen. Judeako errialdea bertan-beera itzi eta Efrain* izeneko errira jo eban, basamortu-ondora. Antxe geratu zan bere ikasleakaz aldi baten.

55 Judarren Pazko-jaiak laster zan. Jai egun a baiño leen be errialdeko lurraldeetatik laguntalde andia igoten zan Jerusalemenera, oiturazko garbiketarak egitera. 56 Laguntalde au Jesusen billa ebillen, eta jauretzean alkar aurkitzean, auxe zirautsoen alkarri: “¿Zer deritzazue? ¿Etorriko ete-da ala ez jaietara?” 57 Abadeburuak eta parastarrak agindu gogor au emon izan eben: Jesus non egoan jakin egianak, agertu egitsela, Ari eltzeko.

Marik usaingarria isurten dau Jesusen oiñen gaiñera (Mt 26, 6-23; Mk 14, 3-9)

12 1 Pazkoa baiño sei egun leenago, Jesus Betaniara eldu zan, egun batzuk leenago Jesusek illen artetik biztu izan eban Lazaro bizi zan tokira. 2 An, Jesusen omenez, aparti bat eskiñi eben. Martak maia zerbitzen ziarduan, eta mailagunetariko bat Lazaro zan. 3 Marik, ontzi baten, usaingarri oso karua arturik —ia litro erdi akara jator*—, Jesusen oiñen gaiñera isuri eban; gero, oiñak bere uleakaz sikatu eutsazan. Etxe guztia usaingarri aren usain gozoz bete zan. 4 Orduan, Judas Iskariotek, Jesus salduko eban ikasleak, aurka egin eban, esanez: 5 “Usaingarri orrek ia urte guztiko lan-saria* balio

izan dau, urrean. *¿Zegaitik ez da saldu, balioa beartsuen artean banatzeko?"*

6 Egiaz, ez eban arek beartsuen ardurarik; lapurra zalako esan eban ori, eta, diru-zorroa berak eukiten eban ezker, an sartzen ebena beretzat artzen eban. 7 Jesusek auxe esan eutsan: "Itzi egizu bake-tan! Au, neure illobirako egin dau. 8 Gaiñera, beartsuak beti izango dozuez zuekaz; ni, ostera, ez nozue beti izango*."

Lazaro be iltea erabagiten dabe

9 Judarretariko askok jakin eban Jesus Betanian egoana, eta araxe joan ziran: Jesusegana erakarrita bakarrik ez, Jesusek illen artetik biztu izan eban Lazaro ikustearren be bai. 10 Orduan, abadeburuak Lazaro be iltea erabagi eban: 11 berau zala-ta, judar askok judarren artetik alde egin eta Jesus onartzen eban-eta.

Jesusen sarrera ospatsua Jerusalemenean (Mt 21, 1-11; Mk 11, 1-11; Lk 19, 28-40)

12 Biaramonean, jeigunera* eldu izan zirane-tariko askok, Jesus Jerusalemenean urreratzen zala jakitean, 13 palma-adarrak ebagirik, bidera urten yakozan, deadarka iñoela: "Gora!* Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Bedeinkatua Israelgo erregea!"

14 Asto bat aurkiturik, Jesus aren gaiñean jesarri zan. Olantxe esan izan eban aurretiaz Liburu Santuak:

15 *Ez bildurtu, Siongo uri ori;
begira: zeugana dator zure erregea
asto baten gaiñean jesarri*.*

16 Jesusen ikasleak ez eban ori orduan ulertu; gero bai, Jesus goratua izan zanean, gogora ekarri eban, eta orduantxe konturatu ziran Jesusi buruz egin

izan eban ori Aretzaz aurretiaz idatzita egoana.

17 Lazaroren biztuerea ikusi izan ebanak eurak azaltzen eban ikusi izan ebena. 18 Beraz, laguntal-deak mirariaren azalpenaz biotz-ikaratuta, guztiak batera bidera urten yakozan Jesusi. 19 Ori ikusirik, parastarrak auxe iñoen euren artean: "Argi dago: ez dogu ezer lortzen; guztiak jarraitzen dautsoe."

Greztar batzuek Jesusen billa

20 Jai a zala-ta, Jerusalemenean Jaungoikoa gur-tzera eldu ziranen artean, greztar batzuk* ziran. 21 Oneik, Galileako Betsaidakoa* zan Felipegana urreratuta, auxe esan eutsoen: "Jauna, Jesus ikusi nai geuke." 22 Felipek Anderri esan eutsan, eta biak batera Jesusi esan eutsoen. 23 Eta Jesusek arei: "Eldu da Gizaseme au goratua izateko ordua. 24 Benetan dirautsuet: galgarauak, lurrera jausi ta ilten ez bada, garau bakarra izaten irauten dau. Baiña, ilten bada, frutua ugari ekarriko dau. 25 Bere biziaren arduratan bakarrik bizi danak, azkenean be galdu egingo dau bere bizia; mundu onetan bere biziari lotzen ez yakonak, barriz, betiko bizitzarako gordeko dau. 26 Norbaitek neure zerbitzari izan nai badau, jarraitu daistala. Neuri jazoko yatana jazoko yako. Eta neure zerbitzari izan daitena, nire Aitak goratu egingo dau alakoa.

Jesus, bere eriotzaz berbetan

27 "Guztiz larri* nago orain; baiña, *¿zer esan daiket? ¿Ordu onetan gaiñera etorriko yatanetik askatu nagiala esango ete-dautsat Aitari? Baiña, ain zuzen be, ori onartzeko etorri naz-ta! 28 Aita, goratu egizu zure izena.*"

Orduan, zerutik etorritako berbots au entzun zan: "Leen be goratu dot, eta barrero be goratu egingo dot." 29 An egozantzariko batzuek trumoa izan zala iñoen, eta beste batzuek aingeru batek berba egin eutsala. 30 Jesusek argiago esan eutsan: "Berbots

orrek ez eban niretzat berba egiten, zeuek entzun zengien baiño. 31 Oraintxe izango da epaitua mundua; oraintxe izango da azpiratua mundu onetako nagusia. 32 Nik, lurretik* gora jaso nagienean, neugana erakarriko dodaz guztiak."

33 Berba orreine bidez, zelako eriotza eroango eban adierazo nai izan eban Jesusek.

34 Laguntal-deak auxe erantzun eutsan: "Mesias ez dala iñoiz be ilgo, irakasten dausku gure Legeak. *¿Zelan diñozu, ba, zuk, bearrezkoa dala Gizasemea gora jaso izatea? ¿Nor da Gizaseme ori?"* 35 Eta Jesusek arei: "Oraindiño argia daukazue zuen artean, baiña ez luzaro. Ibili zaitzeze argi au daukazuen artean, illunpeak artu ez zagiezan: illunetan dabilleanak, ez daki nora doan-eta. 36 Argia daukazuen artean, onartu egizue argia; orrelaxe bakarrik zuzenduko dau argiak zuen biotza."

Ori esanda gero, Jesus andik joan eta arekandik gorde egin zan.

Judarren sinisgogorkeria

37 Jesusek egin ebazan mirari andiak areik euren aurrean ikusi ebezanarren be, ez eban Jesus onartzen. 38 Alantxe bete zan Isaias profetak esandako au:

*Jauna, ¿nok sinistu dau gure mandatua?
¿Nori agertu izan yako Jaunaren indarra?**

39 Isaias berak esan eban zegaitik ez eban sinisten:

40 *Jaungoikoak illundu egin dautsez begiak
eta biotza gogortu,
eta orregaitik, arein begiak ez dabe ikusten,
eta arein adimenak ez dau ulertzen;
beraz, ez dira nigana biurtzen
nik osatu dagidazan*.*

41 Jesusen aintza ikusi ebalako esan eban ori

Isaiasek, eta orrexegaitik egiten eban berba Aretzaz.

42 Alan be, asko izan ziran, baita judar nagusien artean be, sinistea Jesusegan jarri ebanak. Baiña ez eban ori agirian autortzeko aurpegirik, parastarrakanako bildurragaitik, sinagogatik jaurti ez egiezan. 43 Entzute ona Jaungoikoaren aurrean baiño gizonen aurrean izatea naiago eban.

44 Orduan, Jesusek auxe iragarri eban: "Ni onartzen nauanak, neu bakarrik ez, baita neu bialdu nauana be onartzen dau; 45 eta ni ikustean, neu bialdu nauana be ikusten dau. 46 Ni argi lez etorri naz mundura, ni onartu nagian edonor illunpeetan geratu ez daiten.

47 "Nire berbak entzun dagizana eta euroi jaramonik egin ez dagitsena, ez dot nik alakoa galduko: ni ez naz mundua galtzera etorri-ta, mundua salbatzera baiño. 48 Nire berbak baztatu eta onartzen ez dauzanarentzat, auzi-epaille bat dago: neure mandatuak berak galduko dau alakoa azken-egunean. 49 Izan be, nik ez dot nire buruz berba egiten: bialdu nauan Aitak agindu daust nik esan eta irakatsi bear dodana. 50 Badakit nik Aren aginduak betiko bizitzara daroena. Orregaitik, Aitagandik entzun dodana irakasten dot nik."

Jesusek bere ikasleai oiñak garbitzen dautsez

13 1 Pazko-aurreguna zan. Jesusek baekian mundu au itzi* eta Aitagana joateko ordua eldu izan yakona. Eta Jesusek munduan egozan bereak beti maite izan ebazan ezker, azken-azkenerarte izan ebazan maite.

2 Aparitan asi izan ziran, eta deabruak Judas Iskariotereren seme zan Judasen buruan Jesus saltzeko asmoa sartu izan eban. 3 Aitagandik urten izan zala eta orain barrero Aitagana yoiala jakiñik, baita Aitak aginpide osoa emon izan eutsala be, 4 Jesusek, maitik jagirik, soingaiñekoa kendu eta, esku-zapi bat arturik, gerrian lotu eban. 5 Gero, ontzi batera ura botata, ikasleen oiñak garbitzen eta gerrian eroian

esku-zapiaz sikatzen asi zan.

6 Simon Pedrogana eldu zanean, onek auxe esan eutsan: "Jauna, ¿zuk niri oiñak garbitu?" 7 "Nik egiten diardudana —erantzun eutsan Jesusek—, zuk orain ezin ulertu daikezu; elduko da ori ulertu dagizun aldia." 8 Eta Pedrok Jesusi: "Iñioiz be ez dautsut nire oiñak garbitzen laketuko." "Zure oiñak garbitzen izten ez badaustazu —erantzun eutsan Jesusek—, ez dozu nigaz artu-emonik izango." 9 Orduan, Pedrok Jesusi: "Jauna, oiñak bakarrik ez; garbitu egidazuz eskuak eta burua be." 10 Eta Jesusek ari: "Uretan bustialdi bat artzen dauanak eta guztiz garbi dagoanak, oiñak* garbitzea baiño ez dau bear. Eta zuek garbi zagoze, guztiok egon ezarren be."

11 Baekian Jesusek ondotoxo be nok salduko eban; orrexegaitik esan eban gaiñera: "Ez zagoze guztiok garbi."

12 Jesusek, arei oiñak garbitu eta barriro bere soingaiñekoa jantzita gero, barriro maian jarririk, auxe esan eutsan: "¿Ulertzen dozue orain zuei egin dautsuedana? 13 Zuek Irakasle* ta 'Jauna' esaten daustazue, eta ondo esanda, izan be banaz-ta. 14 Beraz, zuen Irakasle ta Jauna nazan onek zuei oiñak garbitu badautsuedaz, zeuek be alkarri beste orren-beste egin bear dautsazue. 15 Ikasbidea emon dautsuet: nik zuei egin dautsuedanez egin bear dozue zeuek be."

16 "Benetan dirautsuet: morroia ezin izan dai-teke bere ugazaba baiño nagusiagoa; ezta bialdua be bialdu dauana baiño nagusiagoa. 17 ¿Au argi dago? Zorionekoak izango zaree, ba, au egiten badozue."

Jesusek Judasen saldukeria aurretiaz iragarten dau

(Mt 26, 20-25; Mk 14, 17-21; Lk 22, 21-23)

18 "Ez diñot au zuek guztiokaitik; nik badakit ondotoxo be nortzuk aukeratu dodazan. Baiña Liburu Santuko au bete bearra da: *Maian neugaz jaten daua-*

*na, neure aurka biurtu da**. 19 Oraintxe dirautsuedaz gaiok, jazo baiño leen: jazo daitezanean, ni 'nazana nazala'* sinistu dagizuen. 20 Benetan dirautsuet: nik bialdu dagidana onartu dagian edonok, neu onartzen nau, eta, ni onartzean, ni bialdu nendua onartzen dau."

21 Ori esanda gero, Jesusek, bere barruan larri-larri jarririk, auxe esan eban: "Benetan dirautsuet: zuetariko batek saldu egingo nau."

22 Ikasleak, oso arrituta, alkar-begiratzen asi ziran, ori nortzaz iñoan ez ekiela. 23 Areitariko bat, Jesusek ainbeste maite eban ikaslea, maian Jesusen ondoan etzunda* egoan. 24 Simon Pedrok kiñu egin eutsan, ori nortzaz iñoan itandu egion Jesusi. 25 Ikasleak, Jesusegana geiago un-araturik, "Jauna, ¿nor da?", itandu eutsan. Eta Jesusek ari: "Nik orain platerean bustiko dodan ogi-zatia emon dagiodana da."

Eta, ogi-zatia bustirik, Judasi, Simon Iskariotereren semeari, emon eutsan. 27 Eta, agokada-ostean, aregan Satanas sartu zan. Jesusek auxe esan eutsan: "Egingo dozuna, egizu aalbait lasterren." 28 Mailagunetariko batek be ez eban ulertu Jesusek esan nai izan ebana. 29 Diru-zorroaren arduraduna Judas zan ezkerro, jaiegunerako bear zana erosi egiala edo beartsuai zerbait emon egitsela agindu izan eutsala uste izan eben batzuek. 30 Judas, ogi-zati bustia artuta, berealaxe urten zan andik. Gaba zan.

Agindu barria

31 Judas andik urtenda bereala, Jesusek auxe esan eban: "Oraintxe agertuko da Gizaseme onen aintza, eta Jaungoikoa goratua izango da Aregan. 32 Eta Jaungoikoa Aregan goratua* izango bada, Jaungoikoak be Gizaseme au goratu egingo dau, eta oso laster goratu be. 33 Ene semeok: onezkerro ez naz zuekaz luzaro egongo. Neure billa ibiliko zaree, baiña judarrai esan neutsena berbera dirautsuet: ni noan tokira, zuek ezin etorri zaitেকে. 34 Agindu

barri bat emoten dautsuet: alkar maite izan dagizuela; nik maite izan zaituedanez, zeuek be alkar maite izan egizue. 35 Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: alkar maite izatean."

Jesusek Pedroren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz

(Mt 26, 31-35; Mk 14, 27-31; Lk 22, 31-34)

36 Simon Pedrok auxe itandu eutsan: "Irakasle, ¿nora zoaz?" "Ni noan tokira —erantzun eutsan Jesusek—, zuk orain ezin jarraitu daikedazu; jarraituko daustazu egunen baten." 37 Eta Pedrok Jesusi: "Jauna, ¿zegaitik ezin jarraitu daiketzut orain? Gertu nago zugaitik neure bizia emoteko." 38 Eta Jesusek Pedrori: "¿Nigaitik zeure bizia emoteko gertu zagozala? Benetan dirautsut, Pedro: oillarrak jo baiño leen, zuk iru bidar ukatuko nozu."

Jesus, Aitagana bidea

14 1 "Ez zaitze artega ta larri egon. Jarri ustea Jaungoikoagan, eta jarri ustea neugan be. 2 Nire Aitaren etxean guztientzat dago lekua; ezezkoan, esango neutsuen; orain zuei leku ori gertatzera noa. 3 Joanda, lekua atondu dagitzuedanean, atzera etorrita, neugaz eroango zaituet, ni egon naiten tokian zeuek be egon zaitezen. 4 Zuek badakizue ni noan tokira joateko bidea."

5 "Baiña, Jauna —esan eutsan Tomasek—, ez dakigu nora zoazan, ¿eta zelan jakingo dogu, ba, bidea?" 6 "Neu naz bidea, egia ta bizia. Ezin eldu dai-teke iñor Aitaganañio neure bitartez izan ezik. 7 Ni ezagutzen banozue*, neure Aita be ezagutuko dozue; onezkerro Aita ezagutzen dozue eta ikusi be egin dozue."

8 Orduan, Felipek auxe esan eutsan: "Jauna, erakutsi egiguzu Aita, eta naikoa dogu." 9 Eta Jesusek ari: "Onen luzaro zeuekaz bizi, ¿eta ez nozu oraindiño ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauanak,

Aita ikusten dau. Eta olan bada, ¿zelan eskatzen daustazu, ba, zuei Aita erakusteko? 10 ¿Ez al-dozu sinisten ni Aitagana nagoana eta Aita neugan dagoana? Nik irakatsi dautsuedana, ez da neure buruz izan. Neugan bizi dan Aita da bere egintza salbagarria egiten diarduana. 11 Sinistu egidazue: ni Aitagana nago eta Aita neugan dago. Sinistu egizue, beintzat, neure egintzakaitik. 12 Benetan dirautsuet: ni onartu nagianak, berak be egingo dau nik egiten dodana, baita andiagoak be egingo dauz, ni Aitagana noa-ta; 13 eta niri eskatu dagidazuen edozer, emon egingo dautsuet, Aita Semeagan goratua izan daiten. 14 Nire izenean eskatu dagidazuen edozer emongo dautsuet."

Espiritu Santua agintzaritzat

15 "Benetan maite banozue, gordeko dozue nire aginduak, 16 eta nik Bitarteko* bat bialdu dagitzuela eskatuko dautsat Aitari, lagun egin dagitzuen eta beti zeuekaz egon daiten: 17 egiaren Espiritua. Munduarenak diranak ezin artu daikee Espiritu ori, ez dabe ikusten ez ezagutzen-eta; zuek, ostera, bai, ezagutzen dozue, zeuekan bizi ta zeuen erdian dago-ta."

18 "Ez zaituet bertan-beera itziko; zeuekaz egotera etorriko naz barriro. 19 Munduarenak diranak, laster ez nabe ikusiko; zuek, barriz, ikusi egingo nozue, nik daukadan bizia zeuek be eukiko dozue-ta. 20 Egun a* eldu daitenean, ulertuko dozue ni neure Aitagana nagoana, eta zuek neugan eta ni zeuekan. 21 Nire aginduak onartzen eta beteten dauzana da ni benetan maite nauana; eta, ni maite nagiana, maite izango dau nire Aitak, eta neuk be maite izango dot alakoa, eta ni agertu egingo nakio."

22 Judasek —Iskariotek ez, gero, besteak* baiño— auxe itandu eutsan: "Jauna, ¿zegaitik guri bai eta munduarenak diranai ez zakiezala agertuko?" 23 "Benetan maite nauanak —erantzun eutsan Jesusek—, nire mandatuan sendo iraungo dau; nire Aitak maite izango dau alakoa, eta nire Aita ta ni etorri

egingo gakioz eta aregan bizi izango gara. 24 Nire mandatuari jaramonik egiten ez dautsanak, ostera, ez nau ni maite. Eta nik izten dautsuedan mandatu au, ez da nirea; ni bialdu nenduanaren Aitarena da. 25 Guzti au, zeuen artean egon nazan artean esan dautsuet. 26 Baiña, nire izenean Aitak bialduko dautsuen Bitartekoak, Espiritu Santuak, gogorazoko dautsue nik irakatsi dautsuedan guztia eta Berak azalduko dautsue dana.

27 "Bakea izten dautsuet, neure bakea bera. Munduak emoten dauan bakea ez dana. Ez zaitezte larritu, ez izan bildurrik. 28 Entzun dozue esan dautsuedan au: 'Banoa, baiña zeuekaz egotera etorriko naz barriro'. Benetan maite banozue, poztu egin bear zaree* niri Aitagana noala esaten entzutean, Aita ni baiño andiagoa da-ta. 29 Oraintxe esan dautsuet, aurretiaz: ori jazo daitenean, sinisteko errazoi bat geiago izan dagizuen. 30 Onezkero ez dot zuekaz berbaldi luzerik izango, mundu au indarkeriaz agintzen dauana ur dago-ta. Ez dauko, jakiña, aginpiderik nire aurka; 31 baiña olantxe izan bear da, nik Aita maite dodala eta Berak agindu eustan egikizuna zintzoro beteten dodala, munduak jakin dagian. Jagi zaitezte. Goazan emendik.

Jesus da benetako maatsondoa

15 1 "Ni benetako maatsondoa naz, eta nire Aita maatsizaiña da. 2 Fruturik ez dakarren nire edozein maatsaien, Aitak iñausi egiten dau eta frutua dakarrena garbitu, frutu geiago ekarri dagian. 3 Zuek, onezkero, garbi zagoze, iragarri dautsuedan mandatuari eskerrak. 4 Iraun egizue nigan bat eginda, nik zuekan lez. Maatsondoari bat eginda egon ezik, maatsaienak berez fruturik ezin ekarri daike; orixe jazoko yatzue zuei be, nigan bat eginda ez bazagoze.

5 "Ni maatsondoa naz; zuek, maatsaienak. Ni aregaz bat eginda nagoanez, nigan bat eginda irauten dauanak, frutua ugari dakar: nigandik bananduta,

ezin ezer egin daikezue-ta. 6 Nigan bat eginda irauten ez dauana, kanpora jaurtiten dabe, fruturik ez dakarren maatsaienaz egiten danez. Ataraten diran maatsaien oneik igartu egiten dira, eta gero batu ta sutara jaurtiten dabez, erre daitezte. 7 Nigan bat eginda bizi bazaree eta nire mandatuak zuekan bizirik irauten badau, eskatu nai dagizuena eta jadetsi egingo dozue. 8 Neure Aitaren aintzarako da zuek frutua ugari emotea eta orrela zuek neure ikasle lez agertzea. 9 Aitak ni maite nauanez maite zaituet neuk be zuek. Iraun egizue neure maitasunean. 10 Baiña neure aginduak gordeten badozue bakarririk iraungo dozue nire maitasunean, neuk be nire Aitaren aginduak gorde dodanez eta Aren maitasunean irauten dodanez. 11 Neure pozetan eskuartu dagizuen esan dautsuet au, eta zuen poza bete-betea izan daiten.

12 "Auxa da nire agindua: alkar maite izan dagizuela, nik zuek maite izan zaituedanez. 13 Bere adiskideen alde bizia emotea baiño maitasun andiagorik ez dago. 14 Neuk agintzen dautsuedana egiten badozue, neure adiskide zaree. 15 Onezkero, ez dautsuet zuei morroi esango, bere ugazabaren isilpekoak morroiak ez dakiz-ta. Aurrerantzean, zuei adiskide dirautsuet, nire Aitari entzun neutsan guztia jakiñerazo dautsuet-eta. 16 Ez nenduzuen zuek ni aukeratu; neu izan nintzan zuek aukeratu zenduedazana. Eta joan zaitezte eta frutua ugari ta iraunkorra emon dagizuen aukeratu zaituet. Orrela, nire izenean Aitari eskatu dagiozuen edozer, emon egingo dautsue Berak. 17 Nik agintzen dautsuedana auxa da: alkar maite izan dagizuela.

Munduak gorroto izango dautse Jesusen ikasleak

18 "Munduak gorroto badautsue, jakin egizue, leenen neuri izan eustana gorroto. 19 Munduarenak bazintzaze, munduak bere zerbait lez izango zendukez maite; baiña zuek ez zaree munduarenak, neuk

aukeratu eta atara zenduedazan mundutik-eta. Orregaitik, munduak gorroto dautsue. 20 Izan egizue gogoan esan dautsuedan au: 'Morroia ez da bere ugazaba baiño nagusiagoa'. Ni aurrean erabili nabenez, zeuek be aurrean erabiliko zaitue; eta nire irakatsia onartu dabenez onartuko dabe zuen irakatsia be.

21 "Neugaitik erabiliko zaitue orrela, bialdu nendua ez dabe ezagutzen-eta. 22 Ni etorri ez banintz edo onen argiro berba egin ez baneutse, ez litzakezan errudun izango; baiña orain ez dabe euren pekatuarentzako atxakirik. 23 Niri gorroto daustanak, neure Aitari be gorroto dautso. 24 Nik arein aurrean beste iñok egin ez dauzan egintzak egin ez baneuz, ez litzakezan errudun izango; baiña ikusi dabez egintzok, eta, ala ta guzti be, nire Aitari ta niri gorroto dauskue. 25 Baiña alantxe beteten da arein Legean idatzitako au: *Errazoi bagarik izan dauste gorroto* *. 26 Nik bialduko dautsuedan Bitartekoa*, Egiaren Espiritua, Aitagandik datorrena, etorri daitenean, Berak egingo dau testigantza nire alde. 27 Eta zeuek be izango zaree nire testigu, asierarik neugaz egon zaree-ta.

16 1 "Zuen sinismena tentaldian jausi ez daiten esan dautsuet guzti au. 2 Izan be, sinagogatik kanpora botako zaitue. Geiago be bai: bizia kenduko dautsuen ordua be elduko da, orrezaz Jaungoikoari gurtza emoten dautsoela uste izanik. 3 Eta ori, ez nire Aita ez ni ezagutzen ez gaituelako egingo dautsue. 4 Aurretiaz dirautsuet au, ori jazo daitenean, aurretiaz iragarri izan neutsuela gogoratu dagizuen.

Espiritu Santuaren ekintza

"Asieran ez neutsuen onelakorik esan nai, ni zeuekaz nengoan-eta.

5 Baiña orain, bialdu nendua noa barriro. *¿Zegaitik ez daustazue zuetariko iñok be nora noan itauntzen?* 6 Baiña, zuei gaiok iragarrean, tristureak artu zaitue. 7 Alan be, egokiago yatzue ni joatea. Egia dirautsuet. Izan be, ni ez banoa, ez yatzue

Bitartekoa etorriko; ni banoa, barriz, neuk bialduko dautsuet. 8 A etorri daitenean, Berak argituko dautse munduarenak diranai pekatua non dagoan, salbamenerako bidea non dagoan eta galtze-epaia non dagoan. 9 Pekatua, areik ni ez onartzean dago; 10 salbamenerako bidea, ni Aitagana joatean, eta orregaitik, aurrerantzean ez nozue ikusiko; 11 eta galtze-epaia, mundu onetan indarkeriaz agintzen dauana onezkero galduta egotean*.

12 "Gai geiago be esango neuskizue, baiña orain ezin ulertu zeinkez. 13 Egiaren Espiritua etorri daitenean, Berak zuzenduko zaitue egia guztia ulertu aal izan dagizuen*. Ez dau bere buruz berba egingo: entzun dauana bakarririk esango dau eta jazoko diranak iragarriko dautsue. 14 Berak goratuko nau ni, adierazo dagitzuen guztia neugandik artuko dau-ta. 15 Aitak daukan guztia, neurea be bada; orrexegaitik esan dautsuet, Espirituak adierazo dagitzuen guztia neugandik artuko dauala.

Ikasleen tristurea ta poza

16 "Laster, ez nozue ikusiko; baiña zerbait geroago barriro ikusiko nozue."

17 Orduan, Jesusen ikasleatariko batzuek auxa iñoen euren artean: "*¿Zer adierazoten ete-dau 'Laster' ez nozue ikusiko, eta zerbait geroago barriro ikusiko nozue,* eta 'Aitagana noa' dirauskun orrek? 18 *¿Zer adierazoten ete-dau 'laster' orrek? —itauntzen eutsoen barriro alkarri—. Ez dogu ulertzen.*"

19 Ikasleak zerbait argitu nai belak konturaturik, Jesusek auxa esan eutsen: "Artega zagoze nire berbon esanaiaz: 'Laster, ez nozue ikusiko, baiña zerbait geroago barriro ikusiko nozue'. 20 Benetan dirautsuet: negar eta antzi egingo dozue zuek, eta munduarenak diranak poztu egingo dira; zuek biotz-minduta egongo zaree, baiña zuen tristurea poz biurtuko da. 21 Emakumea, seiña argitara ekarteko dagoanean, larri dago, ordua eldu yako-ta; baiña, umetxoa jaiyo yakonean, bere pozak aaztu-erazo

egiten dautso leengo atsekabea eta oso zorioneko da mundura ume bat ekarri daualako. 22 Orrelaxe zeuk be: orain biotz-minduta zagoze, baiña nik barrero ikusiko zaituet eta poztu egingo zaree barrero, zuen poza iñok be ezin kendu aal izateraiño.

23 "Egun ori eldu daitenean, ez dozue niri ezer itauntzeko bearrizanik izango. Benetan dirautsuet: Aitari neure izenean eskatu dagiozuen edozer, Aitak emon egingo dautsue. 24 Orain arte ez dozue nire izenean ezer be eskatu. Eskatu egizue, eta artu egingo dozue, zuen poza bete-betea izan daiten.

Jesusek mundua azpiratu egin dau

25 "Orain arte ipuiñen bidez egin dautsuet berba; baiña aurrerantzean ez dautsuet berbakera au erabiliko: argi ta garbi emongo dautsuet Aitaren barri. 26 Egun ori eldu daitenean, zeuk aurkeztuko dautsuzue zuen eskariak Aitari nire izenean. Eta nik ez dirautsuet Aitaren aurrean zuen alde erregutuko dodanik, 27 Aitak berak maite zaitue-ta. Eta maite be, zuek ni maite nozuelako eta ni Jaungoikoagandik etorri nazala sinistu dozuelako maite zaitue. 28 Aitagandik urten eta mundura etorri nintzan; orain, barriz, barrero Aitagana joateko izten dot mundua."

29 Ikasleak auxe esan eutsen: "Orain bai, orain argi ta garbi egiten dozu berba, eta ez ipuiñen bidez. 30 Orain ziur gagoz zuk dana dakizuna eta ez dozuna iñoren itaun-bearririk; orregaitik, bai, sinisten dogu Jaungoikoagandik etorri zareana." 31 Eta Jesusek arei: "¿Ziur zagoze orain sinisten dozuela? 32 Begira, ba: laster da ordua —obeto esateko, eldu be egin da—, eta zuetariko bakotxa bere aldetik sakabanatuko da eta bakarrik itziko nozue. Baiña ni ez nago bakarrik, Aita neugaz dago-ta. 33 Neugan dozuen batasunean bakea aurkitu aal izan dagizuen esan dautsuet guzti au. Munduan atsekabeak izango dozuez; baiña, izan adorea!: neuk azpiratu dot mundua."

Jesusen otoitza

17 1 Guzti ori esanda gero, Jesusek, begiak zerura jasorik, auxe esan eban: "Aita, eldu da ordua. Goratu egizu zure Semea, zure Semeak be zeu goratu zagizan. 2 Gizon guztien gaineko aginpidea emon zeutsan; Arek orain betiko bizia emon dagitsela zuk emon dautsazuzan guztiai. 3 (Eta auxe da betiko bizia: ezagutu zagiezala zu egiazko Jaungoiko bakar lez, baita Jesukristo be zeure bialdua lez.)

4 "Nik zeure aintza agertu dot emen, mundu onetan, egiteko emon zeustan lana buruturik. 5 Orain, ba, Aita, goratu nagizu zure aurrean, mundua izan baiño leen zeugaz batera* neukan aintzaz. 6 Egin dodaz aalegiñak, mundutik atarata neure ardurapean itzi zenduzan areik zeu ezagutu zengiezan. Zeureak ziran; zeuk emon zeustazan, eta zure mandatuari esana egin dautsoe. 7 Ulertu dabe orain, zuk emon zeustan guztia zeurea dana, 8 baita onartu be egin dabe zuk emon zeustan irakatsi au. Orain ziur be, zukie ni zeugandik natorrena eta sinistu dabe zeu zareana bialdu nozuna.

9 "Euron alde erregutzen dot. Ez dautsuet munduarenak diranen alde* erregutzen, zeuk emon zeustazuzan alde baiño, zeureak dira-ta. 10 Nire guztia zeurea da, eta zure guztia neurea, eta eurokan egiten dau dizidiz nire aintzak.

11 "Onezkero, ni ez naz munduan egongo; oneik, barriz, munduan geratzen dira, eta ni zeugana noa. Zaindu egizuz zeure aal-izateaz, Aita santu orrek, nuri emon daustazuzanok, bat eginda bizi daitezcan, zu ta ni bat gareanez. 12 Zaindu be, oneitariko bat bera be ez galtzeraiño zaindu dodaz; galtzekoa zana bakarrik galdu da, Liburu Santukoa bete zedin. 13. Orain, barriz, zeugana noa. Gaiok oraindiño munduan nagoan artean badiñodaz, oneik nire pozetan oso-osorik eskuartu dagien da.

14 "Nik zeure mandatua emon dautset, baiña munduak gorroto dautse, ez dira munduarenak-eta, neu be munduarena ez nazanez. 15 Ez dautsuet oneik

mundutik atarateko eskatzen, Gaiztoagandik* gorde dagizuzala baiño. 16 Ni munduarena ez nazanez, oneik be ez dira munduarenak. 17 Egizu, oso-osorik zeureak* izan daitezala egiaren bidez: zeure mandatu da egia. 18 Nik mundura bialdu dodaz, zeuk be ni bialdu nenduzenez. 19 Onein alde neure burua eskintzen dautsuet, eurok be egiaren bidez euren buruak oso-osorik eskiñi dagituzezan*. 20 Eta ez dautsuet onein alde bakarrik eskatzen; onein mandatuaren bidez neu onartuko naben guztien alde be erregutzen dautsuet.

21 "Guztiok bat eginda bizi daitezala eskatzen dautsuet. Aita, zu nigan eta ni zuga gagozanez, eurok be gugaz bat eginda egon daitezala. Onela, zeuk bialdu nozula sinistu aal izango dau munduak. 22 Zuk niri emon zeustan aintza, euroi emon dautset nik, bat izan daitezcan, gu biok bat gareanez. 23 Ni onekan, eta zu nigan, batasun osora eldu daitezcan; onela, zeuk bialdu nozula ezagutuko dau munduak, eta zuk ni maite nozunez maite dozuzala oneik. 24 Aita, zuk emon daustazuzan guzti oneik, nigaz batera neu egon naiten tokian egotera eldu daitezala gura dot nik: nire aintzari, zeuk emon zeustan aintzari begira egonik poztu daitezcan, mundua izan baiño leen be maitatzen nenduzun-eta.

25 "Aita zuzen ori: munduak ez zaitu ezagutu; nik, barriz, bai, ezagutzen zaitut, eta guzti oneik ezagutu dabe zeuk bialdu nozuna. 26 Zu nor zarean ezaguerazo dautset, eta aurrerantzean be ezaguerazoko dautset: zuk daustazun maitasuna eurokan be egon daiten eta neu be eurokan egon naiten."

Jesus, lotuta daroe

(Mt 26, 47-56; Mk 14, 43-50; Lk 22, 47-54)

18 1 Ori esanda, Jesus bere ikasleak urten egin zan, eta Zedron-errekaz* bestekaldera igaro eta ortu baten sartu ziran. 2 Judasek, saltzailleak, ondo ezagutzen eban toki a, Jesus bere ikasleak ara

sarritan joaten zan-eta. 3 Judasek, ba, abadeburu ta parastarrak bialdutako gudari-talde* bat eta jauretxeko zaintzailleak beragaz artuta, toki aretara jo eban. Iskillo (*arma*), argizuzi ta argiontziaak eroie-zan.

4 Jesusek, gainera etorkion guztia oso ondo ekian ezkeru, arei bidera urtenda, "¿Noren billa zatoze?"; itandu eutsen. 5 "Nazaretoko Jesusen billa", erantzun eutsen areik. Eta Jesusek arei: "Neu naz."

Judas, saltzaillea, arekaz egoan. 6 Jesusek arei "Neu naz" esatean, areik atzeraka eginda, lurrera jausi ziran. 7 Jesusek, barrero be, "¿Noren billa zatoze?"; itandu eutsen. "Nazaretoko Jesusen billa", erantzun eutsen barrero areik. 8 Eta Jesusek arei: "Esan dautsuet neu nazana. Beraz, neure billa bazatoze, itzi onei joaten."

9 (Alantxe bete zan Berak esan izan eban au: "Zuk emon zeustazanetariko bat bera be ez dot galdu".)

10 Orduan, Simon Pedrok, berak eukan ezpatea atarata, abade nagusiaren morroiari zartada bat emon eta eskumako belarria ebagi eutsan. (Morroi onen izena, Malko zan.) 11 Baiña Jesusek Pedrori auxe esan eutsan: "Sartu barrero ezpatea zorroan. ¿Nik edateko, Aitak gertatu dauan samiñezko edontzi au ez dot onartuko, ala?"

12 Gudari-taldeak, gudalburuak eta judar-zaintzailleak, Jesusi eldurik, eskuak lotu eutsen. 13 Andik, urte aretan abade nagusi zan Anasen* etxera eroan eben; Anas, Kaifasen aitagiñarreba zan. 14 (Kaifas au, judarrai burubide au emon izan eutsena zan: "Egoki da erriagaitik gizon bat bakarra iltea".)

Pedrok Jesus ukatu egiten dau

(Mt 26, 69-70; Mk 14, 66-68; Lk 22, 55-57)

15 Simon Pedrok eta beste ikasle batek Jesusi jarraitu egin eutsen. Ikasle au abade nagusiaren

ezaguna zan, eta Jesusegatz batera sartu zan abade nagusiaren etxeko beebarruan. 16 Pedro, oster, kanpoan geratu zan, ate-ondoan. Orduan, abade nagusiaren ezaguna zan beste ikasleak, neskame atezaiñari berba egitiñik, Pedro sartzea lortu eban. 17 Baiña neskame atezaiñak, Pedrogana begira jarririk, “¿Ez al-zara zu gizon orren ikasleatarikoa?”, itandu eutsan. “Ez, ez naz”, erantzun eban Pedrok. 18 Otx somatzen eben ezker, morroiak eta zaintzailleak su-meta bat iziotu eben eta zutunik egozan, suninguruan, berotzen. Pedro be arekaz batera geratu zan, zutunik, berotzen.

19 Abade nagusiak Jesusi beronen ikasle ta irakatsiari buruz itandu eutsan. 20 Eta Jesusek ari: “Nik guztiari beti agiri-agirian egin dautset berba. Judar guztiak batzen diran sinagogetan eta jauretxean irakatsi dot. Isillean ez dot ezer be irakatsi. 21 ¿Zegaitik itaunketa ori? Itandu egiezu nire entzuleai; eurak emongo dautsue nik esan dodanaren barri.”

22 Erantzun ori entzutean, ondoan egozan zaintzailleatariko batek matraillako bat emon eutsan Jesusi, esanez: “¿Zelan erantzuten dautsazu orrela abade nagusiari?” 23 Eta Jesusek ari: “Oker egin badot berba, argitu egidazu zetan; berba zuzen egin badot, barriz, ¿zegaitik joten nozu?” 24 24 Orduan, Anasek Kaifas abade nagusiagana bialdu eban, lotuta.

Pedrok barriri be ukatu

(Mt 26, 71-75; Mk 14, 69-72; Lk 22, 58-62)

25 Bitartean, Simon Pedrok su-meta-ondoan irauten eban, zutunik, berotzen. Norbaitek auxe itandu eutsan: “¿Zu ez zara, ba, gizon orren ikasleatariko bat?” Pedrok ukatu egin eban: “Ez, ez naz.” 26 Baiña abade nagusiaren morroiatariko batek, Pedrok belarria ebagi izan eutsanak, auxe esan eutsan: “¿Ezetz? Neuk ikusi zaitut ortuan Aregaz batera!” 27 Pedrok barriri be ukatu. Eta une aretan oillar batek kukurruku egin eban.

Jesus, Pilatoren aurrean

(Mt 27, 1-2. 11-14; Mk 15, 15; Lk 23, 1-5)

28 Gero, Kaifasen etxetik jaurlariaren jauregia eroan eben Jesus. Goizaldea zan. Judarrak ez ziran jauregian sartu, lege-loikeria* ez egiteko, onek Pazko-aporitan eskuartzea galerazo egingo leuskien-eta. 29 Orregaitik, Pilatok* kanpora urten bear izan eban, arei itauntzera: “¿Zetan salatzen dozue gizon au?” 30 “Au gaizkille ez balitz, ez geuskizun ekarriko”, erantzun eben areik. 31 Eta Pilatok arei: “Ondo da; eroan eta zeuen legebidez epaitu egizue.” Eta judarrak Pilatori: “Guk ez dogu iñori eriotza emoteko eskubiderik.”

32 Olanitxe bete zan Jesusek iragarri izan ebana, zein eratako eriotza eroango eban.

33 Orduan, Pilato barriri be bere jauregian sartu zan; eta, Jesusi dei egitiñik, “¿Judarren errege zara zu?”, itandu eutsan. 34 Eta Jesusek ari: “Itaun ori, ¿zeure buruz egiten daustazu, ala nitzaz beste batzuek esan dautsuelako?” 35 “¿Judarra naz, ba, ni? —esan eutsan Pilatok—. Zeure erritarrak eta abadeburuak dira nigana ekarri zaituenak. ¿Zer egin dozu?” 36 Eta Jesusek Pilatori: “Nire erregetza ez da mundu onetakoa. Nire erregetza mundu onetakoa balitz, nire jarraitzailleak burrukan egingo leukeen, ni judarren eskuetan jaustea galerazoteko. Baiña ez, nire erregetza ez da mundu onetakoa.”

37 Pilatok auxe itandu eutsan barriri: “Beraz, ¿errege zara zu?” Eta Jesusek Pilatori: “Bai, errege naz, zeuk diñozunez. Eta nire egikizuma egiaren alde testigantza egitea da. Ain zuzen be, orretarakoxe jai nintzan, orretarakoxe etorri nintzan mundura. Egia maite dauan edonok, nire berbotsa entzun egiten dau.” 38 “Egia! ¿Zer da, ba, egia?”, esan eban Pilatok.

Jesusen autorpena entzunda gero, Pilatok, andik barriri urtenda, judarrak auxe esan eutsen: “Nik ez dot gizon onegan errurik aurkitzen. 39 Baiña, Pazko-jai-bitartean nik kartzelako bat askatzeko oituea

dozuen ezker, ¿ondo ikusiko zeukee, ba, nik judarren erregea askatzea?”

40 Orduan, areik, deadarka baten: “Ez, ori ez! Barrabas askatu dagizula nai dogu.” (Barrabas au bidelapurra zan.)*

Jesus, eriotzara galdua

(Mt 27, 25-32; Mk 15, 6-20; Lk 23, 13-25)

19 1 Orduan, Jesusi zigorkada-oiñazea emoteko agindu eban Pilatok. 2 Gudariak arantzazko koroe bat egin eta buruan ezarri eutsen. Sorbalda-gaiñera purpurazko soingaiñeko bat be bota eutsen, 3 eta, Aregana urreraturik, “Gora judarren erregea!”, zirautsoen. Eta matraillakoak emoten eutsen.

4 Pilatok, barriri kanpora urtenda, auxe esan eutsen: “Entzun: barriri dakartsuet, eta argi geratu daitela au: ez dautsat gizon oni eriotzara galtzeko errazoirik aurkitzen.”

5 Jesus, ba, erriagana aurkeztua izan zan. Bere buru-gaiñean arantzazko koroea eroian, eta bere sorbalda-gaiñean purpurazko soingaiñekoa. “Ona emen gizona!”, esan eutsen Pilatok. 6 Abadeburuak eta onein zaintzailleak, Jesus ikustean, deadarka asi ziran: “Gurutzera ori! Gurutzera!” Eta Pilatok arei: “Artu zeuek eta gurutzeratu; nik ez dot onegan errurik aurkitzen.” 7 Eta judarrak Pilatori: “Guk badogu legea, eta legez eriotza bear dau, bere burua Jaungoikoaren Seme egin dau-ta.”

8 Ori entzutean, Pilato geiago bildurtu zan. 9 Barriri jauregian sarturik, “Nongoa zara zu?”, itandu eutsan Jesusi. Baiña Jesusek ez eutsan erantzunik emon. 10 “Zer? —esan eutsan Pilatok—. Ez dozu barbarik niretzat? Ez al-dakizu zu askatzeko naiz gurutzean josteko eskubidea dodana?” 11 Eta Jesusek ari: “Ez zeuke eskubiderik nire aurka, Jaungoikoak emon ez baleutsu; orregaitik, zure eskuetan jarri nauana, zu baiño askozaz errudunago da.”

12 Arrezkero, Pilatok Jesus askatzeko aalegin guztiak egiten ziarduan. Baiña judarrak deadarka

zirautsoen: “Gizon ori askatzen badozu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egin nai dauana, enperadorearen arerio da.”

13 Gaion alde txarra ikustean, Jesus kanpora atarateko agindurik, Pilato auzi-aulkian jesarri zan*, “Losadura” deritzon tokian —judarren berbakeraz, “Gábbata”—. 14 Pazko-aurreguna zan, eguerdi-aldea*. Pilatok judarrak auxe esan eutsen: “Ona emen zuen erregea!” 15 Baiña areik deadarka asi ziran: “Kendu ori erditik! Il egizu! Gurutzera ori!” Eta Pilatok arei: “Zeuen erregea josiko dot, ba, gurutzetan?” “Errromatar enperadorea da gure errege bakarra”, erantzun eben abadeburuak.

16 Beraz, azkenean be, Pilatok Jesus arein eskuetan itzi eban, gurutzeratu egien.

Jesus, gurutzean

(Mt 27, 32-44; Mk 15, 21-32; Lk 23, 26-43)

Arrezkero, Jesus judarren eskuetan geratu zan. 17 Bere gurutzera eroiala*, uritik kanpora urten zan, “Buruazurtegi” deritzon tokirantz (judarren berbakeraz, “Gólgota”). 18 Antxe josi eben gurutzetan, eta Aregaz batera beste bi be bai, Jesusen albo bietan.

19 Pilatok gurutze-gaiñean idazkun bat ipinteko agindu eban, agiri oneaz: “Nazaretoko Jesus, judarren errege”. 20 Judar askok irakurri eben agiri ori, Jesus gurutzeratu eben tokia uri-ondoan egoan-eta. Gaiñera, agiria eberkeraz, latiñez eta gerkeraz egoan idatzita. 21 Beraz, abadeburuak, Pilatogana aurkezturik, auxe esan eutsen: “Agiri ori aldatu egin bear dozu. ‘Judarren errege’ jarri bearrean, beste au jarri bear da; ‘Gizon onek auxe esan eban: Judarren errege naz ni’”. 22 Baiña Pilatok arei: “Idatzeko agindu nebana, idatzita geratu daitela.”

23 Gudariak, Jesus gurutzeratuta gero, Aren jantziak* artu eta lau zatitan banatu ebezan, bako-txarentzat bana. Soingaiñekoa alde batera itzi eben. Soingaiñeko ori joskura bagea zan, goitik beeraiño zati guztia eunduta; 24 orregaitik, alkarri auxe

zirautsoen: "Ez dogu zatitu bear; zotz egin dagigun, norentzat dan ikusteko."

Alantxe bete zan Liburu Santuak esandako au:

Nire jantziak euren artean banatu ebezan, eta nire soingaiñekoa zotz egin eben.*

Eta, ain zuzen be, gudariak orixe egin eben.

25 Jesusen gurutze-ondoan Aren ama, eta Mari, Kleofasen emaztea, Jesusen amaren aiztea zana, eta Mari Madalen egozan*. 26 Jesusek, bere ama ta beronen ondoan Berak ainbeste maite eban ikaslea ikustean, "Andra —esan eutsan bere amari—: or dozu zure semea." 27 Gero, ikasleari: "Or dozu zure ama." Eta, arrezkero, ikasleak bere etxean artu eban Maria.

Jesusek eriotza

(Mt 27, 45-56; Mk 15, 33-41; Lk 23, 44-49)

28 Orren ostean, Jesusek, Aitak emon izan eutsan egikizuna zearo bete izan ebaia jakin be ziur-ziur jakini, Liburu Santuak esandakoa bete zedin, "Egarri naz", esan eban. 29 Baegoan an pitxar bat ozpiñez* beterik. Gudariak, kaiñabera-muturrean ozpiñetan bustitako belaki bat ezarri eben eta agora urreratu eutsoen Jesusi. 30 Jesusek ozpiña miaztu eta, "Guztia bete da", esan eban. Eta, burua makurturik, il egin zan.

Sastadea saietsean

31 Pazko-aurreguna zan, eta judarrak ez eben nai zapatu aretan gurutzeratuak gurutzean geratzerik, zapatu a jaiegun oso andia zan-eta. Orregaitik, gurutzeratuen belaun-azurrak ausi* eta gorpuak illobiratzeko agindu egiala eskatu eutsoen Pilatori. 32 Gudariak ausi egin ebezan Jesusegaz gurutzeratu ebezan bien belaun-azurrak. 33 Baiña, Jesusegana urreratu ziranean, il egin zala ikustean, ez eutsoen

belaun-azurrik ausi. 34 Baiña gudarietariko batek, lantza batatz, saietsa zulatu eutsan, eta bat-batean saietsetik odola ta ura urten ziran. 35 Gaiok diñozana bera da euron ikusle, eta aren testigantza egiazkoa da. Berak ikusi ebana dirautsue, zeuek be sinistu dagizuen. 36 Izan be, guzti au Liburu Santuko au bete zedin jazo zan: *Ez dautsoe azurrik ausiko**. 37 Beste au be badiño Liburu Santuak beste idatz-atal baten: *Zulatu ebena ikusiko dabe**.

Jesusek illobiratzea

(Mt 27, 57-61; Mk 15, 42-47; Lk 23, 50-56)

38 Arimateako* Josek, Jesusen ikasle zanek (judarrakanako bildurragaitik isilleko ikasle izanaren be), Jesusen gorpua eroateko baimena eskatu eutsan Pilatori. Pilatok baimena emon eutsan, eta Jose gorpua eroatera joan zan. 39 Baita Nikodemo be, bein Jesus ikustera gabez joan izan zana, mirraz eta aloez* egindako ogeta amar bat killoko naasteaz eldu zan. 40 Bien artean eroan eben Jesusen gorpua, eta mirra ta aloez egindako naastetan ondo bustita egozan liñozko zapiz batu eben, judarrak euren ildakoak illobiratzeko egin oi dabenez.

41 Jesus gurutzeratu eben toki-ondoan ortu bat egoan, eta ortuan illobi barri bat, ordurarte an iñor illobiratu izan ez zan illobia. 42 Eta, illobia ur egoan ezker eta biaramonerako* jaia gertatzeko arin-arin ebizan-eta, Jesusen gorpua antxe jarri eben.

Illobia, utsik

(Mt 28, 1-10; Mk 16, 1-8; Lk 24, 1-12)

20 1 Domekan,* goizean-goiz, eguzkia urten baiño leen, Mari Madalen illobira joan zan. Sarlekua estaltzen eban arria kenduta egoala ikusi ebanean, 2 ariñeketan urira biurtu zan, jazo Pedrori ta Jesusek ainbeste maite eban beste ikasleari esatera. "Jauna illobitik eroan egin dabe, eta ez dakigu non jarri daben", esan eutsen.

3 Pedro ta beste ikaslea bereala illobirantz urten ziran. 4 Biak batera yoiazan ariñeketan; baiña beste ikaslea, Pedrori aurea arturik, leenen eldu zan illobira. 5 Barrura begiraturik, liñozko zapiak antxe, lurrean, egozala ikusi eban; baiña ez zan illobian sartu. 6 Gero, Simon Pedro eldu eta illobian sartu zan. Onek be liñozko zapiak antxe egozala ikusi eban, 7 baita Jesusen buruaren inguruan ezarri izan eben miesa be. Baiña miesa au ez egoan zapiakaz batera, ondo tolestuta eta baztar baten ipiñita baiño. 8 Orduan, illobira leenen eldu izan zan ikasle a be sartu egin zan; ikusi eta sinistu egin eban. 9 (Izan be, Liburu Santuak iñoenez, Jesus eriotzatik garaille biztu-bearra zanik ikasleak ez eben ulertu izan.) 10 Gero, ikasleak euren etxera biurtu ziran.

Jesus, Mari Madaleni agertzen yako

(Mk 16, 9-11)

11 Mari kanpokaldean geratu izan zan, illobi-ondoan negarrez. Negarrari ekiten eutsala, illobi-barrura begiraturik, 12 Jesusen gorpua egon izan zan tokian aingeru bi zuriz jantzita ikusi ebazan, bata buru-aldean eta bestea oiñak-aldean, jesarrita.

13 "Emakume, ¿zegaitik egiten dozu negar?"; itandu eutsoen areik. Eta Marik arei: "Nire Jauna emendik eroan egin dabe, eta ez dakit non ipiñi daben."

14 Orduan, Marik atzeruntz begiratu eta Jesus ikusi eban antxe; baiña ez eban ezagutu. 15 "Emakume —esan eutsan Jesusek—: ¿zegaitik egiten dozu negar? ¿Noren billa diarduzu?" Marik, ortuzaiña zalakotan, "Jauna —erantzun eutsan—, zuk eroan badozu, esan egidazu non ipiñi dozun eta neuk eroango dot." 16 Orduan, Jesusek emakumearen izenaz egin eutsan dei: "Mari!" Emakumeak, biurtuta, "Rabboní!", esan eutsan arameraz (edo bardin dana, "Irakasle"). 17 Eta Jesusek ari: "Ez jarraitu ni ikutzen, oraindiño ez naz nire Aitagana joan-eta; zoaz eta esan egiezu nire anaiai neure Aitagana ta

zeuen Aitagana noala, neure Jaungoikoagana eta zeuen Jaungoikoagana."

18 Mari Madalen, ikasleak egozan tokira ariñeketan joanda, "Jauna ikusi dot!", iragarri eutsen. Eta Jesusek agindu izan eutsana esan eutsen.

Jesus, ikasleai agertzen yake

(Mt 28, 16-20; Mk 16, 14-18; Lk 24, 36-49; Ap Eg 1, 6-8)

19 Domeka aretan bertan, arratsalde-beranduan, ikasleak etxe baten batuta egozan, judarrakanako bildurrez atek ondo itxita eukezala. Jesusek, arein erdian aurkezturik, "Bakea zuekaz", esan eutsen.

20 Eta eskuak eta saietsa* erakutsi eutsezan. Ikasleak, Jesus ikustean, poz-pozez bete ziran. 21 Jesusek barrero be, "Bakea zuekaz", esan eutsen. Eta beste au gaiñera: "Aitak ni bialdu nenduan ez bialtzen zaituet neuk be zuek." 22 Eta, arein gaiñera amasea eginda, "Artu egizue Espitu Santua —esan eutsen—. 23 Zuek pekatuak parkatu dagizuezanai, parkatuta geratuko yakez; eta zuek pekatuak parkatu ez dagizuezanai, parkatu bagarik geratuko yakez."

Jesus eta Tomas

24 Tomas, amabietariko bat, "Bikotxa" eritzona, ez egoan arekaz Jesus agertu yakenean. 25 Geroago, "Jauna ikusi dogu", esan eutsoen beste ikasleak. Eta Tomasek arei: "Aren eskuetan untzeen ezaugarria ikusten ez badot, eta, gaiñera, nire atzamara untzeak egindako ezaugarrian eta nire eskua saietseko zaurian sartzen ez badot, ez dot sinistuko."

26 Zortzi egun gerago, ikasle guztiak etxean batuta egozan, eta Tomas be bai arekaz batera. Ateak ondo itxita eukezanarren, Jesusek an erdian aurkezturik, "Bakea zuekaz", esan eutsen. 27 Gero, Tomasi: "Ekarri ona zure atzamara eta begiratu nire eskuak; ekarri zure eskua eta sartu nire saietsean. Eta

ez zaitetz sinisgogor izan, sinistedun baiño.” 28 “Nire Jaun eta Jaungoikoa!”, erantzun eutsan Tomasek. 29 Eta Jesusek ari: “¿Ikusi dozulako sinisten dozu? Zorionekoak ikusi bagarik sinistu dagienak!”

Ebanjelio onen elburua

30 Beste mirari asko egin ebazan Jesusek bere ikasleen aurrean, liburu onetan aitatzen ez diranak. 31 Mirari oneik, Jesus, Mesias dala, Jaungoikoaren Semea dala sinistu dagizuen izan dira idatziak, eta siniturik, Aregan betiko bizia izan dagizuen.

Tiberiadesko itsasertzean agertzen yake Jesus

21 1 Zerbait geroago, Jesus Tiberiadesko itsasertzean agertu yaken barriro ikasleai. Olantxe agertu yaken: 2 Simon Pedro, “Bikotxa” eritzon Tomas, Galileako Kanakoa zan Natanael, Zebedeoren semeak eta beste ikasle bi alkarregaz egozan. 3 “Arrantzara noa”, esan eutsen Pedrok. “Geu be zeugaz goaz”, erantzun eutsoen areik. Batera urten eta txalupara igo ziran; baiña gau aretan ez eben arraiñik bat bera be artzea lortu.

4 Eguna argitzen astean, Jesus itsasertzean aurkeztu zan, baiña ikasleak ez eben ezagutu. 5 Jesusek auxe esan eutsen: “Mutillok, ¿arraiñik artu dozue?” “Ez”, erantzun eben areik. 6 Eta Jesusek arei: “Jaurti egizue sarea txalupearen eskumaldera, eta aurkituko dozue.” Alantxe egin eben, eta sarea arraiñez bete zan, eragin be oza-ozta egiten eutsoela.

7 Orduan, Jesusek ainbeste maite eban ikasleak, “Jauna da!”, esan eutsan Pedrori. Simon Pedrok, Jauna zala entzutean, soiñekoa jantzi (arrantzako jantziak* bakarrik egoan-eta) eta zapart egin eban uretara. 8 Beste ikasleak txalupan itsasertzera eldu ziran, sarea arraiñez beterik narraz ekarrela, legorretik eun bat metro baiño urriñago ez egozan-eta.

9 Legorrera eldu ziranean, txingar-auts pilloa

ikusit eban, eta arrain bat txingar-gaiñean, eta ogia. 10 “Ekarri egizue orain, artu dozuezan arraiñetariko batzuk”, esan eutsen Jesusek. 11 Simon Pedrok, txalupara igota, sarea legorrera atara eban, arraiñez beterik; guztiz, eun eta berrogeta amairu arrain andi ziran. Eta, ainbeste izanarren be, ez zan sarea urratu.

12 “Urreratu ta jan”, esan eutsen Jesusek. Ikasleatariko bati be ez yakon otu Ari “¿Nor zara zu?” itauntzerik, ondotoxo ekien Jauna zana-ta. 13 Jesusek be, urreraturik, bere eskuetan ogia artu eban, eta banatu egin eutsen; eta beste ainbeste egin eban arraiñaz be.

14 Biztuta gero, orrelaxe agertu yaken Jesus bere ikasleai irugarren aldiz.

Jesus eta Pedro

15 Jan ebenean, Jesusek Pedrori auxe itandu eutsan: “Simon, Joanen seme, ¿oneik baiño geiago maite nozu zuk?” “Bai, Jauna —erantzun eutsan Pedrok—; zuk badakizu maite zaitudana.” Eta Jesusek ari: “Larratu egizuz nire bildotsak.” 16 Jesusek bigarrenez be ari: “Simon, Joanen seme, ¿maite nozu?” “Bai, Jauna —erantzun eutsan Pedrok—; zuk badakizu maite zaitudana.” Eta Jesusek ari: “Zaindu egizuz nire ardiak.” 17 Jesusek irugarrenez be ari: “Simon, Joanen seme, ¿maite nozu?” Maite eban, irugarrenez itauntzen eutsala entzutean, Pedro biotz-minduta jarri zan; eta onek auxe erantzun eutsan: “Jauna, zuk dana dakizu; zuk badakizu maite zaitudana.” Orduan, “Larratu egizuz nire ardiak”, esan eutsan Jesusek. 18 Eta auxe be bai: “Entzun ondo nik dirautsudan au: gazteago zintzazanean, zeuk lotzen zenduan zure soiñekoa gerrikoaz, eta zeuk nai zenduan tokira joaten zintzazan; baiña, zaartu zaitzazanean, zabaldu egingo dozuz besoak, eta beste batek lotu eta nai ez dagizun lekura eroango zaitu.”

19 Pedrok Jaungoikoa zetarikot eriotzaz goratuko eban adierazoteko esan eutsan ori Jesusek. Ori

esanda, “Jarraitu egidazu”, esan eutsan Pedrori.

Jesusek ainbeste maite eban ikaslea

20 Pedrok, atzeruntz biurtuta, Jesusek ainbeste maite eban ikaslea, aparitan Jesusen bular-gaiñean etzun izan zana eta “Jauna, ¿nor da ba, salduko zaitudana?” itandu izan eutsana bera, euren atzean etorrela ikusi eban. 21 Pedrok, ikasle a ikustean, Jesusi auxe itandu eutsan: “Jauna, eta onek, ¿zetarikot zoria izango dau?” 22 Eta Jesusek Pedrori: “Ni barriro etorri arte, ori orrela geratzea nai badot, ¿zuri zer?” Zuk, jarraitu egidazu.”

23 Berba orreik anaien artean zurrumurru au sortu eben: ikasle a ez zala ilgo. Alan be, Jesusek ez eutsan esan Pedrori ikasle a ez zala ilgo, beste au baiño: “Ni barriro etorri arte, ori orrela geratzea nai badot, ¿zuri zer?”

Azkena

24 Ikasle au da gai guztion testigantza egin dauana eta eurok idatzi dauzana. Eta guk badakigu egia diñoana. 25 Badira gaiñera Jesusek egin ebazan beste gauza asko be. Orreik banan-banan idatziko balitzaz, mundu guztia be ez litzake naikoa izango, nire ustez, idatzi aal izango litzakezan liburuak artzeko.

O A R R A K

SAN MATEO

- 1, 20 "Jaunaren aingerua": Alkartasun Zaarrean sarritan erabilten dan esaerea: Jaungoikoaren beraren eskuartzea adierazoten dau.
- 1, 21 "Jesus": berba onek "Jauna da salbamena" edo "Jaunak emoten dau salbamena" adierazoten dau.
- 1, 23 Is 7, 14.
- 2, 1 "Belen": Dabid erregearen jaioterria. / "Erodes", edo Erodes Andia: errege izan zan Jerusalem. / "Eguzkialdeko jakitunak": Babiloniako izarlari batzuk. (Cfr. Dan 2, 2. 11.)
- 2, 6 Mi 5, 1.
- 2, 11 "intzentsua ta mirra": Arabiako usaingarri jatorrak.
- 2, 15 Os 11, 1.
- 2, 18 Jr 31, 15.
- 2, 22 "Arkelao": Erodes Andiarene semea ta aren ordeze Jerusalemene errege izan zana.
- 3, 1 "Judeako basamortua": lurralde onetan ia inor be ez zan bizi; ia basamortua zan, Jerusalemetik Ebrongo mendi-bitartean, sartzaldean, eta Erdandik Itsaso Illa bitartean, sortzaldean.
- 3, 2 "Jaungoikoaren erregetza": itzez-itze, "zerueta-ko erregetza". Mateok, judarren oitureari jarraiturik, ez eban nai izaten "Jaungoikoa" izena esaterik.
- 3, 3 Is 40, 3.
- 4, 4 Dt 8, 3.
- 4, 5 "uri santua": Jerusalem.
- 4, 7 Dt 6, 16
- 4, 10 Dt 6, 13
- 4, 13 "Nazaret": itzez-itze, "Nazará". / "Zabulon eta Neftali": Palestina-iparraldeko jentillene errialdea.
- 4, 15-16 Is 8, 29-9, 1.
- 4, 17 "Jaungoikoaren erregetza": cfr. 3, 2 eta oarra.
- 4, 24 "Siria": Palestina-iparraldeko jentillene errialdea. / "alditsuak": "lunáticos" erderaz; gaur, "aldientsuak" esango geuke ("epilépticos" erderaz). (Euskeratzaillerean oarra.)
- 4, 25 "Dekapolis": cfr. Mk 5, 20 eta oarra.
- 5, 15 Eguzkialdean, etxe lauak gela bat bakarrekoak ziran.
- 5, 17 "Legea": edo bardin dana, Alkartasun Zaarra.
- 5, 21 Ur 20, 13.
- 5, 29 "pekatutarako bide izan": itzez-itze, "gaizpide izan." / "leza": grezitarren *hades* eta judarren *sheol*: ildakoen egonlekua, egontokia, egoitza.
- 5, 27 Ur 20, 14.
- 5, 31 Dt 24, 1.
- 5, 33 Ur 20, 7; Zn 30, 3; Dt 23, 22. Is 66, 1; Sal 48, 3.
- 5, 38 Ur 21, 4.
- 5, 43 Ab 19, 18.
- 5, 46 "Diru-batzailleak": cfr. Mk 2, 15 eta oarra.
- 6, 5 "Otoitz egin dagizuenean": judarrak otoitz egiteko ordu artuak eukezan; otoitz ori guztien aurrean egiten ebenean, euren Jainkozaletasuna agertzeko era egokia izaten eben.
- 6, 13 "gaiztoagandik": edo-ta, "gatxetik". Eskuliburu batzuek urrengo au be badakarre orrene ostean: "Izan be, zeurea da erreñua, aal-izatea ta aintza gizaldien gizaldietan. Amen".
- 6, 19 Palestinako etxeak, geienetan, buztinaz eta lastoaz eginda egozan.
- 7, 12 "Moisesen legea": cfr. 5, 17.
- 8, 17 Is 53, 4.
- 8, 28 "Gadara": jentillene uria, Jenezaret-itsasotik 10 kilometrotara ego-sartzaldean; ango lurraldeak be izen berori eban. / "Deabrudunak": cfr. Mk 1, 32 eta oarra.
- 9, 1 "Bera bizi zan uria": Kafarnaun da (cfr. Mk 2, 1), Jesusek bera bizi izateko aukeratu eban uria.
- 9, 10 "entzute-txarrekoak": errabin-araueñ eraz, loitzat jota egoan norbaitegaz jaten ebana, berau be loi biurtzen zan.
- 9, 13 Os 6, 6.
- 9, 23 "soiñulariak": itzez-itze, "txilibitulariak"; oneik, norbait ilten zanean, emakume illetariak egiten eutseen lagun.
- 10 1 "espiritu zikiñak": cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
- 10 5 "Samaria": Judea ta Galilea-artereko errialdea; askotariko lagunartea bizi zan an. Judarrakere bestalditik etorrita gero, ez eben samaritarrekaz artu-emonik.
- 10, 7 "Jaungoikoaren erregetza": cfr. 3, 2 eta oarra.
- 10, 13 Judarren arteko agurra, alkarrak bakea opa izatea zan (ikus 12).
- 10, 17 "agintariak": itzez-itze, "sanedriñak": epaimaiak, sinagoga batzuetako auzi-epaillerik beinñenak osotzen ebazan; 23 auzi-epailler ziran.
- 10, 27 "etxe-gaiñak": cfr. Lk 12, 3 eta oarra.
- 11, 3 "etorteko zana": Mesiasen izenordeatariko bat "etorteko dana" zan. Cfr. Mt 3, 11.
- 11, 10 Ml 3, 1.
- 11, 21 "Korazin eta Betsaida": Kafarnaun-ondoko erriak. / "Tiro ta Sidon": cfr. Mk 3, 8 eta oarra. / "doluz eta errautsez": itzez-itze, "zakuz eta errautsez". Norbere pekatua agertzeko oiturazko egikerea Israelen. Cfr. Jer 6, 26; Jn 3, 5-8.
- 11, 27 "dana erakutsi dausti": itzez-itze, "dana neure

- eskuetan itzi dau". Semarren esaerea, antza.
- 12, 7 Os 6, 6; S 1+, 15, 22.
- 12, 18-21 Is 42, 1-4.
- 12, 20 "kaiñabera brintzatu auzi": auzi-epailleak norbait galtzeko egiten eban kiñua, itxuraz.
- 12, 47 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 13, 1 "itsasertzean": cfr. Mk 1, 16 eta oarra. / "Aintzira" edo "zingira" (=lago, laguna) erabili bearran, "itsaso" itza jarri dogu euskeraz, izen oneaz be ezagutzen da Jenesarreko edo Galileako ur pilloa-ta. (Euskeratzailearen oarra.)
- 13, 14-15 Is 6, 9-10.
- 13, 15 "osatu ez dagidazan": ikusi Mk 4, 12 eta oarra.
- 13, 25 "galbedarra": landara au gariaren antzekoa da. Aren garauak, moskorrak egiten dauan antzeko ondeza egiten dabe.
- 13, 35 Sal 78, 2.
- 13, 41 "pekatu-eragilleak": itzez-itiz, "gaizpideak".
- 14, 1 "Galilean": cfr. Mk 1, 14; 6, 14, 17 eta oarrak.
- 15, 22 "kanaandar emakumea": Feniziako bere burujabe zan errialdeko emakume bat.
- 15, 4 Ur 20, 12; Dt 5, 16; Ur 21, 17; Ab 20, 9.
- 15, 8-9 Is 29, 13.
- 15, 29 "Galileako itsasertza": cfr. Mk 1, 16 eta oarra.
- 15, 39 "Magadan": toki ez-ezaguna. Esku-liburu batzuek "Magdalá" dakarre, baita "Magedán" be.
- 16, 2-3 Esku-liburu batzuek ez dakarrez kako-barruko ataltxo biok.
- 16, 17 "gizonek": itzez-itiz, "aragiak eta odolak", eta semarren artean "gizona" adierazoten dau, mala ta gauza-eza esanaiaz.
- 16, 23 "jauspide-arri": itzez-itiz, "gaizpide".
- 17, 15 "txarraldi gogorak": itzez-itiz, "alditsua da eta gorriak ikusten dauz". Aldien-geisioa eukan, itxuraz (erderaz, "epilepsia").
- 17, 18 "deabrua": cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
- 17, 21 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 17, 24 "diru-ordaiñak": itzez-itiz, "drakma bikoak". Israeldar gizonezko guztiak urte oro emon bear izaten ebezan Jerusalemgo jauretzerako.
- 17, 27 "iñor iraindu ez daiten": itzez-itiz, "gaizpiderik izan ez dagian" / "bear dan dirua": itzez-itiz, "estater"; "estater" bakotzak lau drakma balio ebazan.
- 18, 11 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 18, 24 "milloe asko": itzez-itiz, "amar milla talentu".
- 18, 28 "uskeria bat": itzez-itiz, "eun denario". Diru gutxi, benetan, arek bere ugazabari zor eutsazan milloen aldean.
- 18, 16 Dt 19, 15.
- 19, 1 "Jordan-sortzaldean": itzez-itiz, "Jordanez bestekaldean".
- 19, 5 As 1, 27; 2, 24.
- 19, 8 Dt 24, 1.
- 19, 18 Ur 20, 12-16; Dt 5, 16-20; Ab 19, 18.
- 20, 5 "eguerdia": itzez-itiz, "seigarren ordua" / "Arratsaldeko irurak": itzez-itiz, "bederatzigarren ordua".
- 20, 6 "arratsaldeko bostak": itzez-itiz, "amaikagarraren ordua".
- 21, 4-5 Is 62, 11; Za 9, 9.
- 21, 9 Sal 118, 25-26
- 21, 13 Is 56, 7; Jr 7, 11.
- 21, 16 Sal 8, 3 (LXX).
- 21, 42 Sal 18, 22-23.
- 21, 44 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 22, 24 "Erodesen alderdikoak": cfr. Mk 3, 6 eta oarra.
- 22, 24 Dt 25, 5; As 38, 8.
- 22, 32 Ur 3, 6.
- 22, 37 Dt 6, 5.
- 22, 39 Ab 19, 18.
- 22, 40 "Moisesen legea": edo bardin dana, Alkartasun Zaarra.
- 22, 44: Sal 110, 1.
- 23, 2 "Moisesen legea argitzeko arduradunak": itzez-itiz, "Moisesen irakastokian jesarten diranak". Legea irakasten eta beteazoten ebenak ziran.
- 23, 5 "kutunak": kutxatilla txikitxo batzuk ziran, barruan Moisesen legeko idatz-atalik mamintsuenak gordeten ebezala. / "arizaiak": judar Jainkozaleak euren jantzieta arizai bat ari ubelaz eroien; ori, Jaungoikoaren aginduak gogorazoteko zan (Mk 6, 56; Lk 8, 44).
- 23, 14 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 23, 15 "jarraitzaille": judarren sinismenera biurtzen zan jentilla, eta alakoa erdaintzaren bidez batzen yakon erri aukeratuari.
- 23, 24 "zurituak": Palestinako illobiak zuriz margotuta egozan: areitariko bat gabez ez-jakiñean ikutzean, ikutu egiana legezko loikeritan jausi ez zeiten.
- 23, 39 Sal 118, 26.
- 24, 3 "Oriomendi:" cfr. Mk, 11, 1 eta oarra.
- 24, 10 "galdu egingo dabe sinismena": itzez-itiz, "gaizpidea artuko dabe".
- 24, 43 "etxea erasoten ez izteko": cfr. Mt 6, 19 eta oarra.
- 25, 15-20 "diru-pillo": itzez-itiz, "talentu," diru askoren ezaugarria.
- 26, 6 "Betania": cfr. Mk 11, 1 eta oarra.
- 26, 14 "Judas Iskariote": cfr. Mk 3, 19 eta oarra.

- 26, 31 Za 13, 7.
- 26, 53 "gudarozte": itzez-itiz, "talde". Cfr Mk 5, 9 eta oarra.
- 26, 64 Sal 110, 1; Dn 7, 13.
- 27, 9-10 "agindu izan eustanez": Zakariasen 11, 12-13-garren ataltxoetak zelanbait artuta, baita Jeremiasen 18, 2-3; 19, 1-2; eta 32, 6-15-garrene-tatik be.
- 27, 16 Esku liburu batzuek "Barrabas"-en aurretik "Jesus" dakarre: "Jesus Barrabas izenekoa".
- 27, 28 "estalki gorri bat": erromatar gudariak erabilten eben soingaiñekoa.
- 27, 46 Sal 22, 2.
- 27, 57 "Arimatea": Jerusalemgo ipar-sortzaldean, 35 kilometrotara, egoan uria.
- 27, 62 "Atontze-eguna": barikua zan, judarrak jai-egunerako gertatzen ziraneko eguna.
- 28, 1 "beste Mari:" cfr. 27, 56.

SAN MARKOS

- 1, 1 "Jaungoikoaren Semea": esku-liburu batzuek ez dakarrez berba biok.
- 1, 2 Mt 3, 1.
- 1, 3 Is 40, 3.
- 1, 4 "basamortua": cfr. Mt 3, 1 eta oarra.
- 1, 16 "Galileako itsasoa", edo "Jenesareteko itsasoa" (ikusi Mt 13,1 eta oarra). 1, 23 "espíritu zikiña": sarritan erabilten dira berba biok ebanjelioetan; geiso batzuen eragiltzetat artzen dan deabruari ezarten yako izen ori (cfr. 3, 11. 30; eta abar).
- 1, 32 Jaieguna ("sabbat" = larunbata, zapatua) leenengo izarrak agertzen ziranean amaitzen zan. / "deabrudunak": cfr. 1, 23 eta oarra.
- 2, 4 "etxe-sabaia": Palestinako etxe-sabaiaik zurez eta lur zapalduz egiten ebezan.
- 2, 14 "dirubatze-maia": urian sartzen eta ataraten ebezan salgaiakaitik, diru-ordaiñak (= kontribuziñuak) ordaintzen ziran, eta diru-ordaiñok diru-batzaileak jasoten ebezan. Ikusi urrengo oarra eta Luk 19, 2.
- 2, 15 "diru-batzaileak": diru-ordaiñen bidez, sarritan, aberstu egiten ziran. Gaiñera, erromatar zapaltzaileen laguntzaille ziran, eta, orregaitik, judarrak, pekaritizat artzen ebezan, Moisesen legea beteten ez ebelako.
- 3, 6 "Erodesen alderdikoak": Erodes Antipasen adiskide edo aldekoak.
- 3, 7 "itsasertza": cfr. 1, 16 eta oarra.
- 3, 8 "Idumea": Judeako egoaldeko errialdea. Antxe egoan Ebron uria. / "Tiro ta Sidon": Fenizia-iparraldeko uriak, Mediterraneo itsasondo-gaiñean.
- 3, 11 "espíritu zikiñak": cfr. 1, 23 eta oarra.
- 3, 16 "Amabi aukeratuak oneixek izan ziran": berbok ez dakarrez esku-liburu batzuek.
- 3, 18 "Kanaandarra" edo "zelote": erlejiño-alderdia; Israel-erriaren barruko ta kanpoko arerioen aurka indarkeria be erabili zeitekeala iñoen.
- 3, 19 "Iskariote": izenorde bat. Joan 6, 71 eta 13, 26-garren ataltxoetan Judasen aitari ezarten yako.
- 3, 22 "Beeltzebul": deabruen nagusiari ezarten yakon izena (Er 2+, 1, 2-16).
- 4, 1 Cfr. 1, 16 eta oarra.
- 4, 11-12 Is 6, 9-10.
- 4, 12 "parkatuak izan ez daitezkan": cfr. Ap 28, 27. Aramera-kutsua aurrean izanik, batzuek idatz-txatal au beste onetara itzultzen dabe: "kanpoan dagozanai guztia asmagaitz egiten yake, begirtuarren be ez dabe ikusten: adi-adi egonarren be ez dabe entzuten, ez ulertzen; onbideratu daitezala eta parkatuak izango dira".
- 4, 21: "ontzia": itzez-itiz, "imillauna": bederatzi bat litro artzen dauzan ontzia."
- 5, 1 "Jerasa": Jenesarre-itsasoaren egoaldeko erri aldea, urrean.
- 5, 2 "espíritu zikiña": cfr. 1, 23 eta oarra.
- 5, 5 "illobiak": kobetan edo artzuloetan egiten ebezan sarritan.
- 5, 9 "taldea": erromatar gudarozteari egokiozan gudariak (6.000 gizonezko).
- 5, 11 "txarriak": judarrak txarria loitzat jotzen eben. Debekatuta egoan txarrikirik jatea. Beraz, jazo-pen au jentillen lurraldean izan zan (Ab 11, 7; Dt 14, 8).
- 5, 20 "Dekapolis": Jenezarete-itsasoaren eguzki-sortzaldean egozan amar uri; euren burujabe ziran. (Cfr. Mt 4, 25.)
- 5, 41 "Talitha kum": aramerazko berbak. Aramera zan Jesusen egunetan juda rrak berba egiten eben izkuntza.
- 6, 7 "espíritu zikiñak": cfr. 1, 23 eta oarra.
- 6, 14 "Erodes": Erodes Antipas da, tetrarka izenaz Galilean errege zana.
- 6, 15 "Elias": Mesiasen aurrelari lez, Elias barrero etorriko zala uste eben Jesusen egunetako judarrak (cfr. Mt 3, 23).
- 6, 17 "Felipe": Erodes Felipe da, Erroman bizi zana. Ez da Filiposen Zesarean bizi zan Felipe tetrarka (8, 27).
- 6, 47 "itsasoa": cfr. 1, 16 eta oarra.
- 6, 53 "Jenesaret": lautada emokorra Kafarnaungo ego-sortzaldean.
- 7, 2 "esku-garbitze-ekandua": aldi aretako judarrak

- ez eben eskurik garbitasunagaitik garbitzen, oikuntzako arau bat beteteko baiñu.
- 7, 3 "euren asaben ekandua": itzez-itz, "zaarren ekandua". Moisesen legeko azalpen pilloa, errabiñen artean agoz-ago artua eta geroago Mishna eta Talmud-en ezarria.
- 7, 4 "eta ogeak be": esku-liburu askok ez dakarre txataltxo au.
- 7, 6-7 Is 29, 13.
- 7, 10 Ur 20, 12; Dt 5, 16; Ur 21, 17; Ab 20, 9.
- 7, 11 "jauretxeko oparia": itzez-itz, "korban, aramerazko itza.
- 7, 25 "espíritu zikiña": cfr. 1, 23 eta oarra."
- 7, 26 "siri-feniziara": Siriako emakume ori, erromatarren eskualdeko antxiñako feniziarren urikoa zan.
- 7, 34 "Effatá": aramerazko itza.
- 8, 10 "Dalmanuta": gaur egunean ez da toki au eza-gutzen.
- 8, 27 Filiporen Zesarea: Jordango iturrien ondoan egoan uria. Erodes Felipek eregi eban.
- 9, 17 "espíritu mutua": geisoagaitik, umeak ezin izan eban berba egiten ikasi. Cfr. 1, 23 eta oarra.
- 9, 42 "pekatu-bide": itzez-itz, "gaizpide".
- 9, 44 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 9, 46 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 9, 49 "sutan izango da gazitua": garbitze-ezaugarri lez gazitu bear ziran opariak aitatzen dauz esanaldi onek. (Ikusi Ab 2, 13.)
- 10, 4 Dt 24, 1.
- 10, 6 As 1, 27.
- 10, 7 "eta bere emazteari batuko yako": esku-liburu batzuek ez dakarre esanaldi au.
- 10, 8 As 2, 24.
- 10, 19 As 20, 12-16; Dt 5, 16-20; Dt 24, 14.
- 10, 24 Esku-liburu batzuek zeaztasun au dakarre: "izango yake ... euren ustea maberastasunetan jarten dabenai".
- 10, 40 "atundu yakenentzat": esku-liburu batzuek beste onetara dakarre: "ori, neure Aitak atondu dautsenentzat da".
- 10, 51 "Irakasle": itzez-itz, "Rabunni", aramerazko itza.
- 11, 1 "Oriomendi": Jerusalemgo egoaldeko menditxo bat, Jerusalemdik Zedron-ibaiko aranabantzen dauala. / "Betfaje": Oriomendi-sortzaldean dagoan erria, Jerusalemdik kilometro gutxitara. / "Betania": Betfaje-ondoan dagoan beste erri bat.
- 11, 9 "Goral": itzez-itz, "Hosanna!", aramerazko itza. Cfr Sal 118, 25.
- 11, 15 "jauretxean": edo bardin dana, jauretxeko atarietarik baten; judarrak ez ziranak be sartu zeitekezan an. / "Diru-aldatzailleak": oneik, erbestetik etozan judarrai eurok bear eben dirua emoten eutseen: eskintzak erosteko, Jerusalemgo jauretxerako diru-ordaiña emoteko, eta beste bearrizan batzuetarako.
- 11, 17 Is 56, 7; Jr 7, 11.
- 11, 21 "Irakasle": itzez-itz, "Rabbi", aramerazko itza.
- 11, 26 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 12, 10-11 Sal 118, 22-23.
- 12, 13 "Erodesen alderdikoak": cfr. 3, 6 eta oarra.
- 12, 14 "diru-ordaiña": judar guztiak egozan diru-ordain au emoteko beartuta; beste diru-ordain batzuk be ba-ziran: bide-ordaiñak, muga-ordaiñak, arilak, eta abar.
- 12, 19 As 38, 8; Dt 25, 5-10.
- 12, 26 As 3, 6.
- 12, 29-31 Dt 6, 4-5; Ab 19, 18.
- 12, 36 Sal 110, 1.
- 12, 42 "diru": itzez-itz, "lepta", baliorik gutxien eban dirua.
- 13, 3 "Oriomendi": cfr. 11, 1 eta oarra.
- 13, 22 "sasi-mesiasak": cfr. Ap 5, 36-37.
- 13, 27 Ataltxo au, Dt 30, 4 eta Za 2, 10-garren ataltxoetatik zelanbait artuta dago (cfr. Ne 1, 9; Ez 37, 9).
- 12, 29-31 Dt 6, 4-5; Ab 19, 18.
- 14, 3 "Betania": cfr. 11, 1 eta oarra. / "akara": lora zurizko landarea, Indian sortua; aren lorak usain gozoa be gozoa eban; landarearen zustraraz usaingari oso baliotsua atontzen eben.
- 14, 8 "nire gorpua atondu": aldi aretan, judarrak gorpua illondu egiten eben, miritzen eta usaingarrien bidez.
- 14, 10 "Judas Iskariote": cfr. 3, 19 eta oarra.
- 14, 26 "gorapen-kantua": Pazko-aparia, 115-118-garren Salmuak esanda amaitzen eben.
- 14, 27 "Zuen sinismenak uts egingo dau": itzez-itz, "gaizpidea artuko dozue". / Za 13, 7.
- 14, 36 "Aita": itzez-itz, "abba", aramerazko berbea. Cfr. Erm 8, 15.
- 14, 63 "jantziak urratu": As 37, 29-34; Ze 14, 6; S 2^a, 13, 31 dakarrenez, tristurea ta biotz-ikarea agertzeko ezaugarria zan.
- 14, 68 "Orduan, oillar batek kukurruku egin eban": esku-liburu batzuek ez dakarrez berbok. / kukurruku egin = oillarrak jo: oillarraren kantua ots-izena. (Euskeratzailearen oarra.)
- 15, 1 "Batzar Nagusia": itzez-itz, "Sanedriña". 71 gizonek osotzen eben, abadeburu, judarren irakasle eta erriko zaarren artetik aukeratuta.

- Judar-erriaren auziak eta erlejiño-gaiak ebazten ebezan. / "Pilato", Pontzio: Judeako erromatar Jaurlari 26 eta 36 urte-bitartean.
- 15, 15 "zigorkadaz astindu": erromatarrek gurutze rako galduai emoten eutseen zigorra.
- 15, 17 "purpura": erregeai ta andikiak egokien kolorea.
- 15, 21 "Jesusen gurutzea": gurutzerako galduak eura-erak eroan bear izaten eben gurutzearen zear-egurra gurutzeratzeko tokiraiño. / "Zirene": Aprika-iparraldeko itsasondoko uria.
- 15, 23 "mirraz naastutako ardao": gurutzeratuai oiñazeak zerbait kentzeko emoten eutseen edaria.
- 15, 28 Esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 15, 34 "Eloí, Eloí, lema sabaktaní?": aramerazko berbak (Sal 22, 2).
- 15, 36 "ozpiña": erromatar gudariak sarritan edaten eben edaria.
- 15, 38 "jauretxeko oiala": jauretxeko sarbidea isten ebana, jauretxeko tokirik ezkututsuena, Jaungoikoa beste iñon baiño geiago somatzen zan lekua.
- 15, 43 Ez zan erromatarren ardurea gurutzeratuak illobiratzera; baiña eguzkia ostendu baiño leen illobiratuak izan zeiteezala agintzen eban judarren Legeak (Dt 21, 22-23).
- 16, 1 "Jaiéguna igarota": cfr. 1, 32 eta oarra. / "gorpua illontzeko": cfr. 14, 8 eta oarra.
- 16, 8 Esku-libururik onenak ikusirik, ementxe amaitzen da Markosen ebanjelioa. Orregaitik, 9-20-garren ataltxoak kakote-artean jarten dira.

SAN LUKAS

- 1, 5 "Erodes": cfr. Mt 2, 1 eta oarra. / "Judea": grezitarraren oituraz, Lukasek, Judeatzat, judarren errialde osoa artzen dau. / "Aaron": Moisesen anaia, Jerusalemgo abade-sendi guztien aurretiko lez artzen eban.
- 1, 17 Mt 3, 23-24.
- 1, 33 "Jakoben etxea": edo bardin dana, Israel-erria. 1, 37 As 18, 14.
- 2, 1 "Augusto": erromatarren enperadorea. / "Siria": erromatar eskualdea; aren menpean egon zan aldi batzuetan Palestina.
- 2, 23 Ur 13, 2; 13, 11.
- 2, 24 Ab 5, 7; 12, 8.
- 2, 42 "Amabi urte" egitean, judarren artean erlejiño-gaietan eldutzat artua izaten zan.
- 3, 1 "Tiberio": Erromako enperadorea Augustoren ordezkari (cfr. 2, 1). Lukasek damoskuzan krono-
loji-zeaztasunak, Kristoren osteko 20-garren urtean-edo jarten gaitue. / "Pontzio Pilato": cfr. Mk 15, 1 eta oarra. / "Erodes": Erodes Antipas da. Cfr. Mk 8, 27-garren ataltxoko oarra.
- 3, 2 "Anas": abade nagusia Kristoren osteko 15-garren urterarte. "Kaifas" izan zan aren ordezkari abade nagusi; aren suiña zan (Jn 18, 13-24; Ap 4, 6). / "basamortua": cfr. Mt 3, 1 eta oarra.
- 3, 4-6 Is 40, 35.
- 3, 5-6 Is 40, 3-5.
- 3, 12 "diru-batzailleak": cfr. Mk 2, 15-garren ataltxoko oarra.
- 4, 4 Dt 8, 3.
- 4, 8 Dt 6, 13.
- 4, 9 Sal 91, 11-12.
- 4, 10-11: Sal 91, 11-12.
- 4, 12 Dt 6, 16.
- 4, 16 "Nazaret": itzez-itz, "Nazará". Cfr. Mt 4, 13-garren ataltxoko oarra.
- 4, 18-19 Is 61, 1-2.
- 4, 44 "Galilea", esku-liburu batzuek dakarrenez; beste batzuek, barriz, "Judea" dakarre (cfr. 1, 5-garren ataltxoko oarra).
- 6, 1 Esku-liburu batzuek olantxe diñoe: "leenengo [illeko] bigarren jaiégun [sabbat] baten".
- 6, 15 "Alfeoren semea": "Alfeoren anaia" be ulertu leiteke. / "Zelote": cfr. Mk 3, 18 eta oarra."
- 6, 15 "Santiagoren semea": "Santiagoren anaia" be ulertu leiteke
- 7, 11 "Nain": Galileako ego-sortzaldean egoan auzuna txiki bat.
- 7, 17 "Judea": cfr. 1, 5-garren ataltxoko oarra.
- 7, 21 "espíritu gaiztoak" (edo zikiñak): cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
- 7, 27 Mt 3, 1.
- 7, 34 "diru-batzailleak": cfr. Mk 2, 14-15-garren ataltxoetako oarrak
- 7, 38 "Jesusen atzean": bazkaritara deituak mairurrean etzunda egoten ziran.
- 7, 44 "oiñetarako ura": cfr. As 18, 4; 19, 2.
- 8, 2 Cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
- 8, 10 "ulertu ez dagien": cfr. Ap 28, 27.
- 8, 22 Itsaso ori, Jenesareteko itsasoa zan; beste itsasertzen jentillak bizi ziran.
- 8, 26 "Jerasa-ko errialdea": itzez-itz, "jerasatarren errialdea". Beste esku-liburu batzuek, barriz, "gadaratarren errialdea" dakarre.
- 8, 29 Cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
- 8, 30 "Taldea": cfr. Mk 5, 9 eta oarra.
- 8, 31 "leza": deabru-indarrak aldi baterako lotuta dagozan tokia. Cfr. Ag 9, 1; 11, 7.
- 8, 45 Esku-liburu askok "Pedro ta onen lagunak"

diño.

- 9, 1 "espíritu gaiztoak": cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
 9, 52 "Samaria": cfr. Mt 10, 5 eta oarra.
 10, 1 Esku-liburu batzuek "irurogeta amar "diño.
 10, 22: ikusi Mt 11, 27-ko oarra.
 10, 32 "lebitar batek": lebitarrak euren arazoak ebezan: Jerusalengo jauretze abestiak eta erreopariak atondu, baita jauretze-barrua zaindu be.
 10, 33 "samaritar bat": cfr. Mt 10, 5 eta oarra.
 10, 34 "orioa ta ardaoa": aldi aretan miña kentzeko ta zauriak garbitzeko erabilten ziran osagarriak.
 11, 11 Esku-liburu batzuek auxe dakarre gaiñera: "edo ogia eskatzen badautso, ogiaren orde arria emongo dautsanik?"
 11, 24 "espíritu zikiña": cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
 12, 3 "etxe-gaiñak": Eguzki-sortzaldean, etxeak alkarren ondoan egozan ezkerre, etxe-gaiñetan auzokoak alkarriketan jarduten eben sarri be sarri.
 12, 21 Esku-liburu batzuek ez dakarre atalxo au.
 13, 1 "Pilato": cfr. Mk 15, 1 eta oarra.
 13, 11 "espíritu gaiztoa" [zikiña]: cfr. Mk 1, 23 eta oarra.
 13, 35 Sal 118, 26.
 15, 1 "diru-batzailleak": cfr. Mk 2, 14-15-garren atalxoetako oarra.
 15, 2 "mormoxetan asi ziran": cfr. Mk 9, 11 eta oarra.
 15, 15 "txarrizain": cfr. Mk 5, 11-garren atalxoko oarra.
 15, 18 "Jaungoikoaren aurka": itzez-itzez, "zeruaren aurka". Emen, beste batzuetan lez, Lukasek ez dau nai izaten "Jaungoikoa" izena esaterik (cfr. Mt 3, 2-garren atalxoko oarra).
 15, 21 "Jaungoikoaren aurka": itzez-itzez, "zeruaren aurka". Cfr. 15, 18-garren atalxoko oarra.
 15, 22 "eraztuna": eraztuna aginpidetaren ezaugarria zan, eta oiñetakoak gizona bere burujabe zala adierazoten eben (jopuak oin-utsik ibiltzen ziran).
 16, 16 "Moisesen legea": cfr. Erm 3, 19.
 16, 20 "Lazaro": Eleazar izenaren laburpena.
 16, 29 "Moisesek eta profetak idatzi ebena": esaera onek Alkartasun Zaar osoa artzen dau (cfr. Ap 26, 22; 28, 23; Erm 3, 19).
 17, 1 "pekatutara bultza egin": itzez-itzez, "gaizpidea".
 17, 2 "pekatutan jausi": itzez-itzez, "gaizpidea artu".
 17, 11 Cfr. Mt 10, 5 eta oarra.
 17, 36 Esku-liburu batzuek ez dakarre atalxo au.
 18, 10 "diru-batzailleak": cfr. Mk 2, 14-15-garren atalxoetako oarra.
 18, 20 Ur 20, 12-16; Dt 5, 16-20.
 19, 2 "diru-batzaille nagusia": cfr. Mk 2, 14-15-

- garren atalxoetako oarra.
 19, 4 "piku-arbola": berez, gerkerazko "sukomoros" eta laterazko "sycomorus" ("sicómoro" gaztelaz). Zugatz ori pikondoaren antzekoa da, eta orrexegaitik jarri dogu berba ori. (Euskeratzailearen oarra).
 19, 13-25 "diru-pillo bat": itzez-itzez, "minak"; mina bakotzak 100 denario balio ebazan.
 19, 38 Sal 118, 26
 19, 46 Jr 7, 11; Is 56, 7.
 20, 17 Sal 118, 22.
 20, 28: ikusi Mk 12, 19-ko oarra.
 20, 37 Ur 3, 6.
 20, 42-43 Sal 110, 1.
 21, 5 "zin-eskintzak": jauretzea apaintzen eben eder-gaiak, urrean.
 21, 37 "Oriomendi": cfr. Mk 11, 1 eta oarra.
 22, 3 "Iskariote": cfr. Mk 3, 19 eta oarra.
 22, 4 "jauretzeko zaintzaille nagusiak": jauretzea zaintzen eben arduradunak. Cfr. 10, 32 eta oarra.
 22, 17 Is 53, 12.
 22, 39 "Oriomendi": cfr. Mk 11, 1 eta oarra.
 22, 43-44 Esku-liburu batzuek ez dakarrez atalxo biok.
 22, 52 "jauretzeko zaintzaille nagusiak": cfr. 22, 4-garren atalxoko oarra.
 23, 2 "diru-ordaiña": cfr. Mk 12, 14 eta oarra.
 53, 15 "Erodes": Erodes Antipas da.
 23, 17 Esku-liburu batzuek ez dakarre atalxo au.
 23, 30 Os 9, 14; 10, 8.
 23, 43 "paradisuan": aldi aretako judar batzuen us-tez, ildakoak toki orretan egozan, biztuerea itxaroten.
 23, 56 "usaingarriak eta miritzak": cfr. Mk 14, 8 eta oarra.
 24, 13 "Emaus": ez dago argi auzuna au non egoan; Jerusalengo sartzaldetik 30 kilometrotara-edo, bearbada (beste batzuen eretxiz, 11 kilometrotara). Esku-liburu batzuetatik ataraten danez, Jerusalemik bost ordutara (beste batzuen eretxiz, barriz, ordu bitara).
 24, 27 "profetak": cfr. 16, 29 eta oarra.
 24, 42 Esku-liburu batzuek auxe dakarre gaiñera: "eta ezti-orrizi bat".
 24, 50 "Betania": cfr. Mk 11, 1 eta oarra.

SAN JOAN

- 1, 4 "gizonentzat": beste itzulpen bat be egin dai-teke: "3 Berak egin eban dana. Bera bagarik ez da egin egindakorik ezer be. 4 Aregan bizia egoan, eta bizi ori gizonentzat argia zan".

- 1, 5 Beste itzulpen bat: "eta illunpeak onartu izan nai ez ebena".
 1, 6 "Joan": Joan Bateatzailea da.
 1, 9 "egoan": beste itzulpen bat: "Bazan egiazko argia, mundura etorriaz gizon guztiak argitzen dauzana".
 1, 10 "mundua": Biblian, "munduak" esanai bat baiño geiago daukaz: a) Jaungoikoaz osterantzeko izadia (Jn 12, 25; 17, 57); b) gizadia (Jn 2, 16-17); c) Jaungoikoari gogor egiten dautsoen gizadia ta gauzak. Irugarren esanai au erabilten dau sarritan Joanez (Jn 7, 7; 12, 31; 15, 18-19; 17, 10.14-16; Jn 1^a, 2, 1 5-17; eta abar); baiña txatal onetan iru esanaioz darabiz zelanbait.
 1, 14 "graziaz eta egiaz": berbok Ur 34, 6-7-garren atalxoaren parean jarten badoguz, bat datoz "maitasunaz" eta "zintotasunaz".
 1, 16 "bedeinkapenak erreskadan": beste batzuek olantxe itzultzen dabe: "Aren maitasunari dago-kion maitasuna". Eta beste batzuek: "bedeinkapen bat" (Alkartasun Barrikoa) "beste bedeinkapen baten orde" (Alkartasun Zaarrekoa).
 1, 19 "judarrak": emen, Joanegan sarritan lez, "judarrak" itza Jesusen egunetako Israelgo erlejiñparen nagusiak adierazoteko erabilten da (cfr. Jn 2, 18; 5, 10-18; 7, 1. 13; 9, 22; 18, 12; 20, 19).
 1, 20 "Elias": ikusi Mk 6, 15.
 1, 21 "itxaroten dogun profeta": Dt 18, 15-garren atalxoan oiñarriturik, Jesusen egunetako judarrretariko askok azken-aldietako "profeta"-ren zain egozan (cfr. Mt 16, 14; 21, 11; Ap 3, 22-23).
 1, 23 Is 40, 3.
 1, 28 "Betania": Jordan-sortzaldeko erria; baiña ez da Lazaro, Marta ta Mariren erria (cfr. Jn 11, 1. 18), beste bat baiño. Beste izen bat be baeban, antza: "Betabara".
 1, 34 "Jaungoikoaren Semea": beste esku-liburu batzuek "Jaungoikoaren aukeratua" dakarre.
 1, 38 "Irakasle": aramerazko "Rabi" (cfr. Mk 12, 19).
 1, 44 "Betsaida": Tiberiades-itsasoaren ipar-sartzal deko erria.
 1, 48 "pikondopean": errabin batzuek diñoenez, pikondopea Biblia irakurteko ta ausnartzeko leku egokia zan
 2, 4 "nire gaietan": gerkereak ebertainen esaera bera dakar: "Eta niri ta zuri, zer, andra?" Inoren arloetan egoki sartzen ez ziranai erantzuteko era biltzen ebezan esaerak ziran (ikusi Mt 8, 29; Mk 1, 24; 5, 7; Lk 4, 34; 8, 28 eta abar).
 2, 14 "diru-aldatzailleak": ikusi Mk 11, 15, oarra.
 2, 17 Sal 69, 10.
 2, 18 "jasoten": jauretzea egiten, Jesukristo jaio baiño 20 urte-edo leenago asi ziran, Erodes Andiarene babespean.
 3, 2 "Irakasle": ikusi Jn 1, 38, oarra.
 3, 3 "barriro": "barriro" itzak "goitik" be adierazoten dau (cfr. Jn 3, 4).
 3, 8 "aizeak": gerkeraz, itz berberak "aizea" ta "Espiritua" adierazoten dauz.
 3, 13 "Gizasemea": esku-liburu batzuek auxe be badakarre: "zeruan dagoan Gizasemea".
 3, 23 "Salin": Ainon eta Salin, Jordan-aranean egozan tokiak dira.
 3, 25 "judar baten": esku-liburu batzuek "judar batzuen" dakarre.
 3, 29 "senarrari": Jaungoikoaren irudia senar lez eta Israel emazte lez, sarritan agertzen da Alkartasun Zaarrean (cfr. Os 1, 3; Jr 2, 2. 20; 3, 1. 20; Ez 16, 1-48. 59-63; Is 54, 4-8; 61, 10; 62, 4-5), baita "Abestirik Ederrena" deritzon Bibliako olerki-liburuan be, antza. Baita Alkartasun Barriaren be: Mk 2, 19; Mt 9, 15; 22, 1 eta abar; Ko 2^a, 11, 2; Ef 5, 22-32; Ag 19, 7; 21, 2.
 4, 5 "Sikar": batzuen eretxiz, Samaria-erdian egoan Siken da; beste batzuen ustez, barriz, Askar izeneko auzunea, Ebal-sortzaldean, patiñetik kilometro batetara iparralderuntz.
 4, 9 "samaritarrak": ikusi Mt 10, 5.
 4, 10 "ur bizia": berez, dariola dagoan ura (edo bardin dana, geldi ez dagoan ura). Baiña emen, bizia emoten dauan ura adierazoten dau Jesuek.
 4, 19 "mendia": judar-lagunartetik botata gero, samaritarrek jauretze bat Garizin-mendian eregi eben (ikusi Jn 4, 5, oarra); baiña jauretze ori Joan Irkano-k ondatu egin izan eban, Kristo jaio baiño 129 urte leenago
 4, 46 "errege-etxe" bat: Erodes Antipasen etxe-koa; bera zan orduan Galileak jaurlari (edo errege), "tetrarka" izenaz.
 5, 1 "jaietariko bat": esku-liburu batzuek jaia dakarre. Olan, Pazko-jai izango litzake. Baiña beste jai bat da, urrean: Pentekoste-jai.
 5, 2 "Betzata": esku-liburu batzuek "Betesda" (errukiaren etxea) dakarre. "Betzata" izena, urtegia egoan auzoaren izenaz bat etorriko litzake (auzoaren orma-ondarrak oraintsu agertu dira).
 5, 3-4 Esku-liburu batzuek ez dakarrez 3b-4-garren atalxoak.
 5, 10 "judarrak": ikusi Jn 1, 19, oarra.
 5, 39 "ikasten dozuez": beste itzulpen bat: "Ikasi egizuez Liburu Santuak, betiko bizitza orreixetan dagoala uste dozuen ezkerre; eurok egiten dabe testigantza nitzaz".

- 5, 46 "idatzi eban": Bibliako leenengo bost liburuen egilea Moises zala uste eben Jesusen aldiko judarrak.
- 6, 1 "Tiberiades": Lukasek (5, 15) "Jenesareteko itsasoa" esaten dautso. Izan be, eberrak edozein ur-pillori "itsaso" esaten eutsoen, benetako itsa so, naiz aintzira edo zingira (=lago, laguna), naiz urtegi andi bat izan.
- 6, 7 "urte-erdiko lan-saria": itzez-it, "berreun denario". Denario bat, nekazariaren egun-saria izaten zan.
- 6, 14 "profeta": ikusi Jn 1, 21, oarra.
- 6, 19 "bost edo sei kilometro": itzez-it, "ogetabost edo ogetamar estadio". Estadio bakotxak, 185 metro.
- 6, 23 "Tiberiades": emen, itsasoari izena emoten eutsan uria da; itsasoaren sartzaldean egoan. Erodes Antipasek eregi eban, Kristo jaiotze baino 17 urte geroago. / "esker-emotea": esku-liburu batzuek ez dakarre "Jaunak eskeremotea egin ebanean".
- 6, 27 "ezaugarria": berba ori, emen, irudi-adieraz artu bear da.
- 6, 31 Sal 78, 24.
- 6, 35 "egarri izango da": Alkartasun Zaarrean, Jakituria be bere maira egiten dau dei; cfr. Es 9, 1-6; Si 24, 19-22).
- 6, 36 Beste itzulpen bat, argiago bearbada: "Baiña esan dautsuet: ikusi nozue, eta ez dozue sinisten". Beste bat: "Baiña esan dautsuet: ni ikusiarren be ez dozue sinisten". (Euskeratzailearen oarra.)
- 6, 37 "nigana etorri daitena": San Joanentzat, Jesusegana etortea edo joatea eta Jesusegan sinistea, esaera bardintsuak dira.
- 6, 47 "sinisten dauanak": esku-liburu batzuek "sinistea neugan jarten dauanak" dakarre.
- 6, 58 "ogia": edo bardin dana, 49-garren ataltxoko "mana".
- 7, 2 "Txabola-jai": jai au judarrak udagoenean ospatzen eben, solo-ariakaitik eskerrak emoteko egiten ebezan jaiakaz batera. Jai onek, israeldarrai basamortuan egin eben aldia gogorazoten eutsen; jaiak zortzi egun irauten eban; orretarako, eberrak sendiak euren etxeetako tartean, naiz etxegaitetan, naiz uritik kanpo arresi-ondoan egindako txaboletan bizi izaten zi ran. Jai andi ta atsegingarria zan, Pazko-jaien antzekoa.
- 7, 7 "munduak": ikusi Jn 1, 10, oarra.
- 7, 13 "judarrak": ikusi Jn 1, 19.
- 7, 15 "onenbeste gai": edo bardin dana, irakurten eta

- idazten; eta orretarako, Liburu Santuak (Biblia) artzen ebezan oiñarritaz. Esaera orrek, Jesus Bibliako gaietan gizon ikasia zala adierazoten eban, arein "idazlariak" be ikasiak ziranez.
- 7, 35 "grezitarrak": asko ziran Palestinatik kanpo sakabanatuta (diáspora) bizi ziran judarrak. "Grezitarrak" berbeak, emen, jatorriz judar ez zan edonor adierazoten dau.
- 7, 37 "edan dagiala": beste itzulpen bat: "Nor bait egarri bada, neugana etorri daitela eta edan dagiala. Liburu Santuak diñoanez: "Aren sabelari ur bizizko ibaiak jariongo yokoz." Leenengo itzulpenean, 8b eta 9-garren ataltxoak Jesusi buruz izango litzakez; bigarren itzulpena, barriz, sinistedunari buruz, Bibliaz ikustekorik ez dau-ala.
- 7, 38 Is 55, 1-3.
- 7, 40 "itxaroten dogun profeta": ikusi 1, 21, 2-garren oarra.
- 7, 53 Kakote-artean dagozan 7, 53-8, 11-garren ataltxoak ez dakarrez esku-liburu askok, ezta late-razko ta sirierazko antxiñako itzulpenak be.
- 8, 1 "Oriomendi": ikusi Mk 11, 1, oarra.
- 8, 6 "lurrean": gaitz da "lurrean" idazte orren esanaia adierazotea.
- 8, 20 "tokian": emakumeen "atar-tean" (edo "atar-urrean"), urrean; antxe egozan aitarutako kutxak (cfr. Mk 12, 41-43). Baiña jauretze-ondasun-egia gordeta egoan etxe-ondoko lautadan izatea be ba-leiteke. Onela izatekotan, olantxe izango litzake itzulpena: "Berkok, ondasuntegiko etxe-ondoan irakasten ziarduala esan ebezan Je susek".
- 8, 24 "nazana nazala": argi dago, itxuraz, Ur 3, 14-garren ataltxoari buruz diñoana; an, Yave-ren [Jainkoaren] izena agertzen da (cfr. Dt 32, 39; Is 41, 4; 43, 10-11; 48, 12).
- 8, 25 "esaten diardudana": ataltxo ulergatxa. Beste batzuen itzulpena: "Leenengo ta bein, zegaitik egingo neuskizue berba, ba?"
- 8, 41 "sasikume": ikusi Sant 4, 4.
- 8, 48 "samaritarrak": ikusi Mt 10, 5, oarra; Jn 4, 9.
- 9, 7 "Siloe": Siloeko urtegia Jerusalemgo ego-sortzaldean egoan, uriko arresi-barruan. Txabola-jaietan edaten eben ura, urtegi aretatik ataraten eben (ikusi Jn 7, 2, oarra).
- 9, 24 "Jaungoikoaren aurrean": itzez-it, "emon egiozu aintza Jaungoikoari." Semarren esaerea da, norbaitek egia esan dagiala eskatzeko eta, orrela, Jaungoikoari egindako iraiñen bat parkatu ekion (cfr. Jos 7, 19; Sam 1^a, 6, 5; Ag 11, 13).
- 10, 1 "arditegia": gabez, artaldeak arrizko esi-ba-

- rruan batuta egoten ziran, artzainaren zainpean.
- 10, 11 "artzain ona": Nori ezarten yako Biblian artzain-izena? a) Jaungoikoari berari (Sal 23, 1; Is 40, 11; Jr 31, 9; Ez 34, 12-16); b) Mesiasi (Sal 78, 70-72; Ez 34, 23; 37, 24); d) erriaren zuzendariak eta erregeak batez be (Jr 2, 8; 10, 21; 23, 1-3; Ez 34, 2-10); e) zabalago, lagunartea zaintzen dauanaren irudi lez (Mk 6, 34; 11, 27; Mt 9, 36; 18, 12-14; 25, 32; 26, 31; Lk 15, 3-7); f) Jesukristori berari (Ebr 13, 20; P 1^a, 2, 25; Ag 7, 17; geure ataltxokoa gaiñera). a) eta b) ataltxoak aurrean izanik, Jesusek, bere burua "artzain ona" artzean, bere burua Mesias lez agertzen dau.
- 10, 22 "jauretze-eskintza": gabonillaren azkenetan Jerusalem ospatzen zan jai zan, jauretze-garbitzea gogorazoteko; leenengo garbitze ori Judas Makabeok egin eban, Siriako errege Antioko IV-garrenaren aurkako garaipen-ostean. Ikusi M 1^a, 4, 36-59; M 2^a, 1, 9, 18; 10, 1-8.
- 10, 29 "bikiñaz": beste itzulpen bat: "Nire Aitak emon daustana, garrantzirik andienekoa dau, eta Ari be ez dautso iñok kendu aal izan-go".
- 10, 34 "jaungoiko zaree zuek": txataltxo au, Sal 82, 6-garren ataltxoak dakar salmu-egileak auzi-epaileak "jaungoiko" esaten dautse: auzia egi-tean, Jaungoikoaren irudi dira-ta (cfr. Dt 1, 17; 19, 17; Ur 21, 6; Sal 58, 1 eta abar).
- 11, 1 "Lazaro": Eleazar (= Jaungoikoa lagun) izenaren laburpena da. / "Betania": ikusi Mk 11, 1, eta Jn 1, 28, oarrak.
- 11, 11 "loak artu dau": judarren eta grezitarren artean, loa eriotzaren irudi zan. (Ikusi Ts 1^a, 4, 13).
- 11, 25 "eta bizitza": esku-liburu batzuek ez dakarre "eta bizitza".
- 11, 38 "arri andia": Jesusen egunetako Palestinan, illobiak, sarritan, muna arkaitsuaren barranean zulatuta egozan, eta arri andi biribil eta lauaz isten ebezan.
- 11, 48 "gure jauretzea": itzez-it, "gure tokia": Toki santua, urrean, edo bardin dana, Jauretzea.
- 11, 54 "Efrain": Jerusalemgo ogei kilometrotara egoan uria, Jerusalemgo ipar-sortzaldean.
- 12, 3 "akara jator": ikusi Mk 14, 3, oarra.
- 12, 5 "urte guztiko lan-saria": itzez-it, "irureun denario"; ikusi Jn 6, 6, oarra.
- 12, 8 "ez nozue beti izango": esku-liburu batzuek ez dakarre ataltxo au.
- 12, 12 "jaiegunera": ikusi Jn 11, 55.
- 12, 13 "Gora!": itzez-it, "Hosanna!", aramerazko itza, "onik atara nagizu, emon egidazu salbame-na" adierazoten dauala; cfr. Sal 118, 25; Sam 2^a, 14, 4; Er 2+, 6, 26. Oiu lez erabilten da, eta
- "Aintza Jaungoikoari!" adierazoten dau; ikusi Mk 11, 9.
- 12, 14 Sal 118, 25-26.
- 12, 15 Za 9, 9.
- 12, 20 "grezitar batzuk": judarrak izan ezarren, Pazko-koetarako etorri ziran judartzaleak ziran, edo judarren sinismenera bihurtutako jentillak, bearbada; azken oneik, "judartzaleak" izenez eza-gutzen ziran (ikusi Ap 2, 11).
- 12, 21 "Betsaida": ikusi Jn 1, 44, oarra, eta Mt 11, 21, oarra.
- 12, 27 "larri": txatal onek nekaldi-gabeen Jetsemaniko egoera dakar gogora, sinoptikuak azaltzen dabenez: Mt 26, 36-46; Mk 14, 32-42; Lk 22, 39-46; cfr. Sal 6, 4.
- 12, 32 "iurretik": "lurretik gora jaso izateak" esanai bi ditu emen (cfr. 3, 3, oarra): Jesus gurutzean jaso izatea, eta Jesusen zerura jasoerea (edo igoerea) (cfr. Jn 3, 14-15; 8, 28; 12, 13). / "guzti-ak": esku-liburu batzuek olantxe dakarre: "neugana erakarriko dot dana".
- 12, 37 Is 53, 1.
- 12, 40 "Nik osatu dagidazan": Isaiasen txatal au (Is 6, 9-10) beste ataltxo oneitan be badator: Mt 13, 15; Mk 4, 12; Lk 8, 10; eta Ap 28, 26-27.
- 13, 1 "itzi": itzez-it, "mundu onetatik Aitagana joateko..." Judarren artean, izan be, "Pazkoa" itzak "igarotea" adierazoten eban, Itsaso Gorritik igarotea gogora ekarririk, Bibliako "Urteera" liburuan azaltzen danez (14, 21-31).
- 13, 10 "oiñak": esku-liburu batzuek "oiñak" itza ez dakarre, eta olantxe itzultzen dabe: ez dabe euren buruak garbitu bearrik". / "garbi": gorputzez eta barruz.
- 13, 18 Sal 41, 10.
- 13, 19 "nazana nazala": ikusi Jn 18, 24, oarra.
- 13, 23 "etzunda": mailagunak mai-inguruan etzunda egoten ziran, gorputzari ezkerreko beso-gaiñean eutsirik, antxiñako eraz.
- 13, 32 "Aregan goratua": esku-liburu batzuek ez dakarre "Jaungoikoa Aregan goratua izango bada" txatala.
- 14, 7 "ezagutzen banozue": esku-liburu batzuek beste onetara itzultzen dabe txatal au: "Ni ezagutu banangizue, neure Aita be ezagutuko zue-kee".
- 14, 16 "Bitarteko": gerkeraz, "Paraklitu" itzez-it. Ona emen berba onen beste itzulpen batzuk: "laguntzaile, zaintzaile, pozkille, jagole"; alan be, berba guzti orreik ez dira "paraklitu" itzak daukan esanaia oso-osorik argitzeko gauza.
- 14, 20 "Egun a": Jaungoikoaren erabateko eskuar-

- tze-aldiak istorian (cfr. Is 2, 17; 4, 1-2; Jr 4, 9; Za 2, 15; ikusi Jn 16, 23).
- 14, 22 "besteak": beste au, "Santiagoren Judas" da (Lk 6, 16 eta Ap 1, 13), "Tadeo" izenekoa bera (Mt 10, 3 eta Mk 3, 18). Ez dakigu ziur "Judas" au Mateoren Ebanjelioan (13, 55) eta Markosean (6, 3) Jesusen "senide" lez agertzen dana eta Judasen Idazkian Santiagoren anai lez agertzen dana danik; ez dakigu "Santiagorena" eta "Santiagoren semea" esatea bardin danik be, edo-ta "Santiagoren anaia" esatea obeto litza-keanik be; ezta Amabi Apostoluetariko bat danik be.
- 14, 28 ("poztu egin bear zaree": obeto dago, bearbada, "poztu egin bear dozue" esatea; baiña, emen beintzat, era orrek esanai bi izango leukez: a) "debéis alegrar (a alguien)"; eta b) "debéis alegraros", esaldi onetan danez. Orrexegaitik jarri dogu "bear zaree". Euskeratzailearen oarr.)
- 15, 3 "garbi": kusi Jn 13, 10, 2-garren oarra.
- 15, 25 Sal 35, 19.
- 15, 26 "Bitartekoa": ikusi Jn 14, 16, oarra.
- 16, 11 "galduta egotean": Joanen 16, 8-11 txatal au, beste onetara be itzuli daiteke: "8 A etorri daiteanean, pekatua, salbamenerako bidea eta galtze-epaia dagoala egiaztuko dautso munduari. 9 Pekatua dago, sinistea neugan jarri ez dabelako; 10 salbamenerako bidea dago, ni Aitagana noalako, eta aurrerantzean ez nozue ikusiko; 11 eta galtze-epaia dago, mundu onetan indarkeriaz agintzen dauana, onezkeroko galduta dagoalako".
- 16, 13 Esku-liburu batzuek beste onetara itzultzen dabe: "Berak zuzenduko zaitue egia osoaren inguru-barruan"; edo beste onetara: "Berak zuzenduko zaitue egiatik urten ez zaitezzen."
- 17, 5 "Zeugaz batera": beste onetara be itzuli daiteke: "niretzat aukeratuta zukan aintzaz".
- 17, 9 "munduarenak diranen alde": ikusi Jn 1, 10, oarra.
- 17, 15 "Gaiztoagandik": edo beste onetara: "gatxetik".
- 17, 17 "oso-osorik zeureak": ataltxo onetako itza eta 19-garregoa gerkeraz itz berberak dira. Batzuek, "santutu" itzaz itzultzen dabe, baiña berba oni "Jaungoikoarentzat banandu, Jaungoikoari eskiñi" esakerak daben indarra emon bear yako. Gure arteko "santutu" itzak, norbaitek bizikera akatsbagea egiten dauala adierazoten dau, Biblian batez be daukanez. (19-garren ataltxoan, "eskiñi" itza erabili dogu euskeraz).
- 17, 19: ikusi aurreko oarra.
- 18, 1 "Zedron": ikusi Mk 11, 1, oarra.
- 18, 3 "gudari-taldea: Jerusalemen egozan erromatar gudariak, urrean (Cfr. Mk 15, 16). Judar gudariak be izan zeitekezan, itz ori LXX egindako gerkerazko itzulpenean erabilten danez. Edozela be, "jauretxeko gudari-taldea" da, Joanen 18, 12-garren ataltxoak ori ain argi agertu ezarren be.
- 18, 13 "Anas": antxiñako abade nagusia; baiña erro matarrak kendu egin eben agintaritzaren aretatik Kristoren 15-garren urtean. Ikusi Lk 3, 2, oarra.
- 18, 28 "lege-loikeria": Legearen arauz, atzerritarren etxeak, judarrentzat, loiak ziran.
- 18, 29 "Pilato": Pontzio Pilato Judeako jaurleri izan zan, Kristo jaio ta 26-garren urtetik 36-garrenean.
- 18, 40 "bidelapurra": "Zelote" izeneko alderdikoren bat, bearbada (ikusi Mk 3, 18, oarra).
- 19, 13 "jesarri zan": batzuek beste onetara itzultzen dabe: "eta Jesus auzi-maian jesarrerazo eban". / "Gábbata": aramerazko berbea, leku goi bat adierazoteko, itxuraz.
- 19, 14 "eguerdi-aldea": ordu orretatik aurrera, jaurretzean Pazko-aparitarako bildotsak ilten ebezan; ordu beretik aurrera, etxeetan legaminbagariko Pazko-ogia jaten eben (Cfr. Ko 1^a, 5, 7).
- 19, 17 "eroiala": erromatar oiturea zanez, gurutzarako galduak eurak eroan bear izaten eben gurutzearen zear-egurra euren sorbalda-gaiñean. Gurutzertzeko tokiraño eroaten eben, eta antxe egoten zan tente, lurrean sartuta, gurutzearen beste egurra. / "Gólgota": Jerusalemgo ipar-sortzaldean egoan tontor bat zan, arresietatik kanpo, baiña uritik oso ur.
- 19, 23 "Aren jantziak": erromatarren legearen arauz, borruak eriotza emoten eutseenen jantziak eurentzat artzeko eskubidea eben. / "joskura bagea": judarren arauz, abade nagusiaren soingaiñekoak be joskura bagarik euduta izan bear eban.
- 19, 24 Sal 22, 19.
- 19, 25 "egozan": iru dira gurutze-ondoan dagozan emakumeak. Beste batzuen eretxiz, barriz, lau dira Joaneke emen aitatzen dauzan emakumeak: Jesusen ama; Mariaren aiztea: Salome, Santiago ta Joanen ama —cfr. Mt 27 56—, edo-ta Mari, Santiago ta Joserren ama —cfr. Mk 15, 40—; eta Mari, Kleofasen emaztea.
- 19, 29 "ozpiña": erromatar gudariak eta erritar lauak edan oi eben edaria.
- 19, 31 "belaun-azurrak ausi": geienetan, gurutzertuak ito bearrez ilten ziran, il-zori luzea izanda

- gero. Arei belaun-azurrak ausirik, eriotza aurreratu egiten eutsezen.
- 19, 38 "Arimatea": Jerusalemendik 35 kilometrotara egoan eritxoa, uritik ipar-sartzaldera, Jafa izenekoaren ondoan.
- 19, 36 Sal 34, 21. Ur 12, 46.
- 19, 37 Za 12, 10.
- 19, 39 "mirra ta aloe": mirra, erretxin usaintsueteriko bat zan, eta ildakoak illontzeko erabilten eben. Aloea —berez, zur usaintsua—, usain gozo lez erabilten eben, gorpuaren atsa zelabait kentzeko.
- 19, 42 "biaramona": cfr. Jn 19, 14, 31; Mt 27, 62.
- 20, 1 "Domekan": itzez-itz, "Astearren leenengo egunean". / "arria": ikusi Jn 11, 18, oarra.
- 20, 20 "eskuak eta saietsa": edo bardin dana, gurutzertzatzeak eta lantzakadeak itzitako ezaugarriak.
- 21, 7 "arrantzako jantziak": batzuek beste onetara itzultzen dabe txataltxo au: "billoizik egoan-eta"; edo beste onetara: "orixe bakarrik eukan-eta".
- 21, 23 "¿zuri zer?": beste esku-liburu batzuek ez dakarrez berba biok.

APOSTOLUEN EGIÑAK

Sarrera

1 ¹ Leen be, ene Teofilo, Jesus'ek asierarik egin eta irakatsi ebanari buruz egin neban berba*, ² Berak aukeratutako Apostoluai Espiritu Santuaren bidez aginduak emonda, zerura jasoan izan zan egunerarte. ³ Bere nekaldi-ostean be, Bere burua bizirik argibide askoz erakutsi eutsen, berrogei egunez arei agertuez eta Jaungoikoaren erreñuari buruz berba egíñez*.

Jesukristo'ren zerura igokundea (Lk 24, 47-51)

⁴ Eta azkenez, arekaz jaten ziar-duala, Jerusalem'dik ez urteteko agindu eutsen, Aitarene agintzariaren zain egoteko baiño: «Agintzari au—esan eutsen—, neure agotik entzun dozue. ⁵ Izan be, Yon'ek uraz bateatu eban; zuek, barriz egun asko baiño leen, Espiritu Santuz izango zaree bateatuak*.» ⁶ Batuta

egozanak itaun au egin eutsoen: «Jauna, aldi onetan barriztuko al' dozu Israel'go erreñua?» ⁷ Eta Jesus'ek auxe esan eutsen: «Ez dago-kizue Aitak bere aginpidean dauka-zan sasoiak eta uneak* igartea. ⁸ Baiña, zuen gainera etorriko dan Espiritu Santuaren indarra artuko dozue*, eta Jerusalem'en, Judea osoan, Samaria'n eta luraren bazte-rregeragiño be, neure autorle (*testi-gu*) izango zaree.»

⁹ Au esanda, arein begien aurrean gorantz igoten asi zan, eta odei batek arein begietatik ostendu egin eban. ¹⁰ Bera zerurantz yolan artean, eurak Ari begira-begira egozala, gizon bi soñeko zuriz jantzita urreratu yakeezan, ¹¹ eta, «Galilear gizonok! —esan eutseen—, zetan diarduzue zerura begira? Zerura eroana izan yatzuen Jesus ori berori zerura joaten ikusi dozuenez etorriko da.»

I. JERUSALEN'GO ELIZEA

¹² Orduan, Oriondo izeneko menditik Jerusalem'era biurtu ziran: Felipe, ta Tomas, Bartolome, ta Mateo, Alfeo'ren Jakobo, ta Simon Zelotes, eta Jakobo'ren Judas egózan goiko bizitokira igo ziran*.

(*Santiago*), ta Joan, eta Ander, Mateo, Alfeo'ren Jakobo, ta Simon Zelotes, eta Jakobo'ren Judas egózan goiko bizitokira igo ziran*.

¹ Emen aitatzen dan Liburu au, Lukas'ek idatzitako Ebanjelioa da, cf. 1 1; 24 49+, 51+.

³ Jesus'ek iragarritako *Jainkoaren Erreñua*, Mt 3 2+; 4 17+; cf. Jn 3 35; izango da Apostoluak euren misiño-lanetan erabiliko dabene gai nagusienetarikoa; baita Paulo'k berak be, 8 12; 14 22; 19 8; 20 25; Ts 1.º 2 12; Kol 4 11; e.a.

⁵ Sarritan aitatzen dau Lukas'ek bere Ebanjelioan eta Liburu onetan *Espiritu Santua*, 1 3, 8, 16, e.a. Espirituzko bateoa, Mt 3 11 p., Pentekoste-egunean artuko dabe leenengoz Apostoluak. Ikusi 2'gn. atala. Uraz bateatzen jarraituko dabe oraindiño Apostoluak, baiña Jesus'en izenean, 2 38; 8 16, 38; 10 48; 17 15; 19 5; cf. Mt 28 19. Eta bateo onek, Jesus'egan sinistuaz, Espirituaren bizitza emongo dau, cf. Erm 6 4+.

⁷ Betiraun guztitik, Erm 16 25; Ef

1 4; Tm 2º 1 9, ezarrita daukaz Jainkoak salbamen-aldiak gizadiaren istorian zear, leenengotik asi ta oso-osoa bete arte. Cf. Ga 4 4+; Ts 1º 5 1; e.a.

⁸ Agindutako *Espiritua*, Lk 24 49; Jn 14 16+; cf. Is 11 2+; Ez 36 27+, Kristo aintzatuaren doirik bikaitena dogu, 1 5; 2 11+, 33+, 38+; e.a. Jesus'ek zeruetara igon ondoren, Espiritu Santuak damotse Apostoluai adorea. Ebanjelioaganako maitasuna, ta Elizea eratzeko kementa, 4 8, 31; 8 15, 29, 40; 13 2, 4; e.a. Barri Onaren mandatu mundu guztira zabaltzea da Apostoluen eginkizuna. Jerusalem'en asita, mailaz-maila, lurbera osora eroan bear dabe mandatu ori, cf. 28 19-20+; Mk 16 15; Kol 1 23. Auxe izango da, labur-labur, Liburu onen gaia ta asma, cf. 8 1; 11 20; 28 31.

¹³ Ikusi, bata-bestearen ondoan, Amabi Apostoluen izen-zerrenda au ta Mateo'k 10 2-4'garrenetan dakarrena.

¹⁴ Guztiok gogo batez emakume batzuk eta Jesus'en ama Maria-gaz eta Jesus'en anaiakaz (*lengu-suakaz*) oititz egiten ziarduen*.

Matias aukeratzen dabe

¹⁵ Egun areitan, eun eta ogeiren bat lagun batuta egozala, Pedro, anaien erdian* zutundurik, auxe esan eban: ¹⁶ «Anaiok! Judas'i buruz, Jesus atxillotu ebenen zuzendari izan zanaz, Dabid'en agoz Espiritu Santuak Liburu Santuan esandakoa bete bearra zan. ¹⁷ Guretarikoa ta geure lankide izanarren, ¹⁸ landa bat sari gaiztoz erosi eban, eta bere burua urkaturik, erditik lertu zan, eta bere errai guztiak lurrean zear zabaldu ziran. ¹⁹ Eta Jerusalem'en ori guztiak jakin eban; eta orregaitik, landa ari arein izkeraz Hakeldama, edo Odol-landa deritzo. ²⁰ Salmuen liburuan idatzita dago-ta: *Utsik bego aren bizilekua, eta iñor be ez bedi aretan bizi*. Baita au be: *Aren egitekoa beste batek artu begi**.

²¹ Beraz, egoki da Jesus Jauna geure artean bizi zala beti geugaz ibilli ziran areitariko norbait aukeratzera, ²² Yon'en bateotik asita Jesus gure artetik artua izan zan egunerarte geugaz egonikoa, Aren biztueraren autorle geugaz batera izan dadin*.» ²³ Eta bi aukeratu ebezan: Barsaba —Zuzena eritzan Jose— eta Matias. ²⁴ Eta oititz egifilik, auxe esan eban: «Guztien biotzak ezagutzen dozuzan Jaun orrek, erakutsi egiguzu biotarik nor aukeratu dozun ²⁵ *apostoluen* egikizun eta lan-

bide au bere gain artzeko, Judas'ek lanbide au galdu egin eban ezkerro, egokion tokira joan zedin.» ²⁶ Eta zotz eginda, zotza Matias'i izan yakon egoki, eta amaika apostoluakaz alkartu zan.

Espiritu Santuaren etorrera

2 ¹ Pentekoste-egunean* guztiak leku baten alkarregaz batuta egozan; ² eta bat-batean, ortzitik (*zerutik*) aize-boladarena lako burrundarea sortu zan, eta areik egozan etxe guztia bete eban. ³ Eta suantzeko miiñiak ikusi ebezan, eta bakoitzaren gainean banandu ta ezarri ziran. ⁴ Eta guztiak Espiritu Santuz bete ziran, eta beste izkeraz berba egiten asi ziran, Espiritu Santuak berba eragiten eutsenez.

⁵ Eta Jerusalem'en eguzkipeko bazter guztietatik etorritako judar jaungoikozale asko bizi ziran*. Burrundara ori sortu zanean, gizataldea antxe batu zan, eta bakoitza norberaren izkeraz egiten entzunik, arrituta egozan. ⁷ Ikaratuta eta arrituta, guztiak auxe iñoen: «Berba egiten daben guztiok, ez al-dira galilearrak? ⁸ Zelan entzuten doguz, ba, geure jatorrizko inkuntzaz? ⁹ Partiarrek, Mediarrek, Elameitarrek, eta Mesopotamia'n, Judea'n, Kapadokia'n, Asia'n, ¹⁰ Frijia'n, Panfilia'n, Ejipto'n eta Zirene-aldeko Libia'n bizi diran guztiak, Erromatar artotzak, ¹¹ Judar eta judartzaletuak, Kretarrak eta Arabiarrek, Jaungoikoa goratzen geure izkuntzetan diarduela entzun doguz*.» ¹² Guztiak,

1 14 Ez dagoz, ba, Apostoluak bakarririk. - Jesus'en anai orreik bere lengusuak dira, cf. Mt 12 46+; Jn 7 5; Ko 1^a 9 5.

1 15 Anaien erdian: anai orreik kristauak eurak dira emen, 6 3; 11 1; 12 17; cf. Mt 23 8; 28 10; Jn 20 17; Erm 1 13; e.a.

1 20 Salmuetako 68 26 eta 109 8' garrenetatik jasotako txatalak. Cf. Mt 27 3-10.

1 22 Apostoluen *lekukitasuna* (edo testigutza) ementxe oinarritzen da: Jesus bizi zala, bere jarraitzaile izatean, eta berbiztu-ondoren bera ikusi izatean, 1 1-3, 8; 2 32; 3 15; 4 33; 10 41; 13 31; e.a.

2 1 Pentekoste. Itzez-itzez, berrogetamarren eguna esan nai dau. Alkartasun Zaarrean, Pentekoste, Asteetako jaiari (*Frutu-batze-jaiari*) eritxon, Ur 23 14+. Emen, Pazko-ondorengo berrogetamargarren eguna da. - *Guztiak*, au da, Apostoluak, 1 13-14.

2 5 9-11'gn. ataltxootan aitatzen diran errialdeok, aldi aretan ezagutzen zan mundu guztia osotzen dabe, 1 8+.

2 11 Judar eta judar-zaletuak (erdaindutako jentillak) goian aitatutako erri guztietatik etorriak. - Apostoluak, eta euron bidez Elizeak, Kristo'k agindutako Espiritua artu dabe, 1 4-5+; Jn 1 33+.

arrituta eta senetik be urtenda, «Zer da au?» zirautsoen alkarri. ¹³ Beste batzuek, ostera, barrezka iñoen: «Ardaoz beterik dagoz.»

Pedro'ren itzaldia

¹⁴ Orduan, Pedro'k, Amaikakaz batera zutundurik, abotsa jaso ta auxe esan eutsen: «Judar gizonok eta Jerusalem'en bizi zareen guztiok! Auxe jakin egizue ta nire berbak entzun egizuez. ¹⁵ Oneik ez dagoz moskortuta, zuek uste dozue-nez, eguneko irugarren ordua da-ta. ¹⁶ Baiña onetan, Joel igarleak iragarritako au jazoten da*:

¹⁷ Azken-egunetan —diño Jaungoikoak— *gizaki guztiak neure Espiritua isuriko dautset, eta zuen seme-alabak igarri egingo dabe; zuen mutillak ikuskizunak, eta zuen agurak amesak izango dabez.* ¹⁸ Egun areitan, *nire morroi ta neskameai neure Espiritua isuriko dautset, eta igarri egingo dabe.* ¹⁹ Goian, *zeruan, mirariak eta beean, lurrean, arrigarrak egingo dodaz: odola, sua ta ke-moltzoak.* ²⁰ Eguzkia illundu ta illargia odoldu egingo dira, *Jaunaren egun aundi ta ospatsua etorri baiño leen.* ²¹ *Eta Jaunaren izena autortu dagiana, onik urtengo da*.*»

²² Israel'go semeok!, entzun berbok*: Jesus Nazaretarra Jaungoikoak erakutsi dautsue Aren bidez zuen artean egindako mirariz, egingtza arrigarriz eta ezaugarritz, zeuek dakizue; ²³ Jesus au, ba, Jaungoikoak erabagi ta aurretiaz ba-ekiane, zuek artu ta gaiztoen eskuz.

Pentekoste-eguneko mirari au *glosolia* antzeko bat da, 10 46; e.a.; Mk 16 17; Ko 1^a 12 10. Baiña emen *batasuna* adierazoten dau, Babel'en galdu, As 11 1-9, eta Apostoluak munduan zear sortu bear daben batasuna.

2 16 J1 3 1-5+'garrenetik jasoa.

2 21 Jauna, Jesus da, 4 12; 7 59; 9 14, 21; e.a.; Erm 9 5+; 10 9-13; Ko 1^a 1 2; Flp 2 11+.

2 22 Apostoluen aldian irakasketa edo predikaziñoa (*kerigma*) zelakoa zan jakiteko, Pedro'ren itzaldi au dogu eredu-laburpen bat, 2 14-39. Baita Pedro'ren

gurutzean josi ta il dozue. ²⁴ Baiña, Jaungoikoak barrero biztu ta *seol'*-eko (*edo inpernuko*) oiñazetatik askatu egin eban, eriotzak ezin azpiratu eikean-eta. ²⁵ Dabid'ek Aretzaz onela diño-ta:

Jauna beti neure aurrean ikusten neban, neure eskumaldean dago-ta, nik kilikolorik egin ez dagidan.

²⁶ *Beraz, nire biotza pozez bete zan, eta nire miiña alaitu, ta nire aragiak itzaropenean izango dau atsedean:*

²⁷ *ez dau nire arimea inpernuan itziko-ta,*

ezta zure Santuak usteltzea ikusi dagian be ez dozu laketuko.*

²⁸ *Bizitza-bideak erakutsi daustazuz, eta zure arpegiaz pozez beteko nozu.*

²⁹ Ene semeok!, zabal-zabal esan daiketuzet Dabid erri-gurasoa ilda ta obiratuta dagoala, ta aren illobia gaur arte geure artean dagoala. ³⁰ Baiña, profeta izanik, ba-ekian bere *aulkian aren jatorriko bat jarriko zana*, Jaungoikoak zin egin eutsanez. ³¹ Eta etorkizuna ikusirik, Kristo'ren biztuerari buruz auxe esan eban: *Ez da inpernuan itzia izan, ezta usteltzerik be ez dau Aren aragiak ikusiko.* ³² Jesus au biztu dau barrero Jaungoikoak, eta geu guztiok gara, izan be, autorle.

³³ Beraz, Jaungoikoaren eskumaldera jasoa izan dan ezkerro, Aitak agindutako Espiritu Santua Jesus'ek bialdu dausku, zeuek ikusten eta

beste lau itzaldiek be, 3 12-26; 4 9-12; 5 29-32, eta 10 34-43'garrenetan datozanak. Bardin Paulo'k israeldarri egindako itzaldia be, 13 16-41. Irakasketa onen mamin eta guna auxe da: Kristo'ren bizitzaren, eriotzaren eta biztueraren autormena emotea, profeziak bete dirala adierazorik. Guzti au, geroko bizitzara begira. Ebanjelioak be egitura bardiña dabe.

2 27 Sal 16 8-11'garrenetatik jasoa. Txatal onen indarra gerkerazko itzulpenetan datza. Salmu onek, eberkeraz, *illobia ikusi...* iñoen; gerkeraz, barriz, *usteltzea ikusi*, cf. 13 35-37; Jn 20 9+.

2 33 Espiritu Santua, 1 5+, 8+; Jn 1

entzuten dozuenez*. ³⁴ Ez da Dabid zerura igo dana; berberak diño, ostera: *Nire Jaunari Jaunak dirauto: jesarri zaitez nire eskumaldean, ³⁵ zure arerioak zeure oiñazpikotzaz ipiñi dagidazan arte**. ³⁶ Beraz, Israel-etxeke guztiak jakin begie benetan, zuek gurutzean josi dozuen Jesus au, Jaungoikoak Jaun eta Kristo egin dauana*.»

Leenengo biurtzeak

³⁷ Itzaldi au entzunda, biotzez garbatu ziran, eta Pedro'ri ta beste apostolui, «Anaiok! —esan eutseen—, zer egin bear dogu?» ³⁸ Eta Pedro'k auxe erantzun eutsen: «Garbatu zaitezte, eta artu begi batea zuetariko bakoitzak zuen pekatuen parkamenerako Jesukristo'ren izenean; eta Espiritu Santuaren doaia artuko dozue*». ³⁹ Agintzari au, zeuentzat eta zuen seme-alabentzat eta Jaungoiko gure *Jaunak dei egin egienen urruneko guztientzat data**. ⁴⁰ Beste berba askoaz be autor egiten eban, eta burubide au egiten eutsen: «Alde egizue gizaldi oker onetatik.» ⁴¹ Eta esan ebana benetan artu ebenak, bateatuak izan ziran; eta egun aretan iru millaren bat lagun geitu yakezan.

Leenengo kristau-lagunartea* (4, 32-35; 5, 12-16)

⁴² Eta apostoluen irakatsian, bizi-alkartasunean, ogia zatitzean, eta otoitzetan arduratsu irauten eben. ⁴³ Apostoluak Jerusalem'en mirari ta arrigarri asko egiten ebezan-eta, guztiak bildurak artu ebazan. ⁴⁴ Fededun guztiak, barriz, bat ziran, eta guztia alkarrentzat euken. ⁴⁵ Eta ogasunak salduri, ordaiña guztien

artean banatzen eben, baktxaren bearrizanari egokionez. ⁴⁶ Eta egun oro gogo batez Jaurettxera joaten ziran; eta, etxeetan ogia zatiturik, alaitu ta gogo bakunez batera jaten eben, ⁴⁷ Jaungoikoa goraturik eta erriaren ederra irabazirik. Eta salbatuak izan bear ziranak, Jaunak egunean-egunean ugaritzen ebazan.

Pedro'k erren bat osatzen dau (14, 8-10)

³ ¹ Pedro ta Joan alkarregaz Jaurettxera yoaizan, bederatzigarren otoitz-orduan. ² Eta amaren sabeletik erren zan gizon bat eroin lepoan, eta egun oro Ederra izeneko ate-ondoan izten eben, Jaurettxean sartzen ziranai limosnea eskatu egitsen. ³ Pedro ta Joan Jaurettxean sartzen ikusi ebazanean, arek limosnatxo bat eskatu eutsen. ⁴ Pedro'k, Joan'egaz batera begiak aregan jarriarik, auxe esan eutsen: «Begira geuri.» ⁵ Eta a begira-begira jarri yaken, arekandik zerbait eskuratuko ebalakoan. ⁶ Baiña Pedro'k auxe esan eutsen: «Urrerik ez zidarrik ez daukat; baiña daukadana damotsut: Jesukristo Nazaretarraren izenean, jagi ta zabiz.» ⁷ Eta eskumako eskutik eldurik, zutundu egin zan. Eta bat-batean oiñak eta orpoak sendotu egin yakozan. ⁸ Eta triska (*salto*) egiñik, zutundu egin zan, eta babilen, eta Jaurettxean arekaz sartu zan, ibiltan, saltoka ta Jaungoikoa goratzen. ⁹ Erri guztiak ikusi eban ibiltan eta Jaungoikoari goraka; ¹⁰ eta guztiak ezagutu eben axe zala Jaurettxeko Ate-Eder ondoan jesarri-ta egoten zan eskekoa, ta jazo izan yakonaz arritu ta bildurtuta geratu ziran.

33+, Jesus berbiztuak Beragan sinisten dabenai emoten dautsena, 38-39. Cf. Erm 5 5+; Ef 4 8+.

2 35 Sal 110 1+ garrenetik jasoa.
2 36 Jaunaren eta Mesias'en doai ta eskubide, guztiak dagokioz Jesus'i, bere giza-izate berbiztu ta aintzatu, 21, 25-28, 34; 5 42; 9 22; 13 33; e.a.; Erm 1 4+; Flp 2 9-11+.

2 38 Jesus'en izenean emondako bateoak, beragaz dakar Espiritu Santua, 33+; 1 5+; 8 17+.

2 39 Cf. Is 57 19, ta Jl 3 5.
2 42 Jerusalem'en alkartutako leenengo kristau-taldearen kristau-bizitza zelakoa zan ikusten da emen. Ikusi onen ondoan 4 32-35, eta 5 12-16.

Pedro'ren bigarren itzaldia

¹¹ Eta arek (*errenak*) Pedro ta Joan eskutik oratuta eukazala, erri guztia etorri yaken, arrituta, Salomon'ena deritzan aterpera. ¹² Eta Pedro'k, ori ikusita, erriari auxe esan eutsen: «Israeldarrok!: zegaitik zagoze orretzaz arrituta?, edo-ta, zer dala-ta zagoze guri begira, geure indarrez edo geure errukiz gizon oni i b i l l e r a z o dautsagulakoan? ¹³ Abraham'en, Isaak'en eta Jakob'en Jaungoikoak, gure asaben (aurretikoen) Jaungoikoak, Jesus bere morroia goratu egin dau*, zuek arerion eskuetan jarri ta Pilatos'en aurrean ukatu zenduena, arek askatu nai ebanean.

¹⁴ Zuek, barriz, Santu ta Zintzoa ukatu eta gizon iltzaillea emon ekitzuela eskatu zenduen; ¹⁵ biziaren iturburua, barriz, il egin zenduen*. Baiña, Jaungoikoak illen artetik biztu egin dau, ta orretzaz geu gara autorle (*ikusle*). ¹⁶ Eta Aren izenaren siñispidetzat, ikusten eta ezagutzen dozuen gizon au Aren izenak osatu dau, ta Aretzaz dan sinismen onek guztion aurrean osasuna emon dautso*.

¹⁷ Ba-dakit, orraitifio, anaiok, zuek eta zuen agintariak ori ezjakiñez egin zenduena. ¹⁸ Jaungoikoak, barriz, bere Kristo'ak nekeak igaro bear ebazala profeten agoz esandakoa, orrelaxe bete dau. ¹⁹ Beraz, garbatu ta onbidera etorri zaitezte, pekatuak kendu dakizuezan: ²⁰ Jaunaren aurpegi-aldetik atsegin-egunak etorri daitezcan eta leendik iragarri izan yatzean Jesukristo bialdu dagian: ²¹ Jesus onek, gauza guztiak

barrizteko aldia eldu arte, lurraren asierarik izan diran bere profeta zintzoen agoz Jaungoikoak aspaldirik iragarritako sasoi a eldu arte, zeruan egon bear dau-ta.

²² Moises'ek auxe esan eban: *Jaunak zuen anaien artetik profeta bat jasoko dautsue, neu lez: Arek esan dagitzuen guztia entzun egizue.* ²³ *Eta profeta ari entzun ez dagiona, erritik galdua izango da*.* ²⁴ Samuel'-gandik asi ta gero berba egin daben profeta guztiak be, alako egunak iragarti dabez. ²⁵ Profeten semeak eta gure asabakaz Jaungoikoak egin-dako Alkartasunaren semeak zaree zuek, Abraham'i Berak esan eutsanez: *Zure azian lurreko sendi guztiak bedeinkatuak izango dira*.* ²⁶ Zeuei bialdu dautsue leenen Jaungoikoak bere Semea barriro biztuta gero, okerbidezik biurtu ba'zaitezte, bedeinkatu zagiezan.»

Pedro ta Joan, batzartegian

⁴ ¹ Arek erriari itz egiten ziardue-la, abadeak, eliz-jagolea ta saduzeuak* gaiñera etorri yakezan, ² asarre, arek *biak* erriari irakatsi ta Jesus'en izenean illen artetik biztuera ba-zala autortzen eutsola-ko. ³ Eta arei eskuak ezarririk, biaramonerarte giltzapean sartu ebezan, illunabarra zan-eta. ⁴ Baiña itzaldia entzun ebenetariko askok siñistu egin eben; eta gizonezkoen kopurua bost millaren bat zan.

⁵ Biaramonean, arein nagusi, zaar eta idazlariak Jerusalem'en batu ziran, ⁶ baita abade-nagusi Anas, eta Kaipas, eta Yon, eta Alexander, eta abade sailleko guztiak be. ⁷ Eta Pe-

3 13 Cf. Ur 2 24+; 3 6, 15+; Is 52 13+. Jaunaren Morroia, Is 42 1+, ikusten dabe kristauak Jesus'egan.

3 15 Bizitza bera dan Jesus'ek *bizitza* garoaz ta *bizitza* damosku, cf. 5 20+, 31. Kristo'ri buruz emen aitatzen diran izenorde guztiok, eurrez erabilten ziran antxiñako *Kristoloji* sakon indartsuan.

3 16 *Izenak* izenduna esan nai dau, 3 6; 4 7; e.a., eta izendunaren aal-izatea dau, izen ori sinismenez aitatzen dabe-

nen onerako, 2 16+; 10 43; 19 13; Jn 16 23-26+; 20 31.

3 23 Dt 18 15-18+ eta Ab 23 29'garrenetatik jasoa.

3 25 As 12 3+ eta 22 18'garrenetatik jasoa.

4 1 *Saduzeuak* abade-taldeko aundikiak ziran. Pariseuak, ostera, erlejiño-zalegoak eta errikoiaogoak. Gai askotan aurrez-aurre egozan bitzuok. Saduzeuak ez eben onartzen berbizte; pariseuak, bai, 23 8; Mt 22 23+.

dro ta Joan erdian jarrerazorik, auxe itandu eutseen: «Zein indarrez, edo-ta noren izenean egin dozue zuek ori?»⁸ Orduan Pedro'k, Espiritu Santuz beterik, auxe esan eutsen: «Erriko nagusi ta Israel'go zaarrok, entzun!⁹ Geiso baten osasuna dala-ta, zelan osatu zan gaur itauntzen dauskuzuen ezkeru,¹⁰ jakin egizue zuek eta Israeldar guztiak be, zuek gurutzeratu ta Jaungoikoak illen arteitik barrero biztu dauan Jesu-Kristo Nazaretarraren izenean dagoana gizon ori zuen aurrean osatuta.¹¹ Auxe (*Jesu-Kristo*) da, bai, zuek *etxe-egilleok, bastartutako arria, orain giltzarri egiña**.¹² Eta salbabiderik ez dago beste inogan, gizonai eguzkipean ez yake beste izenik emon-eta, aregandik osasuna izan dagigun.»

¹³ Pedro ta Joan'en berba egiteko askatasuna ikusirik, eta gizon ezjakiñak eta ezikasiak zirana jakin ebenean, areik arritu egiten ziran; eta Jesus'en ikasle zirala ezagutu eben.¹⁴ Baiña, osatutako gizon a arekaz egoala ikusirik, aurka esatekorik ezertxo be ez eben.¹⁵ Eta batzarretik alde egiteko arei agindurik, euren artean *erabagiten* ziar- duen,¹⁶ esanez: «Zer egingo ete- dautsegu gizon onei? Izan be, Jeru- salen'go guztiai agirian yake oneik egin daben miraria, eta ezin ukatu daikegu.¹⁷ Orraitiño, errian geroago ta zabalduago egin ez dadin, agindu dagiegun aurrerantzean Izen ori ez egioela inori be ezetarako aitatu, ez itzik egin orretzaz.»

¹⁸ Beraz, bai dei egiñik, ezelan be ez egiela Jesus'en izenean ezer esan ez irakatsi, agindu eutseen.¹⁹ Orduan, Pedro ta Joan'ek auxe erantzun eutseen: «Zeuek ikusi egizue Jaungoikoaren aurrean bidezkoago dan Jaungoikoari baiño zuei

esanekeago izatea:²⁰ geuk ikusi ta entzun doguna ezin isilik euki daikegu-ta.»²¹ Orduan areik, apostoluai agiraka egiñik, bialdu egin ebezan, zigortzeko biderik aurkitu eziñik eta erriaren bildurragaitik: jazo izan zanaz guztiak Jaungoikoa goratzen eben-eta:²³ arelako mirariz osatutako gizona berrogei urtetarik gorakoa zan-eta.

Fededunen esker-otoitza

²³ Eta arekandik askatuta, eureta- rrakana biurturik, abade-nagusi ta zaarrak egin eutseen guztia azaldu eutseen.²⁴ Eta areik (*fededunak*), ori entzutean, abotsa gogo batez Jaungoikoagana jaso eben, esanez*: «Jauna!, Zeu zara zerua ta lurra, itsasoa ta eurotako gauza guztiak egin dozuzana:²⁵ Zeuk esan zenuan Espiritu Santuaren bidez, zure morroi ta gure asaba dan Dabid'en agoz:

*Zegaitik diardue arrotzak orroka ta erriak uskerietan?*²⁶ Lurreko erre- geak jagi ta nagusiak alkartu egin dira Jaunaren eta Onen Gantzutua- ren aurka*.

²⁷ Izan be, uri onetan Erodes eta Pilatos arrotzakaz eta Israel erri- gaz alkartu ziran, igurtzi zenuan zure morroi Jesus santuaren izena- ren aurka,²⁸ zure eskuz ta buru- bidez erabagita egoana bete zedin.²⁹ Eta orain, Jauna, ñrein zemak begiratuta, emon egiezu zure mor- roia zure itza zabal-zabal iragarte- ko adorea.³⁰ Zabaldu zure eskua, zure morroi Jesus santuaren izenean osakuntzak, mirariak eta arrigarriak egin daitezcan.»³¹ Eta otoitz au egin ebenean, batuta egozan tokia ikaraz asi zan; eta guztiak Espiritu Santuz bete ziran, eta Jaungoikoaren itza zabal-zabal inoen.

4 11 Salmu berau, 118 22, aitatzen da Mt 21 42 p+; Erm 9 33+, eta P 1* 2 4, 6, 8 garretetan be.

4 24 Kristau-otoitz eder onetan, cf. 1

24-25, Jainkoari egiten yakoan deia ta eskabidea, alkartuta datoz, cf. Mt 6 9-13, eta Biblia aitatzea egoki ekartan da Eli- zearen orduko egoera larriagaz bat-egitiñik. 4 26 Sal 2 1-2 garretetatik jaso.

Fededunen batasuna*

(2, 47-48; 5, 12-16)

³² Sinistedun-taldearen biotza, ba- rriz, bakarra zan, baita arimea be; eta areitariko inok be ez inoan ezer berea ebanik; gauza guztiak guz- tientzat ebezan, ostera.³³ Eta Apos- toluak Jesus Jaunaren biztuerea adore aundiz autortzen eben, eta guztiakan grazia ugari zan.

³⁴ Txirorik arein artean bat be ez egoan; jabe guztiak euren landa ta etxeak saldurik, ordaiña ekarri³⁵ ta Apostoluen oiñetan jarten ebela; eta andik bakoitzari bear aiña em- oten yakon.³⁶ Orduan, Apostoluak Barnabas (edo bardin dana: Atse- gin-seme) izenordea ezarri eutsoen Jose'k, Txipre'n jai ta lebitar za- nak,³⁷ berea zan landa bat saldu, ordaiña ekarri ta Apostoluen oiñe- tan jarri eban.

Ananias eta Safira*

5¹ Ananias izeneko gizon batek, bere emazte Safira'gaz itunduta, landa bat saldu eban; ² eta, emazte- ak ba-ekiala, saldu-ordaiñetik zerbait ostendu egin eban; eta enparaua ekarririk, Apostoluen oiñetan jarri eban.³ Baiña Pedro'k auxe esan eutsan: «Ananias, esan artu dautsu Satanas'ek biotza, Espiritu Santuari guzuzra esanaz, landa-saritik zati bat gorde dozu-ta? ⁴ Saldu orduko, ez zenuan zeurea, ala?; eta salduta gero be, zeure eskuan ez zenuan? Zegaitik erabagi dozu, bada, orrela- korik zure biotzean? Ez dautsezu gizonai guzurrik esan, Jaungoikoari baiño.»⁵ Itzok entzunda, jausi ta il

egin zan. Eta *jazopen* au entzun eben guztiak bildur aundiz jarri ziran.⁶ Eta gazte batzuk jagirik, *gorpua* artu ta illobiratzera eroan eben.

⁷ Iru ordu barru, aren (*Ananias'- en*) emaztea be sartu zan, jazorikoa jakiteke.⁸ Orduan, Pedro'k auxe esan eutsan: «Esan egidazu, andra: landa ori onenbestetan saldu zen- duen?» «Bai, orrenbestetan», eran- tzun eban emakumeak.⁹ Orduan Pedro'k auxe esan eutsan: «Zer dala-ta itundu zaree Jaunaren *Espi- rituari* guzuzra esateko? Orra ate- ondoan zure senarra obiratu dabe- nen oiñak; zeu be eroan egingo zaitue.»¹⁰ Eta bertantxe *Pedro'ren* oiñetan jausi ta il egin zan. Eta gazte areik sartuta, emakumea ilda aurkitu eben; eta atarata, bere senarraren ondoan obiratu eben*.¹¹ Eta Eliza* osoan bildur aundia sortu zan, baita jazo ziranak entzun ebezan guztiakan bere.

Eliza, geituz

(2, 42-47; 4, 32-35)

¹² Apostoluen eskuz errian mirari ta arrigarri asko egiten ziran. *Fede- dunak* Salomon-aterpean batzen zi- ran, guztiak gogo batez.¹³ Besteta- rikoetarik inok ez eban adorerik arekana batzeko; baiña erriak gora- tu egiten ebazan.¹⁴ Eta Jaunagan sinistedun barriak gero ta geiago etozan, gizon eta emakume.¹⁵ Gei- soak be, kaleetara atarata, zerraldoi (*ogetxo*) ta ogeetan ipintzen ebezan, Pedro etorri zeitenean, onen gerize- ak gutxienez areitakoren bat ikutu ta osatu egian.¹⁶ Baita albo-urietatik

4 32 Argi ikusten da emen, leenengo kristauak zelan jokatzin eben lurreko ondasunai buruz, cf. 2 42+.

5 1 *Ananias* eta *Safira'gaz* jazotakoak ez dau esan nai kristau guztien onda- sunak bat-eginda egozanik. Ikusi, bestela, 4 36-37.

5 10 Ananias eta Safira'ren pekatua ez zan izan euren ondasunetatik lorturiko dirua eurentzat gordetea: Jainkoaren aurrean, diru-zalekeriz, guzuzra esatea bai- ño, 4, 9.

5 11 Kristau-lagunarteari izena *Eliza* emoten yako leenengoz. Alkartasun Zaa- rretik artuta dago, 7 38; cf. Dt 9 10+. Baiña esan-gura oparagoa dau kristauen artean, cf. Mt 16 18+. Batzuetan Jerusa- len'go, edo Judea'ko, edo jentil-errietako kristau-taldea adierazoten dau. Beste batzuetan, kristauen batzarrak eta batzar- tokiak. Sarritan, barriz, mundu osoan zear sinismenean bat-eginda dagoan kris- tau-erri guztia, 20 28+; Ko 1* 10 32; Ef 1 23+; Kol 1 18.

be lagunak eurrez etozan Jerusalem'era, geiso ta txerrendunak ekarriaz; eta areik be guztiak osatu egiten ziran.

Apostoluak barriro be bazartuak

¹⁷ Orduan, Abade-burua ta be-ronen alderdikoak —saduzeoak, urrean— ikusi-ezifiez bete ziran: ¹⁸ eta apostolui eskuak ezarririk, erriko giltzapean sartu ebezan. ¹⁹ Baiña Jaunaren Aingeruak, gabez espetxeko atea zabaldurik, atara egin ebazan, esanez: ²⁰ «Zoaze Jauretxera, eta an erriari bizikera oni dagokiona irakatsi egiozue*.» ²¹ Areik, ori entzunda, goizean Jauretxean sartu ta irakasten asi ziran. Baiña abadeburuak eta onen alderdikoak alkarturik, judar-batzarreko eta Israel'go semeen Lege-batzarreko guztiak batu ebezan: eta *morroiak* bialdu ebezan espetxera Apostoluak ekarri egiezan. ²² Morroi areik ara (*espetxera*) eldu ziranean, ez ebezan an aurkitu; eta biurturik, barria emon eben, ²³ esanez: «Espetxe guztia arduraz itxita aurkitu dogu, baita ateaurrean atezaiñak be zain; baiña atea zabaldu ondoren, inor be ez dogu barruan aurkitu.» ²⁴ Itzok entzunda, Jauretxe-zaiñak eta abadeburuak zer izan zeitekean kezka jarri ziran. ²⁵ Baiña norbaitek, etorrita, barri au emon eutsen: «Ara!: espetxean sartu zendeuzan gizon areik, Jauretxean dozue erriari irakasten.» ²⁶ Orduan, Jauretxe-zaiña ara joan zan, eta ekarri egin ebazan, arei indarrrik egiteke: erriak arrika egitsen bildur ziran-eta.

²⁷ Ekarrri ebezanean, batzarrean aurkeztu ebezan; eta Abadeburuak

auxe itandu eutsen: ²⁸ «Orrelako izenean ez irakasteko agindu geutsuen, eta gogor agindu be; eta esanik egiteke, Jerusalem osoa bete dozue zuen irakatsiaz, eta gizon orren odola geure gainera erakarri nai dozue.» ²⁹ Baiña Pedro'k eta Apostoluak auxe erantzun eben: «Gizonai baiña Jaungoikoari esana egitea bidezkoago izan bear! ³⁰ Zuek egurretik eskegi ta il zenduen Jesus, gure asaben Jaungoikoak biztu egin dau. ³¹ Auxe goratu dau bere esku-maz Buruzagi ta Salbatzailletzat*, Israel'i pekatuen damua ta parkamena emoteko. ³² Geu gara diñoguzan egion autorle, baita Jaungoikoak bere esanetara jarten diranai emon dautsen Espiritu Santua be.» ³³ Itzok entzunik, senetik be urtenda, Apostoluak illerazoteko asmotan ziarduen.

Gamaliel'en burubidea*

³⁴ Baiña, Gamaliel eritzan eta uri osoarentzat izen aundiko lege-irakasle zan pariseotar batek, batzarrean zutundurik, gizon areik (*Apostoluak*) une baten andik atara egiezala agindu eban; ³⁵ eta *batzarkideai* auxe esan eutsen: «Israeldarrok: Begiratu egizue, gero, gizon onei egin nai dautsezuena. ³⁶ Ba-dakizue oraintsu be arako Teudas a, jagi zana, bera norbait zala esanez, eta laureunenbat gizonazko batu yakoan; baiña a il ebenean, aren jarraitzailleak sakabanatu ta ezereztu egin ziran. ³⁷ Aren (*Teudas'en*) ondoren, Judas Galilearra be jagi zan izen-emote egunetan, eta erri osoa beraganatu eban. A be galdu egin zan, eta aren jarraitzaille guztiak be sakabanatuta geratu ziran. ³⁸ Beraz, oraingo ara-

5 20 Kristaudentzat bizitza, 3 15; 11 18; e.a.; Jn 1 4+; Erm 6 4+, eta *salbamena*, 4 12; 13 26; e.a., bat bera dira.

5 31 *Buruzagi ta Salbatzaille* izenordeoneik, *Biztaren Iturburu* izenordearen ikidekoak dira, 3 15.

5 34 *Gamaliel*, Paulo'ren irakasle au,

22 3, Legea zabal ulertzen eben pariseuen buruzagia zan. Saduzeuen jokabideak bultzatuta, kristauen alde jarten ziran sarritan onako pariseuak, 23 8-9; 26 5-8; cf. 15 5. Pariseuen eta saduzeuen arteko alkar ikusi-ezifia, Ebanjelioan baiño biguntxoago agiri da emen.

zoan, auxe dirautsuet: ez ikutu dei egiñik, zigorkadaz astindu ondoren, Jesus'en izenean itzik be ez egiteko agindu eutseen; eta askatu egin ebezan. ⁴¹ Areik, barriz, pozik yoiazan batzartegitik, Jesus'en izenagaitik iraingarri aurkituak izan ziralako*.⁴² Eta egun oro Jauretxean eta etxez-etxe Jesukristo'ren Barri Ona irakasten eta zabaltzen eten бага ziarduen.

⁴⁰ *Gamaliel'en* eritzi ori areik onartu egin eben. Eta Apostolui

II. LEENENGO EGINKIZUNAK

Zazpi aukeratuak

⁶ ¹ Egun areitan, ikasleak geitzen zirala-ta, gerkarrak ebartarren aurka mormoxetan asi ziran, egunoroko janari-banaketan arein emakume alargunai jaramonik egiten ez eutseelako*. ² Beraz, amabi *Apostoluak*, ikasle guztiak baturik, auxe esan eutseen: «Ez da egoki mai-ardureagaitik Jaungoikoaren itza guk iztea. ³ Beraz, anaioak, aukeratu egizue zuen artean zazpi gizonazko, izen oneko ta Espiritu Santuz ta senez beteak, ardura ori arein gain jarri dagigun. ⁴ Guk, barriz, otoitzari ta Itz-irakasteari ekingo dautsagu.» ⁵ Eta eritzi ori ontzat artu eben batzarreko guztiak; eta sinistez ta Espiritu Santuz beteriko Esteban, eta Felipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, Antioquia'ko jarraitzaillea, aukeratu ebezan. ⁶ Oneik Apostoluakana aurkeztu ebezan, eta Apostoluak, otoitz egiñik, eskuak gainean ezarri eutsezan*.

⁷ Jaungoikoaren itza zabaltzen yoian, eta ikasle-sailla eurrez geitzen zan Jerusalem'en; baita abadeatariko

asko be sinistearen esaneko egin ziran.

Esteban langille zintzoa

⁸ Esteban'ek graziz eta indarrez beterik, errian mirari ta arritzeko asko egiten ebazan. ⁹ Orduan, Jareindakoen eritzen sinagogako batzuk Esteban'en aurka eztabaidan jagi ziran; baita Zirene, Alexandria, Zilizia ta Asia'ko sinagogetakoak bere. ¹⁰ Baiña aren (*Esteban'en*) izketako jakite ta adoreari ezin gogorrik egin eutsoen. ¹¹ Orduan, gizonazko batzuk erosi ebezan, Moises'en eta Jaungoikoaren aurka birao-itzak entzun eutsoezala esateko. ¹² Eta erria, zaar eta idazlariak axatu egin ebezan; eta ari eskuak ezarrita, atxillotu ta batzarrera eroan eben. ¹³ Eta guzurrezko autorle (*edo testigu*) batzuk ekarri ebezan, eta oneik auxe esan eben: «Gizon au Toki Santuaren eta Legearen aurka itz egiten ez da gelditzen. ¹⁴ Jesus, Nazaretar orrek, Toki au ondatu, ta Moises'ek irakatsitako ekanduak aldatu egingo dauzala esaten, geuk entzun dautsagu.» ¹⁵ Orduan, batzarreko guztiak argan (*Esteban'egan*)

5 41 *Jesus* izena, Jainko izen biurta da, 2 21+, 36+; 3 16+.

6 1 *Ebertarrak eta Gerkarrak*. Judarrak ziran bitzuok, enda bardiñekoak. Euren arteko bereizkuntza, kulturazkoa zan. Ebertarrak, Palestina'n jaiu ta bertan bizi ziran, cf. Ko 2^a 11 22; Flp 3 5. Gerkarrak, barriz, atzerrian jaiotako judarrak ziran; gerkeraz itz-egin eta gerkerazko Biblia erabilten eben. Eurok

izango dira Barri Onaren leenengo misinolariak, 8 1-5; 11 19-20.

6 6 *Zazpi* onei ez yake oraindiño izena *diakonu* emoten, naizta *serbitzurako*, au da, *diakonutzarako* aukeratuak izan. Gerrogo zeaztuko da euron *serbitzu-lana*. *Eskuak gainean ezarteak*, Eliz-eginkizunen baterako eskubidea emoten yakela adierazoten dau, cf. 13 3; Tm 1^a 4 14+; 5 22; Tm 2^a 1 6-7.

begiak ezarrita, arpegia aingeru-arpegia lakoa ikusi eutsoen.

Esteban'en itzaldia

7 ¹Orduan, Abade-buruak auxe itandu eban: «Ori orrela ete-da?» ²Eta Esteban'ek*: «Anai ta gurasook, entzun: Jaungoiko goragarria agertu yakon gure asaba Abraham'i, au Mesopotamia'n bizi zala, Jaran'en errikotu baiño leen, ³ eta auxe esan eutsan: Zure erritik eta senitartetik urten, eta zatoz Neuk erakutsiko dautsudan lurraldera. ⁴Orduan, Kaldea-lurraldetik urtenda, Jaran'en geratu zan. Andik, barriz, aren aita il ondoren, zuek orain bizi zareen lur onetara ekarri eban Jaunak. ⁵Eta ez eutsan oin bateko lur-zatirik be emon; baiña agindu bai: lur au ari ta aren ondorengoai emongo eutsela agindu eutsan, ordurarte semerik ez ebanarren. ⁶Baita beste au be esan eutsan Jaungoikoak: Zure ondorengoak atzerrian arrotz bizi izango dira laurreun urtez jopu eginda ta azpiratuta. ⁷Eta menpetu dagizan erria Neuk ebatziko dot —esan eban Jaungoikoak—; eta arrezkero, andik urtenda, lur onetan gurtuko nabe. ⁸Erdainkuntza-alkartasuna be egin eban arekaz; eta orrela, Abraham'ek Isaak sortu ta zortzigarren egunean erdaindu eban. Eta Isaak'ek Jakob sortu eban, eta Jakob'ek amabi erri-gurasoak.

⁹Errigurasoak, ikusi-eziñez, Jose* saldu egin eban Ejipto'ra; baiña Jaungoikoa aregaz egoan, ¹⁰ eta neke guztietatik atara eban; Ejipto'ko errege zan Faraon'eganako ederra ta jakintza emon eutsazan; eta Faraon'ek Ejipto ta bere etxe osoaren buru jarri eban. ¹¹Orduan, Ejipto osoan

eta Kanaan'en gosete ta larrialdi negargarria sortu ziran; eta gure asabak ez eben jatekorik. ¹²Orduan, Jakob'ek Ejipto'n janaria bazala entzunda, geure asabak bialdu ebazan ara leenengo aldiz. ¹³Bigarrenez, Jose bere anai adierazo yaken, eta Faraon'ek Jose'ren jatorria jakin eban. ¹⁴Orduan, Jose'k Jakob bere aita ta senitarte guztia erakarri egin ebazan, irurogei ta amabost lagun guztiz. ¹⁵Beraz, Jakob Ejipto'ra jatsi zan, eta bera ta gure asabak be antxe il ziran. ¹⁶Eta gero Siken'era aldatu, ta Sikem'en zan Emor'en semeai Abraham'ek diruz erositako illobian obiratuak izan ziran.

¹⁷«Baiña Jaungoikoak Abraham'i ziñez egindako agintzari-aldia urreratzen zala*, Israel'go erria Ejipto'n asko ugaritu zan, ¹⁸ Ejipto'n Jose ezagutzen ez eban errege barri bat jagi zan arte. ¹⁹Errege onek, gure erriaren arka maltzurkeri baltza erabillirik, gure asabak aurrean erabilli ebazan, euren umetxoak ilteko arriskuan itzi-erazorik, azi ez zeitez. ²⁰Aldi aretan bertan jao zan Moises, eta Jaungoikoaren edergarri izan zan: eta iru illebetz aitarenean ixillean azi izan zan. ²¹Baiña au be arriskuan itzia izanik*, Faraon'en alabeak semetzat artu ta azi eban. ²²Eta Moises'i Ejiptoarren jakintza guztiak irakatsi eutsuezan; eta itzez ta egiñez aaltsua izan zan. ²³Baiña berrogei urte ebazala, bere anai israeldarrak ikusteko gogoia izan eban. ²⁴Eta israeldar bati irain egiten ejiptoar bat ikusirik, aren alde jarri zan, eta ejiptoarrari bizitza kendurik, ari egindako iraiña zuzendu egin eban. ²⁵Jaungoikoak bere eskuz emon bear eutsela askatasuna, aren anaiak ulertzen ebela uste

^{7 2} Itzaldi luze onetan Esteban'ek ez diardu bere burua zuritzen. Israel'en istoria-laburpen bat da, Israel'ek Zintzoari (Mesias'i) uko egin eutsan arte. 2-8'gn. ataltxoak Abraham'i dagokioz, labur-labur. Idatz-txatalak eta, gerkerazko Bibliatik jasota dagoz, As 12 1, 7; 15 2, 13-14; Ur 3 12; As 17 10; 21 4.

^{7 9} 9-16'gn. ataltxoak Jose'ri buruzko bizitzaren laburpen bat dira, Cf. As 37 11, 28; 39 2-3, 21-23; 41 40-42, 54-55; 42 1-5; 46 27; 49 33; 50 13; Jos 24 32.

^{7 17} Moises'en bizitza, 17-43, zeatzagoda. Cf. Ur 1 7-8, 10-11, 22; 2 2, 3-10, 15; Zn 14 33; Dt 18 15.

eban, baiña areik (anaiak) ez eben ulertu. ²⁶Biaramonean, batzuek burrukan ziarduela, arein artean sartu zan, eta alkar adiskidetzen ziarduan, esanaz: «Gizonok!, anai zarezuek: zegaitik egiten dautsazue irain batak besteari?» ²⁷Baiña lagun-urkoari irain egiten eutsanak, Moises'i bultza egin eutsan, esanaz: «Nok egin zaitu gure gain buru ta ebazle?» ²⁸Ala, ni be il egin nai ete-nozu, atzo Ejiptoarra il zenduanez?» ²⁹Orduan, itzok entzunda, Moises'ek iges egin eban, eta Madian'go lurraldean arrotz bizi izan zan, eta seme bi izan ebazan an.

³⁰Eta berrogei urte igarota, Sinai-mendiko basoan aingeru bat agertu yakon, sasi-sugar artean. ³¹Ori ikusirik, Moises arrituta geratu zan; eta begiratza urreratu zanean, Jaunaren abots au eldu yakon: ³²«Neu naz zuen asaben Jaungoikoa, Abraham'en eta Isaak'en eta Jakob'en Jaungoikoa.» Moises'ek, barriz, ikaraz, begiratzeko be adorerik ez eban. ³³Eta Jaunak auxe esan eutsan: «Erantzi egizuz oiñetakook: zu zagozan tokia lur santua da-ta. ³⁴Ikusi dot ikusi nire erriaren larrialdia Ejipto'n eta aren saminzotiña (zizpurua) entzun dot, eta areik askatzera jatsi naz; zatoz, bada, eta Ejipto'ra bialduko zaitut.»

³⁵Moises au, ba, «nok egin zaitu gure gain buru ta ebazle?» esanez, areik ukatu eben Moises au, Jaungoikoak nagusi ta salbatzaille bialdu eutseen, sasian agertu yakon Aingeruaren bidez. ³⁶Onexek (Moises'ek) atara ebazan, Ejipto'n eta Itsaso Gorrian eta basoan berrogei urtez arrigarriak eta mirariak egiñik.

³⁷Moises au da Israeldarra esan eutsena: «Ni lako Profeta bat sortuko dautsue Jaungoikoak zuen senitarte-

tik: ari entzun egiozue.» ³⁸Auxe da, basoan erria batuta egoala, Sinai-mendian Aingeruagaz itz egiten ziarduan, ta gure asabakaz izana, ta bizitzarako berbak geuretzat artu ebazana. ³⁹Gure asabak, barriz, ez eutsoen entzun nai izan*, ukatu baiño, eta biotzez Ejipto'ra biurtu ziran, ⁴⁰Aaron'i esanaz: «Gure aurretik joan daitezcan jaungoikoak egi-guzuz: Ejipto-lurretik atara gaituan Moises orri zer jazo izan yakon ez dakigu-ta.» ⁴¹Eta egun areitan txal bat egin eben, eta irudi ari oparia eskifi eutsoen, eta euren esku-lanaz pozez ziran. ⁴²Orduan, arekandik Jaungoikoak alde egin eban, eta ortziko (zeruko) izartza gurtzen itzi ebazan, Profeten liburuan idatzita dagoanez:

«Israel'go etxe!, berrogei urtez basoan erre-opariak eskifi ete-zeustazan? ⁴³Eta Molok'en txabola ta zuen jaungoiko Errefan'en izarra artu zenduezan, zuek egindako irudiok gurtzeko. Beraz, Babilonia'z aruntzago aldatuko zaituet.»

⁴⁴«Autor-txabolea* gure asabakaz basoan egoan, Moises'i itz egiñik Jaungoikoak agindu eutsanez, ikusi eban eredu-antzekoa egiteko. ⁵Eta gure asabak artu ta ekarri egin eben, euren aurretik Jaungoikoak jaurtitako errien jabe, Josue'ren agindupean jarri ziranean, Dabid'en egunetararte. ⁴⁶Onex (Dabid'ek) Jaungoikoaren ederra izan eban, eta Jakob'en Jaungoikoari Bizitokia egiteko eskatu eban. ⁴⁷Baiña Etxea egin eutsana, Salomon izan zan. ⁴⁸Ez da, orraitio, Aaltsua eskuz egindako aterpetan bizi, igarleak diñoanez:

⁴⁹«Auxe diño Jaunak: Zerua da nire jarlekua, ta lurra nire oiñazpikoa. Zein etxe egingo daustazue?,

^{7 39} Moises'en bitartekotasuna ukatzeak, sasi-jainkoakana daroa Israel, 39-43. Cf. Zn 14 3; Ur 32 1, 23, 4-6; Am 5 25-27.

^{7 44} Ez basamortuko Autor-txabola, Ur 25 9, 40, ez Salomon'en Jauretzea,

giza-eskuz egiña, 17 24; cf. Ab 26 1; Er 1* 8 27, ezin izan daitezke Jainko negurrigabearen atsedentoki. Cf. Sal 132 5; Er 1* 6 2; Is 66 1-2. Beraz, judarren egiazko Jainkoa gurtzea be, sasi-jainkokeritzat jotzen dau Esteban'ek.

edota, zein izango da nire atsedentokia?

⁵⁰ «Ez dauz gauza guztiok neure eskuak egin, ala?»

⁵¹ «Lepondo-gogor eta biotz-belari erdaindu bageok*: Espiritu Santuari zuek beti gogor egiten dautsazue; zeuen gurasoak lakoak zaree zuek be. ⁵² Zein profeta ez eben zuen gurasoak aurrean erabili? Eta Zuzenaren etorrerea leen iragarri ebenak, areik il egin ebezan; eta Zuzen au zuek orain ukatu ta il egin dozue. ⁵³ Legea be, aingereuz bitartez artu zenduen, eta ez zenduen bete.»

Esteban'en eriotza*

⁵⁴ Eta *Esteban'en* itzok entzutean, arein biotzak amorrutaz ta agiñak karraskaz asi ziran Esteban'en aurka. ⁵⁵ Baiña arek, Espiritu Santuz betarik eta zerura begira, Jaungoikoaren aintza ikusi eban, eta Gizasemea (*Jesus*) Jaungoikoaren eskumaldean zutik. ⁵⁶ Eta auxe esan eban: «Ara!, zeruak zabalik dakusdaz, eta Gizasemea Jaungoikoaren eskumaldean zutik.» ⁵⁷ Orduan areik, garra-sika, euren belarriak estaldu egin ebezan, eta guztiak batera aurka etorri yakozan; ⁵⁸ eta uritik kanpora atarata, arrika egin eutsoen. Eta an batu ziranak, euren jantziak Saulo* izenekoko mutil baten oiñetan itzita, ⁵⁹ Esteban'i arrika egiten eutsoen; eta onek otoitz au iñoan: «Jesus Jauna, artu egizu nire espiritua!» ⁶⁰ Eta belaunikoturik, deadarka esan eban: «Jauna, ez egizu pekatu au itsasi.» Eta ori esanda, bakean il zan. Ari emondako eriotza, barriz, Saulo*k onartu egiten eban.

⁷ 51 Azkenengo agiraka latz onek, 51-53, sumin goritan jarten dauz entzuleen biotzak.

⁷ 54 Jesus lez, biraolaritzat salatzen dabe Esteban, 6 11-14. Eta il be Jesus'en antzera, Lk 23 46, ilgo da. Esteban da Jesus'en leen-martiria, 22 20.

⁷ 58 Saulo. Auxe da geroago Paulo

Saulo, Elizerearen aurka

8 ¹ Egun areitan eraso andia sortu zan Jerusalem'go Elizerearen aurka; eta guztiak, Apostoluak izan ezik, Judea ta Samaria'ko bazterraldeetara zabaldu ziran*. ² Baiña, gizezko jaungoikozale batzuek Esteban arduraz illobiratu eben eta illeta andiak egin eutsoezan. ³ Bitartean, Saulo*k Elizera ondatzen ziar-duan, eta etxez-etxe sarturik, gizon eta emakumeak atara ta espetxean sartzen ebazan. ⁴ Baiña zabaldu ziranak, ara-ona ebizan, itza (Barri Ona) iragarten.

Felipe, Samaria'n

⁵ Eta Felipe'k, Samaria'ko* urira jatsirik, angoai Kristo iragarri eutsen. ⁶ Eta guztiak gogo batez entzuten eben Felipe'k zirautsena, egiten ebazan mirariak ikusirik. ⁷ Eta txerrendun askogandik deabru zikiñak deadarka urteten ziran, eta elbarri ta erren asko osatu egiten ziran. ⁸ Beraz, uri aretan poz andia zan. ⁹ Simon izenekoko gizon bat bizi zan bertan, leen azti-gaietan lan egindakoa; eta Samaria erria lilluraturata eukan, bera andiren bat zala esanaz. ¹⁰ Guztiak, andi ta txiki, adi-adi yakozan, eta, «Auxe da Jaungoikoaren indar andia!», iñoen. ¹¹ Eta ari begira egozan, bere aztikeriz aspaldi luzez zorabiatuta eukan-eta. ¹² Baiña, Felipe'k iragarten eutsen Jaungoikoaren Erreñuko itza siñistu ebenean, guztiak, gizon eta emakume, Jesukristo'ren izenean bateoa artzen asi ziran. ¹³ Orduan, Simon'ek berak be siñistu egin eban; eta bateoa artuta, Felipe'ren jarraitzaille egin zan. Eta egiten

Apostolua izango dana, 8 1, 3; 9 1; 22 20; 26 10.

⁸ 1 Eraso oni eskerrak, Jerusalem'dik atzerrira doa Barri Ona, 1 8+.

⁸ 5 *Samaritarrek*, endaz eta erlejiñoz, judarrak ziran, naizta aspaldiko gizaldietan Israel'dik aparte bizi, Er 2° 17 24+; Lk 9 52; Jn 4 9.

ziran mirari ta arrigarri andiak ikusirik, ikaratuta egoan.

Pedro ta Joan Samaria'n

¹⁴ Jerusalem'en egozan Apostoluak, Samaria'k artu ebala Jaungoikoaren itza entzun ebenean, Pedro ta Joan bialdu eutseezan. ¹⁵ Eta oneik eldu ziranean, arein (*Samaritarren*) alde otoitz egin eben, Espiritu Santua artu egien, ¹⁶ oraindiño areitariko iñogana be ez zan etorri-ta: Jesus Jaunaren izenean bateoa baiño ez eben artu. ¹⁷ Orduan, eskuak gainean ezarri eutseezan, eta Espiritu Santua artu eben*.

¹⁸ Simon'ek, Apostoluen esku-ezartez Espiritu Santua emoten zala ikusirik, dirua eskiñi eutsen, esanez: ¹⁹ «Neuri be emon egidazue aal-izate ori, eskuak nik edonori gainean ezarri ezkerok, arek Espiritu Santua artu dagian.» ²⁰ Baiña, Pedro'k auxe esan eutsan: «Galdu dadilla zeugaz zure dirua: Jaungoikoaren saria (*doaia*) diruaz lortzen dala uste izan dozu-ta*». ²¹ Ez dozu zuk eskubiderik ez egitekorik arazo onetan: Jaungoikoaren aurrean zure biotza zuzena ez da-ta. ²² Garbatu zaitez, ba, zure gaiztakeri orretzaz; eta Jaungoikoari otoitz egiozu, zure biotzeko asmakeri ori parkatu dagitzun: ²³ beaztun mingots eta gaiztakeri-katez zagozala dakust-eta.» ²⁴ Orduan, Simon'ek auxe erantzun eutsan: «Zeuek egiozue otoitz nire alde Jaunari, esan dozuenetik ezertxo be jazo ez dakidan.»

²⁵ Orrela Jaunaren Itza autortu ta iragarri ondoren, Jerusalem'era biurtu ziran, Barri Ona Samaria'ko erri askotan zabaltzen ebela.

⁸ 17 Bateoaz batera, 1 5+; 2 38+, beste Sakramentu baten aztarnak agiri dira emen. Espiritu Santuaren indarra emoten dauan *esku-ezarte* au, 9 17-18; 19 5-6, Sendotza edo Konfirmaziñoa da. Cf. Tm 1° 4 14+.

Felipe'k Etiopia'ko andiki bat bateatzen dau*

²⁶ Jaunaren Aingeruak Felipe'ri itz egin eta auxe esan eutsan: «Jagi ta zoaz egoalderuntz, Jerusalem'dik Gaza'ra jatsiten dan basobidera.» ²⁷ Eta jagirik, joan zan. Eta Etiopia'ko erregeña zan Kandaze'ren inguruko andiki ta aren ondasun guztien arduradun zan etiopiar gizon iren bat aurkitu eban, Jaungoikoa gurtzera Jerusalem'era etorria: ²⁸ eta atzera etxera yoiain bere burdian jesarrita, Isaias igarlearen liburua irakurten. ²⁹ Eta *Espirituak* Felipe'ri auxe esan eutsan: «Urreratu zaitez bizkor burdi orretara.» ³⁰ Felipe'k, burdira arin joanik, Isaias igarlearena irakurten ziarduala entzun eta esan eutsan: «Irakurten diarduzun ori, ulertzen dozula uste dozu, gero?» ³¹ «Zelan ulertu daiket, ba —erantzun eutsan arek—, iñok azaltzen ez ba'daust?» Eta Felipe'ri, igo ta beragaz jesarri zedilla eskatu eutsan. ³² Irakurten ziarduan idatzatala auxe zan.

«Ardia lez, eriotzara eroan eben; eta moztaillearen aurrean bildots isillak legez, ez eban agorik zabaldu.»

³³ *Aren auxia lotsagarrero erabagi dabe.*

Nok azalduko dau Aren gizaldia, Aren bizia lurretik kendua izango da-ta?»*

³⁴ Orduan irenak Felipe'ri auxe itandu eutsan: «Igarleak ori nortzaz diño, arren? Bere buruaz, ala beste norbaitetzaz?» ³⁵ Eta Felipe'k idatzatal onetatik asirik, Jesus'en Barri Ona jakiferazo eutsan.

³⁶ Eta bidez aurrera yoiazala, ura egoan toki batera eldu ziran;

⁸ 20 Simon'i buruzko jazoera onetatik dator *Simonkeri* edo *Simonia* izena, au da, gauza santuak diru-truk sal-erostea.

⁸ 26 Oraingoan Kristo'ren Barri Ona urriñeko jentil bateganaño doa.

⁸ 33 Is 53 7-8'garrenetatik jasoa.

«Emen ura —esan eban irenak—; zek galarazoten dau ni bateatzea*?»³⁷ Eta Felipe'k auxe erantzun eutsan: «Biotz-biotzez siñisten ba' dozu, ezek be ez.» Arek auxe esan eutsan: «Jesu-Kristo Jaungoikoaren Semea dala siñisten dot.»³⁸ Eta burdia gelditzeko agindu eban. Eta biak, Felipe ta irena, uretara jatsi ziran, eta Felipe'k bateoa emon eutsan.³⁹ Baiña, uretatik urten ziranean, Jaunaren Espirituak eroan eban Felipe, eta arrezkerok irenak ez eban ikusi; eta bidean pozik yoiian.⁴⁰ Felipe, barriz, Azoto'n agertu zan, eta andik Zesarea'ra joan zan, *Jesu-Kristo'ren* Barri Ona uri guztietan iragarten ebal.

Saulo'ren onbideratzea*

(22, 5-16; 26, 10-18.)

Cf. Ga 1, 12-17)

9¹ Baiña Saulo, Jaunaren ikasleen aurka oraindiño zemak eta erio-tza eriola, Abadeburuagana joan zan,² eta Damasko'ko sinagogentzat agiriak (*idazkiak*) eskatu eutsazan: lege onetarikorik aurkitu ba'legiz, guztiak, gizon eta emakume, loturik Jerusalem'era ekarri egizan.³ Beraz, bidez yoiala, Damasko-ondora eldu zan; eta bat-batean goiko diztira argitsu batek inguratu eban; ⁴ eta, lurrera jausirik, berbots au entzun eban berari esaten: «Saulo, Saulo!, zegaitik narabizu aurrean?»⁵ Eta Saulo'k: «Nor zaitut, ba, Jauna?» «Zuk aurrean narabizun Jesus* naz ni —erantzun eutsan Jaunak—; gogor yatzu akilluari ostikoka ekitea.⁶ Baiña jagi ta sartu zaitez urian; antxe esango yatzu egin bear dozu-na.»⁷ Aren bidelagunak arrituta egozan, berbotsa entzun bai, baiña iñor ikusten ez ebela.⁸ Orduan, jagi

egin zan Saulo lurretik; baiña, begiak zabalduarren, iñor be ez eban ikusten. Beraz, eskutik elduta, Damasko'ra eroan eban.⁹ Eta iru egunez ikusten ez ebala egon zan; eta ez eban ezer jan, ez edan.

¹⁰ Ananias izeneko ikasle bat zan Damasko'n; eta oni Jaunak irudipenez auxe esan eutsan: «Ananias!» «Emen naukazu, Jauna», erantzun eutsan onek.¹¹ Eta Jaunak ari: «Jagi ta zoaz Zuzena deritzan kale-
ra, eta Saulo Tarsotarra Juda'renean billatu egizu: otoitz egiten diardu; ¹² eta Ananias izeneko gizon bat irudipenez ikusi dau beragana sartzen eta eskuak berari ezarten, ikustea artu dagian.»¹³ «Jauna! —erantzun eutsan Ananias'ek—, askori entzunda nago, gizon orrek Jerusalem'en zure zintzoai egin dautsezan kalteak: ¹⁴ eta emen berton zure izenpean dagozan guztiak indarrez lotzeko eskubidea artu dau abade-nagusiakandik.»¹⁵ Jaunak, barriz, auxe esan eutsan: «Zoaz; jentillai ta Israel'go semeai nire izena iragarri dagitsen langille aukeratua dot ori-ta*.¹⁶ Neuk erakutsiko dautsat nire izenagaitik eroan bear dauzan nekeak.»¹⁷ Joan zan, bada, Ananias, eta etxe *aretan* sartu zan: eta eskuak aren gainean ezarririk, auxe esan eutsan: «Saulo, nire anai! Onuzko bidean agertu yatzun Jesus Jaunak bialduta natorkizu, ikustea artu dagizun, eta Espiritu Santuz bete zadizan (*zaitexan*).»¹⁸ Eta bat-batean, begietatik ezkata lako batzuk jausi yakozan, eta barriro ikustea artu eban; eta jagirik, bateatu egin zan.¹⁹ Eta jan ebanean, indartu egin zan. Eta egun batzuetan Damasko'ko ikasleak ez egon zan.

⁸ 36 Urrango ataltxo, ³⁷ garrena, geroago geituriko azalpen bat da, bateatzean erabilli oi zana.

⁹ 1 Jazoerok Paulo'k berak azalduko dauz geroago, 22 4-21 eta 26 9-18'garrenetan. Cf. Ga 1 12-17; Ko 1^a 15 8-10; e.a.

⁹ 5 Jesus'en izena dala-ta, bere jarrai-

tzailleai egiten yaken guztia, Jesus'i berberari egiten yako, Mt 10 40; 25 40; e.a.; Ko 1^a 12 22+.

⁹ 15 Paulo'ren misio-lana gizaseme guztiakana doa, 22 15; 26 17; 13 5+; Erm 1 1+, 5; 16 25+; Ga 1 16+; Tm 1^a 2 7; e.a. Cf. Jn 11 52+.

Saulo'ren leenengo eginkizunak

(Ga 1, 16-17)

²⁰ Eta bereala sinagogetan Jesus Jaungoikoaren Seme* zala iragarten asi zan.²¹ Eta entzule guztiak, arrituta, auxe iñoen: «Ez da, ba, au, izen orren alderdikoak Jerusalem'en aurrean erabilten ziarduana, ta emengoak be atxilloturik abade-nagusiakana eroateko etorri zana?»²² Saulo'k, barriz, Damasko'ko judarrak geroago ta sendoago ta gogor-rago lotsatzen ebazan, «Au Kristo da» adierazorik.

²³ Eta aldi luzea igarota, judarrak a ilteko alkartu ziran.²⁴ Baiña, arein maltzurkeriak Saulo'k igarri egin ebazan. Eta gau ta egun atezain egozan a ilteko.²⁵ Orduan, ikasleak *Saulo* gabez arturik, ormatzarretik otzara baten barruan *sartuta* jatsi eban.

Saulo, Jerusalem'en

(Ga 1, 18-19)

²⁶ Eta *Saulo* Jerusalem'era eldu zanean, ikasleak alkartu nairik ebillen; baiña guztiak aren bildur ziran, a be ikasle zanik ez ekien-eta.²⁷ Orduan, Barnabas'ek *Saulo* artu ta Apostoluakana aurkeztu eban: eta bidean Jauna ikusi ebala ta *Jaunak* esan eutsazan itzak be azaldu eutsezan, baita Jesus'en izenean Damasko'n zabal-zabal ekin izan eutsala be.²⁸ Arrezkerok, Jerusalem'en arekaz ebillen, sartu-urten; eta Jaunaren izenean bildur bagarik egiten eban itz.²⁹ Gerkarrakaz be eztabaidak izaten ebazan; eta oneik *Saulo* ilteko asmoa erabillen.³⁰ Eta ori anaiak ezagaturik, Zesarea'ra eroan eta andik Tarso'ra bialdu eban.

Pedro, Lida'n eta Jope'n

³¹ Elizea, barriz, Judea osoan, Galilea'n eta Samaria'n bakez egoan,

⁹ 20 *Jaungoikoaren Seme*, cf. 13 33; Mt 4 3+. Izenorde au Kristo'ri (Mesias'i)

alkarri jarraibide ona emoten eutsoen, Jaungoikoaren bildurretan ibillirik, eta Espiritu Santuaren pozez beterik.

³² Pedro, guztiai ikustaldia egiten ziarduala, Lida'n bizi ziran zintzoakana be eldu zan.³³ Eta Eneas izeneko gizon bat aurkitu eban an, zortzi urtez ogean egoana, elbarriduna zan-eta.³⁴ Pedro'k auxe esan eutsan: «Eneas, Jesu-Kristo'k osatzen zaitu: jagi zaitez ta zeuk atondu egizu zure ogea.» Eta *Eneas* bat-batean jagi egin zan.³⁵ Lida ta Saron'go bizilagun guztiak ikusi eban, eta Jaunagana biurtu ziran.

³⁶ Jope'n, be, Tabita, edo bardin dana, Basauntza izeneko andrazko bat zan ikasleen artean, egiten ebazan egintza on eta limosnaz beterik zana.³⁷ Eta egun areitan geisotu ta il egin zan; eta gorpua garbitu ondoren, etxeko goi-gela baten jarri eban.³⁸ Lida Jope-ondoan dago-ta, ikasleak Pedro antxe egoala entzunik, gizon bi bialdu eutsoezan eskari au egiñik: «Zatoz lenbailen gugana.»³⁹ Orduan, Pedro jagi ta arekaz joan zan. Ara eldu zanean, goiko gelara eroan eban; eta andra alargun guztiak negarrez inguraturik, Basauntza'k, arekaz bizi zala, egiten eutsezan jantzi ta soñekoak erakusten entsoezan.⁴⁰ Pedro'k, guztiai alde-eragin ondoren, belauniko otoitz egin eban; eta gorpuagana urreraturik, auxe esan eutsan: «Tabita, jagi zaitez!» Eta arek, begiak zabaldu ebazan; eta Pedro ikusirik, jesarri egin zan.⁴¹ Eta Pedro'k, ari eskua emonik, zutitu egin eban; eta zintzo ta andra alargunai dei egiñik, bizi-rik biurtu eutsen.⁴² Jope osoan jakin zan *jazo* au; eta askok siñistu eban Jaunagan.⁴³ Pedro, barriz, Jope'n egun askotan geratu zan, Simon izeneko narrugin baten etxean.

dagokio, 22; cf. 2 36+; Mt 16 16. Paulo Deunak sarri erabiliko dau bere esku-tizetan, Erm 9 5+; Ts 1^a 1 10; e.a.

Aingerua agertzen yako Kornelio euntariari*

10 ¹ Zesarea'n gizon bat zan, Kornelio izenekoa, Italiako eritzan guda-sailleko euntari bat: ² gizon Jaungoikozale ta Jaungoikoari bildur* eutsana zan bere etxeko guztiakaz; erriari limosna asko egiten eutsazan, eta Jaungoikoari beti otoitz egiten ziarduan.

³ Onek, ba, eguneko bederatzigarren orduan-edo, irudipenez Jaungoikoaren aingerua argiro ikusi eban bere gelan sartu ta zirautsala: «Kornelio!» ⁴ Kornelio'k, aregana begira-begira jarriarik eta bildurrez beterik, «Zer da, Jauna?» esan eutsan. Eta aingeruak: «Zure otoitzak eta limosnak Jaungoikoganaiño igo dira, zure gomuta egiñik. ⁵ Orain, bada, Jope'ra norbait bialdu egizu, Pedro izenordeko arako Simon'en billa: ⁶ Pedro au, etxea itsas-ondoan daukan Simon narrugin batenean dago ostatuz: arexek esango dautsu egin bear dozuna». ⁷ Itz egiten eutsan aingeruak alde egin ebanean, *Kornelio'k* morroi biri ta bere menpeko gudari jaungoikozale bati dei egin eutsen: ⁸ eta jazo arei azaldu-rik, Jope'ra bialdu ebazan.

Pedro'k Jope'n ikusi ebana

⁹ Biaramonean, areik bidean joanez urira urreratzen yoiatzala, Pedro etxegaiñera igo zan otoitz egitera, seigarren orduan-edo. ¹⁰ Eta gosetu zanean, zerbait artu nai izan eban; gertatzen eutsen artean, zorabiatuta geratu zan. ¹¹ Eta zerua zabalik ikusi eban, baita izara aundi antzeko ontzi bat be, lau ertzetatik oratuta zerutik lurrera jatsiten. ¹² Ontzi aretan, guztietariko lurreko lau-oiñeko abere, narrasti, ta zeruko

egazti ziran. ¹³ Eta abots bat entzun eban, zirautsala: «Pedro!, jagi zaitez, il eta jan egizu». ¹⁴ Baiña, Pedro'k auxe esan eban: «Ez orrelakorik, Jauna; gauza loi ta zikiñik ez dot egundo jan-eta». ¹⁵ Eta abotsak barrero bigarrenez ari: «Jaungoikoak garbitu dauana, zuk ez egizu loitzat artu*». ¹⁶ Irugarrenez be orixe jazo zan; eta izara lako a bereala zerura biurtu zan.

¹⁷ Ikuspen au zer izan zeitekean, Pedro'k bere gogoan erabillega, ara!, Kornelio'k bialdutako gizezkoak, Simon'en etxea billatuta gero, ateaurrean egozan. ¹⁸ Eta dei eginda, izenordez Pedro eritzan Simon an ete-egoan ostatuz itandu eben. ¹⁹ Bitartean, Pedro'k ikuspenean ausnartzen ziarduala, Espirituak auxe esaten eutsan: «Begira; iru gizezko dozuz or zure billa. ²⁰ Jagi, bada; jatsi zaitez ta zoaz eurakaz ezpai bagarik, Neuk bialdu dodaz-ta». ²¹ Orduan Pedro'k, gizezko arekana jatsirik, «Ona emen ni —esan eutsen—: neu nozue billatzen dozuena. Zer dala-ta etorri zaree?» ²² Areik auxe esan eutsen: «Kornelio euntariak, gizon zintzo ta Jaungoikoari bildur dautsanak eta judarren erri osoaren aurrean ezaguna danak, bere etxera zuri dei egiteko ta esan dagitzuna entzuteko erantzuna artu dau, aingeru santu baten bitartez». ²³ Orduan Pedro'k, areik sarrerazorik, beragaz artu ebazan; eta biaramonean, jagi ta arekaz joan zan; eta Jope'ko anai batzuk be aregaz joan ziran.

Pedro, Kornelio'renean

²⁴ Biaramonean, *Pedro* Zesarea'n sartu zan. Kornelio, barriz, arein

10 1 *Kornelio* kristau biurtzea, garrantzi aundiko jazoera da: orren ondoren lez etorriko da Jerusalem'go Batzarra, 15 7-29. Jentillen leenengo bateo onek argi jarten dau Jainkoaren asmoa, au da, jentiltasunetik kristau izatera datozenak, ez dagozala Moises'en Lege ta erakundeen menpean. Cf. Ga 2 2-10, 11-21.

zain egoan, bere senide ta adiskide gogokoena dei egiñik. ²⁵ Eta Pedro sartu zanean, Kornelio bidera urten yakon, eta oiñetara auzpazturik, gur egin eutsan. ²⁶ Baiña Pedro'k jaso egin eban, esanaz: «Jagi zaitez, neu be gizona naz-ta». ²⁷ Aregaz izketan ziarduala, sartu egin zan, eta lagun asko batuta aurkitu ebazan; ²⁸ eta «auxe esan eutsen: «Ba-dakizue judarrak debekatuta daukena atzerritarrak batzea naiz alkar-tzea; baiña, infortxo be loi ta zikin-tzat ez artzen irakatsi daust Jaungoikoak*».

²⁹ Orregaitik, ba, dei egin daustenean, ezpai bagarik etorri naz. Beraz, esan egidazue: zetarako egin daustazue dei?» ³⁰ Orduan, Kornelio'k auxe esan eban: «Lau egun dira gaur, bederatzigarren orduan otoitz egiten niarduala nire etxean; eta onetan, zuriz jantzitako gizezko bat aurrez-aurre jarri yatan ³¹ eta, ³² Kornelio —esan eustan—, zure otoitza entzun eta zure limosnak gogoan artu dauz Jaungoikoak. ³³ Bialdu egizu, bada, norbait Jope'ra, izenordez Pedro dan Simon'i dei egiteko; au etxea itsas-ondoan daukan Simon narruginarenean dago ostatuz; eldu daitenean berak egingo dautsu itz. ³⁴ Beraz, bereala zure billa bialdu dodaz; zuk, barriz, etortez ondo egin dozu. Orain, ba, zeure aurrean gagoz emen guztiok, Jau-nak agindu dautsun guztia entzuteko».

Pedro'ren itzaldia

³⁴ Orduan Pedro'k, bere agoa zabaldua, auxe esan eban*: «Benetan, ezagutzen dot Jaungoikoagan norkeririk ez dagoana: ³⁵ edozein errian, Ari bildur dautsana eta zu-

zen dabillena, begiko yakola baiño. ³⁶ Jaungoikoak Israel'go semeai bere itza (Barri Ona) bialdu eutsen, guztien Jauna dan Jesu-Kristo'ren bitartez bakea iragarririk*. ³⁷ Ba-dakizue zer jazo zan, Galilea'n leenen eta Judea osoan gero, Yon'ek iragarritako batearen ondoren: ³⁸ Jesus Nazaretarra, Espiritu Santuz ta indarrez Jaungoikoak igurtzi ebala*, on egiñez ta txerrenak menperatutako guztiak osatuz igaro zala, Jaungoiko Aregaz egoan-eta. ³⁹ Arek judarren lurrean eta Jerusalem'en egindako guztien lekuko (*testigu*) gara gu. Areik, barriz, egur batetik eskegirik, bizitza kendu eutsen. ⁴⁰ Baiña, irugarren egunean Jaungoikoak biztu egin eban, eta agertu zedilla nai izan eban; ⁴¹ baiña, ez erri osoari *agertzeko*, geuri baiño, Jaungoikoak leendik aukeratutako autorleoi, eta A illen artetik berbiztuta gero, Aregaz jan-edan egin dogonoi. ⁴² A (*Jesu-Kristo*) illen eta bizien epaille Jaungoikoak jarria dala erriai iragarteko ta autortzeko agindu euskun. ⁴³ Aren sinistedun guztiak, pekatuaren parkamena Aren izenean artzen dabe, profeta guztien autorrez».

Leenengo jentillen bateoa

⁴⁴ Eta Pedro'k itzok esaten ziarduala, entzule guztien gaiñera Espiritu Santua jatsi zan. ⁴⁵ Jentillen gaiñera be Espiritu Santuaren doia isurten ikustean, Pedro'gaz etorri ziran erdaintutako guztiak arrituta egozan: ⁴⁶ areik be arrotzen izkuntzetan berba egiten eta Jaungoiko goratzen entzuten ebezan-eta. Orduan, Pedro'k auxe esan eban: ⁴⁷ «Oneik be, geuk lez Espiritu Santua artu daben ezkerro, nok

nezkoa da, 34-35; 15 9. Ikusi Mt 15 11; Erm 14 14, 18.

10 28 Pedro'k emen diñona, 14-15+ eta 20-22'garrenen ondorena baiño ez da.

10 34 Dt 10 17'garrenean esana, zabal eta oso-osoan artzen da emen; cf. Erm

2' 11; Ga 2 6; P 1* 1 17; Mt 22 16 p. Pedro'ren itzaldi onek, cf. 2 22+, Lukas'ek idatzitako Ebanjelioaren laburpentxo bat dirudi.

10 36 Cf. Is 52 7; Na 2 1; Erm 10 12, 15.

10 38 Cf. Is 61 1; Mt 3 16.

galerazo daikee bateorako ura?»⁴⁸ Eta Jesu-Kristo Jaunaren izenean arei bateoa emon egitseela agindu eban. Eta arekaz egun batzuetan geratu zedilla eskatu eutsoen.

Pedro Jerusalem'era biurtzen da

11 ¹ Jaungoikoaren itza jentillak be artu ebela entzun eben Judea'n egozan Apostolu ta anaiak. ² Eta Pedro Jerusalem'era biurtu zanean, erdainduak aregaz eztabaidan asi ziran, ³ esanez: «Erdainduta ez dagozanen etxean sartu zara eta arekaz jan dozu.» ⁴ Orduan, Pedro jazotako guztia azaltzen asi yaken, esanaz: ⁵ «Jope urian otoiitzean niarduala, zorabiotan irudipen bat ikusi neban; izara aundi antzeko ontzi bat ikusi neban, lau erztetik oratuta zerutik jatsiten, eta neuganañño eldu zan. ⁶ Eta begira-begira jarri nintzakiola, lurreko lau-oiñeko abere, pizti ta narrastiak, eta ortziko (*xeruko*) egaztiak ikusi nebazan an. ⁷ Eta abots bat be entzun neban niri esaten eustala: 'Pedro!, jagi zaitetz, il eta jan egizu'. ⁸ Ez orrelakorik, Jauna! —erantzun neban nik—; gauza loi ta zikiñik egundo agotik ez yat sartu-ta.' ⁹ Baiña, barriro zerutik abotsak auxe erantzun eustan: 'Jaungoikoak garbitu dauana, zuk loitzat ez egizu artu'. ¹⁰ Eta ori irutan jazo yatan, eta gero guztia zerura biurtu zan.

¹¹ Eta bertantxe iru gizonezko eldu ziran ni nengoan etxera, Zesarea'tik nigana bialduta. ¹² Eta arekaz ezpai bagarik joan nendilla esan eustan Espiritu *Santuak*. Sei anaiok

be, neugaz etorri ziran, eta gizon aren etxean sartu gintzazan. ¹³ Eta bere etxean Aingerua ikusi ebala esan euskun, bere aurrean esaten eutsala: 'Jope'ra norbait bialdu, ta izenordez Pedro deritzan Simon erakarri egizu: ¹⁴ Arek esango dautsunaz zeu ta zure etxeko guztiak salbatuko zaree.'

¹⁵ Eta itz egiten asi nintzanean, Espiritu Santua jatsi yaken, leen gure gaiñera legez. ¹⁶ Eta Jaunak esan eban au ekarri neban gogora: *Yon'ek uraz bateatu eban; zuek, barriz, Espiritu Santuaz izango zaree bateatuak.* ¹⁷ Beraz, Jesu-Kristo Jauna sinistu izan dogunoi emondako doaia bera Jaungoikoak arei be emon ba'eutsen, nor nintzan ni Jaungoikoari eragozpenik jarri negion*?» ¹⁸ Itzok entzunda, isildu egin ziran eta Jaungoikoa goratu eben, esanaz: «Or, ba!: jentillai be emon dautse Jaungoikoak bizitzarako damua».

Antiokia'ko Elizea*

¹⁹ Eta Esteban'en odol-isurtea zaila-ta, sakabanatu ziranak, Fenizia, Txipre ta Antiokia'rañño eldu ziran, Barri Ona judarrai baiño besteri iragarteke. ²⁰ Areitariko batzuk Txipre'tarrak eta Zirene'tarrak ziran; eta oneik, Antiokia'ra elduta, gerkarrai be itz egin eutseen, Jesus Jauna iragarten eutseela. ²¹ Eta Jaunaren eskua zan arekaz; eta lagun asko fededun egin eta Jaunagana biurtu ziran. ²² Eta jazopenon entzutea Jerusalem'go* Elizearen belarrietara eldu zan: eta Bernabe bialdu eben Antiokia'ra. ³ Ara eldu ta Jaungoikoaren grazia ikusi ebanean,

toluakandik aparte egon da luzaro, Ga 1 18; 2 1. Elizea Antiokia'n sortzea, oso garrantzi aundikoa izango da. 1 8+.

¹¹ 22 Jerusalem'go Eliza-ama beste Elizen zaindari ta arduradun lez agertzen da, 8 14; 11 1; Ga 2 2. Bernabe'k aurkezten dau Saulo Apostoluen aurrean, 4 36-37, eta bere laguntzat aukeratu dau. Antiokia izango da aurrerantzean Paulo'ren ibiltaldien ardatza.

pozez beterik, guztiak biotz osoz Jaunagan irauteko berotzen ebazan: ²⁴ gizon ona ta Espiritu Santuz eta siñismenez bete zan-eta. Alan, Jaunari askoak geitu yakozan.

²⁵ Andik, Bernabe Tarso'ra joan zan, Saulo'ren billa; eta aurkitu ebanean, Antiokia'ra eroan eban. ²⁶ Eta urtebete egon ziran bertako Elizan, lagun askori irakasten. Eta ikasleak Antiokia'n artu eben leenengoz «kristau*» izena. ²⁷ Egun areitan igarle batzuk* jatsi ziran Jerusalem'dik Antiokia'ra. ²⁸ Eta Agab izeneko areitariko batek, jagirik, lur osoan gosete aundia izango zala iragarri eban: gosete au Klaudio Zesar'en aldiari jazo zan. ²⁹ Orduan ikasleak, bakoitzak aal ebanez, Judea'n bizi ziran anaiak laguntza apur bat bialtzea erabagi eben: ³⁰ eta arelaxe egin eben, Bernabe ta Saulo'ren eskuz zaarrai* bialdurik.

Elizearen aurka bigarren eraso Jerusalem'en

12 ¹ Aldi aretan, Erodes erregea eliztar batzuk aurrean erabilten asi zan. ² Eta Santiago, Joan'en anaia, ezpataz ilteko agindu eban. ³ Eta judarrai ori atsegingarri yake-la ikusirik, Pedro'ri be oratu egin eutsan. Ogi-illetako egunak ziran. ⁴ Eta a atxilloturik, giltzapean sartu eban, launa gudariko lau talderen zainpean, Pazko-ostean erriaren aurrera atarateko asmoz. ⁵ Pedro giltzapean egoan bitartean, Elizeak otoiitz egiten eutsan Jaungoikoari aren alde eten bagarik.

⁶ Erodes'ek a (Pedro) erriari agirian atarateko zan aurreko gabean bertan, Pedro lo egoan gudari bi-

ren erdian, kate biaz lotuta; jago-leak, barriz, ate-aurrean egozan, espetxea zaintzen. ⁷ Bat-batean, Jaunaren Aingerua agertu zan, gela a argituaz; eta Pedro saietsean jo ta iratzartu egin eban, «Jagi arin», esanaz. Eta *Pedro'ri* eskuetatik kateak jausi egin yakozan. ⁸ «Lotu gerrikoa, ta jantzi oiñetakoak», esan eutsan Aingeruak. Eta alaxe egin eban. *Aingeruak* barriro: «Estaldu zaitetz soifnekoaz, eta jarraitu niri». ⁹ Eta urtenik, jarraitu egiten eutsan. Ez ekian, ostera, aingeruak egiten ebana egia zanik, eta irudipena ikusten ebala uste eban. ¹⁰ Leenengo gudari-sailletik ta bigarrenetik igarorik, urira daroan burdifiñazko atera eldu ziran, eta *atea* berez zabaldu yaken. Andik urtenda, kale batetik igaro ziran, eta Aingeruak bat-batean alde egin eutsan. ¹¹ Orduan Pedro'k, bere senera biurturik, auxe esan eban: «Oraitxe dakust egiaz Jaunak bere Aingerua bialdu daustana, Erodes'en eskutik eta judar erri osoaren begitik atara nauana».

¹² Eta jazoan gogoan erabillega, Mari'ren etxera joan zan: Mari au, Markos* eritzan Yon'en ama zan, eta arenean lagun asko batuta otoiitz egiten ziarduen. ¹³ Eta Pedro'k be barruko atea jo ebanean, Rode izeneko neskame bat urreratu zan atera, ixil-ixilik entzutera; ¹⁴ eta Pedro'ren abotsa entzun ebanean, pozaren pozez ez eutsan atea zabaldu; eta barrura arin joanda, Pedro ataurrean zala iragarri eutsen. ¹⁵ «Zu burutik zagoz!», esan eutsoen areik. Neskameak, barriz, baietz, eta alaxe zala iñoan. Orduan, areik «Aren aingerua da» esan eben.

Ag 1 3; e.a.

¹¹ 30 Eliza jaiobarrarian, judarren oiturreari jarraituz, 4 5, 23; 6 12; 23 14; Mt 16 21; e.a., *zaarrik* esku aundia eben kristau lagunarteko arazoetan, 14 23+; 20 17; 21 18. Cf. Tt 1 5+.

¹² 12 *Markos*. Auxe da bigarren Ebanjelioa idatzi ebana. Pedro'ren, P 1^a 5 13, Paulo'ren, 12 25; 13 13; Tm 2^a 4 11, eta Bernabe'ren, 15 37-39; cf. Kol 4 10, lan-kide lez aurkituko dogu.

¹¹ 26 Naizta *Kristo* (Igurtzia) Jesus'en izenordez bat izan, onen jarraitzaileak izena *kristauak* emongo dautsee jentillak. Beraz, jentillak emona dogu gure izena. ¹¹ 27 Ona emen profeten eginkizunak: a) kristauak bizkortu ta adoretu, 15 32; 21 10; Ko 1^a 14; b) iñoren biotz-barruko asmoak irakurri, Ko 1^a 14 24-25; d) geroa iragarri, 11 28; eta batez be, e) Liburu Santuetako misterioak azaldu, Ko 1^a 13 2; Ef 3 5; Erm 16 25+; P 1^a 1 10-12;

¹⁶ Bitartean, Pedro'k atea joten ziarduan; eta zabaldu eutsoenean, a ikusiz arrituta geratu ziran. ¹⁷ Baiña berak, isildu zeitezen eskuaz kiñu egiñik, espetxetik Jaunak zelan atara eban azaldu eutsen: «Jakiñerazo egiozue au Santiago* ta anai-ai», esan eutsen. Eta andik urtenda, beste toki batera joan zan.

¹⁸ Egundu zanean, gudarien artean estabaida gogorra sortu zan Pedro'ri buruz jazo izan zeitekeanaz. ¹⁹ Eta Erodos'ek, a (*Pedro*) billatuaren, ez eban aurkitu; eta zaintzailleak azterturik, eriotzara bialdu ebazan. Eta Pedro, Judea'tik Zesarea'ra jatsirik, antxe geratu zan.

Erodos'en eriotza

²⁰ Erodos Tiro ta Sidon'darren aurka asarre zan. Baiña areik, alkar-

arturik etorri yakozan, eta erregearen gela-zain Blastoren ederra irabazirik, bakea eskatu eutsoen, arein lurraldeak Erodos'en laguntzaz bizi bear eben-eta. ²¹ Eta aukeratutako egunean, Erodos'ek, errege-soiñekoz jantzirik, auzi-jarlekuan jesarri zan, eta itzaldi bat egin eutsen. ²² Eta erriak deadarka iñoan: «Jaungoikoren abotsa, eta ez gizonarena». ²³ Baiña, aintza Jaungoikoari biurtzen ez eutsalako, Jaunaren ainguruak bat-batean jo eban: eta arrak janda il zan.

²⁴ Jaungoikoaren itza, barriz, azten eta zabaltzen yoian. ²⁵ Eta Bernabe ta Saulo, euren eginbearra beteta, Jerusalem'dik Antiokia'ra biurtu ziran, Markos eritzan Yon eura-kaz arturik.

III. BERNABE'REN ETA PAULO'REN EGINKIZUNA. JERUSALEN'GO BATZAR NAGUSIA

Elizea jentillen artean

13 ¹ Ba-ziran profeta ta irakasle* batzuk Antiokia'ko Elizan: Bernabe, Simon Baltza, Luzio Zirene'tarra, Manahan Erodos tetrarkagaz batera azitakoa, eta Saulo. ² Eta Jauna gurtzen eta barau egiten ziarduela, Espiritu Santuak auxe esan eutsen: «Banandu egidazuez Saulo ta Bernabe, aukeratu dodazan eginkizunerako». ³ Orduan, barau ta otoitz egiñik eta eskuak arein gafiñean ezarririk, bialdu egin ebezan*.

⁴ Eta Espiritu Santuak arela bialduta, Seleuzia'ra jatsi ziran, eta andik Txipre'ra etorri ziran itsasoz. ⁵ Salamina'ra eldu ziran, judarren

sinagogetan* Jaungoikoaren itza iragarten eben, Yon be lagun ebela.

⁶ Eta Pafos'raiño ugarte osoa ibilita, Barjesus izeneko judar azti ta sasi-profeta bat aurkitu eben. ⁷ Gizon ori Serjio Paulo buruzagi zuurragaz egoan. Onek, Bernabe ta Saulo'ri dei egiñik, Jaungoikoaren itza entzuteko gogoa erakutsi eutsen. ⁸ Baiña, Elimas aztiak —Elimas izenak aztia adierazoten dau— galarazo egiten eutsen, buruzagia siñismentetik aldendu nairik. ⁹ Baiña, Saulo'k —Paulo* be ba-deritzanak—, Espiritu Santuz beterik, ari begira-begira jarririk, ¹⁰ auxe esan eutsan: «Maltzurkeriz ta gaiztakeriz

12 17 Santiago Apostolua. Jaunaren anaia (lengusua), Ga 1 19. Berau zan Jerusalem'go kristauen buru, 15 13; 21 18; Ko 1* 15 7. Liburu onetan Pedro ez da geiago agertuko, 15 7-11'garrenetan izan ezik. Ko 1* 9 5; Ga 2 11.
13 1 Irakasleak. Onein egitekoa auxe zan: kristauai irakatsi, Liburu Santuen arauz, zer sinistu ta zer egin bear eben. Persona bat eta bera izan zeitekean, era berean, profeta ta irakasle, Ko 1* 14 6, 26.

13 3 Cf. 6 6+; 14 26.
13 5 Paulo'k, naizta jentillakana bialdua izan, 9 15+, leenengo judarrakana joten dau beti, 13 14; 14 1; e.a.; cf. Erm 1 16; 2 9; e.a., eta oneik uko egiten dautsoenean, jentillakana, 13 46; e.a.; 28 28; Erm 9 22. Cf. Ap 3 26; Ts 1* 2 14+.
13 9 Aurrerantzean, Paulo izango da Liburu onen ardatza. Lukas'ek ez dautso geiago Saulo esango, laterazko Paulo baiño, 7 58+.

bete ori, txerrenkume, onbide guztien arerio ori!: Jaunaren bide zuzenak okertzen ez dozu amaituko? ¹¹ Orain, bada, orra zure gafiñean Jaungoikoaren eskua; eta itsu geratuko zara, eguzkiaren argia aldi baterako ikusi eziniñik». Eta bertan-txe laiñoa ta illuna gafiñera jausi yakozan, eta inguruan eskua nok emon leikeanaren billa ebillen. ¹² Orduan buruzagiak, jazoa ikusirik, siñistu egin eban, Jaunaren ikasbi-deaz arrituta.

Paulo, Antiokia'n

¹³ Pafos'tik urtenda, Paulo ta onegaz ziranak Panfilia'ko Perjes'era etorri ziran itsasoz; Yon, barriz, arekandik alde egiñik, Jerusalem'era biurtu zan. ¹⁴ Baiña Paulo ta bestea, Perjes'tik urtenda, Pisidia'ko Antiokia'ra eldu ziran. ¹⁵ Lege ta Profeten irakurgai amaituta, batzarreko nagusiak dei au bialdu eutseen: «Anaiok!, erriarentzako burubide-rik ba'dozue, esan egizue». ¹⁶ Orduan Paulo'k, isildu zeitezan eskuaz kiñu egiñik, auxe esan eutsen*:

«Israeldarrok, eta Jaungoikoaren bildur zarenok!, entzun. ¹⁷ Israel erri onen Jaungoikoak, Ejipto'n arrotz zirala, gure asabak aukeratu ebazan, eta erria goratu ta bere besoaren indar aaltsuaz andik atara egin ebazan; ¹⁸ basamortuan be berrogeiren bat urtean janaritu ebazan. ¹⁹ Eta Kanaan'go errian zazpi erri ondaturik, arein lurra oiñordeztat emon eutsen*, ²⁰ laureun eta berrogeita amarren bat urtean. Gero, ebazleak emon eutsezan Samuel igarleaganaiño. ²¹ Gero, erregea eskatu eben; eta Jaungoikoak Saul, Zis'en semea, Benjamin'en jatorrikoa, emon eutsen berrogei urtean.

²² Eta au kendurik, Jese'ren seme Dabid emon eutsen erregetzat, autor au egiñaz: «Dabid, Jese'ren semea aurkitu dot, nire biotzaren gogokoa ta nire asmo guztiak beteko dauzana*». ²³ Eta onen (*Dabid'en*) jatorritik agintzariaren eraz, Israel'i Jaungoikoak JESUS Salbatzailea ekarri eutsan. ²⁴ Au etorri baiño leen, barriz, Yon'ek Israel'go erri guztiari damu-bateoa iragarri eutsan. ²⁵ Eta bere eginbearra amaitzerakoan, Yon'ek auxe iñoan: 'Nor nazala uste dozue? Ez naz ni zuek uste dozuena; baiña nire ondoan ba-dator beste bat, eta aren oiñetakoak askatzeko be ez naz nor'.

²⁶ «Anaiok, Abraham'en belaneko semeok, eta Jaungoikoaren bildur zarenok! Geuri bialdu izan yaku salbamen onetako Itza. ²⁷ Jerusalem urikoak eta arein nagusiak Jesus a ez eben onartu; eta eriotzara eroatean, larunbat oro irakurten diran profeten esanak bete ziran; ²⁸ eta eriotz-gairik ezertxo be aurkitu bagarik, Ari biziya kendu egiola eskatu eutsoen Pilatos'i. ²⁹ Eta Aretzaz idatzitako guztiak bete ziran, abetik eratsi ta illobiratu egin eben. ³⁰ Baiña, Jaungoikoak illen artetik barriro biztu eban: ³¹ Galilea'tik Jerusalem'era Aregaz igo ziranak, berbiztuta egun askotan ikusi eben. Oneixek dira autorle oraindiño erriaren aurrean*.

³² «Guk, barriz, gure asabai egin-dako agintzaria iragarten dautsuegu: ³³ agintzari au Jaungoikoak arein semeai bete dautse, Jesus berbizturik, bigarren Salmuan be idatzita dagoenez: *Neure Semea zara zu: Nik gaur sortu zaitut**. ³⁴ Eta ustel-terik iñoiz be ez ikusteko, illen artetik berbiztu ebala, onetaraxe esan eban: *Dabid'i zinez egindako agin-*

13 16 Paulo'ren leenengo itzaldi au, judarrak egiña, Pedro'k egindakoen kidekoa da, 2 22+. Baiña azkena Paulo'rena da osorik.
13 19 Cf. Dt 1 31; 7 1.
13 22 Cf. Sal 89 21; S 1* 13 14; Is 44

28.
13 31 Apostoluen testigutzari. 1 8; 2 32; 10 39-42; e.a., bere testigutza geitzen dautso Paulo'k, 9 15+; 18 5; 20 24; 22 15; e.a.; Ko 1* 15 3-11; cf. Erm 1 1+.
13 33 Sal 2 7'garrenetik jasoa.

tzariak bete egingo dodaz*. ³⁵ Orre-gaitik, beste nonbait be ba-diño: Ez dozu itziko zure Santuak usteltzerik ikusi dagian*. ³⁶ Izan be, Dabid, bere aldian Jaungoikoaren asmoa bete ondoren, il egin zan; eta bere gurasoakaz batu zan, eta usteldu egin zan. ³⁷ Baiña, Jaungoikoak berbiztu dauanak, ez dau usteltzerik ikusi.

³⁸ «Jakín egizue, bada, anaiok, Onen bidez pekatuen parkamena iragarten yatzuena; eta Moises'en Legearen bitartez ezin garbitu izan ziran orban guztiak, ³⁹ Onen sinistredun guztiak garbitu egiten yakezana. ⁴⁰ Kontuz ibilli, bada, Profetak esan ebena etorri ez dakizuen:

⁴¹ *Begira, nire itzaren naastailleok: arritu ta ostendu zaitez; egiteko bat egin bear dot zuen egunetan, eta norbaitek azaldu ba'dagitzue be, ez dozue siñistuko*.*»

⁴² Eta judarren sinagogatik urteterakoan, urrengo larunbatean be gai orretaz itz egin egitseea eskatu eutseen. ⁴³ Eta batzarretik urtenda gero, judar eta Jaungoikoa gurtzen eben jarraitzaille askok Paulo ta Bernabe'ri jarraitzen eutseen, eta oneik, alkar-izketan ziarduela, Jaungoikoaren grazian irauteko adoretzen ebezan.

Bernabe ta Saulo jentillakana doaz

⁴⁴ Urrengo larubatean erriko geinak batu ziran Jaungoikoaren Itza entzuteko. ⁴⁵ Baiña judarrak, aren-beste lagun ikusi ebenean, ikusi-eziñez bete ziran, eta Paulo'k iñoana biraoka ukatzen eben. ⁴⁶ Orduan, Paulo'k eta Bernabe'k zabal-zabal itz egiñik, auxe esan eutsen: «Zeuei iragarri bear yatzuen leenen Jaungoikoaren itza; baiña, itz au ezetsi ta betiko bizitzarako gai ez zareela

uste dozuen ezkerro, oraindixek jentillakana biurtzen gara, ⁴⁷ Jaunak olantxe agindu euskun-eta: *Jentillen argitzat jarri zaitut, salbamena lurrraren azkeneraiño eroan dagizun*.*»

⁴⁸ Ori entzunda, jentillak pozez bete ziran, eta Jaunaren Itza goratzen asi ziran; eta betiko bizitzarako aukeratuta egozan guztiak, siñistu egin eben. ⁴⁹ Eta Jaunaren Itza bazterralde guzti aretan zabaltzen yoian.

⁵⁰ Baiña judarrak, emakume jaungoikozale ta aundiki batzuk eta uriko nagusiak zirikatu egin ebezan; eta Paulo ta Bernabe'ren aurka erasoaldi bat bizturik, euren mugetatik jaurti egin ebezan. ⁵¹ Orduan areik, euren oiñetako autsa arein aurka astindurik, Ikonio'ra joan ziran. ⁵² Eta ikasleak pozez ta Espiritu Santuz beterik ebizan.

Ikonio'n eta Listra'n

14 ¹ Eta Ikonio'n judarren sinagogan alkarregaz sartu ziran; eta an berba egiñik, judar eta gerkar askok siñistu eben.

² Baiña, siñistu ez eben judarrak, jentillen gogoa anaien aurka zirikatu ta axatu egin eben.

³ An luzaro geratu ziran, orraitio, Jaunagan ustetsu lan egiten; eta Jaunak bere graziazen itza sendotu egin eban, arein eskuz arrigarrak eta mirariak egiñik.

⁴ Uriko lagunak alde bitara banandu ziran: batzuk judarren alde, eta beste batzuk Apostoluen alde. ⁵ Baiña, jentillak eta judarrak euren nagusiakaz jagi egin ziran. *Apostoluak* iraindu ta onei arrika egiteko. ⁶ Ori jakinda, Listra ta Derbe, Likaonia'ko urietara ta inguruko bazterraldeetara iges egin eben, ⁷ eta an Barri Ona iragarten asi ziran.

13 34 Is 55 3'garrenetik jasoa.

13 35 Sal 16 10'garrenetik jasoa. Cf. Ap 2 31.

13 41 Abk 1 5'garrenetik jasoa.

13 47 Isaias'en esaera au, 49 6, Kristo'ri naiz Paulo'ri berari ezarri daitekio, Lk 2 32. Apostoluen bidez dakarsku argia Kristo'k, 1 8+.

Paulo'k elbarri bat osatzen dau (3, 1-10)

⁸ Listran'n gizon bat oin-makalik egoan, jesarrita: amaren sabeletik errena zan, eta iñoiz be ibilli ez zana. ⁹ Onek Paulo itz egiten entzun eban; eta Paulo'k, ari begira jarririk eta osatua izateko siñismena ba-ebala aregan ikusirik, ¹⁰ deadarka auxe esan eutsan: «Zeuri dirautsut: jarri zaitez zutik zure oiñen gainean». Eta a, salto egiñik, ibilten asi zan. ¹¹ Gizataldeak, Paulo'k egindakoa ikusi ebanean, Likaonia'ko izkeraz oiuka iñoen: «Gizonen irudiko jaungoikoak jatsi yakuz gure artera!» ¹² Eta Bernabe'ri Jupiter eritzoen, eta Paulo'ri Merkurio: berba egiten ebana Paulo zan-eta*. ¹³ Uri-aurrean egoan Jupiter'en Jaurtxeko abadeak be, ate-ondora zezenak eta koroiak ekarririk, erriagaz arei opariak eskifni nai eutsezan. ¹⁴ Baiña Bernabe ta Paulo Apostoluak, ori entzunda, euren soiñekoak urratirik, gizataldearen erdian deadarka asi ziran, esanez*:

¹⁵ «Gizonok!, zer darabizue? Geu be, zuek legez, gizon ilkorrak gara, eta uskeri orreatatik Jaungoiko bi-ziagana, zeru, lur, itsaso ta areitan diran gauza guztien Egilleagana biurtu zaitezela deiez gatorkizue: ¹⁶ Jaungoiko onek leengo gizataldeetan erri guztiak euren bideetan ibilten itzi ebezan; ¹⁷ ez eban, orraitio, iñoiz be bere burua gorde: zerutik on egiten, euriak, urte-aro onurakorrak eta janari ugaritsuak emoten, eta gure biotzak pozez beteten diardu-ta».

¹⁸ Itzok esanz, gizataldea nekez baketu eben, opariak eskifni ez egi-

tsezan. ¹⁹ Gero, Antiokia ta Ikonio'tik judar batzuk etorri ziran; eta erriaren gogoa irabazirik eta Paulo'ri arrika egiñik, uritik tataras atara eben, ildakotzat. ²⁰ Baiña, ikasleak aren inguruan baturik, jagi ta urian sartu zan; eta biaramonean Bernabe'gaz Derbe'ra joan zan.

Barriro be Antiokia'ra

²¹ Uri aretan (*Derbe'n*) Barri Ona iragarri ta ikasle askori irakatsita gero, Listra, Ikonio ta Antiokia'ra biurtu ziran, ²² ikasleen biotzak sendotuaz, siñismenean irauteko adoretuz, ta arei Jaungoikoaren erreñuan neke asko eroanez sartu bear dala azalduz. ²³ Eta eliza bakoitzean abadeak buru jarririk eta otoitz eta barau egin ondoren, siñistu eben Jaungoikoagan itzi ebezan*.

²⁴ Eta Pisidia'tik igarota, Panfilia'ra etorri ziran; ²⁵ eta Perje'n Jaunaren Itza iragarrik, Atalia'ra jatsi ziran. ²⁶ Andik, itsasoz, Siria'ko Antiokia'ra jo eben; andixek urten izan ziran, Jaungoikoaren graziazen itsasita, orduantxe amaitu izan eben arazorako.

²⁷ Ara eldu ziranean, eta elizea batu ebenean, Jaungoikoak euren bidez egindako guztia azaldu eutseen, baita jentillai sinismen-atea zabaldu eutsela be. ²⁸ Eta antxe geratu ziran ikasleakaz luzaro.

Erdainkuntza zala-ta sortu zan eztabaida

(Ga 2, 11-14)

15 ¹ Eta Judea'tik (*Jerusalem'dik*) jatsitako batzuek anaiai* auxe zirautseen: «Moises'en Legea-

14 12 Jupiter: sasi-jaungoikoetarik aundiena. Merkurio: beste sasi-jaungoiko bat, guda-jaungoiko.

14 14 Paulo'k gerkarrai egindako itzalditxo laburra, cf. 17 22-31. Jainko bizi ta egillearen aurrez-aurre, Ur 20 11; e.a., jentillen sasi-jainko bizibageak ezarten ditu, cf. 26 18; Ga 4 9; Ts 1 9-10. Kristo ez dau aitatu be egiten, arazoa ustebagean amaitu zan-eta.

14 23 *Presbyteri* edo *abadeak*, cf. 11 30+, Apostoluak aukeratuak izaten ziran, cf. Tt 1 1 5.

15 1 Antiokia'n sortu ta Jerusalem'en ebatzitako auzi onek bein eta betiko zabaltzen dautsez jentillai sinismen-ateak, 14 27. Lukas'ek ezta-baida bi naasten dauz Liburu onetan, illuna sortuaz. Paulo'k, Ga 2'gn. atalean, oso berezituta dakaz gai biok: a) Sinismenera datozen

ren eraz erdaindu ez ba'zaiteze, ezin salbatu zaitezkeze». ² Andik eztabaida gogorra sortu zan; eta Paulo ta Bernabe arein aurka jarriarik, Paulo ta Bernabe beste alderdiko batzukaz Jerusalem'era joan zeitezala erabagi zan, Apostolu ta zaarrakaz auzi au ebazteko*. ³ Areik, bada, Elizeak aukeratuta, Fenizia ta Samaria'n zear yoiazan, jentillen onbideratzea azalduaz, eta anai guztiai poz aundia emonez. ⁴ Jerusalem'era eldu ziranean, Elizeak, Apostoluak eta zaarrak abegi ona egin eutseen; eta Jaungoikoak euren bidez egindako guztia azaldu eutseen.

(Ga 2, 1-9)

⁵ Baiña —iñoen—, «pariseotarteko siñistedun batzuk jagi dira, esanez: 'Erdainkuntza jentillentzat bear-bearrezkoa da, eta Moises'en Legea beteteko agindu bear yake'».

Elizearen leenengo batzarra

⁶ Orduan, auzi ori erabagiteko, Apostoluak eta zaarrak batu egin ziran. ⁷ Eta astiro aztertu ondoren, Pedro'k, zutundurik, auxe esan eutsen:

(10, 1-11, 18+)

«Anaiok! Ba-dakizue Jaungoikoak aspaldi danik gure artetik neu aukeratu izan nauana, jentillak nire agotik Barri Ona entzun eta siñistu dagien. ⁸ Eta biotzak ikusten dauzan Jaungoikoak, arein alde autor egin dau, geuri legez arei be Espiritu Santua emonaz: ⁹ eta gure ta arein artean ez dau alderik jarri, arein biotzak siñismenez garbiturik. ¹⁰ Zer dala-ta zirikatzen dozue, ba,

jentillai ez yake sorbaldaratu bear Moises'en Legea, Ga 2 1-10; b) Gizarteko artu-emonetan oiturazko edo rituzko arau banaka batzuk baiño ez dabez bete bear, Ga 2 11-14.

¹⁵ 2 Eurok ekarriko eben Jerusalem'go Batzarraren erantzuna, 30-35.

¹⁵ 11 Ona emen ¹⁵ 1'goan agiri dan eragozpenari emondako erantzun argia. Cf. 13 38; Ga 2 15-21; Erm 11 32. Jainkoak bere naia argi erakutsi dauala

orain Jaungoikoa, ez gure asabak ez guk ezin eroan izan dogun buztarria ikasleen lepo-gaiñean ezarriarik? ¹¹ Baiña, bai gu, bai areik, Jesus Jaunaren graziaz salbatzen garala uste dogu guk*».

¹² Eta gizatalde guztia isilik geratu zan, Bernabe ta Paulo'ri entzuten; oneik, barriz, euren bidez jentillen artean Jaungoikoak egin ebazan mirari ta arrigarri aundiak azaltzen eutseezan.

¹³ Eta isildu ziranean, Jakobo'k (*Santiago'k*) itza artu ta auxe esan eban*: «Anaiok!, entzun. ¹⁴ Simon'ek azaldu dautsue zelan onartu ebazan Jaungoikoak asierarik jentillak, bere Izenarentzat erri bat aukeratu egian. ¹⁵ Eta onetan, berbak batera dotoz, idatzita dagoanez:

¹⁶ *Onen ondoren, barriro etorriko naz, eta jausi zan Dabid'en txabolea barriztu egingo dot; eta aren etxe-ondakiñak barriro jasoto dodaz, eta zutik jarriko dot: ¹⁷ gaiñetiko giza-kumeak eta nire Izena onartu daben erri guztiak Jauna billatu dagien; auxe diño gauzok egiten dauzan Jaunak, ¹⁸ betidanik ezagutzen dauzan Jaunak*».*

¹⁹ «Beraz, Jaungoikoagana biur-tzen diran jentillai, ez yakela gogaitik eragin bear uste dot; ²⁰ sasi-jaungoikoen irudiak loitutakotik, aragikeritik, ito danetik eta odoletik alde egin dagiela idatzi baiño*. ²¹ Izan be, Moises'ek ba-dauko antxiñatik uri bakotxean bere irakaskizunak nok irakatsi, sinagogetan larunbat oro aren *idaxtikoak* irakurten dira-ta».

gogorazoten dautse Pedro'k, 10 1+, 44-48; 11 17.

¹⁵ 13 Azken baten, Batzarreko maiburu dan ezkerro, Santiago'k ebazten dau auzia, cf. 12 17+; Ga 2 9.

¹⁵ 18 Am 9 11-12; Is 45 21.

¹⁵ 20 Jentiltasunetik sinismenera etorri diranai mesede bat eskatzen yake: kristau diran judarrai miñik ez emotearren, Legeko oitura batzuk bete dagiezala, cf. 11 3; Ga 2 12-14.

Apostoluen idazkia*

²² Orduan, Apostoluak eta zaarrak, Eliza guztiagaz batera, euren artetik gizonetzko batzuk aukeratu ta Antio-kia'ra Paulo ta Bernabe'gaz joan zeitezala erabagi eben; eta Barsabas izeneko Judas eta Silas, anaien arteko gizonetzkorik aurrenetarikoak aukeratu ebezan, ²³ arein eskuz angoai auxe idatzirik:

«Apostolu ta zaar anaiak, Antio-kia'n, Siria'n eta Zilizia'n dagozan atzerritarteko anaioi, agur! ²⁴ Gure-tariko batzuek, guk agindu bagarik, zuekana joan eta zuen biotzak artegaturik, euren barriketaz kezka bezte zaituela jakin dogu. ²⁵ Eta batzarra eginda, gizonetzko batzuk aukeratu ta Bernabe ta Paulo gure maitagarriak zuekana bialtzea erabagi dogu gogo batez: ²⁶ Jesukristo gure Jaunaren izenagaitik euren biziak galdu-zorian jarri dabezan gizonak dira-ta. ²⁷ Beraz, Judas eta Silas bialtzen dautsueguz, oneik be agozago berbera esan dagitzuen. ²⁸ Zuei

bear-bearrezko sorta oneik baiño ez leporatzea erabagi dogu Espiritu Santuak eta guk: ²⁹ guzurrezko jaungoikoai eskiñitakoetatik, odoletik, ito danetik eta aragikeritik alde egin dagizuela; oneitatik zuen buruak gorde ba'dagizue, ondo dozue. Onik izan.»

Bialduak Antiokia'n

³⁰ Beraz, areik urten eta Antio-kia'ra jatsi ziran: eta laguntaldea (*eliztarrak*) baturik, idazkia eskeratu eutseen. ³¹ Eta irakurri ebanean, pozez bete ziran. ³² Judas ta Silas'ek be, profeta be ba-ziran-eta, anaiak itzaldi askoz poztu ta berotu ebezan. ³³ Eta an egonaldi bat eginda, bialdu ebezanakana (*Apostolua-kana*) anaiak atzera bialdu ebezan*. (³⁴ Baiña, Silas'ek an geratzea obeitzat izan eban, eta Judas bakarrik joan zan.) ³⁵ Paulo ta Bernabe, barriz, Antio-kia'n geratu ziran, beste askogaz batera Jaunaren Itza irakasten eta iragarten.

IV. PAULO'REN EGINKIZUNAK

Paulo'ren bigarren joanaldia

³⁶ Egun batzuk geroago, Paulo'k Bernabe'ri auxe esan eutsan: «Goazen barriro be Jaunaren Itza iragarri dogun uri guztietara, anaiak zelan dagozan ikustera.» ³⁷ Eta Bernabe'k Markos eritzan Yon be eurakaz eroan nai eban: ³⁸ Paulo'k, ostera, Panfilia'tik arekandik banandu zanez eta egikizun aretan lagun izan ez yaken ezkerro, ori ez eban onartzen. ³⁹ Eztabaida ori zala-ta, alkarregandik banandu egin ziran; eta Bernabe, beragaz Markos arturik, itsasoz Txipre'ra joan zan. ⁴⁰ Paulo'k, barriz, laguntzat Silas aukera-

turik, bere bidea artu eban, anaiak Paulo Jaunaren graziari ezarrita*.

⁴¹ Siria ta Zilizia'n zear ibilli zan, elizak sendotzen (eta Apostoluak eta zaarrak aginduriko guztia beteteko agintzen*.)

Paulo Troade'ra doa, Timoteo lagun dauala

16 ¹ Eta andik, Derbe ta Listra'ra eldu zan. Timoteo izeneko ikasle bat zan an, ama judar sinistadunaren eta aita gerkar baten semea, ² eta, Listra ta Ikonio'ko anaien autorrez, gizon jatorra. ³ Au Paulo'k beragaz joan zeitela nai

¹⁵ 22 Jerusalem'go Batzarraren erabagia eskutitz baten idatzita doa. Erabagi au Pedro'ren eritxian oiñarritzen da, 28, bide batez, Santiago'ren eritxia gogoan arturik, 29.

¹⁵ 33 Urrengo ataltxoa, 34, geitua da. ¹⁵ 40 Bigarren ibillaldi onetan Grezia-raiño eltzen da Paulo, eta topo-egiten dau gerkarren kultureagaz.

¹⁵ 41 Mako-barruetako itzak Vulgata'k bakarrik dakaz.

izan eban; eta beragaz arturik, erdaindu egin eban, alde areitako judarrak eder egitearren: aren aita gerkarra zana guztiak ekien-eta*.

⁴ Eta uriz-uri ebizala, Apostoluak eta zaarrak Jerusalem'en artutako erabagiak bete egiezala irakasten etuseen.

⁵ Onela, elizak sinismenez sendoago ta lagunez ugariago egiten ziran egunoro.

Asia Txikian

(Ga 4, 13-15)

⁶ Eta Frijia ta Galazia lurraldea igaro ebenean, Jaungoikoaren Itza Asia'n iragartea Espiritu Santuak galerazo egin eutsen. ⁷ Eta Misia'ra eldu ziranean, Bitinia'ra joan nai izan eban; baiña, Jesus'en *Espirituak* ez eutsen ori itzi. ⁸ Eta Misia igarota, Troade'ra jatsi ziran.

⁹ Gabez Paulo'k ikuspen bat izan eban: mazedoniar gizon bat, aurrez-aurre zutik jarririk, erreguz zirautsan: «Zatoz Mazedonia'ra ta lagun zakiguz.» ¹⁰ Ikuspen ori izanda, bereala Mazedonia'ra joatea erabagi genduan, Barri Ona angoai iragarreko Jaungoikoak dei egiten euskulakoan*.

Filipos'en

¹¹ Beraz, Troade'tik urtenda, Samotrazia'ra zuzen etorri gintzazan itsasoz, eta biaramonean Neapolis'era; ¹² eta andik Mazedonia'ko leengo uri ta *erromarren* koloni bat dan Filipos'era. Eta uri aretan egun batzuetan geratu gintzazan. ¹³ Larunbatean uritik kanpora urten gintzazan, ibai-ondora, otoi-tokia zalakoan; eta an jesarririk, an batutako emakumeakaz izketan giarduan. ¹⁴ Lidia izeneko emakume bat guri entzuten ziarduan: Tiatira'ko pur-

pura-saltzaille ta jaungoikozalea zan*; eta Jaunak biotza edegi eutsan, Paulo'k iñoana ontzat artu egian. ¹⁵ Eta bere etxeokaz batera bateatua izan zanean, erregu au egin euskun: «Jaunaganako zintzoa nazala uste ba'dozue, sartu nire etxean eta geratu zaitzeze.» Eta nai ta ez, ara joateko beartu genduzan.

Paulo ta Silas giltzapean

¹⁶ Eta otoitz egitera giñoiazala, azti-txerrena eukan neskame bat urten yakun bidera; onek bere ugazabai irabazi aundia emoten eutsen igarketan. ¹⁷ Onek (*neskameak*), ba, Paulo'ri ta guri jarraiturik, deadarka iñoan: «Jaungoiko gorenaren morroi dira gizon oneik, eta osasun-bidea iragarten dautsue.»

¹⁸ Eta ori egun askotan egiten eban. Azkenez Paulo'k, aspertuta txerrenagana biurturik, auxe esan eutsan: «Jesu-Kristo'ren izenean, *emakume* onegandik urten adilla agintzen dauat.» Eta bertantxe urten zan.

¹⁹ Aren ugazabak, irabazteko us-tea galdu yakela ikusi ebenean, Paulo ta Silas'i eskua ezarririk, auzigizonakana eroan ebezan: ²⁰ eta agintariakana aurkezturik, auxe esan eban: «Gizon oneik judarrak dira, eta gure erria naasten diardue: ²¹ eta guk, erromarrok, ezin artu ta bete daikeguzan oiturak iragarten dauskuez.» ²² Eta gizataldea arein aurka jagi zan: eta nagusiak, arei soifekoak erantzirik, zigorkadaz astindu egiezala agindu eban. ³ Eta arei ainbat zigorkada emon ondoren, espetxean sartu ebezan, zaintzailleari arduraz euki egizala agindurik. ²⁴ Onek (*zaintzailleak*), agindu au artuta, espetxe barru-barruan sartu ebazan, arein oiñak oiñazetresnaz estuturik. ²⁵ Baiña gaberdián,

16 3 Judar-emakumeen seme-alabak is-raeldarrak ziran judarren legeaz. Paulo'ren ikasleen artean Timoteo izango da zintzoetarikoa, Tm 1° 3 2-6; Flp 2 19-24; e.a. Erdainkuntzari buruz, cf. Ga 2 3.

16 10 Bereala *guka* asten da Liburu au. Gu orrek, antza, Lukas be Paulo'gaz dabilela adierazoten dau, 16 10-17; 20 5; 21 18; 27 1; 28 16.
16 14 Cf. 10 2; 13 43.

Paulo ta Silas otoitz egiten ziarduela, Jaungoikoa goratzen eban: eta espetxeokaz entzun egiten ebezan. ²⁶ Onetan, bat-batean ikaragarritzko lurrikarea sortu zan, espetxeo oiñarriak be dardar eragifiik; eta beingoan ate guztiak zabaldu ta lotzeko tresnak askatu egin yakeezan.

²⁷ Zaintzaillea iratzartu zanean eta espetxeo ateak zabalik ikusi ebazanean, ezpatea artu ta bere burua il nai eban, espetxeokaz iges egin ebelakoan. ²⁸ Baiña, Paulo'k deadarka auxe esan eutsan: «Ez kalterik egin zure buruari, guztiok ementxe ga-goz-ta.»

²⁹ Orduan, argia eskaturik, barriro sartu ta Paulo ta Silas'en oiñetan auzpazu ta ikaraz. ³⁰ Eta areik kanpora atarata, «Jaunok! —esan eutsen—: zer egin bear dot nik salbatzeko?» ³¹ Areik auxe erantzun eutsoen: «Siñistu egizu Jesukristo Jaunagan, eta zu ta zure etxeo guztiak onik urtengo zaree.» ³² Eta Jaunaren itza ari ta aren etxeo guztiak irakatsi etuseen. ³³ Eta arek, gau-ordu aretan beragaz eroanik, zauriak garbitu eutsezan, eta bereala berak eta bere etxeo guztiak bateoa artu eban. ³⁴ Eta bere etxera eroanik, maia atondu eutsen; eta Jaungoiko'gan siñisturik, etxeo guztiakaz poztu egin zan.

³⁵ Eta egundu zanean, agintariak zaintzailleari txiñelak bialdu eutsoezan, esanaz: «Askatu egizuz gizon orreik.» ³⁶ Zaintzailleak Paulo itz onein jakitun egin eban: «Agintariak zuek askatu zagiedazala agindu dauste; beraz, urten orain eta zoaze bakean.» ³⁷ Orduan, Paulo'k txiñelari auxe esan eutsan: «Erromar seme garala*, auzi бага agirian gu zigorkadaz astindu ondoren, espetxean sartu genduezan; eta orain emendik ixillean bialdu nai gaitue?

Ez, orixe! Datozala eurak, eta atara gagiezala.»

³⁸ Eta txiñelak itzok agintariak eroan eutseezan; eta oneik, areik erromarrak zirala entzunda, bildurtu egin ziran: ³⁹ eta arekana parka-eske joan ziran: eta andik atarata, uritik urten zeitezala eskatzen eutseen. ⁴⁰ Eta espetxetik urtenda, Lidia'ren etxean sartu ziran; eta anaiak ikusi ta poztu ondoren, alde egin eban.

Paulo Tesalonika'n

17 ¹ Anfipolis ta Apolonia'n zear igarorik, Tesalonika'ra eldu ziran; judarrak sinagoga bat eukan an. ² Eta Paulo'k, oi ebanez, arein batzarrean sartuta, iru larunbatez Liburu Santuai buruz arekaz eztabaidan ziarduan, ³ Kristo'k oiñazeak igaro ta illen artetik berbiztu zedin bearrezko izan zala, arei adierazo ta erakutsirik: «Kristoa, barriz, nik iragarten dautsuedan Jesus bera da.» ⁴ Areitariko batzuek siñistu egin eban, eta Paulo ta Silas'egaz alkartu ziran; baita Jaungoikozale ta gerkarretariko beste askok be (*siñistu egin eban*), eta andera nagusietariko ez gutxi be bai.

⁵ Judarrak, barriz ikusi-eziñak eraginda, alperkeritan ziarduen gizon gaizto batzuk irabazi ta laguntaldea egiñik, uria naastu egin eban; eta Jason'en etxe-aurrean aurkeztu ziran apostoluen billa, erriaren aurrera eroateko. ⁶ Eta aurkitu ez ebenezan, Jason eta anai batzuk uriko agintariakana indarrez ekarri ebezan, deadarka esanez: «Lurbira osoa naasten diarduen oneik, onaxe be etorri egin dira; ⁷ eta Jason'ek bere etxean artu dauz: guzti oneik Zesar'en aginduen aurka diardue, beste errege bat, Jesus, ba-dala iragarten*.» ⁸ Itzok entzutean, erri ta agintariak axatu egin ebezan. ⁹ Eta

16 37 *Lex Porcia* eritxon legeak debekatua eukan erromatarrik zigorrez astintzea, cf. 22 25-29; 23 27.

17 7 Jesus eta onen ikasleak *matxiñotzat* artu dagiezala nai dabe zarraparrizaleok.

Jason eta enparaduakandik baitura bat artu ondoren, askatu egin ebezan.

Paulo, Berea'n

¹⁰ Eta anaiak lenbailen Paulo ta Silas gabez Berea'ra bialdu ebezan. Eta ara eldu ziranean, judarren sinagogan sartu ziran. ¹¹ Oneik, barriz, Tesalonika'koak baiño izakera obe-koak ziran, eta Itza gogo biziz artu eben, Liburu Santuak egun oro az-tertuaz, esaten yakena egia ete-zei-tekean ikusteko. ¹² Eta areitariko askok sifistura egin eben, baita ger-karretariko andera nagusi ta gizonetarik ez gutxi be.

¹³ Baiña, Paulo'k Jaungoikoaren Itza Berea'n be iragarri ebalda Tesalonika'ko judarrak jakin ebenean, araxe joan ziran, erria naastu ta axatzeko. ¹⁴ Baiña bereala anaiak Paulo itsasoruntz aldendu zedilla egin eben; Silas ta Timoteo, barriz, bertan geratu ziran. ¹⁵ Eta Paulo'ri lagun egiten joan ziranak, Atenas'eraño eroan eben; eta Silas ta Timoteo beragana lenbailen etorteko agindua arturik, biurtu egin ziran (*Paulo'ren lagunak*.)

Paulo, Atenas'en

¹⁶ Eta Paulo Atenas'en arein zain egoala, barruan gogoala erreten eukan, uri osoa guzurrezko jaungoikoen menpeko zala ikusirik. ¹⁷ Eta sinagogan judar eta Jaungoikozaleak eztabaidan ziarduan, baita egun oro plazan be, an egoten ziranakaz. ¹⁸ Epikuri ta Estoikar jakintzale batzuek aregaz (*Paulo'gaz*) eztabaidan ziarduen; eta batzuek auxe iñoen: «Zer esan nai ete-dau barritsu onek?» Eta beste batzuek: «Jaun-

¹⁷ 18 Bizituera (gerkeraz *Anastasis*), emakume-izentzat jotzen dabe, ta, beraz, Jesus'en jainko-eme laguntzat.

¹⁷ 22 Paulo'k jentillai egindako itzaldietatik, auxe ta ¹⁴ 15-17'garrenetan agiri dan itzaldiaren laburpena bakarrik eldu

goiko arrotzen iragarle dirudi», Jesus ta bizituera iragarten eutsen-eta*.

¹⁹ Azkenez, ari eldurik, Areopago'ra eroan eben, esanaz: «Jakín ete-daikegu zein dan iragarten dozun ikasbide barri ori?» ²⁰ Gure belarrietara gai barriak dakazuz-ta, gaiok zer esan nai daben jakin nai dogu.» ²¹ Atenastar guztiak eta an bizi ziran arrotzak ez eben ezeren ardurarik, barriren bat esateko naiz entzuteko baiño. ²² Orduan Paulo'k, Areopago-erdian zutik jarririk, auxe esan eutsen:

Paulo'ren itzaldia*

«Atenastarrok! Gauza guztietan ikusten zaituet oso Jaungoikozale. ²³ Zuen jaungoikoen irudiak or-emen ikusten niarduala, altara bat aurkitu dot, eta bertan idazkuna au: *Jaungoiko ez ezagunari*. Or ba, ezagutzeke gurtzen dozuen Orixe iragarten dautsuet nik.

²⁴ Lurbira ta bertan diran gauza guztiak egin dauzan Jaungoikoa, zeru-lurren Jauna izanik, ez da eskuz egindako jauretxeetan bizi: ²⁵ eta gizonen eskutik ezer ez daukanez, zerbait artu bearrean be ez dago: Ber-bera da-ta bizita, ta arnasa, ta dan-dana (*emoten dautsena*.)

²⁶ Arek *gizon* bakar bategandik gizadi guztia egin dau, lur osoan bizi dadin, bakotxari bere aldi ta bizitoki-mugak ezarririk: ²⁷ guztiak Jaungoikoaren billa ibilli daitezcan eta itsumustuan izanda be aurkitu dagien, gutariko bakotxagandik urrun ez dago-ta. ²⁸ Beragan bizi, ibilli gabiz eta izan gara-ta, zuetariko olerkari batzuek esan dabenez: 'Aren jatorriko gara-ta.'

²⁹ Beraz, Jaungoikoaren jatorriko

yakuz. Itzaldi au, naizta Biblian oiñarriturik egon, gerkarren kultura ta adimenai gogoko yakezan gaiakaz orniduta dator; esate baterako: izadian agiri dan erakunde zuzenak Jainkoa ezagutzera garoazala. Cf. Jk 13-14; Erm 1 19-25; e.a. Ikus Ko 1^a 1 18-25; 2 1-18.

garan ezkerro, ez dogu uste izan bear jaungoikotasuna urre, zidar, arriaren antzeko, naiz erti-lanezko edo gizonak asmatutakoa danik.

³⁰ Baiña Jaungoikoak, jakifnezaldi au goitik ikusita, edonun garbatu daitezcala dirautse orain gizon guztiak. ³¹ Eta aretarako gizon bat aukeraturik, gizadia epai zuzenez ebazteko eguna erabagi dau, gizon ori illen artetik berbizturik, sifisbidea guztiak emonda*.

³² Eta ildakoen bizituera entzun ebenean, batzuek irri egiten eutsen, eta beste batzuek, «Orretzaz beste baten entzungo zaitugu», iñoen*. ³³ Eta onela, Paulo'k alde egin eban arein artetik. ³⁴ Batzuk, orraitio, aregaz (*Paulo'gaz*) alkaturik, sifistudun egin ziran: areitariko bat, Dionisio Areopajita be ba-zan, baita Damaris izeneko andera bat be, eta beste batzuk arekaz.

Paulo, Korinto'n

18 ¹ Arrezkerro, Paulo Atenas'tik urten eta Korinto'ra etorri zan. ² Eta an, Ponto'n jaiotako Akila izeneko judar bat eta Priszila, aren emaztea, aurkitu ebazan, Italia'tik etorri-barriak: Klaudio *agintariak* judar guztiak Erroma'tik alde egin egiela agindu eutsen-eta. Paulo arekaz batu zan: ³ eta lanbide berbera ebenez —txabolagiñak ziran-eta—, arein etxean geratu zan langille*. ⁴ Larunbat oro sinagogan eztabaidan ziarduan; eta (*bere itzaldietan Jesus Jaunaren izena aitaturik*), judarrak eta gerkarrik sinis-menera ekarteko aalegiñak egiten ebazan.

⁵ Eta Mazedonia'tik Silas eta Timoteo eldu ziranean, Paulo'k gartsuago iragarten eban, Kristoa Jesus zala judarrai irakasten. ⁶ Baiña areik

¹⁷ 31 Jesus berbiztua ez dau aitatzen argi ta garbi, baiña bai zearka, *aukeraturiko gizon orrek*, illen artetik *berbizturik*, mundua epaituko dauala adierazoz.

¹⁷ 32 Berbizkundea ulertu-eziña zan Grezia'ko jakituentzat, Ko 1^a 15 12; cf. Ap 23 6.

ukatzen eta biraoka ziarduela, bere soñekoak astindurik, auxe esan eutsen: «Zeuen buruen gain zuen odola; ni garbi naz; oraindik jentillakana noa.» ⁷ Eta andik urtenda, Tito Zuzena izeneko jaungoikozale baten etxean sartu zan, aren etxea sinagogaren aldamenean egoan-eta. ⁸ Sinagogako buru zan Krispo, orraitio, bere etxeko guztiakaz, Jaunaren sifistura etorri zan: eta Korintotar askok Paulo'ri entzun eta sifisturik, bateoa artu eben. ⁹ Gau baten, Jaunak irudipe-nez Paulo'ri auxe esan eutsan: «Ez izan bildurrik; itz egizu, eta ez isildu. ¹⁰ Neu nago zugaz, eta iñok ez dautsu kalterik egingo: uri onetan Niretzat laguntalde aundia dot-eta.» ¹¹ Beraz, urtebete ta erdi antxe geratu zan, arei Jaungoikoaren Itza irakasten.

¹² Baiña, Galion Akaia'ko agintari zala, judarrak, alkaturik, Paulo'ren aurka jagi ta auzitegira eroan eben, ¹³ esanez: «Gizon onek Jaungoikoa Legearen kontra gurtzen irakasten dau.» ¹⁴ Baiña, Paulo *bere buruaren alde* itz egiten asi zaneko, Galion'ek judarrai auxe esan eutsen: «Benetan, bidebagekeri edo gaiztakeri aundiren bat ba'litz, bear danez entzungo zendukedaze, judarrok. ¹⁵ Baiña, ikasbide-gaiak eta izenak eta zuen legeko eztabaidak ba'dira, zeuek ikusi; nik ez dot orrelakoe-tan ebazle izan nai-ta.» ¹⁶ Eta auzitegitik alde eragin eutsen. ¹⁷ Orduan guztiak, Sostenes sinagogako buru zana artu ta auzitegi-aurrean jo egin eben; baiña, Galion'ek ez eban jaramonik egin.

Barrero be Antiokia'n

¹⁸ Paulo, barriz, an oraindik aibat egun egonda gero, ta anaiak

¹⁸ 3 Paulo'k ondo daki misiolariak eskubidea dauala misio-lanetik bizi izateko, Ko 1^a 9 6-14; Ga 6 6; Ts 1^a 2 7; e.a. Baiña bere esku-lanetik bizi nai dau, 20 34; Ko 1^a 4 12, *iñorentzat astun ez izatearren*, Ts 1^a 2 9; Ko 2^a 11 7-12; cf. Flp 4 14-16.

azken-agurra egiñik, itsasoz Siria'ra joan zan, baita Prizila ta Akila be aregaz; eta Zenkreas'en, ulea moztu eban: zin-eskintza egin eban-eta*.

¹⁹ Efeso'ra elduta, antxe itzi eban. Eta sinagogan sarturik, judarrakaz eztabaidan ziarduan. ²⁰ Oneik aldi geiagoan geratu zedilla eskatzen eutsoen; baiña arek, ezetz. ²¹ Eta arei azken-agurra egiñik, auxe esan eutsen: «Datorren jaia Jerusalem'en ospatu dagidan guztiz egoki yat. Etorriko nakizue barrero, Jaungoikoak nai ba'dau.» Eta Efeso'tik urten, ²² eta Zesarea'ra elduta, *Jerusalem'era* igo zan; eta Elizeari agur egin ondoren, Antiokia'ra jatsi zan.

Alejandria'ko Apolo, Efeso'n*

²³ Aldiren bat an egin ondoren, urten egin zan; eta Galazia ta Frigia'ko lurraldeak banan-banan ikusten ibilli zan, ikasle guztiak *sinismenean* sendotzen ebazala. ²⁴ Eta Apolo izeneko judar bat, semez Alejandria'koa, itz-etorritz ta Liburu Santuak ezagutzen gizon oso ikasia zana, Efeso'ra etorri zan. ²⁵ Berekian ondo Jaunaren Bidea, eta gogo beroz Jesus'i egokiona sinagogan zabal-zabal azaldu ta irakasten eban, Yon'en bateoa baiño ezagutzen ez ebanarren. ²⁶ Au, ba, sinagogan adoretzu itz egiten asi zan. Eta Prizila'k eta Akaila'k entzun eutsoenean, eurakaz eroan eban, eta Jaunaren bidea zeatzago azaldu eutsoen.

²⁷ Gero, arek Akaila'ra joateko go-go agerturik, orretarako anaiak adoretu egin eban, eta abegi onez artu egiela idatzi eutseen ikasleai. Eta ara eldu zanean, graziaren laguntzaz fededunen alde errime egin eban: ²⁸ judarrak agirian gartsu zuritzen ebazan-eta, Kristo'a Jesus zala Liburu Santuen bidez egiazturik.

¹⁸ ¹⁸ Nazir ziranak zin-eskintzak irauten eban bitartean, ulea ez moztutera beartuta egozan.

¹⁸ ²³ Izlari trebe ta jakintsua da Apolo au; baiña, tamalez, bere misio-lanak

Paulo, Efeso'n

¹⁹ Apolo Korinto'n egoala, Paulo, goi-aldeko bazterrak aztertu ondoren, Efeso'ra eldu zan; eta ikasle batzuk an aurkiturik, ² auxe esan eutsen: «Siñismena artu zenduenean, Espiritu Santua artu alzenduen*?» «Espiritu Santua danik be ez dogu entzun», erantzun eutsoen arek. ³ Eta Paulo'k: «Zein bateo artu dozue, ba?» Eta arek: «Yon'en bateoa.» ⁴ Orduan, Paulo'k auxe esan eutsen: «Yon'ek damubateoaz bateatu eban, etorteko zan Jesus'egan siñistu egiela erriari esanaz.» ⁵ Ori entzunda, Jesus Jaunaren izenean bateoa artu eban. ⁶ Eta Paulo'k eskuak gaiñean ezarten eutsezala, Espiritu Santua arein gaiñera jatsi zan, eta izkera arrotzez itz egiten eta profeta egiten asi ziran. ⁷ Amabiren bat gizonetzko ziran guztiz.

⁸ Gero, Paulo'k, sinagogan sarturik, bildur bagarik itz egiten eban iru illebetz, Jaungoikoaren erriñuari buruz arei argia emoten. ⁹ Baiña, aretariko burugogor eta siñisgogor batzuek ez eban siñistu, eta Jaunaren ikasbidea erriaren aurrean madarikatu egiten eban; orduan, arekandik aldendurik eta ikasleak ixillean arturik, Tirano izeneko baten ikastegian egun oro irakasten eutsen. ¹⁰ Urte bian egin eban ori; eta orrela, Asia'n bizi ziran guztiak, judar eta gerkarrik, Jaunaren Itza entzun eban.

¹¹ Eta Jaunak Paulo'ren bidez arrigarrizko mirariak egiten ebazan. ¹² Eta Paulo'k soñean erabillitako zapitxo ta gerri-oialak geisoai ezarritu, bereala oiñazeak aldendu ta txerren gaiztoak arekandik urten egiten ziran.

alderdikeriak sortuko dauz kristauen artean, Ko 1^a 12; 3 4-6.

¹⁹ ² Ez ekien sinismenaren doia Espiritu Santua artzea zanik, 1 8+; 2 1-4.

Judar araoloriak

¹³ An-or txerrenak jaurtiten ziarduen judar batzuek be, txerrendunen gaiñera Jesus Jaunaren izena esaten asi ziran, esanez: «Paulo'k iragarten dauan Jesus'en indarrez agintzen dautsuet.» ¹⁴ Au egiten ziarduenak, barriz, Eszeba izeneko abade-buru judar baten zazpi seme ziran. ¹⁵ Baiña txerren gaiztoak, auxe erantzun eutsen: «Jesus ezagutzen dot; Paulo be ba-dakit nor dan; zuek, oster, nortzuk zaree?» ¹⁶ Eta txerren gaiztoa beragan eukan gizona arein gaiñera jausi zan, eta bien jabe egiñik, azpiratu egin eba-

zan; eta etxe aretatik biak, billoizik eta zaurituta, iges egin eban. ¹⁷ Jazo au Efeso'n bizi ziran judar eta gerkar guztiak jakin eban; eta guztiak bildurtu egin ziran, eta Jesus Jaunaren izena goratu eban.

¹⁸ Eta siñistedun asko norberaren egiñak autortzera ta agertzera etozan. ¹⁹ Aztikeriak erabilli izan eban askok be, euren liburuak ekarri ta guztien aurrean erre egin ebezan; liburu arein ordaiña atarata, barriz, berrogei ta amar milla denariokoa zala ikusi eban. ²⁰ Onela, indartsu azten eta sendotzen zan Jaungoikoaren Itza.

V. EGINKIZUNAK, AMAITUTA. PAULO, KRISTO'REN GILTZAPEKO

²¹ Arazook amaituta, Paulo'k, Espiritu Santuaren argiz, Mazedonia ta Akaila'n zear, Jerusalem'era* joateko asmoa artu eban, esanez: «An egonda gero, Erroma'ra be joan bear dot.» ²² Eta bere laguntzaille bi, Timoteo ta Erasto, Mazedonia'ra bialdurik, bera aldi baten Asia'n geratu zan.

Efeso'ko zarraparrea*

²³ Baiña aldi aretan, Jaunaren bidea zala-ta, zarraparra bat sortu zan, eta ez txikia sortu be. ²⁴ Demetrio izeneko zidargin batek, Artemisa'ren zidarrezko etxetxoak egiñik, langilleai irabazi ederrak ekarten eutsezan. ²⁵ Beraz, onei ta onetariko lanetan ziarduen langilleai dei egiñik, auxe esan eutsen: «Gizonok!», ba-dakizue lanbide onetatik datorriguna gure irabazia. ²⁶ Ikusten eta entzuten dozue, barriz, Paulo orrek; bere irakatsiaz, Efeso'n bakarrik ez, Asia geienean bere bai, jaungoikoakandik lagun asko aldendu dauzala, ez dirala jaungoiko eskuz egiten diranak, esanez. ²⁷ Eta gure ogibidea galtzea ez da oker bakarra

izango: Artemisa aundiaren etxea bera be, ez dau iñok aintzat artuko, eta Asia osoak eta lurbira osoak ospez gurtzen daben Artemisa bera, lurrera jausiko da.» ²⁸ Itzok entzunda, guztiak asarrez bete ziran, eta deadarka iñoen: «Aundia da Efeso'tarren Artemisa!» ²⁹ Uri osoa naaste batez jarri zan; eta guztiak batera, bultza-bultzaka antzokirantz (*teatrorantz*) joan ziran, Gaio ta Aris-tarko, Paulo'ren bide-lagunak, eurakaz arturik. ³⁰ Paulo'k erriagana aurkeztu nai eban; baiña ikasleak ez eutsoen itzi. ³¹ Asia'ko nagusietariko batzuek be, Paulo'ren adiskideak, ez zedilla antzokian sartu eskatu eutsoen.

³² Eta batzuek onela ta besteak arela, deadarka ziarduen; batzarra naaste utsa zan, eta geienak ez ekien zetarako batu izan ziranik. ³³ Bitartean, gizatalde-artetik judarrak Alexander atara eban bultzaka guztien aurrera. Alexander'ek, barriz, isildu zeitezan eskuaz kiñu egiñik, erriari arazoa azaldu nai eutsan. ³⁴ Baiña, judarra zala jakin ebenean, guztiak

¹⁹ ²¹ Kristauen limosnak Jerusalem'era eroateko asmoa eban Paulo'k, 24 17+.

¹⁹ ²³ Jazoera bizi-bizi onek etenalditxo bat egiten dau azalpen onetan.

batera biren bat ordu deadarka ziar-
duen: «Aundia da Efeso'tarren Ar-
temisa!»³⁵ Noizbait idazkariak,
erria baretu ondoren, esan eutsen:
«Efesotarrok! Nok ez daki Efeso-
tarren uria, Artemisa zerutik jatsi
zan ezker, aren gurtzaille dana?»³⁶
Beraz, au ezin ukatu daiteken ez-
kero, geldirik egotea ta ezer arifnegi
ez egitea egoki yatzue.³⁷ Ekarri do-
zuezan gizonok ez dira gurtza-ausle,
ezta gure jainko-emearen biraolari
be.³⁸ Demetrio'k eta aren lankideak
norbaiten aurka auzigairik ba'dabe,
barriz, ba-dira orretarako auzitegi ta
agintariak; alkar salatu begie.³⁹ Bai-
ña, beste arazoren bat ba'dakazue,
batzar egokian erabagi daiteke.
⁴⁰ Gaurko naaste onegaitik be, ma-
txiñartzat salatua izateko zorian
gagoz; batzar au on-artzeko atxaki
zuzenik ezin erakutsi daikegu-ta.»
Au esanda, batzarra amaitu egin
eban.

Paulo, Troade'n

20¹ Zarraparrea amaitu zanean,
Paulo'k ikasleai dei egin eta
burubide batzuk emon ondoren, az-
ken-agurra egin eutsen, eta Maze-
donia'ra urten zan.² Eta lurralde
areitan zear ibilli ta angoak itzaldi
askoz sendotuta gero, Grezia'ra eto-
rri zan.³ An iru illebeta eginda,
Siria'ra itsasoz joateko asmotan ziar-
duala, judarrak galbideak gertatu
eutsoezan: eta orregaitik, Mazedo-
nia'ra biurtzea erabagi eban.⁴ Are-
gaz Pirro'ren seme Sopatro Berea'-
tarra, ta Aristarko ta Sekundo tesa-
lonikatarrak, Gaio Derbe'tarra, ta
Timoteo, ta Tikiko ta Trofino asia-
rrak yoiazan.⁵ Oneik, aurreraturik,
Troade'n geure zain egozan.⁶ Gu,
barriz, Ogi-illetako egunen* ondo-
ren, Filipos'tik itsasoz Troade'ra jo

^{20 6} Ogi-illetako eguna, edo bardin
dana, *Pazko-eguna*, Ur 12 1+; Ko 1° 5
7-8+.

^{20 7} Astearen leenengo eguna, igandea
zan judarrentzat, cf. Mt 28 1+. Baiña
kristauak, Jesus'en Berbizkundearen ome-

genduan eta bost egunen barruan
arekana eldu eta an zazpi egun ge-
ratu gintzazan.

⁷ Leenengo astegunean*, ogi-zati-
ketarako ikasleak batuta gengozala,
Paulo'k arei itz egiten ziarduan, eta
itzaldia gau erdirarte luzatu zan,
biaramonean joan egin bear eban-
eta.⁸ Batuta gengozan goiko batzar-
gela aretan, argi asko ziran.⁹ Eta
Eutiko izeneko mutil gazte bat, leio-
gaifnean jesarri zan; eta Paulo'k
itzaldia luzatzen eban artean, *muti-
lla* lozorroak artu eban; eta loak
eraginda, irugarren etxe-oiñetik bee-
ra jausi zan, eta gorpu jaso eban.
¹⁰ Aregana jatsirik, Paulo gaifnera
etzun yakon; eta a besarkaturik,
«Ez larritu, bizi da-ta», esan eban.
¹¹ Igo zan barriro, ogia artu ta jan
eban; eta eguna argitu arte itz ugari
eginda, joan egin zan andik.¹² Mu-
tilla, barriz, bizirik eroan eban, eta
pozez bete ziran.

Paulo, Mileto'n

¹³ Gu, barriz, ontzian sartu ta
itsasoz Asson'era etorri gintzazan,
Paulo'ren zain egoteko: berak are-
laxe agindu euskun-eta, berak ibillal-
dia oiñez egiten eban artean.¹⁴ Eta
Asson'en batu yakunean, gugaz ar-
tuta, Mitilene'ra etorri gintzazan:
¹⁵ andik, biaramonean, itsasoz Kio
aurrera eldu gintzazan, eta urrengo
egunean Samos'era; eta Trojilio'n
geldi-aldi bat eginda, biaramonean
Mileto'ra eldu gintzazan.¹⁶ Efeso'n
gelditzeke aurrera joatea erabagi
eban Paulo'k, Asia'n luzaro gelditu
ez zedin: aal ba-liz, Jerusalem'en Pen-
tekoste egunerako egon nai eban-
eta.

¹⁷ Mileto'tik, Elizako zaarrenak
beragana etorteko deia bialdu eban
Efeso'ra.¹⁸ Eta areik etorri ta guz-

nez, egun ori *Jaunaren egun* biurtu eban,
au da, *dies dominica, domeka*, Ag 1 10.
Judarren arauz, zapatu-arratsaldeen asten
zan igandea edo domeka, eta Eukaristia
gau orretan ospatzen zan, cf. 2 42, 46;
27 35.

tiak batu ziranean, auxe esan eu-
tsen*: «Ba-dakizue zelan izan nazan
zuekaz aldi guztian Asia'n sartu nin-
tzan leenengo egunetik,¹⁹ Jaunaren
otseintzari apal-apal ekiñez, eta ne-
gar-malko artean, nire aurka juda-
rrakandik sortu yatazan zoritzarren
erdian.²⁰ Ezer estalzteke, egoki izan
yatzuen guztia agirian eta etxez-etxe
esan eta irakatsi dautsuet,²¹ judar
eta gerkarrai Jaungoikoaganako da-
mua ta Jesus gure Jaunaganako si-
nistea iragarritz.

²² Orain, ba, Espirituak eraginda,
Jerusalem'era noa, an jazoko yata-
nik ez dakidala.²³ Auxe bakarrik
esan daiketuzet, Espiritu Santuak
uri guztietan diraustana: Jerusalem'-
en estuntza ta nekeak eroan bear
izango dodazala.²⁴ Baiña orrei ez
dautset bildurrik: ez dot nire bizi-
tza nire burua baiño maiteago, onela
nire elburua lortu ta Jesus Jauna-
gandik artutako egikizuna bete da-
gidan, Jaungoikoaren graziaren Barri
Ona iragarteko *egikizuna*.

²⁵ Eta orain, ba-dakit Jaungoikoa-
ren erreinua iragarten etorri naki-
zuenetariko batek be ez dauana
barriro nire aurpegia ikusiko*.²⁶ Be-
raz, ni guztion dooletik garbi nagoa-
la autortzen dautsuet gaur:²⁷ Jaun-
goikoaren asmo guztiak zuei iragar-
ten ez naz isildu-ta.²⁸ Zeuen buruen
ardurea izan egizue, baita artalde
guztiarena be, Jaungoikoak bere
odolaz irabazitako Elizea* larratze-
ko, Espiritu Santuak orretan zain-
tzaille jarri zaitue-ta.²⁹ Ba-dakit, ni
joan naitenean, zuen artera otso an-
kerrak sartuko dirana, artaldea bana-
tzera.³⁰ Zuen artetik be jagiko dira

batzuk, okerkeriak esaten, ikasleak
eurakana eroan dagiezan.³¹ Beraz,
zoli egon, eta gogoratu egizue iru
urtean izan nozuela gau ta egun
aspertzeke zuetariko bakoitzari ne-
garrez irakatsiak emoten.³² Eta
orain be, anaiok, Jaungoikoari ta
Aren graziaren Barri Onari eskin-
tzen zaituet, *zuen osasuna* osotzeko
ta zintzo guztiakaz batera oiñorde-
tza emoteko lain dan *Jaungoikoari*.

³³ Iñoren zidarrik, ez urrerik, ez
soifekorik ez dot nai izan,³⁴ ondo
dakizuenez: niretzat eta nigaz izan
diranentzat bear izan dan guztia,
esku oneik irabazi dauste.³⁵ Edoze-
tan, erakutsi ona emon dautsuet;
olan lan egiñik, beartsuai laguntza
eroan bear dautsezuela zuei eraku-
tsirik, eta Jesus Jaunak berak esan
ebazan berbot gogoraturik: «Artzea
baiño emotea atseginago da*.»

³⁶ Au esanda, belaunikoturik, guz-
tiakaz otoitz egin eban.³⁷ Eta guz-
tiak negar baten asi ziran; eta Pau-
lo'ri samatik oraturik, mun egiten
eutsoen,³⁸ «aren arpegia barriro ez
ebela ikusiko» esan eutsenaz batez
be atsekabetuta. Eta onetara, itsa-
sontziragiño lagun egin eutsoen.

Paulo, Jerusalem'eruntz

21¹ Arekandik alde eginda, zu-
zen-zuzen itsasoz Kos'era joan
gintzazan, eta biaramonean Rodas'-
era, ta andik Patara'ra.² Eta Feni-
zia'ra yoian itsasontzi bat aurkituta,
bertan sarturik, itsasoruntz egin
genduan.³ Txipireta-aurrera elduta ge-
ro, a ezkerretara itzirik, Siria'runtz
jo genduan, eta Tiro'ra eldu gintza-
zan, ontziak an bere sortea itzi bear

^{20 18} Paulo'ren irugarren itzaldi au,
cf. 13 ta 17, Efeso'ko elizetariko Eliza.
Nagusiaren buruai egiña da, bere azken-
nai (edo testamentu) lez. Efeso'koa da,
izan be, Paulo'k sortutako Elizarik gar-
rantzitsuena. Euren alde egin dauzan
lanak gogorazoten dautsez eta burubideak
emoten. Azken-nai au Paulo'ren argazki
bat lez da. Berak idatzitako Eskutitzen
durundiak be somatzen dira.

^{20 25} Dana dala, barriro joango da
Paulo Asia'ra, Tm 2° 4 20

^{20 28} *Jainkoaren Elizea*, 5 11+; Ko 1°
1 2; Ts 1° 2 14; Tm 1° 3 15, Jainkoak
bere Semearen odolaz, Erm 3 24-25+;
8 32-34; Ef 1 7, erositako erria da, Ur
19 5-6+; Is 43 21; P 1° 2 9-10+; cf. Mt
26 28 p+. Artalde au Jainko-zale diran
gotzaiñen ardurapean itzi dau Espiritu
Santuak, 29-31. Cf. Zn 27 16-17+; S 2°
5 2; Ez 34 1+; P 1° 5 1-2+.

^{20 35} Jesus'en esaera au ez da agiria
Ebanjelioan.

eban-eta. ⁴ Eta an ikasleak aurkiturik, zazpi eguneko egonaldia egin genduan; eta *ikasle* areik, Espiritu Santuaren argiz, Paulo'ri Jerusalem'era ez zedilla igo zirautsoen. ⁵ Egun areik igaro ziranean, geure bidea artu genduan, guztiak emazte ta umeakin uritik kanporaiño lagun egiten euskuela; eta itsasertzean belanikoturik, otoitz egin genduan. ⁶ Eta alkarri agur egiñik, ontzian sartu gintzazan; areik, barriz, euren etxeetara biurtu ziran.

⁷ Gure itsasbidea amaituta, Tiro'tik Ptolemaida'ra eldu gintzazan: eta anaiak agurtuta, arekaz egun bat egin genduan. ⁸ Biaramonean urten eta Zesarea'ra eldu gintzazan. Eta Barri Onaren zabaltzaille eta zazpi-retariko *laguntzaille* zan Felipe'ren etxean sartu ta antxe geratu gintzazan. ⁹ Onek lau alaba ebazan, neska ta profeta. ¹⁰ Egun batzuk an gengoza, Agabo izeneko profeta bat eldu zan, Judea'tik; ¹¹ eta gugana etorritik, Paulo'ren gerrikoa artu ta bere esku-oiñak loturik, olantxe esan eban: «Auxe diño Espiritu Santuak: Gerriko onen jabe dan gizona, judarrak Jerusalem'en olantxe lotu ta jentillen eskuetan itziko dabe.» ¹² Au entzun genduan, guk eta toki aretan egozanan, Jerusalem'era ez zedilla joan eskatzen geutsan. ¹³ Orduan, Paulo'k auxe erantzun euskun: «Zegaitik diarduzue negarrez eta mintzen dozue nire biotza? Atxillotua izateko bakarrik ez, baita Jerusalem'en ilteko be gertu nago Jesus Jaunaren izenagaitik.» ¹⁴ Eta gure asmotara ezin erakurri genduala ikusirik, bakean itzi genduan, esanaz: «Egin bedi Jaunaren naia!»

¹⁵ Eta egun batzuk geroago bide-rako gertuta, Jerusalem'eruntz urten

gintzazan. ¹⁶ Zesarea'ko ikasle batzuk be geugaz etorri ziran, Mnason Txipre'tarra, aspaldiko ikaslea ta bere etxean artuko genduzana, eurrakaz ekarrela.

Santiago'renean

¹⁷ Jerusalem'era eldu gintzazanean, anaiak abegi onez artu genduezan. ¹⁸ Biaramonean, Paulo Santiago'ren etxean sartu zan gugaz, an zaar (*abade*) guztiak batuta egozala. ¹⁹ Eta Paulo'k areik agurtu ondoren, Jaungoikoak aren bidez jentillen artean egin ebazan banan-banan azaldu eutsezan. ²⁰ Areik, a entzunda, Jaungoikoa goratu eben, eta Paulo'ri auxe esan eutsen: «Ikusten dozu, anai, siñisten daben judarrak millakak dirana, eta guztiak Legea artez beteten dabena. ²¹ Orraitiño, atzerrian bizi diran judarrai, Moises'en legetik alde egiteko irakasten dautsezula entzun dabe zutzaz, baita umeak ez erdaintzeko be, eta *antxiñako* ekanduai ez jarraitzeko*». ²² Beraz, zer egin bear ete-da? Gizataldea batuko da, urrean: etorri zarala entzungo dabe-ta. ²³ Egizu, bada, dirautsugun au: Lau gizon doguz euren buru-eskintza egin dabena. ²⁴ Oneik arturik, egizu zure garbikuntza arekaz, eta ordaindu egizu eskintza-saria, buruko ulea moztu dagien; orrela guztiak ezagutuko dabe zutzaz entzun dana ez dala egia izan, bestetara baiño: zeuk be Legea beteten dozula. ²⁵ Sinistu dabenen jentillai buruz, barriz, erabagi au idatzi dautsegu: guzurrezko jaungoikoai eskifitako janarietatik, odoletik, abere itotik eta aragikeritik alde egin dagiela*.»

²⁶ Orduan, Paulo'k gizon areik beragaz artu ebazan, eta biaramonean arekaz garbikuntza eginda,

21 21 Paulo'ren asmoa auxe zan: sinismenera etozan jentillak Moises'en Legetik askatzea; baiña beragaz ebazan judar askok be bazartu egin eben Lege ori, Paulo'ren irakatsiai jarraituz, Erm 1 16+;

7 7+; cf. 6 11-14. Dana dala, Jerusalem'dik diñotsoenari men egiten dautso Paulo'k, cf. 16 3; 18 18.

21 25 Santiago'k, 18, gogoña dakartso Paulo'ri Jerusalem'go Batzarrean erabagiatakoa, 15 20, 29.

Jauretxean sartu zan, garbitze-egunen amaia iragarteko, areitariko baskotxaren oparia eskiñi zedin arte.

Paulo, atxillotuta

²⁷ Zazpi egunak amaitzerakoan, Asia'tik etorritako judarrak, *Paulo* Jauretxean ikusirik, erri guztia naastu ta Paulo'ri eskua ezarri eutsen, ²⁸ deadarka esanez: «Lagundu, Israeldar gizonok! Gizon au da edonun eta edonori, erri, Lege ta toki onetzaz txarto esaten diarduana; onetzaz gaiñera, jentillak be Jauretxean sartu dauz, Toki Santu au orrela loiturik.» (²⁹ Trofino Efeso'tarra urian ikusi izan eben-eta, Paulo'k Jauretxean sartu ebala uste izan eben.)

³⁰ Uri guztia urduri ta erria kezak batu zan. Eta Paulo'ri oraturik, Jauretшетik indarrez atara eben: eta bereala atek itxi ebezan. ³¹ Eta *Paulo'ri* bizia kentzeko asmotan ziarduela, gudaiburuari barri au bialdu yakon: «Jerusalem guztia matxiñada baten dabil.» ³² Berealaxe *gudaiburu*a, gudariak eta euntariak beragaz artuta, arekana arin jon zan. Areik, barriz, gudaiburu ta gudariak ikusi ebezanean, ez eben geiago Paulo jo. ³³ Orduan gudaiburuak, arekana urreraturik, ari (*Paulo'ri*) oratu ta kate biaz lotu egiela agindu eban: eta nor zeitekean eta zer egin eban itandu eban. ³⁴ Baiña, gizataldearen artean batzuek bat eta besteak beste bat iñoen deadarka. Beraz, bertako naasteagaitik ezer ezin jakin ebala-ta, torrera eroan egiela agindu eban*. ³⁵ Paulo mailletara eldu zanean, barriz, gudariak besoetan artuta eroan bear izan eben, erriaren erasoagaitik: ³⁶ erriko gizataldeak jarraitzen eutsan-eta, «il ori!», deadarka.

21 34 Jauretxeak bidea eban, ipar-sartzaldetik, erromarren *Antonia* eritxon guda-torreraiaño

22 1 Paulo'ren iru itzaldi ikusi doguz, Barri Onaren alde egiñak, 13, 17 ta 20'gn. ataletan. Orain beste iru ikusiko

³⁷ Eta torre-barruan sartzerakoan, Paulo'k gudaiburuari auxe esan eutsan: «Bidezko yat zuri zerbait esatea?» Eta gudaiburuak erantzun eutsan: «Gerkeraz ba-dakizu? ³⁸ Ez al-zara zu leengo egunetan naaste bat biztu ta lau milla gizon gaizkille basamortura eroan ebazan ejiptoarra?» ³⁹ Eta Paulo'k auxe erantzun eutsan: «Ni, izan be, judarra naz, Zilizia'ko Tarso'n jaioa, uri ezaguneko uritarra. Baiña itzi egidazu, arren, erriari itz egiten.» ⁴⁰ Eta gudaiburuak itzi eutsanean, Paulo'k, mailletan zutik, erriari eskuaz isiltzeko kiñu egin eutsan. Eta guztiak isil-isilik geratu ziranean, Paulo'k berba egin eutsen, eberkeraz:

Paulo'ren itzaldia*

(9, 1-18; 26, 9-18)

22 ¹ «Nire anai ta gurasook: entzun egizue orain nire alde esan bear dautsuedan au.» ² Eta eberkeraz egiten eutsela entzun ebanean, isillago geratu ziran. ³ Eta auxe esan eban: «Judarra naz ni, Zilizia'ko Tarso'n jaioa; baiña uri onetan azitakoa, eta Gamaliel'en oifetan gure asaben Legean ikasia; Jaungoikoaren Legearen zaintzaille gartsua, gaur zuek guztiok zareenez. ⁴ Ikasbide onen jarraitzailleak erioztaraiño eroan nebazan, gizon eta emakumeak atxillotu ta espetxean sarturik, ⁵ Abadeburuak eta zaar guztiak nitzaz autor egin daikeenez. Eta anaientzako idazkiak arekandik artuta, Damasko'ra niñoian bertakoak lotuta Jerusalem'era ekarteko, zigortuak izan zeitezan.

⁶ «Eta ara niñoiala ta eguerdian Damasko'ra urreratu nintzala, batabean zeruko argi bizi batek inguratu nenduan: ⁷ eta lurrera jausirik, abots au entzun neban niri esaten:

doguz bere buruaren alde egiñak, 22, 24 ta 26'gn. ataletan. Itzaldi bakotxa egoki egiña dago bere aldi ta tokian. Paulo Kristo'gana biurtzeari buruz, ikusi alkarren ondoan 6'garrenetik 21'garreneraiaño ataltxoak, eta 9 ta 26'gn. atalak.

'Saulo, Saulo!, zegaitik narabizu aurrean?'⁸ Orduan, 'Nor zaitut, ba, Jauna?', erantzun neban nik. Eta arek niri: 'Zuk aurrean narabizun Jesus Nazaretarra naz Ni'.⁹ Nigaz egozanak argia, bai, ikusi eben; baiña nigaz itz egiten eban abotsa ez eben entzun.¹⁰ Eta, 'Zer egin bear dot, Jauna?' esan neban. Eta Jaunak niri: 'Jagi ta zoaz Damasko'ra; antxe esango dautsue egin bear dozun guztia.'¹¹ Eta arelako argi biaz ezer ikusten ez nebala, lagunai eskutik oraturik, Damasko'ra eldu nintzan.

¹² «Orduan, Ananias izeneko ta bertako judar guztien ederra eukan gizon zintzo ta Legezale batek,¹³ nigana etorri ta urreraturik, 'Saulo, anai ori! —esan eustan—, ikustea artu egizu.' Eta bertantxe nik bera *argi-argi* ikusi neban.¹⁴ Orduan, *Ananias'ek* auxe esan eustan: 'Gure asaben Jaungoikoak aukeratu zaitu bere naia ezagutu, Zuzena ikusi ta Aren agotiko abotsa entzuteko:¹⁵ ikusi ta entzun dozun guztia, gizon guztien aurrean autor egin bear izango dozu-ta.¹⁶ Onezkero, barriz, zegaitik zagoz geldi? Jagi zaitez ta bateoa artu egizu, eta zure pekatuetatik garbitu zaitez, Aren izenari dei egiñaz.'

¹⁷ «Eta Jerusalem'era biurtu ondoren, Jauretxean otoitz egiten niarduala, zorabiatuta geratu nintzan:¹⁸ eta A (*Jesus*) ikusi neban, niri ziraustala: 'Alde egizu' laster eta arin Jerusalem'dik: Nitzaz egin dagiezu autorra, ez dabe aintzat artuko-ta.'¹⁹ Nik, auxe erantzun neustan: 'Jauna, areik ba-dakie neu nintzana zure sifistera etozanak espetxean sartzen eta sinagogetan zigortzen nebazana:²⁰ eta zure autorle Esteban'en odola isurten zanean, neu be antxe nengoana, ta onartzen

nebana, eta a ilten ebenen soinekoak zaintzen nengoana.'²¹ Baiña, auxe esan eustan: 'Zoaz: urriñeko jentillakana bialduko zaitut-eta*.'²²

²² Auxe esan arte entzuten ziar-duen; baiña, orduan deadarka asi ziran, esanaz: «Kendu lurretik orrelako ori; ez da bidezko orrelakorik bizi dadin-eta.»²³ Arela oiuka egozala, eta euren soinekoak urratzen eta autsa aizetara botaten ziarduela,²⁴ gualburuak Paulo torrera eroan egiela ta zigorkadaz astindu ta oiñazetu egiela agindu eban, aren aurka arelako deadarrak zegaitik egiten ebezan jakin egian.

²⁵ Ugalez estutu ebanean, Paulo'k aurrean egoan euntariari auxe esan eutsan: «Bidezko yatzue Erromar gizona auzi bagarik zigorkadaz astintzea?»²⁶ Eta euntariak ori entzun ebanean, gualburuagana joanda, adierazo egin eutsan, esanaz: «Ikusi egizu zer egiten dozun, gizon ori Erromarra da-ta.»²⁷ Eta gualburuak, *Paulo'gana* etorritu, auxe itandu eutsan: «Esan egidazu: Erromarra al-zara?» «Bai», erantzun eutsan *Paulo'k*.²⁸ Eta gualburuak: «Nik uribide ori dirutza aundiaz jaritsi dot.» Eta Paulo'k ari: «Nik, barriz, jaiotzaz.»²⁹ Eta berealaxe aldendu ziran aregandik a oiñazetu bear ebenak; eta gualburua bera be larritu egin zan, berak lotu ebana Erromarra zala jakin ebanean*.³⁰ Biaramonean, judarrak zegaitik salatu eben garbi jakin nairik, lokarriak kendu eutsazan, eta Abade-buruak eta batzar osoa batu zeitela agindu eban; eta Paulo erakarririk, arein aurrean aurkeztu eban.

Paulo, Batzar-aurrean

23 ¹ Paulo'k, batzarrari begira jarri, auxe esan eban: «Anaiok! Nik zintzo-zintzo otseindu izan dot Jaungoikoa gaur arte.»² Baiña

²² ²¹ *Apostolu* izatea, au da, *bialdua* izatea, Kristo'gandik artu ebala diño Paulo'k, Erm 1 1+; Ko 1* 9 1; Ga 1 11-12; e.a. Benetako Apostolu izatea ez

dagokie Amabiai bakarrik, 1 21-22+. Jentillak aitatzean, bereala ta geiagoko bagarik, sumindu egiten yakoz entzuleak.

²² ²⁹ Cf. 16 37-38+.

Ananias Abade-buruak bere ondokoai *Paulo* agoan jo egiela agindu eutsan.³ Orduan, Paulo'k auxe esan eutsan: «Zeu, bai, orma zuritu ori, zaurituko zaitu Jaungoikoak. Zu, Legeari dagokionez, ebazteko zagoz jarrita; eta Legeaz kontra jo nagien agindu dozu?»⁴ An egozanak auxe esan eutsoen: «Jaungoikoaren Abade-burua madarikatzen dozu?»⁵ Eta Paulo'k arei: «Ez nekian, anaiok, au Abade-burua zanik; idatzita dago-ta: *Zure erriko buruzagia ez dozu madarikatuto**.»

⁶ Paulo'k, batzarreko alderdi bat pariseotarra, eta bestea saduzeotarrena zana jakini, batzar-erdian deadarka esan eban: «Anaiok! Ni pariseotarra naz, pariseotarren semea; eta illen biztuera itxaroten dodalako epaitzen nabe.»⁷ Au esan ebanean, eztabaida aundia sortu zan pariseotarren eta saduzeotarren artean, eta gizataldea banandu egin zan.⁸ Saduzeotarrak biztuerarik ez dagoala diño, ezta Aingerurik, ez Espiriturik be*; pariseotarrak, barriz, bata ta bestea autortzen dabez.⁹ Ikaragarritzko deadar-otsa sortu zan; eta pariseotarteko idazlariak jagirik, eztabaidan iñoen: «Ez dogu okerrekorik aurkitzen gizon onegan: nok daki Espiritu edo Aingeruren batek itz egin dautsan be? Ez daiogun Jaungoikoari gogor egin!»¹⁰ Eztabaida aundiagoa egiñik, gualburuak, Paulo zatitu egien bildurrez, aregana (*Paulo'gana*) jatsita, arein artetik atara ta torrera eroan egiela agindu eutsen bere gudariari.

¹¹ Urrengo gabeen Jaunak, *Paulo'ri* agerturik, auxe esan eutsan: «Egin gogor! Jerusalem'en autor egin daustazunez, Erroma'n be autor egin bear izango daustazu-ta.»

Judar batzuk Paulo'ren aurka

¹² Egundu zanean, judar batzuek,

alkarturik, Paulo'ri bizia kendu arte ezer ez ebela jango ez edango, zin egin eben.¹³ Berrogei gizon baiño geiago ziran zin ori egin ebenak.¹⁴ Eta abade-buru ta zaarrakana joan ziran, eta auxe esan eutseen: «Zin egin dogu ezer be ez jateko, Paulo'ri bizia kendu dagozun arte.¹⁵ Orain, ba, zuek eta batzarrekoak gualburuagana aurkeztu zaitez, Paulo zuen aurrera biar atara dagiala eskatzera, aregandik zerbait zeatzago jakin nai dozueta-ta. Gu, barriz, a (*Paulo*) eldu baiño leen, ari bizia kentzeko gertu egongo gara.»

¹⁶ Baiña, Paulo'ren arrebearen semeak naaskeri au entzun ebanean, joan egin zan, eta torrean sarturik, Paulo'ri azaldu eutsan.¹⁷ Eta Paulo'k, euntarietarik bati dei egiñik, auxe esan eutsan: «Mutil au gualburuagana eroan egizu, barri bat emon bear dautso-ta.»¹⁸ Euntariak mutilla artu ta gualburuagana eroan eban, esanaz: «Paulo atxillotuak mutil au zeuri ekarri dagitzudala eskatu daust, zerbait zuri esateko dauala-ta.»¹⁹ Gualburuak, mutilla eskutik artu ta eroanik, «Zer dozu niri esateko?» itandu eutsan.²⁰ Mutillak auxe esan eutsan: «Judarrak alkartu egin dira Paulo biar batzarrerera bialdu dagizula zuri eskatzeko, aregandik zerbait zeatzago jakin nai dabela-ta.²¹ Baiña zuk ez sinistu, berrogei gizon baiño geiago arein aurka zain dagoz-ta, ari (*Paulo'ri*) bizia kendu arte ezer ez jateko ez edateko zin eginda; eta orain gertu dagoz, eskatzen dautsuena zuk emongo dautsezula itxaroten.»²² Orduan, gualburuak mutilla bialdu egin eban, azaldu eutsan au iñori be ez esateko agintzen eutsala.

²³ Eta euntari biri dei egiñik, auxe esan eutsen: «Irugarren gualdirako berreun gudari, irurogei ta

²³ ⁵ Ur 22 27'garrenetik jasoa.
²³ ⁸ *Berbizkundeari*, M 2* 7 9+, eta *Aingeruak* buruzko jakintza, Tb 5 4+, ez zan antxiñakoa judarren artean, orain-

tsu samarrekoa baiño. Paulo'k, pariseua izanik, Flp 3 5, pariseuakan aurkitzen dauz gai bion aldekoak, 4 1-2+; Mt 22 23. Cf. Ap 25 19+.

amar zaldizko ta berreun lantzadun Zesarea'ra joateko gertu eukizuez: ²⁴ baita zaldiak be, gainean Paulo jarririk, Felix agintariagana onik eroan dagien.» ²⁵ (Izan be, judarrak Paulo artu ta il egien, gudalburua bildur zan, gero guzur baltza ezarri egioen, diruaz saldu ebala esanik.)

Eta idazki bat egin eutsan, auxe iñoala: ²⁶ «Felix agintari oso bikainari, Klaudio Lisias'ek, agur. ²⁷ Gizon oni judarrak oratu ta bizia kentzeko zorian ebela, arekana ni gudariakaz joanik, askatu egin neban, Erromarra zala jakinda gero. ²⁸ Zegaitik salatzen eben jakin nairik, arein batzarrera eroan neban. ²⁹ Eta arein Legeko gora-beerak zirala-ta salatzen ebela jakin neban; baiña ez zala eriotzarako edo giltzapean sartzeko errudun. ³⁰ Eta judarrak ari bizia kentzeko zain dagozala jakin dodanean, bereala zeuri bialtzen dautsut; eta salatzaileai be, auzia zeure aurrean garbitu dagiela esan dautset.»

Zesarea'n

³¹ Gudariak, emon yaken aginduari egokionez, Paulo artu ta gabez Antipatride'ra eroan eben; ³² eta biaramonean, zaldizkoak aregaz (Paulo'gaz) joan zeitezan itzirik, torrera biurtu ziran. ³³ Zesarea'ra eldu ziranean, agintariak idazkiak emonik, Paulo be aren aurrean aurkeztu eben. ³⁴ Agintariak idazkia irakurrita, zein errialdekoa zan itandu eutsan; eta Zilizia'koa zala jakinik, ³⁶ auxe esan eutsan: «Zure salatzaileak etorri daitezanean entzungo zaitut.» Eta Erodes'en jauregian zaindu egiela agindu eban.

Paulo, Felix'en aurrean

24 ¹ Bost egun igarota, Ananias Abade-burua, Lege-batzarreko

batzukaz eta Tertulo izlariagaz etorri ta agintariagana Paulo'ren aurka aurkeztu ziran. ² Eta Paulo'ri dei eginik, Tertulo Paulo'ren aurka salatzen asi zan, ³ esanez: «Felix guztiz bikain ori! Zure bidez dogun bake aundia ta erri onek zure ardurari zor dautsazan aurrerapenak beti ta edonun eskerron osoz artzen doguz. ⁴ Baiña, luzeegi gogaikarri izan ez nakizun, zure ontasunagaitik une baten entzun gagizuzala eskatzen dautsut. ⁵ Gizon au kaltegarri utsa dala jakin dogu: lurbira osoko judar guztiak naasten diarduala, eta Nazaretar* alderdiko buru nagusi dala. ⁶ Baita Jauretzea be loitzeko aaleginak egin dauz: eta atxilloturik, geure Legeari dagokionez nai izan dogu epaitu. ⁷ Baiña Lisias gudalburuak, bitartean sarturik, indar andiz eskuetatik kendu egin euskun, eta zeugana bialdu eban, ⁸ beronen salatzaileok zeugana etorteko agindurik. Zeuk ezagutu daikezuz, berori aztertuaz, orren aurka dirautsuguzan salakuntza guztiak.» ⁹ Esan eban au, judarrak be indartu egin eben, alaxe zala autortuaz.

¹⁰ Orduan, Paulo'k, berba egiteko baimena agintariagandik arturik, auxe erantzun eban:

Paulo'ren itzaldia*

«Aspaldiko urteotan erri onen ebazle zarana jakinik, nire buruaren alde gogo onez egingo dot. ¹¹ Erraz jakin daikezunez, amabi egun baiño ez dira Jerusalem'era gur egitera joan nintzana; ¹² eta iñoiz ez nabe jauretxean iñogaz eztabaidan ikusi, ezta sinagogetan eta errian gizataldea batzen be; ¹³ eta orain salatzen dautzanetarik ezertxo be ezin egiaztu daiketzue.

¹⁴ «Baiña auxe autortzen dautsut: oneik alderditzat artzen daben ikasbideari jarraiturik, nik neure asa-

²⁴ 5 Nazirak edo Nazaretarrak, judarren taldekeri edo sekta bat zirala uste

eben kristauen arerioak, 14; 28 22. Cf. 2 22; Mt 2 23.

24 10 Cf. 22 1+.

ben Jaungoikoa otseintzen diarduala, Legean eta Profetetan idatzita dagoan guztia sinisturik: ¹⁵ Jaungoikoagan ustea izanik, oneik be ba-dabenez, on eta gaiztoen biztueria izango dala. ¹⁶ Au dala-ta, nire burua Jaungoikoaren eta gizonen aurrean beti erru bagarik izateko arduratan diardut.

¹⁷ «Baiña urte asko geroago, nire erritarrai limosnak banatzera etorri naz, eta Jaungoikoari opariak eta eskintzak egitera. ¹⁸ Eta onetan niarduala, bai, Asia'ko judar batzuek Jauretxean garbituta aurkitu nenduen; ez, ostera, gizataldea batzen, ezta zarataka be. ¹⁹ Judar oneik aurkeztu bear leuke (litzakez) zure aurrean, eta nire salatzaileak izan, nire aurka zerbait ba'dabe: ²⁰ edo-ta, oneik eurok esan begie gaiztakeriren bat aurkitu eusten, euren batzarrean aurkeztu nintzanean, ²¹ arein erdian nengoala deadarka esan neban au izan ezik: 'Illen biztueria dala-ta epaitzen nozue zuek gaur'»

Auzia luzatu

²² Orduan, Felix'ek, gai au ondo ezagutzen ebanarren, auzia beste aldi baterako luzatu eban, esanez: «Lisias gudalburua etorri daitenean ezagutuko dot zeatzago zuen auzia*». ²³ Eta euntariari Paulo bere zainpean artu egiela agindu eutsan, eta bigun jagon egiela, eta aregana (Paulo'gana) joaten aren ezagunetarikoinori be ez egiela galerazo.

²⁴ Egun batzuk geroago, Felix bere emazte Drusila judarragaz Zesarea'ra etorri zan; eta Paulo'ri dej eginik, Jesukristo'ganako sinistiaz berba egiten entzun eban (eutsan). ²⁵ Baiña Paulo'k zuzentasunari, norbere negurritasunari ta izango dan auziari buruz jarduten ebala, Felix'ek, ikaratuta, auxe esan eutsan: «Zoaz oraingoz, eta aukerea izan

dagidanean egingo dautsut dei». ²⁶ Eta askatasuna lortu egian, Paulo'gandik dirua artuko ebala uste izanik, beragana sarritan deitu ta aregaz berba egiten eban. ²⁷ Baiña, urte bi bete ziranean*, Porzio Festo etorri zan Felix'en ordezkoi; eta Felix'ek, judarren ederra irabazi nairik, Paulo giltzapean sartu eban.

Paulo'k Zesar'egana jotzen dau

25 ¹ Festo, ba, lurraldera elduta iru egun geroago, Zesarea'tik Jerusalem'era igo zan. ² Eta Abadeburuak eta judarren nagusiak Paulo'ren aurka aurkeztu ziran aregana; ³ eta Paulo Jerusalem'era ekarri egiela eskatu utsoen mesedez. Paulo'ri galbideak jarririk, bidean ari bizia kentzeko egiten eben ori. ⁴ Festo'k, barriz, Paulo Zesarea'n zainpean egoala erantzun eutsen, eta bera be laster araxe joango zala. ⁵ «Beraz —esan eban—, zuetariko aaltsuenak betoz nigaz; eta gizonetako onegan gaiztakeriren bat ba'dago, salatu begie.»

⁶ Eta arein artean zortzi-amar egun ozta-ozta igarota, Zesarea'ra jatsi zan; eta biaramonean auzitegi-jarlekuan jesarririk, Paulo beragana ekarri egiela agindu eban. ⁷ Aurkeztu zanean, Jerusalem'dik etorritako judarrak erdian artu eben, Paulo'ren aurka salakuntza asko ta astunak eginik; baiña ezin egiaztu egikezan. ⁸ Paulo'k, barriz, auxe esan eban bere alde: «Ez dot nik ezetan pekaturik egin, ez judarren Legearen aurka, ez Jauretxearen aurka, ezta Zesar'en aurka be.»

⁹ Baiña Festo'k, judarrak atsegindu nairik, Paulo'ri auxe erantzun eutsan: «Jerusalem'era igo nai aldozu, nire aurrean en ebazia izateko?» ¹⁰ Eta Paulo'k ari: «Zesar'en auzitegian nago, eta ementxe ebatzi bear da nire auzia: judarrai ez dau-

24 27 Cf. 28 30. Epaitu bagarikoak espetxean euki aal izateko eperik luzena urte bikoia zan.

tset ezetan be iraiñik egin, zuk on-dotxo dakizunez. ¹¹ Eta iraiñik, edo eriotzarako lain danik egin ba-dot, ez dot eriotza ukatzen; baiña oneik ezarten daustezanetarik ezer ez ba'dago, ezin itzi naike iñok euron eskuetan. Zesar'egana joten dot.» ¹² Orduan Festo'k, bere batzarrekoakaz berba eginda, auxe erantzun eutsan: «Zesar'egana jo dozu? Zesar'egana joango zara*.»

Paulo, Agripa erregearen aurrean

¹³ Egun batzuk geroago, Agripa erregea ta Berenize Zesarea'ra etorri ziran, Festo agurtzera. ¹⁴ Eta an aibat egunetan geraturik, Festo'k erregeari Paulo'ren barri emon eutsan, esanez: «Festo'k gizon bat itzi eban giltzapean. ¹⁵ Jerusalem'en izan nintzanean, judarren Abade-buruak etorri yatazan, arentzat eriotza eskatzen eustela. ¹⁶ Nik auxe erantzun neutsen: 'Erromarrok ez dogu oiturarik iñoren aurka epairik emoteko, salatuak salatzailea aurrean euki dagian arte, eta bere buruaren alde egiteko, aukerea ari (*salatuari*) itzi arte'. ¹⁷ Beraz, areik bereala onaxe etorri ziran; eta biaramonean ni auzitegian jesarrita, gizon au ekarri egietla agindu neban. ¹⁸ Eta salatzaileak aurrean egozala, nik susmatzen neban errurik bat bera be ez eutsoen ezarri. ¹⁹ Euren siniskeriai buruz eta Paulo'k bizi dala* iñoan ildako Jesus bati buruz ziran aren aurka ekarrezan auzi-gai guztiak. ²⁰ Alako arazoan egitekorik ez ne-bala-ta, Jerusalem'era joan nai eteleukean itandu neutsan, an epaitua izan zedin. ²¹ Baiña, Paulo'k bere auzia Augusto'ren ezaguerara izteko eskatuta, a zainpean artu egietla

²⁵ ¹² Paulo, semez erromarra zan, eta ezin eikeen Sanedrin'era bialdu bere go-goaz kontra. Naiago izan eban Erroma'n eta erromarren legez epaitua izan.
²⁵ ¹⁹ Izan be, Berbizkudeari, buruzko ezta-baida guztien ardatza ²⁴ ²¹⁺, Jesus zan, ¹⁷ ¹⁸⁺, ³¹; Ko ² ¹³ ⁴; e.a.; cf.

agindu neban, Zesar'egana bialdu negian arte».

²² Orduan, Agripa'k Festo'ri auxe esan eutsan: «Neuk be gizon ori entzun nai neuke». «Biar entzungo dozu (*dautsazu*)», esan eutsan Festo'k.

²³ Biaramonean, Agripa ta Berenize ospez beterik etorri ziran; eta gudaiburu ta uriko aundikiakaz auzitegian sarturik, Paulo ekarri egietla agindu eban Festo'k. ²⁴ Eta Festo'k auxe esan eban: «Agripa Errege, ta gugaz emen zagozen guztiok: Ikusten dozue gizon au, judarren erri osoak Jerusalem'en eta emen 'onek ez dauala geiago bizi bear' deadarka eskatu daustan au. ²⁵ Nik, barriz, eriotzarako gairik ez daustat ezer be aurkitu. Baiña, Augusto'gana berorrek jo dauan ezkerro, aregana bialtzea erabagi dot. ²⁶ Izan be, jaunari* beronetzaz idazteko ezer garbirik ez dodala-ta, zeuen aurrera ekarri dot, eta batez be zeure aurrera, Agripa errege orren aurrera: azterketa eginda gero, idazteko zer-bait izan dagidan: ²⁷ egiten dautsoezan salakuntzak azaltzeke, atxillotuta norbait bialtzeari burubagek-ria dala deritzat-eta.»

Paulo'ren itzaldia

26 ¹ Orduan, Agripa'k Paulo'ri auxe esan eutsan: «Zeure alde berba egin daikezu». Beraz, Paulo'k, eskua luzaturik, bere alde egiten asi zan, esanez*:

² «Agripa Errege: judarrak salatzen nabeneri dagokionez, gaur zure aurrean neure alde egin bear dodala-ta, nire burua zoriontsutat artzen dot; ³ judarren artean diran oitura ta auzi guztiak ondo ezagutzen dozuzalako batez be. Beraz,

Ap ² ³².

²⁵ ²⁶ *Jauna*. Erroma'ko Agintari Nagusia edo Zesar da emen.

²⁶ ¹ Azkenengo itzaldi onetan, ²² ¹⁺, Paulo'k argi azaltzen dautso Agripa erregeari, ⁹ ¹⁵, Apostoluen egitekoa, Israel'ek izan eban *deia* aurrera eroatea dala.

eroapenez entzun nagizula eskatzen dautsut.

⁴ «Gaztetarik nire erritarren artean Jerusalem'en izan neban bizike-rea, judar guztiak ondo dakie: ⁵ badakie —egia autortu nai ba'dabe— ni asierarik gure Legeko alderdirik zuzenenaren eraz bizi izan nintzana, pariseo izanik. ⁶ Eta orain auzitegian salatua izan ba'naz, Jaungoikoa'k gure asabai egindako agintzaria sinisten dodalako da: ⁷ gure amabi leiñuak, gau ta egun arduraz Jaungoikoa otseindurik, agintzari onen ustea dabe. Itxaropen au dala-ta, Agripa errege ori!, salatzen nabe judarrak. ⁸ Zer, ba? Sinistueziña al-da zuen artean ildakoak Jaungoikoa barrero biztutea*?»

(⁹, 1-18; ²³, 3-16)

⁹ Egia esan, nik Jesus Nazaretarraren aurka gogor be gogor egin bear nebala uste izan neban. ¹⁰ Baita egin be Jerusalem'en: Abade-buruakandik eskubidea artuta, santu (*kristau*) asko espetxeetan sartu nebazan; eta arei bizia kentzen eutsee-nean, neure baietza emon neutsen. ¹¹ Eta sarritan sinagoga guztietan zigortzen nebazala, biraoak esatera beartzen nebazan; eta arein aurka geroago ta geiago asarratzen nintzala, atzerriko urietan be aurrean erabilten nebazan.

¹² «Onetara, Abade-buruaren eskubide ta aginduz Damasko'ra* niñoiala, ¹³ bidean, errege ori!, eguerdian, goitiko argi bat ikusi neban eguzkiarena baiño biziagoa, ni ta nigaz yoiazanak inguratzen. ¹⁴ Eta guztiak lur-jota, berbots bat entzun neban auxe esaten eustala: 'Saulo, Saulo, zegaitik narabizu aurrean? Gogor

²⁶ ⁸ Kristo'ren Berbizkudeaz amaitu da Mesias'i buruzko itxaropena. Ortze oiñarritzen da kristauon itxaropen barrira, cf. ²³; ²⁴ ²¹⁺; ²⁵ ¹⁹⁺; Ko ¹ ¹⁵ ¹²⁻¹⁹; Erm ⁵ ²⁺.

²⁶ ¹² Barrero gogorazotzen dausku Paulo'k Kristo'gana zelar biurtu zan, cf. ⁹ ¹⁺; ²² ¹⁺.

²⁶ ¹⁸ Cf. ⁹ ¹³⁺; ²⁰ ³². Paulo'ren eginkizunak Jeremias'ena dakarsku gogora,

yatzu akilluari ostikoka ekitea'. ¹⁵ Eta nik auxe esan neutsan: 'Nor zara, ba, Jauna?' Eta Jaunak niri: 'Zuk aurrean narabizun Jesus naz Ni. ¹⁶ Baiña jagi, eta zure oiñen gainean zutundu zaitez; ikusi dozunaz eta erakutsi dautsudanaz morroi ta autorle egin zagidazan agertu izan nakizu-ta. ¹⁷ Onetarakoxe atara zaitut erri onetatik eta jentillen artetik, eta orain jentil orrekana bialtzen zaitut, ¹⁸ begiak edegi dagiezuzan, illunpetik argitara biurtu ta Satanas'en menpetik Jaungoikoagana eroan dagizuzan; onela, pekatuen parkamena ta sinismenaz zintzoen oiñordetza artu dagien*».

¹⁹ «Augaitik, Agripa errege ori!, zerutiko ikuspenari ez neutsan gogorrik egin, ²⁰ bestetara baiño: Damasko'n egozan *judarra* leenen, eta gero Jerusalem eta Judea osoan, baita jentillai be, garbatzeko damuegintza egokiak egiñik, Jaungoikoagana biurtu zeitezala iragarri neutsen. ²¹ Eta augaitik, ni Jaurtxean nintzala, judarrak artu ta il egin nai nenduen. ²² Baiña, Jaungoikoaren laguntzaz, gaur arte sendo diraut, txikiari ta aundiari egia autoritzen, Moises'ek eta Profetak geroago jazoko zan iragarritakoa baiño ezertxorik esateke: ²³ Kristo'k eriotza ikusi bear izango ebala, eta illen artetik leenen biztuko zala barrero, *judarren* erriari ta jentillai argia iragarteko.»

²⁴ *Paulo'k* bere alde itzok* esaten ebazala, Festo'k berbots argiz auxe esan eutsan: «Burutik zagoz, Paulo: ikasi aundiak zoratu egin zaitu». ²⁵ Baiña, Paulo'k auxe esan eutsan: «Ez nago ni burutik, Festo bikain

cf. Jr ¹ ⁵⁻⁸; baita *Jaunaren Morroiarena* be, cf. Is ⁴² ⁷, ¹⁶. Paulo bera da illunpetik argitara biurtua, ⁹ ¹⁷⁻¹⁸, eta, bateoaren bidez, pekatuen parkamena jade-tsi dauana, ³² ¹⁶.

²⁶ ²⁴ *Itzok*, ²⁶, au da, Jesus'en eriotzari ta biztuerari dagokiozan *itzok*, eta profeten esanak bat datoz, ²²⁻²³. Erregeak ez dautso benetako erantzunik emoten, eta auzia aurrera doa.

ori: benetan eta senez diardut berba egiten. ²⁶ Eta itzok erregeak ezagutzen dauz, eta, beraz, zabal-zabal aurrean esaten dautsadaz, guztiak argi dakizala uste dot-eta: onetari-ko ezertxo be ez da toki ezkutuan egin-eta. ²⁷ Agripa errege orrek!: Profetak sinisten dozuz? Ba-dakit sinisten dozuzana». ²⁸ Orduan, Agripa'k Paulo'ri auxe esan eutsan: «Ia-ia kristau biurtu nozu». ²⁹ Eta Paulo'k ari: «Jaungoikoak nai dagiala, nik nai dodanez, urr naiz urrun, zeu bakarrik ez, baita gaur entzuten nabon guztiak be, neu natan lakoxea biurtu daitezcan, kataio-kaz izan ezik».

³⁰ Paulo'k itzok esan ebazanean, erregea, agintaria, Berenize ta onekaz jesarrita egozanak, jagi egin ziran; ³¹ eta andik alde egini, alkarregaz jardunean ziarduen, esanez: «Gizon onek ez dau eriotzarako lain danik ezer be egin, ezta giltzapean egoteko be». ³² Eta Agripa'k Festo'ri auxe esan eutsan: «Gizon au askatua izan zeitekean, Zesar'egana jo izan ez ba'leu».

Paulo, Erroma'runtz itsasoz*

27 ¹ Italia'runtz itsasoz eroateko erabagi zanean, Paulo ta giltzapean egozan beste batzuk, Augusta-gudasailleko euntari zan Julio izenekoari emon eutsoezan. ² Eta Adramita'ko ontzi baten sarturik, itsasoruntz jo genduan, Asia'ko itsasbatterean zear, Tesalonika'ko Aristardo mazedoniarra geugaz etorrela. ³ Biaramonean, Eidon'era eldu gintzazan; eta Julio'k, Paulo biotz-beratasunez arturik, lagunakana joan zedilla ta arekandik bear ebana batzeko baimena emon eutsan. ⁴ Eta andik urtenda, Txipre'n beera joan gintzazan, aizeak aurrez-aurre jotzen genduzan-eta. ⁵ Zilizia ta Pan-

filia'ko itsasoa zear igarota, Lizia'ko Mira'ra eldu gintzazan. ⁶ An, Italia'ra yoian Alejandria'ko ontzi bat aurkiturik, euntariak bertara aldatu genduzan.

⁷ Aizea zala-ta, egun askotan astiro joaten gintzazala ta Gnido-aurrea nekez eldurik, Kreta'n beera joan gintzazan, Salmon ondoan. ⁸ Eta itsas-ertzean zear Kai-Ederra izeneko tokira nekez eldu gintzazan; aren ondoan, Lasea uria dago.

⁹ Bitartean, aldi luzea igaro zan; eta arrezkero itsasbidea nekeza izanik, barau-aldia* igaro zan-eta, Paulo'k oar au egiten eutsen: ¹⁰ «Gizonok! Ba-dakust itsasbidea neketsua ta kaltegarria izango doguna: sortearentzat eta ontziarentzat bakarrik ez, baita geure buruarentzat be». ¹¹ Baiña euntariak, Paulo'k iñoanari baiño endaizlariari (*pilotoari*) eta ontziburuari geiago sinisten eutsen. ¹² Baiña kai a neguterako egokia ez zala-ta, andik itsasoratu egin bear ebela erabagi eben geienak: gutxienez Fenize'ra eldu aal ba'zeitekean, bertan negua igaroteko: ego-sartzalde ta ipar-sartzalde aize-tara begira dagoan Kreta'ko kaia (*portua*) da-ta.

Ekatxa bidean

¹³ Eta ego-aizea zala, euren asmoa bete ebela uste izanik eta aingurak jasorik, Kreta'ko itsas-ertzetik yoiazan. ¹⁴ Baiña laster eurakilon deritzan aize zakarrak jo eban ontzia; ¹⁵ eta ontzia aizeaz eroana izan zanean, eta aizeari eutsi ezini, ontzia aizeari itzita bertan-beera giñoi-azan. ¹⁶ Kauda izeneko ugarte txiki bateruntz jaurtiak izan gintzazala, ozta-ozta lortu genduan ontzizkea geure menpean eukitea. ¹⁷ Aren jabe eginda, aalegin guztiak egiten ebezan ontzia lotzen eta bere azpiak

atxilotuta doanik; Lukas'i aaztu-edo egin yako.

²⁷ ⁹ Barau-aldi au judarren pekatua-gaitiko Ordaintza-jaiagunekoan zan, Ab 16 29-31, udazken-mugan jausten zana.

sendotzen; eta are-arteren baten joteko bildurrez, oialak eratsita, onela eroanak yoiazan. ¹⁸ Biaramonean, ekatxak gogor jotzen genduzan-eta, ontzia arindu egin eben; ¹⁹ eta urrengo egunean ontziko tresnak be euren eskuz itsasora jaurti ebezan. ²⁰ Egun askotan eguzkirik eta izarrik ez ziran agiri izan; eta ekaitz aundia gaiñera etorkigula, onik urteteko uste osoa galdu genduan. ²¹ Aldi luzez baraurik egonda, Paulo'k, arein erdian zutik, auxe esan eban: «Obe izango zan, gizonok, Kreta'tik urten ez ba'gintzazan, nik niñoanez; eta arela neke ta kalteok ez genduzan izango. ²² Baiña orain, adore ona izan dagizueta eskatzen dautsuet: ontzia galduarren, zuetari-ko iñortxo be ez da galduko-ta. ²³ Berea nauan eta otseintzen dodan Jaungoikoaren Aingerua agertu yat bart, ²⁴ eta auxe esan daust: 'Ez bildurtu, Paulo: Zesar'en aurrean agertu bear dozu; eta Jaungoikoak zugaz doazan guztien bizitzak emon dautsuz'. ²⁵ Beraz, gizonok, adore ona izan egizue, Jaungoikoagandik guztia esan yatanez jazoko dala uste dot-eta. ²⁶ Baiña, ugarte batera eldu bear dogu».

²⁷ Eta amalagarren gauan Adriatik itsasoa zear giñoi-azala, gauerdian itsasgizonak legorra urr egoala somatu eben. ²⁸ Eta beruna barrennera botata, ogei besakada zenbatu ebezan; eta zerbait aruntzago beruna barrero botata, amabost. ²⁹ Atxaren bat jo egien bildurrez, ontziaren atzekaldetik lau aingura botata, eguna etorri zedilla nai eben, ³⁰ Orduan itsas-gizonak, ontzitik iges egin nairik, ontzizkea itsasora jaurtiten asi ziran, aurre-aldetik aingurak jaurtiteko atxakiz. ³¹ Baiña, Paulo'k euntariari ta gudariari auxe esan eutsen: «Gizon oneik ontzian ge-

ratzen ez ba'dira, zuek ezin onik urten zaitekezen».

³² Orduan, gudariak txalupearen lokarriak (*sokak*) ebagi egin ebezan, eta txalupea jausten itzi eben. ³³ Eguna agertzen zan artean, Paulo'k guztiai zerbait jan egiera erregetzen eutsen, esanez: «Amalagarren eguna da gaurkoa baraurik eta ezer jan bagarik zagozena. ³⁴ Beraz, jan egizue, arren, zuen osasunerako: zuetariko iñori buruko ule bat be ez yako galduko-ta». ³⁵ Au esanda, ogia artu ta Jaungoikoari guztien aurrean eskerrak emonik, zati-tu eban eta jaten asi zan*. ³⁶ Orduan, besteak be adoretu egin ziran, eta guztiak jan eben. ³⁷ Eta ontziko guztiak berreun eta irurogei ta amasei gintzazan. ³⁸ Janariz ase ondoren, ontzia arintzen asi ziran, garia itsasora jaurtirik.

Ontzia, ondatuta

³⁹ Eguna argitu zanean, ez eben lurralde a ezagutzen: itsas-bazter bat bakarrik ikusten eben bere ondartzagaz, eta, egin aal ba'zan, ontzia araxe jaurtitea erabagi eben. ⁴⁰ Eta aingurak jasorik, itsasoak eroaten ebazan; eta endaitza be askaturik eta oial nagusia aizetara jasorik, ondartzara yoiazan. ⁴¹ Baiña, are-mutur bat jota, ontzia ondartu egin zan. Aurrekaldea, ondarrean (*aretan*) josita, zirkiñik egiten ez ebala geratu zan; atzekaldea, barriz, olatuen indarrez zabaltzen yoian.

⁴² Orduan, gudarien asmoa giltzapekoak iltea zan, iñok igerian iges egin ez egian. ⁴³ Baiña euntariak, Paulo onik atara nairik, debekatu egin eutsen; eta igerian ekienak uretara leenen zapart egin eta legorrera joan zeitezala agindu eban; ⁴⁴ enparaduak, barriz, batzuk ol-gaiñetan eta beste batzuk ontziaren ondakiñetan, legorrera urten zeitezala*.

²⁷ ³⁵ Bedeinkatze onek Eukaristia dakarsku gogora, cf. 2 42; Lk 24 35+.

²⁷ ⁴⁴ Itsas-ontzi onen ondatzea ez da Paulo'k Ko 2° 11 25'garrenean aitatzen dauzanetarikoa.

Malta ugartean

28 ¹ Arrisku aretatik iges egin ondoren, ugarte a Malta zala jakin genduan. ² Eta erdaldunak (*bertakoak*) abegi onez artu genduezan;ugar aundi bat egiñik, guztiok berotzen genduezan, gaiñeko euria ta otzagaitik. ³ Orduan Paulo'k, abar igar batzuk batu ta sutara jaurti ebazan; eta larrasuge batek, berotatik iges egiñik, eskutik oratu eutsan. ⁴ Erdaldunak (*angoak*) sugea aren eskutik dingilizka ikusi ebenean, alkarri auxe zirautsoen: «Benetan, gizon au gizon iltzaillea da: itsasotik igesiarren, Goiko asarreak ez dautso bizi izaten izten-eta». ⁵ Paulo'k, barriz, sugea sutan astindurik, ez eban okerrrik izan. ⁶ Baiña areik, Paulo aunditu ta batbatean ilda jausiko zala uste eben; eta luzaro begira egonda, kaltegarririk ez etorkiola ikusirik, eritzia aldatu egin eben, eta a jaungoikoren bat zala iñoen.

⁷ Publio izeneko ugarteko nagusiak baztarralde areitan solo batzuk eukazan; eta onek iru egunez bere etxean maiteki artu genduzan. ⁸ Publio'ren aita, barriz, sukarrez ta sabelerengoz ogean egoan. Paulo a ikustera sartu zan; eta otoitz egiñik eta aren gaiñean eskuak ezarririk, osatu egin eban. ⁹ Arrezkero, ugarteko geiso guztiak be aregana etozan, eta osatu egiten ziran. ¹⁰ Areik be begirune aundiz artu genduezan; eta itsasoratu gintzazanean, bear genduan guztia emon euskuen.

Erroma'ra

¹¹ Eta iru illebete igarota, Alejandria'ko ontzi baten sartu gintzazan; ontzi onek negutea ugartean egin eban, eta Kastor eta Polux'en ezaugarria eroian. ¹² Sirakusa'ra elduta, an iru egunean geratu gintzazan. ¹³ Andik, legor-ondoan zear, Errejo-

²⁸ 16 Mako-barrukoa Vulgata'k bakarik dakar.

ra etorri gintzazan; eta biaramonean Egoaizea sorturik, bigarren egunean Pozzuoli'ra eldu gintzazan. ¹⁴ An Kristo'gan anaiak aurkiturik, arekaz zazpi egunean egoteko eskatu euskuen. Eta bereala, Erroma'ra eldu gintzazan. ¹⁵ Eta uri aretako anaiak gure barri jakin ebenean, bidera urten yakuzan Apio-enparantza ta Iru Ardanetxeta'ragiño. Paulo'k, areik ikusi ebazanean, Jaungoikoari esker-rrak emon eutsazan, eta adore aundia artu eban.

Erroma'n

¹⁶ Erroma'n sartu gintzazanean, (*euntariak torreko nagusiari giltzapekoak emon eutsazan**), Paulo'ri gudari bat zaintzailletzat jarririk, etxe baten egoteko baimena emon eutsan. ¹⁷ Iru egun geroago, Paulo'k judarren nagusiai dei egin eutsen; eta batu ziranean, auxe esan eutsen*: «Anaiok! Erriaren eta asaben ekanduen aurka nik ezertxo be egiteke, Jerusalem'en giltzapean sartua ta erromarren eskuetan itzia izan nintzan. ¹⁸ Oneik (*erromarrak*), aztertu nenduean, askatu nai izan nenduen, eriotzarako errurik nigan ez zan ezker. ¹⁹ Baiña, judarrak neure aurka jarririk, Zesar'egana jo bearrez aurkitu nintzan; ez, orraitino, nire erria zerbaitz salatugididan. ²⁰ Auxegaitik egin dautsuet dei, zuek ikusi zagiedazan eta zuekaz berba egin dagidan. Israel'en itxaropenagaitik (*edo Kristo'gaitik*) daroat katai au».

²¹ Orduan, areik auxe esan eutsen: «Guk ez dogu Judea'tik zutzaz idazkirik artu, eta etorri diran anaietariko batek be ez dausku zutzaz ezer txarrik salatu, ez esan. ²² Zure eritzia, orraitino, zeugandik entzun nai dogu: ba-dakigu alderdi ori toki guztietan ukatzen dabena-ta».

²⁸ 17 Erroma'ko judar-taldeari garbi emoten dautso Paulo'k bere auziaren barri, cf. 13 5+.

²³ Eta ari eguna izentaturik, aregana ostatura lagun asko etorri ziran; eta berak goizetik arratsalderarte Jaungoikoaren Erreñua irakasten eta autortzen eutsen, Moises'en Legeak eta Profetak Jesus'i buruz iragarten dabena azaldurik. ²⁴ Paulo'k zirautsena batzuek sinistu egin eben; beste batzuek, ostera, sinisgogor geratu ziran. ²⁵ Eta alkarren artean batasunik ez ebela-ta, alde egin eben, Paulo'k zirautsela*: «Espiritu Santuak gure asabai Isaias igarlearen bidez ederto egin eutsen berba, ²⁶ esanez:

'Zoaz erri orregana ta esan egiezu: Zeuen belarriz entzungo dozue, eta ez dozue ulertuko; eta begiz begiratuarren, ez dozue ikusiko: ²⁷ erri onen biotza gogortu egin danta; belarri gorrak eta begi itxiak

daukez, begiz ikusi ez dagien, belarriz entzun ez dagien, eta biotzaz ulertu ez dagien, Neugana biurtu ez daitezcan, eta osasuna emon ez dagiedan'.

²⁸ «Jakín egizue, ba, Jaungoikoren osasun au jentillai bialdu izan yakena; eta areik entzun (*onartu*) egingo dabe*.»

²⁹ Eta au esan ebanean, judarrak alde egin eben, euren artean eztabaida gogorra ebela.

Azkena

³⁰ Eta Paulo'k urte bi egin ebazan alogeran artutako etxean; eta etorten yakozan guztiai abegi ona egiten eutsen, ³¹ Jaungoikoaren erreñua iragarten, eta Jesukristo Jaunari dagokiona eragozpen bagarik zabalzabal irakasten*.

²⁸ 25 Paulo'k judarrai damotsen erantzun gogor zorrotz onegaz amaitzen da Liburu au. Israel'i buruzko gai onetan eritxi bardiñekoak ziran Paulo ta leenengo kristauak. Bardin-samar aitatzen da Isaias'en 6 9-10'gn. txatal au Mt 13 14-15+ eta Jn 12 40'garrenetan be. Cf. Mt 21 41-43 p; Lk 4 23-24; Erm 11 7-8.

²⁸ 28 Itz oneitan, Sal 67 3'gn. ataltxoa dauko gogoan Paulo'k. Cf. Ap 1 8+; Lk

24 47; Erm 11 11-12. ²⁹ garren ataltxoa geitua da.

²⁸ 31 Paulo'ren azken-urteai buruz ez dakigu ezer (ezta Pedro'renai buruz be 12 17). Elizearen leenengo aldia, 23 11, Erroma'n amaitzen da, eta antxe bertan asten da bigarren aldia, munduaren azkenerarte iraungo dauana. Jerusalem'en sortu dan Elizea, gizaseme guztion Eliza biurtzen da Erroma'n.

PAULO'K ERROMA'KOAI EGINDAKO IDAZKIA

Sarrera

1 ¹ Paulo naz, Jesukristo'ren serbitzaria, apostolu* izateko deitua, Jaungoikoaren Barri Ona iragarteko aukeratutakoa. ² Leen Profeten bidez Liburu Santuetan Jaungoikoak berak agindu eban Barri On au, ³ bere Semeari buruz. Jesukristo gure Jauna aragiz Dabid'en jatorritik jaio zan, ⁴ eta, illen artetik barriro biztutean*, Santutasun-adorez indartsu, Jaungoikoaren Semetzat izan zan aukeratua. ⁵ Jesukristo'gandik artu doguz grazia ta apostolutza, atzerri guztiak Aren izenean sinismenera erakarteko. ⁶ Eta arein artekoak zaree zuek be, Jesukristo'k deituta. ⁷ Grazia ta bakea, ba, guztioi, Erroma'n zagozen Jaungoikoaren maite guztioi, santu izatera deituoi, Jaungoiko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren aldetik.

Paulo, Erroma'ra joateko gurariz

⁸ Leenen, zuek guztiokaitik Jesu-

kristo'ren bitartez Jaungoikoari eskerrak emoten dautsada, zuen sinismena lurbira osoan ezagutzen dalako. ⁹ Bere Semearen Barri Onaren iragarteaz, nire espirituz morroi naiakon Jaungoikoak ba-daki nik zuek etenbage gogoan zaituedana: ¹⁰ egunen baten —Jaungoikoaren naia ba'da—, zuek ikustera joateko bidea zabaldu dakidala eskatuez beti nire otoitzetan. ¹¹ Egia esan, ikusi egin nai zaituet, sendotu zagiezan espirituzko graziren bat zuei eroateko, ¹² edo-ta zuen eta nire sinismenaz alkar poztu dagigun. ¹³ Baiña ez dot nai zuek, anaiok, jakiteke egon zaitezzen, zuekana joateko asmotan sarri egon nazala —orain arte ezin joan izan nazararren be—, beste errietan bez zeuen artean be fruturen bat lortzeko. ¹⁴ Gerkarrai ta arrotzai, jakitunai ta ezikasiai zordun naiake. ¹⁵ Beraz, ni neu, Erroma'n zagozenoi be Barri Ona iragarteko gertu nago.

SALBAMENA FEDEAREN BIDEZ

1. ZINDOKUNTZA

¹⁶ Kristo'ren Barri Onaz ez naz lotsatzen: Barri On au, fededun guztientzat* osasunerako Jaungoikoaren

adorea da: judarrentzat leenen, eta gero gerkarrentzat. ¹⁷ Izan be, ber-

¹ ¹ *Apostolu* izena judar-itza da jatorriz, eta *bialdua* esan nai dau. Izen au Barri Onaren misioari emoten yake Alkartasun Barriari; *Amabiai* geienbat, Mt 10 2+; Jn 3 17+. Paulo'k be Apostolu izena damotso bere buruari, Kristo Berbitzuegandik artu ebalako Barri Ona jentillai iragarteko agindua, Ap 9 15+; 13 31+; 22 21; Ts 1* 2 13. Jainkoak nai dauanari egiten dautso Apostolutzarako deia, Ap 9 3-6; 13 2; Ga 1 1, 16; e.a., Profetatzarako egin oi dauanez, Is 49 1, 16; Jr 1 4-5; e.a.

¹⁴ ³ ta ⁴garren ataltxoan arteko kide-tasuna. Dabid'en oiñordekoa Jainkoaren Seme ba'da, 8 11+; 9 5+; cf. Mt 4 3+; e.a., areago Jainkoak illen artetik berbiztutakoa, 4 24; 6 4; 10 9; Ko 1* 6 14; 15 3-8, 28; Ts 1 10; Ap 2 36+; e.a.

¹⁶ ¹⁶ Sinismena *belarritik*, au da, *entzuletik* datorrigu, 10 17. Sinismenaren bidez, cf. Abk 2 4+, Jainkoaren *esanera*, 1 5; e.a., jarten dau gizonak bere burua, salbamen-bide bakarra dan Jainkoa egizalea, ona ta leiala dala jakitunik. Egizat artzen dau il eta berbiztu zan Jesus'en

tan agertzen da sinismenetik fedezentasuna, idatzita dagoanez: *Zuzena sinismenez bizi da**.

A. Jentillak eta judarrak Jaungoikoaren asarpean

Jentillak ez eben Jaungoikoak agindutakoa bete*

¹⁸ Izan be, bidebagekeriz Jaungoikoaren egia lotzen daben gizonen dongakeri ta bidebagekeri guztien aurka, Jaungoikoaren asarrea zerutik argi-argi agertzen da: ¹⁹ Jaungoikoagandik ezagutu daitekena agiri yake-ta, Jaungoikoak erakutsi dautselako. ²⁰ *Jaungoikoaren* betiko indarra ta jaungoikotasun ikusi eziñak, mundua sortu danetik egindakoen ezagueraz ikusten dira, eta, beraz, alako gizonak ez dabe zuri-biderik: ²¹ Jaungoikoa ezagutu ondoren, Jaungoikotzat goratu ez dabelako, eta eskerrik emon ez dautsoelako; bestetara baiño: euren asmakerietan ezereztu dira, eta arein biotz zoroa illun biurtu da; ²² eta euren buruak jakituntzat egiñik, zoro egin dira; ²³ eta Jaungoiko ezin ustelduaren *aintza*, gizon ustelkorreren *irudietara*, egazti, lau-oiñeko ta narraztiakana *aldatu dabe**.

Atzerriai zigorra

²⁴ Aregaitik, Jaungoikoak euren biotzeko gurarien loikeritan zikinduta itzi dauz, eurak euren gorputzak loitu dagiezan*. ²⁵ Eta areik,

Ebanjelioa, 1 4+. Eta ba-daki Jainkoak *zuzentasunez*, 1 17+, jokatuko dauala. Sinismena batean emoten yako gizonari, 6 4+. Orduantxe asten dau gizonak bizitza barria, Kristo'gaz oso-osoan alkartuta, Ga 2 16, 20+. *Sinismena* egite on guztien iturburua da, 5 1-5; Ga 5 6; Ts 1* 1 3; St 2 14. Eta sinismenean irauten dau gizonak, Ko 2* 10 15; Ts 1* 3 10, zeruko aintza lortu arte, Ko 1* 13 12. Cf. As 12 1+. *Judarrak* eta *gerkarrak*, cf. 2 9-10; Ap 13 5+.

1 17 Aipamen au Abakuk'egandik jasota dago. Cf. Ga 3 11; Ebr 10 38-39. Jainkoaren zuzentasunak salbatzen dau gizona, 3 21, 26; Is 56 1; e.a. Eta Jainkoak utsean (*doan*) beteten dau emondako berbea, 4 3+; Ef 2 8; Flp 3 9. Cf. 15 6+;

Jaungoikoaren egia guzurretara aldaturik, betiko bedeinkatua dan —eta izan bedi alan— Egillearen ordez, izakia gurtu ta otseindu dabe.

²⁶ Aregaitik, Jaungoikoak griña lotsagarrietan itzi dauz: arein andrazkoak be, jatorra yaken ari-bidetik itzulietakora biurtu dira. ²⁷ Era berean, gizezkoak be, andrazkoaganako bide jatorra itzirik, alkarreganako gurarikerietan berotu dira, gizezkoakaz iguingarria egiñik eta euren okerkeriari dagokion saria eurakan artuez.

²⁸ Eta Jaungoikoa ezagutzeko gogorik ez eben ezker, Jaungoikoak euren sentzun iguingarrietan itzi ebazan, bidezko ez dana egin egien: ²⁹ okerkeriz, doillorkeriz, aragikeriz, diru-gosez eta gaiztakeriz beterik; ikusi-eziñez, gizerailteez, eztabaidaz, marroz eta maltzurkeriz beterik: ³⁰ naastaille, mormorlari, Jaungoikoaren gorrotagarri, iraintzaille, arro, arroputz, gatxerako zoli, gurasoakanako biurri: ³¹ zoro, erabage, biozbage ta errukibage. ³² Orrelakoetan diarduenak, Jaungoikoaren erabagiz eriotz-errudun dirala jakinda be, berbera eurak egin bakarrik ez, baita orrelakoak egiten dabezanai be txaloak joten dautseez.

Mt 5 20+.

1 18 Jainko-zuzentasunaren aurrez-aurre, Jainkoaren *asarrea* dago. Barri Onaren bidetik aldentuta dagozan gizaseme guztiak dagoz asarre orren azpian, jentil naiz judar izan, 3 9-26. Jainkoa ta pekatua alkartu-eziñak dira, Alkartasun Zarrean be argi ikusten danez, Zn 11 2. 1 23 Cf. Sal 106 20; Ur 32; Dt 4 16-18; Jk 11 15.

1 24 Norbere erruz, erlejiño-gaietan oker jokatzeak, bidegabekeririk gaiztoenak dakaz norberetzat eta gizartearentzat. Bein eta barru ekiten dautso Paulo'k egi oni, 24, 26, 28. Dana dala, bakotxaren biotz-barrua epaitzea Jainkoaren esku izten dau, Mt 16 27; Ko 1* 3 8; P 1* 1 17; Ag 2 23.

Judarrak be ez dagoz osasun-bidean*

² ¹ Orregaitik, gizon, zarana zarala, zuribiderik ez dozu, besteak epaitzen dozuan orrek: besteak epaitzean, zeure burua ondatzen dozu-ta: ezpaitzen dozuna bera, zeuk egiten dozun ezker. ² Eta ba-dakigu Jaungoikoaren epaia, egiaren eraz, orrelakoak egiten dabezanen aurka dagoana. ³ Eta zu, gizon, orrelakoak egiten dabezanak ebatzi ta pekatu berberak egiten dozuzan ori, Jaungoikoaren epaiari iges egingo dautsazulakoan ete-zagoz? ⁴ Aren ontasuna, eroapena ta biotz zabalaren aberastasuna ez ete-dozuz aintzat artzen? Ez al-dakizu Jaungoikoaren errukiak damura deitzen zaituana? ⁵ Zuk, ostera, zure gogorke-riaz eta zure biotzeko damu-ezaz, zuretzat asarrea barzen dozu Jaungoikoaren asarrearen eta epai zuzenaren egunerako. ⁶ Arek (Jaungoikoak) bakotxari egiñai dagokienez emongo dautso ordaiña*: ⁷ on egiñez aspertzeke, aintzaren, izen onaren eta ezilkortasunaren billa dabilzanai, betiko bizitza *emongo dautse*; ⁸ burugogorrai, egia baztartzan dabenai ta okerbidea maite daben guztiari, sumiña ta asarrea. ⁹ Eta gaiztakeria egiten daben guztiari, larritasuna ta estura: judarrai leenen, eta gerkarrai gero; ¹⁰ ongille guztiari, barriz, aintza, izen ona ta bakea; judarrai leenen, eta gerkarrai gero; ¹¹ Jaungoikoagan norkeririk ez dago-ta.

Jentillen legea

¹² Lege bagarik pekatu egin izan

2 1 17'garren ataltxorarte, Paulo ez da sartzen agiri-agirian judarrakaz.

2 6 Esaera au erabilli oi da Biblian *bakotxari berea* adierazoteko, Sal 62 13+. *Epai-eguna*, 5, Jauna aintzat etorriko dan eguna izango da, Ko 1* 1 8+; Ap 17 31. Jainkoaren, 14 10, eta Kristo'ren auzitegian, Ko 2* 5 10; Mt 25 31+, agertuko dira biziak eta illak, Ap 10 42; Tm

dagien guztiak, lege bagarik galduko dira; eta Legepean pekatu egin izan dagien guztiak, legeaz izango dira epaituak. ¹³ Jaungoikoaren aurrean ez dira zintzo legea entzuten dabenak-eta, legea beteten dabenak baiño: oneixek izango dira zintzotzat onartuak. ¹⁴ Izan be, idatzitako Legerik ez daben jentillak, berez eraginda, Legean agindutakoa egiten ba'dabe, eurak dira, Legerik izan bagarik, eurentzat Lege*; ¹⁵ alakoak, Lege-mamiña euren biotzetan idatzita erakusten dabe; eta orretzaz euren barruak berak emoten dautse autorra, arein epaiak alkar salatzen edo zuritzen dabezala. ¹⁶ Orixe ikusiko da nire Barri Onaren eraz, Kristo'ren bidez Jaungoikoak gizonen barrua aztertu dagian auzi-egunean.

¹⁷ Baiña zuk, judar izena izanik, Legean atsedena dozula ta Jaungoikoagan arrotzen zarala, ¹⁸ Aren naia ezaguturik, eta Legeak irakatsita, egokiena dana ba-dakizula, ¹⁹ zuk, itsumutil, illunetan dagozanen argi, ²⁰ ez-ikasien zuzendari ta umeen irakasle zaralakoan, eta jakintzaren eta egiaren eredu Legean daukazulakoan zagozan orrek, ²¹ besteri irakasten dautsazuna, zegaitik ez dautsazu zeure buruari irakasten? Ostu bear ez dala irakasten dozun orrek, ostu egiten dozu? ²² Ezkontza ez dala loitu bear, diñozu, eta ezkontza zeuk loitzen dozu: sasi-jainkoen irudiai iguiña dautsezu, eta santutua zeuk austen dozu. ²³ Legeaz arrotu egiten zara, eta, Legea ausirik, Jaungoikoa iraintzen dozu. ²⁴ Idatzita dago-ta: *Zeuen erruz madarikatzen dabe jentillak Jaungoikoaren izena**.

2* 4 1, eta bakotxak bere egite onai edo gaiztoai dagokiena artuko dau, Mt 16 27; Ko 1* 3 8; P 1* 1 17; Ag 2 23.

2 14 *Kontzientzia*, 15, cf. 14 1+, norbere barruan tinkatuta dagoan *berezko* legea da. Jentillentzat auxe zan Moises'en Legearen ordezkoa, 26-29; Jr 4 4+. *Kontzientzia* au salbazino-bidea da, 7 7+.

2 24 Is 52 5'garrenetik jasoa; cf. Ez 36 20-22.

Benetako erdaintzuntza

²⁵ Egia da erdaintzuntza onuragarria dala, Legea beteten ba' dozu; baiña, Legea austen ba' dozu, zure erdaintzuntza ezetarako be ez da. ²⁶ Legearen aginduak beteten dauzan jentilla, barriz, erdaintzuntza egon ezarren be, ez ete-da erdaintzuntzat artua izango? ²⁷ Eta berez erdaintzuntza izanik, Legea zeatz bete ba' dago, zeu epaituko zaitu Legea ausi ba' dagizu, zuk Lege idatzia ta erdaintzuntza eukiarren be. ²⁸ Judarra izatea ez da judar-azala erakustea, ezta erdaintzuntza aragian agiri dana be. ²⁹ *Benetako* judarra, barriz, barrutik dana da; eta *benetako* erdaintzuntza, biotzetik dana: espirituz, eta ez Lege-itzari dagokionez. Alako *judarren* gorapena ez dator- kio gizonakandik, Jaungoikoagandik baiño.

Judarrak eta jentillak, guztiak, Jesukristo'ren sinistea artu bear dabe*

3 ¹ Zer dau, ba, judarrak geiago korik? Edo-ta, zetarako da gauza erdaintzuntza? ² Edozelan be, aundia da *judarren* aldea. Leenen, Jaungoikoaren itza eurai emon yaken. ³ Zer, ba? Batzuek sinistu ez ba' dabe, Jaungoikoaren egia alakoan sinisgogorkeriak alperreko egingo ete-dau? ⁴ Ez orixe! Egizale da Jaungoikoa, eta edozein gizaki, *guzurti*, idatzita dagoanez: *Zure itzetan zintzo agiri zaitetzan, eta ebatzia izan zaitetzanean, irabazi dagizun**. ⁵ Baiña bidebakekeriak Jaungoikoaren zuzentasuna agiriago jarten ba' dau, zer esango dogu? Ala, bidebagea izango ete-da Jaungoikoa bere asarrea jaurtiten dauanean? (giza-legez diardut itz egiten, gero.) ⁶ Ez orixe! Beste-

³ 1 Legea Israeli emon yakon. Baiña mesede aundi onek ez dau pekatariarik Jainkoaren asarretik babesten, 9-11.

³ 4 Sal 116 11; Sal 51 6.

³ 8 Sal 14 1-3; 5 10; 140 4; 10 17; Is 59 7-8; Sal 36 2.

la, barriz, zelan epaituko leuke Jaungoikoak gizarte au? ⁷ Baiña nire guzurragaitik, Jaungoikoaren aintzarako, bere egia geiago agertzen ba' da, zegaitik izan bear ete-naz ebatzia pekatari lez? ⁸ Eta —gutzaz txarto berba egiten dabenez, eta batzuek geuk diñogula diñoenez—, ez ete-dogu oker egin bear zuzena etorri dadin? Izan be, orrelakoai zuzen dagokie ondapena.

⁹ Zer, ba? Areik baiño obeak ete-gara? Ez orixe! Guztiak, judar eta gerkarrak, pekatuaren menpean dagozala egiaztu dogu, ¹⁰ idatzita dagoanez:

«Zintzorik ez dago bat bera be.

¹¹ *Ez dago ulertzen dauanik, ezta Jaungoikoaren billa dabillanik be.*

¹² *Guztiak okertu egin dira, guztiak alkarregaz gauza-az egin dira; ez dago on egin dagianik, bat bakarrik be ez.*

¹³ *Arein iztarria illobi zabal da; azpikeria dabe miñean; euren expan-barruak suge-edena dabe;*

¹⁴ *agoa madarikapenez eta marroz beterik;*

¹⁵ *ariñak dira arein oiñak odola isurteko;*

¹⁶ *nekea ta zoritxarra ugari arein bideetan,*

¹⁷ *eta bakebiderik ez eben ezagutu;*

¹⁸ *Jaungoikoaren bildurrik ez dago arein begien aurrean**.

¹⁹ Ba-dakigu, orraitaiño, Legeak diñoan guztia, Legepean dagozanentzatzat diñoana, ago guztia isilik eta gizaldi osoa Jaungoikoaren aurrean pekatari agertu dadin. ²⁰ Izan be, ez da iñor *Arein aurrean* Legea beteaz *zindotuko*: Legeak pekatuaren ezagueria baiño ez dau emotentea*.

³ 20 Sal 143 2. Gure zindokuntzaren oiñarrria, Jainkoaren zuzentasuna da, 1 17+, eta Jainkoaren leialtasuna, salbaziorako egin dauskuzan agintzariak bete-tean, 4 13-20. Legea *gu-geu* ez garan zerbait da, gugandik aparte dagoan araudi

B. Jaungoikoaren zuzentasuna, eta fedea**Jaungoikoak gizarteari osasuna Kristo'gandik emon dautso**

²¹ Baiña orain, Lege bagarik, Jaungoikoaren zindokuntza agertu da, Legearen eta Profeten bidez autortuta. ²² Jesukristo'ren sinistez, Jaungoikoak emoten dauan zindokuntza au, Aren sinistea daben guztientzatzat da, iñoren alderik ez dago-ta. ²³ Guztiak pekatu egin eta Jaungoikoaren ederra galdu dabe*; ²⁴ orain, barriz, utsean emoten yake zindokuntza, Jesukristo'k arein alde egin eban erospenagaitik*; ²⁵ Jerukristo aukeratu dau Jaungoikoak, bere odolaren bidez, sinismenaren bitartez, opari eztiagarri izan dadin*. Leen egindako pekatuak parkatzean, bere zuzentasuna erakusteko egin eban ori: ²⁶ ain eroapen aundiz Jaungoikoak

eroandako pekatuak, bere zuzentasuna aldi onetan agertzeko: Bera bakarrik dala zuzena, eta Jesus'en sinistea daben zuzentzaillea be Bera dala adierazorik.

²⁷ Nun dozu, beraz, arrotzeko biderik? Alde-eraginda dago. Zein legek alde-eraginda? Egintzenak? Ez; siniste-legeak baiño*. ²⁸ Gizona, Lege-egintza bagarik, sinistez zindotzen dala uste dogu-ta. ²⁹ Jaungoikoa, judarrena bakarrik ete-da? Ala, jentillena be bai? Bai orixe!, baita jentillena be. ³⁰ Izan be, bat bakarra da sinismenaren bidez erdaintzuntza eta erdaintzuntzaren zindotzen dauzan Jaungoikoa. ³¹ Beraz, guk, *Moises'en* Legeari *Jesukristo'ganako* sinismenagaitik indarra kentzen dautsagula? Ez orixe! Orrela Legea sendotu egiten dogu.

D. Abraham eredutzat**Abraham'en zindokuntza***

4 ¹ Beraz, zer esango dogu aragiz geure aita dan Abraham'i buruz? ² Abraham egintzen bidez zindotu ba'litz, arrotzeko zerbait izango leukean; baiña ez Jaungoikoaren aurrean. ³ Zer diño, ba, Liburu Santuak? *Sinistu eban Abraham'ek Jaungoikoa, eta zindokuntzarako ezarri yakon**. ⁴ Lan egin dauanari,

ez yako saria esker-saritzat ezarten, ordain zuzentzat baiño. ⁵ Baiña gaiztoa zindotzen dauanari sinisturik, lanik egin ez dauanari, sinismen au zindokuntzarako ezarten yako. ⁶ Jaungoikoak zindokuntza egintza bagarik ezarten dautsana, zoriontsu dala autortzen dau Dabid'ek be:

⁷ *Zoriontsuak gaiztakeriak parkatu eta pekatuak estaldu izan yake-zanak!*

bat. Beraz, legeak ezin daike pekatuak kendu, kontzientziari pekatua nun eta zetan dagoan erakutsi baiño, 4 15; 7 7+.

³ 23 Jainkoaren *ederra*, Jainko Santua gegan, adiskide lez, eukitea da, Ur 24 16+.

³ 24 *Erospena*, au da, Mesias'ek ekarri bear eban askatasuna, Is 41 14+; cf. Zn 33 19+, Kristo'k ekarri dausku, Ko 1* 1 30; Lk 1 68; e.a. Berak askatu dau, Tm 1* 2 6; Mt 20 28+, bere odolaz, Ap 20 28+; Kol 1 20+; Ebr 9 12; Ag 1 5, Israel barria; Legetik eta pekatutik askatu be, 6 15+.

³ 25 *Opari-kutxea*, Ur 25 10+, *Peaturodaintza*-egunean odolaz txipristintzen zan, Ab 16. Alkartasun Zaarrean irudiz egiten zana, Kristo'k egiz bete eban, pe-

katu guztien zorra bere odolaz ordaindurik.

³ 27 *Moises'en* Legea beteten dauala-ta, iñok ez dauko arro-puztuteko ziorik. Salbatzen dauan lege bakarra *sinismena* da. Sinismenak osotu egiten dau Legea, 31.

⁴ 1 Auxe da emen Paulo'k argi adierazo nai dauana: *Abraham* dala sinismenaren bidez zuzenbideratzen diran guztien aita, Ga 3 6-9.

⁴ 3 As 15 6'garrenetik jasoa. Judarrak oso goratzen eben Abraham'en leialtasuna, egite onak eta erdaintzuntza, Jk 10 5; Si 44 20-23; cf. Eb 2 14+. Paulo, barriz, guzti orrean oiñarrira doa, au da, Abraham'en *sinismenera*. Sinismena ta zuzentasuna, bat eta bera dira Jainkoaren aurrean, 11.

⁸ *Zoriontsua Jaungoikoak pekatu-rik ezarri ez dautsan gizona*!*

⁹ Baiña zorion au, erdainuena bakarrrik, ala erdainbagea be ba'eteda? *Sinismena Abraham'i zindokuntzarako ezarri yakon* diñogu-ta. ¹⁰ Noiz ezarri yakon, ba? Erdaindu aurretik, ala erdaindu ondoren? Erdaindu zanean ez, erdaindu aurretik baiño. ¹¹ Eta erdainbage zala sinismenez lortutako zindokuntzaren ezaugarritzat, erdain-ezaugarria gero artu eban: erdainbage diran sinistadun guztien aita izan zedin. ¹² Baita erdainduen aita be izan zedin; baiña erdainuena bakarrrik ez, baita gure aita Abraham'ek erdainkuntza aurretik eukan sinismenaren lorratai jarraitzen dautseenena be izan zedin.

¹³ Izan be, lurraren oiñordeko izateko, Abraham'i ta onen ondorengoai egin yakon agintzaria, ez zan Legearen bidez izan, sinismenaren zindokuntzaren indarrez baiño*. ¹⁴ Oiñordekoak *Moises'en Legeko* diranak soillik ba'litzaz, sinismena alperrekoa litzakean, eta *Jaungoikoaren* agintzaria indarbagea. ¹⁵ Legeak, ausleen aurka, *Jaungoikoaren* asarrea dakar; Legerik izan ezik, barriz, Lege-austerik be ez zan. ¹⁶ Beraz, agintzaria sinismenaren bidez dator, utsean izan dadin: agintzaria *Abra-*

han'en ondorengo guztientzat izan dadin; legea artu dabeneztat bakarrrik ez, guztion Aita dan Abraham'en sinismenari jarraitzen dautsoen guztientzat be bai, ¹⁷ idatzita dagoenez: *Erri askoren aitatatzat jarri zaitut**, illai bizitza emon eta, diranai lez, ez diranai be dei egiten dautsen Jaungoikoaren aurrean, sinistu egin eutsan-eta.

¹⁸ Abraham, uste osoaren aurka uste izanik, erri askoren aita egin zan, sinistu egin eban-eta, esan yakonez: *Orrenbestekoa izango da zure azia**. ¹⁹ Eta eunen bat urteko zala, sinismenean ez zan makaldu, bere gorputza aulduta eta Sara'ren sabela agor eginda egoanarren be. ²⁰ Jaungoikoaren agintzariaren zalantzarik be ez eban uste otzez izan, sinismenez sendotu baiño, Jaungoikoari aintza emonik: ²¹ agintzaria egin dauan *Jaungoiko*, agintzaria beteteko be aaltsua zala uste osoz sinisturik. ²² Ori zala-ta, *sinismena zindokuntzarako ezarri yakon*.

²³ Eta ez dago aretzaz bakarrrik idatzita *zindokuntzarako ezarri yakola*, ²⁴ geutzaz be ba-dago: Jesus gure Jauna illen artetik barriro biztu ebanaren sinismena ba'dogu, geuri be ezarriko yaku: ²⁵ *gure pekatuakaitik Jesus eriotzarako emona izan* eta geure zindokuntzarako biztu zan barriro-ta*.

2. SALBAMENA

Jesukristo'ren sinismenak dakazan ondorengo onak

⁵ Beraz, sinistez zindotuta*, Jaungoikoaren bakea daukagu Jesukristo gure Jaunaren bidez. ² Beragaitik, grazi onetara sartzeko

4 8 Sal 32 1-2'garrenetatik jaso.

4 13 *Sinismenaren zindokuntza*, sinistean datza, 3; 3 27. Abraham'en oiñordeko izatea Jainkoaren *agintzariari* bakar-bakarrrik zor dautsagu; eta agintzari ori geuganatzeko bidea, sinismena da, Ga 3 6-14.

4 17 As 17 5'garrenetik jaso.

4 18 As 15 5'garrenetik jaso.

atea be zabaldu egin yaku, eta Jaungoiko-semeen aintzaren ustez poztuta gabiz*. ³ Eta au bakarrrik ez, naigabeak eroapena, ⁴ eroapenak onoimen sendoa, eta onoimen sendoak itxaropena

4 25 Abraham'i jazotakoa argigarri da kristauontzat. Jainkoak emoten daukun zindokuntzak Kristo'ren eriotzeagaz eta berbizeagaz alkartzen gaitu, cf. 8 32; Is 53 6, 12; 1 4; 5 10; 6 4-5; Kol 2 11-13.

5 1 Dalako zindokuntza au sinismenaren bidez lortua da. Bardin jazo zan Abraham'egaz.

5 2 Fededunen aunditasun bakarra *itxaropena* da, cf. 3 27, betiko ondasunen

na dakarrela jakiñik. ⁵ Eta itxaropen nek ez dau marrorik egiten: Espiritu Santuak emon daukun Jaungoikoaganako maitasuna gure biotzetan isurita dago-ta*. ⁶ Izan be, oraindiño *pekatuaz* gu indar bagarik gengozala, iragarritako aldian gaiztoen alde Kristo il zan. ⁷ Badaiteke ongillearen alde bizitza emoteko norbait egotea; edozein zintzoren alde bizia emon dagianik, barriz, ozta-ozta idoroko (aurkituko) litzake. ⁸ Baiña Jaungoikoak gugana-

ko bere maitakuntza erakusten dau, gu pekatari izanik, Kristo geure alde il zan-eta. ⁹ Beraz, orain bere odolaz zindotuak garan ezker, askozaz geiago salbatuko gaitu asarretik. ¹⁰ Aren arerio gintzazala, Jaungoikoak bere Semearen eriotzagaitik bere adiskidetzat artu ba'gaitu, askozaz geiago urtengo gara onik Aren biziaz orain. ¹¹ Eta ori bakarrrik ez, baita Jaungoikoagan be arrotzen gara, Jesukristo gure Jaunaren bidez: oraingo adiskidetasuna Beronegandik jadetsi dogu-ta.

A. Pekatutik, eriotzatik eta legetik askatzea

Adan eta Kristo*

¹² Beraz, gizon baten bidez sartu zan pekatua gizartean, eta pekatuaren bidez, eriotza; eta alan, eriotza gizaki guztiakana eldu da, guztiak egin eban pekatu-ta*. ¹³ Izan be, Legea baiño leen, gizartean pekatua zan; baiña, *orduan Legerik idatzita* ez egoan ezker, ez yakon iñori pekatu-rik ezarten. ¹⁴ Alan be, Adan'egandik Moises'eganañiño eriotza zan nagusi, Adan'en antzeko pekatu-rik ez ebenen gainean be, Etortekoaren eredia *Adan* izanik.

¹⁵ Baiña graziaz ez da izan pekatuaz lez. Izan be, baten pekatuaz guztiak* il ba'dira, askoz ugariago

izan dira guztientzat Jaungoikoaren grazia ta doia, gizon bakar baten graziaz: Jesukristo'renaz. ¹⁶ Eta ez da izan doia, pekatu egin eban bakarraren ondorena lakoa: pekatu batek ondamendirako epaia dau; doaiak, barriz, pekatu askotatik zindokuntza. ¹⁷ Bategandik, gizon baten utsegiñez eriotza nagusi geratu ba'da, grazia, doia ta zintzotasuna oparo artzen dabezanak, bizia- ren jabeago egingo dira bategaitik, Jesukristo'gaitik.

¹⁸ Beraz, baten pekatutik gizaki guztiak ondamera etorri yakenez, baten zindotasunetik be gizaki guztiak bizirako zindokuntza eldu yake. ¹⁹ Eta baten menpetasun-ezagaitik

itxaropena, 8 18-25+; Ef 1 18; Kol 1 27; Ts 1^a 4 13; 5 8; Jn 1^a 3 2+; P 1^a 1 3-4. Ondasunok, Ga 5 5; Kol 1 5, gizaseme guztiak, ez Israel'i bakarrrik, eskeintzen dautsez Jainkoak Kristo'ren bitartez, 16 25+; Ef 1 18; Mt 12 21. Itxaropen au fedegaz eta maitasunagaz alkartuta dago, Ts 1^a 1 3; Ko 1^a 13 13. Itxaropen nek sortzen dauzan ziurtasun eta sendotasunak ezin daike kilikolorik egin, 5 4; 8 18-25; 12 12; Ebr 6 17-19; e.a.

5 5 Jainkoak daukun *maitasuna*, 8 31-39. Maitasun onen seiñale ta lekuko geugan dagoan Espiritu Santua da, 8 15; Ga 4 6. Ikusi 8 28. Alkartasun Barriko Espiritua, Ga 3 14; Ko 2^a 3 6+; Ap 2 33+; Ez 36 27+, ez da aal-izatea ta kemena bakarrrik, Ap 1 8+; Ko 1^a 3 16; 6 19; Ts 1^a 4 8; Lk 11 13; Jn 14 16-17+; espirituzko bizitza barri baten oiñarria da, Ap 2 38; Ts 1^a 4 8; Lk 11 13; Espiritu ori geugan dago, eta Jainko-seme biurtzen

gaitu, 8 14-16; Ga 4 6.

5 12 Kristo ta Adan, *leen-gizona*, aurrez-aurre ezarten daukun Paulo'k. Olan ikusi aal izango dogu argi zelako saribitxia emon daukun Jainkoak Jesukristo emotean. *Eriotza* ta pekatua Adan'en bidez sartu dira gizadian, Jk 1 13+; 2 24. Kristo da gizadiaren buru barria, 15-19; Ko 1^a 15 21-23, 45. Eta Kristo'k gainezka salbatu dau gizona pekatutik eta betiko eriotzatik. Gorputzaren eriotza Adan'i zor dautsagu; betiko bizitza, oster, Kristo'ri. Adineko gizasemeak (onekaz diardu Paulo'k), eurak egindako pekatuen bidez betiko eriotza irabazten dabe, Jainkoaren aurka jarriarik Adan'en antzera. Zelako lokarrik alkartzen diran Adan'en pekatua ta gizasemeena, ez diño argi Paulo'k.

5 15 Adan *bakarrak* egiña, negurri bagarik gainezkatuko dau Jesukristo *bakarragandik* datorkigun salbamenak.

guztiak pekatari egin ziranez, beste baten menpetasunagaitik be guztiak zindotuko dira*.

²⁰ Legea etorrita gero, barriz, pekatua be ugaritu egin zan. Baiña pekatua ugari izan zanean, ugariago sortu zan grazia; ²¹ orrela, pekatua, eriotza emonaz, nagusi izan zanez, grazia be, gu betiko bizitzara eroateko, zuzentasunaren indarrez nagusi izan da, Jesukristo gure Jaunaren bidez.

Bateoa artu ondoren, Kristo'gaz alkartuta bizi bear dogu

(Kol 2, 12-13; Tt 3, 5-7; P 1^a, 3, 21-22)

6 ¹ Zer esango dogu, ba? Pekatutan egongo gara, grazia ugari izan dadin? ² Ez orixe*! Pekatuari il izan gaiakozanok, zelan bizi izango gara aretan onezkerok? ³ Ala, ez al-dakizue, Jesukristo'rentzat bateatuak izan garanok, Aren eriotzarako izan garana bateatuak? ⁴ Izan be, bateoaren bidez Kristo'gaz lurperatuak izan gara: Kristo illen artetik Aitararen aintzarako barriro biztu zanez, geuk be bizikera barri bat bizi daigun*.

⁵ Aren eriotzaren antzera Aregaz mentu eginda ba'gagoz, Aren biztueraz be bardin jazoko yaku. ⁶ On-do dakigu gure gizaki zaarra Aregaz batera gurutzatuta izan dana: guran pekatuaren gorputza austuta gero, pekatuaren morroi bein be izan ez gaitez. ⁷ Il dana, pekatutik askatuta geratzen da.

⁵ 19 Jesukristo'gan bir-jaiotz zintzotuko dira gizasemeak. Adan'en eta Kristo'ren kidedasuna argi ikusten da emen.

⁶ 2 Arritzekoa da Paulo'k egiten dauan itaun au. Baiña, ziur asko, arerioak bein eta barriro Paulo'ri berari egindakoa dala dirudi, cf. 3 5-8.

⁶ 4 Bateoa sinismenaren ezaugarria da. Bardiñak dira bion ondorenak, 3-9; Ga 2 16-20. Kristo'ren eriotzan murgilduz, Kristo'gaz berbizitu egiten da pekataria, eta bizitza bairiz jantziten, 23; 8 11+; Ko 1^a 5 7-8+; Ko 2^a 5 17+; Ef 2 6+; Jn 1 4+, 12+; Ap 5 20+. Ikusi besteok be: Mt 3 6+; Ap 1 5+; Ef 5 26; Tt 3 5+; Ko 2^a 5 21.

⁶ 10 Geurearen antzeko aragia artu dau

⁸ Eta gu Kristo'gaz il ba'gara, bizi be Aregaz batera bizi izango gara sinisten dogu; eta ba-dakigu, ⁹ Kristo'k, illen artetik biztu dan ezkerok, barriro ilterik ez daukana; aurrerantzean, eriotzak ez dau Aregan eskubiderik. ¹⁰ Il, bein betiko il zan pekatuarentzat*. Bizi, Jaungoikoarentzat bizi da. ¹¹ Bardin zeuk be: gogoratu egizue *bateoaz* pekatuarentzat ilda zagozela, eta Jaungoikoarentzat bizi zareela, Jesukristo gure Jaunagan.

Pekatuaren eta Jaungoikoaren morroitz

¹² Beraz, ez bedi zuen gorputz ilkorrean pekatua nagusi izan*, aren zalekeriai esanik egin ez dagiezuen. ¹³ Zuen gorputz-atalak be pekatuari ez egiozuez geiago gaitzakeritarako iskillu (arma) izateko eskini: illen artetik biztutakoen antzera, eskiñi egiozuez Jaungoikoari zuen buruak eta gorputz-atalak, zindokuntzarako iskillu izateko. ¹⁴ Pekatua ez da aurrerantzean zuen nagusi izango: legepean ez zagoze-ta, graziaren azpian baiño.

¹⁵ Zer, ba? Legepean ez, eta graziaren azpian gagozala-ta, pekatu egingo ete-dogu? Ez orixe*! ¹⁶ Ala, ez al-dakizue, inoren joputzan otsein sartzen zarenean, arein otsein zareena, pekatuaren otsein eriotzarako, edo *sinismenaren esaneko* zindokuntzarako? ¹⁷ Baiña, Jaungoikoari eskerrak, pekatuaren otsein zintzazanak, erakutsi yatzuen ikasbidea

Kristo'k, 1 3; 8 3; Ebr 4 15. Aragi au iztean, *espirituzkoa* biurtu da, Ko 1^a 15 45, eta pekatuaren mundutik alde-egin dau, 7 1+; Ko 2^a 5 21.

⁶ 12 Bateatuak, Kristo'gan bizi dan ezkerok, 11, ez leuke pekatutik egin bein; baiña, dana dala, pekatuaren menpean jausten da barriro be, 7 14-24; Cf. Jn 1^a 3 6+.

⁶ 15 Pekatutik eta Legetik askatu egiten gaitu Kristo'k, cf. 3 24+. Pekatuaren morroi izatetik *askatasunera* etorri gara, 8 15, 21; eta bide batez, Jainkoaren eta Kristo berbizituaren serbitzari izatera, seme kutun eta esaneko lez, 6 12; Ef 6 6; Ts 1^a 1 9; Ko 1^a 7 22; Mt 6 24; Ga 4 7; 5 1+; Jn 8 31; 15 14-15; Jos 24 29+.

biotzez artu dozue; ¹⁸ eta pekatutatik askatuta, zindokuntzaren otsein egin zaree. ¹⁹ Aragiz argalak zareen ezkerok, gizabidez dirautsuet: oker egiteko, zuen gorputz-atalak leen loikeritarako ta gaitzakeriak egiteko erabilli zenduezanez, orain zuen gorputz-atalok zuzentasunaren menpera ekarri dagizuezala.

²⁰ Pekatuaren morroi zintzazanean, zintzo izateko eskubidea zenuen (zeuken.) ²¹ Baiña, ze frutu lortu zenuen orduan? Orain lotsarazoten zaituezan frutuak: arein muga, eriotza da-ta. ²² Orain, barriz, pekatutatik askatuta, Jaungoikoaren morroi eginda zagozen ezkerok, santutasuna dozue frututzat, eta betiko bizitza elburutzat. ²³ Pekatuaren saria eriotza da-ta; Jaungoikoaren doaa, barriz, betiko bizitza, Jesukristo gure Jaunaren bitartez*.

Kristo'ren jarraitzaileak ez dagoz Moises'en legepean*

7 ¹ Edo-ta, ez al-dakizue, anaiok —legea ezagutzen dabena dirautset—, legea gizonari bizi dan artean bakarrik yakola nagusi? ² Izan be, emaztea, senarra bizi dan artean, senarrari Legez lotuta dago; baiña, senarra ilda gero, senarragazko legetik askatuta dago. ³ Beraz, senarra bizi yakon emaztea beste gizonezko bategaz alkartu ba'dadi, ezkontza-

naastaille izango da; baiña, aren senarra il ba'dadi, senarrari buruzko legetik askatuta dago; eta beste senar baten emazte egin ba'dadi, ez da ezkontza-naastaille izango. ⁴ Orrela zuek be, ene anaiok, Kristo'ren gorputzaz Legeari il zintzakiozen, beste batenak izateko, illen artetik biztu zan Kristo'renak izateko, Jaungoikoari frutuak ekarri dagioguzan. ⁵ Aragi-pean* genbiltzanean, Legeak zirikatutako pekatuen griñak gure gorputz-ataletan frutu ilkorrak ekartzen ziarduen. ⁶ Orain, barriz, lotuta geukazan eriotz-legetik askatuta gagoz, espiritu barriz *Jaungoikoa* otseindu dagigun, eta ez antxiñako lege-berbaz.

Legea ta pekatua*

⁷ Zer esango dogu, ba? Legea pekatu dala? Ez orixe! Baiña pekatutik ez neban ezagutu Legez izan ezik. Legeak, *ez dozu zalekeririk nai izango* esan ez ba'leust, zalekeririk ez neukean ezagutuko. ⁸ Eta pekatuak, agindutik bide arturik, zalekeri guztiak biztu ebazan nigan: Lege bagarik, pekatua ilda egoan-eta. ⁹ Noizbait ni Lege bagarik bizi nintzan; baiña, agindua etorri zanean, pekatua barriro biztu zan, ¹⁰ eta ni il egin nintzan; eta bizirako yatan agindu a, eriotzarako izan yatala konturatu nintzan.

⁶ 23 Betiko bizitzaren doai au, 6 4+; cf. Jn 3 15+, geroago azalduko dau Paulo'k biribillago, 8'garren atalean.

⁷ 1 Legea betetea Jainkoa serbitzea zan. Baiña graziaren bidea sakonago ta urriñago doa, au da, Legetik be askatu egiten dau bein eta betiko, 3 20; 5 20; 7 7+. Sinismenaren eta graziaren bidez kristaua ilda dago Legearentzat eta pekatuarentzat, 6; 6 2, 11; 8 1-4; Ga 2 19; Kol 3 20.

⁷ 5 *Aragia*, leenengo ta bein, gorputza bera da, Ko 1^a 15 39; Lk 24 39; e.a., gorputz ilkor eta makal au, 6 19; Ko 1^a 29+; Ko 2^a 7 5; Mt 24 22; 26 41. Beste batzuetan, barriz, *aragia*, Kristo etorri aurreko salbamen-bidea da, 9 8+. Bestalde, Paulo'k sarritan griña ta pekatuen iturburutzat artzen dau *aragia*, 13 14; Ga 5 3-21. Baita gaitz-indartzat be, 8 4-9,

Kristo'k, aragi biurtuz, menperatu dauan gaitz-indartzat, 8 3; Ef 2 14+; P 1^a 3 18; 4 1; Jn 1 14. Bateatutik egon askatuta dagoz gaitz-indar orretatik, 8 9; Ko 2^a 10 3; Kol 2 11.

⁷ 7 Jainkoaren naia agertzen dauanez, ona da Legea, 7 12; cf. 3 2; 9 4; Dt 4 1+; 1^m 1^a 1 8+, baiña ezin dau inor zindotu, 3 20; Ga 3 11-13. Legeak pekatua zetan dagoan erakusten dau, baiña ez dau pekatuaren aurka indarririk emoten. Eta, beraz, pekatuak bidea da, 4 15; 5 13; Ga 3 19+. Legearen bidea aldi baterako baiño ez zan izan, 10 4; Ga 3 24. Lege orri Kristo'k emon eutsan azkena bere graziaren bidez, Erm 3 31; 10 4; Ef 2 15; Mt 5 17+. Kristo'ren grazia au sinismen, espiritu ta maitasunezko *legea* da, 3 27; 8 2; 13 8+, eta askatasunezko, 6 15+; St 1 25 (Ur 20 17'garrenetik eta Dt 5 21'garrenetik jasotako aipamenak).

¹¹ Agindutik bide arturik, pekatuak iruzur egin eustan*, eta aren bitartez, il egin nenduan.

¹² Beraz, Legea santua da: agindua be santua, zuzena ta ona da.

Pekatuaren indar txarra

¹³ Beraz, ona dana, eriotza biurtu ete-yat? Ez orixe! Pekatuak, bere gaiztakeri guztia agertzeko, eriotza nigan onaren bidez sartu dau, aginduaren bidez pekatua oso gaiztake-ribide egin zedin.

¹⁴ Ba-dakigu Legea espirituzkoa dana; ni, barriz, aragizkoa naz, eta pekatuari saldutakoa*. ¹⁵ Egiten dodana be ez dot ulertzen, nai dodan ona ez dot egiten-eta; iguingarri yatana, ostera, orixe egiten dot. ¹⁶ Nai ez dodana egiten ez ba'dot, barriz, Legea ona dala autortzen dot. ¹⁷ Orain, barriz, ez naz ni ori egiten dodana, nigan bizi dan pekatua baiño. ¹⁸ Ba-dakit ez dana

B. Kristauaren bizitza espirituagan

Espirituaren bizitza*

S¹ Beraz, orain galtzegarririk ez dago bat be Jesukristo'gan bizi diranentzat: ² Jesukristo'gan dagoan bizitza espiritu-legeak, pekatuaren eta eriotzaren legetik askatu egin zaitu-ta. ³ Izan be, Legeak ezin egin eikeana —aragiak legea makalduta eukan ezker—, Jaungoikoak burutu egin eban, bere Semea pe-

nigan edo nire aragian onik: ona nai izatea, neugan dago, bai; ona egitea, ostera, ez. ¹⁹ Izan be, nai dodan ona ez dot egiten, nai ez dodan txarra baiño. ²⁰ Nai ez dodana egiten ba'dot, barriz, ez naz ni ori egiten dodana, nigan dagoan pekatua baiño*.

²¹ Beraz, Lege au somatzen dot nigan: ona egin nai dodanean, nire aurrean txarra agertzen dala. ²² Barruko gizon aldetik, Jaungoikoaren Legea atsegin dot; ²³ baiña nire gorputz-ataletan beste bat somatzen dot, nire adimen-legearen aurka diarduana, nire gorputz-ataletan dagoan pekatu-legeari lotuta naukana.

²⁴ Nire zoritxarra! Nok askatuko nau gorputz ilkor onetatik*? ²⁵ Jaungoikoari eskerrak, Jesukristo gure Jaunaren bidez!

Bitartean, adimenez Jaungoikoaren Legeari nago lotuta; aragiz, barriz, pekatu-legeari*.

katu-aragi irudiz pekatu-ordaintzat bialdurik: ⁴ guban, aragi-bidea itzita, espiritu-bidetik gabizanokan, Legea bete zedin*.

⁵ Aragiaren eratara bizi diranak, aragiaren gaiak nai izaten dabez; espirituari dagokionez bizi diranak, barriz, espirituaren gaiak nai. ⁶ Eta aragiaren zalekeria, eriotza da; espirituaren guraria, barriz, bizitza ta

7 11 Iruzur egin eustan: esaera au As 3 13'garrenetik artuta dago.

7 14 Kristo'ren grazia artu baiño leen, pekatuaren menpean dagoan gizonari buruz diardu emen Paulo'k. Kristauak bere barruan daron burrukea, beste era batekoa da, Ga 5 17-18.

7 20 Paulo'k bein eta barriro esango dauku, gizonak, bere egite on naiz gaiztoen jaun ta jabe danez, berak erantzun bear daua.

7 24 Burruka onetatik askatzea gura dau gizonak. *Gorputzak*, bere soin-atal eta zentzumenakaz, gizona aragiaren, pekatuaren eta eriotzaren buztarpean jarten dau, naiz-ta oraindik Espiritu Santuaren bizi-toki izan eta berbizkunde-

rako doaz ormiduta egon, 12 4; Ko 1^a 5 3; 12 14-20; 7 5+; Kol 2 11; 1 24; Ko 1^a 6 18; 6 12; 5 5+; Ko 1^a 6 19; 15 44; Flp 3 21.

7 25 25'garren atalxo au zubitxo bat lez da, 7 23'tik 8 1-4'garrenetara igaroteko.

8 1 Beste bideak alperreko ta guzurrezkotzat baztatu ondoren, Kristo'gan-diko bizitza-legea, 2, zer dan aztertuko dau Paulo'k. Bizitza au barrutikoa da, espirituzkoa ta Espiritu Santuagandik datorrena. Lege onen esan-naia ez da beti bardiña Paulo'gan. Jardunean ikusi bear emoten dauzan zentzuna, cf. 1 9; 5 5+.

8 4 Sinismenaren bidez datorkigun zindokuntza, maitasuna da azken baten, 3 31; cf. Mt 5 17+; Erm 13 8-10+; Ga 5 14; Mt 22 40.

bakea. ⁷ Aragiaren guraria, Jaungoikoaren arerio da; Jaungoikoaren legeari josita ez dago-ta, ezta josi be ezin egin daiteke.

Aragiari dagokionez bizi diranak

⁸ Aragiaren eratara bizi diranak, Jaungoikoaren ederra ezin izan daik-ke. ⁹ Zuek, barriz, ez zaree aragiaren eratara bizi, espirituari dagokio-nez baiño, zuekan Jaungoikoaren Espiritua bizi ba'da beintzat. Baiña Kristo'ren Espiritua ez daukana, au ez da Kristo'rena. ¹⁰ Zuekan Kristo egon ezker, barriz, gorputza pekatuagaitik ilda dago, bai; baiña espiritua zuzentasunagaitik bizi da. ¹¹ Eta zuekan Jesus illen artetik biztu dauanaren *Jaungoikoaren* Espiritua bizi ba'da, illen artetik Jesukristo biztu ebanak, zuen gorputz ilkorrak be biztu egingo dauz zuekan dagoan bere Espirituaz*.

¹² Beraz, anaiok, zordun gara; ez gero aragiaren zordun, aragiaren eratara bizi izateko. ¹³ Aragiaren eratara bizi ba'zaree, il egingo zaree; espirituaren indarrez, aragiaren zalekeriak zapaltzen ba'dozuez, barriz, bizi izango zaree.

Kristaua, Jaungoikoaren seme

(Ga 4, 4-7)

¹⁴ Jaungoikoaren Espirituak darabizanak, Jaungoikoaren seme dira. ¹⁵ Zuek artu dozuen biotza ez da morroi-biotza, leen lez bildurrez ibiltekoa; semetzako biotza artu dozue, eta onen indarrez *Jaungoikoari* «Abba, Aita» egiten dautsagu dei*. ¹⁶ Espiritu Santuak berak dirautso gure biotzari Jaungoikoaren

seme garala. ¹⁷ Seme ba'gara, barriz, oiñordeko be ba-gara; Jaungoikoaren oiñordeko gara, izan be, eta Kristo'ren oiñorde-lagun: Aregaz goratuak izateko artzen doguz nekeak-eta.

Oraingo nekeak eta geroko goraldia

¹⁸ Oraingo nekeak ezer ez dira, nire ustez, gero guban agertuko dan edertasunaren aldean*. ¹⁹ Jaungoikoaren semeak noiz agertuko ete-diran dagoz gizaki guztiak. ²⁰ Gizakiak, izan be, uskeripean azpiratuta dagoz, ez euren gurariz, azpiratu dauanaren egiñez baiño: ²¹ areik be (*gizakiak be*), ustelkeriari buruzko menpetik askaturik, Jaungoiko-semeen eskubide ederrera etorriko diralakoan. ²² Bitartean, ba-dakigu gizaki guztiak negarrez eta seingintza-miñez dagozana. ²³ Gizakiak bakarrik ez gero, geu be bai, antziz gagoz, Espiritu Santuaren asikiñak daukaguzanak, Jaungoikoaren semetzakoa ta gorputzaren erospena itxaronez. ²⁴ *Orain arte*, itxaropenez izan gara askatuak. Ikusten dan itxaropena ez da itxaropena. Izan be, ikusten dana, zetarako itxaron? ²⁵ Eta ikusten ez dogunaren zain egoteko, iraupenez itxaron bear.

²⁶ Gaiñera, Espiritu Santuak berak egiten dautso lagun gure makaltasunari, on yakuna eskatzen ez dakigu-ta; Espiritu Santua bera jarten da gure alde ezin esan-alako antziz. ²⁷ Eta biotzak aztertzen dauzan Arek, ba-daki Espiritu Santuak gura dauana: zintzoen alde Jaungoikoaren eratara eskatzen dau-ta.

8 11 Aitak Espiritu bizi-emoillearen bidez berbizu dau Semea, 1 4+, eta berbiztuko gaitu kristauok be, Jainko-semeen *bizitza barriaz* bizi garanok, 13-17, 29-30; 6 4+; Ga 2 20; Ko 1^a 6 14; Ko 2^a 4 14; Ef 2 6.

8 15 Cf. Mk 14 36; Ga 4 6. Jainko-semeok Jainko-Semeagaz doguzan artu-emonak, urrengo atalxoetan, 15-17, azal-

tzen dira.

8 18 *Aintzaren edo edertasunaren agertze* au, cf. Ko 1^a 2 9-10; Ko 2^a 4 17+; Kol 3 3-4, izadi osora elduko da, 19-22. Mundu au, gizonarentzat egiña, As 1 28; 2 19, eta gizona dala-ta madarikatua, As 3 17-19, gizonaren askatasunean partekide izango da, Ef 1 10; Kol 1 16-20; P 2^a 3 12-13; Ag 21 1+.

Aukeratuai buruzko Jaungoikoaren asma

(Ef 1, 4-14)

²⁸ Ba-dakigu, gainera, Jaungoikoa maite dabena^{*} ta Aren erabagiz deituai, guztia onerako datorkiela. ²⁹ Aurretiaz ezagutu dauzanak, bere Semearen irudiaren antzeko egin zeitezan be aurretiaz aukeratu eban, anai askoren len-semea Berbera izan zedin^{*}; ³⁰ aurretiaz aukeratuok, barriz, aurretiaz deitu be egin eban; deituok, barriz, zindotu; eta zindotuok, goratu^{*}.

³¹ Onezkero, zer esango dogu? Jaungoikoa geure alde izan ezker, nor gure aurka^{*}? ³² Bere Seme berbera ukatu bearrean, guztion alde emon euskunak, zelan ez daukuz Aregaz gauza guztiak emongo? ³³ Nor egingo da Jaungoikoak auke-

ratutakoen salatzaile? Zindotzen dauana Jaungoikoa izanik, nok galduko dauz? ³⁴ Jesukristo izango ete da, il eta barriri biztu be egin zana, Jaungoikoaren eskumaldean dagoana, gure bitarteko dana?

³⁵ Nok alden du gu Kristo'ren maitasunetik? Naibageak?, larriak?, goseak?, billoizik egoteak?, arriskuak?, aurrean erabilteak?, ezpatak? ³⁶ Idatzita dagoanez: *Zugaitik al-zorian gagoz egun osoan; eriotzara daro ezan ardi lez gaukez^{*}*. ³⁷ Alan be, guztiotan geuk irabazi, maite izan gaituan Aren indarrez.

³⁸ Beraz, ziur nago ez eriotza, ez bizitza, ez Aingeru, ez nagusi, ez oraingo ez geroko ezer, ez indar, ³⁹ ez gorengo, ez beerengo, ez beste izakiren bat, ez dirala gai Jesukristo gure Jaunagan dagoan Jaungoiko-maitasunetik guri alde eragiteko.

D. Israel'en egoerea

Paulo deunaren biozkadak judarrai buruz^{*}

9 ¹ Egia diñot Kristo'gan, ez diñot guzurrik, eta nigaz nire barruak autor egiten dau Espiritu Santuagan. ² Atsekabe aunditan nago, eta biotza beti miñez dagokit. ³ Kristo'gaitik baztartua izan gura neuke^{*}, aragi-aldetik nire anai ta senitarteko dira-

nen osasunagaitik. ⁴ Israeldarrak dira oneik, eta eurenak dira seme-tzakoa, aintza, Alkartasuna, Legea, gurtza ta Agintzariak. ⁵ Eurenak dabez Erri-gurasoak; eurakandik dator, aragi-aldetik, Kristo; Kristo, barriz, Jaungoikoa da, guztien gainetik betiko bedeinkatua dana^{*}. Amen.

⁶ Alan be, Jaungoikoaren Itza ez

⁸ 28 Gizonaren Jainkoaganako maitasunari buruz cf. Ko 1^a 2 9; 8 3; Dt 6 5+.

⁸ 29 Aitaren irudi bikain dan Semeak, Kol 1 15+, barriztatu egin dau gizonagan, pekatuak ondatutako irudia, Erm 5 12; cf. As 1 26+; 3 22. Eta orrela, Semearen antz-irudira bihurtuta, fededuna Jainko-seme egiten da, Kol 1 18; Ebr 1 6; Ko 1^a 15 49; Flp 3 21; Ga 3 26-28; 4 5-7+; Ebr 2 11, 17.

⁸ 30 Jainkoak egindako gauza guztiak, bere aukeratuen aintzarako eginak dira, 18+, 21; cf. Jn 17 5, 10. Eskubide ori pekatuak galduzo euskun. Baiña zindotuak barriri lortu dabe, eta aintza orretan murgilduz doaz, gero ta sakonago, betiko zorionera eldu arte, Ko 2^a 3 18+; Ef 1 18; Kol 1 5; P 1^a 1 3-5.

⁸ 31 Ezek eta iñok ez gaitu alden du aal izango Kristo'ren benetako maitasunetik, 5 6-11; Ko 1^a 15 57.

⁸ 36 Sal 44 23'garrenetik jasoa.

⁹ 1 Sinismenaren bidez salbamena lortzeko, egoera bardiñean dagoz judarrak eta jentillak, 3 9; 22-30; e.a. Ixtaropen barri onek, beraz, ukatu egiten ete-dauz Jainkoak bere erriari egindako agintzariak? 9-11'gn. ataletan aitazen diran jazoerak, Israel'en istoriatik artuak, *Israel erriari dagokioz*, eta ez israeldar baktaxari. Israel'en *ondar* batek, Is 4 3+, salbamena lortzea naikoa da Jainkoaren leialtasuna egizatzeko.

⁹ 3 Paulo'ren esaera au *ipotesis* bat da, au da, *aal ba'litz* bat.

⁹ 5 *Doxoloji* edo *aintzazko gorapen* au, Kristo'ri zuzentzen dautso Paulo'k. Onek beti dauko begien aurrean Kristo, dan lez, Jainko-gizon lez, Flp 2 5+; e.a.; Kol 1 15+. Eta Jainkoari bakarrik dagokion izena, *Jauna*, damotso, edo Jainko-Seme deritxo, Flp 2 9+; Ap 2 21+; Erm 1 3-4; 5 10; 8 3; e.a. Aitak eta Espiritu Santuak lez, Ko 2^a 13 13+, Jesukristo'k betidanik

da alperreko izan, Israel'en jatorrikoak ez dira guztiak israeldarrak-eta; ⁷ ezta Abraham'en jatorrikoak be ez dira guztiak Abraham'en seme. *Isaak'egandik izango dozuz zure izeneko ondorengoak*, esan eutsan Jaungoikoak-eta^{*}. ⁸ Edo-ta bardin dana: Ez dira aragi-semeak^{*} Jaungoiko-seme, agintzari-semeak baiño: onexei emoten yake *Abraham'en* belauneko izena. ⁹ Agintzariaren berbak oneixek dira: *Aldi onetan-ke etorriko naz; eta Sara'k seme bat izango dau^{*}*. ¹⁰ Baiña au ez zan Sara'gan bakarrik ikusi, Errebeka'gan be bai: onek, gure aita Isaak'egandik *seme bi* izan eban. ¹¹ Alan, ba, onek jaino baiño leen eta artetan ezer onik ez txarrik egin ez ebela, Jaungoikoaren asmoak norbait aukeratzean —ez eginen bidez, deiez baiño— irauñ egian, ¹² Errebeka'ri auxe esan yakon; *Len-semea txikiaren serbitzari izango da*, ¹³ idatzita dagoanez: *Jakob izan dot maite, eta Esau iguindu egin dot^{*}*.

¹⁴ Zer esango dogu, ba? Bidebagekeririk ba'ete-dago Jaungoikoagan? Ez orixe! ¹⁵ Izan be, *Jaungoikoak* Moises'i auxe esan eutsan: *Errukior izan dakidanaz erruki izango naz, eta errukia agertu dagitsadanari erruki izango nakio^{*}*. ¹⁶ Beraz, emen ezer ez da norberaren gogoa, ezta norberaren ardurea be, Jaungoikoaren errukia baiño. ¹⁷ Liburu Santuak Faraon'i auxe dirautso: *Bete-betea be orretarakoxe jaso zaitu, nire aal-izatea zeugan*

erakusteko, eta nire izena lur osoan iragariteko^{}*. ¹⁸ Beraz, nai dauanaz erruki da, eta nai dauana gogortu egiten dau.

¹⁹ Baiña, auxe esango daustazu: Zegaitik egiten dau agiraka? Nor da Aren gogoari gogor egin daikeonik? ²⁰ Nor zara zu, gizon, Jaungoikoari erantzuteko? *Ontzigilleari ontziak ba'ete-dirautso: Zegaitik egin nozu^{*}*? ²¹ Ez ete-dago buztinlariaren aukeran buztin beretik ontzi batzuk gauza ederretarako egitea, eta beste batzuk lauetarako? ²² Beraz^{*}, zer esan, Jaungoikoak, bere asarrea erakusteko ta bere indarra agertzeko, galtzeko dagozan asarre-ontziak eroa-pen aundiz jasan ba'dauz; ²³ osperako eukazan ontzietan, barriz, bere aintzaren aberastasuna erakusteko, ²⁴ judarren artetik bakarrik ez, baita gentil-artetik be dei egin ba'dausku?

²⁵ Orixe da Oseas'en *liburuan* diñoana: *Nire erria ez danari, neure erri esango dautsat, eta nire maitea ez danari, neure maitea*. ²⁶ Eta, 'ez zaree zuek nire erria' esan yakentoki berean esango dautse 'Jaungoiko biziaren seme.' ²⁷ Israel'i buruz, barriz, auxe diño Isaias'ek dea-darka: *Israel'en semeak itsas-ondarra baizen ugari ba'litzaz be, ondakiña bakarrik urtengo da onik*: ²⁸ *Jaunak lurraren gainean auzi bete-betea ta azkena egingo dau-ta* ²⁹ Eta Isaias'ek berak beste au be esan eban aurretiaz: *Gudarozteen Jaunak ondorengorik itzi ez ba'leusku, Sodoma lez geratuko eta Go-*

dauko beragan Jainkotasun osoa, eta berez dagokioz betiraun guztitik izan orreik, eta ez berbiztu ondoren bakarrik, 1 4+.

⁹ 7 As 21 12'tik jasoa.

⁹ 8 Aragizko ondorena, cf. 7 5+, Espirituzko ta graziazkoaren aurrez-aurre dago. Aragizkoa Alkartasun Zaarrari dagokio; Espiritu ta graziazkoa, Alkartasun Barriari. Cf. 1 3-4; Ga 3 3; 4 21-31; Flp 3 3; Jn 3 6.

⁹ 9 As 18 10, 14'garrenetatik jasoa.

⁹ 13 As 25 23, eta Ml 1 2-3'garrenetatik jasoa.

⁹ 15 Salbamena utsean (*doan*) eta as-

katasun osoz emoten dau Jainkoak, zuzentasun osoz eta ezetariko bide-bagekeri bagarik, 20; Ur 33 19; Dt 7 6+; cf. Mt 20 1+.

⁹ 17 Ur 9 16'garrenetik jasoa; cf. Ur 4 21+.

⁹ 20 Is 29 16; 45 9; eta Jk 12 12'garrenetatik irabiatuta jasoa. Cf. Jk 15 7+.

⁹ 22 Faraon'en biotz-gogorkeria, 17, eta Israel'en leialtasunik-eza, Jn 12 40+, zelan-alan, Jainkoaren asmoetan sartzen dira, cf. 3 3, 7; 6 1. Jainkoaren asarreak, damutu ta biurtzeko deia izanaz gainera, 1-3; 2 4, Barri Ona eskeintzen dautse jentillai, errukiz, 11 11-12; Ap 13 5+.

morra'ren antzeko izango gintzake-zan*.

Judarrak, zegaitik ez eben artu sinismena?

³⁰ Beraz, zer esango dogu*? Zuzentasunari jarraitzen ez eutsoenak —jentillak—, sinismenetik datorren zuzentasuna jadetsi dabela. ³¹ Israel'ek, ostera, zuzentasunaren bideari jarraiturik, ez eban Legea aurkitu. ³² Zegaitik? Sinismenaren bidetik joan bearrean, egintzen bidetik joan zalako. Galbide-arrian egin eben laban, ³³ idatzita dagoenez: *Jauspide-aria ta galbide-aria jarriko dot Nik Sion'en; eta Aregan sinistu dagianik inor be ez da lotsatuko**.

Paulo'ren biozkadak judarrai buruz*

10 ¹ Anaiok, arekana (*judarrakana*) doa nire biotzeko leia, eta arein alde doakioz Jaungoikoari nire eskariak, osasuna jaritsi dagien. ² Jaungoikoaren arduraz dabizala autortzen dot arein alde; baiña ez dabiz jakintzaren erataraz: ³ Jaungoikoagandiko zuzentasuna ezagutzeke ta euren zuzentasuna ezarteko aalegñak egñik, ez ziran Jaungoikoagandik dan zuzentasunpean jarri: ⁴ Legearen elburua sinistedun guztien zindotasunerako, Kristo da-ta.

Zuzentasun biak

⁵ Legetik datorren zuzentasunari buruz, auxe diño Moises'ek: *Zuzentasuna bete dagiana, beronegai-*

^{9 29} Apaimenak Os 2 1, 25, eta Is 10 22-23; ^{1 9} gairenetatik jasoa. Jainkoaren errukiak beti jagon dau Israel'en Ondar bat, cf. Is 4 3+.

^{9 30} Jainkoaren asmoa azaldu ondoren, Alkartasun Zaarrean Israel'ek izan eban jokabidea azalduko dau Paulo'k.

^{9 33} Apaimenak Is 28 16, eta 8 14' garrenetik jasoak. Cf. Ap 4 11+.

^{10 1} Batzuk ez dira konturatu Legea Kristo'gan amaitu danik, 4; As 3 24; ezta sinismenerako deia gizaseme guztientzako danik be, 5-13.

^{10 5} Cf. Ab 18 5.

^{10 6} Emen aitatzen diran txatalak, Dt 9 4; 30 12-14+, Legeari buruzkoak dira

*tik bizi izango da**. ⁶ Baiña, sinismenetik datorren zuzentasunak auxe diño*: *Ex esan zure biotzean: Nor igoko da zerura?*, Kristo erasteko; ⁷ edo-ta, *Nor jatsiko da lezara?*, illen artetik Kristo gora jasoteko. ⁸ Baiña, zer diño? *Zeure ondoan dago (zuzentasuna emoten dauan) itza, zeure agoan eta zeure biotzean:* berba au da iragarten dogun sinismenaren itza. ⁹ Jesus Jauna agoz autortzen ba'dozu ta Jaungoikoak illen artetik bizitu ebala sinisten ba'dozu zure biotzean, salbatu egingo zara. ¹⁰ Zindokuntzarako, biotzez sinistu bear da, eta osasunerako agoz autortu. ¹¹ Liburu Santuak auxe diño: *Aregan sinistu dagiana, ez da lotsatuko**. ¹² Ez dago judarra ta gerkarra banantzerik. Berbera da guztien Jauna, dei egin dagioen guztientzat aberatsa: ¹³ Jaunaren izenari dei egin dagion edonor, onik urtengo da-ta*.

Judarrak ez dabe Barri Ona onartu

¹⁴ Baiña, zelan egingo dautsoe dei, Aren sinisterik izan ezik? Zelan sinistu, barriz, ezer iragarri bagarik? ¹⁵ Eta, zelan iragarri, bialduak izan ezik? Idatzita dagoenez: *Benetan eder, ona iragarten dabenen oiñak!* ¹⁶ Guztiak ez dira, ostera, Barri Onaren esaneko. Isaias'ek auxe diño-ta: *Jauna, gure deia, nok sinistu dau?* ¹⁷ Beraz, iragartetik sinistea; eta iragartea, Kristo'ren berbatik*.

ta Legea goratzen dabe. Guztion aukeraren dagoan Itz onetan, aurretiazko kristau-mandatu somatzen dau Paulo'k. Mandatu auxe da, ain zuzen be, Apostoluak iragarten daben *biotz-sinismena* ta maitasun-legea, 10; Ts 1^a 2 13+; cf. 8 2+.

^{10 11} Is 28 16'garrenetik jasoa.

^{10 13} Jl 3 5'garrenetik jasoa.

^{10 17} Sinismena ukatzea, Kristo'k Apostoluen bidez eskeintzen dauan argiaren aurka joatea da. Apaimenak: Is 52 7; Sal 19 5; Dt 32 21; Is 65 1-2. Azken-apaimenok argi erakusten dabe, judar sinisbageak bertan-beera izirik, jentillak sartuko dirala salbamen-bidean.

¹⁸ Baiña, ba-diñot: Ez ete-dabe entzun? Bai orixe! *Arein deia lur guztira eldu da, eta arein iragartea munduaren baxtarreagiño.* ¹⁹ Baiña, ez ete-dau Israel'ek ezagutu? Moises da leenen diñoana: *Nire erria ez dan erriari buruzko arduraz zirikatuko zaituet, eta senik ez daukan erriaz asarratuko zaituet.* ²⁰ Eta Isaias auxe esaten ausartzen da: *Nire billa ibilli ez ziranak aurkitu nenduen; argi-argi agertu nintzakien nire itaunex ibilli ez ziranai.* ²¹ Israel'i, ostera, auxe dirautso: *Erri sinisbage ta biurriagana zabaldu nebazan egun osoan nire eskuak.*

Ez dira judar guztiak galduko*

11 ¹ Onezkero, auxe diñot: *Jaungoikoak bere erria bazartu egin ete-dau?* Ez orixe! Neu be israeldarra naz, Abraham'en jatorrikoa, Benjamin'en belauneko. ² Ez dau Jaungoikoak Beretzat eukan erria bazartu. Elias'en liburuak diñoana ez al-dakizue? *Elias'ek Jaungoikoaren aurrean Israel salatu egin dau, esanez: ³ Jauna, zure profetai erioitza emon dautsee, zure altarak ondatu egin dabez, neu bakarrik geratu naz, eta bizia kendu nai dauste.* ⁴ Baiña, zer erantzuten dautso Jaungoikoaren berbotsak? *Baal'i belaunik makurtu ez dautsoen zazpi milla gizon daukadaz Neuretzat aukeratuta.* ⁵ Orrela, orain be apur batzuk geratu dira mesedez aukerata. ⁶ Mesedez izan ezkerro, barriz, egindako ezegaitik ez; bestela, mesedea ez litzake mesede izango. ⁷ Zer, ba? Israel'ek ez ebala berak billatzen ebanik jaritsi, aukeratuak baiño. Enparaduak itsutu egin ziran, ⁸ idatzita dagoenez: *Jaungoikoak zorabiatu egin ebazan: begiak emon eutsezan ez ikusteko, eta belarriak ez entzuteko, gaur arte.* ⁹ Da-

bid'ek be auxe diño: *Lakio, sare ta galbide-ari biurtu bekie euren maia, bidezko ordaina artu dagien; ¹⁰ lausotu bediz arein begiak, ikusi ez dagien, eta arein bizkarra beti lurrerantz makurtuta egon dadilla.*

Israel'en ondapena

¹¹ Baiña, ba-diñot: Iñoz be ez jagiteko jausi ete-dira judarrak? Ez orixe! Arein jaustearen bidez, barriz, jentillen osasuna lortu eben, *Israeldarren* leia biztuteko. ¹² Eta, arein jaustea munduaren aberastasun biurtu ba'da, eta arein urritasuna jentillen aberastasun, geiago arein osotasuna! ¹³ Zeuei, jentilloi, dirautsuet: jentillentzat bialdua nazan ezkerro, nire egitekoa guztiez bete nai dot, ¹⁴ nire jatorrikoen leia zelanbait biztuteko ta areitariko batzuen osasuna lortzeko. ¹⁵ Izan be, arein ondapena munduarentzat onezko izan ba'da, zer izango ete-da arein leengoratzea (*edo biur-tzea*), illen artetik biztuera bat baiño?

¹⁶ Judarren asikiñak *asikin* santuak ba'dira, baita oreka be; eta zusterre santua ba'da, baita adarrak be. ¹⁷ Adarretariko batzuk ausiak izan ba'dira, eta zu, basoriondo zintzazan ori, arein utsunetan mentatua izan ba'zara, eta basoriondoaren zusterretik igoten dan guriñaz bizi ba'zara, ¹⁸ ez zaitex beste adarren aurka arrotu. Eta arrotzen ba'zara, jakin egizu ez dala zusterre zeugaitik bizi, zusterretatik zeu baiño*. ¹⁹ Auxe diñozu zuk, urrean: «Ni mentatua izan nendin, adarrak iñausiak izan ziran.» ²⁰ Ondo dago: areik sinisbagesunagaitik izan ziran iñausiak; zu, barriz, sinismenagaitik zutik zagoz. Alan be, ez arrotu, bildur izan baiño. ²¹ Berezko adarrai Jaungoikoak parkatu ez ba'

^{11 1} Erri lez Mesias ukatuaren be, Israel da oraindiño Jaunaren erri aukerata, eskerrak Ondar zintzoari, Is 4 3+.

Ondar onetan datza, Israel osoa noizbait

Kristo'gana biurtuko daneko itxaropena. Apaimenak: Sal 94 14, eta Er 1^a 12 22.

^{11 18} Kristatzen diran jentillak, benetako Israel'en mentatzen dauz Jainkoak errukiz ta maitasunez.

dautse, zeuri be ez dautsu parkatu-ko. ²² Begira, ba, Jaungoikoaren ontasuna ta zorroztasuna: zorroztasuna, jausi ziranai buruz; zuri buruz, barriz, ontasuna, ontasunpean irauten ba' dozu; bestela, zeu be ebagia izango zara. ²³ Eta areik eurak be, sinisbagnetasunean iraun ez ba' dagie, mentatuak izango dira: barriro areik mentatzeko, aaltsua da Jaungoikoata. ²⁴ Izan be, basoriondotik etorri izan zintzazan ori, andik ebagi ta zure izatez ez dan oriondo jatorrean mentatua izan ba' zara, geiago izango dira adar jator areik euren bidezko oriondoan mentatuak!

²⁵ Beraz, ez dot nai, anaiok, ezkutupen au jakin ez dagizuen, zuen barruan arrotu ez zaitezene*. Israelzati bat itsututa dago, jentil guztiak *Elizan* sartu daitezcan arte. ²⁶ Eta orduan, Israel osoa salbatuko da, idatzita dagoanez: *Sion'dik Salbatzaillea etorriko da, Jakob'egandik dongakeeriak urruntzeko. ²⁷ Eta arein pekatuak kendu dagidazanean,*

auxe izango da nire alkartasuna arekaz.

²⁸ Barri Onari buruz, arerioak dira, zuen onerako; aukeratzeari buruz, barriz, gurasoakaitik maitagarri: ²⁹ Jaungoikoaren doia ta deia aldatu-eziñak dira-ta. ³⁰ Noizbait zuek Jaungoikoaren esaneko ez izanda, orain arein (*judarren*) biurkeriagaitik errukia jadetsi dozuenez, ³¹ areik (*judarrak*) be orain, egin yatzuen erruki au dala-ta, ez dira Aren esaneko, eurak be errukia jadetsi dagien. ³² Jaungoikoak guztiak biurkeritan itzita euki dauz, guztiak errukia jadetsi dagien.

³³ Sakonak, benetan, Jaungoikoaren aberastasuna, jakituria ta jakintza! Bai aztergaxak Aren erabagiak, eta barrendu-eziñak Aren bideak! ³⁴ Izan be, *nok ezugutu dau Jaunaren asmoa?, edo nor izan da Aren onulari*?* ³⁵ *Nok emon dautso leendik, Ari ordaina eskatzeko?* ³⁶ Dana Beragandik, Beragaitik eta Beragan da. Berari aintza gizaldietan. Amen.

BURUBIDEAK

Bizitza barria

12 ¹ Jaungoikoaren errukiagaitik eskatzen dautsuet, ba, anaioi: zuen gorputzak opari bizi, santu ta atsegingarritzat eskiñi egiozuez Jaungoikoari: orixe dozue espirituzko gurtza-ta. ² Mundu onetako antzik ez artu; adimena barriztuaz aldatu bai, ostera: Jaungoikoaren gurari on, atsegingarri ta bikaiña zein dan ezagutu dagizuen*.

³ Emon yatan eskubidez, zuetariko baktaxari auxe dirautsat: zure burua ez egizu zaran baiño geiago-

tzat artu, neurribidez baiño, Jaungoikoak baktaxari sinismena* banatu dautsan negurritz. ⁴ Izan be, gorputz baten atalak asko dira, baiña atal guztiak ez dabe egiteko berbera. ⁵ Orrela, ba, asko garanok, gorputz bat egiten dogu Kristo'gan; baiña atal baktaxa beste atalen laguntzarako dago*. ⁶ Guretariko baktaxak, bere graziaren eratarra, bere doaiak daukaz; batek profetatza, sinismenaren negurritz *jarđuteko**; ⁷ beste batek, diakonutza, *Elizaren* laguntzarako; irakasleak, irakaste-

11 25 Cf. Es 3 7. Israel osoaren salbamenaren erabat artzen da emen.

11 34 Is 40 13, 28'garrenetik jasota.

12 2 Kristaia, eskerrak sinismenari ta bateoari, Jainko-gogoaren erara *barriztuta* dago adimenez eta asmoz, munduan biziarren be, 7 6; 8 14; 14 18; Flp 1 10.

12 3 Sinismenak, bat eta bardina izana-

rren, doai ez-bardiñak ditu baktaxagan, Elizaren onerako.

12 5 *Gorputzaren* irudi-bidez adierazoten dau Paulo'k kristauak alkarregaz dabezan artu-emonak, Ko 1^a 12 12+, 27. Baktaxak Jainkoagandik artutako doaiak, guztien onerako erabili bear dauz.

12 6 Sinismen berean, eta baktaxak artu dauzan doaien arauz, 3.

ko; ⁸ onulariak, burubidea emoteko. Emoilleak, esku zabala; buru dana, arduraz izan daitela; erruki-lanetan diarduanak, pozik egin dagizala.

⁹ Zuen maitasuna zintzoa izan dilla. Iguindu gaiztakeria, eta onzaleak izan zaiteze; ¹⁰ anai-arteko maitasunez maite egizue alkar, alkarri leenengo tokia emonez. ¹¹ Nagikeri bagarik, arduratsu izan zaiteze, gogo beroz Jaunaren menpean, ¹² geroko itxaropenaren pozez; atsekabea ondo eroan, ekin otoitzari; ¹³ santuen (*kristauen*) bearrizanak arindu, eta areik txera onez artu.

¹⁴ Bedeinkatu egizuez aurrean zabilleenak: bedeinkatu, bai, mandarikatu bearrean. ¹⁵ Pozten diranakaz poztu zaiteze, negar egiten dabekaz negar egizue. ¹⁶ Benetako alkartasunez bizi zaiteze, aundikerizko asmo bagarik, txikien danera egiñik; zuen buruak ez egizuez jakintsu egin*. ¹⁷ Kalte ordez kalterik ez iñori biurtu; aalegiñak egizuez ona dana egiteko gizon guztien aurrean*. ¹⁸ Iñundik aal ba'da, zuen aldetik beintzat, guztiakaz bakean bizi izan zaiteze. ¹⁹ Ez iñori ordaiñik zeuen eskuz arrerazo, ene maitetok: itzi ori *Jaungoikoaren* asarrearri; idatzita dago-ta: *Neuri dagokit zigortzea; Neuk emongo dautsat baktaxari berea, diño Jaunak**. ²⁰ Zuk, barriz, *zure arerioa gose ba'da, jaten emon egiozu; egarri ba'da, edaten emon egiozu. Orretara egiñaz, ikatz gori pilloa jaurtiko dautsazu burutik beera**. ²¹ Ez zagizala gaiztakeriak azpiratu, bestetara baiño: zeuk azpiratu gaiztakeria on egiñaz.

12 16 Cf. Es 3 7.

12 17 Cf. Es 3 4 (LXX).

12 19 Dt 32 35'garrenetik jasoa.

12 20 Barruan somatuko dauan kezkeak bide onea biurtuko dau pekataria. Auxe da Paulo'k irudi onen bidez adierazo nai dauana, cf. Es 25 21-22. Cf. Mt 5 39, 44-45.

13 1 *Agintaritz*a, bidezkoa ta menpe-

Agintariakanako menpetasuna*

(Mt 22, 16-21; Tm 1^a, 2, 1-2; Tt 3, 1; P 1^a, 2, 13-15)

13 ¹ Guztiok egon bear dozue gaiñeko agintarien menpean, Jaungoikoagandik ez datorren agintaritarik ez dago-ta; diranak, barriz, Jaungoikoak jarrita dagoz. ² Beraz, agintaritzari gogor egiten dautsanak, Jaungoikoaren asmoari egiten dautso gogor; eta gogor egiten dautsoenak, euren buruai ondapena dakartsee. ³ Izan be, agintaritzan ongillearentzat ez da bildurgarri, gaizkillearentzat baiño. Agintaritzari bildurrik izateke nai al-dozi bizi? On dana egizu, eta aren indarra izango dozu: ⁴ onbidean Jaungoikoaren ordeko yatzu-ta. Txarra dana egiten ba' dozu, ostera, bildur izan zaitez, ezpatea alperrik ez dakar-eta. Jaungoikoaren ordeko da, zuzentasunez gaizkillea zigortzeko. ⁵ Beraz, menpean egon bear dozue: zigorraren bildurragaitik bakarrik ez, baita bidezkoa dalako be bai. ⁶ Zergak be orrexegaitik ordaintzen dozuez, orretan beti jarduteko Jaungoikoaren ordeko dira-ta. ⁷ Emon egizuez guztiai zor dautsezuea: zergea zor yakonari, zergea; ariela zor yakonari, ariela; begirunea zor yakonari, begirunea; dedua zor yakonari, dedua.

Alkar-maitasuna

(Mt 22, 34-40; Jn 13, 34)

⁸ Iñorenganako zorrik ez egin, alkar maite izateko izan ezik: lagun-urkoa maite dauanak, bete dau Legea-ta*. ⁹ Izan be, *ez dozu ezkontzarik loituko, ez dozu iñor ilgo, ez dozu lapurretarik egingo, ez dozu*

koen onerako danean, Jainkoagandik datorrela diño Paulo'k. Beraz, ba-dau sinismenak erri-arazoetan be zer-ikusirik, Mt 22 16-21. Eraso-aldietan, kristauak ez dira aldeñduko irakatsi onetatik, Tm 1^a 2 1-2; Tt 3 1; P 1^a 2 13-17. Cf. Jk 6 3+.

13 8 Agindu *barriak* Espiritu Santuaren eragiñez beteten dau legea, 3 31; 8 4-9+; Ko 1^a 13 1; Ga 5 14; Kol 3 14; Jn 13 34+.

iñorenik gura izango, eta beste edozein agindu, esakera onetan dago batuta: *Lagun-urkoa zeure burua lez izango dozu maite**.¹⁰ Maitasunak ez dauzo lagun-urkoari gatzik egiten. Beraz, Legea oso-osorik, maitasuna da.

Osasun-eguna ur dago

(Ts 1^a, 5, 4-8; Ko 1^a, 7, 26, 29-31; Kol 4, 5; Ef 5, 8-16)

¹¹ Eta ba-dakizue onezkero aldia ta irartzartzeko ordua* eldu yatzue-zana, sinisbarri gintzazanean baiño urrago dago gure osasuna-ta.¹² Gaua oso aurrera doa, eta eguna ba-dator. Erantzi gaitezana, ba, illunpetako egitadetatik, eta jantzi daiguzan argi-armak.¹³ Ibilli gaitezana itxura onez, egunez lez; ez, gero, jan-edanetan, ez lizunkerietan, ez nasakerietan, ez eztabaida ta ikusi-ezifietan; ¹⁴ bestetara baiño: jantzi zaitez Jesukristo Jaunaz, eta ez izan aragiaren ardurarik bere zalekeriak aseteko.

Sinismenean sendoak eta makalak diranak*

(Kor 1^a, 8; 10, 14-33)

14 ¹ Maitasunez artu egizue sinismenean makal dana, eritzietan aregaz eztabaidetan ibilteke. ² Urlia edozer jan daikelakoan dago; makalak, ostera, ortu-ariak jaten dauz. ³ Jaten dauanak, ez dagiala jaten ez dauana bazartu; eta jaten ez dauanak, ez dagiala jaten dauana ebatzi: alakoa Jaungoikoak Beretzat artu dau-ta. ⁴ Nor zara zu iñoren morroia ebazteko? Zutik egon edo

13 9 Aipamenak, Ur 20 13-71, eta Ab 19 18+ garrenetatik jasoak. Gizaseme guztiak dira *urko-lagunak*, eta ez endaz anai doguzanak soilik, Mt 25 40-45; Lk 10 29-37; Ga 3 28; Ab 19 18+; baita arerioak be, 12 17-21; Mt 5 43-45.

13 11 Kristo berbizitu zanetik, munduaren azken-egunetan gagoz, Ga 4 4; Ebr 1 2. Kristaua, *egun-seme* izanik, Ts 1^a 5 5, Jainkoaren eta Aren Semearen erreñuan sartuta dago, eta erreñu orren arauz bizi da, Ap 26 18; Kol 1 13; Mt 25 1; Ef 5 8-16; Ts 1^a 5 4-8.

jausi, bere ugazabarentzat dago; baiña zutik iraungo dau: a zutik eukiteko, aaltsua da Jaungoikoa-ta. ⁵ Alakoren batek, egun batzuen eta beste batzuen alde artzen dau; bestearentzat, barriz, egun guztiak bardiñak dira: egin begi bakotxak bere barruak dirautsana. ⁶ Egunai buruz arduratzen dana, Jaunagan arduratzen da; eta *guztitarikoa* jaten dauanak, Jaunaren ederragaitik jaten dau, Jaungoikoari eskerrak emonez. ⁷ Guretariko iñor be ez da norberarentzat bizi, ezta norberarentzat ilten be. ⁸ Bizi ba'gara, Jaunarentzat bizi gara; eta ilten ba'gara, Jaunarentzat ilten gara. Beraz, bizi naiz il, Jaunarenak gara. ⁹ Orretarakoxe il eta biztu zan barriro Kristo be, bizien eta illen Jauna izateko.

¹⁰ Beraz, zegaitik ebazten dozu zuk zure anaia? Zegaitik bazterten dozu zure anaia, Jaungoikoaren auzitegian guztiok aurkeztu bear dogun ezker? ¹¹ Idatzita dago: *Nazana nazanez* —diño Jaunak—, *belauñ guztiak makurtuko yataz, eta miin guztiak Jaungoikoa autortuko dabe**. ¹² Beraz, guretariko bakotxak erantzungo dautso bere buruaz Jaungoikoari. ¹³ Ez alkar ebatzi, ba, aurrerantzean; eta begira batez be: arduratu zaitez anaia jauspiderik edo gaizpiderik ez jarteko. ¹⁴ Nik ba-dakit eta Jesus Jaunagan ziur nago, ezer be ez dana berez loa; alan be, zerbait loa dala uste ba'dau norbaitek, orrelako orrentzat bai, loa da. ¹⁵ Baiña, janariren bategaitik zure anaia naibagetu egiten ba'da, ez zabiz maitasun-bidetik. Ez

14 1 Argi aundi bagariko kristau batzuk, judarren eta jentillen barau ta okela-izteak bete-bearrean egozala uste eben. Gai oni buruz arau zabal bat emoten dau Paulo'k, cf. Ko 1^a 8 7-13; 10 14-33. Ona emen: jokatu begi bakotxak *kontzientzi* onez Jaunaren aurrean, 2 14+, eta bai *sendoak* eta bai *argalak* izan begie bata-besteari begirunea izateko maitasuna, alkar *epaitzen* eta *gaizpideratzen* jardun bagarik, 13; Mt 7 1.

14 11 Is 49 18, ta 45 23 garrenetatik jasota.

daitela iñor galdu zure janariagaitik, Kristo aren alde il zan ezker.

¹⁶ Beraz, ez daitela zuen egitada ona txarto-esan biurtu. ¹⁷ Jaungoikoaren erreñua ez da jan-edana, Espiritu Santuagandiko zuzentasuna, bakea ta poza baiño. ¹⁸ Orretan Kristo'ren morroi danak, Jaungoikoaren ederra ta gizonen txaloak daukaz. ¹⁹ Ekin, ba, bakerako ta alkarren obekuntzarako bideari. ²⁰ Jaungoikoaren egintza ez egizu janari bategaitik ondatu. Gauza guztiak dira garbiak; baiña gaizpidea emonez jatea, gizonarentzat txarra da. ²¹ Ona da okelarik ez jatea, ardaorik ez edatea, eta zure anaia jauspide, edo gaizpide, edo makalkeri yakonik ez egitea.

²² Zuk dozun ezagueria, zeuretzat eta Jaungoikoarentzat gorde egizu. Zorionsua, zerbait egitekoan, norbere barruak norberaren burua errudun egiten ez dauana! ²³ Jan ezker, errudun dala uste ba'dau, barriz, galduta dago, bere barruak dirautsanez egin ez daualako; eta norbere barruko eritzi zuzenez egiten ez dana, pekatu da.

Orretarako eredua

15 ¹ Beraz, guk, *sinismenean* indartsu garanok, argalen makalkeriak ondo eroan bear doguz, geure buruari eder egiteke. ² Guretariko bakotxa aalegindu bedi lagun-urkoari eder egiten, aren one-

rako ta onbiderako. ³ Kristo'k be ez eban bere ederra billatu, idatzita dagoanez: *Neure gaiñera jausi ziran iraintzen zenduezanen iraiñak**. ⁴ Liburu Santuetan idatzita dagoan guztia, geure ikasbiderako dago idatzita*, bertako berbak emondako eroapenaz eta pozaz itxaropenean sendo egon gaitezana. ⁵ Eroapen eta poz onen Jaungoikoak, emon dagitzuela alkarregaz Jesukristo'ren batasuna, ⁶ Jesukristo gure Jaunaren Aita Jaungoikoa biotz batez eta ago batez goratu dagizuen.

⁷ Beraz, alkarri abegi ona egiozue, Kristo'k zeuei egin eutsuenez, Jaungoikoaren aintzarako. ⁸ Badi-rautsuet, ba: Jaungoikoaren egiagaitik erdainduai bialdutakoa Kristo izan da, Erri-gurasoai egindako agintzariak beteteko; ⁹ jentillak, barriz, Jaungoikoa beronen errukiagaitik* goratzen dabe, idatzita dagoanez: *Orregaitik, goratu egingo zaitut jentillen artean eta zeure izenari abestuko dautsat*. ¹⁰ Eta barriro: *Poztu zaitez, jentillok, Aren erriagaz batera*. ¹¹ Eta beste nunbait: *Goratu egizue Jauna, jentil guztiok; ekiozue goraka, erri guztiok*. ¹² Isaias'ek be badiño: *Jese'ren kimua agertuko da, jentillak bere menpean artzeko jagiko dana: Aregan izango dabe jentillak euren itxaropena*. ¹³ Itxaropenaren Jaungoikoak bete zagiezala sinismenean poz eta bake osoaz, Espiritu Santuaren indarrez itxaropena ugari izan dagizuen.

AZKEN-ITZAK

Esandako guztiak labur-labur

¹⁴ Baiña ni ziur nago, anaioak, ontasunez eta jakitez beterik zagozema, eta alkarri burubideak emon daiekozuezana. ¹⁵ Alan be, anaioak, ba-

tzuetan zabalago idatzi dautsuet, gogoan daukazuena zelanbait biztuteko, Jaungoikoak emon eustan graziaz: ¹⁶ Jesukristo'ren morroi izan naiten, Jaungoikoaren Barri Ona jentillai iragarteko: jentillen eskin-

15 3 Sal 69 10 garrenetatik jasoak.

15 4 Cf. 4 23-24; Ko 1^a 10 6, 11; Tm 3 15-16.

15 9 Kristo'ren Barri Ona leenengo Israel'i eskeintzean, Jainkoak *zintzo-zin-*

tzo bete dauz erri orri egindako agintzariak, 4 13+, eta *errukior* agertu da jentillai dei egitean, 1 5-7; 15 14; 16 25+. Aipamenak Sal 18 50; Dt 32 43; Sal 117 1; eta Ts 11 10 garrenetatik jasoak.

tza, Espiritu Santuak santututa, onartua izan daiten*.

¹⁷ Goratu naiteke, ba, Jesukristo'gan Jaungoikoaren gaiak dagokienez: ¹⁸ itzez eta eginez, mirari arri-garrien indarrez eta Espiritu Santuaren adorez, Kristo'k neure bidez egin dauan gauzarik esatera ez naz ausartuko-ta. ¹⁹ Izan be, Jerusalem'dik Iliria'raño ta alde guztietan Kristo'ren Barri Ona iragarri dot. ²⁰ Kristo'ren izenik entzun ez dan lekuetan batez be zabaldu dot Barri On ori, nire lana beste norbaitek jarritako oiñarri-gaiñean ez jasoteko, idatzita dagoanez baiño: ²¹ *Aren barri izan ez dabena, ikusi egingo dabe, eta entzun ez dabena ulertu**.

²² Orrexek galerazo daust sarritan zuekana joatea; ²³ baiña orain, lurralde oneitan egitekorik ez dodan ezker, eta aspaldiko urteotan zuek ikustera joateko gogoz egon nazan ezker, ²⁴ España'ra joan naitenean, ortik igarotean ikusiko zaituedala uste dot, baita ara lagundu be egingo nozuela (*daustazuela*), zuen artean jardunaldi arin bat pozik eginga gero. ²⁵ Baiña orain, Jerusalem'era noa, santuai (*kristauai*) laguntza eroatera*: ²⁶ Jerusalem'go santuen artean dagozan beartsuen alde diru-batze bat egitea otu yake Mazedonia ta Akaia *erriai-ta*. ²⁷ Ori, barriz, arenbeste zor dautseelakoan egin dautsee: jentillak arekandik (*judarrakandik*) espiritu-ondasunak artu dabezan ezker, jentillak judarrai lurreko ondasunen bidez lagun egin bear dautsee-ta. ²⁸ Arazo au beteta gero, eta batutako dirua arein artean banatu dagidanean, zuen artetik igarorik, España'ra zuzenduko naz. ²⁹ Zuekana joan naitenean, barriz, ba-dakit Kristo'ren be-

¹⁵ 16 *Apostolutza*, ereduako kristau-bizikera soilla baiño geiago da, 12 1; Flp 2 17; abade-eginkizun bat da, cf. 1 9; Kristo'k apostoluaren bitartez, 18,

deinkapen bete-beteaz joango nazana.

³⁰ Kristo gure Jaunagaitik eta Espiritu Santuaren maitasunagaitik eskatzen dautsuet, anaioi: lagun egidazue arazo onetan, zuen oitotzen bidez nire alde Jaungoikoari erregutuez, ³¹ Judea'n diran sinisbagea-kandik onik atara nagian, eta Jerusalem'era naroan eginbide au, ango santuai atsegingarri izan dakien. ³² Onela, Jaungoikoak nai ba'dau, pozik joango naz zuek ikustera, eta zuen artean atsedan artuko dot. ³³ Bego zuekaz bakearen Jaungoikoa.

Erreguak eta agurrak

16 ¹ Zenkreas'ko elizearen lagun-tzaille dan gure arreba Febe'ren alde eskatzen dautsuet: ² santuai dagokienez, Jaunaren izenean artu dagizuen, eta zuen bearrizanean iñoiz egon ba'dadi, lagun egin dagiozuen: berak be askori emon dautse laguntza, neuri batez bere.

³ Gorantziak Jesukristo'ren alde nire lankide izan diran Priska ta Akila'ri: ⁴ oneik, nire bizia zaintze-arren, eurena galtzeko zorian jarri eben-eta: eskerrak emoten dautse-daz, nik bakarrik ez, baita jentil-erriko eliza guztiak be. ⁵ Gorantziak arein etxeko elizeari be. Gorantziak Asia'n Kristo'ren asikin dan Epeneto maitagarriari be. ⁶ Gorantziak Maria'ri, zuekaitik ainbat lan egin eban-eta. ⁷ Gorantziak apostoluen artean ospatsuak diran eta Kristo'ren sinismena nik baiño leen artu eben nire senide ta espetxe-lagun Androniko'ri ta Junia'ri. ⁸ Gorantziak Jaunagan oso maite dodan Anpliato'ri. ⁹ Gorantziak Jesukristo'gan nire lagun dan Urbano'ri, eta Estakio nire maiteari. ¹⁰ Gorantziak Apelles'i, Kristo'ren morroi ezagunari. Gorantziak Aristobulo'ren etxekoai.

gizonak Jainkoari eskeintzen dautsazan egitekoa da.

¹⁵ 21 Is 52 15'garrenetik jasoa.
¹⁵ 25 *Diru-batze* oni buruz, ikusi Ko 1^a 16 1+.

¹¹ Gorantziak nire senide Erodion'i. Gorantziak Jaunaren sinistean dagozan Narziso'ren etxekoai. ¹² Gorantziak Trifena'ri ta Trifosa'ri, Jaunagan ainbat neke eroan dabena. Gorantziak Persida maite-maiteari, Jaunagan ainbat atsekabe eroan dauanari. ¹³ Gorantziak Jaungoikoak aukeratutako Errufo'ri, eta onen amari, *maitasunean* neure ama be bada-ta. ¹⁴ Gorantziak Asinkrito ta Flegon'i, Ermes, Patroba, Ermas eta onekaz bizi diran anaiai. ¹⁵ Gorantziak Filologo ta Julia'ri, Nereo ta onen arrebai, eta Olinpia'ri ta onekaz bizi diran anaiai. ¹⁶ Agurtu egizue alkar laztan santuaz. Gorantziak zuei Kristo'ren eliza guztien izenean.

¹⁷ Zuur egon, anaioak, eta begira, artu dozuen ikasbidearen aurka alderdikeri ta gaizpideak sortzen diarduenai buruz, eta arekandik alde egizue: ¹⁸ alakoak ez dira Kristo gure Jaunaren morroi, euren sabelarenak baiño; eta itzaldi samur eta labanakaz gizaen biotzak atzipetu egiten dabez. ¹⁹ Alde guztietan agirian dago zuen zintzotasuna; pozik nago, ba, orregaitik zuei buruz; baiña onbiderako zuur eta txarrerako bakun izan zaitezela nai dot; ²⁰ eta

bakearen Jaungoikoak laster zapalduko dau Satanaz zuen oiñazpian. Jesukristo gure Jaunaren grazia izan daitela zuekaz.

Azken-agurrak

²¹ Agur egiten dautsue Timoteo nire lagunak, baita nire senide diran Luzio'k, Jason'ek eta Sosipatro'k be. ²² Idazki onetako esku-lana egin dodan Terzio onek be, Jaunagan agur egiten dautsuet. ²³ Ni ta Eliza osoa bere etxean gaukazan Gaio'k agur egiten dautsue. ²⁴ Uriko diruzain dan Erasto'k agur egiten dautsue, baita Kuarto anaia be. (²⁴ Jesukristo gure Jaunaren grazia izan daitela zuekaz guztiokaz. Amen).

²⁵ Eta nik iragarten dodan Barri Onean eta Jesukristo'ren ikasbidean ezkutapenaren agerketaz indartu zaikkezanari —ezkutapen au betidanik estalduta egoan, ²⁶ baiña orain profeten Idaztien bidez ezagutua izan da, betiko Jaungoikoaren erabagiz, eta erri guztiai adierazo yake sinismenera etorri daitezana—, ²⁷ Jaungoikoari *diñot*, jakintsu bakarrari, Berari aintza gizaldiz gizaldi Jesukristo'ren bidez. Amen*.

¹⁶ 27 Alkartasun Zaarreko *doxolojiak* Alkartasun Barrira dakaz Paulo'k. Jainko Aitagaz batera, Jesukristo aitatzen dau sarritan, 9 5+; Ko 1^a 8 6; 15 57; Ef 3

21; Ebr 13 21; P 1^a 4 11; Judas 25; Ag 1 6+. Geroago, barriz, Aita, Semea ta Espiritu Santua, irurak aitatuko dauz, cf. Ko 2^a 13 13+.

PAULO'K KORINTO'KOAI EGINDAKO LEENENGO IDAZKIA

Agurra

1 ¹Paulo'k, Jaungoikoaren nai-izatez Jesukristo'ren apostolu izatera deituak, eta *gure* anai Sostenes'ek, ²Korinto'n dagoan Jaungoikoaren elizeari, Jesukristo'gan santu egiñak eta santu izatera deituoi*, baita edozein lekutan Jesukristo gure ta arein Jaunaren izena autortzen daben guztiai be, ³grazia ta bakea Jaungoiko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

Eskerrak emoten dautsaz Jaungoikoari

⁴Beti diardut Jaungoikoari eske-

rrak emoten, Jesukristo'gan emon yatzuen grazia dala-ta. ⁵Izan be, Aregan guztiz aberatsak zaree, ikasi ta jakin bear diran gai guztietan: ⁶Kristo'ren itza zuekan sendotuta dago-ta. ⁷Ez da zuek ez dozuen grazirik, Jesukristo gure Jaunaren *azkenengo* agertaldia itxaroten dozuen ezkerok*. ⁸Berak indartuko zaitue azkenerarte, Jesukristo gure Jaunaren etorrera-egunean akats bagarik aurkituak izan zaitezene*: ⁹*Jaungoikoaren* Semea *dan* Jesukristo gure Jaunaren lagunkide izateko dei egin dautsuen Jaungoikoa, zintzoa da-ta.

I. ALDERDIKERIAK

1. KORINTO'KO ELIZEAREN ALDERDIAK

Alkar-arteko maitasunaz

¹⁰Jesukristo gure Jaunaren izena-gaitik eskatzen dautsuet zuei, anai-oi: berbaera berbera erabilli dagizueta guztiok, eta ez daitela izan alderdikeririk zuen artean; bestetara baiño: gogo bateko ta eritzi bateko izanik bizi zaitezela. ¹¹Izan be, zuen artean, ene anaiok, eztabaidak dirala jakin dot Kloe'koen bidez; ¹²eta zuetariko bakotxak auxe diñoala: «Ni beintzat, Paulo'rena naz; ni, barriz, Apolo'rena; eta ni, Zefas'ena; eta ni, Kristo'rena*». ¹³Kristo zatitu egin ete-da, ba? Ala, Paulo izan da zuekaitik

gurutzeratua?, ala, Paulo'ren izenean izan ete-zaree bateatuak? ¹⁴Eskerrak damotsadaz Jaungoikoari, Krispo ta Gaio izan ezik, zuetariko bat be bateatu ez dodalako: ¹⁵neure izenean izan zareela bateatuak, iñok be esan ez dagian. ¹⁶Estefanas'en etxeokak be neuk bateatu nebazan, bai; ez dakit besterik bateatu dodanik.

Munduaren eta Jaungoikoaren jakituria

¹⁷Ez nenduan Kristo'k bateatze-
ra bialdu, Barri Ona zabaltzera bai-

1 2 Cf. 1 30; 6 11; Ap 5 11+; 9 13+; 2 16+.

1 7 *Azkenengo agertaldia*, au da, *parusia*, 15 23+, edo Kristo'ren bigarren etorrera-eguna, 8. Orduantxe etorriko da Kristo bere aintzatan, Lk 17 30; Ts 2* 1 7.

1 8 *Jaunaren Eguna*, Kristo'k sortutako eskatoloi-aldia oso-osoa beteko dan

Eguna da, 5 5; Ts 1* 5 1+; e.a.; Am 5 18+. Ez dakigu noiz izango dan Egun ori, izadi guztia dardaraka era-barrituko dana, 15 23+; Mt 24 1+; Ts 1* 5 1+; P 2* 3 10+; Ag 20 11; 21 1+.

1 12 Paulo'ren aurka joateko, Apolo'gana, edo Pedro'gana, edo Kristo berberagana joten eben kristau batzuek, Ap 18 24.

ño*: eta ez berba jakitunez gero, Kristo'ren gurutzea alperreko egin ez daiten. ¹⁸Gurutze itza, galtzen diranentzat, zorakeria da-ta: salbatzen diranentzat, barriz, edo bardin dana, guretzat, Jaungoikoaren indarra. ¹⁹Idatzita dago-ta: *Jakintsuen jakintza ondatu egingo dot, eta zuurren zuurtasuna uts biurtuko dot.*

Korinto'koai asarre egiten dautse

²⁰Nun dago jakintsua? Nun ikastuna*? Nun mundu onetako burutsua? Jaungoikoak ez ete-dau mundu onetako jakituria zorotzat agertu? ²¹Izan be, mundua Jaungoikoaren jakintzatik Jaungoikoa ezagutze-
ra jakinbidez ez zan eldu: sinistedunak Barri Onaren iragarte zoroaz salbatzea nai izan eban Jaungoikoak. ²²Judarrak mirari-billa dabiz; gerkarrak, jakite-eske*; ²³guk, ostera, Kristo gurutzeratua iragarten dogu, judarrentzat gaizpide, ta gerkarrentzat zorakeri; ²⁴deituentzat ostera, naiz judar izan naiz gerkar izan, Jaungoikoaren indar eta jakintza dan Kristo. ²⁵Jaungoikoaren zorakeri *dirudiana*, gizonak baiño jakintsuago da; Jaungoikoaren makaltasuna *dirudiana*, barriz, gizonak baiño indartsuagoa.

²⁶Begira, bestela, anaiok, deituak nortzuk izan zareen: giza-negurritz, ez dago zuen artean jakitun askorik, ezta aaltsu askorik be, ezta aundiki askorik be. ²⁷Bestetara baiño: gizar-teko zoroak aukeratu dauz Jaungoikoak, jakitunak lotsarazoteko; eta gizar-teko makalak aukeratu dauz Jaungoikoak, indartsuak lotsaz iz-

teko; ²⁸eta gizar-teko zabor, ondar, ezer ez dana aukeratu dau Jaungoikoak, zerbait dana ondatzeko, ²⁹Jaungoikoaren aurrean iñor arrotu ez daiten. ³⁰Zuek be Beragandik dozue izatea Jesukristo'gan: guretzat jakintza, zuzentasuna, santutasuna ta erospena *Kristo* izan dadin, Jaungoikoak nai izan dau-ta, ³¹idatzita dagoanez: *Arrotu daitena, Jaunagan arrotu bedi**.

Paulo'ren irakasbidea

2 ¹Zuen artera joan nintzanean, anaiok, Kristo'ren autorra berba guren eta jakintsu bagarik iragarri neutsuen. ²Izan be, ezer ez neban zuen artean jakin nai, Jesukristo izan ezik, eta Au gurutzetua. ³Zuen aurrean makal, bildurrez eta ikara aundiz aurkeztu nintzan. ⁴Nire itza ta iragartea ez zan izan giza-jakintzaren izkeraren bidez, Jaungoikoaren adore ta indarraren bidez baiño; ⁵zuen sinismena Jaungoikoaren indarrean egon daiten, eta ez giza-jakintzan.

⁶Alan be, bikaiñen* artean diño-gu jakintza; ez, ostera, gizar-teko onetako jakintza, ezta gizar-teko nagusi galkorrena be; ⁷Jaungoikoaren jakintza ezkututa ta isilpekoa baiño, betidanik gure aintzarako Jaungoikoak aukeratu ebana. ⁸Gizarte onetako nagusi batek be ez dau jakintza ori ezagutu izan: ezagutu izan ba'lebe, ez leukeen aintzaren Jauna gurutzeratuko*. ⁹Baiña, idatzita dagoanez: *Ez dau begirik ikusi, ez belarrik entzun, ez gizonaren biotzek somatu, Bera maite*

1 17 Entzuleen biotzetan sinismena sortzea zan Paulo'ren eginkizun nagusia. Bateatzea, oso aintzakotzat eta premiñazkotzat eukiarren, besteen eskuetan izten eban. Cf. Erm 6 3-4+; Ga 3 26+.

Gizonen jakituri ta erretorikea baiño askoz gorago dago Jainkoaren jakituria, 2 1-5; 1 22-25; 2 5-7. Cf. Jb 32 8+; Ap 17 22+; Erm 16 25-28+; Ef 3 9-10; Eb 3 13-18.

1 20 Is 29 14; 33 18 (LXX); 19 12'garrenetatik jasota.

1 22 Ezaugarriak eskatzea, cf. Mt 8 1+, edo giza-adimena bete-betean aseten

dauzan errazoiak billatzea, Jainkoagan uste osoa ez eukitea da. Jainkoaren jakituri osoa Kristo gurutzeratua da, 17; cf. 2 2; Ga 3 1; 6 14; Flp 2 8.

1 31 Jr 9 22-23'garrenetatik jasoa, baiña ez itzez-itzez. Cf. Erm 3 27+; Ga 6 14.

2 6 *Bikaiñak*, au da, kristau *elduak*, ez *ume-antzekoak*, 3 1. Bateoa ondoren kristautasun betean bizi diranak, cf. 14 20; Mt 5 48; 19 21; Flp 3 15; Ebr 5 14.

2 8 Jesus eta Jainkoa mailla bardiflean ezarten dauz emen Paulo'k, Ur 14 16+; Erm 16 27+.

*dabentzat Jaungoikoak atonduta daukana**, orixe iragarten dogu guk.

¹⁰ Guri, barriz, Jaungoikoak bere Espirituaren bidez agertu dausku; Espiritu ori gauza guztien barruan sartzen da, Jaungoikoaren barru-barruraino be bai. ¹¹ Gizonetan nor da giza-barrua ezagutu daikenik, norberagan dagoan giza-espirtua izan ezik? Era berean, Jaungoikoaren gauzak ez dauz inok ezagutzen, Jaungoikoaren Espirituak izan ezik. ¹² Guk, barriz, ez dogu gizarte onetako espirtua artu, Jaungoikoagandik dan Espiritua baiño: Jaungoikoak emon dauskuzan gauzak ezagutu dagiguzan. ¹³ Eta gauza oneik azaltzen dautsueguz, ez gero giza-jakintzatik datozen berba apañez, *Jaungoikoaren* Espirituagandik ikasitako itzez baiño, espirtuaren gaiak espirtuarenak alkartuez: ¹⁴ gizonak bere sen utsez ez dauz Jaungoikoaren Espirituaren gauzak ulertzen: beretzat zorakeri dira ta ezin ulertu daikez, Espirituaren bidez ulertzekoak dira-ta. ¹⁵ Espirituzaleak, barriz, gauza guztiak aztertzen dauz, baiña bera ezin inok aztertu daike. ¹⁶ Izan be, *Jaunaren asmoa nok ezagutu dau, Ari irakatsiak emoteko?* Baiña guk ba-dauka-gu Kristo'ren pentzakerea.

Alderdikeriak Korinto'ko elizan

3 ¹ Eta nik, anaiok, ezin berba egin izan neutsuen espirtu-zaleai lez, aragi-zaleai lez baiño, Kristo'gan umetxoai lez baiño. ² Esnea emon neutsuen edateko; ez neutsuen janaririk emon, orduan ezin zeiken artu-ta. Oraintxe be oraindiño ezin *janaririk artu* daikezue, ³ oraindiño aragikoi zaree-ta. Izan be, zuen artean ikusi-eziñak eta eztabaidak ba'dira, ez ete-zaree aragikoi agiri ta giza-eratarata ibilten? ⁴ Batak

² 9 Is 64 3, eta Jr 3 16'garrenetatik jasoak.
³ 15 Garbitokia aitatzea ikusten dabe

«Ni Paulo'rena naz», eta besteak «Ni Apolo'rena naz» esatean, ez ete-zaree giza-eratarata agertzen?

⁵ Zer da, ba, Apolo, ta zer da Paulo? Sinistera ekarri zaituen morroiak *dira*, Jaungoikoak bakotxari emondako arloan. ⁶ Nik jarri (*landatu*) egin neban, Apolo'k txipristindu (*busti*); baiña aunditzea emon ebana, Jaungoikoa izan zan. ⁷ Izan be, jarten dauana (*landatzailea*) ezer ez da, ezta bustiten dauana be, aunditzea emoten dauan Jaungoikoa baiño. ⁸ Jarten dauana ta bustiten dauana, biak bat dira; eta bere lanari dagokionez artuko dau bakotxak saria. ⁹ Gu Jaungoikoaren laguntzaille batzuk gara-ta; zuek, barriz, Jaungoikoaren lur golutua zaree, Jaungoikoaren etxea.

¹⁰ Nik, etxegille zuurrari dagokionez, oiñarriak jarri dodaz, Jaungoikoak bere grazia emon eustanez; etxea, barriz, beste batek egiten dau gaiñean. Ikusi dagiala bakotxak etxea gaiñean zelan egiten dauan. ¹¹ Beste oiñarririk inok ezin jarri daike-ta, jarrita dagoana izan ezik, eta ori Jesukristo da. ¹² Oiñarri onen gaiñean norbaitek zerbait urrez, zidarrez, arri ederrez, zurez edo lastoz eragiten ba'dau, ¹³ bakotxaren lana agirian geratuko da: aldi egokian suak agertuko dau, eta bakotxaren lana zelakoa izan zan suak erakutsiko dau. ¹⁴ Egillearen lana zutik geratu ba'dadi, *egille* onek saria artuko dau; ¹⁵ eta lan ori erre. ba'da, berea izango da kaltea; bera, orraitin, onik urtengo da, baiña sutan zear lez*.

Benetako jakintza

¹⁶ Ez al-dakizue Jaungoikoaren etxe zareena, eta Jaungoikoaren Espiritua zeukan bizi dana? Norbaitek Jaungoikoaren etxea loitu ba'dagi, Jaungoikoak alakoa ondatu egingo dau*. ¹⁷ Jaungoikoaren etxea

askok itz oneitan.
³ 16 Cf. 6 9; Ko 2^a 6 16; Ef 2 21; Jn 2 21+; Ur 25 8+.

santua da-ta; etxe ori zaree zuek.

¹⁸ Ez bedi inor atzipetu. Zuetariko norbait zuen artean gizarte onen eritziz jakitun dalakoan ba'dago, zoro biurtu bedi, jakitun izan dadin: ¹⁹ gizarte onetako jakituria Jaungoikoaren aurrean zorakeri da-ta, idatzita dagoanez: *Jakitunak euren maltzurkeritan lotuko dodaz*. ²⁰ Eta beste atal baten: *Jaunak ba-daki jakitunen asmoak uskeri dirana**. ²¹ Beraz, ez bedi inor gizonakan arrot, dana zeuena da-ta; ²² naiz Paulo izan, naiz Apolo, naiz Zefas; naiz mundua, naiz bizitza, naiz erio-tza, naiz oraingoa, naiz gerokoa: dana zeuena da; ²³ eta zuek Kristo'renak, eta Kristo Jaungoikoarena.

Eritzi arrotsuak zelan zapaldu

4 ¹ Gizonak gu, Kristo'ren serbitzari ta Jaungoikoaren ezkutenen banatzailetzat artzea, bearezkoa da. ² Olako arduradunai, auxe eskatzen yake: zintzo jokatu dagiela. ³ Niri neuri, ardura gutxi zuek edo giza-epailleak niri auzia egitea: neuk be nire burua ez dot ebazten-eta. ⁴ Ez nau nire barruak ezetan salatzen; baiña ori ez da zintzotzat egoteko naikoa, nire Ebazlea Jauna da-ta*. ⁵ Ez emon, ba, zuek be epairik ordua baiño leen, Jauna etorri arte. Berak argituko dauz illunpetako ezkutua, eta argituko dauz biotzetako asmoak. Orduantxe izango dau bakotxak Jaungoikoagandik norberari dagokion gorapena.

⁶ Esan dautsuedan *uzti* ori, anaiok, neure ta Apolo'ren izenpean erakusten dautsuet, zuekanako maitasunagaitik; idatzita dagoanetik baiño geiago ez jakiten ikasi dagizuen gudan, eta baten alde besteren lepotik ez arrotzen. ⁷ Izan be, nok

³ 20 Jb 5 13 eta Sal 94 11'garrenetatik jasota.

⁴ 4 Morroiaren zintzotasuna, bere kontzientziak onartuaren be, ugazabak bakkarik ebatziko dau, Ko 2^a 1 12.

aukeratu zaitu? Eta zer dozu zuk artu izan ez dozunik? Eta artu izan ba'dozu be, zegaitik arrotzen zara, artu izan ez bai'zendum? ⁸ Onezkeror, aserik (*beterik*) zagoze! Aberats zagoze! Geu bagarik lortu dozue erreñua! Jaungoikoak nai dagiala zuek erreñua lortzea, orrela geuk be zuekaz batera erreñua izan dagigun! ⁹ Izan be Jaungoikoak gu, apostoluok, gizonetarik azkenengo artu gaituala uste dot, erioztara galduak lez: munduari, aingeruai ta gizonai ikusgarri gakiez-ta. ¹⁰ Gu, zoro gara Kristo'gaitik, zuek zuur Kristo'gaitik; gu makal, zuek indartsu; zuek aundiki, gu kaskar. ¹¹ Orain arte gose, egarri ta beartsu ibilli gara, matraillakoak artuez, bizitokirik ez dogula. ¹² Geure eskuz lan egiñik nekatu gara. Guri irain egin, eta guk onetsi; gu aurrean erabilli, ta guk ondo eroan; ¹³ gutzaz txarto esan, eta guk samur-samur erantzun; mundu onetako sats eta simaur egiñik gaudiez guztiak orain arte*.

¹⁴ Ez dot au zuek lotsarazoteko idazten, seme kutun zaituedanok bizkortzeko baiño. ¹⁵ Izan be, Kristo'gan amar milla umezain ba'daukazue be, aitarik ez dozue askorik, ostera: Barri Onaren bidez, Kristo'gan neuk sortu zaituet-eta.

¹⁶ Beraz, neure antzeko izan zaittezela eskatzen dautsuet. ¹⁷ Onexegaitik bialdu dautsuet nire seme maitagarri ta Jaunagan zintzoa dan Timoteo: berak ekarriko dautsuez gogora nire bideak Jesukristo'gan, eta zein dan nire irakatsia edonun eliza guztietan. ¹⁸ Batzuk arrotu egin dira, zuekana joango ez nazalakoan. ¹⁹ Baiña joango nakizue, eta oso laster joan be, Jaungoikoak nai ba'dau; eta orduantxe ezagutuko dot

⁴ 13 Bere apostolutza dala-ta eroan bear izan dauzan nekeak pozik gogoratzen dauz Paulo'k. Nekeon esan-naia auxe da: ezer onik egin ba'dau, Jainkoaren jakituri ta aal-izateari zor yakola, 1-2. Cf. Ko 2^a 4 7-12+; Ts 1^a 3, 4; Tm 2^a 3 10-12.

aroko orrean onbidea, ez eurak diñoena: ²⁰ Jaungoikoaren erreiña izketan ez dago-ta, onbidean baiño.

2. SENIDEKERIA

Agirizko pekatariakandik iges egin-bearra

5 ¹ Zuen artean aragikeria dagoala zabaldu da, jentil-errian bertan antzekorik aitatu be egiten ez dan aragikeria: bere aitaren emaztea* norbaitek beretzat artu dau-ta.

² Zuek, barriz, arrotuta zabize; ez al-do-zue negarrrik egin egitada ori egin dauana zuen artetik kendu daiten? ³ Nik, ostera, gorputzez urrun, baiña espirituz or nagoan onek, aurrean bai'nengoan, egitada ori egin dauana ebatzita daukat. ⁴ Jesus gure Jaunaren izenean, zuek eta nire espiritua alkartuta, Jesukristo gure Jaunaren aal-izatez, ⁵ orrelako ori Satanas'i emona izan daitela, bere gorputzaren zigorrerako, Jesus Jaunaren egunean pekatari orren espiritua onik urten daiten*.

⁶ Ez dago ondo zuen arrokeria. Ez al-dakizue legamin apur batek ora osoa jagiazoten dauana? ⁷ Jaur-

3. JENTIL-EBAZLEAKANA JOTEA

Auzikeriak

6 ¹ Zuetariko norbait, beste baten aurka zerbait erabillirik, santuakana* jo bearrean, gaiztoakana epaieske jotera ausartuko ete-da? ² Ez al-dakizue gizarte au santuak ebatziko dabena? Eta gizartea zeuek ebatzi bear ba'dozue, orrelako auzi ari-

⁵ 1 Aitaren emaztea, au da, *umeen amordea*. Ona emen Paulo'k korintotarrak salatzen dauksen leenengo gaiztakeria. (Cf. Ab 18 7-8).

⁵ 5 Kristau-lagunartetik jaurtiak, Satanas'en menpean izten dauz Jainkoak, cf. Tm 1^a 1 20; Ts 2^a 3 6-14; Jn 1^a 5 16-17. Baiña zigorra, zigortua onbideratzeko da, 11 32; Ts 2^a 3 15.

⁵ 8 Pazko-egunez legamin bagariko ogia jaten eben judarrak, Ur 12 1+. Egiatzko

²¹ Zer dozue naiago? Ni zuekana zigorrez joatea, ala maitasunez eta biotz otzanez?

ti egizue legamin zaarra, ora barri izan zaitezten, ogi-il zaren ezker, Kristo gure Pazko-bildotsa oparitzat il da-ta. ⁸ Egin dagigun, ba, jai: ez, ostera, legamin zaarraz, ezta gaiztakerizko ta dongakerizko *legamiñaz* be, garbitasun eta zintzotasunezko ogi-illakaz baiño*.

⁹ Aragikoiak ez zaitezela naastu esan neutsuen idazkiz. ¹⁰ Ez, orraitio, lur onetako aragikoi, edo diruzale, edo lapur, edo sasi-jainkozale diranakaz: bestela, lur onetatik urten egin bear izango zenduke-ta. ¹¹ Anai izena eroanez, norbait aragikoi, dirukoi, sasi-jainkozale, biraoti, moskorti edo lapur ba'da, orrelako-agaz jan be ez zenguela egin idatzi neutsuen. ¹² Izan be, *Elizatik* kanpora dagozanak ebaztea, neuri ete-dagokit? Ez al-dira Elizaren barruan dagozanak ebazten dozuezanak? ¹³ Kanpokoak, Jaungoikoak ebatziko dauz.

Zuek, barriz, kendu egizue gaiztoa zuen artetik.*

ñagoak ebazteko lain ez ete-zaree?

³ Ez al-dakizue aingeru *gaiztoak* ebatziko doguzana? Geiago, ba, gizar-teko gora-beerak! ⁴ Beraz, mundu onetako gora-beeretan auzigarririk ba'dozue, elizkide txikienak jarri egizuez ebazletzat. ⁵ Zeuen lotsakizunerako dirautsuet au. Ez al-dago

Pazko-Bildotsa dan Kristo'k Mt 26 17+; Jn 1 29+; 19 36; P 1^a 1 19, pekatuaren legamiña kendu ta bizitza barria damotso kristauari, Erm 6 4+, 11-12+; Kol 3 5+.

⁵ 13 Cf. Dt 13 6; 17 7; e.a.

⁶ 1 Bigarren gaiztakeria: Jainkoaren *zindokuntza* artu ez dabena, au da, jentil auzi-epaileak ez dabe *santurik* (kristaurik) epaitzeko eskubiderik, Ap 9 13+.

bat be zuen artean anaien arteko auziak ebazteko gizon zuur izan dai-tekenik?

⁶ Ori egin bearrean, anaiak anai auzitara daroa, eta sinisbageakana eroan be? ⁷ Naikoa erru da zuena alkarren aurka auzitan jardutea. Zegaitik ez dozue naiago iraiña ondo eroatea? Zegaitik ez dozue naiago eta kalte-egiañak ondo eroatea? ⁸ Eta ori egin bearrean, zeuek zaree iraiñak eta kalteak egiten dozuezanak, eta ori zeuen anaiak!

⁹ Ez al-dakizue gizon bidebageak*

Jaungoikoaren erreiña ez dabena jaritsiko? Ez zaitezte atzipetu: Jaungoikoaren erreiña ez dabe aragikoiak lortuko, ezta sasi-jainkozaleak be, ez ezkontza-naastailleak, ez emakume-antzeko gizonetzkoak, ez sodomakerizaleak, ¹⁰ ezta lapurrak be, ez diruzaleak, ez moskortiak, ez biraotiak, ezta arrapakariak be. ¹¹ Orixe izan zintzazen batzuk; baiña Jesukristo gure Jaunaren izenean eta gure Jaungoikoaren Espirituaz garbituak izan zaree, santutuak izan zaree, zindotuak izan zaree.

4. ARAGIKERIA

¹² «Dana yat bidezko*»; baiña ez egoki. «Dana yat bidezko»; baiña ez naz ezeren menpean geratuko. ¹³ «Janariak sabelerako, eta sabela janarietarako»; baiña Jaungoikoak bata ta besteak ondatu egingo dauz. Gorputza ez da aragikerirako, Jaunarentzat baiño; eta Jauna gorputzarentzat; ¹⁴ eta Jauna berbiztu eban Jaungoikoak, gu be berbiztu egingo gaitu bere indarrez.

¹⁵ Ez al-dakizue zuen gorputzak Kristo'ren atal dirana? Eta, Kristo'ren atalak nik artu, emakume galdu baten atal egiteko? Ez orixe! ¹⁶ Ala, ez al-dakizue emagaldugaz batzen dana, aregaz gorputz bat egiten da-

na? Idatzita dago-ta: «*Aragi bat izango dira biak**» ¹⁷ Jaunagaz batzen dana, barriz, Aregaz espiritu bat egiten da*.

¹⁸ Iges egizue aragikeriatik. Gizonak egin daiken edozein pekatu, bere gorputzetik kanpora geratzen da; baiña, aragikerizko pekatua egiten dauanak, bere gorputzaren aurka egiten dau pekatu.

¹⁹ Ez al-dakizue zuen gorputza Espiritu Santuaren etxe dana? Zeuekan bizi da, Jaungoikoagandik artu izan dozue-ta. Ez zaree zuen buruaren jabe, ²⁰ ordain aberatsaz izan zaree erosiak-eta*. Goratu egizue, ba, Jaungoikoa zuen gorputzaz.

II. AUZI BATZUK

1. EZKONTZA TA BIRJINTASUNA

Ezkontza dala-ta*

7 ¹ Idatzi daustazuenari buruz, yako gizonari emakumerik ez ikutzea. ² Alan be, lizunkeriari iges egitegaitik, bakotxak bere emaztea

, euki dagiala, eta emakume bakotxak bere senarra. ³ Emazteari senarrak zorra ordaindu begio, eta bardin emazteak be bere senarrari. ⁴ Emaztea ez da bere gorputzaren jabe, se-

⁶ 9 Gizon bidebageak, au da, *gaiztoak*.
⁶ 12 *Dana yat bidezko*. Paulo'ren esaera bat zan au, antza, 10 23. Baiña Korinto'ko lizunkeri-zaleak euren nasaikerietarako ulertzen eben. Kristauai dagokien askatasunak, Erm 6 15+, ez dau ezetarik bidebagekeririk onartzen: kristaua Jainkoarena da oso-osorik.

⁶ 16 As 2 24'garrenetik jasotako aitatze

onek nabariagotu egiten dau pekatu orren itxuskeria.

⁶ 17 Txatal guzti onetan agiri danez, ezkon-bizitzak Kristo'gaz alkartzen dau kristaua espirituz, Erm 8 9-11+; cf. Ef 5 23+.

⁶ 20 Cf. 7 23; Erm 3 24+; 6 15+.

⁷ 1 Idatzita bialdu dautsoezan itaun batzuei erantzuten dautse emen Paulo'k.

narra baiño; eta bardin, senarra ez da bere gorputzaren jabe, emaztea baiño. ⁵ Ez ukatu alkarri alkarganako eskubidea, bion baiezkoaz untxoren baten otoitzari ekiteko izan ezik; eta barriro alkarganako bizitzara bihurtu zaitez; zuen nasaike-ria dala-ta, Satanas'ek zirikatu ez zagiezan. ⁶ Baiña au, amorbidetz diñot, ez aginduz. ⁷ Gizaki guztiak neu lakoxeak izatea nai neuke; baiña bakotxak Jaungoikoagandik bere-bere grazia dauko: onek onetara, arek aretara.

⁸ Alan be, neu lez egotea obe dakioela dirautset ezkondu ez diranai ta alargunai. ⁹ Baiña aragia eziteko indarrik ez ba'dabe, ezkondu bediz: errea izatea baiño ezkontzea obe da-ta.

Ezkontza-lokarriaz

¹⁰ Ezkonduai buruz, barriz, auxe agintzen dautse Jaunak*, nik ez: emaztea senarragandik ez daitela banandu; ¹¹ eta banantzen ba'da, ez daitela barriro ezkondu, edo bere senarragaz adiskidetu daitela barriro. Senarrak be ez bere emaztea itzi.

¹² Enparaduai, barriz, neuk dirautset, ez Jaunak: anai batek emazte sinisbagea ba'dauko ta aregaz bizi izateko asmoa ba'dau, ez dagiala emaztea bialdu. ¹³ Eta emazte sinis- tedunak senar sinisbagea ba'dauko ta aregaz bizi izateko asmoa ba'dau, ez dagiala senarra itzi: ¹⁴ emazte fededunagaitik senar sinisbagea santututa geratzen da-ta; anaiagaitik emazte sinisbagea be santututa geratzen da: bestela, zuen semeak ez litzaitez garbiak izango; orain, barriz, santu dira. ¹⁵ Baiña, sinisbagea

Ez dakigu itaunok zelakoak ziran. Ortik datorrigu naastea ta illuna. Paulo'k erantzuten dautsenez, bakotxak Kristo'gana bihurtzean eukan *bizikeran* jardun bear dau, 17, 20, 24. Orixe da, ain zuzen be, bakotxak Jainkoagandik artutako doaiari eutsitea. Ona da ezkontza, eta orixe da, izan be, norbere burua lizunkeritik jagoteko *berezko* bidea. Birjintasunak, bestal- detik, espirituzko obariak daukaz, Jain-

banantzen ba'da, banandu daitela: orrelako zorian, ez dago anaia edo arrebea* orrelakoentzat lotuta: Jaungoikoak bakerako deitu gaituta. ¹⁶ Izan be, zer dakizu zuk, emazte orrek, senarra salbatuko dozun? Eta zuk, senar orrek, zer dakizu emaztea salbatuko dozun?

Bego bakotxa bere bizibidean

¹⁷ Orretzaz kanpo, bizi bedi bakotxa Jaungoikoaren deia artzean Jaunagandik eukan bizibidean. Eta orixe agintzen dot eliza guztietan. ¹⁸ Erdainduta gero artu dau norbaitek deia? Ez bedi orretzaz lotsatu. Erdaindu baiño leen artu dau norbaitek deia? Ez bedi erdaindu. ¹⁹ Ezer be ez da erdainkuntza, ezta erdainduta ez egotea be: Jaungoikoaren aginduak betetea baiño. ²⁰ Bego bakotxa *Jaungoikoaren* deia artzean egoan bizibidean. ²¹ Jopu zintzazala artu zenduan deia? Ez izan ardurarik; baiña, askatasuna lortu ba'daitez, ez galdu une egokia*. ²² Jopu zala, Jaunarentzat deitua izan zanak, Jaunagan askatasuna lortu dau-ta; era berean, askatua zala deitua, Kristo'ren jopu da. ²³ Ordainbidez erosiak izan zaree; ez zaitez gizonen jopu egin. ²⁴ Anaiok!, irauñ dagiala bakotxak Jaungoikoaren aurrean *Jaunaren* deia artzean egoan bizibidean.

Garbitasunari buruz

²⁵ Ezkongaiantzat ez dot Jaunaren agindurik; baiña, Jaungoikoaren errukiz jadetsi dodan zintzotasunak eragiñik, ona emen nire eritzia: ²⁶ Nire ustez, oraingo bearrizanagaitik, egoki yako edozein gizoni be-

koak bizikera orretara deitutakoentzat. Osotu beste onen bidez: Ef 5 22-23.

⁷ 10 Cf. Mt 5 32; 19 9+. Kristau- ezkontza askatu-eziña da.

⁷ 15 *Anaia* edo *arrebea*, au da, senar edo emazte kristaua.

⁷ 21 Beste itzulpen bat: «Jopu zintzazala artu zenduan deia? Ez izan ardurarik; baiña, askatasuna lortu aal ba'dagizu be, obe dozu oraingo egoera.»

ra dagoenez geratzea. ²⁷ Emazteari lotuta al-zagoz? Askatzerik ez billatu. Emazte bagarik al-zagoz? Emazterik ez billatu. ²⁸ Alan be, ezkontzen ba'zara, ez dozu pekatuerik egiten; neskeak be, ezkontzen ba'da, ez dau pekatuerik egiten. Orrelakoak, ostera, aragi-neketan egongo dira; eta ez neuke ori zuentzat nai.

²⁹ Ona emen dirautsuedana, anaiok!; laburra da epea*. Beraz, emaztedunak, emazterik ez ba'lebe lez ibilli daitezala; ³⁰ negar egiten dabenak, egingo ez ba'lebe lez; pozik dagozanak, poz bagarik lez; erostunak, ezer ez ba'lebe lez; ³¹ eta lurrekoetan diarduenak, orreitan jardungo ez ba'lebe lez: mundu onen irudia igeskor da-ta.

³² Zuek ardura bagarik egon zeitezela nai neuke nik. Ezkondubagea, Jaunari dagokionaz arduratsu dabil, Jaunari zelan atsegin emongo. ³³ Emazteduna munduko gauzen arduratsu dabil, emazteari zelan atsegin emongo ³⁴ eta bitara dago. Emakume ezkondubagea ta neskea, Jaungoikoari dagokionaz dabil arduratsu, gorputz eta arimaz santu iza-

teko. Senarduna, barriz, lurrekoaz arduratsu dabil, senarrari zelan atsegin emongo. ³⁵ Au, zeuen onerako dirautsuet: ez, orraitioño, zuei sarea ezarteko, ohea danari begiraturik baiño, eta eragozpen bagarik Jaunari egokiago lotu zakiozen.

³⁶ Norbaitek*, bere alaba neskar geratzea lotsagarri-yakola ta a ezkondu egin bear dauala uste ba'dau, nai dagiana egin begi; ez dau pekatuerik egiten; ezkondu dagiala. ³⁷ Baiña, beste era batera egin bear izanik izateke ta bere nai-izatearen jabe dala, norbaitek bere biotzean bere alabea ezkondu bagarik izteko asmo sendoa artzen ba'dau, ondo egiten dau. ³⁸ Beraz, bere alabea ezkontzara daroan, ondo egiten dau; eta ezkontzara ez daroan, obeto egiten dau. ³⁹ Senarra bizi dan artzean, emaztea lotuta dagokio; baiña senarra il egin ba'yako, nai dagianagaz ezkontzeko bere eskuko da, Jaunaren legez, orraitioño. ⁴⁰ Baiña zoriontsu izango da alan geratu ba'dadi; auxe da nire burubidea, eta Jaungoikoaren Espiritua daukadala uste dot.

2. JAINKO-IRUDIAI ESKIÑITAKOARI BURUZ

Sasi-jainkoai eskiñitako okelak dirala-ta*

8 ¹ Sasi-jainkoai eskiñitako okelai buruz, ba-dakigu guztiok jakitun gagozana. Baiña, jakintzak buztu egiten dau, eta maitasunak eragin. ² Norbaitek zerbait ba-dakiala uste, ba'dau, ez dau oraindifoño ezer jakin, jakin bear danez; ³ baiña Jaungoikoa maite dauana, Aren begiko da:

⁴ Sasi-jainkoai eskiñitako janariak jateari buruz, ba-dakigu sasi-jainkoa munduan ezer ez dana, eta Jaungoiko bat baiño ez dagoana. ⁵ Izan be, ortzian (*lur onetako zeruan*) eta lurrean jaungoiko izenez jainkotzako ta jauntzako asko ba'dira be, ⁶ guretzat Jaungoiko Aita bat baiño ez dago; dana Aregandik dator eta gu Arenak gara; Jauna be bat bakarra

⁷ 29 Aurretik dogun bizitzaldia, edozelan be, laburra da beti. Erm 13 11+; Flp 4 5+; eta kristauak lurreko ondasunai bere burua lotu bagarik irauñ bear dau, ondasun oneik Kristo'ren erreiñuan ez dabe garrantzi aundirik-eta.

⁷ 36 Txatal au ulergatxa da. Kristautasunera bihurtu aurretik ezkongai ziranai buruz diardu, bearbada. Paulo'k damotsen burubide au 8-9'gn. ataltxoetan oiñarrituta dago.

⁸ 1 *Sasi-jainkoai eskiñitako okelak* (gerkeraz *idolotito*), sasi-jainkoari *oparitan* eskiñitakoak izaten ziran. Iru zatitan banandu ondoren (bata sasi-jainkoentzat, bestea abadentzat eta irugarrena eskiñitaillearentzat), enparadua saldu egiten eben merkatuan. Zillegi ete-da kristautentzat onelako okelarik jatea? Orra kristau askoren kontzientzi-kezak. Korapillook askatzera dator Paulo, 10 14-22; cf. Erm 14 1+. Cf. Ap 15 20, 29. Azalpen luzeak emoten dauz gaifera.

da, Jesukristo; gauza guztiak Bero- nek egiñak dira, baita geu be*.

Goi-maitasunari buruz

(Erm 14; 15, 1-2; Ts 1^a, 5, 14)

⁷ Baiña, ori ez dabe guztiak argi ezagutzen. Oraindiño sasi-jainkoa zerbait dala uste izanik, batzuek ari eskiñitako okelea jaten dabe; eta arein barrua, makala da-ta, loitu egiten da. ⁸ Baiña janariak ez gaitu Jaungoikoaren begiko egiten; jan dagigulako ez gara geiago izango, ezta jan ez dagigulako be ez gara gutxiago izango. ⁹ Kontuz, gero, zuen eskubide ori makalai galbide izan ez dakien*! ¹⁰ Izan be, orrelako norbaitek sasi-jainkoen etxeko maian jesarrita ikusi ba'zagiz zu, jakintza daukazun ori, ez ete-yako alakoari, barruz makala danari, sasi-jainkoai eskiñitako okelak jateko gogoia biztuko? ¹¹ Eta zeure jakintzagaitik galdu egingo al-da zure anai makala, Kristo aren alde il dala be? ¹² Orrela, anaien aurka pekatu egiñik eta arein barru makala zauriturik, Kristo'ren aurka egiten dozue pekatu. ¹³ Beraz, nire janariak nire anaia galbidera ba'daroa, ez dot iñoiz be okelarik jango, nire anaia galdu ez dadin.

Paulo bera Korinto'koentzako eredu

⁹ Ez ete-naz neure burujabe*? Ez ete-naz apostolu? Ez ete-dot Jesukristo gure Jauna ikusi? Ez ete-zaree zuek nire lana Jaunagan? ² Besteentzat apostolu ez ba'naz be,

⁸ 6 Esakera luze onetan ez dago aditzik gerkeraz. Onetara be osotu daiteke, bearbada: *Jaungoiko bakar bat baiño ez dago: Aita; Beragandik dator dana eta gu Beragana goaz; eta Jaun bat bakarra: Jesukristo; gauza guztiak Beronek egiñak dira, eta Beronen bitartez goaz gu Aitagana.*

⁸ 9 Sasi-jainkoak ezer ez dirala uste dabenak errazoa dabe; eta ondo egiten dabe ezer ez diran sasi-jainkoai eskiñitako aragia kezka bagarik jatean. Baiña buru-argi giñagoz bestetara uste dabenak be ba-dira, eta ez dira ausartzen

zuentzat beintzat ba-naz: nire Apostolutzaren ezaugarria Jaunagan zeuek zaree-ta. ³ Auxe da nire egike-rea aztertzen dabenai damotsedan erantzuna: ⁴ Ez ete-dogu jan-edateko eskubiderik? ⁵ Ez ete-dogu gure ibillaldietan arrebaren bat* eroateko eskubiderik, beste apostoluak eta Jaunaren senideak eta Zefas'ek lez? ⁶ Ala, neu ta Bernabe soillik ete-gagoz geure lanaz bizi izateko beartuak? ⁷ Nor ibilli da iñoiz gudaketan norberaren lepotik? Nok jarten dau maastia ta ez dau aren fruturik jaten? Nok larratzen dau artalde ta ez dau ardien esnerik edaten?

⁸ Giza-sentzunez bakarrik ete-diño au? Ala, Legeak berak be ez ete-diño au? ⁹ Moises'en Legean idatzita dago-ta: «Gari-joten diarduan idiari, ez dautsazu musturreko-rik ezarriko*.» ¹⁰ Ala, ori batez be geuretzat ete-diño? Bai, geuretzat dago idatzita: goldalariak *soloko frutuen* itxaropenaz goldatzen dau, eta gari-jotailleak be frutuen itxaropenaz jotzen dau garia. ¹¹ Zuekan espiritu-azia erein dogunok, arritzekoa ete-da bizi izateko bearrezko diranak zeuekandik batzea? ¹² Beste batzuek zuen ondasunetan eskuartzeko eskubidea ba'dabe, ez ete-dogu guk eskubide geiago izango? Alan be, ez dogu eskubide au erabilli; bestetara baiño: dana eroaten dogu ondo, Kristo'ren Barri Onari eragozpenik jarri ez daiogun. ¹³ Ez al-dakizue jaurettxeko eginkizunetan diarduenak, jaurettxetik jaten dabena?, eta altarako arazoetan

olako janariak jaten. Alkar-maitasun- rren, onakoen kontzientzia be kontuan artu bear da. Askatasuna bai, baiña erantzukizunez, cf. Erm 14-15.

⁹ 1 Askatasuna dau Paulo'k be. Eta askatasuna daualako itzi dauz apostolui dagokiezan eskubide batzuk, eta bere burua guztien morroi biurtu dau, 19-23; 10 33; Ap 18 3+; cf. Erm 6 15+.

⁹ 5 Arrebaren bat, au da, *neskamenen bat*. Apostoluen premiñen arduraduna. Cf. Lk 8 2-3.

⁹ 9 Dt 25 4 eta Ab 12 6, 24'garreneta- tik jasota.

diarduenak, altarako oparietatik eskuartzen dabena? ¹⁴ Alantxe agindu dautse Jaunak Barri Ona iragarten dabenai be: Barri Onaren lepotik bizi daitezala.

¹⁵ Alan be, ez dot nik eskubide au erabilli. Eta au ez dot idazten, ori neuri egin dakidan. Norbaitek gorapen au kendu daistan baiño naiago dot il nadin. ¹⁶ Barri Ona zabaltzea, niretzat ez da gorapen, bearrizana baiño. Errukarria ni, Barri Ona zabaldu ez ba'nengi! ¹⁷ Eta au gogo onez egiten ba'dot, saria izango dot; indarrez egiten ba'dot, barriz, niri dagokidan eginbearra bete baiño ez dot egiten. ¹⁸ Zein izan daiteke, beraz, nire saria? Barri Ona zabaltzeko lana utsean egitea, iragarte orregaitik dagokidazan eskubideak erabilli bagarik.

¹⁹ Izan be, neure burujabe izanik, guztien morroi egin naz, aalbait geienak irabazi dagidazan. ²⁰ Eta judarrakaz judar egin naz, judarrak irabazi dagidazan. Legepean bizi diranakaz, ni Legepean egon ezarren, legepeko lez agertzen naz, legepekoak irabazi dagidazan. ²¹ Moises'en Legetik kanpoan dagozanakaz, Legetik kanpoan bai'nengoan agertzen naz —ni Jaungoikoaren legetik kanpoan egon ezarren, Kristo'ren legepean baiño—, legebageak irabazi dagidazan. ²² Makalakaz makal agertzen naz, makalak irabazi dagidazan; guztia guztientzat egiten naz, guztiak salbatu daitezzen. ²³ Guztia, Barri Onagaitik egiten dot, aren agintzarietan eskuartu dagidan.

²⁴ Ez al-dakizue, ba, nor-ariñago-ka diarduenak, guztiak arin egiñar- ren, saria batek bakarrik jasoten dauana? Saria irabazi aal dagizuen,

abiadan joan zaitezte, ba*. ²⁵ Burrukalari dana be, *gurari guztiai* gosea emonik bizi da; eta ori, koroí ustelkorra irabaztearren; guk, barriz, zimeltzen ez dana irabazten diardugu. ²⁶ Neuk be neure arifieketa daroat, eta ez noruntz ez dakidala; ukabilka nabil, ez gero aizeari ukabilka; ²⁷ neure gorputza astintzen eta menpera ekarten diardut: besteai irakatsi ondoren, neure burua galtzea jazo ez dakidan.

Israel'go istoria, kristauen ikasbide*

10 ¹ Ez dot nai, anaiok, gure gurasoai jazo yakenaz aaztu zaitezten: guztiak egon ziran odeipean, guztiak igaro ziran itsasotik; ² guztiak jarraitu utsoen Moises'i odeipean eta itsasoz; ³ guztiak espiritu- janari berbera jan eben eta spiritu- edari berbera edan eben —⁴ edan be, ondotik yoiakien arritik edaten eben; arria, barriz, Kristo zan*—. ⁵ Baiña areitariko geienak ez ziran Jaungoikoaren gogoko izan, basamortuan ilda geratu ziran-eta.

⁶ Jazopenok, guretzat irudi* izateko jazo ziran, gurari okerrik —areik lez— maite izan ez daigun. ⁷ Ez egizue sasi-jainkorik gurtu, areitariko batzuek lez, idatzita dagoanez: «*Erria jan-edatera jesarri zan, eta gero jolas egitera jagi ziran*.*» ⁸ Ez daigun aragikeririk be egin, areitariko batzuek egin ebenez: areitariko ogei ta iru milla il ziran orrexegaitik egun baten. ⁹ Ez daigun zirikatuta Jauna: areitariko batzuek ori egin eben ezkerro, sugeak aginka eginda il ziran. ¹⁰ Ez egin mormoxetan, areitariko batzuek

⁹ 24 Aaltsu diranak euren eskubideai uko egingo dautsee sarritan, maitasun- rren eta zeruko saria lortzearren.

¹⁰ 1 Israel'en istoriatik artutako argi- bideok auxe erakusten dabe: guztiok ga- gozala *pot-egiteko* artiskuan, 9 27.

¹⁰ 4 Arria. Ur 17 5-6; Zn 20 8-11, ez zan *Yabe*, (*Jauna*), judar irakasleak uste ebenez; Israel'en istorian aurretiaz mur-

gilduta egoan Kristo baiño.

¹⁰ 6 Irudiak, berez, beste zerbait adierazoten dau, gerizeak benetako zerbait adierazoten dauan lez. Alkartasun Zaarre-ko irudiak, Alkartasun Barriko benetako zerbaitzuen gerizak ziran. Beraz, Alkar- tasun Zaarra Alkartasun Barriaren irudi ta gerizea zan, cf. P 1^a 3 21; Ga 4 24.

¹⁰ 7 Ur 32 6'garrenetik jasoa.

egin ebenez, eta Galtzailleak jota il ziran.

¹¹ Oker guztiok arei iruditzat jazo yakezan, eta azken-aldiotan bizi garanon ikasbidetzat dagoz idatzita. ¹² Beraz, zutunik dagoana, bego zuur, jausi ez dadin. ¹³ Ez dozue izan gizonen indarrez gorako tentaldirik; zintzoa dozue Jaungoikoa, eta ez dau itziko zuen indarrez gaiñeko tentaldirik izan dagizuen.

¹⁴ Beraz, ene maiteok!, iges egizue sasi-jainkokeritik. ¹⁵ Gizaki zuurraz berbetan diardudan ezkerro, zeuek izan zaiteze diñodanaren auzi-epaille. ¹⁶ Guk bedeinkatzen dogun bedeinkapen-ontzia*, ez ete-da Kristo'ren odolaren alkartasuna? Eta guk zatitzen dogun ogia, ez ete-da Kristo'ren gorputzaren alkartasuna? ¹⁷ Ogia bat dan ezkerro, guztiok gorputz bat bakarria egiten dogu, ogi bakar orretatik artzen dogu guztiok-eta. ¹⁸ Ikusi egizue Israel aragi-eraz. Opariak jaten dabezanak, ez ete-dabe altaran eskuartzen? ¹⁹ Zer diño, ba? Sasi jainkoai eskiñitako okelak, zerbait dirala?, edo-ta, sasi-jainkoak zerbait dirala? ²⁰ Ez; jentillak eskintzen dautseela, ez Jaungoikoari*; eta nik ez dot nai zuek txerrenakaz eskuartu dagizuen. ²¹ Jaunaren edontzia ta txerrenen edontzia ezin edan daikezue. Jaunaren maikide ta txerrenen maikide ezin izan zaitekeze. ²² Ala, Jaunaren asarrea erakarrea nai ete-

3. ERA ONA BATZARRETAN

Emakumea elizan

11 ¹ Izan zaiteze neure antzeko, ni Kristo'ren antzeko nazenez*. ² Gauza guztietan neutzaz gomutatzen zareen ezkerro ta emon neutzuezan irakaspenak ondo beteten dozuezan ezkerro, goratu egiten

¹⁰ 16 Bedeinkapen-ontzi au Kristo'ren Eukaristia da, ¹¹ 25. Oparietan parte artzea, oparia eskeintzen yakon Jainkoagaz (naiz sasi-jainkoagaz) bat-egitea da. ¹⁰ 20 Dt 32 17/garretetik jasoa.

dogu? Bera baiño indartsuagoak etegara?

²³ «Dana bidezko da», baiña ez egoki; «dana bidezko da», baiña ez dabe gauza guztiak eragiten. ²⁴ Norberari onuratsu yakonik ez begi iñok billatu, besteai onuratsu yakena baiño. ²⁵ Okelategian saltzen dan edozer, jan egizue, bidezko ete-dan aztertzeke: ²⁶ lurra ta bertan dagoan dana, Jaunarena da-ta*. ²⁷ Sinisbageren batek dei eginda, aregana joan nai ba'dozue, aurrean jarri dagitzuen edozer jan egizue, bidezko ete-dan aztertzeke. ²⁸ Baiña norbaitek, «Au jainko-irudiai eskiñitarikoa da» esaten ba'dautsue, ez egizue jan, ori aitatu dautsunagaitik eta barruko kezkgaitik: ²⁹ ez diñot zure barruko kezkgaitik, arenagaitik baiño. Baiña, beste baten eritziak, zegaitik lotuko dau edozer jateko daukadan askatasuna? ³⁰ Jaten doudana eskerrak emonda artzen ba'dot, zegaitik egingo dauste agiraka, Jaungoikoari eskerrak emoten dautsadanagaitik?

³¹ Beraz, jatekoan, naiz edatekoan, naiz beste edozer egitekoan, dana Jaungoikoaren aintzarako egizue. ³² Gaizpiderik ez emon judarrai, ez gerkarrai, ezta Jaungoikoaren Elizeari be: ³³ neu be guztien gogotarra gauza guztietan ibilteko aalegintzen naz, niretzat onurakor danik billatzeke, guztientzakoa baiño, salbatu daitezcan.

zaituet. ³ Gizonezko guztien buru Kristo dala jakin dagizueta nai dot orain, anaiok; emaztearena, barriz, senarra; eta Kristo'rena, Jaungoikoa. ⁴ Burua estalduta, otoitz edo profeta egiten dauan edozein gizonnek, bere burua* loitu egiten dau.

¹⁰ 26 Sal 24 1/gotik jasoa. ¹¹ 1 Cf. 4 16; Ef 3 17; Ts 1* 1 6; Ts 2* 3 7. ¹¹ 4 Burua dala-ta, itz-jokoka diardur Paulo'k: Kristo da burua, au da, nagusia.

⁵ Burutsik otoitz edo profeta egiten dauan edozein emakumek, bere burua loitu egiten dau; burumotzik egon bai'litzan. ⁶ Emakumeak bere burua estaltzen ez ba'dau, burumotz egon daitela. Eta ulea moztea edo burumotz agertzea emakumearentzat lotsagarri ba'da, estaldu daitela.

⁷ Gizonak ez dau burua estaldu bear, Jaungoikoaren irudi ta aintza da-ta; emakumea, barriz, gizonaren aintza da: ⁸ gizona ez dator emakumeagandik-eta, emakumea gizonagandik baiño; ⁹ eta gizona ez da emakumearentzat egiña izan, emakumea gizonarentzat baiño. ¹⁰ Beraz, emakumeak burugaiñean menpetasun-ezaugarria roan bear dau, Aingeruak dagokien begiruneagaitik. ¹¹ Baiña, ez da emakumerik gizon bagarik, ezta gizonik be emakume bagarik Jaunagan. ¹² Izan be, emakumea gizonagandik datorrenez, gizona be izatera emakumearen bidez dator, eta biak Jaungoikoagandik datoz.

¹³ Zeuek erabagi egizue: egoki al-da emakumeak burutsik Jaungoikoari otoitz egitea? ¹⁴ Izaerak berak ez al-dautsue irakasten, gizona lotsatu egiten dala bere uleari azten izten ba'dautso? ¹⁵ Emakumeari, ostera, bere ulea azten iztea, goragarri yako: adatsa estalkitzat emon izan yako-ta.

¹⁶ Alan be, norbait setati ba'da, guk ez daukagu orrelako oiturarik, ezta Jaungoikoaren Elizak be*.

Jaunaren aparia

¹⁷ Zuei ardura au eskatzean, ezin onartu daikedaz zuen batzarraldiak:

¹¹ 5 Emakumearen buru-zapiak, senararen menpeko dala adierazoten eban, 10.

¹¹ 16 Dana dala, gai orrei buruz Paulo'k ez dau eztabaidan jardun nai.

¹¹ 20 Aparia, au da, Kristo'k Apostoluak egindako Azken-Apariaren oroigarria: Eukaristia. Korintotarrak Eukaristia ospatu aurretik alkar-aparia egiten eban, sarritan neurribagekeriz, Paulo'k salatzen dauanez.

oberako izan bearrean, kaltegarriariko yatzuez-eta. ¹⁸ Leenengo ta bein, zuen batzarraldietan alderdikeriak dirala entzun dot, eta zelanbait sinistu egiten dot. ¹⁹ Bearrezko da zuen artean alderdikeriak izan daitzean be, zuen artean zintzoak zeintzuk diran agertu daitzean. ²⁰ Eta alkarregana batzen zareenean, ez dozue Jaunaren aparia* egiten: ²¹ bakotxak jateko bere aparia dakar-eta. Olan, bat goserik geratzen da, eta bestea moskortu egiten da. ²² Ez ete-daukazuez etxeak jan-edanok egiteko? Edo-ta, Jaungoikoaren Elizea loitzen dozue, ta orrela lotsarazo ezer ez daukenak? Zer esango dautsuet? Goratu egingo ete-zaituet? Orretan ez, beintzat.

(Mt 26, 26-29; Mk 14, 23-25; Lk 22, 14-20)

²³ Izan be, Jaunagandik ikasi dot zuei irakatsi dautsuedan au*: Jesus Jaunak, saltzen eben gau aretan, ogia arturik, ²⁴ eta eskerrak emonda, zatitu ta auxe esan eban: «Au neure gorputza da, zeuen alde emoten dana; au neure gomutaz egizue». ²⁵ Era berean apalondoan be, edontzia artu ta auxe esan eban: «Ontzi au Alkartasun Barria da nire odolaz: edan dagizuen bakotxean, neure gomutaz egizue». ²⁶ Eta ogi onetatik jaten eta ontzi onetatik edaten dozuen bakotxean, Jaunaren eriotza iragarten dozue, Bera etorri arte. ²⁷ Beraz, ogi au jan, eta Jaunaren edontziko au bear ez danez edan dagianak, Jaunaren gorputz-odolaz errudun izango da.

²⁸ Aztetu begi, bada, bakotxak bere barrua, eta orduan ogi onetatik

¹¹ 23 Elizeak Kristo'gandik artuta daukana gogorazoten dautse. Eukaristiaren sortzeari buruz itz bardin samarrak dabillez Paulo'k eta Lukas'ek, Lk 22 19-20. Kristo'ren eriotzearen oroigarria da Eukaristia; eta era berean, betiko zorian-apariaren aurrerapen bat, Mt 26 29. Eukaristia, onez gaiñera, Kristo'gaz eta bata-besteagaz alkartzen gaitu kristauok, 10 16+.

jan begi ta edari onetatik edan: ²⁹ *Jaunaren* Gorputza aintzat artu bagarik jan-edaten dauanak, bere ondamentia jan-edaten dau-ta. ³⁰ Orregegaitik dagoz zuen artean orrenbeste geiso ta argal eta lo dagozanak be ez gutxi. ³¹ Geure buruak aztertuko ba'genduz, barriz, ez gintzakez ebatziak izango. ³² Baiña Jaunak zuzentzen gaitu bere zigorrez, munduagaz batera galduak izan ez gaitezan. ³³ Beraz, ene anaiok!, Aparitarako batu zaitezenean, alkarri itxaron egiozue. ³⁴ Norbait gose ba'da, bere etxean jan dagiala, zuen batzarak ondamentirako biurtu ez dakizuezan. Enparaduak, zeukana joan naitenean zuzenduko dodaz.

Espiritu Santuaren doaiak*

12 ¹ Ez dot nai, anaiok!, espirituzko doaiak buruz illunetan egon zaitez. ² Fedebageak zintzazela, ba-dakizue sasi-jainko mutuen irudietara berez eroanda lez joaten zintzazena. ³ Orregaitik, ba, jakitun jarten zaituet orain: Jaungoikoak eraginda diarduaniak iñok be ez dau-tso Jesus'i biraorik egiten, eta iñok be ez daike Jesus Jauntzat autortu, alakoari Espiritu Santuak eragin ezik.

⁴ Graziak, barriz, askotarikoak dira; baiña Espiritu Santua, bat bera. ⁵ Askotariko egikizunak dira; baiña Jauna, bat. ⁶ Askotariko eginbideak dira; baiña Jaungoiko berbera da guztietan dana egiten dauana*. ⁷ Eta bakotxari Espiritu Santuak irakasten daušana, guztien onerako da. ⁸ Espiritu orren bidez, batari

jakituri-itza emoten yako; besteari, Espiritu berberaz, irakasteko berba jakintsua; ⁹ orkoari, Espiritu berberaz, sinismena; angoari, Espiritu berberaz, geisoak osatzeko grazia; ¹⁰ urrengoari, mirariak egiteko indarra; oni, igartekoa; ari, edozein barru-jokera aztertzekoa*; urliari, izkera arrotzez berba egitekoa; berendiari, edozein esakera ulertzeko grazia. ¹¹ Egiteko guztiok, barriz, Espiritu berberak eta bakarrak egiten dauz, bakotxari Berak nai dauanez banaturik.

¹² Bat izanik be, gorputzak atal asko daukazanez, eta gorputzeko atal guztiak, asko dirala be, gorputz bakarra diranez, Kristo be orrelaxe da*. ¹³ Gu guztiok be Espiritu bat bakarrak izan gara bateatuak, gorputz bat bakarra egiteko; eta guztiok, naiz judarrak izan, naiz gerkarrrak, naiz jopuak, naiz askatuak, Espiritu beretik edan dogu.

¹⁴ Gorputza ez da atal bakarra, atal asko baiño. ¹⁵ Izan be, «eskua ez nazan ezker, ez naz gorputzarena» oiñak esan ba'legi be, ori dala-ta ez litzake gorputzagandik askatuko. ¹⁶ Eta, «begia ez nazan ezker, ez naz gorputzarena» belarriak esan ba'legi be, ori dala-ta ez litzake gorputzagandik askatuko. ¹⁷ Gorputz osoa begi ba'litz, nun egongo litzake entzumena? Eta *gorputz osoa* entzumen (belarri) ba'litz, nun legoke usaimena?

¹⁸ Baiña Jaungoikoak gorputzean atal bakotxa Berak nai izan dauanez jarri dau. ¹⁹ Guztiak atal bat ba'litzaz, nun legoke gorputza? ²⁰ Atalak

¹² 1 Espiritu Santuak Elizearen onerako isurten dauzan *doai* edo *karismak*, suster eta ganora aundi barik erabilten ebezan kristau batzuek. Paulo'k ganorbidean sartu nai dauz korintotarrak. Doai guztiak *alkar-maitasunaren* serbitzurako izan bear dabe, ¹³, eta kristauegunartearen onerako, ¹² ta ¹⁴. Paulo'k ez dauz aitatzen *doai* edo *karisma* guztiak, ²⁸⁻³⁰; Erm ¹² 6-8; Ef ⁴ 11. ¹² 6 Ikusi zelán aitatzen dauan Irutasun Deuna, 4-6; cf. Ko ² 13 13+.

¹² 10 Espirituaren benetako doaiak zeintzuk diran ezagutzea be Espirituaren doai bat da, ¹⁴ 29; Ts ¹ 5 20-21; Jn ¹ 4 1. ¹² 12 Kristau biurtu zanetik dauko Paulo'k buruan sartuta kristauok Kristo'ren *Gorputza* osotzen dogula, Ap ⁹ 5+. Gorputz bat eta bakarraren atal ez-bar-diñak gara. Sinismenez eta bateoz, Erm ⁶ 4+, Kristo berbitzurenak gara kristauok, eta Beragaz gorputz bat egiten dogu, ²⁷; ⁶ 15; ¹⁰ 16-17; Erm ¹² 4-5+; Ef ¹ 23+.

asko dira, baiña gorputz bat bakarra. ²¹ Begiak eskuari ezin esan daikeo: «ez dot zure bearrik»; ezta buruak be oiñai: «ez dot zuen bearrik». ²² Geiago oraindiño; makalenak dirudien gorputz-atalak, bearezkoenak dira; ²³ eta lotsagarrienak dirudien gorputz-atalak, eratasun aundiagoaz jazen doguz. Eta gure lotsariak ardura andiagoaz darabilguz. ²⁴ Berez eratsuak diran atalak, barriz, ez dabe geiagokoren bearrik. Baiña, eratsu ez diran atalai eratasun aundiagoa ezaririk atondu dau gorputza Jaungoikoak, ²⁵ gorputzean alderdikeririk izan ez dadin eta atalak alkarren ardura bardiña izan dagien. ²⁶ Olan, atalen bat mintzen ba'da, atal guztiak mintzen dira aregaz; eta atalen bat ospatua ba'da, beste atal guztiak poztuten dira aregaz batera. ²⁷ Zuek, ba, Kristo'ren gorputz zaree, eta zuetariko bakotxa Aren atal bat.

²⁸ Jaungoikoak Elizan, leenen, apostoluak jarri ebazan; gero, profetak; gero irakasleak; gero mirariak egiteko indarra, osatzeko doia, lagutzeko, agintzeko, izkuntzak berba egitekoa. ²⁹ Guztiak apostolu ete-dira? Guztiak profeta? Guztiak irakasle? Guztiak mirarigille? ³⁰ Guztiak osagille? Guztiak etdakiez izkuntzak? Guztiak itz-adierazle?

³¹ Doairik onenak arduraz nai izan egizuez!

Goi-maitasuna*

13 ¹ Baiña oraindiño bide bikaiña goa erakutsi nai dauzuet. Gizonen eta aingeruen berbeta guztiak jakiñarren be, maitasunik ez

ba'neu, kanpai-otsa edo arran-otsa lez izango nintzake. ² Eta profeten ikusmena euki, ta ezkutapen eta jakiteko guztiak jakin, eta mendiak leku batetik bestera aldatzeko aiñako sinismena eukiarren, maitasunik ez ba'neu, ezer be ez nintzake; ³ eta nire ondasun guztiak banatu ba'nengiz eta nire gorputza sugarretan jarri ba'nengi, baiña maitasunik ez ba'neu, ezetarako be ez litzakit. ⁴ Maitasuna eroapen oneko da, biozpera da. Maitasunik ez dau ikusi-eziñik, ez dau aundi-usterik, ez arrokeririk, ⁵ ez asko-nairik; maitasuna ez da berekoi, ez da asarratzen; maitasunik ez dau susmo txarrik egiten, ⁶ ez dau bidebagekiritan gogorik artzen, egian dau bere poza. ⁷ Guztia alde onera botaten dau, guztia sinisten dau, guztia itxaroten dau, guztia eroaten dau ondo.

⁸ Maitasuna ez da iñoiz be igaroten; igarketak euren azkena dauke, izkuntzak isildu egingo dira, jakintza be itzungi (*atzamatu*) egingo da. ⁹ Gure jakituria ta gure igarmena erdizkakoak dira. ¹⁰ Osotasuna etorri daitenean, erdizkakoana dana utsera joango da. ¹¹ Ume nintzanean, ume-antzera egiten neban berba, ume-antzera uste izaten neban, ume-antzera asmatzen neban. Baiña, gizon izatera eldu nintzanean, umeakeriak alde batera itzi nebazan. ¹² Orain izpilluz eta illuntsu ikusten dogu, baiña orduan arpegiz-arpegi ikusiko dogu. Orain erdizka ezagutzen dot; gero, barriz, neu ezagutzen nazanez ezagutuko dot. ¹³ Orain irurok* irauten dabe: sinismenak, itxarope-

agindurik nagusiena, Mt ²² 39; Erm ¹³ 8+. Aginduak beteaz egiztzen da maitasun au, Jn ¹⁴ 15; Jn ¹ 3 18+. Azken baten, maitasunean datza santutasun guztia, Ga ⁵ 6; Kol ³ 14. Zeruon osotu ta bikainduko da betiraun guztirako, ⁸, ¹²; cf. Ko ¹ 2 9.

¹³ 13 Iru onimen nagusiak, *Jainkoari buruzkoak* deritzenak, au da, sinismena, itxaropena ta maitasuna, eurrez aitatzen dauz Paulo'k bere eskutizetan, batez be Ts ¹ 1 3 garrenetik aurrera.

nak eta maitasunak; baiña eurotariko nagusia, maitasuna.

Igarmena ta izkuntzetarako doaia*

14¹ Aalegiñak egizue maitasuna lortzen; espiritu-doaia nai izan egizue, igarmen-doaia batez bere: izkera arrotzez berba egiten dauanak, ez dautse gizonai itz egiten, Jaungoikoari baiño: ² bere espirituak gai ezkutuak esanik, iñok be ez dautsaz ulertzen-eta. ³ Igarkeitari diarduanak, barriz, gizonai egiten dautse berba, onein onbiderako, burubiderako ta pozbiderako. ⁴ Izkera arrotzez berba egiten dauanak, norberaren onerako diardu; igarkeitari diarduanak, barriz, Elizearen onerako. ⁵ Izkera arrotzez zuek guztiok berba egin dagizuela nai dot, bai; baiña naiago dot zuek profeta egin dagizuen: profeta, izkera arrotzez berba egiten dauana baiño aundiagoa da-ta, izkeratsu onek bere izkerak Elizearen onerako azaldu ez ba'dagiz, beintzat.

⁶ Izan be, anaiok, ni orra izkera arrotzez berba egiten joan ba'nenkizue, zer atarako zeukee agerbidez, edo jakintzaz, edo igarmenez, edo irakaspenez berba egin ez ba'nengizue? ⁷ Bizi ez diran gauzak, ulerbidez, txirolak naiz zitarak, soifua jotan dabenarren, soifü-ots berarizkorik jotan ez ba'dabe, zelan ezagutuko da txirolaz edo zitaraz jotan dana? ⁸ Eta turutak soifü-ots jakina jo ez ba'legi, nor gertatuko litzake burrukarako? ⁹ Orrela zuek be, berba egiten dozuen izkera ulertteraza ez ba'da, zelan jakingo da zer diñozuen? Ormeari berba egiten jardungo zeukee. ¹⁰ Izan be, izkera asko dira lurreen, eta ez dago berea ez daukan erririk. ¹¹ Baiña, berbak adierazoten dabena nik eza-

gutu ez ba'dagit, berba egiten daustanarentzat erdaldun izango naz, eta berba egiten daustana niretzat erdaldun izango da. ¹² Beraz, zuek, espiritu-doaian maitatzaille zareenok, doaiok arduraz lortu egizue ugari, Elizearen onerako.

¹³ Orregaitik, izkera bat berba egiten dauanak, adierazo aal izateko grazia eskatu dagiala. ¹⁴ Izan be, erderaz (izkera arrotzez) otoitz egiten ba'dot, nire spirituak otoitz egiten dau, bai; baiña nire adimena frutu bagarik geratzen da. ¹⁵ Zer egin bear, ba? Espirituz egingo dot otoitz, baita adimenez be; espirituz abestuko dodaz Salmuak, baita adimenez be. ¹⁶ Baiña zuek *Jaungoikoari* eskerrak espirituz bakarrik emon ba'dagiozuz, erriko entzuleak zelan erantzungo dabe «Amen», zure esker-emotearen azkenez? Zuk diñozunik ez dabe ulertzen-eta. ¹⁷ Zuk oso ondo emongo dozuz eskerrak, baiña besteak andik ez dau on danik ezer be atarako. ¹⁸ Eskerrak emoten dautsadaz Jaungoikoari, zuek guztiok baiño izkera geiago dakidazalako. ¹⁹ Elizan amar milla berba ulertu-ezifia esan baiño naiago dot, bost berba ulertterazak esan, orraitifio, eurak be irakatsiak izan daitezak.

²⁰ Anaiok!, ez zaiteze senez ume izan; gaiztakerirako, bai, ume izan zaiteze; senez, ostera, gizon eldu izan zaiteze*. ²¹ Legean idatzita dago: «*Erri oni arrotzen izkeraz eta erdal-expanez egingo dautsat berba, eta olan be ez dauste entzungo*», diño Jaunak*. ²² Beraz, izketarako doaia sinisbageentzat da ezaubide; ez, ostera, fededunentzat; igarmena, barriz, ez da fedebageentzat, fededunentzat baiño. ²³ Egin dagigun, ba, Eliza osoa leku baten batuta dagoala ta guztiak izkera arrotzez berba egi-

14 1 Maitasuna goratu ondoren, beste doai batzuk azalduko dauz Paulo'k. Profezi-doaia ta izkuntza-doaia alkarren ondoan ezarririk, leenengoa mesedegarriagotzat dauko Elizearen onerako, 3-4.

14 20 Ume izan bear dogu gaiztakerirako. Mt 18 3, baiña kristautasuneko osoak, elduak eta zentundunak, 2 6+; Erm 12 2; 16 19; Ef 4 14; Flp 1 6. 14 21 Is 28 11-12'garrenetatik jasoa.

ten asten dirala; gutxi-ikasiak edo fedebageak sartu ba'lediz, ez ete-zeukeez zorrotzat artuko? ²⁴ Baiña beste-tara: guztiak igarketan diarduzuela, fedebage edo gutxi-ikasiren bat sartu ba'dadi, guztiak argituta eta ebatzita itziko dabe; ²⁵ aren biotzeko ezku-tuak agirian geratuko dira, eta, auspazturik, Jaungoiko gurtuko dau, zuen erdian benetan Jaungoiko dagoala autorturik*.

²⁶ Zer esan bear, ba, anaiok? Batu zaitezenean baktzak bere salmua, bere irakatsia, bere igarmena, bere izketaldia, bere azalbidea izan dagiala; baiña guztia onerako izan dadilla. ²⁷ Norbaitzuek izkera arrotzez egin bear ba'dabe berba, egin begie aldizka bik, edo geienez iruk; eta esandakoa norbaitek azaldu begi. ²⁸ Azaltzailerik ez ba'dago, ixilik begoz elizan *izkera arrotzez berba egiten dabezanok*, eta bere buruari ta Jaungoikoari egin dagitsee-la berba. ²⁹ Igarleai buruz, bik edo iruk egin dagiela berba, eta enparaduak ebatzi dagiela. ³⁰ Eta norbaitek berbetan diarduala, an jesarrita dagoan beste norbaitek agerpenen bat izaten ba'dau, lee-

nengoa isildu bedi: ³¹ orrela, banan-banan guztiok igarketan egin daiketzue, guztiak ikasi dagien eta burubideak artu dagiezan. ³² Igarleen espiritua igarleen menpean dago: ³³ Jaungoiko ez da naaste-Jaungoiko-ta, bake-Jaungoiko baiño.

Santuen (*kristauen*) eliza guztietan lez, ³⁴ begoz isilik emakumeak batzarretan: ez yake berba egitea bidezko-ta, menpeko bizi izatea baiño, Legeak diñoenez. ³⁵ Zerbait ikasi nai ba'dabe, etxean euren senarrai itandu dagitsee-la: elizan berba egitea, emakumearentzat ez da arazo eratsua-ta. ³⁶ Jaungoikoaren itza (*Barri Ona*) zeuekandik sortu al-dala uste dozue?, edo-ta zeuei soillik eldu yatzuela? ³⁷ Norbaitek igarle dala edo espiritu-doaian bat daukala uste ba'dagi, ezagutuko dau idazten dautsuedan au Jaunaren agindua dana. ³⁸ Ori ezagutu ez dagiana, barriz, ez da bera be ezagutua izango*.

³⁹ Beraz, ene anaiok, igarmena nai izan egizue, eta izkera arrotzez egitea ez egiozue iñori galerazo. ⁴⁰ Baiña dana egoki ta era onez egin bedi.

III. ILLEN BIZTUERA

Biztuera*

15¹ Neuk iragarrita artu dozuen Barri Ona dakartzet gogora, eta bertan sendo irauten dozue; ² eta neuk irakatsi neutsuen eusten ba'dautesazue, aren bidez salbatu egiten zarete, alperrik sinistu ez ba'dozue, beintzat.

³ Leenengo ta bein, neuk artu nebana emon dautsuet: Kristo geure

pekatuakaitik il zala, Liburu Santuak diñoenez; ⁴ lurperatua izan zala, irugarren egunean barriro biztu zala, Liburu Santuak diñoenez; ⁵ Pedro'ri agertu izan yakola ta gero Amabiai. ⁶ Gero, bosteun anairi baiño geiagori batera agertu izan yakela: oneitariko geienak bizi dira oraindiño; batzuk, barriz, il egin dira. ⁷ Gero, Santiago'ri agertu

14 25 Cf. Is 45 14; Za 8 23.

14 38 Au da, Jainkoak be ez dau berea lez onartuko.

15 1 Norbaitzuek *berbizkundea* ukatu egiten dabela jakin dau Paulo'k, 15 12. Izan be, zakar samarra da gerkarrentzat berbizkundea onartzea, Ap 17 32, illekorkan arimeari ez datorkie egoki, cf. Jk

3 4+. Judarrak be astiro-astiro ezagutu ta irakatsi eben, Sal 16 11+; Jb 19 25+; Ez 37 10; Ma 2^a 7 9+. Kristo berbiztu egin zala egiztatzeko, Apostoluen testigutari berea gaiñeratzan dautso Paulo'k, 1-11. Kristo'ren berbizkundea da, ain zuzen, Apostoluen irakatsien eta gure sinismenaren ardatza, 11, 14; Erm 1 4+, e.a.

yakon; gero, apostolu guztiai; ⁸ eta azkenez, neuri be agertu yatan, sein-galdu lako oni*.

⁹ Apostoluetarik txikiena neu nazta; apostolu izenez agertzeko be ez naz nor, Jaungoikoaren Elizea aurrean erabilli neban-eta. ¹⁰ Alan be, nazan au, Jaungoikoaren graziaz naz; eta Aren grazia ez da nigan alperreko izan, bestetara baiño: guztiak baiño lan geiago egin dot; ez nik, ostera, nigaz dagoan Jaungoikoaren grazia baiño. ¹¹ Areik eta nik, auxe da iragarten doguna ta auxe sinistu dozue.

¹² Izan be, Kristo illen artetik biztu egin dala iragarten ba'da, zuetariko batzuek zelan diñoen illen biztuerarik ez dala*? ¹³ Illen biztuerarik ez ba'da, Kristo be ez zan biztu. ¹⁴ Kristo biztu ez ba'da, barriz, gure iragarrea alperrekoa da, zuen sinismena be alperrekoa da. ¹⁵ Gaiñera, guzurrezko autorlari be agertzen gara gu Jaungoikoari buruz: Jaungoikoaren aurka, Kristo biztu egin dauala autortzen diardugu-ta; ez dau, barriz, biztu, illak bizten ez ba'dira. ¹⁶ Izan be, illak bizten ez ba'dira, Kristo be ez zan biztu; ¹⁷ eta Kristo biztu ez ba'da, zuen sinismena alperrekoa da: oraindiño zeuen pekatuetan zagoze. ¹⁸ Eta Kristo'gan il diranak be, galdu egin dira. ¹⁹ Kristo'gan dogun itxaropena bizitzaldi onetarako bakarrik ba'dogu, gizonik errukarrienak gara. ²⁰ Baiña ez; illen artetik Kristo biztu eta il diranen asikin egin da. ²¹ Izan be, eriotza gizon baten bidez etorri zanez, gizon baten bidez etorri zan illen biztuera be. ²² Guztiak Adan'egandik il diranez, Kristo'gan biztuko dira guztiak. ²³ Baiña bako-

txa bere txandan: leenen, Kristo; gero, Kristo'renak, Bera etorri daitenean*; ²⁴ gero, amaia izango da, Kristo'k erreñua Jaungoiko Aitari biurtu dagionean, aal-izate, aginbide ta indar guztiak ezereztu dagizanean: ²⁵ *arerio guztiak Aren oiñazpian ipiñi arte*, erregetza Berak izan bear dau-ta. ²⁶ Eriotza izango da, barriz, ezereztua izango dan azken-arerioa: ²⁷ *Jaungoikoak* dana bere *Semearen oiñazpian ipiñi dau-ta*. «Dana Aren azpian» dagoala diñoanean*, barriz, agirian dago ez dala barruan artu bear gauza guztiak azpian itzi dautsazana. ²⁸ Eta dana Aren azpian geratu daitenean, Semea Bera be gauza guztiak azpian itzi dautsazanaren azpian geratuko da, gauza guztietan guztia Jaungoikoa izan dadin.

²⁹ Zer atarako (*lortuko*) dabe, bestela, illakaitik bateatu* diranak? Ildakoak ezelan be bizten ez ba'dira, zegaitik bateatzen dira arekaitik? ³⁰ Eta geu be, zegaitik gagoz beti arriskuan? ³¹ Zuei buruz Jesukristo gure Jaunagan nik dodan gorapenagaitik, egun oro ilteko arriskuan nagoala dirautsuet benebenetan zuei, anaioi. ³² Gizon lez berba egiñik, zer daust Efeso'n abere ankerren aurka burrukan egiteak, ildakoak bizten ez ba'dira? *Jan eta edan dagigun, biar il egingo gara-ta**. ³³ Ez zaitze atzipetu: «Berbeta txarrez oitura onak usteldu egiten dira.» ³⁴ Zoli egon, anaio, eta ez egizue pekatuak egin: zuetariko batzuek Jaungoikoa ez dabe ezagutzen-eta. Zeuen lotsagarriako dirautsuet.

³⁵ Ildakoak, zelan bizten dira?, esango dau norbaitek. Zelako gor-

15 8 Ez emen, ez Ebanjelioan, ez dira aitatzten Jesus berbiztuaren agertze guztiak, cf. Mt 28 10+.

15 12 Kristo berbiztu zala sinisteak, beragan daroa guztiok berbiztuko garala sinistea, cf. Mt 22 23+; Ap 2 32; 4 2; 26 8, 23.

15 23 *Bera etorri daitenean. Parusia*'k, gerkeraz, *etorrera* esan nai dau, au da,

Kristo'ren bigarren etorrera, aintzaz beterik bere *Egunean*, 1 8+, munduaren azkenean, Mt 24 3+. Etorrera oni *ageraldia* be ba-deritxo noizbait Paulo'k 1 7+. Cf. Flp 4 5+.

15 27 Sal 110 1 8 7'garrenetatik jasota.

15 29 Ez dakigu illakaitik bateatze au zer zanik.

15 32 Is 22 13'garrenetik jasoa.

putzaz biurtzen dira bizitzara? ³⁶ Zoro ori! Zuk ereiten dozuna ez da erneten, leenago usteldu ezik. ³⁷ Eta zuk ereiten dozuna ez da jaioteko dan gorputza, garau utsa baiño: ulerbidez, galgaraua edo onetariko garauren bat. ³⁸ Eta Jaungoikoak gorputza emoten dautso, Berak nai dauanez; azi bakotxari dagokion garaua.

³⁹ Okela guztia ez da okela berbera: gizonen aragia bat, abereena beste bat, egaztiena beste bat, arraiñena beste bat. ⁴⁰ Baita zerupeko izakiak eta lurrekoak be ba-dira; baiña ortzikoen edertasuna bat da, eta lurrekoena beste bat. ⁴¹ Eguzkiaren argia bat, eta beste bat illargiarena, eta beste bat izarrena. Izarretik izarra be ba-dira argigorabeerak. ⁴² Orixe jazoko da ildakoen biztueran be. Gorputza, azia-aren antzera, ustel sartzen dabe lurrean, eta iñoiz be ez usteltzeko jagiko da; ⁴³ lurrean lotsagarri sartzen dabe, eta goragarri jagiko da; lurrean makal sartzen dabe, eta indarrez beterik jagiko da. ⁴⁴ Aberegorputz antzera jarten dabe lurrean, eta espiritu-gorputz jagiko da*.

Izan be, abere-gorputza ba'dago, espiritu-gorputza be ba-dago, ⁴⁵ idatzita dagoanez: *Leenengo gizona*, Adan, *arima bizidun egiña izan zan**; azken Adan (*Jesukristo*), barriz, espiritu bizkortzaille. ⁴⁶ Baiña espirituzko dana ez da leenen ager-

tzen, abere-gorputza baiño; eta gero, espirituzkoa. ⁴⁷ Leenengo gizona, lurrez egiña, lurrekoa zan; bigarren gizona (*Jesukristo*), zerukoa da. ⁴⁸ Lurrekoa zelakoa?, alakoak lurrekoak be. Zerukoa zelakoa?, alakoak zerukoak be. ⁴⁹ Eta lurrekoaren irudia daroagun ezkerro, zerukoaren irudia be eroango dogu.

⁵⁰ Baiña ba-dirautsuet, anaio: aragiak eta odolak Jaungoikoaren erreñua ezin lortu daike, ezta ustelkeriak ustel-eziña be. ⁵¹ Ezkutapen bat agertuko dautsuet: Ez gara guztiok ilgo, baiña guztiok aldatuak izango gara. ⁵² Bat-batean, begi-kiñu bat, azkenengo turutatse —turuta joko dabe-ta—, ildakoak gordin jagiko dira, eta gu* aldatuak izango gara. ⁵³ Ustelkor dogun au, gordin jantzi bearra da, eta ilkor au, illezkor.

⁵⁴ Ustelkor au gordin, eta ilkor au illezkor jantzi daitenean, barriz, orduantxe beteko da idatzita dagoan au: ⁵⁵ *Eriotza garaipenak iruntsi dau. Nun dago, eriotza, zure garaipena? Nun dago, eriotza, zure eztena*?*

⁵⁶ Eriotzaren eztena pekatua da; eta pekatuaren indarra, Legea. ⁵⁷ Baiña Jaungoikoari eskerrak, Jesukristo gure Jaunaren bidez garaipena emoten dautsuk-ta! ⁵⁸ Beraz, nire anai maite-maiteku, sendo ta iraunpetsu ekiozue beti Jaunaren arloari, zuen lana Jaunaren aurrean alperrekoa izango ez dana ba-dakizue-ta.

15 44 *Espiritu-erako* gorputza, abere-erakotik eta batez be usteldu-bearretik askatuta egongo da. Espiritu-erako gorputza, Kristo berbiztuak daukan gorputzaren kidekoa izango da. Kristo da, izan be, gizadi barriaren Adan, 21-22; Erm 5 12+; 6 4+; Flp 3 20-21. Judar askok zatarkiro, abere-griña ta guzti, ulertzen eben berbizkundera, Mt 22 29-30.

15 45 As 2 7'garrenetik jasoa; cf. As 1 20.

15 52 *Gu* esatean, bera be, bearbada, talde orrefan egongo zala uste eban Paulo'k, Ts 1 4 15-17; 5 1+.

15 55 Is 25 8, eta Os 13 14'garrenetik jasota. Gurutzeari, 1-2, eta berbizkunderi buruzko jardunaldi au, 15, garaipenezko ta esker-oneko oiñu ta aupadaz amaitzen dau Paulo'k, 57.

AZKENA

Azken-itzak

16 ¹ Jerusalem'go santuen* (*kristauen*) alde egiten dan diru-batzeari buruz, barriz, Galazia'ko elizai agindu neutsen eraz egizue zuek be. ² Astearen leenengo egun guztietan, zuetariko bakotzak bere etxean aal dagiana batu ta gorde dagiala: ni orra joan naitenean, diru-batzerik egin ez daiten. ³ Eta ni orra eldu naitenean, zuek aukeratu dagizuezan lagunak Jerusalem'era bialduko dodaz idazkiakaz, zuen laguntza eroan dagien. ⁴ Eta neu be joan nadin egoki ba'dadi, neugaz joango dira.

⁵ Mazedonia'tik igarotakoan joango naz zuek ikustera, Mazedonia'tik igaroteko asmoa dot-eta. ⁶ Zeuekaz geratuko naz, urrean; baita negua be ortxe egingo dot, joan bear dagidan lekura eroan nagizuen. ⁷ Ez zai-tuet orain bide-batez *bakarrik* ikusi nai; zuen artean egotaldi luzetxo-ren bat egiteko asmoa dot, Jaungoikoak nai ba'dagi. ⁸ Pentekoste'rarte Efeso'n geratuko naz, ⁹ arerio asko izanarren be, ate aundi ta zabal bat edegi yat-eta.

Azken-agurrak

¹⁰ Timoteo orra eldu daitenean, begira gerol: ez daitela zuen artean bildurrez egon, arek be Jaunaren arloan diardu lanean-eta, neuk lez. ¹¹ Ez dagiala iñok gutxitzat artu, ba; eta bakean bialdu egizue nigana

etorri daiten, anaiakaz batera aren zain nago-ta. ¹² Apolo anaiari buruz, barriz, gogoz eskatu dautsat zuekana anai batzukaz joan daiten; baiña ezelan be ezin joan izan da; aukerea izan dagianeaz joango da*.

¹³ Egon zaiteze iratzarririk eta sinismenean sendo; gizonkiro egizue eta indartsu agertu zaiteze. ¹⁴ Zuen egintza guztiak maitasunez egiñak izan daitezala.

¹⁵ Erregu bat egiten dautsuet, anaioi: Ba-dakizue Estefanas'en etxekoak Akaia'ko asikiñak dirana ta santuen (*kristauen*) laguntzaille on egin dirana: ¹⁶ orrelako lagunak eta lankideak eta laguntzaille guztiak samurkiro artu egizue. ¹⁷ Pozik nago Estefanas, Fortunato ta Akaiko'ren etorreraz, zuen utsunea eurak bete dabe-ta; ¹⁸ nire espiritua ta zuena, barriz, nasai-nasai geratu dira. Agertu egiezue, ba, lagun orrei zuen eskerrona.

¹⁹ Agur egiten dautsuee Asia'ko elizak. Akila ta Priska'k be euren etxeko guztiakaz, gorantzi sutsuak bialtzen dautsueez Jaunagan. ²⁰ Agur egiten dautsuee anai guztiak. Zuek be laztan santuz agurtu egizue alkar.

²¹ Agur au neurea da, Paulo'rena, neure eskuz eginda.

²² *Jesukristo* Jauna maite ez dagiana, madarikatua alakoa! «Maran atha*.»

²³ Jesus Jaunaren grazia izan daitela zuekaz guztiokaz. ²⁴ Guztiok Jesukristo'gan maite zaituet.

16 1 Jerusalem'go kristauak premiñetan sartu ziran laster, Ap 9 13+. Israel'dik jaiotako Eliza ori jentillen artean sortutakoen amatzat eukan Paulo'k, eta arduraz artu eban bere alde *diru-batzeak* egitea, Ap 24 17; Erm 15 25-28, 31; Ko 2^a 8-9; Ga 2 10.

16 12 Apolo'k ez dau bere aldeko buru-beroak beroagotzerik nai.

16 22 *Maran atha*. Liturgian erabilten diran aramerazko itz oneik, *Jauna dator*, esan nai dabe. *Marana tha* idatzi ezkerro, barriz, *Zatuz, Jauna*.

PAULO'K KORINTO'KOAI
EGINDAKO BIGARREN IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Paulo'k, Jaungoikoaren nai-izatez Jesukristo'ren Apostolu nazzan onek, eta Timoteo anaiak, Korinto'n dagoan Jaungoikoaren elizeari, eta Akaia guztian dagozan santu (*edo kristau*) guztiai: ² Jaungoiko gure Aitaren eta Jesukristo Jaunaren izenean grazia ta bakea izan daitezala zuekaz.

³ Bedeinkatua Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita, Aita guztiz errukitsu ta Jaungoiko guztiz poz-emoillea, ⁴ gure atsekabe-aldi guztietan poztan gaituana: geuk be, neke-aldian diranak, Jaungoikoak alaitzen gaituan pozez poztu dagiguzan. ⁵ Kristo'gaitik nekeak eurrez doguzanez, poza be Kristo'gandik eurrez dogu-ta. ⁶ Atsekabetuak ba'gara, zeuen onerako ta osasunerako da; pozik ba'gagoz, zeuen pozera-

ko: guk eroaten doguzan neke berberak, eroapenez eroaten lagun egiten dautsue, pozerako; ⁷ eta orrela, zuekan dogun uste ona, indartu egiten da: gure neke-lagun zareena jakiñik, poz-lagun be izango zareena ba-dakigu-ta*.

⁸ Ez dogu nai, anaioak, Asia'n izan genduan atsekabe-aldia zuek ez jakiterik: biziuz urteteko itxaropenik be ez genduan, gure indarrak baiño astunagoa izan yakun-eta. ⁹ Eriotz-epaia geure barruan somatzen genduan, ustea geugan ezarri ez gengan, ildakoak bizten dauzan Jaungoikoa'gan baiño: ¹⁰ arenbesteko arrisku astunetik Berak atara genduzan, eta atarako gaitu. Aurre-rantzean be Berak atarako gaituala uste dogu, ¹¹ zuek be gure alde otoitz egifnez guri lagun egifnik: guk dogun graziagaitik askok eskerrak emon dagiezan, lagun askoren onerako da-ta.

1. LEENGO JAZOPENAI BURUZ GEIAGO

Paulo'k argi ta garbi egiten dautse berba Korinto'koai

¹² Barruak dirausku —ta auxe da gure gorapena—, mundu onetan, eta zeuen artean batez be, argi ta garbi bizi izan garala Jaungoikoaren aurrean, ez aragi-jakitez, Jaungoikoaren graziuz baiño. ¹³ Ez dautsuegu zuek irakurri ta ezagutu dozuena baiño idazten: ¹⁴ ezagutu be ezañutu dozue zuen gorapena geu garana, gure gorapena zuek izango zarenez Jesukristo gure Jaunaren egunean.

¹⁵ Uste onetan nai izan neban lee-

nengo zeuekana joan, grazi bikotxa izan zengien: ¹⁶ eta ortik Mazedonia'ra joan, eta Mazedonia'tik barriro orra biurtu, zuen laguntzaz Judea'rantz igaroteko. ¹⁷ Zuei erabagi au agertzean, arifiegia jokatu eteneban? Edo-ta, erabagiten dodan au, aragieraz kilikolo ete-dabil, noizean «Bai, bai», noizean «Ez, ez*»? ¹⁸ Ba-daki ondotoxo be benetako Jaungoikoak, guk iragarri dautsuegun berban (*edo irakatsian*) *Bai* ta *Ez*'ik ez dagoana. ¹⁹ Nik, Silbano'k eta Timoteo'k iragarri dautsuegun Jaungoikoaren Seme Jesukristo ez

17 Jainkoaren *aal-izatea* ta gizonaren *makaltasuna* aurrez-aurre dagoz, 4 7+; 6 4; e.a. Ori ondo ikusten dau Paulo'k bere buruan. Orixe adierazotea izango da, ba, eskutitz onen gaia.

17 Aldatu egin dau Paulo'k bere

leenengo asmoa; baiña ez buru-arinkeriz. Dana dala, Jainkoari ta Kristo'ri zor dautsen zintotasunez, bete egingo dau emondako itza, As 24 27+; Sal 25 10+; Erm 3 3-4; Ko 1^a 1 9; cf. Mt 5 37; St 5 12; Ag 3 14.

da izan *Bai* ta *Ez*, Bai utsik baiño. ²⁰ Jaungoikoagan diran agintzari guztiak, Aregan «Bai» dira; eta Aren bidez diñogu «Amen», Jaungoikoaren gorapenerako gudan. ²¹ Jaungoikoa da Kristo'gan gu ta zuek sendotu ta igurtzi gaituana, ²² baita bere ezaugarria* jarri dauskuna ta gure biotzetan baikuntza-orde Espiritu *Santua* ezarri dauana be.

²³ Jaungoikoa autortzat jarririk, eta neure bizitzagaitik diñot: zeuei dautsuedan maitasunagaitik ez naz joan oraindiño Korinto'ra; ²⁴ ez, gero, zuen sinistearen jabe egiteko asmorik dogulako, zuen poztasuna aundiagoa egin nai dogulako baiño, sinismenean sendo zagoze-ta.

Paulo'ren atsekabea

2 ¹ Zuei atsekaberik ez emoteko, barriro zuek ikustera ez joatea erabagi dot*. ² Izan be, nik atsekabetzen ba'zaituet, nok poztuko nau nigaitik atsekabetu daitenak izan ezik? ³ Eta auxe berai idatzi neutsuen, zuekana joatean, poztu bear nendukeenen aldetik atsekaberik artu ez dagidan, nire uste ona zuekan guztiokan jarririk, nire poza zeuena be ba-da-ta. ⁴ Atsekabe ta biotz-larri gorritan idazten dautsuet, negar-malkoz beterik: ez, gero, atsekabetu zaitezen, nik dautsuedan maitasun aundia ezagutu dagizuen baiño.

Pekataritari parkamena

⁵ Zuetariko norbaitek atsekabetu ba'nau, ni neu ez nau atsekabetu, zeuek guztiok baiño, zelanbait, geiegi ez esateko. ⁶ Naikoa dau orrelakoak geienakandik artutako zuzentzea; ⁷ obe, urrean, ori parkatu ta poztu dagizuen, atsekabe larregiak iruntsi ez dagian. ⁸ Orregaitik, ba,

¹ 22 Emen aitaten diran *ezaugarria* ta *baikuntza-orde* kristau-izakera bi dira; *bateoa* ta *sendotza*, bearbada. Espirituaren doala, betiko aintza aurretiaz somatzea da, 5 5; Ern 5 5+; 8 23; Ef 1 13-14. Cf. Ag 7 4; Jn 1^a 2 20+.

² 1 Korintotarraie egindako eskutitz

guztien aurrean zuen maitasuna agertu dagiozuela eskatzen dautsuet, ⁹ orrexegaitik idazten dautsuet-eta: onoimentsu ta esaneko ete-zareen ezagutu dagidan. ¹⁰ Eta zuek zerbait parkatu dagiozuena, neuk be parkatu egiten dautsat: nik parkatzen dodana be —zerbait parkatzen ba'dot—, Kristo'ren aurrean zeuen maitasunagaitik parkatzen dot-eta, ¹¹ Satanasek bere sareetan batu ez gagingan, aren asmoak ba-dakiguz-ta.

Paulo'ren esker-emoteak

¹² Kristo'ren Barri Ona iragartera Troade'ra joan nintzanean, Jaunagan atea edegita aurkitu nebanarren, ¹³ ez neban atsedetik izan, nire anai Tito ez neban aurkitu-ta; eta angoai agur egiñik, Mazedonia'runtz egin neban alde*.

¹⁴ Alan be, eskerrak emoten dautsadaz Jaungoikoari, Kristo'gan garraile egiten gaitualako, eta bere izenaren usain gozoa alde guztietan geure bidez zabaltzen daualako. ¹⁵ Izan be, Jaungoikoaren aurrean Kristo'ren usain on gara gu salbatzen diranentzat eta galtzen diranentzat: ¹⁶ oneintzat, eriotzarako eriotz-usain; areintzat, barriz, bizirako bizitz-usain. Eta arlo orretarako, nor izan daiteke gauza? ¹⁷ Izan be, ez dogu guk —askok egiten dabenez— Jaungoikoaren itza guzurrez saltzen, bestetara baiño: Jaungoikoagandik datorrenez, Jaungoikoaren aurrean eta Kristo'ren izenean, zintzo-zintzo egiten dogu berba.

Apostoluen arloa

3 ¹ Barriro asi ete-gara geure burua goratzen? Ala, zuentzako edo zuekandiko gorapen-idazkiren bearrean ete-gagoz, beste batzuk lez*?

bion bitartean Korinto'n izan da Paulo, cf. 12 14; 13 1-2. Gaiñera, eskutitz zorrotz bat idatzi daute, 2 3-9; 7 8, 12.

² 13 Apostolutzaren azalpen luze oni 7 5'garrenean jarraituko dautso.

³ 1 Korintotarren kristau-bizitza da autorrik ederrena Paulo'ren alde. Berak sortu izan eban Korinto'ko Elizea.

² Zeuek zaree gure biotzetan gizon guztiak ezagutu ta irakurri daikeen idatzitako idazkia. ³ Izan be, agirian dago Kristo'ren idazkia zareena, geure bidez egiña ta Jaungoiko bi-ziaren Espirituaz idatzita, ez idatzitez; ezta arlosetan idatzita be, zeuen biotzeko aragi-oletan baiño.

⁴ Auxe da, Kristo'ri esker, Jaungoikoagan dogun uste ona: ⁵ geurez zerbait asmatzeko be gauza garalako ez, gero: gure gauza-izatea Jaungoikoagandik datorrigulako baiño. ⁶ Alkartasun barri* bat iragarteko be Berak egin gaitu, ez gero *Alkartasun Barriko* izkiarena, Espirituarena baiño. Izkiak il egiten dau; *barruko* espirituak, barriz, biztu. ⁷ Beraz, arrietan idatzitako eriotz-morroitzta (*edo Moises'en Legea*) Moises'en arpegian ain eder agertu ba'zan —laster atzamatuko zan argitasunagaitik—, aren arpegia israel-darrak ezin begiratzeraño, ⁸ espirtu-morroitzari ez ete-dario edertasun aundiagorik? ⁹ Eriotzarako morroitzta ospetsu ba'zan, askozaz geiago, izan be, zindokuntzarako morroitzta. ¹⁰ Izan be, alde aretatik goragarririk izan ba'da, ez da izan benetako gorapena, *Barri Onaren* aintza bikaiñaren ondoan: ¹¹ alde batera izten dana aintzaz beterik egon ba'da, zenbat geiago ez ete-da izango *betiko* irauten dauana?

Kristau-askatasuna

¹² Itxaropen au dogula, guk zabalzabal egiten dogu berba, ¹³ ez Moises'ek lez: arek bere arpegi-gaiñean estalki bat ekarren, Israel'go semeak galdu bear zanaren argitasuna ikusi ez egien. ¹⁴ Eta arein adimenak gogortuta egozan; gaur arte be adimen orreik Alkartasun Zaarra ira-

kurtean irauten dauan estalki berberaz dagoz estalduta, *estalki ori* Kristo'ren bidez baiño ez da kentzen-eta. ¹⁵ Gaur arte, Moises irakurten dabon baktotxean, estalkia arein bioz-gaiñean dago zabaldua; ¹⁶ baiña Jaunagana biurtu daitezanean, estalkia kendu egingo da. ¹⁷ Jauna espirtu da; eta Jaunaren espirtua nun, askatasuna be an. ¹⁸ Eta guztiok, Jaunaren aintza izpillu baten lez arpegi-utsik ikusiaz, Aren irudi biurtzen gara, Jaunaren Espirituak argirik-argi eraginda*.

Paulo, egiaren aurrelari

4 ¹ Beraz, lanbide au *Jaungoikoaren* errukiagaitik dogun ezkerro, ez yaku adorea moteltzen. ² Lotsa ta maltzurkeria gugandik jaurtirik, Jaungoikoaren itza ustel biurtu bearrean, egia irakasten dogu ta guztiari Jaungoikoaren aurrean gure burua sen oneko erakusten dautsegu. ³ Gure Barri Ona estalduta ba'dago, galtzen diranentzat dago estalduta, ⁴ mundu onetako jainkoak* adimena itsutu dautsen sinisbageentzat, Barri Onaren argia ta Jaungoikoaren irudi dan Kristo'ren edertasun dizdiz egiten ikusi ez dagiezan. ⁵ Ez diardugu geure buruak iragarten, Jesukristo geure Jauna baiño; eta geuri buruz Jesus'eganako maitasunagaitik zuen morroi garala iragarten dogu. ⁶ «Illunpetatik argia egin bedi*» esan eban Jaungoikoak Berak egin dau argi gure biotzetan, Kristo'ren arpegitik darion Jaungoikoaintzaren ezaguera azaldu dagigun.

Barri Onaren iragarleen

larrialdia, eroapena ta uste ona

⁷ Ondasun au, barriz, lurrezko ontzietan daroagu, onenbesteko in-

³ 6 Cf. Jr 31 31+; Mt 26 28; Ko 1^a 11 25; Ebr 8-10. Paulo'k, Ur 32 16, eta 34 30-35 gogoan dauzala, Apostoluen egin-kizuna, Espirituarena danez, Moises'enaren gaiñetik ipinten dau, Zn 12 8+. Legea azaletikoa da; Espiritua, barriz, barrutikoa.

³ 18 Apostolua ta kristaua Jainko-ain-

tzaren izpillu dira. Jainkoaren *aintza*, barriz, Kristo da, gizatasunez jantzia, 4 4-6; Ur 33 20+; Jn 1 19+. Beraz, Jainkoaren antzeko biurtzen dira, Ern 8 29-30+; Jn 1^a 3 2.

⁴ 4 *Mundu onetako jainkoa*: Satanas, Jn 12 31; Ef 2 2; Jb 1 6+.

⁴ 6 As 1 3'garrenaren aipamena.

darra Jaungoikoari ezarri dakion, ez guri*. ⁸ Atsekabe askotan gabiz, baiña itota ez; larri, bai, baiña ustea galduta ez; ⁹ aurrean erabiliak, baiña eskutik itzita ez; beeratuta, baiña galduta ez. ¹⁰ Jesus'en eriotza gorputzean daroagu beti, Jesus'en bizia be geure gorputzean agertu dadin. ¹¹ Bizi garan artean, Jesus'egaitik beti il-zorian gagoz, Jesus'en bizia geure aragi ilkorrean agertu daiten. ¹² Beraz, guban eriotzak diardu lanean, eta zuekan biziak.

¹³ Alan be, sinismen-espíritu bera dogu, idatzita dagoanez: *Sinistu neban, eta orrexegaitik egin neban berba**. Eta geuk be sinistu egiten dogu ta orrexegaitik egiten dogu berba: ¹⁴ ba-dakigu Jesus Jauna biztu dauanak, geu be Jesus'egaz biztu ta zeuekaz jarriko gaituana-ta. ¹⁵ Guzti au, barriz, zeuek aitik da, askok grazia arturik, askoren eskerona ugaritu daiten, Jaungoikoaren aintzarako.

¹⁶ Orregaitik, ez gara moteltzen; eta azaletik garan au usteltzen dan artean, gure barruak egun oro barritzen diardu. ¹⁷ Une bateko atsekabe arifnak, ezin-alako ta betiko zerua dakarsku*. ¹⁸ Ez doguz gure begiak agiri diranetan jarten, agiri ez diranetan baiño: agiri diranak, oraingo dira-ta; agiri ez diranak, barriz, betikoak.

Zerua da gure betiko etxea

⁵ ¹ Jakin be ba-dakigu lurreko aldia egiteko dogun txabola au ezereztan ba'da, betiko etxea zeruan

4 7 Bikaiña, benetan. Apostoluen eginkizuna. Baiña Jainkoak orretarako aukeratu dauzan gizonak oso makal dira sarritan. Eta ortxe ikusten dau Paulo'k, ain zuzen be, Jainkoaren aunditasuna: olako tresna makalen bidez Bere lana aurrera eroatean, 8-12; 6 4-10; 10 1; 11 23-33; 12 9-10; e.a. Cf. Jk 9 15; Ko 1^a 4 13+; Ef 3 20; Flp 4 13; Kol 1 29; Ts 1^a 1 5; e.a.

4 13 Sal 116 10'garrenetik jasoa.

4 17 Cf. Erm 8 18+; Ts 2^a 1 7; P 1^a 1 6-7; 5 10+. Oraindiño begiz ikusi ezarren, 5 7, lortuko dogula ziur dakigun

daukaguna, giza-esku bagarik Jaungoikoak atonduta. ² Gure txabola onetan antziz gagoz, zeruko gure bizitokiko soiñekoa jazteko gurariz, ³ *egitada onez* jantzirik egotekotan beintzat, eta ez billoizik*. ⁴ Izan be, txabola (*edo gorputz*) onetan bizi garan artean, negar-zotinka makurtuta gagoz, erantziak izan ez nairik, gaiñetik jantziak baiño, guban ilkor dana *zeruko* bizitzak iruntsi dagian. ⁵ Jaungoikoa da olan egin gaituana, baikuntza-orde guri bere Espiritua emonik.

⁶ Eta olan, beti uste onez gagoz, gorputz onetan bizi garan artean, Jaunagandik urrun gagozala jakifnik, ⁷ sinismenez gabiz-ta, ikustez ez: ⁸ guk dogun uste on onetan, gorputzetik urten eta Jaunaren aurrera joan naiago dogu*. ⁹ Ori dala-ta, gorputz onetan bizi, naiz gorputz onetatik urten, *Jaunari* atsegingarri izateko aalegiñak egiten diardugu, ¹⁰ guztiok Kristo'ren auzitegi-aurrera joan bear dogu-ta, bakotzak bere gorputzaren bidez egindako onari edo txarrari dagokiona artu dagian.

Paulo'ren jokabidea

¹¹ Beraz, Jaunari zor yakon bildurra jakifnik, gure buruak zuritzeko aalegiñak egiten doguz; Jaungoikoak, orraitifno, ezagutzen gaitu, eta zuek be ezagutzen gaituzuelakoan nago. ¹² Ez dautsueguz gure buruak barriri goratzen, gugaitik zeuek goratu zaitezen baiño: barrukoaz izan bearrean, azalekoaz goratzen diranai erantzun dagiezen. ¹³ Gure

zeruko aintzaren itxaropenak, 14, zirikatu egiten gaitu eten bagarik lan egitera.

5 3 Ulergatxa, benetan, irudiz naastuta datorren txatal au. Jauna etortzen, bizirik iraun dagienak, eriotzak *billoiztu* bagarik, Ts 1^a 4 15, *aragizko gorputz* onen gaiñean *espirituzko gorputzez* jantziak izango dira, Ko 1^a 15 44+, 53.

5 8 Il eta lenbailen Kristo'gaz bat-egin nai dau Paulo'k. Gurari au argiago ikusiko da Flp 1 23'garrenean. Eriotza ondoren arimeak betiko zoriona lortzea ez doa berbikundeatza dogun sinismenaren aurka, Erm 2 6+; Ko 1^a 15 12-23; Ts 1^a 4 13-18+.

buruak zorotzat agertzen ba'doguz, Jaungoikoagaitik da, izan be; sentzundun agertzen ba'doguz, zeuek aitik da. ¹⁴ Kristo'ren maitasunak saktzen gaitu au jakitean: bat guztiakaitik il ba'zan, guztiak ilda dagozala. ¹⁵ Eta Kristo guztiakaitik il zan, bizi diranak ez daitezkan aurrerantzean eurentzat bizi, arekaitik il eta biztu danarentzat baiño.

¹⁶ Au dala-ta, guk aurrerantzean ez dogu inor aragieraz ezagutzen; eta Kristo noizbait aragieraz ezagutu ba'dogu, orain ez dogu orretara ezagutzen. ¹⁷ Beraz, norbait Kristo'gan ba'dago, izaki barri da; zaarra zana igaro da; barriztu egin da guztia*.

¹⁸ Baiña, guzti au Jaungoikoagandik dator, Kristo'ren bidez bere adiskide egin eta adiskidetasunlanbidez emon dauku-ta. ¹⁹ Izan be, Kristo'gan ziarduan Jaungoikoak gizadia Beragan adiskidetzen eta gizakiai pekatuak ez ezarten; eta geure ardurapean itzi eban adiskidetasun-ori iragarrea. ²⁰ Kristo'ren mandatari gara, ba, gure agoz Jaungoikoa onulari bai'litzakizuen. Kristo'ren ize-nean eskatzen dautsuegu: Jaungoikoag adiskidetu zaiteze. ²¹ Pekaturik ezagutu ez ebana Bera, gugana-ko maitasunagaitik pekatu biurtu eban*, Aregan gu Jaungoikoaren zindotasun biurtu gendizan.

Zuzen lan egin bearra

⁶ ¹ Eta Kristo'ren lankide garan ezker, ez dagizuela Jaungoikoaren grazia alperrik artu. eskatzen dautsuegu; ² Berak esan dau-ta: *Aldi egokian entzun egin zendudazan eta osasun-egunean lagun egin*

5 17 Pekatuak ondaturako mundu au Kristo'ren bidez barrizatzen diardu Jainkoak, Ga 6 15; Kol 1 15-20+. Mundu barri onen erdi-erdian gizona dago, Ef 2 15; 4 24+; Kol 3 10; cf. Ag 21 1+; Erm 6 4+; 8 29+.

5 21 Munduko pekatua bere gain artzean, pekatu biurtuta lez geratu zan Kristo. Eta gu pekatutik askatzearen, bere gain artu eban pekatuari egokion zigorra, Erm 8 3; Ga 3 13; P 1^a 2 24.

*neutsun**. Auxe da aldi egokia, auxe da osasun-eguna. ³ Inor ez daigun bide okerrera eroan, gure lanbidea loitu ez daiten. ⁴ Agertu gaitzean, ostera, Jaungoikoaren menpeko* gauza guztietan, iraupenik aundienaz atsekabe, bearrian, estualdi, ⁵ zigor, giltzape, matxiñada, neke, lo-galdu ta baraualdiak eroanik; ⁶ garbitasunez, jakitez, biotz zabal eta samurrez, Espiritu Santuaz, benetako maitasunez, ⁷ egiazko berbaz, Jaungoikoaren indarrez, zuzentasunezko iskillu (*armak*) ezker-eskuman erabiliak, ⁸ ospez naiz lotsaz, izen onez naiz txarrez; egia esanda, guzurtizat artzen gaituela; ⁹ ezagunak izan eta alan be ez-egaguntzat; il bearrean, eta ondo ikusten dozue bizi garala; zigorrak arturik, baiña il bagarik; ¹⁰ atsekabez gagozala, baiña beti pozik; eskeko lez, lagun asko aberastu doguzanarren; ustez ezer bagarik, baiña gauza guztien jabe izanik.

Paulo'ren biozkadak

¹¹ Zuentzat, Korinto'koontzat, gure agoa irigita dago, eta gure biotz zabal-zabalik; ¹² gure biotza zuentzat ez dago itxita, zeuena bai guretzat. ¹³ Beraz, ordain egokia biurtu dagizuen, zabaldu zeuek be zuen biotzok: neure semeai lez egiten dautsuet berba-ta.

Sinisbageakandik iges egin

¹⁴ Ez zaiteze sinisbageakaz buztartu*. Ze alkartasun izan daiteke zindotasunaren eta gaiztakeriaren artean? ¹⁵ Ze batasun Kristo'ren eta Belial'en (*txerrenaren*) artean? Ze zati dauko fededunak sinisbageagaz?

6 2 Is 49 8'garrenetik jasoa. *Salbamen-eguna*, Kristo lurrera etorri zanetik. bigarrenez etorriko daneko bitarte guzti au dogu, Erm 3 26+; 13 11; Ga 4 4+; Kq 1^a 1 8+.

6 4 Bere apostolutza egiazkoa dala egiztatzeko ezaugarri ugariago-dakaz emen Paulo'k, 4 8-10; cf. 11 23-27. Eta azke-nean garaille lez agertzen da.

6 14 Zoli ibilteko diñotse korintotarra, jentilkeriz loitu ez daitezkan. Cf. Es 9 1+.

¹⁶ Ze era on Jaungoikoaren etxearen eta sasi-jainkoez artean? Jaungoiko biziaren etxe* gara gu, Jaungoikoak esan ebanez: *Arein artean bizi ta ibilliko naz, eta arein Jaungoiko izango naz eta areik neure erri izango dira.* ¹⁷ Beraz, urten zaitezte arein artetik, eta alde egizue, diño Jaunak. Ez egizue gauza loirik ikutu, eta Neuk artuko zaituet. ¹⁸ Zeuen Aita izango naz, eta zuek neure seme-alaba izango zaree, diño Jaun guxtiaaldunak.

Paulo'ren poza

7 ¹ Agintzariok doguzan ezker, ene maiteok, aragi ta espiritua loi guztitik garbitu dagiguzan, gure zindokuntza Jaungoikoaren bildurrez buruturik. ² Artu gagizuez zuen biotzetan; iñori be ez dauzagu iraiñik egin, ez kalterik ezta iruzurrik be. ³ Ez difot au zuek galtzeko asmoz, bizirako ta eriotzarako geure biotzean zagozela esan dautsuet leen be-ta. ⁴ Uste on aundia dot zuei buruz; goratzeko bide aundia dot zuekan; atsegiñez beterik gafiñezka nago gure atsekabe guztietan.

Korinto'koak goratzen

⁵ Izan be, Mazedonia'ra* eldu izan gintzazanean, gure aragiak* ez eban atsedetik izan; edozetariko atsekabeak eroan genduzan, ostera: kanpotik burrukak, barrutik bildurak. ⁶ Baiña apalak pozten dauzan Jaungoikoak gu be poztu egin genduzan Tito'ren etorreraz; ⁷ onen etorreraz bakarrik ez, baita zuekan-dik ekarri euskun pozaz be, nigana-ko zuen ardura, negarra ta zaleta-

sunak esan euskunean; ori dala-ta, nire poza geitu egin zan.

⁸ Izan be, nire idazkiaz atsekabetu ba'zenduedazen be, ez naz garbatzen. Eta idazki arek, une baterako izanda be, atsekabetu zenduezalako, damaturik ba'nengoan be, ⁹ orain poztu egiten naz: ez, gero, atsekabetu zintzazelako, atsekabea damurako izan yatzuelako baiño. Jaungoikoak nai dauanez atsekabetu zintzazen, orrela gugandik kalterik artu ez zengien. ¹⁰ Jaungoikoagandik dan atsekabeak, damu osasungarria ta sendoa sortzen dau; lurkoiakandik sortzen dan atsekabeak, barriz, eriotza dakar. ¹¹ Ikusi egizue, beste-la, Jaungoikoagandiko atsekabe orrek zuekan biztu dauan ardura bizia: ontzeko asmo geiago, asarre geiago, bildur geiago, gurari geiago, espa geiago, zigor geiago. Arazo onetan oso garbi agertu zaree. ¹² Eta idazki a egin neutsuenarren, ez neutsuen nik iraintzailleagaitik ez irainduagaitik idatzi, Jaungoikoaren aurrean gudanako zuen ardura agertu zedin baiño. ¹³ Orrexegaitik poztu gara. Eta gure poz onetan, Tito'ren pozak geiago poztu gaitu oraindiño: aren espiritua guztiok bizkortu do-zue-ta. ¹⁴ Aregaz zuei buruz arrotu izan ba'naz be, ez naz lotsatuta geratu, bestetara baiño: gauza guztietan beti egia esan geutsuenez, Tito'gaz gure arrotzea be egia zan. ¹⁵ Eta zuekanako maitasuna geitu egin yako, zuen guztion menpetasuna ta bera zuen artean artzean erakutsi zeutsoen bildur-ikarea ikusi-rik. ¹⁶ Poztu egiten naz, gauza guztietan zuekan uste osoa dot-eta.

⁶ 16 Jainko biziak Elizan eta zintzoen biotzetan dauko bere egon-lekua, Ko 1^a 3 15; Tm 1^a 3 15; Ef 2 19-22. Aipamenak irabiatuta dakaz: Ur 6 7+; Ab 26 11-12 (Cf. Ur 37 27); Is 52 11; Jr 51 45; S 2^a

7 14; Is 43 6.

7 5 Mazedonia'n izan da barrero be Paulo, 2 13. Gure aragia, Paulo bera da, bere makaltasun eta guzti, cf. Erm 7 5+.

II. DIRU-BATZEA ERATZEA

Mazedonia'koen esku-zabaltasuna*

8 ¹ Mazedonia'ko elizai Jaungoiko-ak egin dautsen grazia jakiñerazo nai dautsuegu, anaioi. ² Atsekabe betean ibillita be, areik poz-pozik dirala; eta oso beartsuak izanarren be, arein biotz ona oso aberats agertu zan. ³ Euren gogoz aal izan dabena ta geiago emon dabela aurtortu bear dot, ⁴ euren limosnak onartu gengizala ta santuen (*kristauen*) alde eurak be lagun egiteko baimena erreguz guri eskaturik. ⁵ Eta guk uste aiña bakarrik ez, baita euren buruak be Jaunari leenengo, eta gero, Jaungoikoak nai izanda, geuri be eskifiri euskuezan.

⁶ Orregaitik, maitasun-egitada au asi izan ebanez, zuen artean burutu be egin egiala eskatu neutsan Tito'ri: ⁷ gauza guztietan, sinismenean, berbetan, ezagueran, danerako arduraren eta gudanako maitasunean aberats zareen ezker, maitasun-egintza onetan be aberats izan zaitzen. ⁸ Au, barriz, ez dirautsuet agintzeko asmoz, besteen ardura ikusita, adoretu zaitezten eta zuen maitasun zintzoa benetan agertu dagizuen baiño. ⁹ Izan be, ba-dakizue Jesukristo gure Jaunaren grazia: aberats izanik, zuekanako maitasunagaitik beartsu egin zan, bere txirotasunez zuek aberats izan zaitzen*. ¹⁰ Eta burubide au emoten dautsuet, egoki yatzue-ta: igaz, arazo au egiteko erabagia artu bakarrik ez, baita egiten asi be egin zintzazen ezker, ¹¹ orain egieñez burutu dagizuela asmo on ori, dozue-netik emonda. ¹² Gogo gertu ba'dago, ez yako iñori gogo negurtzen berak ez daukanaren eraz, ba-daukanaren eraz baiño. ¹³ Besteak bigun

bizi, eta zuek estu, ori ez: guztiak bardintsu baiño. ¹⁴ Zuen geiegiak besteen urritasuna bete begi orain, besteen geiegiak be zuen ez-eukitea bete dagian. Orrela, guztiak bardin, ¹⁵ idatzita dagoanez: *Asko batu ebanak, ez eukan larregirik; eta gutxi batu ebanak, ez eban gutxiegarrik*.*

Tito bialtzen dautse

¹⁶ Eskerrak damotsadaz Jaungoikoari, Tito'ren biotzean zuekanako ardura au biztu daualako. ¹⁷ Gure eskaria entzunda, ardura au geitu egin yako, eta zuekana pozik urten da. ¹⁸ Aregaz batera anai bat bialdu dautsuegu, Barri Onagaitik eliza guztietan entzute aundikoa dana: ¹⁹ Jaunaren beraren aintzarako gogo bizkorrez diardugun lanbide onetan bidelagun izan dakigun, elizak aukeratu dabe-ta. ²⁰ Onela, txarto-esan guztiak ito nai doguz, onenbesteko dirutzaren arduradun garan ezker. ²¹ Jaungoikoaren aurrean bakarrik ez, baita gizonen aurrean be zintzo jokatu nai dogu*. ²² Gure anaia be arekaz bialdu dogu, askotara ta askotan arduratsua agertu izan yaku-ta; orain batez be arduratsua, zuekan dauan uste onagaitik. ²³ Tito be neure lagun eta lankide da zuen artean; gure anaioi, barriz, elizak bialdutakoak dira, ta Kristo'ren goragarri. ²⁴ Erakutsi egiezue, ba, zuen goi-maitasuna ta elizen aurrean zuei buruz dogun poztu-bearra.

Zer dala-ta diru-batzea?

9 ¹ Santuai (*kristauai*) egiten yaken laguntzari buruz, ez neuke zuei idatzi-bearrik; ² ezagutzen dot zuen gogo bizkorra, eta orretzaz arro-arro ibili naz Mazedoniarren aurrean: igaztik Akaia *lurraldea* gertu dago (*limosna ori egiteko*),

⁸ 1 Diru-batze oni buruz, ikusi Ko 1^a 16 1+.
⁸ 9 Jesus'ek egiña izango da akulurik eraginkorra. Jesus'en antzera jokatzea,

orixe da sakonean Paulo'k opa dautsena, Flp 2 6-11; Mt 8 20; cf. Mk 12 17.
⁸ 15 Ur 16 18'garrenetik jasoa.
⁸ 21 Cf. Es 3 4 (LXX); Etm 12 17.

eta zuen ardura orrek lagunik geienak bizkortu dauz. ³ Olan be, anai orreik bialdu dautsuedaz, zuekan dagoan gure aintza arazo onetan alperreko izan ez dadin, eta, esan dodanez, gertu egon zaitezten: ⁴ Mazedoniarrak nigaz zeuekana eltzean, gertubage aurkitu ez zagiezen, eta arazo onetan gu lotsatuta geratu ez gaitzezan —zeuek ez esateko—. ⁵ Beraz, anai orrei zuekana aurretik joateko eskatu bear neutsela uste izan dot, eta aurretiaz eskifitako zuen limosna ori gertatu egiela, gertatze orrezaz maitasun-opari izan daiten, eta ez zekenkeriz emona.

⁶ Auxe diñot: Gutxi erein ezkerro, artu be gutxi; erein ugari, eta artu be ugari. ⁷ Bakotxak bere biotzean erabagi dauana emon begi; ez, ostera, goibel edo bearturik, *Jaungoikoak emoilie alai maite dau-ta**. ⁸ Aaltsua da, barriz, Jaungoikoa, zuekan edozetariko graziak ugaritzeko; zuentzat guztitarik beti naikoa eukirik, edozein egite onerako geigarri izan dagizuen, ⁹ idatzita dagoanez: *Beartsuai eurrez bana-*

*tu ta emon eutsen; Aren zuzentasunak beti irauten dau**.

¹⁰ Ereilleari azia ta jateko ogia emoten dautsan Arek, zuen ereitea be eurrez ugarituko dau eta zuen zuzentasunaren frutuak geitu egingo dauz. ¹¹ Gauza guztietan aberastuta, benetako maitasunez guztietariko limosnak egin dagizuezan: *limosna* oneik Jaungoikoari eskerrak emoteko dira-ta. ¹² Batzen diardugun au, santuen (*kristauen*) bearraldia arintzeko bakarrik ez, baita Jaungoikoari eskerrak ugari emoteko be bada gauza: ¹³ Kristo'ren Barri Onari orren lotuta zagozela ta arei ta beste guztiai zuen ondasunetatik emoteko orren eskuzabal zareela ikustean, orrelako erruki-egitadagaitik Jaungoikoa goratzen dabe-ta. ¹⁴ Gaiñera, zuen alde egiten dabezan oitotzen bidez, zuei dautsuen maitasuna gertzen dabe, Jaungoikoagandik artu dozuen grazi bikaiñagaitik. ¹⁵ Eskerrik asko, ba, Jaungoikoari, Bergandik artu dogun ezin esan-alako doaiagaitik*!

III. PAULO'REN ZURIBIDEA

Paulo, bere buruaren alde*

10 ¹ Nik, Paulo onek, ondoan zuen artean apal eta urrun zuekaz zorrotz nazan onek, ² Kristo'ren apaltasun eta ontasunagaitik, auxe eskatzen dautsuet: zuen artean egon naitenean, aragi-eraz gabizala uste dabenen aurka, erakutsi ei'dodan gogor egin bearra ez dagidala erabilli —batzuen aurka erabilli bear dodala uste dodanarren—. ³ Aragian bizi garanarren, ez diardugu aragi-eraz burrukan. ⁴ Burrukan darabiguzan iskilluak (*armak*) ez dira aragi-iskilloak, eta Jaungoikoagandik datorkie gazteluak ⁵ eta

giza-asmakeriak ondatzeko indarra, baita Jaungoikoaren jakintzaren aurka jagiten diran arrokeri guztiak ondatzeko indarra be, adimen guztiak Kristo'ren menpera makurtzen dauzala. ⁶ Gertu gagoz, barriz, edozein biurrikeri zigortzeko ta zuek menpetasun osora ekarteko.

⁷ Aurrean dozuena baiño ez dozue begiratzen! Norbaitek Kristo'rena dala uste ba'dau, beste au be uste dagiala: bera Kristo'rena danez, geu be ba-garala. ⁸ Eta Jaunak zuen onerako, ez zuen kalterako, emon daustan agintaritzaz lartxo arrotu ba'nendi be, ez nintzake orregaitik lotsatuko. ⁹ Ez uste izan nire idaz-

^{9 7} Cf. Es 11 24-25; 19 17; 22 8 (LXX).
^{9 9} Sal 112 9'garrenetik jasoa.
^{9 15} Izan be, elizak alkarri maitasunez laguntzea ezin esan-alako doia da.

^{10 1} Diru-batzea dala-ta, 8-9, egin dauan eten luze onen ondoren, bere apostolutzaren alde diardu barriro be, *judar-zaleai* arpegia emonik.

kiakaz bildurtu egin nai zaituedanik: ¹⁰ nire idazkiak astunak eta zorrotzak ei'dira-ta; gorputz-itxura, barriz, kaskarra, eta izkerea, motza. ¹¹ Orrela berba egiten dauanak jakin begi, urrundik eta idazkietan berbaz garana, aurrean be egiñez ola-koak garala.

¹² Izan be, ez dogu adorerik euren buruak goratzen diarduen batzukaz gure burua naasteko edo bardintzeko; sena galtzen dabe, ostera, euren buruak euren buruakaz negurtzean, eta euren buruak euren buruakaz bardintzean. ¹³ Gu, barriz, ez gara lar arrotu, Jaungoikoak zeuekana be eltzeko emon dauskun arauaren negurriz baiño. ¹⁴ Ez gara agindutako negurritik kanpora urteten, zuekana eldu ezifitak bai'gintzazan, Kristo'ren Barri Ona irakasten zeuekana eldu gintzazan ezkerro. ¹⁵ Arrotu be ez gara lar arrotzen besteren lanak geuretuaz: zuen sinismena geiturik, zuen artean aurreratze aundiagoak egingo doguzala uste dogu, gure negurriaren eraz, ¹⁶ Barri Ona zuen bazterraldetik aruntzago eroanik; besteri izentatutako arlo landuaz be ez gara arrotuko. ¹⁷ *Norbait arrotzekotan, Jaunagan arrotu bedi**: ¹⁸ ez da ontzat artzekoa bere buruaren ardura-eske diarduana-ta, Jaungoikoak goratzen dauana baiño.

Paulo'ren lanak

11 ¹ Zoroaldi bat itziko al-daustazue! Bai, arren, itzi egidazue. ² Jaungoikoaren arduraz nago zuen arduratsu: izan be, Kristo'ri, senargei bakarrari, zaukedaz eskifitita, neska garbi lez. ³ Eta bildur naz, sugeak bere maltzurkeriaz Eba atzpetu ebaner, zuen adimena be ustelduko ete-dan, Kristo'ri zor yakon zintzotasun eta santutasunetik alde eragiñik. ⁴ Izan be, guk iragarri daustuegun Jesus bagarik besteren bat

iragarten norbait etorri ba'ledi, edo emon yatzen Espiritua bagarik besteren bat emoten, edo artu dozuen Barri Ona bagarik besteren bat iragarten norbait etorri ba'leki-zue, alakoa ondo artuko zeukee. ⁵ Alan be, apostolu argitsu orreik baiño txikiago ezetan be ez nazala uste dot; ⁶ eta berba egiteko mote-la nazanarren, ez, ostera, jakintzan: gai guztietan eta era guztietara azaldu dautsuegu-ta.

⁷ Ala, zuek goratzeko apal-apalik nenbillenean eta Jaungoikoaren Barri Ona utsean azaldu neutsuenean, pekatu egin ete-neban? ⁸ Zuei lagun egiteko, beste eliza batzuk erantzi dodaz, arekandik saria arturik; ⁹ eta zuen artean nengoala ta bearrizanean aurkitzen nintzala, ez nintzan zuetariko inoren lepotik bizi, nire bearrizanak Akaia'tik etorritako anaiak bete eustezan-eta; beti egon naz zuur zuei nekegarri ez izateko, eta aurrerantzean be ez nakizue (*naiatzue*) izango. ¹⁰ Kristo'ren egia neugan dagoanez dirautsuet: ez yat Mazedonia'ko lurraldeetan goraldi au gutxituko. ¹¹ Zegaitik? Maite ez zaituedalako? Jaungoikoak ba-daki.

¹² Nik egiten diardudan au, geroago be egingo dot, gure antzera arrotzeko bide-billa dabizana bidea galerazoteko*. ¹³ Sasi-apostolu orreik guzurrezko langille dira, Kristo'ren apostolu-jantziiaz jantzita; ¹⁴ eta ez ikaratu, Satanak be argi-aingeruz jaxten da-ta. ¹⁵ Beraz, ez da arritzekoa aren (*Satanas'en*) morroiak zuzentasunezko jantziz jaxten ba'dira: arein azkena, euren egintzai dagokiena izango da.

Paulo, bere arerioen gaiñetik

¹⁶ Barriro be ba-dirautsuet: ez nagiala iñok zorrotz artu; edo beste-la, artu nagizue, neu be zerbait arrotu nadin. ¹⁷ Arrotze-gai oni bu-

^{10 17} Maitasun arduratsuz maite dauz Paulo'k Korinto'ko kristauak, Jainkoak Israel lez, Dt 4 24+; Os 1 2+; Ef 5 23-33+; Ag 21 2+; 12 10.

^{11 12} Bere buruari begiratu bagarik. Ez dabe egiten olakorik sasi-apostolu lapurrak, cf. Ap 18 3+.

ruz esateko nagoana, ez diñot Jaunaren eraz, zoroaldi antzera baiño. ¹⁸ Aragi-eraz ainbat arrotzen diran ezkeru, neu be arrotu egingo naz. ¹⁹ Zuek sentzuneko zareela, tentelak gogoz eroaten (*jasaten*) dozuez. ²⁰ Norbaitek azpiratzen ba'zaitue, naiz iruntsiten, ostuten ba'dautsue, arrokeriz begiratzen ba'zaitue, naiz matraillakoak emoten ba'dautsue, alakoa ondo eroaten dozue. ²¹ Lotsaz diñot, orretan makalak bai'gintzazan!

Norbaitek bere burua jaso ba'daiken —zorakeriz diñot, gero—, neuk be ba-daiket*. ²² Eurak Ebertar dirala? Bai neu be. Eurak Israeldar? Neu be bai. Abraham'en jatorriko dirala? Bai neu be. ²³ Kristo'ren alde diarduela? Zorakeritxo bat esateko, nik askozaz geiago: lan geiagotan egon naz, giltzapean geiagotan, zigorkadetan askozaz geiago; sarritan, eriotz-arriskueta. ²⁴ Judarrakandik bost aldiz berrogei zigorkadak —bat gutxiago— artu dodaz; ²⁵ irutan zigortu nabe makillaka; bein arrika egin eusten; itsas-ontzia irutan ondatu yatan; itsas-erdian gabez eta egunez ito-zorian egon nintzan. ²⁶ Joan-etorri askotan egon naz; ibai-arriskutan, lapur-arriskutan, erritarren aldetik arriskutan, jentillen aldetik arriskutan, urietan arriskutan, basamortuan arriskutan, itsasoan arriskutan, guzurrezko senideen artean arriskutan; ²⁷ izerdi ta neketan, lo-galdu askotan, gose ta egarritan, barau askotan, otzez eta jatzekorik ez nebala. ²⁸ Onetzaz gainera, nire egun oroko lana, eliza guztien ardurea izaten zan. ²⁹ Nor geisotzen da, ni be geisotzen ez nazala? Nor jausten da, ni erreten ez nazala?

³⁰ Ezetan arrotzekotan, neure makaltasunari dagokionez arrotuko

naz. ³¹ Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aitak —betiko be-deinkatua danak— ba-daki guzurrik ez diñodana. ³² Damasko'n, Aretas erregearen ordezeko erriburuak, ni lotu nairik, urian zaintzailleak jarri ebazan; ³³ eta otzara baten sartuta, leiotik *uriko* orman-zear eratsia izan nintzan, eta alantxe egin neban iges arein eskuetatik.

Paulo'ren ikuspenak

12 ¹ Egoki ez danarren be, arrotzekotan, Jaunak emondako ikuspen eta agerpenak aitatuko dodaz. ² Ezagutzen dot gizon bat Kristo'gan, orain amalau urte irugarren zeruraino jaso izan zana. —Ori gorputzez ala gorputz bagarik jazo ete-yakon, Jaungoikoak daki, nik ez—. ³ Ba-dakit, gainera, alako gizona —gorputzez ala gorputz bagarik Jaungoikoak daki, nik ez— ⁴ paradisura jaso izan zana, eta an inok ezin esan-alako berba sakonak entzun ebazala. ⁵ Alako gizonaz, bai, arrotuko naz; baiña neurerik ez dot ezer arrotzekorik, neure makaltasuna izan ezik. ⁶ Arrotu nai ba'nengi be, ez nintzake zentzunbagea izango, egia esango neuke-ta. Bego ori, ostera, norbaitek nigan ikusi edo nitzaz entzun daikena baiño aundia-gotzat artu ez nagian.

⁷ Eta onenbesteko agerpenez arrotu ez nadin, ezten* bat emon izan yat aragian, Satanas'en aingeru bat, matraillakoak emon daistazan, ni arropuztu ez nadin. ⁸ Au dala-ta, iru bidar eskatu neutsan Jaunari, alakoa nigandik kentzeko. ⁹ Jaunak, ostera, auxe esan eustan: «Naikoa dozu nire grazia, makaltasunean agertzen da bete-betean nire indarra-ta.» ¹⁰ Au dala-ta, Kristo'gaitik geisoaldietan, iraiñetan, bearrizantetan, erasoaldietan, larrialdietan, poz-

¹¹ ²¹ Paulo'k dauko saltzeko bere judar-izatea, Flp 3 4-6+.
¹² ⁷ *Ezten* au zer ete-zan? Batzuen 8+.

pozik nabil: makala nazala uste dodanean, indartsu naz-ta*.

Paulo'ren jokabidea Korinto'n

¹¹ Zoro jokatu dot, zeuk bultza eginda. Zeuk goratu bear nenduzuen: ni ezer ez nazararren, apostolurik bikaiñenak baiño txikiago ez naz izan-eta. ¹² Eroapen aundiaz, ezaugarri, arrigarri ta mirariakaz egin nebazan zuen artean Apostoluezaugarriak. ¹³ Eta, zetan izan zaree txikiago beste elizai buruz? Onetan bakarrik: zuen lepotik ni bizi ez izatean. Parkatu egidazue irain au. ¹⁴ Irugarren aldiz nago zuekana joateko, eta ez nakizue (*naiatzue*) nekegarri izango: zuen ondasunen billa ez nabil-eta, zeuen billa baiño. Izan be, ez dira semeak gurasoentzat batu bear dabenak, gurasoak semeentzat baiño. ¹⁵ Zuen arimakaitik nik dodan eta nagan guztia pozik be pozik emongo dot, nik zuek maiteago izanik, zuek ni gutxiago maite izanarren be. ¹⁶ Ederto. Ez naz zuen nekegarri izan; baiña maltzurra nazanez, atzipetu egin zaituet. ¹⁷ Bialdu neutsuenerarikoren baten bidez zerbait atara ete-dautsuet? ¹⁸ Neure erreguz joan yatzuen Tito, eta onegaz anaia bialdu neutsuen. Tito'k zerbait atara ete-eutsuen? Ez etegara biok gogo batez eta bide beretik ibilli?

¹⁹ Geure buruak zuritzen diardugula uste dozue aspaldian. Ez; Jaungoikoaren aurrean, Kristo'gan, egiten dogu berba: eta guzti au, ene, maiteok!, zeuen onerako da. ²⁰ Bieldur naz, zuekana eldu naitenean, nik nai neukenez aurkitu ez ete-zagidezan eta zuek nai zeukeenez aurkitu ez ete-nagizuen. Ba-leiteke zuen artean eztabaidak, ikusi-eziñak, asarreak, aundikeriak, agokaldiak, mormoxetak, arrokeriak eta naasteak

izatea; ²¹ zuekana barrero joan naitenean, Jaungoikoak zuekaitik lotsarazo egingo nau, urrean, eta pekatu egin daben askogaitik negar egin bear izango dot, euren lizunkerri, aragikeri ta loikeriaz garbatu ez diralako.

Paulo'ren azken-burubideak

13 ¹ Irugarren aldiz noakizue ikustera. *Bi edo iru testiguren autorraz auzi guztia indartzendea**. ² Bigarrenez or nintzala, pekatu egin ebenai ta beste guztiai esan neutsena, orain be urrunetik aurretiaz diñot: orra barrero ba'noa, ez dot parkatuko, ³ nigan berba Kristo'k egiten dauala agiri-billa zabizen ezkeru. Kristo, barriz, ez da zuen artean makal agertu, indartsu baiño. ⁴ Makal antzera gurutzeratua izan zanarren, Jaungoikoaren indarrez bizi da. Geu be Aregan makalak gara; baiña Aregaz bizi izango gara zuentzat Jaungoikoaren indarrez. ⁵ Aztertu egizue zuen barruak, ea sinismenean zagozen; ezagutu egizue zuen buruak. Ez al-dozue ezagutzen Jesukristo zuekan dagoala? Galduak ez ba'zaree, beintzat. ⁶ Gu ez gagozala galduta ezagutuko dozuela uste dot, ⁷ eta gaiztakeririk ez dagizuela egin eskatzen dautsagu Jaungoikoari; ez, gero, gu jatortzat agertu gaitezan, zuek on dana egin dagizuen eta gu gaizto antzera agertu gaitezau baiño. ⁸ Izan be, egia-aren aurka ezin ezer egin daikegu, egia-aren alde baiño. ⁹ Pozik gagoz, gu makalak eta zuek indartsuak izanik. Zeuen zindotasun bete da guk eskatzen doguna. ¹⁰ Orregeaitik idazten dautsuet au urrunetik, aurrean izan nakizueñean, zigorra erabilli bearririk izan ez dagidan: Jaungoikoak zigor ori ez daust ondatzeko emon-eta, eregiteko (*jasoteko*) baiño.

¹² ¹⁰ Paulo'ren ezbear eta zoritxarretan argiago agertzen da Jainkoaren aal-izate

eta indarra, 4 7+; cf. Ko 1^a 1 26; 2 5.
¹³ ¹ Cf. Dt 19 15; Mt 18 16; Tm 1^a 5 19

Azkena

¹¹ Azkenez, anaiok, poztu zaitetze, bikaindu ta adoretu zaitetze, guztiok gogo bateko izan zaitetze, baketan bizi zaitetze, eta bakearen eta maitasunaren Jaungoikoa zeuekaz egongo

da. ¹² Laztan santuz alkar agurtu egizue. Agur egiten dautsuee santu (*kristau*) guztiak. ¹³ Jesukristo Jaunaren grazia, eta Jaungoikoaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bediz zuekaz guztiokaz*.

¹³ ¹³ *Irutasun Deunaren* izenean agurtzen dauz korintotarrak. Agurkera au zan, bearbada, liturji zaarrean kristauak egin oi ebena, cf. Mt 28 19. Paulo'ren eskutizetan sarti aitatzen dira *Iru Persnok*,

bakotxa bere ekintza bereizitan. Ikusi Erm 1 4; 15 16, 30; Ko 1* 6 11; 12 4-6; Ef 1 3-14; 4 4-6; Ts 2* 2 13-14. Cf. Mt 28 19; P 1* 1 2; 3 18; Jn 1* 4 2; Jds 20-21; Ag 1 4-5; e.a.

PAULO'K GALAZIA'KOAI
EGINDAKO IDAZKIA

Sarrera

1 ¹ Paulo'k, ez gizonakandik, ezta gizonen bitartez be, Jesukristo'ren eta illen artetik Bera biztu eban Jaungoiko Aitaren aukeraz baiño, Apostolu* nazan onek, ² eta neugaz dagozan anai guztiak, Galazia'ko elizai, ³ Jaungoiko Aitaren izenean eta Jesukristo gure Jaunarenean grazia ta bakea. ⁴ Jaun onek (*Jesukristo'k*) gizaldi gaizto onetatik* gu onik urten gaitезan, bere burua geure pekatuakaitik emon eban, gure Jaungoiko ta Aitak nai ebanez. ⁵ Bego Arentzat aintza gizaldien gizaldietan. Amen.

Barri Ona bakarra da

⁶ Arrituta nago, orren laster zuek, Kristo'ren gtaizitara deituak izan

zintzazanok, A (*Jaungoikoa*) itzirik, beste Barri On batera biurtu zareela-ta. ⁷ Baiña besterik ez dago. Or ba-dira, izan, batzuk, bildurtzen zaituenak eta Barri Ona naastu nai dabenak. ⁸ Baiña, iragarri dutsuegun Barri Ona baiño besteren bat geuk naiz zerutiko edozein aingeruk iragarri ba'legizue be, madarikatua alakoa! ⁹ Leen be esan neutsuen eta orain be ba-dirautsuet barriro: artu dozuen Barri Ona baiño besteren bat norbaitek iragarten ba'dautsue, madarikatua alakoa! ¹⁰ Gizonen ederra ala Jaungoikoarena euki nai ete-dot orain? Gizonen ederraren billa ete-nabil? Oraindiño gizonen ederraren billa ba'nenbil, ez nintzake Kristo'ren morroi izango.

I. PAULO, BERE BURUAREN ALDE

¹¹ Jakin egizue, anaiok, nik iragarten dodan Barri Ona gizonakandik ez dana: ¹² ez dot gizonegandik artu, ez ikusi, Jesukristo'gandik ikasi baiño. ¹³ Izan be, entzun dozue noizbait judarren asmoetan niarduala, Jaungoikoaren Elizea gartsu aurrean erabilten eta ondatzen*, ¹⁴ nire sasoiko erritar askori judarren asmotan aurrea artzen, eta nire gurasoen ekanduak ardurarik aundienaz zaintzen.

¹⁵ Baiña nire amaren sabeletik banandu ta bere graziaren bidez* *dei egin* eustanak, ¹⁶ bere Semea neugan agertu* nai izan eban, Arah.

Barri Ona jentil-artean zabaldu nengian. Une aretatik, aragiri ez odolli jaramonik egiteke, ¹⁷ eta ni baiño leen Apostoluak ziranen billa Jerusalem'era igo bagarik, Arabia'ra joan nintzan, eta andik barriro Damasko'ra biurtu. ¹⁸ Gero, iru urte geroago, Pedro ikustearren, Jerusalem'era igo ta amabost egun aregaz egon nintzan. ¹⁹ Apostoluetariko besterik ez neban ikusi, Santiago, Jaunaren *lengusu* anaia izan ezik. ²⁰ Au idaztean, ondo daki Jaungoikoak guzurrik ez diñodana. ²¹ Bere-ala, Siria ta Zilizia'ko lurraldeetara joan nintzan, eta, beraz, ²² Judea'n

¹ ¹ Paulo'k asiera-asieran azaltzen dau zegaitik daroan *apostolu* izena, 1 2; Erm 1 1+.

¹ ⁴ *Gizaldi gaizto au*, mundu zaarra. Gero *etorriko dan* Mesias-aldiko munduaren aurrez-aurre dagoan mundu au Satan's'ena, pekatuarena ta Legearena da. Ko 2* 4 4; Jn 1 9+. Kristo'k beragandik askatu ta Jainkoaren Erreiñuan sartu gaitu. Dana dala, oraindiño emen bertan

dogu mundu zaar ori, Erm 6 15+; 7 1+; Ko 1* 6 9-10; Kol 1 13.

¹ ¹³ Cf. Ap 8 3; 9 21; Flp 3 4-6+.

¹ ¹⁵ *Dei* onek Jr 1 5, eta Is 49 1 gogorazoten daukuz. Cf. Ap 9 15+.

¹ ¹⁶ Kristo'ren *agertze* au barrutikoa izan zala diñosku Paulo'k bein eta barriro, Ko 1* 9 1; 15 8; Ap 9 17; eta agertze onek bultzatu ebala jentilen Apostolu izatera, 2 8-9; Ap 9 15+; Erm 1 1+; 16 25+.

Kristo'ren elizentzat ikustez ez-eza-guna nintzan. ²³ Auxe bakarrik entzun izan eben esaten: «Beifola aurrean erabilten genduzan-arek, orduan ondartzeko asmoa eban sinismena, orain iragarri egiten dau». ²⁴ Eta, ni bide nintzala, Jaungoikoa goratu egiten eben.

Paulo Jerusalem'era doa*

2 ¹ Amalau urte geroago, barriro Jerusalem'era igo nintzan Bernabe'gaz, Tito be geugaz eroanik. ² Goitik argituta igo nintzan, eta jentillen artean iragarten dodan Barri Ona angoai ta batez be zerbait ziranai azaldu neutsen, nire ibilketan alperrik niarduan edo jardun izan neban jakiteko*. ³ Areik, barriz, nire lagun Tito, gerkarra zala be, ez eben erdaintzera beartu: ⁴ eta ori, guzurrezko anai batzuk Jesukristo'gandik daukagun askatasuna itoteko ixillean sartzen zirala; eta euren morroitzara lotu nai genduzan. ⁵ Guk, ostera, unetxo baten be ez geutsen amorrik emon, Barri Onaren egiak zuen artean oso-osorik irauin egian. ⁶ Zerbait zirudienakandik, barriz —noizbait zer izan zeitekezan ez da nire ardurea, nor nor dan banantzen (*bereizten*) Jaungoikoak ez diardu-ta—, zerbait zirudienakandik ez neban ezer jaso. ⁷ Okerretara bai: Pedro'k erdaintzeta-lanbidea lez, neuk be erdaintzeta-lanbidea artu nebala ikusi eben: —⁸ erdaintzeta-lanbidea apostolutzat Pedro artu dauanak Berak artu nau ni be jentillentzako apostolutzat—. ⁹ Eta *Elizearen*

abetzat dagozan Santiago, Zefas eta Joan'ek, niri emondako grazia ezagutu ebenean, niri ta Bernabe'ri eskua emon euskuen alkartasunez-augarritzat, eurak erdaintzeta-lan egiteko*. ¹⁰ Beartsuak (*txiroak*) gogotan izan gengizala eskatu euskuen bakarrik; izan be, ori egiteko nik beti ardura aundia izan dot*.

Paulo'k Pedro'ri agiraka egiten dautso

(Cf. Ap 15, 1+)

¹¹ Baiña Pedro Antiokia'ra joan zanean, aurrez-aurre gogor egin neutsan, errudun egin zan-eta*. ¹² Izan be, Santiago'renak ziran batzuk etorri baiña leen, jentillakaz bazkaltzen eban; areik elduaz batera, barriz, atzeraka asi ta arekandik aldendu egiten zan, erdaintzeta-lan egiten eutsen, Bernabe bera be orretan makurtzen yakela.

¹⁴ Baiña, Barri Onaren egiari dagokionez zuzen ez ebizala ikusi nebanean, guztien aurrean Zefas'i auxe esan neutsan: «Judar zaran ori, jentil-eraz eta ez judar-eraz bizi ba'zara zu, zer dala-ta leporatzen dautsezu jentillai judar-eraz bizibearra?»

Kristo'ren sinismena artu daben judarrak, ez dagoz Moises'en Legepean

¹⁵ Jaiotez judar gara gu, ez atzeritik etorritako pekatari*. ¹⁶ Eta gizona Jesukristo'ren sinistez zindo-

2 1 Ap 15'garren atalean eta abar datorena, andi-andika azaltzen dasku emen Paulo'k. Jerusalem'go Batzar aretan Ebanjelioaren zabalkunderako artu ziran erabagiak nabarmentzen dauz Lukas'ek; Paulo'k, barriz, beronen apostolutza onartu egin ebela beste Apostoluak.
2 2 Paulo'k ezin eikean Elizarik sortu Jerusalem'go Eliza Amaren baimen bagarik, batez be Elizearen abe ziran iru apostoluen baimen bagarik, 19; cf. Ap 9 9 Geienbat Palestina'ko ta Diaspora

tzen dala jakiniñ eta ez Legeko eginbidez, Jesukristo'ren sinistera etorri gara, zindokuntza Kristo'ren sinistez jaristeko, eta ez Legeko eginbidez: Legeko eginbidez ez da inor zindotzen-eta*. ¹⁷ Gure zindokuntza Kristo'gan billatzen dogunok be oraindiño pekatartzat artzen ba'gaitue, pekatu-morro ete-da Kristo? Ez orixe! ¹⁸ Neuk ondatu nebana, barriro neuk jasotean, nire burua legeausletzat jarten dot. ¹⁹ Baiña ni Le-

gearentzat Legeagaitik beragaitik il naz, Jaungoikoarentzat bizi izateko; Kristo'gaz gurutzetan nago josita. ²⁰ Arrezkero, ez naz bizi ni: Kristo bizi da nigan*. Eta orain aragitan bizi nazararren, Jaungoikoaren Semearen sinistean bizi naz: ni maite izan nenduanaren eta bere burua *gurutzetan* neugaitik emon ebanaren sinismenean. ²¹ Ez dot Jaungoikoaren grazia nigandik jaurti nai. Izan be, zindokuntza Legearen bidez jaristen ba'da, Kristo alperrik il zan.

II. KRISTAU-AGERBIDEAK

Zindokuntza fedearen bidez

3 ¹ Galaziar burubageok! Nok liluratu zenduezan *egiari esanik ez egiteko*, Jesukristo gurutzeratua-aren erdua zuen begien aurrean azaldua izan zan ezkerro*? ² Zuekandik auxe bakarrik jakin nai dot: Legearen eginbidez ala fedearen iragartearen indarrez* artu ete-dozue Espiritua? Orren zoro zaree? ³ Espirituz asita, orain aragitan amaitzen doze? ⁴ Orrenbeste doai alperrik artu ete-dozue? Alperrik izango litzake, bai. ⁵ Espiritua emoten dautsuenak eta zuen artean mirariak egiten dauzanak, Legeko egintzakaitik egiten ete-dau, ala iragarten yatzuena sinisten dozuelako?

Abrahan, sinisteagaitik zindotua

⁶ Idatzita dagoanez: Abrahan'ek *sinistu egin eban, eta zindokuntzarako ezarri izan yakon**. ⁷ Entzun egizue, ba: sinistetik jaiok, orreixek dira Abrahan'en semeak. ⁸ Izan be, jentillak Jaungoikoak sinistea-

ren bidez zindotuko ebazala, Liburu Santuak aurretiaz ikusirik, Abrahan'i albista on au esan eutsan: *Erri guztiak zeugan izango dira bedeinkatuak*. ⁹ Beraz, sinistetik jaioten diranak, Abrahan zintzoagaz dira bedeinkatuak.

¹⁰ Legeko egintzetan ustea daben guztiak, barriz, biraopean dagoz, idatzita dagoanez: *Madarikatua Legeko liburuan dagoan guztia gordetzen irauten ez dauana**. ¹¹ Eta agirian dago, Jaungoikoaren aurrean inor be ez dala Legearen bidez zindotzen, *zindoa sinistez bizi izango da-ta**. ¹² Legeak, barriz, ez dauko fedea oiñarriztat: *Aren aginduak beteten dauzanak, aginduen bidez izango dau bizi** diño-ta.

Kristo'ren egintza

¹³ Legearen madarikapenetik Kristo'k askatu egin genduzan, bere burua gugaitik madarikapen biurtuaz, idatzita dagoanez: *Madarikatua egurretik eskegia izan daitena**.

2 16 Aipamena Sal 143 2'bigarrenetik jasoa; cf. Erm 3 20+.

2 20 Sinismenaren bidez Kristo'gaz bat-egiñik bizi gara; Kristo bizi da gugan, Erm 1 16+; 8 10-11+; Ef 3 17; Filip 1 20-21; cf. Jn 15 4; 17 23; e.a.

3 1 Paulo'ren irakatsi guztien oiñarrria auxe da: gure salbamena Kristo il eta berbizituaren bidez datorrela, 1 1-14; Ap 13 26-39; Erm 4 24-25+; Ko 1* 2 2; 15 1+; Ts 1* 1 9-10+.

3 2 Fedearen iragartearen indarrez. Itzez itz: *fedea entzuetik*, 5; cf. Erm

10 17+; Ts 1 9-10+.

3 6 As 15 6'gn. ataltxoak diñonez, Abrahan da zindotzen dauan fedearen eredu ta sinismendun guztien aita, 7; Erm 4 3+; 4 16.

3 10 Dt 27 26'garrenetik jasoa.

3 11 Abk 2 4'garrenetik jasoa; cf. Erm 1 17+.

3 12 Ab 18 5'garrenetik jasoa.

3 13 Gizasemeakana jausitako madarikapena bere gain artu eban Kristo'k, Ko 2* 5 21+. Aipamena Dt 21 23'garrenetik jasoa.

¹⁴ Ori, Abraham'en bedeinkapena Jesukristo'gan jentillen gainera zabaldu zedin eta agindutako Espiritua sinistearen bidez artu gengian *izan zan*.

Agintzaria

¹⁵ Giza-eraz egingo dautsuet bera, anaiok: azken-naia gizonarena izanarren, ez dau inok austen, ezer be ez dautso inok geitzen. ¹⁶ Or ba: agintzariak Abraham'i ta aren jatorrikoari eskiñi yakezan. Ez diño «aren jatorrikoari», asko edierazoteko eraz, bakarrari baiño, «zure jatorrikoari», Kristo'ri. ¹⁷ Eta auxe diñot: Jaungoikoak egokiro egindako azken-naia, laureun eta ogeitamarte urte geroago sortutako Legeak ezin ausi daike, agintzaria ustel itzirik*. ¹⁸ Oinordetza, izan be, Legez ba'da, ez da agintzariz. Abraham'i, ostera, oinordetza au Jaungoikoak agintzariz emon eutsan. ¹⁹ Beraz, Legea zetarako*? Lege-austekaitik izan zan ezarria, agintzaria egin yakon «jatorriko» etorri arte, eta bitarteko baten eskuz Aingeruak ekarria.

²⁰ Bakarrak ez dau, barriz, bitartekorik, eta Jaungoikoa bakarra da. ²¹ Beraz, Legea ta agintzariak alkarren aurka? Ez olakorik! Bizia ekarri eikean Legea emona izan ba'litz, zuzentasuna Legetik etorriko litzakean. ²² Baiña Liburu Santuak guztia pekatupean itxi eban, Agintzaria fededunakan Jesukristo'ren sinismenez bete zedin. ²³ Eta arela, sinistea etorri baiño leen, Legepean itxita gengoan, agertzeko zan sinistearen

zain. ²⁴ Legea, Kristo'gana eroateko umezaina izan yakun, sinistear zindotuak izan gendizan (*geitezan*). ²⁵ Baiña sinistea etorritako gero, ez gagoz onezkero umezainpean.

Abraham'en benetako ondorengoak

²⁶ Beraz, Jesukristo'ren sinistez, guztiok Jaungoikoaren seme zaree: ²⁷ Kristo'gan bateatuak izan zareen guztiok, jantzizat Kristo artu dozue-ta*. ²⁸ Orain, ez dago judarrik ez gerkarrik; ez dago jopurik ez askatua danik; ez dago gizonezkorik ez andrazkorik, Kristo'gan guztiok bat zaree-ta. ²⁹ Eta guztiok Kristo'renak ba'zaree, Abraham'en jatorriko be ba-zaree, Agintzariz oinordetako.

Gizonaren egokerea Jesukristo etorri arte

4 ¹ Eta orain, auxe diñot: Oinordetako ume dan artean, guztien jabe izanarren, morroia aña da: ² aitak izentaturiko epea (*aldia*) bete arte, guraso-ordekoren eta jagoleen menpean dago-ta. ³ Olantxe gu be: ume gintzazala munduko gaien* menpean bizi izaten gintzazan. ⁴ Baiña aldien osotasuna eldu zanean*, Jaungoikoak bere Semea bialdu eban, emakumeagandik jaioa, Legepean jaioa: ⁵ Legepean ziranak askatu egizan, guztiok semetasuna izan gengian*. ⁶ Eta seme zareen ezkerero, Jaungoikoak bere Semearen Espiritua bialdu dau gure biotzetara, Jaungoikoari «Abba, Aita!», deiez diñoana. ⁷ Beraz, orain ez za-

^{3 17} Salbamena baldintzarik bagariko agintzari baten oinarrizten da, Ebr 11 8-9; eta ez biren arteko itunpen edo kontratuan. Salbamena ez dator, beraz, Legea betetetik.

^{3 19} Legeak pekatua agirian jarten eban, Erm 7 7+, agintzaria bete dauan Kristo'gana zuzentzen dau, 23-29; 4 2.

^{3 27} Jantzizat Kristo artu dozue, au da, Jainko-seme biurtu zaree sinismenaren eta bateoaren bidez, 4 5; Erm 6 4+; 8 11+, 29+; Jn 1 12+.

^{4 3} Munduko gai oneik, Legeko aginduak ziran; euron arauz jokatu bear eben judarrak munduko gaietan be, 9; Kol 2 8, 20.

^{4 4} Alkartasun Zaarrean gertatu zan salbamena, Jesus'en bidez bete da. Ordu-tixek, Jainkoak erabagiatako ordutik, Mesias-aldian gagoz, cf. Mt 5 17+; Mk 1 15; Ap 1 7+; Ko 1^a 10 11; Ko 2^a 6 2+; Ef 1 10; Ebr 1 2; P 1^a 1 20.

^{4 5} Morroia Jainko-seme biurtzen da; legez bakarrik ez, izatez be bai, Kristo'gaz bat-egiten da-ta, 3 26-27+.

ra morroi, seme baiño; seme izan ezkerero, barriz, oinordetako be bai, Jaungoikoaren graziaz.

Legepean egotea, barriro joputzapean egotea izango litzake

⁸ Beste aldi baten, ez zenduen Jaungoikoa ezagutzen, eta izatez Jaungoiko ez ziranen morroi zintzazen. ⁹ Baiña orain, Jaungoikoa ezagutu dozuenean, edo obeto esateko, Jaungoikoak ezagutu zaituenean, zelan biurtu zaree barriro gai zirtzil eta utsetara, barriro euron morroi izan nairik? ¹⁰ Egunak, illak, urtearrok eta urteak gordeten dozuez *oraindiño!* ¹¹ Bildur naz zuen artean izan nebazan arazoak zuek alpeurreko biurtu ete-dozuezan be!

Paulo deunaren gomutapenak*

¹² Anaiok: neu lakoak egin zaitzela eskatzen dautsuet, neu be zeuek lakoak egin nintzan-eta. Ezetan be ez nozue iraindu. ¹³ Ondo dakizue, Barri Ona iragarri neutsuenean, geisorik nengoana, gorputzez geisorik; ¹⁴ eta nire geisoa zala-ta, zuek zirikalidatan zengozela, ez nenduzuen iguridu ez bazartu, bestetara baiño: Jaungoikoaren aingerutzat, Jesukristo'tzat artu nenduzuen. ¹⁵ Nun dago orain zuen pozaldia? Neuk autortzen dot-eta: zuen begiak be, aal izan ba'litz, zusterretik atara ta neurri emoteko lain izango zintzakezen. ¹⁶ Beraz, zuei egia esatearren, zuen arerio egin ete-naz? ¹⁷ *Guzurrezko apostolu* orreik inguruan dabilkizue, onerako ez baiña: nigandik alde-eragin nai dautsue, gero euren inguruan zeuek ibilli zaitzen. ¹⁸ Alan be, ondo izango da ardura onez maite izan nagizuen, zuen artean nagoanean bakarrik ez, baita beti be.

^{4 12} Bein Galazia'ra joan zan Paulo ta ango kristauak lez bizi izan zan, Legea bazartuta. Orduan egin yakon arrera gozoa gogorazoten dautse emen.

^{4 19} Cf. Ts 1^a 2 7-11; Ko 1^a 4 14-15;

¹⁹ Ene semeok, Kristo zuekan eratu arte, barriro seingintza-miñez naukuzuenok*! ²⁰ Ordu onetan zeuen artean egon eta zuei era askotara berra egin nai neuke, ez dakit zuekazelan jardun-eta.

Legearen orde, Barri Ona

²¹ Esan egidazue: *antxiñako* Legepean egon nai dozuenok, ez dozue entzun Legeak diñoana? ²² Idatzita dagoanez, Abraham'ek seme bi izan ebazan: bata mirabeagandik, eta bestea etxekandreagandik. ²³ Baiña mirabeagandikoa, aragi-bidez jaio zan; etxekandreagandikoa, barriz, Agintzariaren indarrez. ²⁴ Antziruditan esana da au, emakume biok Alkartasun bi dira-ta: bata, Sinaimendikoa da, morroi-ama: Agar da au. ²⁵ Sinaimendia Arabia'n dago, eta oraingo Jerusalem da, bere semeakaz morroi da-ta. ²⁶ Goiko Jerusalem, ostera, bere burujabe da, eta auxe da gure ama*, ²⁷ idatzita dago-ta:

Poztu zaitex, ume bagarik agor zagozan ori; deadarka asi zaitex, sein-miñik ezagutzen ez dozun ori; bazartuaren semeak senardunarenak baiño geiago dirata.

²⁸ Zuek, barriz, anaiok, Agintzariaren seme zaree, Isaak lez. ²⁹ Baiña, orduan aragiz jaioa zanak espirituz jaioa aurrean erabillenez, orain be bardin jazoten da. ³⁰ Baiña, zer diño Liburu Santuak?: *Bota egizuz mirabea ta onen semea, mirabearen semea ez da bere burujabe danaren semeagaz batera oinordetako izango-ta.* ³¹ Beraz, anaiok, gu ez gara mirabearen seme, bere burujabe dan andrearen seme baiño.

Ko 2^a 6 13.

^{4 26} Aurrez-aurre dagoz Jerusalem biok: lurrekoa, Legeari lotuta geratu da; zeruko, barriz, au da, Elizea, Barri Onaren askatasunean, Is 2 2; 54 1; cf. Ag 21 2+.

III. BURUBIDEAK

Edo judar, edo kristau*

5 ¹ Geure burujabe izateko askatu gaitu Kristo'k; beraz, orretan sendo irauin egizue, eta ez itzli joputzako buztarpean ezi zagiezan. ² Ikusi egizue Paulo dala dirautsue: erdaintzen ba'zaree, Kristo ezetarako be ez yatzue izango. ³ Erdainduak izan diranai, Lege osoa gorde-tera beartuak dagozala autortzen dautset barriro be. ⁴ Zindokuntza Legean billatzen dozuena, Kristo'gandik alde egiten dozue; grazia galdu egin dozue. ⁵ Guk, barriz, Espirituagandik zindokuntzako saria jaristeko ustea sinistean dogu: ⁶ Jesukristo'rentzat erdainkuntza ezer ez da, ezta erdainbagea be: maitasunaz eragindako sinismena baiño.

⁷ Abiada ederra zeroien: nok galarazo dautsue egiari esanik ez egitea? ⁸ Burubide ori ez dator dei egin eutsuenagandik. ⁹ Legamin apurtxo batek ora guztia jagi-azoten dau. ¹⁰ Ba-dot ustea Jaunagan, ez zareela besteriko bururakizunetara aldatuko. Artegatzen zaezanak, bere zigorra eroango dau, dana dala. ¹¹ Baiña, anaiok, nik oraindiño erdainkuntza iragarten ba'dot, zegaitik naz aurrean erabillia oraindiño? Beraz, amaitu zan gurutzeko gaizpidea? ¹² Guztiz irenduko al-dira artegatzen zaituenak!

Legearen orde, maitasuna*

¹³ Zuek, anaiok, askatasunera zaree deituak; askatasun ori ez egizue, orraitino, aragiaren morroitzarako artu, alkarri maitasunez lagun egiteko baiño. ¹⁴ Lege osoa, agindu bakar onetantxe dago baturik: *Zure lagun-urkoa zeure burua lez izango dozu maite.* ¹⁵ Baiña alkarri agin-

⁵ 1 Erdainkuntzara barriro biurtzea, sinismenak damoskun askatasuna ukatzea litzake, Erm 6 15+.

⁵ 13 Sinismeneko bizitza barria, maitasunezko bizitza da, 13-15; 5 6; Erm 7 7+; 13 7-8+. Bizitza onen frutuak Espi-

ka egiten eta alkar iruntsiten ba'diartuzue, begira gero!: alkar ondatzen diartuzue.

Maitasun-egintzak

¹⁶ Beraz, auxe dirautsuet: Ibilli zaiteze Espirituaren eraz, eta ez dozue beteko aragiaren gurariak. ¹⁷ Aragiak espirtuaren aurka diardu; espirtuaren gurariak, barriz, aragiaren aurka: alkarren buruz-buru dagoz, eta, orregaitik, ez dozue nai zeukeena egiten. ¹⁸ Espirituaren eragiñez ba'zabize, ostera, ez zagoze Legepean. ¹⁹ Aragiaren egitadak agirian dagoz. Emen: aragikeri, zinkikeri, lizunkeri, ²⁰ sasi-jainkokeri, sorginkeri, gorroto, eztabaida, ardurakeri, asarre, burruka, makurkeri, alderdikeri, ²¹ ikusi-ezin, moskorkeri, sabelkeri, eta olakoak. Leen legetxe dirautsuet orain be: orrelakoak egiten dabezanak, ez dabela oiñordetzat Jaungoikoaren erreinurik artuko. ²² Espirituaren frutuak, barriz, oneixek dira: maitasuna, poza, bakea, biotz aundia, biotz zabala, ontasuna, zintzotasuna, ²³ otzantasuna, neurribidea. Orrein aurka ez dago Legerik. ²⁴ Jesukristo'renak diranak, aragia, beronen grifia ta zalekeriakaz, gurutzean josi dabe*.

²⁵ Espirituaren indarrez bizi ba'gara, ibilli gaitez aragiaren eraz be. ²⁶ Ez gaitez arropuzkerietan ibilli, nor aundiagoka, alkar ikusi-ezinka.

Burubide batzuk

6 ¹ Anaiok: norbait uts-egiteren baten jausten ba'da, zuek, espirtu-zaleok, alakoa samurkiro zuzendu egizue, bakotzak bere buruaz kontu izanik, tentaldi bardina eto-

ritu Santuarenak dira; ez aragiarenak, 16-25; 6 8; Erm 5 5+.

⁵ 24 Espirituaren askatasun au euren aragia Kristo'ren gurutzean josi dabenak lortzen dabe, 2 19-20; 6 14; Erm 6 6-7; 8 13; Kol 3 5.

rri daitekio-ta. ² Eroan egizuez alkarren nekeak, eta olantxe beteko dozue Kristo'ren legea. ³ Norbait zerbait dalakotan ba'dago, eta ezer izan ez, bere buruari sartzen dautso ziria. ⁴ Aztertu dagiala bakotzak norberaren jokabidea, eta orduantxe aurkituko dau beragan bakarrrik, eta ez bestegan, zetan arrotu: ⁵ bakotzak bere sorta eroan bear dau-ta.

⁶ Jaungoikoaren itza ikasten diarduanak, irakasten dautsanari ondusun guztietatik emon begio.

⁷ Ez zaiteze atzipetu: Jaungoikoari ez dautso iñok barrerik egiten. Gizonak erein dagiana, orixe batuko dau. ⁸ Aragiaren azia erein dagianak, aragiaren ustelkeria batuko dau; espirtuaren azia erein dagianak, barriz, espirtuak emonda betiko bizitza batuko dau. ⁹ Ez gaitez on-egitez aspertu: orretan asperu bagarik ekiten ba'dautsagu, aldi egokian saria artuko dogu-ta. ¹⁰ Beraz, astia dogun artean, guztiai on egin daiegun, fedez anai doguzanai batez bere*.

Azkena*

¹¹ Begira neure eskuz egiten dautsuedazan izki (*letra*) andiak. ¹² Aragi-bidez goratuak izan nai dabenak, orreixek biurtzen zaitue erdainkuntzara, Kristo'ren gurutzegaitik aurrean erabilliak ez izateko. ¹³ Erdainduak eurak be ez dabe Legea gorde-ten, eta zuen aragian eurak gorape-na eukiteko, zuek erdainkuntza artu dagizueta nai dabe. ¹⁴ Alde nigandik ezetan arrotzea, Jesukristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik: Onen egiñez, mundua niretzat gurutzetuta dago, eta neu be bai munduarentzat*. ¹⁵ Izan be, erdainkuntza ezer ez da, ezta erdainbagea be, gizaki barria baiño. ¹⁶ Eta era onetara bizi daitenen gaiñera ta Jaungoikoaren Israel'en gaiñera, bakea ta errukia jatsiko dira*.

¹⁷ Aurrerantzean, ez beist iñok gogaitik eragin, Jesus *Jaunaren* ezaugarriak gorputzean daroadaz-ta*. ¹⁸ Bego zuen espirtuagaz, anaiok, Jesukristo gure Jaunaren grazia. Amen.

⁶ 10 Egitadetan agertzen dan alkar-maitasuna da kristautasunaren autorrik ederrera, anaien eta jentillen begietan, Ko 1* 13 1+; Erm 12 17-18; 14 15; cf. Jn 13 35; Ts 1* 3 12; 5 15.

⁶ 11 Bere eskuz idatzitako azken au, beste eskutitzetakoak baiño luzeagoa da, ⁶ 14 Aragiaren eta pekatuaren mundua,

1 4+; 4 3+; cf. Jn 17 14; Erm 12 2+; Jn 2 15-17.

⁶ 16 Agintzarien oiñordeko diran kristauen gaiñera, 3 6-9; 4 21-31; Erm 9 6-8; Ag 7 4+.

⁶ 17 *Ezaugarri oneik*, Kristo'gaitik eroan dauzan zaurien ondarrak dira, Ko 2* 6 4-5; 11 23-28.

PAULO'K EFESO'KOAI EGINDAKO IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Paulo'k, Jaungoikoaren nai-izatez Jesukristo'ren apostolu nazan onek, Efeso'n bizi diran Jesu-

kristo'ren santu (*kristau*) ta fededunai: ² grazia ta bakea begoz zuekaz Jaungoiko gure Aitaren izenean eta Jesukristo Jaunarenean.

I. SALBAMENAREN ETA ELIZEAREN MISTERIOA

Jesukristo'ri zor dauzguna

³ Bedeinkatua izan dadilla Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita, guztietariko espiritu-bedeinkapenez Kristo'gan zerutik bedeinkatu gaituana*! ⁴ mundua egin baiño leen, Aregan aukeratu genduzan ezker: Aren aurrean, maitasunean, santu ta errubage izan gaitez; ⁵ eta Jesukristo'ren bitartez aurretiaz aukeratu genduzan, gu bere semetzakotzat artzeko, bere naiaren gogoz, ⁶ bere grazi goragarriaren aintzarako*. Orregaitik, atsegingarri egin genduzan bere *Seme* maiteagan. ⁷ Onegantxe dogu erospena beronen odolaren bitartez, baita pekatuen parkamena be, Aren (*Jaungoikoaren*) graziaren aberastasunaz. ⁸ *Grazi* au eurrez isuri dasku, jakituri ta zuertasun osoz. ⁹ Onein bidez, bere naimenaren ezkutapena ezaguerazo dasku, bere asmoaren eraz. ¹⁰ Asmo ori, barriz, erabagitako aldiak beteta, zeruan eta lurrean diran gauza guztiak Kristo'gan alkaritzea zan*. ¹¹ Beronegan gagoz oi-

ñordetzat aurretiaz aukeratuak, gauza guztiak bere naimenaren burubidez egiten dauzanak orretara aukeratu gaitu-ta: ¹² orrela, Kristo'gan uste ona jarri dogunok, Aren aintzaren gorapenerako izan gaitez. ¹³ Aregan zuek* be, egiaren itza—gure osasunerako Barri Ona—entzunda, Aren sinistera etorri zareenok, agindutako Espiritu Santuaren ezaugarria daukazue ezarrita. ¹⁴ Au (*Espiritu Santua*), *zeruko* oiñordetza-txartela da, *Jaunak* beretu dauan Erriaren erospenerako, bere aintzaren gorapenerako.

Eskerrak emoten

¹⁵ Beraz, Jesus Jaunaganako zuen sinismena ta santu guztiakanako zuen maitasuna jakinda, ¹⁶ neuk be zuekaitik *Jaungoikoari* eskerrak emoten eta nire otoitzetan zuek gogora ekarten eten bagarik diardut: ¹⁷ Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko Aita goragarriak Bera ezagutzeko jakituri-espiritua ta argia emon dagitzuezan ¹⁸ zuen biotzeko begiak argiturik. Onela, ulertuko dozue

partekide egiten gaitu, Ur 24 16+; cf. Jn 1 14+; 17 22-24; Erm 8 17, 21, 30+; 6 4+; P 2* 1 4.

¹ 10 Aldia edo epea bere betera eldu danean, Ga 4 4+, pekatuak banandutako mundua batasun eta osotasunera ekarriko dau Jainkoak Jesukristo'ren bitartez, 1 23+; Erm 8 18-22+; Kol 1 15-17. Auxe da Ireneo Deunari ain gogoko yakon *dana batean-batzea*.

¹ 13 *Zuek*-ka asten yake Paulo jentiltasunetik etorritako kristauai. Jentillak Kristo'gana ekarte da, ain zuzen be, Paulo'k artu dauan agindua, 3 2; Ap 9 15+; Erm 1 1+.

zein aberats eta ospatsua dan santuai emondako Aren oiñordetza, ¹⁹ eta zein indar gorena ta aundia dan fededunon alde darabillen aalizate aaltsua! ²⁰ *Aal-izate* au erabilili eban Kristo'gan, illen artetik *Kristo* biztu eta zeruan bere eskumaldean jarri ebanean, ²¹ agintari, aal-izate, indar eta nagusitza* guztien gaiñetik; eta gizaldi onetan bakarrik ez, gerokoan be aitatu daiteken edozein izen-gaiñetik. ²² Dana Aren oiñazpian* ezi ta Eliza osoaren buru jarri eban. ²³ Aren gorputza*, barriz, eta dana alde guztietan beteten dauanaren betegarri, Eliza ori da.

Jaungoikoaren indarra kristauakan

2 ¹ Eta zuek ilda zengozen zuen gaiztakeri ta pekatuakaitik. ² Beñola orrelakoetan bizi izan zaree gizarte onen gogoari jarraituez, aizeko nagusiaren eragiñez, eta seme biurrien artean oraindiño lanean diarduan espirituz. ³ Geu be beñola alantxe ibilli gintzazan eta aragiaren gurariai jarraitu geutsen, aragiaren naia ta gurari gaiztoak beteaz; enparaduak lez, gure egikeraz asarre-seme izanik. ⁴ Baiña erukitan aberatsa dan Jaungoikoak maite-maite izan genduzan, ⁵ eta gure gaiztakeriakaitik gu* ilda gengoanoi, Kristo'gaitik bizitza emon euskun—utsean izan zaree salbatuak—, ⁶ eta gu biztu ta Jesukristo'gan zeruan jesarreraz gaitu*: ⁷ guganako

bere graziaren aberastasun ugaria, bere errukiz, geroko gizaldietan erakutsi egian. ⁸ Izan be, grazi utsean izan zaree salbatuak, sinismenaren bidez; eta au, ez datorkizue zeuenez, Jaungoikoak emonda baiño; ⁹ ez dator egintzetatik be, iñor arrotu ez daiten. ¹⁰ Berak egiñak gara, Jesukristo'gan sortuak, Jaungoikoak atondutako egintza onak egiten jardun dagigun.

Judarrak eta jentillak, Kristo'ren bidez, adiskide

¹¹ Gogoratu egizue, ba, aldi baten zuek aragi aldetik jentil* zintzazata, aragiaren eskuz erdaintutakoztat izena erdainbage zenduela. ¹² Orduan, Kristo bagarik zengozen, Israel-erritik urrunduta, Agintzariaren alkartasunetatik arrotz, lur onetan ez itxaropenik ez Jaungoikorik* ez zeukela. ¹³ Orain, barriz, aldi baten urrun zengozenok, Jesukristo'gan Kristo'ren odolaz bat egiñak izan zaree: ¹⁴ gure bakea Bera da-ta; Bera da, bitarteko esia edo areriotasuna botata, bere aragian *erri* biak bat egin dauzana: ¹⁵ Berak aginduz eta erabagiz beteriko Legea kendurik, alderdi biak Beragan gizon barri bat egiteko, bakea egiñik; ¹⁶ eta Beragan *erri* biak, gorputz bat* eginda, Jaungoikoagaz gurutzearen bidez adiskidetu ebazan, Beragan areriotasunari eriotza emonik. ¹⁷ Eta etorri zanean, bakea iragarri eutsuen urrun zengozenoi, baita ur egozanai

¹ 21 Zeruko *nagusi-maillon* edo jerarikon izenak judarren pentzakeratik datoz, cf. Erm 8 38; Kol 1 16; e.a. Cf. 6 12+.

¹ 22 Sal 8 7 garrenetik jasoak; cf. Ko 1* 15 25-27.

¹ 23 *Kristo'ren gorputz* au Elizea da, Ap 5 11+; Ko 1* 12 12+. Espirituagan, 4 4, bat-egindako gorputz onen buru bakarra, Kristo da, 4 15-16; 5 23-32+; Kol 1 18; 2 19. Elizea da *Osoasuna*, izadi barri guztia Kristo'ren menpean besarkatzen dauana, 3 19; 4 13; 1 10+; Kol 1 15-20.

¹ 25 *Gu*, au da, jentil naiz judar, 1-3.

¹ 26 Berbizkundera ta zerua geureak dira oraindixek, ez dira geroko zerbaitzuk

bakarrik, Kol 2 12; 3 1-4; Erm 6 3-11+; 8 11+, 17-18+.

¹ 21 *Jentillak*. Israel izan ezik, Mesias-aurretiko gizadi osoa.

¹ 22 *Ez Jaungoikorik*, au da, Jainko-bageak edo ateoak. Alkartasun Barrian ementxe agertzen da leenengoz *Jainko-bage* edo *ateo* itza. Jainko bakarra, bizia ta egiazkoa Israel'i iragarritakoa da, Ko 1* 8 5-6+; Ts 1* 1 9; As 12 1+; Ur 3 15+; e.a.

¹ 26 Kristo'ren gorputzean alkartzen dira, bere atal lez, kristauturik Jainko-seme biurtzen diran guztiak, judar naiz jentil, 1 19, 23+; Kol 1 22; Erm 8 29+; e.a.

be: ¹⁸ batzuek eta besteak, Espiritu baten alkartuta, Aitagana urreratze-ko indarra Aregandik dogu-ta.

¹⁹ Beraz, onezkero ez zaree arrotz eta etorbarri, santuen erri-lagun eta Jaungoikoaren *etxe*ko baiño, ²⁰ Apostoluen eta Profeten* oiñarri-gaiñean jasoak, giltzarri Jesukristo Bera dala. ²¹ Onexegan doa jasoez etxegintza guztia, Jaunaren etxe santu izateko. ²² Zuek, be, Espiritua-ren eragiñez, etxeari lotuta zagoze, Jaungoikoaren bizileku izan zaitez-en.

Paulo'ren eginbearra

(Kol 1, 24-29)

3 ¹ Orregaitik, jentil zareneon maitasunez, ni, Paulo, Kristo'ren giltzapeko naz... ² Jaungoikoaren aginduz zuen artean Aren grazia banatzeko arazoa, neure ardurapean dagoala entzun dozuen ezker*. ³ Lentxoago labor-labor aitatu dau-tuedan asmo ezkutua, goitik eza-guerazo izan yatan. ⁴ Itzok irakurri-ta, igarri daike zue zelan ezagutzen dodan Kristo'ri dagokion asmo ez-kutua. ⁵ Leengo gizaldietan ez ya-ken gizakumeai ezaguerazo izan, orain Aren apostolu ta profeta santu-ai Espiritu Santuaren bidez eza-guerazo yakenez. ⁶ Jentillak, Barri Onaren bidez, gorputz berberaren oiñordekide ta atal, eta Agintzari-aren lagunkide dira Jesukristo'gan. ⁷ Barri On onen iragarle egiña izan naz ni, Jaungoikoak bere indarra-aren eragiñez onetarako grazi-doaia emonda.

⁸ Niri, santuetarik kaskarren oni, grazi au emon izan vat: Kristo'ren

² 20 Profetok Alkartasun Barrikoak dira, 3 5; Ap 11 27; e.a. Apostoluen eta profeta onein autorrean jaso da Elizea, oiñarria Kristo dala, Mt 16 18+; Ko 1^a 3 10-11.

³ 2 Jentillakanako apostolutza usteba-gean eta utsean (*doan*) emondako doaia izan da Paulo'rentzat, 1 13; Ap 9 15+; Erm 15 15-16; Ga 1 15-16+.

³ 15 Sendi edo familia. Paulo'k ger-

aberastasun ulergatxa jentillai ira-gartea, ⁹ eta olako asmoaren mamiña zein dan argitan jarrea, gauza guz-tien egille dan Jaungoikoagan giza-dien asierarik gordeta egoan ezker: ¹⁰ Jaungoikoaren guztitariko jakitu-ria orain nagusi ta aaldun guztiai zeruetan, Elizearen bidez, agiri da-kien, ¹¹ Orrela, betidanik izan dau-an asmoa, Jesukristo gure Jaunagan bete dau: ¹² Beronegan dogun sinis-tez, Beronegana zabal-zabal eta bil-dur bagarik urreratu gaitkez. ¹³ Au dala-ta, zuekaitik daroadazan atse-kabeak gora-beera, ez zaitezela ki-kildu eskatzen dautsuet: zuen gora-pena orreixek dira-ta.

Paulo'ren otoitza kristauen alde

¹⁴ Au dala-ta, *Jesukristo'ren* Aita-ren aurrean belauniko jarten naz, ¹⁵ zeru-lurretan sendi (*familia*) guz-tiak izena Arexegandik artzen da-be-ta*: ¹⁶ bere aintzaren aberasta-sunari dagokionez, bere Espiri-tuaz, zuen barruko gizona sendo in-dartu dagian, ¹⁷ Kristo zuen biotze-tan sinistez bizi izan dadin, eta, maitasunean zusterak eginda, sendo egon zaitez-en: ¹⁸ orrela, santu guz-tiakaz batera, *asmo au* dan zabala, luzea, garaia ta sakona ulertu aal dagizuen*, ¹⁹ eta jakintza guztiaren gaiñetik dagoan Kristo'ren maitasu-na ezagutu *aal dagizuen*, Jaungoi-koaren betetasun guztiaz beteak izan zaitez-en*. ²⁰ Guk eskatu naiz asmatu daikegun baiño askoz be ne-gurri obeaz gudan egiteko indarra dauan Ari, ²¹ Berari aintza Elizan eta Jesukristo'gan belaunik-belaun, gizaldiz-gizaldi. Amen.

keraz darabilen itza bardiña dauan edo-zein giza-talderi dagokio.

³ 18 Itz-zerrenda oni estoiko-kutsua da-rio, baiña bai Bibliarena be, Jb 11 9. Itz onein bitartez Kristo'k dauskun maitasun neurribagea adierazo nai dauku Paulo'k, 3 8-9. Maitasun orrek diardu gizona ta izadi osoa barrizten.

³ 19 Kristo'gandik artzen dau kris-tauak Jainko-bizitza *betea*, eta Kristo osoagan murgiltzen da, 1 23+; Kol 2 9.

II. BURUBIDEAK

Batasunerako deia*

4 ¹ Jaunagaitik katepean lotuta na-goan au erreguka nagokizue, ba: *Berak* egin eutsuen deiari dagokio-nez ibilli zaitezela, ² oso apal, otzan eta eroapen aundikoak izanik; alka-rren uts-egiñak maitasunez eroanik, ³ espirituen alkartasunari bake-loka-rriaz eusteko arduraz. ⁴ Gorputz bat eta Espiritu bat bakarra da, Aren deiak zabaldu eutsuen itxaropena be bat bakarra danez. ⁵ Jauna bat bakarra da, bat sinismena, bat ba-teoa; ⁶ bat da guztion Jaungoiko ta Aita, guztien gaiñean dagoana, guz-tien bidez diarduana eta guztiakan bizi dana.

Bakotxaren doaiak

⁷ Guretariko bakotxari Kristo'ren doaiaren neguriz emon yaku grazia. ⁸ Onexegaitik diño au:

Goietara igo zanean, menpetuak Beragaz eroan ebazan eta gizonai doaiak banatu eutse-zan.*

⁹ Zegaitik diño «igo» egin zala, leenengo lurralde bekoetara jatsi za-lako baiño? ¹⁰ Jatsi zana Bera igo zan zeru guztien gaiñera, guztia be-teteko. ¹¹ Eta Berberak jarri dauz batzuk apostolu; beste batzuk, pro-feta; batzuk Barri Onaren zabal-zaille; beste batzuk, artzain (*edo zaintzaille*) ta irakasle, ¹² zintzoen obekuntza-lanerako, Kristo'ren gor-putza atontzeko: ¹³ guztiok sinistez eta Jaungoikoaren Semearen ezague-raz bat eginda, gizon eldu ta Kris-

to'ren adin beteko biurtu gaitzean arte*.

¹⁴ Onezkero, ez gaitzean gizonen maltzurkeriz edozein irakaste-aizek zalantzan jarten eta orra ta ara eroa-ten dauzan umeak izan: okerra sar-tzeko azpikeria erabilten dabe-ta. ¹⁵ Bestetara bai, ostera: egiari eus-tita, azi gaitzean danetan maitasu-nez, gure buru dan Kristo'gana el-durik: ¹⁶ gorputz osoa, batzen eta azten daben lokarri guztiakaz lotu-ta eta alkartuta, atal bakotxari da-gokionez, Aregandik azten eta oso-tzen da maitasunean-eta*.

Gizon zaarra

¹⁷ Beraz, Jaunagan dirautsuet eta autortzen dautsuet: aurrerantzean ez zaiteze bizi jentillak euren uste-kerietan bizi diranez, ¹⁸ euren sena illunduta dabela, euren ezjakiñez eta biotzeko itsutasunez Jaungoiko-aren bizitzatik urrun. ¹⁹ Moral-zen-tzuna galdu eben ezker, lizunke-rietara jo dabe, guztietariko zan-tarkerietan adoretzu jausirik*. ²⁰ Ez da ori zuek Kristo'gandik ikasi dozuena, ²¹ Aren irakatsia entzun eta Jesus'en ikasbidea artu ba'do-zue beintzat. ²² Beraz, leengo zuen jokabidea alde batera itziririk, eran-tzi zaiteze gizon zaarragandik, oker-keritan ustelduta dagoan ezker; ²³ barriztu zaiteze zuen espirituan ²⁴ eta gizaki barriaz jantzi zaiteze, Jaungoikoaren irudiz benetako zu-zentasunean eta santutasunean egi-ña da-ta*.

⁴ 1 Kristo'gan daukagun batasunak arrisku aundiko iru eragozpen azpiratu bear dauz beti: a) alkar eroan-eziña, 1-6; b) doai edo karisma ez-bardiñekoak izate-a, 7-13; d) guzurrezko irakatsi maku-rrak, 14-16.

⁴ 8 Egoki datorkioz Paulo'ren asmoari Sal 68 19'garrenetik jasotako itz biok: *igo eta banatu*. Kristo'ren zeruetara *igo-tea* ta Espiritu Santuaren *etorrerea*, bere doaiak isuriaz, ikusten dauz emen Paul-o'k, Ap 1 8+; 2 33+.

⁴ 13 Kristo da gizon-barritu guztien

eredu, 2 15; 4 24. Berak, bera Buru dala, eroango gaitu giza-izateari dagokion oso-tasun eldura, 1 10+, 23+; cf. Erm 8 29+; Ko 1^a 12 12+; Kol 3 10-11.

⁴ 16 Alkarren serbitzari izateak, Kris-to'gan biziaz, osotuaz daroa Elizea bere aial guztietan, atal bakotza berari dago-kion negurri egokira eldu arte, Kol 2 19; Ko 1^a 12 12-30.

⁴ 19 Ikusi Erm 1 18-32.

⁴ 24 Kristaua Batearen bidez *Gizon Barri* biurturik, eta zuzenbidea Kristo'-gan aurkiturik, onoinen guztien jabe

Burbuide batzuk

²⁵ Beraz, guzurra alde batera itzita, bakotzak bere lagun-urkoari egiaz egin dagiola berba, alkarren atalkide gara-ta*. ²⁶ Asarratuaren be, ez pekatu egin; eguzkia ez dadilla zuen asarrearen gainean ostendu*; ²⁷ ez emon lekuri debruari. ²⁸ Leen ostuten ebanak, ez begi aurrerantzean ostu: esku-lan egokiren bat egin begi, ostera, bearraldian dagoanari emetoko euki dagan. ²⁹ Ez bedi zuen agotik berba garratzik urten, onerako izan daitezkezan berba on eta egokiak baiño, entzuleai gogoko izateko. ³⁰ Ez egizue Jaungoikoaren Espiritu Santua atsekabetu, erospen-egunerako Aren zuegarria artu dozue-ta. ³¹ Urrundu zuekandik edozein samin, asarre, sumin, amorru, irain eta guztietariko gaiztakeriak. ³² Izan zaitezte, barriz, alkarganako biozperatsu ta errukitsu, eta alkar parkatu egizue, Kristo'gan Jaungoikoak be parkatu zaituenez.

Goi-maitasuna. Aragikeria

5 ¹ Beraz, Jaungoikoaren antzeko izan zaitezte, seme laztanai dago-kienez, ² eta ibilli zaitezte maitasun-bidean, Kristo'k maite genduzanez eta bere burua gugaitik usain gozoko eskingai ta oparizat Jaungoikoari emon eutsanez*. ³ Santuai dagokienez, ez bedi zuen artean aragikeririk aitatu be egin, ez lizunkeririk, ez diru-goserik; ⁴ ezta gordinkeririk be, ez tentelkeririk, ez berba labanik: orrelakoak ez dagoz ondo-ta. Orrein orde, eskerrak emon egizue. ⁵ Jakin egizue ondo: inungo aragizalek, ez zantarrek, ez

diruzalek —edo bardin dana, sasi-jainkozalek— ez dauana oiñorde-tzarik izango Jaungoikoaren eta Kristo'ren erreñuan. ⁶ Inok ez zagiezala berba leunez atzipetu: on-lakoakaitik etorten da Jaungoikoaren asarrea biurkeri-semeen gaine-ra-ta. ⁷ Ez egizue arekaz artu-emonik izan.

Argi-semeak

⁸ Noizbait illun zintzazen; orain, barriz, argi zaree Jaunagan. Ibilli zaitezte argi-seme lez*. ⁹ On eta zuzen eta egia dan guztia, argiaren frutua da. ¹⁰ Billatu egizue Jaunari atsegina yakona, ¹¹ illunpetako egin-tza alperretan naastu bagarik; egin-tza orreik bazartu bai, ostera: ¹² orreik azpitik egiten dabena, esateko be lotsagarri da-ta. ¹³ Lizunke-ri guztiok, barriz, argiak agertzen dauzanean, agirian geratzen dira; eta agirian geratzen dan edozer, argi da. ¹⁴ Orregeaitik esaten da au:

*Iratzartu zaitez, lo zagozan ori,
eta jagi zaitez illen artetik,
eta Kristo'k argituko zaitu*.*

¹⁵ Beraz, arduraz ibilteko aalegi-ñak egizue: ez, gero, burubage lez, zuur baiño, ¹⁶ astia ondo batez, egun txarrak doguz-ta. ¹⁷ Beraz, ez zaitezte sentzunbageak izan, sentzun-dunak baiño, Jaungoikoaren naia ezagutzeko. ¹⁸ Ez moskortu ardao-az*, loikeria beragaz dau-ta; bete zaitezte, ostera, Espiritu Santuz. ¹⁹ Abestu egizuez alkarregaz salmu-ak, ereserkiak eta goi-argizko abesti-ak. Abestu ta goratu Jauna zuen biotzetan. ²⁰ Beti ta guztiagaitik eskerrak emon egiozuez Jaungoikoari, Jesukristo gure Jaunaren izenean.

kristaua, cf. Jn 8 12+; Erm 13 11+; Ts 1* 5 5-6; St 1 17-18; Jn 1* 1 5-7.

⁵ ¹⁴ Zuzentzeko asmoz urko-lagunaren utsak argitara ataratea mesedegarri da, cf. Jn 3 20-21. Aitatzen diran itzak, leen-kristauen eres-abestiren batenak dira, urrean, cf. Is 26 19. Gai beroni buruz, ikusi Erm 6 4+; Ebr 6 4; 10 32. ⁵ ¹⁸ Cf. Es 23 31 (LXX).

egiten da, 25-32; Erm 6 4+; Ga 3 27+; Ko 2* 5 27+; Os 2 22+; Flp 1 9-10; Kol 1 9-10.

⁴ ²⁵ Za 8 16'garrenetik jasoa. ⁴ ²⁶ Sal 4 5 (LXX)garrenetik jasoa. ⁵ ² Cf As 8 21; Ur 29 18; Sal 40 7; Ez 40 41; e.a. ⁵ ⁸ Kristo'ren argitan murgilduta dago

Senar-emazteen eginbearrak

(Kol 3, 18-4, 1)

²¹ Egon zaitezte alkarren menpean, Kristo'ri dagokion begirunea-gaitik. ²² Emazteak euren senarren menpean egon daitezala, Jaunaren menpean dagozanez: ²³ emaztearen buru senarra da-ta, Kristo Elizearen buru ta gorputz osoaren salbatzaille danez*. ²⁴ Eta Elizea Kristo'ren menpean dagoanez, emazteak be bai euren senarren menpean, gauza guztietan. ²⁵ Zuek, senarrok, maite egizue zuen emazteak, Kristo'k Elizea maite dauanez eta aren alde bere burua emon ebanez. ²⁶ Elizea santutzeko, ur-bateoaren* bidez eta berbaz garbitzen ebala: ²⁷ Bere aurrean Eliza argitsu agerrerezoteko, ezetariko orban, tximur edo olako bagarik, santu ta garbi baiño.

²⁸ Senarrak be, orrelaxe izan bear dabez maite euren emazteak: euren gorputzak lez. Emaztea maite dauanak, bere burua maite dau; ²⁹ eta inok ez dautso bein be bere aragiari gorrotorik izaten; bai, ostera, azi ta zaindu, Kristo'k Elizea lez, ³⁰ bere gorputzaren atal gara-ta. ³¹ Orregeaitik, gizonak bere aita ta ama itzi egingo dauz, eta bere emazteagaz alkartuko da, eta biak aragi bat egingo dira. ³² Aundia da misterio au*, Kristo'ren eta Elizearen artekoa diñot, gero. ³³ Berba baten: zuetariko b a k o t x a k norberaren emaztea bere burua lez maite dagiala; emazteak, barriz, senarrari lot-sa izan dagiola.

⁵ ²³ Israel'en senarra Jainkoa bera lez, Os 1 2+, Elizearena, Kristo da, Ko 2* 11 2+; Jn 3 29; Ag 21 2+, Bera da Elizearen buru-ta, 1 22-23+; 4 15. Eta senar onak emaztea maite dauan lez maite dau Kristo'k bere Elizea. Adibide au eredu ta irakatsi bikaiña da kristau ezkonduentzat. Osotuagotzeko, ikusi Ko 1* 7.

⁵ ²⁶ Ur-bateoaren bidez Elizea Jainkoaren Alkartasunean sartzen da, cf. Ez 16 9; Tt 3 5-7+. Alkartasun au sinismenean oiñarritzen da, 1 13; Mk 16 15-16; Erm 6 4+; P 1* 1 23.

Gurasoen eta semeen eginbearrak

6 ¹ Seme-alabok: esana egiezue Jaunagan zuen gurasoai, ori zuzena da-ta. ² Zure aita ta ama aintzat izan egizuz. Orixe da leenengo agin-dua, eta auxe agintzaria: ³ zoriontsu izan zaitezten eta lurgaiñean bizitza luzea izan dagizuen*. ⁴ Zuek, barriz, gurasook, ez egizue zuen seme-alabak sumindu: zuzendu ta Jaunaren ikasbidean azi baiño.

⁵ Morroiok: aragi-eraz zuen uga-zaba diranai, Kristo'ri lez, bildurrez, ikaraz eta biotz lauaz esana egiezue; ⁶ gizonai atsegingarri izateko-edo, morroi-arazoak arein aurrean egiten dozuezanean lez ez, gero: Jaungoikoaren naia biotzez beteten dabean Kristo'ren morroiak lez baiño; ⁷ morroi-lanari Jaunaren ederragaitik, ez gizonen ederragaitik, gogo onez ekinik: ⁸ morroi, naiz bere burujabe izanarren, bakotzak egin daiken ona Jaunak sarituko dauala jakiniñ. ⁹ Zuek be, ugazabok, arekaz orrelaxe egizue, zema alde batera itzita: arein eta zuen Jauna zeruan dagoana ta Arentzat norkeririk ez dagoana ba-dakigu-ta.

Kristau-gudaritza

¹⁰ Gaiñerakoan, anaiok, indartu zaitezte Jaunagan, bere indarraren adorez: ¹¹ jantzi egizue Jaungoikoaren iskillu (arma)-soiñekoak*, debruaren maltzurkeria gogor egiteko. ¹² Gure burruka ez da aragiaren eta odolaren aurka, aaltsuen, indartsuen, mundu illun onetako nagusien, eta zerupean dabizan espiritu

⁵ ³² As 2 24'garrenean Kristo'ren eta Elizearen alkartzea ikusten dau Paulo'k, eta misterio au leenagotik be aditzera-emonna zala diño, cf. 1 9-10; 3 3-4; Erm 16 25-26.

⁶ ³ Ur 20 12.

⁶ ¹¹ Alkartasun Zaarrean iskilloz ordiduta dagoan gudari bat lez agertzen da sarritan Jainkoa, Is 11 4-5; 59 16-18; Jk 5 17-23. Espirituzko iskillook kristauen eskuetan nai dauz Paulo'k, Erm 13 12; Ts 1* 5 8.

gaiztoen aurka baiño*. ¹³ Artu egizue, ba, Jaungoikoaren arma-jantzia, egun txarrean gogor egin daikezuen, eta, guztia menperatuta gero, sendo iraun dagizuen.

¹⁴ Zutunik egon zaiteze, ba, egia gerrikotzat eta zuzentasuna bularrekotzat ¹⁵ eta oiñetakotzat bakezko Barri Onak emoten dauan adorea arturik. ¹⁶ Euki egizue beti eskuan fedearen babeskiña, Gaiztoaren gezi iziotu guztiak itzungi (*atzamatu*) aal dagizuezan. ¹⁷ Artu egizue osasunezko buru-oskola, baita Espirituaren ezpatea be, au Jaungoikoaren itza da-ta. ¹⁸ Otoitzari ekiozue beti biotzez, guztitariko erreguz eta eskariz, santu (*kristau*) guztien alde otoitz egiteko beti arduraz zagozela. ¹⁹ Neugaitik be *otoitz egizue*, berba egin dagidanean*, Barri Ona-

ren Misterioa zabal-zabal iragarteko Itza emon dakidan; ²⁰ eta katez lotuta nagonarren be, aren mandatari nazan ezkerro, Barri Ona nasai-nasai iragarri ta aretzaz bear dodanez berba egin dagidan.

Azkena

²¹ Nire gora-beerak eta zer egiten dodan jakin dagizuen, barriz, Titi-ko'k, anai maitagarri ta Jaunaren morroi zintzoak jakiñerazoko dautsue: ²² geure barri izan dagizuen eta zuen biotzak poztu dagizan bialdu dautsuet-eta.

²³ Bakea anai guztioi, eta maitasuna sinismenaz Jaungoiko Aitaren eta Jesukristo Jaunaren izenean. ²⁴ Izan daitela grazia Jesukristo gure Jauna maitasun ustel-eziñaz maite dabenakaz.

6 12 Espiritu gaiztook pekatuaren morroitzara erakarri nai dabe gizona; baiña morroitza orretatik Kristo'k askatu ta espirituazko iskilloz ornidu gaitu, 1 20-

21+. Cf. 3 10; Flp 2 10; Ga 4 3+, 9; Kol 1 13; 2 15.

6 19 Esaera au antxiñako profetakan-dik jasota dago, cf. Mt 5 2.

PAULO'K FILIPOS'KOAI EGINDAKO IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Paulo'k eta Timoteo'k Jesukristo'ren morroi oneik, Filipos'en dagozan Jesukristo'gan santu (*kristau*) guztiai, gotzain eta laguntzailleai*: ² begoz zuekaz grazia ta bakea Jaungoiko gure Aitaren eta Jesukristo'ren izenean.

Eskerrak emotea

³ Zuek gogotara ekarten zaituedan bakotxean, Jaungoikoari eskerrak emoten dautsada, ⁴ nire otoitz guztietan zuen alde beti pozik eskaturik, ⁵ leenengo egunetik orain arte Barri Onean izan dozuen eskuartzeagaitik*. ⁶ Ba-dot uste ona, zuekan eginbide on au asi dauanak, osotu be egingo dauala, Jesukristo'ren egunerarte*. ⁷ Bidezko da nik zuekan guztiokan *uste on* au izatea, biotzean zaroedaz-ta. Nire grazi-lagun zaree guztiok, bai nire kateetan, bai nire alde egitean eta Barri Ona sendotzean. ⁸ Ondo daki Jaungoikoak zenbat maite zaituedan Jesukristo'ren maitasun sutsuaz. ⁹ Eta auxe eskatzen dot: zuen maitasuna argiz eta jakitez geroago ta geiago azi daitela, ¹⁰ onena aukeratu aal dagizuen, Kristo'ren egunerako garbi ta akats bagarik izan zaitezen, ¹¹ Kristo'gandiko zuzentasun-frutuz beterik, Jaungoikoaren aintzarako ta gorapenerako.

1 1 Gotzain eta diakonuak. Itzez-itzez, zaintzaille ta laguntzailleak. Zaintzaille edo gotzaiñok kristau-taldeetako zaarrak ziran, Tt 1 5+. Diakonuak, barriz, gotzaiñen *serbitzari* edo *laguntzailleak*, Tm 1* 3 8+.

1 5 Filipostarrak, kristau biurtu ondoren, Ebanjelioaren arauz bizi dira, Kristo'ren alde jokatzuz, 1 27-30, eta Paulo'ri bearrizanetan lagunduz, 4 16-18.

Barri Onaren aurrerapenak Erroma'n

¹² Nire gora-beerak* Barri Ona aurrera eroan dabela jakin dagizuela nai dot, anaiok. ¹³ Jauregiko guztiai, eta kanpokoai be bai, ezagun yakez Kristo'gaitik daroadazan kataiak; ¹⁴ eta Kristo'gan *diran* anai geienak, nire katekaitik adoretuta, Jaungoikoaren itza bildur bagarik iragarteko adoretsuago egin dira. ¹⁵ Batzuek, ikusi-eziñez eta setakeriz iragarten dabe Kristo; beste batzuek, gogo onez. ¹⁶ Batzuek (*azkenok*), maitasunez *iragarten dabe*, Barri Ona zaintzeko nagoala jarrita ba-dakiet; ¹⁷ beste areik, ikusi-eziñez iragarten dabe Kristo, ez gogo onez, nire kateai atsekabea ezarriko dautsela uste izanik. ¹⁸ Niri zer, baiña? Edozelan be, azalkez naiz benetan, Kristo izan ezkerro iragarria, ni poztu egiten naz eta poztu egingo naz: ¹⁹ zuen otoitzak eta Jesukristo'ren Espirituaren laguntza dirala bide, guzti au osangarri biurtuko yatala ba-dakit-eta. ²⁰ Nire itzaropen etenbageari dagokionez, ezegaitik be ez naz lotsatuko, bestetara baiño: nasai-nasai, beti lez, orain be Kristo izango da goratua nire gorputzean, ni bizi izaten naiz ilten nazala*: ²¹ niretzat bizitza Kristo data; eriotza, barriz, irabazia. ²² Eta aragitan bizi izatea niretzat lan onurakorra danarren, ez dakit oraindiño zer aukeratu. ²³ Alde bietatik nago

1 6 Paulo'k, eragozpen guztien gaiñetik aurrera eroango dau, *Jaunaren Egunerarte*, bere lana, Ko 1* 1 8+.

1 12 *Gora-beerak*. Atxillotu ta auzitara eroan dabe Paulo.

1 20 Kristuaren gorputza, bateoan santutua, Kristo gurutzetu ta berbiztuarenagaz bat-eginda dago, Ts 1* 4 2-4; Ko 1* 1 2+; 6 12-20; 12 27. Cf. Erm 14 8; Ga 2 20+.

estututa: alde batetik, Kristo'gaz egoteko il nai neuke²; niretzat au askozaz obe; ²⁴bestetik, aragitan geratu nai neuke, zuentzat bearrezkoago da-ta. ²⁵Oraingo, oso ziur dakit zeuek geratuko ta egongo nazana, sinismenean aurreratu ta poztu zaitez, ²⁶eta orrela, ni zuekana bigarrenez joan naitenean, nire bidez Kristo'gan zuen gorapena geitu daiten.

Barri Onari dagokionez bizi bear

²⁷Barri Onari dagokionez bizi zaitezela eskatzen dautsuet bakarrik: zuek ikustera orra joan, naiz zuekandik urrunduta egon, gogo batez sendo irauten dozuela entzun dagidan, Barri Onaren sinismenagaitik *guztiok* batera burrukan diarduzuela, ²⁸zuen arerioen aurrean ezetan be ikaratu bagarik: orixe da areintzat ondamenaren agiria; zuentzat, barriz, salbamenarena, eta ori Jaungoikoaren aldetik. ²⁹Kristo'gan sinistea bakarrik ez, baita Beronegaitik nekeak eroatea be emon yatzue, nigan ikusi zenduen eta orain nitzaz entzuten dozuen burruka berbera egiñik.

Norberekoikeria ito-bearra

2 ¹Beraz, zuekan Kristo'gan adorerik, maitakuntzan atsegingarrik, Espiritu *Santuaren* artu-emonik eta biotzean errukirik ba'dago,

1 23 Il eta bereala Kristo'gaz alkartu nai izatea, ementxe ta Ko 2^o 5 6-9 garretan bakarrik agertzen dau Paulo'k.

2 5 Paulo'k batasunaren alde egiten dauan erregu onek, 1-4, zer-ikusit aundia dau urrengo txatalari buruz, 6-11. Txatal onek pozezko *eres-ahesti* bat dirudi, edo olakoren baten oiñarrizten da. Aurrez-aurre dagozan jokera bi ikusten doguz emen: alde batetik, Kristo bere gogoz *beeratu* egiten da, 6-8; eta bestaldetik, Jainkoak *goratu* egiten dau, 9-11. Ona emen istoriako Kristo, Jainko ta gizona, cf. Erm 9 5+; Kol 1 15-17+.

2 6 Jainko zanez, Jainkoaren eskubide ta doi guztiak eukazan Kristo'k, Ebr 1 3; Jn 1 1; eta bere giza-izateari be emon eikeozan doi ta eskubide guztiok.

2 7 Ziur asko, Jainkoaren Morroia dau Paulo'k gogoan, Is 42-52. *Bere burua*

²nire poza bete egizue, guztiok eritzi bat, maitasun bat, adore bat eta espiritu bat izanik. ³Ez egin ezer setakeriz, ezta arrokeriz be; bestetara baiño: gogo apalez, bakotxak bestea nagusitzat euki dagiala, ⁴norberarenaz baiño besterenaz ardura aundiagoa izanik. ⁵Jesukristo'k izan ebazan asmo berberak izan egizue zuek be*: ⁶izatez Jaungoikoa izanarren, ez eban bere burua Jaungoiko-maillan erakutsi*: ⁷bere burua beeratu egin eban, ostera, morroi-itxurea arturik eta gizonen antzeko egiñik*. Eta gizon-eraz zala, ⁸bere burua txiki egin eban, eriotzaragiño esaneko egiñaz, gurutzean ileragiño egin be*. ⁹Aregaitik, Jaungoikoak be goratu egin eban, eta izen guztien gaiñeko dan izena emon eutsan*: ¹⁰Jesus izena entzutean, zeruetan, lurlean eta inpernuean dagoan dana *belauniko jarri daiten*, ¹¹eta, Jaungoiko aitaren aintzarako, *miin guztiak* Jesukristo Jauntzat* *autortu dagien*.

Betiko osasunerako burubideak

¹²Beraz, ene maiteok, beti esana egin dozuen ezker, leen zeuen aurrean nengoala bakarrik ez, baita orain askozaz geiago zuekandik urrun nagoala be, bildur-ikaraz lan egizue zuen salbamina lortzen. ¹³Berak deritzanez, zuekan izatea ta egitea eragiten dauzana, Jaungoikoa da-ta. ¹⁴Egizue guztia mormo-

beeratu egin eban, itzez-itz, bere izatea utsitu egin eban. Au da, Jainko-izateari egokion aintza ez eban bere giza-izatean artu. Naiago izan eban gure makaltasun eta argalkeri guztiak, pekatua izan ezik, beraganatu. Eta orrela, Aitaren naitara makurturik, egokiago erakusten dauku Jainko Aitak daukun maitasuna.

2 8 Gurutzea gaizkille aundien urkamendia zan, Ebr 12 2. Gurutzea *gaizpide* izateari buruz, ikusi Ko 1^o 18-25; 2 1-2; Ga 6 14.

2 9 Izen au Jauna da, 11; Ap 2 21, 36+; edo-ta *Jaungoiko* izen gurena, cf. Ur 3 15+.

2 11 Izadi osoak onartuko dau, zelan edo alan, Jesus dala *Jauna*, Ap 2 36+; Erm 9 5+; 10 9; Ko 1^o 12, 3. *Jaun* izena, berez, Jainkoari bakarrik dagokio, Is 45 23.

xeta eta eztabaida bagarik, ¹⁵gizarte oker eta gaizto onen erdian* Jaungoikoaren seme zintzo ta orbanbage izan zaitez. Argi-zuziak lurlean lez agertzen zaree arein artean, ¹⁶bizitzarako Itza eroaten: ariñeetan alperrik ez ibiltea ta alperrik ez aalegintzea neure gorapenerako izango yataz-ta, Kristo'ren egunean. ¹⁷Baiña, zuen sinismenaren opari ta eskintza-gaiñean neure odola isuri bear be'neu be, zuek guztiok poztuko nintzake ta neure poza agertuko neuskizue guztioi. ¹⁸Poztu zaitez, ba, zeuek be, eta poz-lagun izan zakidaze.

Paulo'k Timoteo bialtzen dau

¹⁹Jesus Jauna lagun dodala, laster zuekana Timoteo bialtzeko ustea dot: zuen barri jakinda, neu be adoretu naiten. ²⁰Nigaz alkartuago ta zuei dagokizuezanai buruz benetan ain arduratsu danik ez dot, ²¹guztiak eurena billatzen dabe-ta, ez Jesukristo'rena. ²²Ba-dakizue zuek beronen zintzotasuna, eta, semeak aitagaz lez, Barri Onaren alde neugaz egin ebana lan. ²³Berau aukeratu dot, nire auziaren erabagia jakinda bereala zuekana bialtzeko. ²⁴Neu be zuekana laster joango nazala uste dot Jaunagan.

Epafrodito

²⁵Zuek nire bearraldian ardura-duntzat bialdu zeusten Epafrodito, nire anai, laguntzaille ta laguna bialdu bear dautsuedala uste izan dot, ²⁶zuek guztiok ikusteko gurari aundiz dago-ta, baita atsekabez be, geisorik egon zala entzun dozuela jakin dau-ta. ²⁷Izan be, il-zorian egon zan; baiña Jaungoikoa aretzaz erruki izan zan; aretzaz bakarrik ez, neutzaz be bai, atsekabe-gaiñean atsekaberik izan ez negian. ²⁸Beraz,

2 15 Cf. Dt 32 5.

3 3 Paulo'k ez dau ezetariko itxaropenik Legean; lar *aragiko* erizten dautso, Erm 9 8+. Dana dala, bere judar-izateaz arro dago, eta judar-izate ori ez dau

lenbailen bialtzen dot, zuek berau barriro ikusita, poztu zaitez eta ni nasaiaغو geratu naiten. ²⁹Abegi onez artu egizue, ba, poz aundiz Jaunagan, eta aintzat artu egizue ori lakoak diranak: ³⁰nire alde zuek ezin egin izan zeukeena beteteko bere bizi arriskuan jarririk, Kristo'ren lana egiteagaitik il-zorian egon zan-eta.

Judarkeriak itzi, Kristo'ri jarraitzeko

3 ¹Onenbestez, anaiok, poztu zaitez Jaunagan. Beti gauza bera zuei idaztea ez yat nekegarri, eta zuentzat osangarri da. ²Kontuz txakurrakaz, kontuz langille txarrakaz, kontuz ebagiteaz: ³benetako erdainduak geu gara-ta, Jaungoikoaren Espirituagan gurtzen dogunok, Jesukristo'gan arrotzen garanok, eta gure uste ona aragian jarten ez dogunok*, ⁴aragian be uste ona jarri neukeanarren. Eta aragian arrotu daitekkelakoan beste norbait ba'dago, geiago ni, *jaio ta* zortzigarren egunean erdaindutako au, ⁵Israel'en jatorriko, Benjamin'en leiñuko, ebertarren seme ebartar, Legez Pareszale, ⁶eta, *Legearen* ardureagaitik, Elizea aurrean erabilli neban au; Lege-bidean akats-bagea nazan au.

⁷Baiña, irabazitzat neukanari, Kristo'ren ondoan, kaltegarri deritizat. ⁸Bai, eta geiago oraindiño: guztiari deritizat kaltegarri, Jesukristo nire Jaunaren ezaguera bikaiñaren ondoan. Guztia ukatu dot Beragaitik, eta guztiari simaur deritizat, Kristo irabazteko ⁹ta Aregan aurkitua izateko: ez, gero, Legetik datorren nire zuzentasunaren jabe izanik, Jaungoikoagandik datorren, sinismenean dagoan, eta Kristo sinistuez datorkigun zuzentasuna jadesirik baiño*; ¹⁰orrela, Kristo ta

inoiz be ukatuko, Ap 22 3-5; 26 4-7; Erm 11 1; Ko 2^o 11 22; Ga 1 13-14.

3 9 Zuzenbide biok dira, Legearena ta Kristo'rena, aurrez-aurre ezarririk, Erromarrai ta Galaziarrai egindako eskutitzen gai nagusia.

Aren biztueraren indarra ezagutuaz eta Aren nekeetan lagunkide izanaz, Aren eriotzan Aren antzeko eginda, ¹¹ illen artetik berbiztera eldu naiteke*. ¹² Ez naz oraindiño nire elburura eldu, edo-ta guztiz bikain izatera; baiña egiten dodaz aalegiñak orretarako, Jesukristo'k ni beraganatu nenduan, neuk be Bera neuganatu aal dagidan.

¹³ Ez dot uste, anaiok, oraindiño neuganatu dodanik; baiña atzean geratu danaz aaztuta, aurrean daukadanari jarraitzen diardut, ¹⁴ elbururantz noa ariñeketan, Jesukristo'ren bidez Jaungoikoak goitik dei egin daustan sarira eltzeko. ¹⁵ Izan bedi orixe oso onak* garan guztion asmoa; eta beste zerbait ba'deritzazue, orretzaz be Jaungoikoak argituko zaitue. ¹⁶ Edozelan be, irauñ dagigun sendo geuganatu izan dagigun mailan.

Paulo deuna jarraibide

¹⁷ Izan zaitez, anaiok!, neure antzeko, eta begiratu gudan dozuen ikasbidetik dabizana. ¹⁸ Izan be, asko dira or —eta orrei buruz sarritan esan dautsuedana orain be negarrez dirautsuet— Kristo'ren gurutzearen aurka diarduenak: ¹⁹ orrelakoen azken-mugea ondamedia da; sabela dabe Jaungoiko; eta biotza lurreko gauzetan jarrita daukenen gorapena, lotsakizuna izango da*. ²⁰ Baiña gure bizia zeruan dago, eta andixek etorriko dan Jesukristo gure Salbatzaille ta Jaunaren zain gagoz. ²¹ Dana bere menpean ezita daukan eskubidez, gure gorputz doillor au aldatu ta bere gorputz goragarriaren antzeko biurtuko dau.

3 11 Kristaua, Kristo berbiztuagaz bat-egiñik, eriotzaren gaiñetik dago, Erm 6 3-5+; Ko 2* 4 10; Kol 2 12; cf. Jn 5 28-29; II 24-26.

3 15 *Oso onak* edo bikaiñak, au da, kristau eldu ta umatuak, Ko 1* 2 6+.

3 19 Janariai buruzko judarren oitura askoren aurka diardu emen, antza; baita erdaintzaren aurka be.

4 5 *Jauna ur dago*, au da, *Parusia* edo

Jaungoikoa ur dago

⁴ ¹ Beraz, ene anai oso maite ta kutunok, neure pozbide ta koroi zareenok, irauñ egizue sendo Jaungoan, guztiz laztanok. ² Ebodi'ri ta Sintike'ri Jaunagan gogo batez egon daitezala eskatzen dautset. ³ Zuri be, nire lagun zintzo orri, emakume orrei lagun egin dagiezula eskatzen dautsut: Klemente'gaz eta beste nire lagunkideakaz batera Barri Onaren alde nire ondoan errime ekin eutsen-eta. *Guzti* orrein izenak bizitzako liburuan dagoz idatzita.

Poza ta bakea

⁴ Poztu zaitez beti Jaunagan; poztu zaitez, dirautsuet barriro be. ⁵ Zuen eratasuna gizon guztiak ezagutu dagiela. Jauna ur dago*. ⁶ Ez artegatu ezegaitik be; agertu, ostera, Jaunari zuen bearrizan guztiak, zuen erregu ta eskariak Berari zuzenduz eta eskerrak emonez. ⁷ Eta asmatuala baiño geiago dan Jaungoikoaren bakeak zaindu begiz zuen biotzak eta zuen gogapenak Jesukristo'gan.

⁸ Onenbestez, anaiok, egia, jator, zuzen, garbi, maitagarri, entzun ederreko, ondasunezko eta goragarri litzaken edozetara izan bedi zuen jokerea. ⁹ Nigandik ikasi ta artu dozuena, nigandik entzun eta nigan ikusi dozuen guztia, orixe egizue; eta bakearen Jaungoikoa zeuek az egongo da.

Paulo'rentzat Filipos'koen eskuzabaltasuna*

¹⁰ Aundia izan zan nire poza Jaunagan niganako zuen maitasuna

Jaunaren Eguna, Ko 1* 15 23+ 3 20; Jn 14 3; Ko 1* 7 29+; 16 22+; Ts 1* 4 15+; P 1* 4 7; Ag 22 17-20.

4 10 Paulo'k ez diardu iñoiz be bere buruaren billa, Ap 18 3+; cf. P 1* 5 2+. Ez dau iñoiz be iñongo kristau-taldean laguntzarik artu nai izan, Filipos'koena izan ezik. Eta esker bero sutsuak damotsez, bide batez *ase* naiz *gose* izaten oituta dagoala adierazoz. Izan be, kristauak lurreko ondasunetan alkarren par-

biztu egin dozuela ikusi nebanean! ¹¹ Maitasuna, bai, ba-zenduen, baiña ez zeuken agertzeko une egokirik. Ez diñot au nire bearraldiren batek eraginda, daukadanaz naikoa izaten oso ondo dakit-eta. ¹² Ba-dakit bearrizana izaten, baita ugaritasunean bizi izaten be; edozetan eta edozetarako ondo ikasita nago: aseterako ta goseterako, geiegitarako ta gutxitarako. ¹³ Guztia aal daiket bizkortzen nauanaren indarrez. ¹⁴ Alan be, ondo egin dozue larrialdian niri lagun egiñaz. ¹⁵ Ondo dakizue zuek, Filispostarrok, Barri Ona zabaltzen asi ta Mazedonia'tik urten nintzanean, zeuek izan ezik, ez nebana beste elizagaz artu-emonik izan. ¹⁶ Izan be, Tesalonika'n nengoala, nire bearraldirako bear neukeana bein baiño sarriago bialdu zeusten. ¹⁷ Ez dot nik saririk billatzen: zuen

izenerako irabazia geitu dagian fruitua billatzen dot. ¹⁸ Onezkero, edozer daukat, eurrez bizi naz eta gaiñezka nago, bialdu zeustena Epafrodito'gandik artu nebenez gero. Ori da, bai, usain gozo, Jaungoikoarentzat opari gogokoa! ¹⁹ Zuen utsune guztiak, barriz, neure Jaungoikoak beteko dautsuez goragarriro, bere ondasunen eraz, Jesukristo'gan. ²⁰ Aintza gure Jaungoiko ta Aitari gizaldiz-gizaldi. Amen.

Azkena

²¹ Agur egiezue santu (*kristau*) guztiai Jesukristo'gan. Nigaz dagozan anai guztiak agur egiten dautsue. ²² Agur egiten dautsee santu (*kristau*) guztiak, Zesar'en etxeok batez bere. ²³ Bego zuen espirituagaz Jesukristo Jaunaren grazia.

tekide izateak, alkarganako maitasuna cf. Ko 1* 9 10-11; Ga 6 6; Tm 1* 6 18-19; sendotu ta estuagotu egiten dau, 17-19; Ebr 13 16. Diru-batzeari buruz, ikusi Ko 1* 16 1+.

PAULO'K KOLOSAS'KOAI EGINDAKO IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Paulo'k, Jaungoikoaren nai-izatez Jesukristo'ren apostolu nazan onek, eta Timoteo anaiak, ² Kolosas'en bizi diran Jesukristo'gan anai, santu (*kristau*) ta fededunai: grazia ta bakea zuekaz Jaungoiko gure Aitaren izenean.

Eskerrak emotea

(Ef 1, 15-16, 13, 6-7)

³ Zuen alde *egiten doguzan* gure otoitzetan, beti eskerrak emoten dautsaguz Jaungoikoari, Jesukristo gure Jaunaren Aitari: ⁴ Jesukristo'gan zuen sinismena ta santu guztiakanako dozuen maitasuna jakin dogun ezker; ⁵ eta ori, zeruetan itzita daukazuen itxaropenagaitik. *Itxaropen* orretan izan zaree irakatsiak, Barri Onaren egiazko itzaren bidez. ⁶ Eldu izan yatzuen Barri On au, lur osoan lez, zeuen artean be frutua emoten dau ta azten doa, Jaungoikoaren grazia garbiro entzun eta ezagutu zenduen egunetik. ⁷ *Grazia ori*, Epafras gure morroi-

kide maite ta zuekanako Kristo'ren ordeko zintzoagandik ikasi zenduen, ⁸ eta berak jakiñerazo dausku Espirituagan *daukazuen* zuen maitasuna.

Kolosas'koen alde otoitza

⁹ Orregaitik, barri au entzun genduan egunetik, Jaungoikoari zuen alde otoiz egiten eta eskatzen diardugu eten bagarik: Jaungoikoaren naia oso-osorik ezagutuaz*, goi-jakitez eta senez bete-betean argituak izan zaitez, ¹⁰ Jaunari zor yakon bizikerea eroan dagizuen eta danetan atsegin izan dagiozuen, edozein egintza onaren frutuak emonik eta Jaungoikoaren ezagueran aurreraturik, ¹¹ bere aal-izate ospatsuak guztiz indartuta, gauza guztietan pozez beterik eroapenari ta adoreari ekiteko, ¹² Jaungoiko Aitari eskerrak emonik, argi-erreñuan santuen oiñorde-lagun izateko gai egin zaituelako, ¹³ eta illunpetako menpetik atarata, bere Seme kutunaren erreñura aldatu gaitualako: ¹⁴ Seme onegan dogu erospena, baita pekatuen parkamena be.

I. SINISKAI-ATALA

Jesukristo*

¹⁵ Berau (*Jesukristo*) da begiokaz ezin ikusi daikegun Jaungoikoaren irudia, egindako guztien leensemea: ¹⁶ zeruko ta lurreko gauza guztiak, ikusgarri ta ikusi ezin diranak, guztiak Aregan egiñak izan dira-ta:

¹⁹ Sinismenez eta biotzez *ezagutze* au, Jainkoaren doaa da, 2 2-3, 6; 3 10; Ko 1^a 8 1-2; Ef 4 24+; e.a.

¹⁵ Kristo da izadi osoaren *Nagusi*, 15-17; areago bere odolez askatutako izadi barriarena, 18-20. Jesus da, ain zuzen be, betiraundik izan dan Kristoa, Jainko-Seme gizon egiña, Flp 2 5+, Aitaren antz-

irudi bete, Erm 8 29+; Ko 2^a 4 4; Ebr 1 3+; e.a., izadi osoan leen-sortua, beste ezer baiño leenagokoa ta bikaiñagoa da-ta, eta beste guztien egillea, Jn 1 3; Ko 1^a 8 6; Ef 1 10+; 2 15-16+. Cf. Jk 7 26; Es 8 22-36.

¹⁸ Kristo da Elizaren *Buru*, bera da-ta leen-berbztua, 18, eta salbamen-oñarria, 20. Cf. Ef 1 23+.

¹⁹ *Jaungoiko* Aitak nai izan eban dana Aregan (*Semeagan*) batuta egotea*: ²⁰ Onen bidez, beronen gurutzeko odolaz bakeak egiñik, gauza guztiak, lurrekoak lez zerukoak be*, Beragaz adiskidetzeko.

Kolosastarrak

(Ef 4, 18-19)

²¹ Zuek be, biotzez eta egintza txarrez beñola Beragandik urrun eta Aren arerio zintzazanak, ²² bere aragizko gorputzaz bere eriotzaren bidez orain Beragaz adiskidetu zaitue, bere aurrean santu, orbanbaga ta akats bagarik agertu zaitez. ²³ Orretarako, barriz, sinismenean oiñarriak errime jarrita eta sendotuta irauan bear dozue, zuei ta zerupeko guztiai iragarritako Barri Onaren itxaropenetik zirkiñik egiteke egonik: Barri On orren morroi egiña izan naz ni, Paulo.

Paulo deuna ta gurutzeko ezkutapena

(Ef 3, 1-13)

²⁴ Zuek aitik nigan nekeak eroan nebazalako, orain poztu egiten naz, eta Kristo'ren gorputza dan Elizearen alde Kristo'ren nekeai peitu (*falta*) yakena, neure aragian beteten dot*. ²⁵ *Elizearen* morroi naz, Jaungoikoaren itza zero iragarteko ardurea Jaungoikoak leporatu dautan ezker: ²⁶ Aren misterioa leengo

gizaldi ta belaunaldientzat ezkutuan egoan-eta; orain, barriz, santu guztientzat agirian dago: ²⁷ santu orrei nai izan eban Jaungoikoak erakutsi misterio onen aberastasun goragarria jentillen artean. *Misterio* au, Kristo bera da zuen artean, zerurako itxaropena*. ²⁸ Bera (*Kristo*) iragarten diardugu guk, gizon guztiai burubideak emoten eta guztietariko jakintza irakasten, aizaki guztiak Kristo'gan bikain aurkeztu dagiguzan. ²⁹ Orretan diardut nekatzeraiño, adoretu eragiten dautan Kristo'ren indarrez burrukan.

Kristo ta sasi-irakasleen jakintza

2 ¹ Zuek aitik darabildan burrukea ² jakin dagizueta nai dot, baita Laodizea'n dagozanakaitik be, eta aragitan nire arpegia oraindiño ikusi ez daben guztiakaitik *darabildan burrukea*, ² zuen biotzak poztu daitez: maitasunez alkartuta, jakintza osoaren aberastasun guztiak lortu dagizuezan, eta Jaungoikoaren Misterioa —edo bardin dana, Kristo— ezagutu dagizuen: ³ Beronegan dagoz jakituriaren eta jakintzaren ondasun guztiak ostenduta.

⁴ Berbeta maltzurrez iñok atzipetu ez zagiezan dirautsuet au: ⁵ gorputzez urrun nagoanarren, espirituz zeuen erdian nago, zuen alkartze onaz eta Kristo'gan dozuen sinismen sendoaz pozten nazala.

¹⁹ Jainko Egillea gaiñezka dago izadi osoan, Is 6 3; Jr 23 24; Jk 1 7; e.a. Eta Semea gizon egin zan ezker, salbamen-bidean dago izadi guztia, Jn 1 14+; Erm 8 19-22+; Ef 1 10+, 23+; Flp 3 21; Ebr 2 5-8.

²⁰ Izadi guztia Jainkoagaz adiskidetu egin dau Kristo'k bere odolaz, Erm 5 10-11; Ko 2^a 5 18-19. Adiskidetze au Jainkoaren zuzentasuna munduan ezarteko da, eta ez gu bakotxa salbatzeko bakarrik. Zuzentasun onetan bere gogoz sartu nai ez dabenak, indarrez izango dira

menperatuak, 2 15; Ko 1^a 15 24-26; Ts 2^a 1 8-9.

²⁴ Kristo'k gurutzean isuritako odolak neurribagako *salbamen-balia* dau. Olan eta guzti be, egoki da kristaua, Paulo'ren antzera, bere neke ta oiñazeak Kristo'ren partekide izatea munduaren salbamenean, Ap 14 22; Ko 2^a 1 5; 4 10-12; Flp 1 20+; Tm 2^a 2 10; Ag 6 10-11.

²⁷ Jentillak be *salbamen-misterioan* sartuta dagoz, 3 4; Ef 1 18; 2 13; 3 2 3+; cf. Erm 1 1+.

II. OKERBIDEAK DIRALA-TA

Egiatik ez okertu

⁶ Beraz, Jauntzat Jesukristo artu dozuen ezkerro, Beronegan ibilli zaitez, ⁷ Beronegan zusterak eta oiñarriak jarrita, artu dozuen irakatsiari dagokionez sinismenean sendotuta, eskerronez beterik.

⁸ Begira, gero: ez zagiezala iñok guzurrezko filosofi maltzurrez atzipetu; *filosofia orreik* gizonen antxiñako asmakerietan eta mundu-gaietan dagoz oiñarrituta, eta ez Kristo'gan*.

⁹ Beronegan dago Jaungoikotasun osoa bete-betean* gorputzez, ¹⁰ eta Berak zaukaze beteta, edozein nagusitza ta aal-izateren buru da-ta*. ¹¹ Beragan izan zintzazen erdainduak, ez aragia ebagirik eskuz egiten dan erdaintzuz, Kristo'ren erdaintzuz baino*. ¹² Beragaz bate-ra izan zintzazen illobiratuak bateoan, baita Beragan biztuak be, illen artetik biztu eban Jaungoikoaren aal-izatearen sinismenez*. ¹³ Eta gaiztakeriz eta aragi-erdainbagaz ilda zengozenok, Kristo'gaz bizitzara ekarri zenduezan, zuen gaiztakeri guztiak parkaturik: ¹⁴ eta erabagiakaz geure aurka egoan agiriri indarra kendu ta erditik baztatu egin eban eta gurutzean josi; ¹⁵ eta nagusi ta aaltsuak erantzirik, adore andiz, lotsagarri agiritara atara ebazan, gurutzean arein lepotik garaipena lorturik.

28 *Filosofia*, au da, erlejiñoari buruzko jakintza, lur-kutsuz betea, 20; Ga 4 3+.

29 *Betetasun* onek, 1 19+, Kristo berbizituaren gorputzean Jainkotasun osoa dauko, Jainkoa ta izadia, zerua ta lurra beragan bat-egini, Ef 6 12+.

210 Kristaia, Kristo'gaz bat-egini, munduko aherio guztien gaitetik dago, Kristo'k dana menperatuta dauko-ta, 14-15; Ef 6 12+.

211 Kristo'k emondako *erdaintzuz*, batea da, cf. Ef 2 11; Jr 4 4+.

Guzurrezko jakituritik alde egin-bearra*

¹⁶ Beraz, iñok be ez zagiezala jan-edari, jaiegun, ilbarri edo larunbatak dirala-ta ebatzi: ¹⁷ etorkizunaren geriza dira guztiok: mamiña, barriz, Kristo da. ¹⁸ Ez dagitzuela iñok saria galerazo, apal-apal eta aingeru-zale aurkeztuez eta ikusi ez dauanaz berba eginez, bere aragi-adimenkeriz arrotuta. ¹⁹ Alakoa, burua dan Aregandik askatuta dabil; eta burutik gorputz osoa, korapillo ta lokarriakaz janaritu ta lotuta, jaungoikozko adorez azten da*.

²⁰ Beraz, lur onetako gaiantzat Kristo'gaz ilda ba'zagoze, zer dalata jarten zaree iñoren agindupean, lurtean bizi bai'zintzazen? ²¹ «Ori ez artu, ez dastatu, ez ikutu», *esate baterako*. ²² *Arau* guztiok, ez ete-dira erabilliez-erabilliez ezerezen diran gaien giza-agindu ta irakatsiak? ²³ Alakoak, norberaren gogozko gurtzeagaitik, apaltasunagaitik eta gorputzagazko lastasunagaitik, jakituri-usaiña dakarren aginduak dira: aragiaren atsegin baino ez dira, ostera.

Bizikera barria*

3 ¹ Beraz, Kristo'gaz biztu ba'zaree, goiko ondasunak billatu egizue: Kristo goian dago-ta, Jaungoikoaren eskumaldean jesarrita. ² Geroko gauzak izan egizuez aurrean, ez lur-gaiñekoak. ³ Ilda zago-

212 Cf. Erm 6 4+; Ef 4 4+.

216 Judarren oitura asko, euron azala baino kontuan artu ezik, gaiztakeritik datoz, 18, 20, 23.

219 Cf. Ef 4 15-16.

31 Atal onetako 1-4 atalxoak eta 2 12-13, 20 antzekoak dira. Kristaia Kristo'rena da, eta Kristo'ren aintzazko bizitzan partekide da oraintxe asita, Ef 2+. Aintzazko bizitza au ez yaku oso-osoan agertuko *Parusia*'ra arte, 1 27; Erm 8 18+; Ko 1* 15 23+.

ze, eta zuen bizia Jaungoikoan zuen bizia, agertu daitenean, zuek Kristo'gaz dago ostenduta. ⁴ Kristo, be Aregaz argitsu agertuko zaree.

III. BURUBIDEAK

Antxiñako griña txarretatik iges egitea*

⁵ Beraz, ito egizue zuen gorputz-ataletan lurkoi dan guztia: aragikeria, lizunkeria, zantarkeria, zalekeria ta zekenkeria, edo bardin dana, sasi-jainkoakanako gurkeria: ⁶ onexekaitik dator Jaungoikoaren asarrea gizaki sinisgogorren gaiñera. ⁷ Orrelakoetan zuek be noizbait ibilli zaree, arekaz bizi zintzazenean. ⁸ Baiña orain, kendu egizue zuek be gauza guztiok: asarrekeria, gorrotoa, gaiztakeria, txarto-esanak eta berba zantarrak. ⁹ Alkar ez atzipetu. (Ef 4, 22-24)

Erantzi egizue gizon zaarra bere egintza guztiakaz ¹⁰ eta jantzi *gizon* barria, bere Egillearen irudiaren eraz ezaguera osoa lortzeko beti barritzen diarduan *gizon barria*. ¹¹ Egilleagan ez dago gerkarrik ez judarrik, erdaindurik eta erdainbagerik, erdaldunik eta eszitiarrik, jopurik eta bere burujabe danik: guztiakan guztia Kristo da-ta.

Kristau-onoimenak

(Ef 4, 1-2, 32)

¹² Beraz, Jaungoikoarentzat auke-ratu, santu ta maitagarri zareen ezkerro, jantzi zaitez biotzeko errukiz, ontasunez, apaltasunez, otzantanez, eroapenez, ¹³ alkar ondo eroanik eta parkaturik, alkarren arteko asarrerik ba'litz; eta Jaunak parkatu eutsunez, zeuek be parkatu egiozue alkarri. ¹⁴ Guztion gaiñetik, barriz, jantzi zaitez maitasunaz,

35 Kristo'gaz il eta biztutea, au da, gure izakera zaarra itzi ta Kristo'rena jantzitea, astiro-astiro lortzen dau kristauak, 2-10; Erm 6 4-14+; 12 2+; Ef 4 22-24. Zelan? Pekatuari ta griñai uko egiñik, 5-11, eta Jainkoaren irudia gure izatera biurtuaz, 12-17; 1 15+.

316 Paulo'k, bide batez, goratu egiten

zindokuntza osoaren lokarria da-ta. ¹⁵ Zuen biotzetan Kristo'ren bakea izan dadilla nagusi, orretarakoxe izan zintzazen deituak-eta, gorputz bat egiteko.

(Ef 5, 19-20)

¹⁶ Bizi bedi oparo zuekan Kristo'ren itza, jakintzarik audienaz alkar argiturik eta beroturik, salmuz, ereserkiz eta goi-arnasazko kantuz zuen biotzetan Jaungoikoari abestuez eta eskerrak emonez*. ¹⁷ Eta egin dagizuen edozer, berbaz naiz egitez, egizue guztia Jesukristo'ren izenean, Beronen bidez Jaungoiko Aitari eskerrak emonez.

Etxekoen arteko eginberrak*

(Ef 5, 21-6, 9)

¹⁸ Emazteak euren senarren menpean egon daitezala, Jaunagan egoki danez. ¹⁹ Zuek, senarrok, maite egizue zuen emazteak, eta ez zaitez gogorak izan onekaz. ²⁰ Semeok, esana egiezue edozetan zuen gurasoai, ori Jaunari dogoko yako-ta. ²¹ Gurasook, ez egizue zuen seme-alabak sumindu, koldar egin ez daitzean. ²² Morroiok, aragi-eraz zuen ugazaba diranai esana egizue edozetan, gizonai atsegingarri izateko-edo, morroi-arazoak arein aurrean egiten dozuezan lez ez, gero: biotz lauaz eta Jaunaren bildurragaitik baino. ²³ Egin dagizuen edozer, biotzez egin, Jaungoikoarentzat lez, ez gizonentzat; ²⁴ Jaunagandik saritzat oiñordetza artuko dozuela jakiñik. Izan zaitez, ba, Kristo Jaunaren morroi. ²⁵ Irain egiten dau-

dauz kristauen batzarrak, irakatsi egokiz eta kantuz orniduak, Ef 5 19-20.

318 Kristau guztiai dagokiezan jake-bide zuzenok bete bearrekoak dira Jaunagan. Baiña 3 1-17'an eta 4 2-6'an emondako aolkuak baztatu bagarik. Cf. Ts 1* 4 1+; Ef 5 21-6 9; P 1* 2 11-3 12. Morroi ta jopuai buruz, cf. Flm 6+.

nak, egin dagian iraiña artuko dau, Aregan (Jaungoikoagan) norkeririk ez dago-ta.

Otoitza ta zuurtasuna

4 ¹ Ugazabok, emon egiezue zuen morroia zuzen eta bidezko dana, Ugazaba bat zuek be zeruetan ba-dozuela jakiniñik.

(Ef 6, 18-20)

² Ekin otoitzari eten-bagarik, eta iratzaririk egon bertan eskerrak emonez: ³ guztiok batera geure alde be otoitz eginik*, barbarako atea Jaungoikoak edegi daiskun, Kristo'ren misterioa iragarteko: Onen (*Kristo'ren*) maitasunagaitik lotuta nagoan ezkerro, ⁴ egoki danez berba egiñez *Barri Ona* iragarri dagidan. ⁵ Kanpokoakaz zuur jardun, uneak arturik. ⁶ Zuen izkerea beti atsegin-garria ta gazduna izan daitela, bakotxari zelan erantzun bear dautsa-zuen jakiniñik.

Tikiko ta Onesimo

⁷ Nire gora-beeren barri, nire anai maite, laguntzaille zintzo ta Jaungoikoagan morroikide dodan Tiki-ko'k emongo dausue: ⁸ gure albistak izan dagizuean eta zuen biotzeta-za pozkaria eroan dagian bialtzen dausuet, ⁹ zuetariko dan Onesimo anai zintzo ta maiteagaz batera. Eurok emongo dausue emen jazoten dan guztiaren barri.

Azken-agurrak

¹⁰ Agur egiten dausue Aristarko'k, nire giltzape-lagunak, baita Markos'ek be, Bernabe'ren lengusuanaiak: onetzaz, artu dozue agindu batzuk; zuekana eltzen ba'da, onartu egizue: ¹¹ baita Zuzena deritzon Jesus'ek be agur egiten dausue: oneixek dodaz soilik erdaindueta Jaungoikoaren erreñurako lankide, eta neure pozgarri izan dira. ¹² Agur egiten dausue Epafras'ek: Jesukristo'ren morroi au, zueutarikoa da, eta beti zeuen alde diardu otoitz egiten, Jaungoikoak zuekandik nai dauan guztia oso-osorik beteten iraun dagizuen. ¹³ Zuekaitik lan aundia daroala autortzen dot, baita Laodizea'n eta Ierapolis'en dagozanakaitik be. ¹⁴ Agur egiten dausue Lukas'ek, osagille maiteak, eta Demas'ek.

¹⁵ Gorantziak Laodizea'ko anai-arreba, eta Ninfa'ri ta onen etxeko elizeari. ¹⁶ Eta idazki au irakurri dagizuenean, Laodizea'ko elizan be irakurri daitela egizue; eta zeuek be irakurri egizue Laodizea'ra idatzi dodana*. ¹⁷ Arkipo'ri auxe esan egizue: «Jaunagan artu dozun eginbe-arra, arduraz bete egizu.»

¹⁸ Agurra, neure eskuz egindakoa da, Paulo'k. Gogotan izan egizue z nire kateak. Izan dadilla grazia zuekaz.

4 3 Cf. Erm 15 30-32; Ef 6 18-20; Ts 2^a 3 1-2.

4 16 Apostoluen eskutitzak kristau-baztarretan irakurri ta beste Elizetara

bialtzen ziran, Ts 1^a 5 27; Ko 2^a 1 1. Paulo'k emen aitatzen dauan eskutitza, *Laodizea'koai egiña*, ez da eldu gubanaiño; galdu egin zan urrean.

PAULO'K TESALONIKA'KOAI EGINDAKO LEENENGO IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Paulo'k, Silbano'k eta Timoteo'k, Jaungoiko Aitagari eta Jesukristo Jaunagan *batuta dagoan* Tesalonika'ko elizeari: Grazia ta bakea zuei.

Tesalonika'ko Elizeak Barri Onari dausuan zintzotasuna

² Jaungoikoari zuen guztion alde beti eskerrak emoten diardugu, gure otoitzetan eten bage gogoan zaituegula, ³ gure Jaungoiko ta Aitaren aurrean, Jesukristo gure Jaunagan zuen sinismen-egintzak, zuen maitasun-lanak eta zuen itzaropenaren sendotasuna gogora ekarririk*. ⁴ Badakigu, Jaungoikoaren anai maiteok, *Jaungoikoak* zelan aukeratu zenduezan. ⁵ Barri Ona berbaz bakarrik ez geutsuen, ez, iragarri, indarraren (*mirarien*) bidez, Espiritu Santuz eta uste osoz baiño. Badakizue zelan ekin geutsan zuen onerako zuen artean. ⁶ Eta zuek, estualdi aundien artean be, Espiritu Santuagandiko pozez nik esandakoa (Barri Ona) arturik, geure ta Jaunaren jarraitzaille egin zintzazen; ⁷ Mazedonia'ko ta Akaia'ko fededun guztien eredu izateraño. ⁸ Izan be, Jaungoikoaren itza zeuen bidez zabaldu da, Mazedonia'n eta Akaia'n bakarrik ez, baita bazter guztietara be eldu da Jaungoikoaganako zuen sinistea. Orretzaz ez dogu esatekorik. ⁹ Izan be, guztien agotan dabil zuen artean izan genduan abegi ona, eta sasi-jainkoeen irudietatik Jaungoikoagana biurtu zintzazela, egiaz-

ko Jaungoiko biziaren morroitzan jarduteko, ¹⁰ eta Jesus, Aren Semea—illen artetik Berak biztua—, zerutik noiz jatsiko dan zain egoteko: etorteko dan asarretik aldendu genduzana da-ta*.

Paulo'k Tesalonika'n Barri Ona iragarten dau

2 ¹ Badakizue, anaiok, ez gintzazana zuekana alperrik joan. ² Filipos'en ainbat neke ta irain eroanda gero —zeuek dakizuenez—, gure itzaropena Jaungoikoagan jarrita, Barri Ona burruka gogoren erdian iragarri geutsuen. ³ Eta ez zan gure izketan asmo okerrik, ez zitalik, ez maltzurkeririk naastu: ⁴ Barri Ona geure ardurapean jarteko, Jaungoikoak ontzat artuta gengoza, orrelaxe egin genduan berba; ez gizarteko ederra irabaztearren, gure biotzak arakatzen dituan Jaungoikoarena irabazteko baiño*. ⁵ Izan be, ez dogu inoiz be koipekeriz barbarik egin, ondo dakizuenez; ezta dirugosez be, Jaungoikoak badaki. ⁶ Gizonen gorapenik be ez dogu billatu, ezta zuenik ez inorenik be. ⁷ Kristo'ren apostolu garanez, zuen aurrean nagusi lez agertu geintezkanarren, umetxo lez agertu gintzazan zuen artean, bere umeak azten dauzan inudea lez. ⁸ Orrela, zuekanako maitasunak eroanda, Jaungoikoaren Barri Ona bakarrik ez, baita geure biziak be zuei emon nai geutsuezan: guretzat orren maitagarri egin zintzazen! ⁹ Gogoratu egizue, za, anaiok, gure lan eta nekeak: zueariko inortxorentzat astun izan ez

1 3 Jainkoari buruzko iru onoiemenak, *sinismena*, *maitasuna* ta *itzaropena*, ementxe aitatzen dira leenengoz, alkartuta, Ko 1^a 13 1+.

1 10 Paulo'k jentillai irakatsi oi eutsen guztia ementxe dago, 9-10'gn. ataltxoetan.

labur-labur. Irakatsion oiñarri nagusiak bi dira: egiazko Jainko bakar bat baiño ez dagoala, eta salbama Kristo Berbiztuagandik datorkigula, cf. Erm 1 1-4; Ko 1^a 1 7, 23; 8 4-6+; 15 1+, 23-24; Ga 4 8-9; Ap 2 22+; 14 15; e.a.

2 4 Ikusi Jr 11 20; Sal 16 3; e.a.

gendizan, Jaungoikoaren Barri Ona gau ta egun lan egiñez zabaldu geutsuen.

¹⁰ Sinistu zenduenokaz erabilli genduan bizikera zintzo, zuzen eta akats-bagearen lekuko (*testigu*), zeuek eta Jaungoikoa zaree. ¹¹ Badakizue, aitak bere semeai lez, zue-tariko bakotxari be, ¹² bere erreñu ta aintzara dei egin eutsuen Jaungoikoari dagokionez ibilteko, burubideak eta adorea emoten eta agintzen jarduten gendua. ¹³ Orregaitik, Jaungoikoari eten bagarik esker-rak emoten dautsaguz, Jaungoikoaren Itza geure agotik artu zendue-nean, ez gizonen itza zalakoan, Jaungoikoaren Itza zalakoan artu zenduelako baiño. Olantxe da, ba, benetan, eta orrelaxe diardu sinistu dozuenokan eragiten*. ¹⁴ Zuek, anaiok, Judea'n Jesukristo'gan dagozan elizak artu dozuez eredutzat: areik judarrakandik eurakan eroan dabe-zan neke berberak eroaten dozuez zeuek be eritarrakandik-eta*. ¹⁵ Judarrak Jesus Jauna ta profetak il egin ebezan; geu be aurrean garabillez. Ez dira Jaungoikoaren gogoko ta gizon guztien aurka dagoz; ¹⁶ jentillai berba egitea eta arein salbamera jaristea galerazo egiten dabe. Orrela, euren pekatuen negurria bete egiten dabe*. Baiña Jaungoikoaren asarrea euren gainera dator, eta gainez egiteraiño etorri be.

Barriro Tesalonika'ra joateko gogoia agertzen dau

¹⁷ Anaiok: zuen maitasunetik ez ba'da be, zuen begietatik oraingotan urrun gagozala, zuek aalbait lasterren barriro ikustea biotz-biotzez nai izan genduan; ¹⁸ orretarako,

2 13 Entzuleak, *bialduaren* bitartez Jainkoak itz egiten dautsala sinisten daue-nean, itz ori *onartu* ta *biotzeratu* egiten dau, 4 1; Ga 3 2+; Ts 2^a 3 6; Ko 1^a 15 1; Ga 1 9; Flp 4 9; Kol 2 6; Ts 2^a 2 10; Ap 8 14; Erm 10 6; Ko 2^a 2 17; 3 5; 13 3; Ga 4 14; cf. Mt 10 40; Jn 17 6-8; 20; e.a. Azken itzai buruz, cf. Erm 1 16; Ebr 4 12+.

aalegiñak be egin genduzan, neuk beintzat, Paulo'k, bein eta barriro; baiña Satanas'ek galerazo egin euskun. ¹⁹ Izan be, zeintzuk izango dira gure itxaropena, gure poza ta aintzazko koroia Jesukristo gure Jaunaren aurrean, Beronen etorraldian? Zeuek ez al-zaree? ²⁰ Bai orixe: zeuek zaree gure aintza ta gure poza!

Paulo'k, Timoteo'ren bidez, Tesalonikarren barriak artzen dauz

3 ¹ Orregaitik, geiago itxaron ezinda, Atenas'en gu soillik geratzea erabagi genduan; ² eta zuen sinismena sendotzeko ta berotzeko, geure anai ta Kristo'ren Barri Onean Jaungoikoaren morroi dan Timoteo bialdu geutsuen, ³ larrialdi oneitan iñor artegatu ez dadin. Ondo dakizue orretarako gagozala: ⁴ zeuen artean gengozala be, larrialdietan egongo gintzazala esan geutsuen aurretiaz; eta olantxe jazo zan, ondo dakizue. ⁵ Orregaitik, geiago itxaron ezinda, zuen sinistearen barrieske bialdu dot: tentatzaileak zuen artean zirikatzen jardunenean be, gure lana alperreko izan ez zeiten. ⁶ Orain, gugana Timoteo eltzeaz, zuen sinismenaren eta maitasunaren barri onak ekarri dauskuz, baita gutzaz beti dozuen gomutapen ona be, eta nik zeuek lez, zuek be geu ikusteko guraria agertu dauku. ⁷ Ori dala-ta, anaiok, gure bearrizan eta larrialdi guztien erdian poz aundia artu dogu.

⁸ Orain, bai, bizi gara, Jaunagan sendo zagozela jakiñik. ⁹ Zelako eskerrak emongo dautsaguz Jaungoikoari, gure Jaungoikoaren aurrean

2 14 Judarren azpi-joko ta esamesa-zalekeriak esanerazoten dautsoez Paulo'ri itz gogor ta zorrotzok, 15-16; Ap 13 45. Dana dala, Paulo beti agertzen da bere aberkideen aldeko. Erm 3 1-3; 9 3-5; Flp 3 4-6+. Eta Eliza guztiak alkartzeko egiñalak egiten dauz, judar eta atzerritar-rak bardin onarturik, 4 8+; Ko 1^a 1+.

2 16 Cf. As 15 16.

onenbesteko pozez gagozanok, ¹⁰ zuen arpegia ikusteko ta zuen sinismenari peitu (*falta*) yakona beteteko, gau ta egun erreguz otoitz egiten dogula? ¹¹ Gure Jaungoiko ta Aitak Berak eta Jesukristo gure Jaunak zuzendu dagizala zeuekanuntz gure oinkadak; ¹² eta zuei alkarganako ta guztiakanako maitasuna geitu ta ugaritu dagitzuela *Jaunak**, zuekanako geurea *ugari* danez: ¹³ zuen biotzak sendotu daitezzen eta onbidean gure Jaungoiko ta Aitaren aurrean orban bagarik agertu zaitezzen, Jesus gure Jauna bere santu guztiakaz etorri daite-nean.

Santutasunerako, goi-maitasunerako ta lanerako deia

4 ¹ Azkenez, anaiok, ba-dakizue, geuk irakatsita, Jaungoikoaren gogoko izateko bidea: bide orretan ibilli zaitez; baiña, Jesus Jaunaren izenean, oraindiño aurrerago joterata egin dagizuela eskatzen dautsuegu ta dirautsuegu burubidez. ² Ba-dakizue Jesus Jaunaren izenean emon geutsuezan aginduak. ³ Jaungoikoaren naia, santu* egin zaitezela data; aragikeritik alde egin dagizuela; ⁴ bakotxak bere gorputza* santutasunez eta lotsa onez zaintzen jakin dagiala; ⁵ ez, ostera, griñakeritan, Jaungoikoaren ezaguerarik ez daben jentillak lez*. ⁶ Onetan ez dagiala iñok bere anaiari (*lagun-urkoari*) azpikeririk naiz kalterik egin: guzti ori Jaungoikoak zigortu egiten dau-ta*, leen esan eta autor-

tu geutsuenez. ⁷ Ez gaitu Jaungoikoak loikeritarako deitu, santutasunerako baiño. ⁸ Beraz, aginduok ukatzen dauzanak, ez dau gizona ukatzen, bere Espiritu Santua emon euskun Jaungoikoa baiño*.

⁹ Goi-maitasunari buruz, barriz, ez dozue gure idazkiren bearririk alkar zelan maite izan bear dozuen, Jaungoikoak Berak irakatsi dautsuetata; ¹⁰ goi-maitasun ori, Mazedonia osoan anai-arreba guztiakaz egiten dozuena da. Baiña, anaiok, bide orretatik aurrerago joan zaitezela eskatzen dautsuegu, ¹¹ eta zuen arazotan bizitza baketsua ta lankorra eroateko aalegindu zaitezela, zuen eskuz lan egiñik, arduraz eskatu dautsuegunez: ¹² *Elizatik* kanpora dagozanen begietan zintzotasunez bizi zaitezzen eta ezeren bearririk izan ez dagizuen.

Ildakoan bizituera*

¹³ Ildakoai buruz zuek ez-jakiñean egoterik ez dogu nai, itxaropenik ez dabenak lez naigabetu ez zaitezzen. ¹⁴ Jesus il eta biztu egin zala sinisten ba'dogu, Jesus'egan ildakoak be Jaungoikoak Aregaz beraganatuko dauz-ta. ¹⁵ Auxe dirautsuegu Jaunaren izenean: bizi garanok, Jaunaren etorrerarako itziok*, ildakoai ez gokiezala aurreratuko: ¹⁶ Goiangeruaren deadarrez eta Jaungoikoaren adar-otsez dei eginda, Jauna Bera jatsiko da zerutik; eta Kristo'gan ildakoak biztuko dira leenen; ¹⁷ gero geu, bizirik geratu gaitezkanok, aidean odeietan zear

3 12 Cf. Ga 6 10+.

4 3 Kristauaren santutasuna, Ko 1^a 1 2+, azken baten Jainkoagandik dator, eta gizonaren izate osoari dagokio, ez seksu-bizitzari bakarrik, 3-5. Griñak menderatzea, Espirituaren doaiak bidea zabaltzea da. 8.

4 4 *Gorputza*: norberarena ta emaztearena. 5 23; Erm 12 1: P 1^a 3 7.

4 5 Cf. Jr 10 25; Sal 79 6.

4 6 Cf. Dt 32 35; Sal 94 2.

4 8 Espirituaren doaiak alkartzan dauz leenengo kristau-lagunarteakaz Paulo'k

sortutako Elizak, Ez 36 27; 37 14; Ap 2 33+; Erm 5 5.

4 13 *Parusia* baiño leen iltea ez eben kristau batzuk aintzakotzat artzen; mendedarriago eritxoan Kristo'k, etortean, bizirik aurkitu egiezala. Onei, *berbizkundeari* buruzko irakatsia gogorazoten daute Paulo'k.

4 15 *Ipotesi* bat egiten dau emen Paulo'k: bera be Jaunaren etorreran bizirik egotea, Ko 1^a 15 23+; cf. Ko 1^a 15 51-52; Ko 2^a 5 3+. Orixte uste eban, bearbada, Flp 4 5+; baiña ez dago ziur. 5 1; Ts 1^a 5 1.

Kristo'gana eroanak izango gara*. Eta alan beti Jaunagaz egongo gara.¹⁸ Beraz, poztu egizue alkar berba onekaz.

Zain egon-bearra*

5¹ Aldi ta uneai buruz, anaiok, ez dozue ifloren idazki-bearrik; ² zeuek dakizue ondo Jaunaren Eguna lapurra gabez legetxe etorriko dana. ³ «Au da bakea ta sendotasuna!» *gizakiak* diñoela, ondamentia gafiñera bat-batean etorriko yake, seindun dagoanari seingintza-miñak lez; eta ez dabe igesik egingo.

⁴ Zuek, ostera, senideok, ez zaree illunpetan bizi, egun orrek lapurrak lez artu ez zagiezan*: ⁵ guztiok argi-seme ta egun-seme zaree-ta; gu ez gara gabarenak, ezta illunpeenak be. ⁶ Beraz, ez gagizala loak artu, besteak *loak artuta* dagozanez; iratzarrik egon gaitzan, eta negurriz bizi. ⁷ Lo egiten dabenak, gabez egiten dabe lo; eta moskortzen diranak, gabez moskortzen dira. ⁸ Gu, ostera, egun-semeok negurrizko izan gaitzan, bularrekotzat sinismena ta maitasuna jantzita, eta burukotzat salbamen-itxaropena *artuta**. ⁹ Ez gaitu Jaungoikoak asarrerako (*ondamendirako*) egin-eta, Jesukristo gure Jaunaren bidez salbamena jaristeko baiño: ¹⁰ izan be, Kristo geugaitik il izan, bizitzan eta erio-

tzan Beragaz alkartuta bizi gaitzan. ¹¹ Beraz, egin be egiten dozuenez, alkar poztu ta onbideratu egizue.

Azken-burubideak eta agurrak

¹² Zuen artean lan egiten diarduenai ta Jaunagan zuen buru ta onulari diranai, menpetasuna agertu dagiezuela eskatzen dauzueguzuei, anaiok*; ¹³ eta arein lanagaitik arekanako maitasunik aundiena erabilli dagizueta, eta zuen artean bakean bizi izan zaitezela. ¹⁴ Biurriai asarre egin dagiezuela be eskatzen dauzueguzuei, anaiok; koldarrak adoretu, makalak ondo artu, eta guztiak ondo eroan dagiezuzala. ¹⁵ Besteri iñok ez dagiola txarrik txarrez ordaindu, bestetara baiño: alkarri ta guztiai beti on egiezue. ¹⁶ Pozik egon beti, ¹⁷ eta otoitz egizue gelditu bagarik*. ¹⁸ Eskerrak emon egiozue Jaungoikoari edozetan, Jesukristo'gan Jaungoikoaren naia zuei buruz orixe data.

¹⁹ Espiritu *Santua* ez egizue itzungi (*atxamatu*). ²⁰ Ez artu gutxitzat igarpenak. ²¹ Guztia aztertu, eta on danaz geratu zaiteze. ²² Alde egizue edozein txarkeri-antzetik*.

²³ Bakearen Jaungoikoak bete-betean santutu zagiezala, eta zuen espirituak, zuen arimak eta zuen gorputzak* oso-osorik akats bagarik irauin dagiela Jesukristo gure Jau-

4 16-17 *Deadarra*, *adar-otsa* ta *odeiak* Alkartasun Zaarretik artutako irudiak dira, cf. Ts 2^a 1 8+. Egun orretan bizirik irauin dagienak, berbiztuakak batera, Jaunaren Auzitegira joango dira, gerò Jaunagaz beti bizi izateko, 5 10; Ts 2^a 2 1; cf. Flp 1 23+.

5 1 *Eguna* noiz izango dan ez dakiala autortzen dau Paulo'k, Ko 1^a 1 8+. Beraz, iratzarrik eta zoli egon bear dogula, Mt 24 42-43; Erm 13 11; Ko 1^a 16 13; P 1^a 5 8; Ag 3 2-3. Ez dau uste ur dagoanik, Ts 2^a 2 1-2. Aurretik iltea jazo leitekio berari be, Flp 1 23+. Oraindiño oso urrin dago, bearbada, Erm 11 25; Mt 25 19; P 2^a 3 4.

5 4 *Argi-seme* dira kristauak, eta argi-semeai dagokienez bizi ba' dira, ez dabe *Egunaren* kezkarik izan bear, Ef 5 8+.

naren etorraildirako. ²⁴ Zintzoa da guztiai. ²⁷ Idazki au anai guztiai iradei egiten dauzue, eta bete be kurria izan dakiela eskatzen dauzue beteko dau agintzaria.

²⁵ Otoitz egizue, anaiok, gure alde. ²⁸ Jesukristo gure Jaunaren grazia ²⁶ Laztan santuaz agur egiezue anai bego zuekaz.

5 8 Cf. Ef 6 11-17+.

5 12 Kristau-lagunarteetako *buru* ta *nagusiak* ementxe aitatzen dira leenengoz. Euren arduregaitik eta lanagaitik dedu ta maitasuna zor yake. Urrengo burubideak nagusi ta menpekoentzat dira.

5 17 *Otoitz egizue gelditu bagarik*. Burubide au oso garrantzi aundikoa izan da Elizearen bizitzan zear.

5 22 Espirituaren *doai* edo *karismak*, egiazkoak diran ala ez ondo aztertu ondoren, aintzakotzat artu bear dira, Ko 1^a 12 1+, 10+.

5 23 Iru zatitan, *espiritu*, *arima* ta *gorputz*, banantzen dau Paulo'k gizona. Erm 7 24+; cf. Ko 1^a 15 44. Dana dala, Paulo'k beti dau begien aurrean *gizazate osoa*.

PAULO'K TESALONIKA'KOAI EGINDAKO BIGARREN IDAZKIA

Agurra

1 ¹Paulo'k, Silbano'k eta Timoteo'k, Jaungoiko gure Aitagan eta Jesukristo Jaunagan dagoan Tesalonika'ko elizeari: ²grazia ta bakea izan daitezala zuekaz Jaungoiko Aitaren eta Jesukristo Jaunaren izenean.

Tesalonikarrak sinismenean eta goi-maitasunean egin ebezan aurrerapenak

³Zuen alde, senideok, Jaungoikari beti eskerrak emon bear dautsaguz, eta au guztiz bidezko da, zuen sinismena geroago ta geiago geitzen eta alkarganako zuen maitasuna aurreragotzen doa-ta. ⁴Geu be arrotu egiten gara zuei buruz Jaungoikoaren elizetan, zuekan eroaten dozuezan eraso ta larrialdi guztietan zuen eroapen eta sinismenagaitik. ⁵Guzti orretan, Jaungoikoaren erabagi zuzena agiri da: Beragaitik *nekeok* eroaten dozuezan ezkerro, Jaungoikoaren erreñuaren gai aurkituak izan zaitezten.

⁶Naibagetzen zaituenai zigorrax ordaintzea, Jaungoiko zuzenari bidezko yako; ⁷zuei, barriz, atsekabetuoi, gugaz batera atsedenez *ordaintzea*, Jesus Jauna zerutik bere aingeru indartsuak agertu daitezen, ⁸Jaungoiko ezagutu nai ez eta Jesus gure Jaunaren Barri Onaren esaneko izan nai ez dabena sugarretan zigortzeko*. ⁹Orreik, beti-

1-7-8 Zerua, aingeruak eta sugerrak judarren apokalipsis-kutsuko pentzakeratik artuta dagoz emen. Ts 1° 4 16+. Aipamenak-eta, ikusi: Ur 3 2; Is 66 15; Jr 10 25; Is 66 4; 2 10; 49 3; 66 5; Sal 89 8 (LXX); 68 35 (LXX).
Ef 1 6+.

1 12 Cf. Is 24 15; 66 5; Jn 17 22-24;
2 1 Jaunaren Etorrerearen aurretik. Ts 1° 5 1, *ezaugarri nabarmenak* izango dira la diño Paulo'k. Beraz, ez dagiezala inok

ko ondamendirako izango dira zigortuak, Jaunaren arpegitik eta Onen indarraren aintzatik urrun, ¹⁰bere santuakan goratua ta sinistu dozuen guztiakan egun aretan ederretsia izateko *Jauna* etorri daitenean —gure autorra ontzat artu dozue-ta—.

¹¹Orretarako, eten-bagarik diardugu zuen alde erregutzen, gure Jaungoikoak bere deiaren gai egin zagiezan, eta zuen gurari on guztia ta bere sinismen-lana bere indar eragillez bete dagizan, ¹²eta Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Jaunaren graziaz, zuekan Jesukristo gure Jaunaren izena goratua izan daiten, baita zeuek be Aregan*.

Jesukristo'ren bigarren etorrera*

2 ¹Jesukristo gure Jaunaren etorrerari buruz eta Aregaz egingo dogun alkartzeari buruz, auxe eskatzen dautsuegu, anaioi: ²ez zaitezla bereala eritzitik aldatu, ezta ikaratu be espirituren bat edo gurea izan leiteken itzaldi edo idazkiren bat gora-beera, Jaunaren etorrerea urr litzakelakoan. ³Ez zagiezala inok ezelan be atzipetu: leenen, sinismen-ukatzek etorri bear dau, eta gaiztakeri-gizonak —ondamendi-semeak— agertu*: ⁴*gizon au*, Jaungoikoaren izena daroan edo gurtzen dan edozeren aurka jarten eta jagiten da, Jaungoikoaren Etxean jesarteragiño ta bere burua Jaungoikotzat erakusteragiño.

atzipetu, naiz-ta Paulo beraren esanakaz etorri.

2 3 *Fede-ukatzek* edo *apostasias* zabalduko da Jaunaren Egun-aurretik. Fede-ukatzek onen eragillea Jainko ta Kristo'ren arerio dan *nor bait* izango da, Ez 28 2; Dn 11 36. *Antikristo* au, Jn 1° 2 18+, azken-aldian agertuko da, fededunak probatzeko. Mt 24 24; Ag 13 1-8. Baiña azken baten Kristo'k menperatuko dau, Is 11 4; Ag 19 11-21.

⁵Ez al-do-zue gogorutzen, zuen artean nengoanean, auxe berau niraitsuela? ⁶Eta orain ba-dakizue, bere aldia etorri artean zek daukan geldi*. ⁷Gaiztakerizko misterioak* onezkero berean diardu-ta; eragozten dauana erditik kentzea baiño ez da bear orain. ⁸Eta orduantxe agertuko da gaiztoa, eta Jesus Jaunak bere agoko arnasaz il eta berè etorrera argitsuaz ezereztu egingo dau*. ⁹Gaizto ori, barriz, Satanas'en indarra lagun dauala etorriko da, galduko diranentzat guztietariko guzurrezko mirariz, ezau-garriz, arrigarriz*, ¹⁰eta lillurakeri gaiztoz, onik atarako ebazan egiaren maitasuna artu ez ebelako. ¹¹Orre-gaitik, Jaungoikoak guzurrezko indar bat bialtzen dautse, ¹²guzurra sinistu dagien, eta, egia sinistu bearran, gaiztakeria onartu dabon guztiak galdu daitezten.

¹³Guk, oster, Jaunagan anai maitok, Jaungoikoari zuen alde beti eskerrak emon bear dautsaguz, Espiritu *Santuaren* santutasunaz eta egiazko sinismenaz salbamena jaristeko, Jaungoikoak asierarik aukeratu zaituelako. ¹⁴Orretarakoxe, izan be, egin eutsuen dei *Jaungoikoak* gure *Barri Onaren* iragartearen bidez, Jesukristo gure Jaunaren aintza jadetsi zengien. ¹⁵Sendo iraun egizue, ba, anaiok, eta bete egizue berbaz naiz gure idazkiz artu zenduezan irakatsiak*. ¹⁶Jesukristo gure Jaunak, eta gure Jaungoiko ta Aitak, grazi utsez maite izan zen-

2 6 Antikristo au oraindiño ez agertzea *nor baitek* edo *zer baitek* galerazoten dau, Ko 1° 15 23+. Paulo'k zer esan nai dauan emen, ez dakigu.

2 7 *Gaiztoak* lanean diardu fede-ukatzek orren-alde. Eta eragozten dautsan *nor bait* edo *zer bait* ori joan daitenean, egun-argitan agertuko da.

2 8 Cf. Is 11 4.

2 9 *Gaizto* ori bitarteko dala, guzuraita dan Satanas'ek lanean diardu giza-semeak egi-bidetik aldentzen, Jb 1 6+; Ts 1° 2 18; Jn 8 44; Ef 2 2; 6 12+; Mt 24 12; Ag 13 13+; cf. Mt 4 10; e.a.

2 15 *Irakatsi* guztiok Apostoluakandik

duezan Arek eta betiko poza ta uste ona emon eutsuezanak Berberak, ¹⁷zuen biotzak poztu eta egintza ta berba on guztirako sendotu dagizala.

Burubide batzuk

3 ¹Azkenez, anaiok, otoitz egizue gure alde*, Jaunaren Itza zabaldu daiten eta, zueen artean izan zanez, goratua izan dadin, ²eta gizon-donga ta gaiztoakandik onik urten gaitezten: sinismena guztiena ez da-ta. ³Baiña zintzoa da Jauna, eta Beronek sendotu ta gordeko zaitue gaiztoagandik. ⁴Erregutu dau-tsueguna beteten dozuela ta aurrerantzean be betekin dozuela uste dogu Jaunagan. ⁵Jaunak zuzendu dagizala zuen biotzak Jaungoikoaren maitasunean eta Kristo'ren eroapenean.

⁶Era okerrez bizi dan edozein anaigandik, eta gugandik artu dozuezan irakatsiai jarraitzen ez dautsen edonorgandik alde egin dagizuela, eskatzen dautsuegu Jesukristo gure Jaunaren izenean*.

⁷Ondo dakizue zelan izan bear dozuen gure antzeko, ez gara zuen artean alperkeritan bizi izan-eta; ⁸inoren ogirik be ez genduan utsean jan, bestetara baiño: gau ta egun arduraz eta neketan egin genduan lan, zuetariko inori nekegarri izan ez genkiozan. ⁹Ez, barriz, onetarako eskubiderik ez gendualako, gu lez ibilteko erdua emon nai izan geutsuelako baiño. ¹⁰Eta lan egin nai

artu dauz Paulo'k, eta, beraz, Kristo'ren Elizearenak dira, 2 2-5; 3 6; Ts 1° 2 13+; 4 1-2; Ko 1° 11 2+.

3 1 Apostolutzan partekide egiten ditu kristauak, Apostoluen alde diarduen otoitzak, Ts 1° 2 13+; cf. Mt 9 36-38. Ona emen otoitzaren *apostolutza*.

3 6 Kristau artega ta urduri batzuek naastu ta kezak beteten eben kristaulagunartea, Ts 1° 4 10-11. Bearbada, *Parusia* ur-ur egoalakoan, *lanik egitea* alperrekoa zala uste eben. Baiña bearreko da beti lan egitea, premiñan dagozani laguntzeko ta norbera inorentzat astun eta gogaikarri ez izateko. Ts 1° 5 14; Ga 5 13; e.a.

ez dauanak, ez dagiala jan girautsuen zuen artean egon gintzazan artean*. ¹¹ Izan be, batzuk zuen artean nagikeritan bizi dirala entzun dogu, ezer egiteke, dana jakin naiez. ¹² Orrelakoai auxe agintzen eta eskatzen dautsegu Jesukristo Jaunagan: baketan lan egiñik jan dagiela euren ogia.

¹³ Zuek, barriz, anaiok, on egiten ez aspertu. ¹⁴ Eta idazkiz emoten dautsuegun gure agindu oni norbaitek esanik egiten ez ba'dautso, ala-

koa gogoan artu egizue ta ez zaiteze aregaz batu, lotsatu daiten. ¹⁵ Alan be, ez egizue alakoa areriotzat artu, anai antzera baiño*.

¹⁶ Beti ta edonun bakean bizi izatea emon dagitzuela bakearen Jaunak berak. Jauna izan dadilla zuekaz guztiokaz. ¹⁷ Agurra, neure eskuz egindakoa da, Paulo'k. Auxe da nire idazki guztietan zeaugarri; olantxe idazten dot. ¹⁸ Jesukristo gure Jaunaren grazia izan dadilla zuekaz guztiokaz.

PAULO'K TIMOTEO'RI EGINDAKO LEENENGO IDAZKIA

Agurra

¹ Paulo'k, Jaungoiko gure Salbatzaillearen* eta Jesukristo gure itxaropenaren aginduz, Jesukristo'ren apostolu onek, ² Timoteo'ri sinismenean seme jator orri: grazia, errukia ta bakea Jaungoiko Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

Timoteo, Efeso'n

³ Mazedonia'ra joan nintzanean, Efeso'n geratu zendizala (*zeitezala*) eskatu neutsun, barrikeriak ez egietzala irakatsi norbaitzui agintzeko, ⁴ ipuiñetan eta jatorri amaibageetan be* ez egiela jardun: sinismenaz Jaungoikoaren egitekoa aurreratzeke baiño eztabaidak biztuteko egokiagoak dira-ta. ⁵ Barri Onaren elburua, barriz, biotz garbitik, barru onetik eta sinismen utsetik *jaioten dan* maitasuna da. ⁶ *Maitasun onetatik*, batzuk okertu egiten dira, uskerietara joten dabela, ⁷ euren buruak Lege-irakasletzat erakutsirik, esaten eta irakasten dabena ulertzen ez dabela.

Legea

⁸ Ba-dakigu Legea, bear-danez erabilli dagianarentzat, ona dana*. ⁹ Alan be, gogoan izan: ez dala Legea zintzoentzat, gaiztoentzat baiño, biurrientzat, donga ta pekariarentzat, erlejiñorik eta Jaungoikozaletasunik ez dabenenentzat, guraso-iltzailleentzat, gizon-iltzailleentzat, ¹⁰ aragikerietan eta sodomakerietan

diarduenentzat, jopu-lapur, guzurti ta ziñausleentzat eta irakatsi onaren* aurka jarri daiten edonorentzat: ¹¹ irakatsi ori, *iragariteko* emon yatan Jaungoiko zoriontsuaren Barri On goragarriaren eraz dago.

Paulo'ren eginbearra

¹² Eskerrak emoten dautsadaz sendotu nenduan Jesukristo gure Jaunari: niri eginbearra emotean, orretarako zintzotzat artu nendualako: ¹³ neu artu be, leenengo Kristo'ren biraolari ta erasotaille lotsabagea izan nintzala. Baiña Jaungoikoagandik errukia artu neban, sinisgogortasunean ez-jakiñez egiten neban-eta; ¹⁴ baiña gure Jaunaren graziak gaiñez egin eban, Jesukristo'gan dagoan sinismenaz eta maitasunaz. ¹⁵ Egia da eta guztiak onartzeko gai da au: Jesukristo lurrera pekatarriak salbatzera etorri zala; eta pekarietarik leenena, neu naz. ¹⁶ Baiña orrexegaitik jadetsi neban errukia, Jesukristo'k bere biozperatasun osoa leenen neugan erakutsi egian, eta betiko bizitzarako Aregan sinistu bear ebenai eredutzat izan nenkien. ¹⁷ Gizaldien Erregeari, illeziaña ta ikuseziaña dan Jaungoiko bakarrari, omena ta aintza gizaldiz-gizaldi. Amen*.

Burubide bat Timoteo'ri

¹⁸ Agindu au emoten dautsut zuri, Timoteo nire seme orri: zutzaz leen egindako igarketen eraz, *igarketa* areitan begiak ezarrita, burruka onari ekin dagiozula, ¹⁹ sinismen

1 1 Paulo'ren «Gotzain-idazkiak» *Salbatzaille* izena damotse bai Jainko Aitari ta bai Jesukristo'ri be, 2 3; 4 10; e.a.; Tm 2^a 1 10; 4 18; e.a. Cf. 2 4+.

1 4 Judarren asmaketa ta eztabaidak Alkartasun Zaarreko asabai buruz.

1 8 Legea ez da emen artzen pekatua zetan dagoan jakifinerazoteko, Erm 3 20+;

7 7+, pekataria zuzenbideratzeko baiño.

1 10 *Irakatsi onak*. 6 3; Tm 2^a 1 13; e.a., Apostoluakandik datozanak dira; irakatsi osasuntsu ta giartsuak, utsegiterik ez daukenak, moral-gaietan batez be, cf. Erm 12 2+; Flp 4 9+.

1 17 *Doksoloji* au, antza, liturjiatik artuta dago. Cf. Erm 16 27+.

3 10 *Lan egin nai ez dauanak ez dagiala jan*. Erri-esaeraren bat ete-zan au? 3 15 Onetan zorrotzago artu ebazan Paulo'k korintotarrak, Ko 1^a 5 5+.

eta barru onaz. Barru on ori galdu eben batzuk, sinismenean be ondatu egin ziran; ²⁰ arein artean, Ime-neo ta Alexander: Satanas'i emon neutsazan, biraorik ez egiten ikasi dagien.

Gizon guztien alde otoitz egin-bearra

2 ¹ Gizon guztien alde eskari, otoitz, erregu ta esker-emoteak egin daitezala eskatzen dautsut leenen; ² erregeen eta agintaritzan dagozan guztien alde*: zintzo ta garbi, bizitza baretsu ta baketsua izan dagigun. ³ On eta atsegingarria da au Jaungoiko gure Salbatzailearen aurrean: ⁴ gizon guztiak salbatu ta egiaren ezaguerara etorri daitezala nai dau-ta*. ⁵ Izan be, bakarria da Jaungoikoa, baita Jaungoikoren eta gizonen bitartekoa be: Jesukristo gizona, ⁶ bere burua guztien erospenerako ordaintzat emon ebana. Aldi egokian emondako autorra da au; ⁷ eta auxe iragarteko izan naz ni zabaltzaille ta apostolu egiña, jentillen irakasle sinismenean eta egian. Egia diñot, ez diñot guzurrik.

Otoikera. Senarra ta emaztea

⁸ Beraz, gizonak leku guztietan otoitz egin dagiela nai dot, esku garbiak jasorik, asarre ta eztabaida bagarik. ⁹ Bardin emakumeak be, jantzit eratsuz, lotsaz eta eratasunez; ule arrorik, urrerik, arri-bitxirik eta soĩneko aberatsik ekarteke: ¹⁰ egin-tza onai ekiñik, onbideari jarraitzen dautsoen emakumeai dagokienez. ¹¹ Emakumeak isillik eta apal-apalik ikasi begi. ¹² Ez dot izten emazteak senarrari irakastea, ezta agintzea;

2 2 Cf. Esd 6 10+.

2 4 Garrantzi aundiko egia, 6; 4 10. Beronen bidez ulertu aal izango doguz obeto Alkartasun Barriko ainbat esaera, esate baterako: Erm 3 29-30; 8 28-30+; 9 18-20+. Jainko bakarraren asmo au agiri-agirian jarri dau Kristo'ren bitartekotasunak. 5-6: Jn 1 14-18; 16 23; Erm 3 24; Ebr 2 6-17+; Ko 1^a 8 6+; Ef 1 1-14+.

emaztea isilik egon daitela baiño: ¹³ leenen Adan izan zan egiña-ta; gero, barriz, Eba. ¹⁴ Eta atzipetua ez zan Adan izan, Eba baiño; eta onek, atzipetuta, agindua ausi egin eban. ¹⁵ *Emakumea*, alan be, umeen azieraren bidez onik urtengo da, sinismenean, maitasunean eta garbitasunean eratasunez iraun ba'dagi*.

Eliz-buruak

3 ¹ Sinistekoa da egi au: Norbaitek eliz-burutza (*edo gotzain-tza**) gura ba'dau, eginbide ona gura dau. ² Baiña, eliz-buruak (*gotzainak*) akats-bagea izan bear dau, bein bakarrik ezkondua, negurriduna, sentzunduna, aziera onekoa, arrotz-maitatzaillea ta irakastuna, ³ ez ardanzalea, ezta eztabaidazalea be, parkabera baiño, bakezalea, diruari lotua ez; ⁴ bere etxean buru izaten jakin dagiela, semeak mepenean eta era egokiz euki dagizala; ⁵ izan be, zelan izango da Jaungoikoren Elizearen buru, bere etxeko buru izaten ez ba'daki? ⁶ Ez dadilla kristaubarri izan, arrokeriz puztu ta deabruaren ondapenean jausi ez daiten. ⁷ Kanpokoen aurrean be entzute ona izan bear dau, izen ona galdu ez dagian eta deabruaren sareetan jausi ez daiten.

Laguntzailleak (diakonuak)*

⁸ Laguntzailleak be orretarako egokiak izan bear dabe, ez arpegi-bikoak, ez dagiela ardao askorik edan, ezta diruzaleak izan be; ⁹ sinismenaren ezkutapena barru garbian gorde dagiela. ¹⁰ Leenen, aztertuak izan daitezala, eta gero,

2 15 Emakumearen izate berezia ta gizonarena, bardiñak dira kristau santutasunerako, Paulo'k egiten dauanez azaldu ezkeru, Tt 2 4-5; Ga 3 28; cf. 4 3; 5 13.

3 1 *Gotzainak* eta *Abadeak* (Zaarrak) argi bereiztu bagarik dagoz oraindiño. cf. Ap 20 17, 28; Tt 1 5-7+.

3 8 *Laguntzailleak* diakonuak dira, au da, *Gotzainen* laguntzailleak. Ap 6 6+; Flp 1 1.

akats-bageak ba'lediz, euren egin-bearra bete dagiela. ¹¹ Emakumeak be orretarako eratsuak bear dabe izan, ez txatxalak; negurridunak eta danetan zintzoak. ¹² Laguntzailleak bein bakarrik ezkonduak izan daitezala, euren semeak eta euren etxeak ondo zaintzen jakin dagiela: ¹³ euren eginbearra ondo bete daginek, Jesukristo'gan dogun sinismenean leku goragarria ta nausitasun aundia jadetsiko dabe-ta.

Elizea

¹⁴ Laster zeu ikustera joateko asmoz idazten dautsut au: ¹⁵ luzatu ba'naite, barriz, Jaungoikoren etxean zelan jardun bear dozun jakin dagizun; *Jaungoikoren etxea* Jaungoiko biziaren Elizea da-ta, egiaren zutabe ta oiñarri. ¹⁶ Izan be, aundia da erruki-misterioa* guztien autorrez, aragitan agiria, espirituan santutua, aingeruai erakutsia, jentillai iragarria, lurrean sinistua ta aintzara jasoa.

Sasi-irakasle barriak

4 ¹ Alan be, azken-aldiotan* sinis-mena batzuek ausi egingo dabela, diño argi ta garbi Espirituak, espiritu lilluratzailleai ta deabruaren irakatsiai jarraiturik, ² guzur-azarleen azaluseriaren bidez, euren barruan suaren ezaugarria dabela; ³ *orreik*, ezkontzea galerazo egiten dabe, baita janari batzuk *jatea be*: janariok, barriz, Jaungoikoak sortuak dira, oso-osorik ezagutu dabent *zintzoak* eskerrak emonez artu daguezan. ⁴ Izan be, Jaungoikoak sortutako guztia ona da; eta eskerrak

3 16 *Misterio* au. 3 9: Erm 16 25+, Kristo ber-bera da. Paulo'k emoten dauan azalpena eres-abestiren baten txatalen bat da, antza, cf. 6 15-16; Tm 2^a 2 11-13; Flp 2 6-11.

4 1 *Azken-aldi* oneik asita dagoz, Erm 13 11+. Euron ezaugarriak bertan daukaguz, Tm 2^a 3 1-5; Mt 24 6-8, 23-24; Ts 2^a 2 3-12; P 2^a 3 3+; Jn 1^a 2 18; e.a.

emonez artzekotan, ez da ezer bazartu bear: ⁵ Jaungoikoren itzaz eta otoitzaz santutu egiten da dana-ta.

Irakaspen batzuk

⁶ Anaiari au irakasten ba'dautsezu, Jesukristo'ren morroi zintzo izango zara, sinismenaren berbaz eta artu dozun irakatsi onaz bizi zara-ta. ⁷ Alegi tentelak eta atso-ipuin utsak, barriz, bazartu egizuz, eta Jainkozaletasunari ekiozu: ⁸ gorputz-jardunak gutxitarako dira-ta; Jaungoikoganako maitasuna, barriz, guztitarako da on: oraingo ta geroko bizitzarako agintzariak daukaz-ta. ⁹ Benetako irakatsia da au, eta guztiz ondo artzekoa. ¹⁰ Onetantxe diardugu neketan eta burrukan, gure siniste ona gizaki guztien eta batez be fededunen Salbatzaille dan Jaungoiko biziagan ezarri dogu-ta.

¹¹ Auxe iragarri ta irakatsi bear dozu. ¹² Iñok ez dagiela zure gaztetasuna gutxitzat artu; izan zaitez, ostera, zintzoen eredu izketan, jardunean, maitasunean, sinistean, garbitasunean. ¹³ Ni etorri naiten artean, irakurteari ekin egiozu, burubideak emoteari ta irakasteari. ¹⁴ Ez ondatu zuga dagoan grazia, berba ezkutuen indarrez batzarreko abadeen esku-ezarteaz* emon izan yatzun grazia. ¹⁵ Zure arazoa auxe izan dadilla, onexeri ekiozu, zure aurre-rapena guztia k ezagutu dagien. ¹⁶ Zaindu egizu zeure burua, ekin zeure irakasteari, iraun bertan. Au egiñez, zeure burua bakarrik ez, baita zeure entzuleak be salbatu egingo dira.

4 14 *Esku-ezarte* au Kristo'gandik eta Apostoluakandik datorren *ritu* bat da. Bere bidez grazia edo eskubideren bat emon oi da, Ap 6 6+. Esan-gura asko ditu Alkartasun Barrian: a) bedeinkatzea, Mt 19 15; b) osasuna emotea, Mt 9 18; d) Espiritu Santuaren doia artzea, Ap 8 17+; e) Eliz-eginkizunetarako sargaritzea. Auxe da emen eta 5 22'garrenean daukan esanaia, Tm 2^a 1 6; Ap 6 6; 13 3. Cf. Tm 1^a 1 18+.

Eliztarrakaz, zelan jardun?

5¹ Zaarrik ez gogor artu, aitari lez burubideak emon baiño; mutillai, anaia lez; ² andrazko zaarrai, amai lez; neskattillai, arreba lez, garbiro-garbiro.

³ Andra alargunai*, benetako alargunai, begirunea izan egiezu. ⁴ Eta alargunen batek semeak edo illobak ba'daukaz, ikasi begie batez be euren etxekoak zaintzen eta gurasoai eskerrona ordaintzen: Jaungoikoari ori atsegin yako-ta. ⁵ Benetako alargunak, barriz, bakarrik geratuak, Jaungoikoagan dau bere uste ona, eta gau ta egun erregu ta otoiketean diardu. ⁶ Atseginetan bizi dana, barriz, bizi izanarren be, ilda dago. ⁷ Eginbearrok bete-erazo egiezu, akats-bageak izan daitezak. ⁸ Beretarren eta batez be etxekoen ardurarik ez dauanak, barriz, sinismena ukatu egin dau, eta sinisbagea baiño gaiztoagoa da.

⁹ Alarguna, gutxienez irurogei urtekoa aukeratu bear da, senar bakar-raren emazte izandakoa, ¹⁰ egintza onez ezaguna, semeak azten, arrotzai ostatau eskintzen, santuen (*kristauen*) oiñak garbitzen, atsekabetuai lagun egiten eta guztitariko egintza onak egiten arduratsu izandakoa. ¹¹ Alargun gordiñak, barriz, baztatu egizuz: euren gorputz-zalekeria Kristo'ren aurka jagiten danean, ezkondu egin nai dabe-ta; ¹² alan, euren leenengo sinismena itzi daben ezkerro, galgarri egiten dira. ¹³ Gaiñera, alan alperkerian jarduten ikasten dabe, eta etxeriketxe dabil; alperrak egin bakarrik ez, baita barritsuak eta dana jakin gura dabenak be egiten dira, bear ez dabena berba egitiñik. ¹⁴ Beraz, *alargun* gazteak ezkondu daitezala nai dot, eta seme-alabak izan dagie-

⁵ 3 Iru eratakoak ziran leenengo kristauen arteko *andra* alargunak: a) Elizearen laguntza bearrik ez ebenak, euren etxean egoki ziralako; b) Elizeak lagun-du bearrean egozanak, bakar-bakarrik eta urritasunean bizi ziralako. Oneixei deri-

zala, etxekandra onak izan daitezala ta arerioari ez dagioela irain-biderik bat be emon. ¹⁵ *Orretariko* batzuek bidea galdu dabe Satanaseñen azetek *joanik*. ¹⁶ Fededun *andrazkoren* batek bere etxean alargunik ba'dauko, berak lagun egin begio, Elizeari nekegarri izan ez dakion; eta *olan*, onek (*Elizeak*) benetako alargunai lagun egin dagitsen.

Abadeai buruz

¹⁷ Ondo agintzen daben abadeai, begirune bikotxa izan bear yake, *Barri Ona* iragarten eta irakasten diarduenai batez bere. ¹⁸ Liburu Santuak auxe diño-ta: *Gari-joten diarduan idiari, ez egiozu muturrekorik ezarri; eta langilleari bere saria zor yako*. ¹⁹ Abadearen aurka, ez egizu salakuntzarik artu, bi edo iru testiguz izan ezik*. ²⁰ Pekatariari asarre egiezu guztien aurrean, enparaduak bildur izan daitezak. ²¹ Jaungoikoaren eta Jesukristo'ren eta aingeru aukeratuen aurrean agintzen dautsut: bete egizu aitatutako au aurretiaz ebatzeke, eta iñoren ederragaitik ezer be egiteke. ²² Eskuak lasterregi ez iñori ezarri, iñoren pekatuetan eskuartu ez dagizun. Garbi iraun egizu.

²³ Aurrerantzean, ez egizu ur utsik edan, ardao apur bategaz baiño, zure urdaillagaitik eta sarri dozuzan ondezakaitik.

²⁴ Gizon batzuen pekatuak auzitara baiño leen jarten dira agirian; beste batzuenak, barriz, auzi-ostean bakarrik. ²⁵ Era berean, egintza onak agiri egiten dira; eta onak ez diranak, ezin geratu daitezke ezkutuan.

Jopuak eta ugazabak

6¹ Buztarpean dagozan jopu guztiak, ugazabai begirunerik aun-

txe Paulo'k emen *benetako alargunak*; d) batzuk nai bestak, Eliz-eginkizunen baterako aukeratuak izan leitekezan, *ofizialtasunez*. Oneik berarizko araudi estu samarra eben. 9-15.

⁵ 19 Cf. Dt 25 4; Lk 10 7; Ko 1* 9 9; Dt 19 15.

diena izan begie, Jaungoikoaren tasunari, eroapenari ta otzantasunari izena ta irakatsia biraogarri biurtu ez daitezak. ² Ugazaba fededunaren jopuak —anai dala-ta—, ez begie ugazaba gutxizat artu, obeto otseindu baiño: morroi-egintza onak artzen dabezanak, fededun eta (*anai*) maitagarriak diran ezkerro. Orixe da zuk irakatsi ta zuk burubidetzat emon bear dozuna.

Sasi-irakasleak

³ Norbaitek osterantzeko zerbait irakasten ba'dau, eta alakoa Jesukristo gure Jaunaren berba zintzoai ta ikasbide jatorrari lotzen ez ba'yake, ⁴ ori itsututa dago; orrek ezer ez daki, eta ori asmakeri ta izkirimirietan zorabiatuta dago*. Ortixek datoz ikusi-eziñak, eztabaida, irain, susmo txar, ⁵ eta zintzotasuna irabazpidetzat dauken adimen usteleko ta egia bagariko gizonen auzi-mauziak. ⁶ Izan be, irabazi aundia da zintzotasuna, baiña irabaziari lotuta ez ba'dago!: ⁷ ez dogu mundu onetara ezer ekarri, eta eroan be ezin eroan daikegu ezer emendik. ⁸ Beraz, janariak eta jantzia euki ezkerro, onenbestez pozik egon bear dogu. ⁹ Baiña aberats izan nai dabenak, tentaldian sare ta diru-gose zoro ta kaltegarri aunditan jausten dira: orrexek galtzen eta ondatzen dau gizona. ¹⁰ Izan be, gaitz guztien zusterre diru-gosea da, eta onek eragiñik, batzuk sinismenetik urrundu ta oiñaze ugaritan sartu dira.

Iraupenerako burubideak

¹¹ Zuk, oster, Jaungoikoaren seme orrek!, iges egizu grina txar orreitatik, eta zuzentasunari, Jainkoazletasunari, sinismenari, goi-mai-

tasunari, eroapenari ta otzantasunari jarraitu egiezu. ¹² Egin burruka ona sinismenaren alde, irabazi egizu betiko bizitza, orretarako deitua izan zintzazan ezkerro: au (*betiko bizitza*) testigu askoren aurrean ederto autortu zenduan-eta. ¹³ Gauza guztiai bizitza emoten dautsen Jaungoikoaren aurrean eta Pontzio Pilato'ren aurrean autor ona egin eban Jesukristo'ren aurrean agintzen dautsut*: ¹⁴ agindua garbi ta akats bagarik bete dagizula, Jesukristo gure Jauna etorri arte*: ¹⁵ au (*Jesukristo*) agirian jarriko dau aldi egokian Jainko zoriotsu ta bakar-rak, erregeen Errege ta jaunen Jaunak, ¹⁶ il ezin daitezken bakar-bakarrak, iñor urreratu ezin daitezken argitan bizi danak, gizonetarik batek be ikusi ez dauan eta ikusi be ezin egin daiken Arek. Berari aintza ta betiko agintaritza. Amen*.

Aberatsai burubideak

¹⁷ Mundu onetan aberats diranai, auxe agindu egiezu: euren itxaropena ondasun aldakorretan ez dagie-la jarri, Jaungoikoagan baiño: Onek bear dogun guztia eurrez emoten dausku-ta. ¹⁸ On egiten ikasi dagie-la, egintza onez aberasten, emoten gertuak eta eskuzabalak izaten, ¹⁹ eta ondasun bikaiña gerorako batzen, benetako bizitza irabazten.

Azkena

²⁰ Ene Timoteo! Gorde egizu emon izan yatzun zaintzekoa*, barriketa gaiztoetatik eta sasi-jakintza biurretik iges egitiñik. ²¹ Batzuk, jakintza ori ba-eukela-ta, sinismenetik urrun, galdu egin dira. Grazia izan bedi zuek.

⁶ 4 Bearrezkoa da *Jainkoaren billa* eten bagarik jardutea, Am 5 4+; Mt 6 33. Baiña sinismen-misterioa makaldu ta endakatu baiño egiten ez dabezan auzi-mauzi zoroak baztaturik. Tm 2* 2 23; Tt 3 9; cf. Jn 2* 9.

⁶ 13 Jesus'ek, *egiaren autorle* izanik, bere burua *Mesias-aldiko Erregetzat* autortu eban Pilato'ren aurrean, Jn 18 36-37+. Orra fededunen eredurik bikaiñena.

⁶ 14 *Jesukristo gure Jauna etorri arte*, au da, *Parusia* egunerarte, Ko 1* 15 23+.

⁶ 16 *Doksoloji* au liturgiako eres-abetiren baten oiñarritzen dala dirudi, cf. 1 17.

⁶ 20 *Zaintzeko* au sinismen-tradiziñoa da, 4 6; Ts 2* 2 15+; cf. 1 10+; Tm 2* 1 12, 14. Osorik zaindu bear da, eta urrengoai aldakuntza bagarik emon, cf. Tm 2* 2 2; Mt 28 20.

PAULO'K TIMOTEO'RI EGINDAKO BIGARREN IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Paulo'k, Jesukristo'gan dagoan bizitzaren Agintzaria iragarteko, Jaungoikoaren nai-izatez, Jesukristo'ren apostolu nazan onek, Timoteo, nire seme maiteari, grazia, errukia ta bakea Jaungoiko Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

Eskerrak emotea

³ Nire otoitzetan eten bagarik gau ta egun gogora ekarten zaitudanean, nire aurretikoen eredura barru garbiz morroitzan diardudan Jaungoikoari eskerrak emoten dautsadaz, ⁴ zu ikusteko gurariz, zure malkoak gogoratzen dodazala, pozez bete naiten, ⁵ zugar dagoan sinismen zintzoaren gogorapena biztuerazorik. Sinismen ori leenen Loide zure amagan eta Eunize zure amagan bizi izan zan, eta zeugan be bizi dala uste dot*.

Ez lotsatu Barri Onaz

⁶ Au dala-ta, nire esku-ertzetez zeugan dozun Jaungoikoaren grazia biztu dagizula gogorazoten dautsut. ⁷ Ez dausku Jaungoikoak txepel-espirtua emon-eta, indar-espirtua, maitasun-espirtua ta negurri-espirtua baiño. ⁸ Beraz, gure Jauna autortzeaz ez lotsatu, ezta nitzaz be, zure giltzapeko onetzaz; bestetara baiño: Jaungoikoaren indarraz nigaz batera ondo eroan egizuz naigabeak Barri Onagaitik. ⁹ Berak (*Jaungoikoak*) atara genduzan onik, dei santuz: ez, gero, geure egintzen indarrez, bere erabagiaren indarrez eta betikotasun guztitik Jesukristo'gan emon izan yakun graziagaitik

¹ 5 Ez dakigu ziur emakume bi onek, Loide ta Eunize, kristauak zirarik. Dana dala, gaztetan etxe Jainko-zalean azi ta

baiño. ¹⁰ *Grazi au* orain agiri egin da, Jesukristo gure Salbatzailea agertu danetik: Onexek ondatu dau eriotza ta argitara atara bizitza ta ezilkortasuna Barri Onaren bidez: ¹¹ eta *Barri On* onen zabaltzaille, apostolu ta irakasle izan naz jarria ni.

¹² Onexegaitik eroaten dodaz nekeok; baiña ez naz lotsatzen: nogan sinistu dodan oso ondo datik-eta; ziur nago, barriz, Egun ararte nire gordekizuna jagoteko aaltsua dana*. ¹³ Jesukristo'ren sinismen eta maitakuntzarako entzun daustazuzan berba zintzoen ereduari eutsi egiozu. ¹⁴ Zaindu egizu, gugar dagoan Espiritu Santuaren indarraz, gordekizun ederra.

Paulo'ren ikasle batzuk

¹⁵ Ba-dakizu Asia'ko guztiak alde batera itzi nabena; areitariko bi, Fijelo ta Ermojenes dira. ¹⁶ Onesiforo'ren etxekoai Jaungoikoa erruki izan dakiela: sarri adoretu nau ta ez eban iñoiz be nire kateen lotsarik izan; ¹⁷ bestetara baiño: Erroma'ra etortean, nire billa ardu-raz ibilli zan, aurkitu nenduan arte. ¹⁸ Jaunaren aurrean Egun aretan errukia aurkitzea emon dagiola Jaunak. Nik baiño obeto dakizu zuk Efeso'n emon eustan laguntza gutia.

Jesukristo'ren gudari ona

2 ¹ Jesukristo'gan dagoan graziaz adoretu zaitez, ba, ene seme; ² eta entzule askoren aurrean entzun zeustana, azaldu egiezu beste batzui irakasteko gai izan daiteke-

ezi eben Timoteo, cf. 3 14-15.

¹ 12 Egun a Parusia da, Ko 1* 1 8+; cf. 18.

zan gizon zintzoai*. ³ Eroan ondo nekeak Jesukristo'ren gudari onari dagokionez. ⁴ Gudaritzan diarduana ez da naasten bizitzako arazoetan, aukeratu dauanaren ederra irabazi nai ba'dau beintzat. ⁵ Burrukalariari be ez dautsoe koroirik emoten, legez jokatzin ez ba'dau. ⁶ Nekazariak nekatu egin bear dau, frutua artu baiño leen. ⁷ Ulertu ondo esan nai dautsudana, Jaungoikoak guzti onen ezaguera emongo dautsu-ta.

Kristo ekarri gogora

⁸ Gogoratu egizu, Dabid'en jatorriko Jesukristo illen artetik biztu egin zala, iragarten dodanez*. ⁹ *Barri On* onegaitik neketan bizi naz, gaizto lez, kate-artean egoteraño; Jaungoikoaren Itza, ostera, ez dago katez lotuta. ¹⁰ Au dala-ta, guztia eroaten dot ondo aukeratutakoen alde, oneik be Jesukristo'gandik datorren salbamena jadetsi dagien, betiko aintzaz. ¹¹ Sinistekoa da diñodan au*.

Aregaz il ba'gara, bizi be Aregaz bizi izango gara;

¹² nekeak Aregaz eroaten ba'doguz, erregetza be Aregaz izango dogu;

A ukatzen ba'dogu, Berak be ukatu egingo gaitu;

¹³ zintzoak ez ba'gara, Arek zintzo irauten dau, bere burua ezin ukatu daike-ta.

Timoteo'k irakasle barriakaz erabilli bear dauan jokabidea

¹⁴ Auxe irakatsi bear dozu, Jaungoikoaren aurrean agindu: entzuleen ondamentirako baiño ez diran ezerezko eztabaidak baztatu dagié-

zala. ¹⁵ Aalegindu zaitez Jaungoikoaren aurrean ontzu artzeko gizona lez agertzen, ezetan lotsatu bearrik ez dauan langillea lez, egiaren Itza bear danez esaten. ¹⁶ Barriketa alper-rak, barriz, baztatu egizuz: orreitan jarduten dabenak, dongakeritara geroago ta geiago aurreratuko dira-ta; ¹⁷ orrelakoen itza minbizia lez zabalduko da. Orretarikoak dira Imeneo ta Fileto: ¹⁸ egiatik okertuta, biztuera eginda dagola diño, eta batzuen sinismena ondatu egin dabe*.

¹⁹ Alan be, Jaungoikoaren oiñarri gogorrek sendo irauten dau ezaugarri onezaz*: *Ezagutzen dauz Jaunak bereak diranak*; eta: Urrundu beite gaiztakeritik be: *zpanetan Jaunaren izena artu dagiana*. ²⁰ Etxe aundietan urrezko ta zidarrezko ontziak bakarrik ez, baita zurezkoak eta buztinezkoak be egoten dira; batzuk, apaingarritaz; beste batzuk, arazo lauetan erabilteko. ²¹ Beraz, orrelako okerbideetan garbi irauten dauana, goragarri-ontzia, santutua, bere ugazabarentzat zernaitarakoa, eta edozer eginbear onerako gertua izango da.

²² Gaztaroko griña txarretatik iges egizu, eta jarraitu zuzentasunari, sinismenari, goi-maitasunari ta bakeari, Jaunari biotz garbiz dei egiten dautsen guztiakaz batera. ²³ Gai zoro ta biurretatik be alde egizu, beti eztabaidak sortzen dabez-ta. ²⁴ Jaunaren morroi danak, ez dau eztabaidetan jardun bear: guztiakaz samur, irakasteko gertua ta ulergatxakaz eroankor izan baiño; ²⁵ setatiak ez titsu zuzendu dagizala: biotza Jaungoikoak arei aldatuene-

² 2 Argi ta bizirik ikusten dogu emen *zaintzekoa* zelan eskuratzen yaken ondorengoai, Tm 1* 6 20+.

² 8 Paulo'k irakasten dauan sinismenaren muiñak, Erm 1 3-44; eragozpen eta neke guztien gaiñetik dirau, Ko 2* 6 4; cf. Kol 1 24+.

² 11 Leenengo kristauen eres-abestiren baten txatalak dira, nonbait, Tm 1* 3 16+.

² 18 Imeneo'k eta Fileto'k oker uler-

tzen eben *berbizkundera*, espirituzkoa bakarrik zala adierazoz, au da, *batean* Kristo'gaz il eta biztutea zala, Erm 6 1-11+; Kol 3 1; e.a.

² 19 *Ezaugarri* edo *silluak* daroazan itzok Elizearen oiñarrian ezarrita dagoz. Paulo'k emen adierazo nai dauana auxe da: Elizearen eta kristauen oiñarria Kristo ber-bera ta beragandik artu dogun sinismena dala. Aipemenak: Zn 16 5, 26; Is 26 13 (LXX); cf. Jn 10 14.

an be, egia ezagutu dagien,²⁶ eta Satanas'ek bere naia egiteko lotuta daukazan saretik askatu daitezcan.

Irakasle barriakandik iges egitea

3¹ Izan egizu gogoan, azken egunetan aldi txarrak etorriko dirana.² Izan be, gizonak norberekoi, zeken, arro, aundiputz, madarika-zaille, gurasoakanako biurri, esker-tzarreko, donga,³ biotz-igar, zital, irainbaltz-zale, lizun, biotz-gogor, on danaren arerio,⁴ etoi (*saltzaille*), ausarti ta itsu biurtuko dira, Jaungoikoaren adiskide baiño atsegiñen maitatzailleago dirala,⁵ azalez zintzotasun-itxurea dabela, baiña barruko indar bagarik. Orrekandik be alde egizu: ⁶orretarikoen artean dira, etxeetan sarturik, emakume argalen gogoia irabazten dabenak; *emakume orreik*, pekatuz beterik eta askotariko griña txarrez eroanda,⁷ beti ikasten jardunaren be, ez dira iñoiz be egiaren ezaguera osotara eltzen.⁸ Eta Janes'ek eta Janbres'ek Moises'i lez*, sinismena galdu daben adimen usteleko orreik egiari arpegi emoten dautsoe.⁹ Baiña ez dira aurrerago joango, euren zorakeria guztien aurrean agertuko da-ta, arein zorakeria agertu zanez.

Onbidean iraun-bearra

¹⁰Ba-dakizu, barriz, zeuk ikusita, zeintzuk diran nire ikasbidea, nire bizikerea, nire asmoak, nire sinismena, nire biotz zabala, nire maitasuna, nire eroapena,¹¹ niganako erasoak, nire nekeak, baita Antiokia'n, Ikonía'n eta Listra'n eroan bear izan nebazanak be. Nik eroan nebazan erasoak! Eta, alan be, guztietatik

^{3 8} Judarren tradizio batek iñoanez, Janes eta Janbres dira Moises'en aurka jagi ziran Ejipto'ko azti bien izenak, Ur 7 11-13, 22, e.a.

^{3 16} *Idatzi Santuak*: Jainko-argitasunez idatzita dagoz P 2* 1 21. Orixe izan zan beti judarren sinisterik sakonenetariko bat. *Idatzi Santu* onsein artean Apostoluen idazlan batzuk be tokia artzen asi dirala

Jaunak onik atara nenduan.¹² Izan be, Jesukristo'gan zintzo bizi nai daben guztiak, aurrean erabiliak izango dira.¹³ Baiña gizon donga ta iruzurtiak geroago ta txarrago joango dira, *besteri* iruzur egiñik eta eurak be atzipetuak izanik.¹⁴ Baiña zu, zagoz sendo ikasi ta sinistu dozun guztian, irakatsi eutsuena gogoan arturik:¹⁵ umetarik ezagutu dozuzan Liburu Santuak onak dirata, Jesukristo'ren sinismenaren bidez salbamen-bidean argi egin dagitzen.¹⁶ Jaungoikoaren espirituz egindako edozein Idatzi *Santu*, egoki da irakasteko, egiara erakarteko, zuzentzeko ta zuzentasunean azteko*:¹⁷ Jaungoikoaren gizona edozein eginbear onerako bikain eta egin-egiña izan daiten.

Timoteo'ri adorea emoten

4¹ Jaungoikoaren autrean eta bi-ziak eta illak epaitzera etorri bear dauan Jesukristo'ren aurrean agintzen dautsut, Beronen Agertze ta Erreiñuagaitik:² Iragarri egizu itza (*Barri Ona*), ekin sasoi onez eta txarrez, adierazo, eskatu, artu gogor, eta irakatsi eroapenik andienaz.³ Irakaspen onik iruntsiko ez daben aldia etorriko da-ta; barrikeriak entzuteko gurariz, ostera, norberaren zalekerien aukerako irakasleak pillatuko dabez euren inguruan,⁴ eta belarriak egiatik aldendu egingo dabez eta ipuiñetara biurtuko dira.⁵ Zu, barriz, zagoz danetan zuur, eroan ondo lanak, egizu ebanjelari-egintza, bete zure egitekoa.

⁶Ni, onezkero, nire odola opariz isurteko zorian nago, eta joateko aldia laster datorkit*.⁷ Burruka ona

dirudi emen, Tm 1* 5 18; P 2* 3 15-16. Timoteo'k ondo ezagutzen dauz Idaztiok bere etxeokandik, 1 5, eta Paulo'gandik, 14-15; 2 2. Beraz, ondo gertatuta dago apostolutzarako, 17.

^{4 6} Laster ilgo dala esan nai dau, Flp 2 17+. *Bere joatorduak* Flp 1 23+gn. ataltxoak dakarsku gogora. *Odola opariz isurtea ta joatordua*, eriotza adierazoteko era bi dira.

egin dot, amaitu dot nire ariñe-ke-tea, gorde dot sinismena.⁸ Onezke-ro zuzentasun-koroia dagokit, egun aretan Auzi-jaun zuzenak emongo daustan koroia; eta niri bakarrik ez, baita Aren etorrerea opa dabenai be*.

Albistak

⁹Aalbait lasterren etorri zakidaz;¹⁰ Demas, lur oni dautsan maitasuna-gaitik ni bakarrik itzirik, Tesalonika'ra joan da; Kreszente, Galazia'ra, eta Tito Dalmazia'ra.¹¹ Lukas bakarrik dago nigaz. Markos artu ta ekarri egizu zugaz, lanbiderako oso ona yat-eta.¹² Tito, Efeso'ra bialdu dot.¹³ Etorri zaitezanean, ekarri egizu Troas'en, Karpos'en etxean, itzi neban soingaiñekoa, baita liburuak be, narru-papelak (*pergaminoak*) batez be.¹⁴ Alexander erremetariak kalde aundia egin daust; Jaunak biurtuko dautso egiñen ordaiña*.¹⁵ Zuk be alde egizu aregandik, gure berbai oso gogor egin dautse-ta.

¹⁶Nire alde leenengoz egin nebanean, ez yatan iñor be lagun egitera etorri; guztiak bertan-beera itzi nenduen. Ez dagitsela iñok konturik artu.¹⁷ Baiña Jauna neure ondoan egon zan eta indarra emon eustan, nire bidez *Barri Onaren* iragarrea osoro bete zedin eta erri guztiak entzun egien. Eta leoiaren agotik askatua izan nintzan*.¹⁸ Jaunak egite txar guztitik askatu eta onik atarako nau, ni Bere zeru-erreiñurako arturik. Berari aintza gizaldiz-gizaldi. Amen*!

Azken-agurrak

¹⁹Agur egiezu Priska'ri ta Akila'ri ta Onesiforo'ren etxeokoi.²⁰ Erasto, Korinto'n geratu zan; Trofimo, geisorik itzi neban Mileto'n.²¹ Bizkortu zaitez negua baiño leen etorteko. Agur egiten dautsue Eubulo'k, Prudente'k, Lino'k, Klaudia'k eta anai guztiak.²² Jauna izan bedi zure espi-rituagaz. Grazia izan dadilla zuekaz.

^{4 8} Paulo'k ziur daki bere egitekoa eginda dagoana, eta ondo eginda, gaiñera; eta berak irakatsia onartu dabenak gaiñezka poztuko dirala Jaunaren Agertze edo Etorreran, Tm 1* 6 14+.

^{4 14} Cf. Sal 62 13+; Erm 2 6+.

^{4 17} Cf. Sal 22 22; Dn 6 21.

^{4 18} Ga 1 5'garrenean Jainko-Aitari zuzentzen dautsan doksolojia, Kristo'ri zuzentzen dautso emen Paulo'k, Tm 1* 1 1.

PAULO'K TITO'RI EGINDAKO IDAZKIA

Agurra*

1 Paulo'k, zintzotasunari dago-
kion egiaren ezagueraren eraz
eta Jaungoikoaren aukeratuen sinis-
men-eraz, Jaungoikoaren morroi ta
Jesukristo'ren apostolu onek,² guzu-
rrik ez diñoan Jaungoikoak an-
txiñako aldietatik agindutako betiko
bizitzaren itxaropenerako,³ eta era-
bagitako aldian, Jaungoiko gure
Salbatzaillearen aginduz, niri itzi
eustan iragarlean bere erabagia ager-
tu eustala,⁴ Tito'ri, guztion sinis-
menean seme jator orri, grazia ta
bakea Jaungoiko Aitaren eta Jesu-
kristo gure Salbatzaillearen izenean.

Eliz-buruen izakera

⁵ Eratu ez dana artezteko* ta,
neuk agindu neutsunez, uri bakoitze-
an buru (*edo abadeak*) jarri dago-
zuzan itzi zendudazan Kreta'n:
⁶ *abade orreik*, akats-bageak izan
daitezala, emazte bakarraren senar,
seme-alaba fededunen guraso, ez
daitezala egikera txarreko edo biu-
rriak izan. ⁷ Izan be, gotzaiñak,
Jaungoikoaren etxezain dan ezker-
o, akats-bagea izan bear dau; ez arro,
ezta asarrekoia be, ez ardantzale,
ez kezkaezale, ezta irabazi zikin-
zale be; ⁸ arrotz-maitatzaille baiño, onza-
le, era oneko, zuzen, Jaungoikozale,
bere buruaren jabe, ⁹ berba zintzo-
aren jagole irakaspenaren eraz, ikas-
teko ta aurka dagozanak sinismene-
ra ekarteko gauza izan daiten.

¹ 1 Sarrerako agur onetan Apostolu-
tzaren teoloji bete-betea damosku Paulo'k.
¹⁵ Paulo'k, elizak sortu ta oiñarritu
ondoren, beste norbaiten ardurapean
izten ebazan, lana aurrera eroan eta oso-
zteko. Ko 1^o 3 6-10; Erm 15 20.

Abadeak eta *Gotzaiñak*: itzez-itz, *zau-
rrik* eta *zaintzailleak*, Ap 11 30+; 14
23+; 20 28+. Elizen arduradun eta buru
ziran. *Abadeena*, judarren oituratik jasoa,
deduzko kargua zan, geienbat. *Gotzai-
ñak*.

Kreta'rrak

¹⁰ Izan be, ba-dira ainbat biurri,
barritsu ta iruzurti, erdainduak ba-
tez bere: ¹¹ orrelakoai agoa itxi egin
bear yake; orrelakoak etxeak eurrez
naasten dabez, bear ez dabena ira-
kaste dabela, diru-gose zikiñak
eraginda. ¹² Areitariko batek —arein
profetak berak—, auxe esan eban:
«Kretarrak beti guzurti, pizti anke-
rrak, sabel nagi». ¹³ Autor au egia
da. Beraz, egiezu asarre gogor, sinis-
menean sendo egon daitezkan, ¹⁴ ju-
darren ipuiñai ta egia itzi daben
gizonen aginduai jarraitu ez dago-
tseen.

¹⁵ Garbientzat, dana da garbi;
zikin eta sinisbageentzat, barriz,
ezer be ez da garbi: zikinduta dagoz,
ostera, arein adimena ta burua.
¹⁶ Jaungoikoa ezagutzen dabela au-
tortzen dabe, baiña euren egiñakaz
ukatu egiten dabe; iguingarri ta
biurri dira, eta egintza on baterako
be ez dira gauza.

Burubide batzuk

2 ¹ Zuk, barriz, ikasbide onari da-
gokiona irakatsi egizu: ² gizon
zaarrak neurridunak, benak, isillak,
sinismenean, maitasunean eta eroa-
penean zintzoak izan daitezala; ³ emakume
zaarrak be, santuai dago-
kien lakoak izan daitezala, ez mor-
moxeta-zale, ez ardantzaleegi, eredu
onko baiño: ⁴ emazte gazteai, zen-
tzundun izaten irakatsi dagitseen,
edo-ta senarrak eta seme-alabak mai-

ñena, barriz, nagusitza ta aginpidezkoa.
Biok ziran uri edo errialderen bateko
kristau-lagunartean buruzagiak, cf. Tm
1^o 3 1; euren eskuetan egoan eliz-onda-
sunen eta erlejiño-eginkizunen ardura.
Leenengotan euren egitekoak ez egozan
zearo ta garbi berezituta: baiña geroago
Apostoluen ordezkotza Gotzaiñai egotzi
vaken. eta tokiko *abade-talde* buru
bakartzat aukeratuta geratu ziran. Gotzai-
ñak doguz, ba, Apostoluen egiazko oiñor-
dekoak.

te izaten; ⁵ isillak, garbiak, euren
etxean lan-zaleak, biotz onekoak eta
senarren esaneko izan daitezala,
Jaungoikoaren Itza biraoz zikindu
ez daiten. ⁶ Mutillai be zuurrak izan
daitezala irakatsi egiezu, ⁷ eta agertu
zaitez zeu be egintza onen eredu,
zintzo ta bentsu irakastean; ⁸ berba
jatorreko ta akats-bagako, arerioa
lotsatu daiten eta gure aurka esateko
txarrik izan ez dagian. ⁹ Morroiak
ugazaben menpean egon daitezala
edozetan, arein guraria bete dagoela,
ez dagoela ezezkorik emon, ¹⁰ ezta
ezer ostu be, zintzotasun osoa era-
kutsi dagoela baiño, Jaungoiko gu-
re Salbatzaillearen ikasbidea dane-
tan goratu daiten.

Jaungoikoaren grazia agertu da

¹¹ Izan be, gizon guztientzat Jaun-
goikoaren grazi osasungarria agertu
da; ¹² eta dongakeria ta lurreko zale-
keriak ukaturik, gizaldi onetan ne-
gurriz, zuzen eta Jainkozaletasunez
bizi gaitezala irakasten dausku,
¹³ gure uste ona Jaungoiko aundia-
ren eta Jesukristo gure Salbatzaille-
aren itxaropen zoriotsuan eta eto-
rrera ospatsuan jarten dogula*. ¹⁴ Be-
rak bere burua geugaitik emon
eban, gu dongakeri guztitik aska-
tzeko ta Berak beretzat aukeratutako
erri bat garbitzeko, egintza onen
arduraz beterik. ¹⁵ Esan zuk au, es-
kubide osoz irakatsirik eta zuzen-
durik; ez zagizala iñok baztatu.

Beste burubide batzuk

3 ¹ Ekarri egiezu gogora, aginta-
rien eta nagusitasuna daukenen
menpean bizi daitezala; esaneko

izan eta edozein egite onerako gertu
egon daitezala; ² ez dagoela iñori
iraiñik egin, ez daitezala kezkaezale
izan; biotz-oneko izan daitezala,
gizon guztiai buruz oso otzanak
izanik. ³ Geu be* noizbait burubage,
esantzarreko, oker, zalekeriaren eta
guztietariko atsegiñen morroi izan
gintzazan, gaiztakeritan eta ikusi-
eziñetan bizi izanik, iguingarri gin-
tzazala ta alkarri gorroto geutsala.

⁴ Baiña, Jaungoiko gure Salbatzai-
llearen ontasuna ta maitasuna agertu
zanean, ⁵ jaiotza barrirako garbitzeaz
Espiritu Santuaz gu barrizturik sal-
batu genduzan: ez, gero, zuzenbidez
guk egindako ezegaitik, bere errukiz
baiño*; ⁶ Jesukristo gure Salbatzai-
llearen bidez, *Espiritu Santua* eurrez
isuri euskun: ⁷ Aren graziaz zindo-
tuta, betiko bizitzaren oiñordeko
egin gaitezkan, geuk ustea dogunez.

Tito'ri burubideak

⁸ Itz au sinisgarri da, eta onetan
sendo iraun dagizula nai dot: Jaun-
goikoagan sinistu dabenak, egintza
onetan leenen izaten bizkortu dai-
tezan. Gaiok, gizonentzat onak eta
onurakorrak dira. ⁹ Gai zoroak, jato-
rriak, auzi-mauziak eta Lege-ezta-
baidak alde batera itzi egizuz, alpe-
rreko ta utsak dira-ta*. ¹⁰ Gizon
siñausleari* buruz, ari bein edo
birritan burubidea emon ondoren,
baztatu egizu zugandik: ¹¹ alakoa
okertuta dagoana, pekatu egiten
dauana eta bere buruz galduta da-
goana jakiniñ.

¹² Zugana Artemas edo Tikiko

² 13 *Parusiaren* zain egoteak, eria
damotso Paulo'ri Kristo'ren Jainkotasuna
argi ta garbi iragarreko, cf. Erm 9 5+.

³ 3 Cf. Erm 3 21-26 Ko 1^o 6 11; Ef
2 3-10+.

³ 5 Izan be auxe da *bateoa*: uraren
bidez eta Espiritu Santuaren doaz bizi-
za barrira jaiotea, Jn 3 3-6+; Ef 5 26+.
Bateoaren ondorenak, ikusi 6-7^{gn}. atal-

txoetan; cf. Erm 5 5+; 6 4+; 8 17; 12
2; e.a.

³ 9 Cf. Tm 1^o 6 4+.

³ 10 *Siñausleak* edo *erejeak*: sinisme-
na ausi egiten dabenak dira, au da,
atsegin yakezan egiak onartu ta enpara-
duak ukatu egiten dabezanak. Eta, jaki-
ña, kristau-lagunartea banandu egiten
dabe.

bialdu dagidazanean, etorri zaitez lenbailen Nikopolis'era ni ikustera, negua bertan egiteko ustea dot-eta. ¹³ Zenon lege-gizonari ta Apolo'ri arduraz atondu egiezu bear dabena, ezer peitu (*falta*) ez dakien. ¹⁴ Guretiarrak be, esku-bearrizanai buruzko egintza onetan aurrenengo izaten

ikasi dagiela, gizon agorrrak (*frutubageak*) izan ez daitezkan.

Azken-agurra

¹⁵ Agur egiten dautsue nigaz dagozan guztiak. Agur egiezu sinismenean maite gaituen guztiai. Grazia izan bedi zuekaz guztiokaz.

PAULO'K FILEMON'I EGINDAKO IDAZKIA

Agurra

¹ Paulo'k, Jesukristo'ren giltzapeko onek, eta Timoteo anaiak, Filemon'i, gure adiskide ta lankide maiteari; ² Apfia arrebeari; Arkipo, gure guda-lagunari, eta zure etxean batzen dan elizeari: ³ grazia ta ba-kea zuei, Jaungoiko gure Aitaren eta Jesukristo Jaunaren izenean.

Eskerrak emotea

⁴ Nire Jaungoikoari beti eskerrak emoten dautsada, nire otoitzetan gogora ekarten zaitudala ⁵—Jesus Jaunari dautsazun eta santu (*kristau*) guztien alde zuk dozun maitasuna ta sinismena ba-dakit-eta—. ⁶ Izan be, zukan dagoan sinismena, eraginkor egiten da* zuen artean on guztiaren ezagueraz, Kristo'ren aintzarako. ⁷ Poz eta atsegin aundia izan dot zure maitasunagaitik, ene anai!, orain arte zuegandik kristauen biotzak artu izan daben atsedena-gaitik.

Onesimo'ren alde eskaria

⁸ Orregaitik, zuk egin bear dozuna zuri agintzeko, Kristo'gan nasainasai esateko aukerea dodanarren be, ⁹ naiago dot zeure maitasunari dei egin —nazan au izanik, Paulo agura au, eta orain, gaitiera, Jesukristo'gaitik giltzapean dagoana—: ¹⁰ ka-te-artean sortu dodan nire seme Onesimo'ren alde eskatzen dautsut.

⁶ Zukan dagoan sinismena eraginkor egitea, au da, Kristo ta anaiakaz sinismenean eta maitasunean bat-izatea, 5-7; Ga 5 6. Ugazaba ta jopua, biak dira kristauak, 16; cf. Ko 1^a 7 20-23; 12 13; Ga 3 28; Kol 3 11, 22-24; biak Kristo'ren odolaz erosiak, eta euren borondatez Jainkoaren eta anaien serbitzariak, Erm 3 24+; Ef 6 5-9; 5 21; P 1^a 2 16; Ga 5 13. Cf. Si 33 25+.

¹¹ Leen zuretzat alperreko izan zana, orain zuri ta niri ondo etorriko yaku. ¹² Orixe bialdu dautsut, obeto esan, berori ez, neure biotza baiño. ¹³ Neugaz euki nai neban, Barri Onaren kateetan zure ordezkari izan nengian. ¹⁴ Ez dot, orraitiaño, zure baimen bagarik ezer egin nai izan, zure egintza on ori indarrez etorri ez zedin, gogo onez baiño. ¹⁵ Orregaitik izan zan, urrean, zuegandik banandua aldi baterako, gero betiko artu zengian*: ¹⁶ ez jopuztat gero, jopu baiño geiago, anai maitagarritzat baiño; niretzat maite-maitea dan ezkerero, ainbat geiago zuretzat!, gizona danez bakarrik ez, baita Jaunagan be.

¹⁷ Beraz, zuk ni laguntzat ba'naukazu, artu egizu berau neu lez. ¹⁸ Eta zerbait kalte egin edo zor ba'dautsu, neure artu-emonetan ezarri*. ¹⁹ «Neuk ordainduko dot, neure eskuz idatzi dodan Paulo onek». Orrezaz gaitiera, zeu zaran ori be neuri zor daustazula esan ez dagitzudan. ²⁰ Bai, anai; jadesi dagidala zuegandik pozbidet au Jaunagan; poztu egizu Kristo'gan nire biotza. ²¹ Uste betean esaneko zaitudalako idazten dautsut, dirautsudan baiño geiago be egingo dozula jakiñik*.

Azkena

²² Onezkero, gertatu egidazu osta-

¹⁵ Jainkoaren naia izan da, ugazabagandik iges egin eban jopua Paulo'ren ondoan kristau bihurtzea, 10. Beraz, Paulo'rentzat maitagarri ba'da, maitagarriago izan bear leuke ugazabarentzat, 16.

¹⁸ Filemon bera be Paulo'k egin eban kristau.

²¹ Paulo'k aditzen emon dautso Filemon'i, 14-16, ondo egingo leukela Onesimo'ri askatasuna emoteaz.

tua be, zuen otoitzen laguntzaz zue-²⁴ baita Markos'ek, Aristarko'k, Di-
kana biotz onez biurtua izango izango
nazala uste dot-eta. mas'ek eta Lukas'ek, nire laguntzai-
lleak be.

²³ Agur egiten dautsu Epafro'k, ²⁵ Jesukristo Jaunaren grazia izan
Jesukristo'gan nire giltzape-lagunak; dadilla zuen espirituagaz. Amen.

PAULO'K EBERTARRAI EGINDAKO IDAZKIA

Jaungoikoaren semea, Aitaren azken-apostolua

1 ¹ Jaungoikoak antxiña gure Gu-
rasoai ainbat aldiz eta eraz Pro-
feten agoz berba eginda gero,
² azken-egunotan bere Semearen
bidez egin dausku berba, Au
(Semea) gauza guztien oiñordeko
jarririk; gizaldiak be Beronen bidez

egin dauz; ³ eta Aren aintzaren
diztira ta Aren izatearen irudia*
izanik eta gauza guztiak bere indar-
raren berbaz eroanik, pekatuen
garbitzea eginda gero, zeru goietan
Jaungoikoaren eskumaldean jesarri
zan, ⁴ aingeruak baiño gorago egiña,
oneik baiño izen bikaiñagoaren jabe
dan aiñan.

I. KRISTO, AINGERUEN GAINETIK

Liburu Santuak diñoena

⁵ Izan be, zein aingeruri esan dau-
tso Aitak bein be: *Zu neure Semea*
zara; Neuk sortu zaitut gaur?; eta
barriri: Aita izango nakio ni, eta
Bera Seme izango yat? ⁶ Eta beste
bein, Leensemea munduan sartuke-
ran be, ba-diño: *Jaungoikoaren ain-*
geru guztiak gurtu begie. ⁷ Ainge-
ruai buruz, barriz, auxe diño:
Bere aingeruak aize, eta bere
morroiak sugar egiten dauzana».
⁸ Semeari buruz, ostera: *Zure erre-*
ge-jarlekua, Jaungoiko!, gizaldiz-gi-
zaldi, eta: Zure errege-makillea,
zuzentasun-makillea. ⁹ *Zuzentasuna*
izan zenduan maite, eta gaiztakeria-
ri gorroto izan zeutsan; orregaitik,
Jaungoiko!, zure Jaungoikoak poz-
orior igurtzi zaitu, zure lagunak bai-
ño geiago. ¹⁰ Eta barriri: *Zuk, Jau-*
na, asikeran lurra sendo jarri zen-
duan, eta zeruak zeure eskuen egin-
tza dira. ¹¹ *Areik ondatu egingo di-*
ra; Zuk, ostera, iraun egiten dozu;
eta guztiak, soiñekoa lez, zaartu
egingo dira. ¹² *Eta soingaiñekoa lez*

batuko dozuz eta soiñekoa lez alda-
tuko dira. Zu, barriz, beti bat zara,
eta zure urteak ez dabe amairik izan-
go. ¹³ Eta, zein aingeruri esan eutsan
bein be: *Jesarri zaitex nire eskumal-*
dean, zure arerioak zure oiñazpian
ezarri dagidazan arte?» ¹⁴ Ez ete-
dira guztiak morroitzarako espiri-
tuak, salbamen a oiñordekotzat artu-
ko dabenai lagun egiteko bialduak?

Sinismenean iraun-bearra

2 ¹ Beraz, entzun doguna ardura
aundiz aditu bear dogu, okerre-
ko bidera joan ez gaitzezan. ² Izan
be, aingeruak* esandako itza sendoa
izan ba'da, eta edozein *agindu*-aus-
tek eta biurkerik ordain zuzena
artu ba'dau, ³ zelan egingo dogu
iges guk, onenbesteko salbamen
aundia gutxizat ba'dogu? Salbamen
au, leenengo Jaunak iragarrita, en-
tzun ebenen autorrez sendotuta eldu
yaku; ⁴ eta arein autorrari Jaungoi-
koak Berea ezarri dautso, ezaugarri,
mirari ta bere aal-izatearen askota-
riko egintzen bidez eta Espiritu

¹ ³ Aitaren diztira ta antza da Semea.
Irudi biok Jk 7 25-26 gn. ataltxoetatik
dagoz jasota. Ikusi: Ur 24 16+; Jn 1
14-18+; Kol 1 15+; cf. Jn 14 6-11+;
e.a.

¹ ¹³ Aipamenak: Sal 2 7; S 2* 7 14;
Dt 32 43; Sal 104 4; 45 7-8; 102 26-28;
110 1.

² ² Aingeruen bitartez artutako *itz* au
Moises'en Legea da, Ap 7 53; zigor gogo-
rren zemaiz bete bear zana.

Santuaren doaiez, bere gogotara bananduta.

Kristo, gure benetako eroslea

⁵ Izan be, azaltzen diardugun etorteko dan mundu au ez dau Jaungoikoak aingeruen menpean itzi. ⁶ Norbaitek autortu be egin eban nunbait: *Zer da gizona aretzaz gomuta zaitezaz?; edo, zer gizasemea, ikustaldia egin dagiozun?* ⁷ *Une baten, aingeruak baiño zerbait txikiagoa egin zenduan; koroi eder eta argitsua ezarri dautsazu buruan;* ⁸ *dana Aren oiñazpian jarri dozu**. Dana Aren oiñazpian jarri dauala esatean, barriz, ez dau Aren azpian egon ez daitekenik ezer be itzi. Baiña orain ez dogu oraindiño Aren azpian dagozala ikusten. ⁹ Une baten aingeruak baiño beeragotutako Jesus Bera, eroan dauan eriotzagaitik, koroi ederrez eta argitsuz jantzita ikusten dogu, orraitino; Jaungoikoaren mesedez, guztion onerako eriotza artu eban-eta.

Zegaitik Jesus'en eriotza?

¹⁰ Izan be, dana Beragaitik eta

II. JESUS, ABADBURU ZINTZO TA BIOZPERA

Kristo, Moises'en gainetik

3 ¹ Beraz, zuek, zerurako deia artu dozen anai santuok, begiratu egizue Jesus, gure autorraren Apos-tolu ta Abadeburua*, ² bere egillearentzat zintzoa dana, Jaungoikoaren etxe guztian Moises izan zanez*. ³ Izan be, Moises baiño be goragariagoa da Au (*Kristo*), etxea baiño

2 8 Sal 8 5-7'garrenetik jasoa (LXX). Izadi guztian nagusi izatea, Kristo aintzatuagandik dator kio gizonari, Ko 1* 15 23-28+, e.a.

2 10 Aitarean borondatera makurtuaz, nekaldi ta eriotza jasan izateak *bikaiñagotu* egin dau Kristo, 11 40, gure salbazille ta santutzaille izateko. Gizonen antzeko bihurturik, 14; 4 15, Jainkoaren aintzatan sartu gaitu beragaz batera, 10, 17, 18; 4 15; 5 2-3.

Beretzat egin dauanari, seme asko eroatean, arein salbamen-egilleari oiñazeen bidez osotzea egokion*.

¹¹ Izan be, Santutzaillea eta santuak, guztiak jatorri batetik datoz. Aregaitik, ez da lotsazen arei izena «anai» emoten: ¹² *Zure izena neure anaiari iragarriko dautset; batzarerdian goratuko zaitut.* ¹³ Eta barrero: *Nire uste ona Aregan jarriko dot.* Eta beste bein: *Ona emen ni ta Jaungoikoak emon eustazan semeak**. ¹⁴ Beraz, semeak aragi ta odol bateko diran ezkerro, Berak be eskuartu eban arekaz, eriotzaren aal-izatea dauan deabrua eriotzaz ondartzeko, ¹⁵ eta eriotzaren bildurrez bizitza guztian morroitzepean egozanak askatzeko. ¹⁶ Izan be, benetan, ez dau aingeruen izatea artu, Abraham'en jatorria baiño. ¹⁷ Orregaitik, danetan anaien antzeko egin bear eban, Jaungoikoarenetan Abadeburu* errukior eta zintzoa izateko ta erriaren pekatuak garbitzeko. ¹⁸ Oiñazetan zirikatua izan zan ezkerro, emon daikeoe laguntza zirikatuai.

etxegillea goragariagoa dan aiña. ⁴ Etxe bakotxa norbaitek egia da; danaren Egillea, barriz, Jaungoiko da. ⁵ Moises, benetan, Aren etxe guztian zintzoa izan zan, esanbearrak autortzeko morroitzat; ⁶ Kristo, barriz, semetzat eta bere etxean. Onen etxea, geu gara, uste ona ta itxaropenaren poza azkenerarte sendo zaintzen ba'doguz.

2 13 Aipamenak: Sal 22 23; Is 8 17, 18.

2 17 Kristo'ri ementxe esaten yako leenengoz *Abadeburu*. Eskutitz onen ardatz eta gai nagusia, Kristo'ren *Abadeburutza* da, ain zuzen be.

3 1 Moises baiño askozaz gorago dago Jesus, 1-6. Berau da Jainkoak gizonen artera bialdua, eta gizonen ordezkoa Jainkoaren aurrean, 2 17; 4 14+; Jn 3 17+.

3 2 Zn 12 7'garrenetik jasoa (LXX).

Sinisgogorkeria ta Jaungoikoaren Jaungoikoaren atsedenean asarrea sartu-bearra

⁷ Beraz, Espiritu Santuak diñoanez*, *Aren berbotsa gaur entzuten ba'dozue*, ⁸ *ez egizuez gogortu zuen biotzak, Biurrialdian lez, basamortuan Zirikaldi-egunean lez* ⁹ *zuen gurasoak zirikatu ta aztertu nendue-nean;* ¹⁰ *eta berrogei urtean ikusi ebezan nire egintzak. Aregaitik, gizaldi onetzaz asarratu egin nintzan, eta auxe esan neban: Biotza beti okerreko bidetik darabille. Baiña ez dabez nire bideak ezagutu;* ¹¹ *beraz, asarre bizitan, zin au egin neban: Ez, ez dira nire atsedenean sartuko.*

¹² Begira, anaiok: ez bego zuetarikoinogan Jaungoiko biziagandik alde egin dagian biotz gaizto ta sinisgogorrik; ¹³ bestetara baiño: «gaur» orrek irauten dauan artean, berotu egizue alkar egun oro, pekatuak iruzur eginda zuetarikoinon be gogortu ez daiten. ¹⁴ Kristo'gaz eskuartzeko gai egiñak izan gara, asierako uste onean azkenerarte sendo irautekotan. ¹⁵ *Aren berbotsa gaur entzuten ba'dozue, ez egizuez gogortu zuen biotzak, Biurrialdian lez, esaten dan artean.*

¹⁶ Izan be, nortzuk izan ziran, *Ari entzunda gero, Aren aurka jarri ziranak?* Ez al-ziran izan Ejipto'tik Moises'en menpean urtendako guztiak? ¹⁷ *Eta, nortzun aurka asarratu zan berrogei urtean?* Ez al-zan pekatu ebin ebenen aurka izan, *basamortuan gorpu geratu ziranen aurka*?* ¹⁸ *Bere atsedenera ez ziralá sartuko,* nortzui egin eutsen zin, esana egin ez ebenai baiño? *Eta badakigu sinisgogorkeriagaitik Agindutako Lurrean ezin sartu izan ziran.*

3 7 Sal 95 7-11'garrenetik jasoa. Aipamen oni Paulo'k egiten dautsan azalpenak kidetu egiten dauz: Agindutako Lu-

4 ¹ Bildur izan gaitzean, ba, *Aren atsedenean sartzeko* agintzariak irauten dauan artean, zuetariko norbait ara berandu eldu ez daiten. ² Areik lez, geuk be artu dogu barri ona. Baiña entzundako itzak ez eutsen onik egin, entzuten ebenakaz ez ziran sinismenez alkartu-ta. ³ Gu, ba, sinistu dogunok, atsedenean sartzen gara, esanda dagoanez: *Asarre bizitan zin egin dodan ezkerro: Ez, ez dira nire atsedenean sartuko,* Jaungoikoaren lanak munduaren asieratik amaituta egozarren.

⁴ Zazpigarren egunari buruz, nunbait olantxe diño-ta: *Eta zazpigarren egunean Jaungoikoak, bere lan guztiak itzita, atsedena artu eban**. ⁵ *Eta barrero ataltxo onetan: Ez, ez dira nire atsedenean sartuko.* ⁶ Beraz, batzuk Beragaz sartuko dirala ta barri ona leenen artu izan ebenak, esanik ez egitearren sartu ez ziralá, argi dagoan ezkerro, ⁷ barrero egun bat, «gaur» bat, izentatzen dau, ainbesteko aldi ondoren leen be esan dana Dabid'en agoz esanez: *Aren berbotsa gaur entzuten ba'dozue, ez egizuez gogortu zuen biotzak.*

⁸ Izan be, Josue'k atsedenean sartu izan ba'leuz, ez leukean arrezkerro *Jaungoikoak* beste egun bat aitatuko. ⁹ Beraz, beste atsedan bat dago Jaungoikoaren erriarentzat. ¹⁰ *Eta Aren atsedenean sartu danak, bere lanetatik be atsedena artzen dau, Jaungoikoak bere lanetatik lez.* ¹¹ *Arin ibilli gaitzean, beraz, atsedenen aretan sartzeko; arein eredu biurkeri aretan inon jausi ez daiten.* ¹² *Jaungoikoaren itza, izan be, bizi, eragintsu ta ortz biko edozein ezpata baiño zorrotzagoa da, eta arima-*

rrean israeldarrak sartzeta, eta kristauok Kristo'ren salbamean sartzeta.

3 17 Cf. Zn 14 29-35.

4 4 As 2 2'garrenetik jasoa.

ko ta espirituko banantze-lerroraiño (*mugaraiño*) sartzen da, baita txoko ta muiñetaraño be, eta biotzeko bururakizun eta asmoak be aztertu egiten dauz*. ¹³ Eta Aren aurrean ez dago izaki ezkuturik; dana billoizik eta agirian dago *gure egintzen* kontua emon bear dautsagunaren begietan.

Jesukristo, Abadeburu Nagusia

¹⁴ Beraz, Abadeburu aundia, Jesus, Jaungoikoaren Semea, zeruan sartuta daukagun ezker, egon gaitzean sendo gure sinismenaren autorrari oratuta*. ¹⁵ Gure makalaldietan ezin erruki izan daiteken Abadeburua ez da-ta; pekatuan izan ezik, edozein neketan geure antzera zirikatua izana baiño. ¹⁶ Urteratu gaitzean, ba, uste onez graziaren errege-jarlekurak, errukia jaristeko ta laguntza egokirako grazia aurkitzeko.

Abadea, zer da?

⁵ Izan be, edozein Abadeburu, gizartetik artuta, Jaungoikoari dagokiozanetan gizonen alde jarria

III. KRISTO'REN ABADETZAREN JATORTASUNA

Beste burubide bat

¹¹ Onetzaz, jardun luze ta ulergatxak egingo doguz, ikasteko astunak biurtu zaree-ta. ¹² Aspaldi danik irakasle izan bear zenuela be, Jaungoikoaren ikasbideko leenengo eza-guerak zuei norbaitek irakatsi-bea-

da, pekatuakaitik eskingai ta opariak eskiñi dagizan, ² baita, bera be argalkeriz inguratuta dagoan ezker, ezjakin eta okertuak samur erabilli dagizan be. ³ Ori dala-ta, erriaren alde lez, bere buruaren alde be opariak eskiñi bear dauz pekatuakaitik. ⁴ Iñok ez dau, barriz, ardura goragarri ori berez beraganatzen, Aaron'i lez Jaungoikoak dei egiten ez ba'dautso. ⁵ Orrela, Kristo'k berak be ez dau Abadeburutza ori artu, *Neure semea zara zu; Neuk sortu zaitut gaur* esan eutsanak emonda baiño. ⁶ Beste nunbait be ba-diño: «*Abade zara zu betiko Melkisedek'en arauz**».

⁷ Au (*Kristo*), bere aragi-bizitzaldian, eriotzatik zaindu aal leukeanari deadar aundiz eta negarrez otoitzak eta eskariak eskiñi eutsazana da; eta entzuna izan zan bere begiruneagatik*. ⁸ Eta Jaungoikoaren Semea izanaren, nekeak eroanda, esaneko izaten ikasi eban; ⁹ eta bikain-bikain, Aren esaneko diran guztientzat betiko salbabide egin zan; ¹⁰ Melkisedek'en saillean Abadeburutzat Jaungoikoak iragarritu.

rrez zagoze; eta janari gogorra baiño esnea dozue bearrago. ¹³ Izan be, esnez azten dana, ez da zindokuntzaren ikasbidea* ulertzeko lain, umea da-ta. ¹⁴ Janari gogorra, barriz, elduentzat da; oitura onaren eta txarraren alde artzeko sena azita dabenentzat.

4 12 Profetakandik eta Kristo'gandik artu dogun *itza* da, 1 1-2, kristauai egindako agintzarien sustrai ta oiñarria. Eskintzari oneik dira Paulo'k goratxoago gogorazotu dauskuzanak, 3 7. Itz ori eraginkor eta zirikatzaile dogu, Ts 1* 2 13+, eta gure biotzak atsedena-billa zintzo dabilztan ala ez, berak ebazten dau.

4 14 Kristo Jainkoaren ondoan dagoala ziur jakiniik, gure sinismenean sendo irauteko laguntza be beragan dogula ziur dakigu, 1 3; 8 1; 7 26; 9 24; e.a.

5 6 Aipamenak: Sal 2 7; 110 4. *Asiera* liburuan agiri dan abade-erregea 14 18+, Kristo'ren irudi da, 7.

5 7 *Aragizko bizitzaldian*, au da, lurrean bizi zala, 2 9, 14. Kristo bere nekaldian Aitaren naira makurtuta egoan oso-osorik, Mt 26 39. Orrexegaitik *izan zan entzuna*, eta eriotza-ondoren goratua, 2 9; Jn 12 27, 31; Flp 2 6-11.

5 13 *Zindokuntza-ikasbide* au, Jainkoak Kristo'ren bitartez irakatsi dauskuna da, Erm 3 21-26, eta Melkisedek errege zuzenaren irudiz iragarri ebana, 7 2.

Kristau-bizitarako burubideak

⁶ ¹ Beraz, Kristo'ri buruzko leenengo ezaguerea alde batera itzirik, onenera jo dagigun, oiñarri-egiak, egintza illen* damuaz, Jaungoikoagan sinistez, ² bateoari* buruzko irakaspenaz, esku-ezarteaz, ildakoen biztueraz eta betiko epaiaz egiok ikutzeke. ³ Eta orixe da egingo doguna, Jaungoikoaren laguntzaz.

⁴ Izan be, bein argituak izan, zeruko doaia dastatu, Espiritu Santua artu, ⁵ eta Jaungoikoaren berba ona ta etorteko dan gizaldiaren miragarriak ezagututa gero, ⁶ jausi diranak ezin barriztu daitezkez barriro damurako, Jaungoikoaren Semea euren aldetik barriro gurutzeratu ta iraingarri egin daben ezker. ⁷ Sarritako euria gaifian artu ta edandakoan, nekazariari frutu ugaria dakarsten lurak, Jaungoikoaren bedeinkapena artzen dau-ta; ⁸ arantzak eta sasilarrak* dakazan lurra, barriz, bazartua izaten da eta madirakatu izateko zorian dago: lur orren azkena, sua izango da.

Itxaropen-berbak

⁹ Onela berba egiten dogunarren, zuekandik, guztiz maiteokandik, salbamenerako ohea ta egokiagoa dan zerbait itxaroten dogu. ¹⁰ Jaungoikoa ez da zuzenbagea, zuen lana ta Aren izenagaitik erakutsi dautsazuen mai-

tasunaz aaztuteko, santuai (*kristauai*) laguntza eroan dautsazuen eta eroaten be iraun dozuen ezkerro*. ¹¹ Ardura ori azkenerarte, itxaropena bete-betean lortu arte, zue-tariko bakotxak erakutsi dagizuela nai dogu, orraitiaño, ¹² nagitu ez zaitezten; oiñordetza sinistez eta eroapenez jaristen dabenen jarraitzaile izan zaitezten baiño.

¹³ Agintzaria Jaungoikoak Abraham'i egin eutsanean, zin egiteko Bera baiño aundiagorik iñor ez eukan ezker, *bere buruagaitik egin eban zin*: ¹⁴ *Bai, eurrez bedeinkatuko zaitut, eta ugaritu be ugaritu egingo zaitut**. ¹⁵ Orrela, Abraham'ek, eroapenez itxaronda, Agintzaria lortu eban. ¹⁶ Gizonak aundiago yaken norbaitegaitik egiten dabe zin, eta ziña da areintzat eztabaidan esandakoen erabateko sendogarria. ¹⁷ Ori dala-ta, Jaungoikoak be, bere asmoaren aldatu-eziña Agintzariaren oiñordekoai eurrez erakutsi nairik, zin egitera jo eban: ¹⁸ aldatu ezin daitezkezan gauza bitik —orreetan be Jaungoikoagan ezin guzurrik izan daitezke-ta—, eskifiitako itxaropenera eldu arte arifieketan diardugunok ardura sendoa izan dagigun. ¹⁹ Itxaropen au zigur eta sendo daukagu, arimearen aingura lez, eta estalki-barrukalderaño sartzen da*; ²⁰ emen (*estalki-barruan*), leenen, Jesus sartu zan gugaitik, Melkisedek'en saillean betiko Abadeburu eginda.

1. KRISTO, ABADE LEBITARRAK BAIÑO GORAGO

Melkisedek, Kristo'ren irudi*

⁷ ¹ Izan be, Melkisedek onek, Salen'go errege ta Jaungoiko gorenaren abadeak, erregeak ondatuta

gero etorren Abraham'egana aurretatuta, oni bedeinkapena emon eutsanak —² eta Abraham'ek *bere aldetik* guztiaren amarrenak emon eu-

6 1 *Egitada illak*, egiazko bizia dan sinismen bagarik egiten diranak dira, 9 14; Erm 8 6, 13; e.a.

6 2 Emen aitaten diran bateoak, aldi areitan urez egin oi ziran *garbiketak* dira. Euron artean Yon Bateatzaillearena.

6 8 Cf. As 3 17-18.

6 10 Cf. Ko 1* 16 1+'an agiri dan dirubateza.

6 14 Cf. As 22 16-17.

6 19 Cf. Ab 16 2, 12. *Estalki barrukalderaño*, au da, zeruraino, 4 14; e.a.; cf. 9. Beraz, Jesus da gure *arimen aingura* sendoa, au da, gure itxaropena, aldatu-eziña dan Jainkoak *zin-egitez* emon dauskun itxaropena, 17.

7 1 *Melkisedek* abade-erregea Kristo'ren irudi zan, 5 6. *Asiera* liburuak, 14 17-20, Melkisedek'en aurretiko ta ondo-

tsazan—, leenengo, «Zuzentasun-errege» adierazoten dau, eta gero, «Salen'go errege» edo «Bake-errege» be bai. ³ Aita bagarik, ama bagarik, jatorri bagarik, bere egunen asiera bagarik eta bere bizitzaren amai bagarik, baiña Jaungoikoaren Semearen antzeko agertzen dan *Melkisedek* onek, abade irauten dau betiko.

Melkisedek, Abraham'en eta Lebi'ren gainetik

⁴ Baiña, ikusi egizue au (Melkisedek) dan aundia, Abraham'ek, guraso nagusiak!, gudaldian batutako amarrenak emon eutsazan au. ⁵ Abadegintza artzen daben Lebi'ren semeak, Legearen aginduz, amarrenak erriagandik, edo bardin dana, euren anaiakandik jaso bear dabez, oneik be Abraham'en belauneko izanarren. ⁶ Arek (Melkisedek'ek), barriz, Abraham'en jatorritik etorri ezarren, amarrenak Abraham'gandik artu ebazan, eta agintzarien jabe zana bedeinkatu egin eban. ⁷ Ezin ukatu daiteke, bedeinkapena artzen dauana, bedeinkapena emoten dautsana baiño txikiagoa dana. ⁸ Eta emen, benetan, gizon ilkorrak dira amarrenak artzen dabezanak; an, barriz, bizi dala autortzen dana. ⁹ Eta, berba baten esateko, amarren artzaillea dan Lebi'k be, Abraham'en bidez, amarrenak emon eutsazan: ¹⁰ oni Melkisedek bidera urten yakonean, oraindiño *Lebi* bere aitaren erraietan egoan-eta.

Lebi'tarren abadegintza ta legea, indarbagnetuta*

¹¹ Zindokuntza Lebi'tarren abadegintzaren bidez ba'letor —Legea erriak *Lebitarren* abadegintzaren bidez artu eban ezker—, zetarako jagi bear izango leuke beste abade

rengoai buruz ezer ez esatean, Kristo'ren abadetza asierarik eta amairik bagakoa dala adierazoten dau, 1-3, 15-17. Melkisedek'ek Abraham'gandik amarrenak jasotean, au eta onen ondorengo lebitar guz-

batek Melkisedek'en saillean, eta ez Araon'en saillean izentatu? ¹² Abadegintza aldatuta, Legea be bear-bearrez aldatzen dalako. ¹³ Izan be, onetzaz esaten diarduguna, beste jatorri batekoa da; eta jatorri areatik ez zan inor altara-gizon izan. ¹⁴ Gure Jauna Juda'gandik zana agirian dago: Moises'ek, barriz, abadegintzari buruz ezer be ez diño jatorri orretzaz.

¹⁵ Eta au, agiriago da gainera, Melkisedek'en antzera beste Abade bat jagi dan ezker; ¹⁶ aragi-legeko agindu baten bidez ez, askatu ezin daiteken biziaren indarrez baiño: ¹⁷ Onetzaz autor au dago esanda-ta: *Abade zara zu betiko, Melkisedek'en antzera*. ¹⁸ Onela, leengo agindua, makala ta alperrekoa zan ezker, indarbagnetu egin zan, ¹⁹ ezer ez dau Legeak bete-betean osotu-ta; Jaungoikoagana urreratzen gaituan uste oberako sarrera zan, ostera.

Kristo'ren abadegintza betikoa

²⁰ Eta zin egiteke ori jazo ez zan ezker —besteak zin bagarik izan dira abade egiñak-eta; ²¹ au (*Kristo*), barriz, zin egiñez egin eban abade, *Jaunak zin egin dau, eta ez da garbatuko: Abade zara zu betiko* esan eutsanak—, ²² Jesus Alkartasun obearen bitarteko izan zan egiña. ²³ Eta areitarikoak asko izan ziran abade egindakoak, irautea eriotzak galerazo egin eutsen-eta; ²⁴ Onek, ostera, beti irauten dauan ezker, betiko abadegintza dauko. ²⁵ Orregaitik, Jaungoikoagana urreratzen diranai, beti be salbamena emon daikeoe, beti bizi da-ta, gure alde egiteko.

²⁶ Egoki yakun orrelako Abadeburua: santua, errubagea, orbanbagea, pekatari artetik ataratakoa ta

tiak baiño geiago zala agertu eban, 4-10. ⁷ 11 Mesias-erregeak, *Melkisedek'en arauz, betiko abadetza izango dauala* diño 110'garren Salmuak. Beraz, lebitarren abadetza ta antxiñako Legea amaitu dira, 18-19.

zeruak baiño goragokoa: ²⁷ bere pekatuakaitik leenen eta erriarena-kaitik gero, opariak egunean-egunean eskiñi bearrik ez dauana, beste abadeak egin bear dabenez; ori bein bakarrik egin eban*, bere

burua eskiñiaz. ²⁸ Benetan, Legeak gizon argalak egin ebazan Abadeburu; Legearen ondorengo zin-itzak, barriz, Semea bikain egin eban betiko.

2. GURTZA, JAURETXEA ETA BITARTEKOTASUNA BAIÑO GORAGO KRISTO ABADEA

Kristo, Alkartasun Barriaren bitarteko*

S ¹ Esandakoetan garrantzirik aundienekoa auxe da: Abadeburu bat daukagula, zeruetan Gorenaren errege-jarlekuaren eskumaldean jesarrita, ² eta Jaunak Berak, ez gizon-ek, egindako toki santuaren eta Txabola jatorraren arduraduna*. ³ Abadeburu dana, eskingai ta opariak eskintzeko dago jarrita-ta; beraz, eskintzeko zerbait euki bear dau. ⁴ Lurrean ba'lego, ez litzake abade be izango, opariak Legez eskintzeko arduradunak ba-dagoz-ta. ⁵ Abade oneik, zerukoaren irudi ta geriza danaren morroitzan diardue, Txabolea egin bear ebanean, Moises'i esan yakonez: *Begira* —esan eutsan Jaunak—: *egizu guztia mendian erakutsi izan yatzun ereduz**. ⁶ Baiña, egiteko ohea artu dau gure Abadeburuak, agintzari obee-tan sendotutako alkartasun bikaiña-goaren bitarteko* dan ezker. ⁷ Leenengo alkartasuna arek akatsik izan ez ba'leu, barriren bat egiñenik ez litzakean. ⁸ *Jaungoikoak*, arei asarre egiñik, auxe dirautse:

Begira: ba-datoz egunak —diño Jaunak—, eta alkartasun barri bat egingo dot Israel'en etxeagaz eta Juda'

ren etxeagaz:

⁹ *ez, ostera, Ejipto'tik arein gurasoak atarateko, eskutik eldu neutsen egunean arek-az egin neban lakoa:*

nire Alkartasunean areik zintzo iraun ez eben ezker, Neuk be bertan-beera itzi neban zan —diño Jaunak—.

¹⁰ *Auxe da —diño Jaunak— egun arein ostantan*

Israel'en etxeagaz nik egingo dot dan Alkartasuna:

Nire legeak adimenean ezarriko dautsedaz, eta biotzetan idatziko.

Eta Neu izango naz arein Jaungoiko,

eta areik neure morroi.

¹¹ *Eta inok ez dautso bere lagun-urkoari*

ezta bere anaiari be irakatsiko,

«ezagutu egizu Jauna!» esanez: guztiak, eurretari txikiak eta

nagusienak, ezagutuko nabe-ta:

¹² *aren gaiztakerietaz errukitu egingo naz,*

eta arein pekatuak ez dodaz barrero gogora ekarriko-ta.

¹³ *Alkartasun «barria» esatean, leenengoa zaartuta itzi eban. Zimeldutakoa ta zaartutakoa, barriz, ondatzeko zorian dago.*

⁷ 27 Kristo'ren oparia bakarra da, bein eta betikoa, 9 12, 26; e.a. Opari orregaz asten da gizadiaren azken-aldia, Ap 1 7+; Ga 4 4+.

⁸ 1 Lebitar abadeak baiño bikaiña-goa da Kristo bere izatean, 7; baita eskeiñi dauan oparia be, 8-9. Opari au eskeiñiaz jarraitzen dau zeruko Jauretzean, 1-5. Jerusalem'go Jauretzea zeruko onen irudi bat baiño ez zan.

⁸ 2 Cf. Sal 110 1; Zn 23 6 (LXX).

⁸ 5 Ur 25 40'garrenetik jasoa.

⁸ 6 Kristo gizon eta Jainko da, bik oso-osorik, 2 10-18; Bera dogu Jainkoaren eta gizonen bitarteko, 9 15+; 12 24; Tm 1* 2 5. Alkartasun barri bat sortu dau Jainkoaren eta gizonen artean, Jeremias'ek iragarrita eukanez 31 31-34+. Cf. Ur 19 1+; Ko 2* 3 6+; Ga 4 21-26.

Kristo zeruko etxean sartzan da
 9¹ Leenengo alkartasunak, beraz, ba-eukazan bere liturji-legeak eta lurreko bere etxe santua. ² Leenengo, Txabola bat izan zan egiña; eta Santua eritzan aldean, argi-mutilla, maia ta opari-ogiak egozan. ³ Bigarren estalki-ostean, Santu-Santua eritzan egon-lekua: ⁴ emen, usaingarrien urrezko altarea eta, alde guztietatik urrez estaldurik, Alkartasun-kutxea; Kutxa-barruan, Barriz, urrezko edontzi bat *manaz*, Aaron'en makillea —zildu zana—, eta Alkartasun-olak egozan; ⁵ Kutxa-gaiñean, gorapen-kerubiñak opari-maiari geriza egiñez. Ez dagokit orain orreitariko bakotxaz berba egiterik.

⁶ Oneik olan atondurik, Txabola-ko leenengo egon-lekuan egunoro abadeak sartzan ziran, opari-lanak egitera; ⁷ bigarreanean, barriz, abadeburua bakarrik, urtean bein, eta ezelan be ez odol bagarik, *ordain* ori bere utsegiñakaitik eta erriarenakaitik eskintzeko. ⁸ Au azalduta, Espiritu Santuak auxe adierazoten dau: Etxe santurako bidea ez egoala zabaldua, leenengo Txabolea zutik egon zeiten artean. ⁹ Antz-irudi ori, oraingo aldiari dagokio: eskin-tzen ziran eskingaiak eta opariak ez ziran onak gurtzaillea barrutik zindotzeko-ta: ¹⁰ jan edariari ta garbiketata batzui buruzko aginduak ziran soillik, aldi barri onetaraiño ezarriak.

Pekatuak garbitzea Kristo'ren bidez*

¹¹ Kristo, barriz, geroko ondasunen Abadeburu agerturik, giza-eskuz egiña ez dan —edo bardin

⁹ 11 Gure pekatuen zorra bere odolaz ordaindu dau Kristo'k, eta ez antxiñako abereen odolaz, Ab 16; Erm 3 24+. Eta Jainkoaganako bidea zabalik ezarri dausku, 10 1, 19; Jn 14 6; Ef 2 18; cf. Ap 21 22+.

⁹ 15 Paulo'k gerkeraz darabilen itzak (*diaceké*), esangura bi dauz: *alkartasuna*

dana, lur onetan egiña ez dan— Txabola obe ta bikaiñagoan zear, ¹² Etxe Santuan bein betiko sartu zan: ez, ostera, akerren eta zekorren odolaz, bere odolaz baiño, betiko crospeña osoturik. ¹³ Zikiñak, akerren eta zekorren odolaz eta beiaeren autsaz txipristinduta, aragi-garbitetarako santutu egiten ba'dira, ¹⁴ askozaz geiago garbituko dau gure barrua egintza illetatik, Jaungoiko bizia otseintzeko, betiko Espirituaz bere buru garbia Jaungoikoari eskiñi eutsanak! ¹⁵ Eta orregaitik, Alkartasun Barri* baten bitarteko da: eriotzaren bidez, leenengo alkartasunean egindako lege-austeak ordaindurik, deituak izan diranak betiko oiñordekotasunaren agintzariak artu dagiezan.

Kristo'ren eriotza

¹⁶ Azken-naia beteteko, bearrezkoa da egillearen eriotza etorri daiten. ¹⁷ Azken-naiak, eriotzaz lortzen dau indarra: aren egillea bizi dan artean, iñoiz be ez dauko indarrik-eta. ¹⁸ Orregaitik, leenengo Alkartasuna be ez zan odol bagarik sortua izan. ¹⁹ Moises'ek erri guztiari Legeko agindu bakotxa irakurri ondoren, txalen eta akerren odola arturik, uraz eta artule gorriaz eta isopuz, Liburua bera ta erri guztia txipristindu ebazan, ²⁰ esanez: *Au, Jaungoikoak zuekax egin dauan Alkartasunaren odola da.* ²¹ Eta era berean Txabola ta gur-gaietarako ontzi guztiak be odolaz txipristindu ebazan; ²² eta Legearen eraz, ia gauza guztiak odolaz garbitzen dira, eta odol-isurte bagarik ez dago parkamenik.

eta *azken-naia*, 8 6+, cf. Ga 3 15-17+. Bere *azken-naiak* indarra eukiteko, bearrezkoa zan Kristo iltea. Eta Alkartasun Barria sortzeko, bearrezkoa zan odola isurtea, cf. Ur 24 6-8. Bein eta betikoa izanik, Kristo'ren oparia Lege Zaarrekoa baiño bikaiñagoa ta indartsuagoa da, 7 27; Mt 20 28.

Kristo'ren oparia

²³ Beraz, bearrezkoa zan zeruko gauzen irudiak garbituak izatea; zeruko gauzak eurak, ostera, opari bikaiñagoen bidez. ²⁴ Izan be, Kristo ez zan eskuz egindako Etxe Santuan —jatorraren irudian— sartu, zeruan bertan baiño, Jaungoikoaren arpegiaren aurrean geure alde aurkezteko. ²⁵ Ezta bere burua sarritan eskintzeko be, Etxe Santuan urte oro abadeburua besteren odolaz sar-

tzen danez; ²⁶ bestela, munduaren asieratik oiñaze-nekeak sarritan artu bear izango leukezan. Orain, barriz, bein bakarrik agertu izan da, bere buruaren opariaren bidez pekatua ondartzeko. ²⁷ Eta gizonentzat bein iltea ta gero auzialdia erabagita dagoanez, ²⁸ Kristo be, guztien pekatuak kentzeko bere burua bein bakarrik eskiñita gero, Aren zain dagozanai bigarren aldiz pekatu bagarik agertuko yake, arei salbamena ekarteko*.

3. KRISTO'REN OPARIA MOISES'EN ALDIKO OPARIAK BAIÑO GORAGO

Kristo'ren opari eraginkorra

10 ¹ Legeak, geroko ondasunen gerizea bakarrik danez, eta ez gauzen benetako izatea, urtean-urtean eten bagarik opari berberak eskiñiaren be, ezin osotu daikez guztiz Jaungoikoagana urreratzen diranak. ² Bestela, gurtzailleak, bein betiko garbi izanda gero, euren barruan pekatuen aztarrenik ez somatzean, ez ete-litzakezan opariok amaituko? ³ Baiña urte oro opari berberotan barritzen da pekatuen gogorapena, ⁴ zezenen eta akerren odolaz ezin kendu daike pekatu-rik-eta*. ⁵ Orregaitik, Kristo'k, gizar-tean sartzean, auxe diño:

Ez zenduan oparirik ez eskingarik nai izan, baiña gorputza eratu daustazu.

⁶ *Pekatuakaitik egindako erre-eskintzak eta opariak ez zenduzan onartu.*

⁷ *Orduan, auxe esan neban: Ona emen ni —liburu-buruan nitzax idatzita dagoanez—, zeure naia egiteko gertu*.*

⁸ Legeak diñoanez egin oi diran

⁹ 28 Cf. Is 53 12. Kristo'ren bigarren etorrerea ez da izango pekatuen zorrak ordaintzeko, Ko 1* 1 7+; 15 23+; Tm 1* 6 14+.

«pekatuakaitik opari, eskintza ta erre-eskingaiak ez dozuzala nai, ezta onartu be» goratxoago esanda gero, ⁹ orduan auxe esan dau: «Ona emen ni, zeure naia egiteko gertu.» Leenengo *Alkartasuna* baztatu egiten dau, bigarrena zutik geratu daiten. ¹⁰ Nai onen indarrez, santu egiñak izaten gara gu, Jesukristo'k bein betiko egindako bere Gorputz-eskintzaren bidez.

Leengo eskintzailleak eta Kristo

¹¹ Eta edozein abadek bere arazoa egiten eta opari berberak egun oro zutik eskintzen diarduan artean —opariok pekatua iñoiz be ezin kendu daikeen ezker—, ¹² Au (*Kristo*), pekatuakaitik opari bat bakarrik betiko eskiñita gero, *Jaungoikoaren eskumaldean dago jesarrita betiko*, ¹³ gerokoaren zain, *Aren arerioak bere oiñazpikotzat jarriak izan arte**. ¹⁴ Opari bat az bakarrik bikaindu ditu santutuak betiko. ¹⁵ Espiritu Santuak be auxe autortzen dauku. Izan be, ¹⁶ *Auxe da —diño Jaunak— egun arein*

¹⁰ 4 Kristo'ren opariaren aurrean, bario guztia kentzen dautse Paulo'k antxiñako opari guztia.

¹⁰ 7 Sal 40 7-9 garrenetatik jasoa (LXX).

¹⁰ 13 Sal 110 1'tik jasoa.

ostean arekaz nik egingo dodan Alkartasuna: nire legeak biotzetan itziko dautsedaz, eta adimenean idatziko dautsedaz

esanda gero,
¹⁷ auxe diño gainera: *Ex dodaz arein pekatuak eta gaiztakeriak gogora ekarriko**. ¹⁸ Gauza onein parkamena egon ezkerro, barriz, pekatuagaitiko eskintzarik ez dago.

IV. FEDE IRAUNKORRA

Sinibidean sendo egoteko

¹⁹ Beraz, anaiok, Jesus'en odolaren bidez, Etxe santuan sartzeko uste sendoa izanik, ²⁰ Berak estalkian zear, edo bardin dana, bere aragian-zear, bide barri ta bizi baten antzera, sarrera bat edegi daukun ezkerro, ²¹ eta Jaungoikoaren etxean Abade aundia daukagun ezkerro, ²² urreratu gakiozan biotz zintzo, sinismen bete-betetz, biotzak barru txar guztitik garbituta, eta gorputza ur utsez txukunduta. ²³ Sendo iraunerazo dagigun itxaropen-autorra, beronen Agintzaria egin dauana zintzoa da-ta.

²⁴ Alkarren ardurea izan dagigula, maitasunean eta egite onetan bizkortzeko. ²⁵ Ez dagiala inok bere batzarrari itzi, batzuek oi dabenez; alkar adoretu egizue, ostera, batez be eguna urreratzen dala ikusten dozuen ezkerro. ²⁶ Izan be, egiaren ezaguera artuta gero, geure gogoz egiten ba'dogu pekatu, gero ez da pekatu-ordaintzat oparirik geratzen, ²⁷ epai ikaragarria ta arerioak iruntsiten dauzan su bizia baiño*. ²⁸ Moises'en Legea austen dauana, bi edo iruren autorrez, erruki bagarik eriotzara galdua izaten ba'da*, ²⁹ zenbateko zigor aundiagoaren gai izango dala uste dozue Jaungoikoaren Semea zapaldu dauana, eta, Alkartasun-odolaz* santu eginda gero, odol ori zikindu dauana, eta graziaren Espiritua iraindu

dauana? ³⁰ Ezagutzen dogu au esan ebana: *Neurea da asperkundera; neuk emongo dot ordaiña*. Eta barrero: *Jaunak epaituko dau bere erria**. ³¹ Ikaragarria, benetan, Jaungoiko biziaren eskuetan jaustea!

Barri Onagaitik nekeak eroapenez eroan

³² Gogoratu egizuez igarotako egunak, argitara eldubarri* zintzazela, neke askoren burruka gogorra eroan zenduenean: ³³ alde batetik, guztien aurrean iraingarri ta erasogarri; bestetik, orrela nekeetan egozanen lagunkide eginik. ³⁴ Izan be, giltzapean egozanen erruki izan zintzazela eta zuei ondasunak kentzea pozik eroan zendenen, ondasun ohea ta iraunkorra zeukela jakiñik. ³⁵ Ez galdu, ba, zuen uste ona, sari ederra dauko beragaz-ta. ³⁶ Iraupena, bearezkoa yatzue: Jaungoikoaren naia beteta, agintzaria jadetsi dagizuen.

³⁷ *Une bat oraindiño, unetxo bat; Etorrotekoa, etorriko da, eta ez da luzatuko.*

³⁸ *Nire zintzoa sinismenez bizi izango da; koldarra ba'da, barriz, ez dau nire arimeak aregan atsegiñik izango*.*

³⁹ Baiña, gu ez gara ondamedirako diranetarikoak, arimea irabazteko zintzo irauten dabenetarikoak baiño.

10 17 Jr 31 33-34*garrenetatik jasoa; cf. 8 8-12.
 10 27 Cf. Is 26 11 (LXX).
 10 28 Cf. Dt 17 6; Mt 26 28+.
 10 29 Cf. Ur 24 8.

10 30 Dt 32 35-36*gn. ataltxoetatik jasoa.
 10 32 Argitara eldu, au da, bateatuak izan, cf. 6 4; Ef 5 14+.
 10 38 Is 26 20 (LXX) eta Abk 2 3-4 (LXX)gn. ataltxoetatik jasoa. Cf. Erm 1 17+.

Sinismen-ereduak Alkartasun Zaarrean

11 ¹ Sinismena, itxaroten dogunaren zigurtasun sendoa da, eta ikusten ez doguzanen erakuspi-dea*. ² Izan be, aretxen bidez lortu eben izen ospatsua gure antxiñakoak. ³ Sinismenaren bidez ezagutzen dogu munduak Jaungoikoaren berbaz izan dirala atonduek: ikusten danak, sortzea ikusten ez danetatik dakarrela. ⁴ Abel'ek Kain'en opariak baiño obeak Jaungoikoari sinismenez eskiñi eutsazan; eta opari arein bidez*, zintzo-autorra lortu eban, aren opariak autorra Jaungoikoak Berak emonik; eta Abel'ek, ilda gero be, sinismenez egiten dau berba. ⁵ Enok sinismenez izan zan eroana, eriotza ikusi bagarik; eta inok ez eban aurkitu, Jaungoikoak eroan eban-eta. Baiña eroana izan baiño leen, bera Jaungoikoari atsegingarri izan yakola autortu izan yakon*; ⁶ sinismen bagarik, ostera, ezin Jaungoikoari atsegingarri izan: Jaungoikoari urreratzen yakonak, Jaungoikoa ba-dala, eta billa dabilkiozanai ordaintzaille zuzena yakela sinistu bear dau-ta*. ⁷ Noe'k, ordurarte ikusten ez ziranen jakitun goi-argiz eginda, bildurrak eraginda, bere etxeakoak gordeteko, kutxea sinismenez egin eban; gizartekoak sinismenez galdu ebazan eta sinistetik datorren zindokuntzaren oiñordeko egin zan.

⁸ Abraham'ek, Jaungoikoak deituta, esana sinismenez egin eban, oiñordekotatasuntzat artu bear eban alderdirantz urteteko, eta nora yoi-an jakiteke urten zan*. ⁹ Agintzari-

lurrean arrotz, erbestean lez, txaboletan sinismenez bizi izan zan, baita Isaak eta Jakob be, agintzari berberaren oiñordekideak: ¹⁰ oiñarri sendoen gainean Jaungoikoak eratu ta egindako uria itxaroten eban-eta*. ¹¹ Sara'k berak, elduegia zala, seindun izateko indarra sinismenez artu eban, agintzaria egin eutsana zintzoa zala sinistu eban-eta. ¹² Aregaitik, gizon bategandik —sortzeko indarrak ez eukan bategandik, gainera—, zeruko izarrak beste ugartitsu ta itxasondoan dagozan ondar zenbatu-eziñak beste seme jaio ziran*.

¹³ Guztiok, sinismenaren eraz il ziran, agintzaririk artu bagarik; baiña areik urrundik ikusirik eta agurturik, eta lur-gaiñean arrotz eta erbesteko zirala autorturik*: ¹⁴ ori diñoenak, aberri bat billatzen dabela adierazoten dabe-ta. ¹⁵ Itzi eben erria gogoan erabilli izan ba'lebe, barriz, bertara biurteko aukeran egongo litzakezan. ¹⁶ Baiña, beste aberri obe bat gura eben, zeruko. Orregaitik, Jaungoikoa ez da lotsatzen arein Jaungoiko-izena beretzeaz, areintzat urri bat gerturik eukan-eta.

¹⁷ Abraham'ek, tentaldian jarria izan zanean, Isaak sinismenez eskiñi eban, eta agintzariak artu izan ebazan seme bakarra zan, ¹⁸ eta Isaak'i buruz auxe esan izan yakon: *Isaak'en bidez izango dozu zure ize-neko ondorengoa**. ¹⁹ Ildakoen arte-tik be Jaungoikoak norbait biztu leikela uste eban Abraham'ek; eta alan, arriskutik Jaungoikoak bat-batean atara eban.

²⁰ Isaak'ek be, Jakob eta Esau si-

11 1 Bizitza-bidean ez gara ondatuko, sinismena dogun bitartean, 10 39. Sinismena Jainkoagan oiñarritzen danez, tinko iraungo dogu bizitzako eraso ta burrukarik gogor eta latzenetan be. Sinismenaren bitartez, aurretiaz gozatzen doguz zeruko ondasunak, 6 5; e.a.; Erm 5 2+; Ef 1 13. Sinismenaren eredu ederrak daukaguz Alkartasun Zaarrean be, cf. Si 44-50.

11 4 Cf. As 4 4.
 11 5 Cf. As 5 24.

11 6 Salbatzen gaituna sinismena Jainko bizi ta ikus-eziñaganakoa da, Ur 33 20+; Jk 13 1+; Erm 1 20. Jainkoak daukun esku-zabaleko maitasunean oiñarritzen da kristaun sinismena, Sal 62 13; Mt 5 12; Erm 2 6+.

11 8 Cf. As 12 1-4.
 11 10 Cf. Ag 2 1, 10-20.
 11 12 Cf. Dn 3 36 (LXX); As 22 17; Ur 32 13.

11 13 Cf. As 23 4; Sal 39 13.
 11 18 Cf. As 22 1-14; 21 12.

nismenez bedeinkatu ebazan, etor- teko ziran ondasunai buruz. ²¹ Ja- kob'ek, il-zorian egoala, Jose'ren se- meak banan-banan sinismenez be- deinkatu ebazan, eta makilla-buruan ezarrita egin eban gur*. ²² Jose'k, il- zorian egoala, Israeldarren urten- aldia sinismenez aitatu ta bere azu- rrai buruzko egitekoa sinismenez erabagi eban.

²³ Moises, jaio-barritan, aren gura- soak umearen edertasuna ikusirik, iru illebeteen gordeta sinismenez eu- ki eben, errege-aginduaren bildurrik izan bagarik. ²⁴ Moises'ek, aundi eginda, Faraon'en alaba baten seme zala sinismenez ukatu eban, ²⁵ peka- tuaz atsegin iragokorraz poza artu baiño Jaungoikoaren erriagaz neke- pean bizi izatea naiago izanik; ²⁶ Kristo'ren iraiñak Ejipto'ko on- dasunak baiño aberatsagotzat artu- rik, sari egokiaren zain egoan-eta. ²⁷ Ejipto sinismenez itzi eban, erre- garean asarrekeriari bildurrik izan bagarik: Ikuseziña ikusi bai'eban, sendo iraun eban-eta. ²⁸ Pazko-jaia ta odol-txipristinketak sinismenez ospatu ebazan; seme nagusien On- datzailleak israeldarrenik ikutu ez egian*. ²⁹ Israeldarrak, legorretik lez, Itsaso Gorritik sinismenez igaro zi- ran; Ejiptoarrak, barriz, andik ber- tatik igaroteko aalegiñak egitean, murgilduak izan ziran. ³⁰ Jeriko'ko arresiak, zazpi egunez inguratuta egonda gero, sinismenez jausi ziran. ³¹ Errahab emagalduta sinismenez ez zan il sinisbageakaz, salatariai egin eutsen abegi onagaitik.

³² Eta, zer esango dot geiago? Je- deon, Barak, Sanson, Jefte, Dabid, Salomon eta profetai buruz berba egiteko astirik ez neuke izango. ³³ Oneik, erreifiñak sinismenez az- piratu ebazan, zuzenbidea egin, agin-

tzariak jadetsi, leioen agoak itxi, ³⁴suaren indarra itzungi (*atzamatu*), ezpatearen agoari iges egin, geisotik osatu, gudan adoretu, eta atzerrita- rren guda-txabolak ezereztu egin ebezan. ³⁵ Emazteak, euren illak, biztuta artu ebezan; batzuk oiñaze- tara jarriak izan ziran, eta areik ez eutsoen askatasunari jaramonik egin, biztuera ohea artzearren; ³⁶ beste batzuek iraiñak eta zigorka- dak eroan ebezan, eta kateak eta gil- tzapea be bai. ³⁷ Ba-dira arrika, oiñaze- z, zerraz eta ezpataz ildakoak be; batetik bestera ibilli ziran, ardi ta auntzen naruz jantzita; beartsu, la- rri ta latz —³⁸ mundua arentzat on ez zan-eta—; lurreko eremu ta men- dietan zear, leza-zulo ta atxarteetan zear galduta. ³⁹ Guzti oneik, barriz, sinismenez autor ona lortuta gero, ez eben agintzaria jadetsi, ⁴⁰ Jaun- goikoak gutzaz zerbait ohea eukan erabagita-ta, eurak gu bagarik bi- kaintasunera eldu ez zeitezan*.

Jesukristo'ren jarraibideak bizkortu egiten gaitu

12 ¹ Beraz, onenbeste autorren odei-erdian gagozan ezker, jaurti dagigun gugandik gure aurka inguratzen gaituan edozein pekatu- sorta, eta eroapenez joan gaitez an- riñeketan aurrean zain daukagun burrukara, ² sinismenaren Iturri ta Elburu dan Jesus'egan begiak jarri- rik; Onek, poza aukeran eukiarren, gurutzea eroan eban —iraiñari ja- ramonik egiteke—, eta Jaungoikoa- ren errege-jarlekuaren eskumaldean dago jesarrita*. ³ Gogora ekarri egi- zue, ba, bere buruaren aurka peka- tariakandik alako biurkeria jasan eban Ori, adorea galduta aspertu ez zaitezen.

guztia, 2 10+; 7 27+. Bere berbizkun- deak zabalik itzi daukuz fededunoi ta Alkartasun Zaarreko zintzoai zeruko ateark, 7 19; 9 9-11+; 10 1. Cf. P 1* 3 19+; Jn 12 32+; e.a.
12 2 Cf. Sal 110 1; Ebr 1 3; e.a.

11 21 Cf. As 47 31.
11 26 Cf. Ur 2 2, 11, 15; Sal 89 51;
Is 53.
11 28 Cf. Ur 12 11, 22-23.
11 40 Kristo'gandik dator salbamen

Larrialdietan gudanako Jaungoikoaren ardurea

⁴ Ez dauzasue oraindiño, odola isurteraiño burrukan egiñik, peka- tuari gogorrik egin, ⁵ eta aaztu egin zaree Jaungoikoak, semeai lez, egi- ten dauzuen burubide onetzaz: *Ene seme!*, ez egizu *bazartu Jaunaren zuzentzea, eta ez galdu gogo ona Arek asarre egin dauzula-ta*. ⁶ *Jaunak, Berak maite dauana, zuzendu egiten dau, eta semetzat artzen dau- ana zigortu egiten dau**. ⁷ Zuzentzea ondo eroan egizue. Semeakaz lez jokatzen dau Jaungoikoak zuekaz. Izan be, ba'al-da aitak asarrerik egi- ten ez dauzsan semerik*? ⁸ Guzti- entzat dan zuzentzea zuzentzat be ez ba'da, sasi-seme zaree, ez seme. ⁹ Gaiñera, aragiz gurasoak ziranak be zuzentzailletzat geukazan, eta lo- tsa ona erakusten geutsen; ez ete- gakiok askozaz geiago menperatuko espirituen Aitari, bizia jaristeko? ¹⁰ Izan be, areik (*gurasoak*) egun gutxiko zoriona emoteko zuzentzen genduezan, ondoen eritzenez; Onek (*Jaungoikoak*), barriz, on yakuna begiraturik, bere santutasunean es- kuartzeko zuzentzen gaitu. ¹¹ Edo- zein zigorrek une aretan pozgarri baiño geiago dirudi mingarri; bai- ña gero, aretan azitakoai zuzenta- sun-frutu baketsuak eskintzen dau- tsez.

Adorea izan egizue

¹² Beraz, artz jarri egizuez esku jausiok eta belaun alduok, ¹³ eta- zuen oiñai bide zuzenak egiezue, errenak bidetik urten ez daitez, osatuta geratu daitezcan baiño. ¹⁴ Guztiakanako bakea billatu egi-

zue, baita santutasuna be: santuta- sun au bagarik, iñok ez dau Jaun- goikoa ikusiko-ta. ¹⁵ Zain egon, Jaun- goikoaren grazia iñok galdu ez da- gian; zuster mingotsek, erneta, gra- zi ori ez dagiala galerazo, ezta sinis- mena usteldu be, eta ez dagiola gi- zataldeari gatxik ezarri be. ¹⁶ Ez daitela iñor aragikeritan edo donga- keritan jausi, bere oiñordetza janari baten ordainez saldu eban Esau lez*. ¹⁷ Geroago oiñordekotasantzat be- deinkapena artu nairik, bazartua izan zana ba-dakizue-ta; eta nega- rrez bedeinkapen-billa ibilliarren, ez eban damu-biderik aurkitu.

Alkartasun Barria dan bikaiña*

¹⁸ Izan be, ez zaree agirizko izata- sunera ta su bizitara urreratu, ezta illunetara, illunpetara, ekatxetara, ¹⁹ turuta-otsetara ta barbarotara be; alako barbaroa entzun ebenak, ez ekiela geiago barbarik egin eskatu eben. ²⁰ Ez eben ondo eroaten agin- dutako au: *Mendia ikutu dagian abereari, arrika egingo dautsoe*. ²¹ Ikuspen ikaragarri aren aurrean, Moises'ek berak be auxe esan eban: *Arriuta nago ta ikara-ikara**. ²² Zu- ek, barriz, Sion-mendira urreratu zaree, Jaungoiko biziaren urira, ze- ruko Jerusalem'era, ezin zenbatu-ala aingeruakana, batzar alaitsutara, ²³ zeruetan idatzitako lensemeen eli- zara, guztien ebazlea dan Jaungoi- koagana, guztiz santu egindako es- pirituakana, ²⁴ Alkartasun Barriko bitarteko dan Jesus'egana, eta Abel'- enak baiño obeto berba egiten dau- an odol-isurtetara.

²⁵ Begira: ez bazartu berba egi- ten dauzuen. Lurrean berba egiten eutsena bazartu ebenak, zigorretik

12 6 Es 3 11-12'garrenetatik jasoa (LXX).

12 7 Garrantzi aundia emoten yako Biblian gurasoak euren umeak ezi ta *zuzentzeari*, cf. Dt 8 5; Jb 5 17; Sal 94 12; e.a. Lurreko neke ta oiñazeen bidez zuzendu ta eroaten gaitu Jaungoikoak santutasunera, 10.

12 16 Cf. Sal 34 15; Dt 29 17 (LXX); As 25 33.

12 18 Alkartasun Barriak uxatu egin dau bildurra, 8 1-6, eta zeruko urira sartu gaitu kristauok, gu Kristo garaillearen inguruan alkarturik, 4 14+; 11 10, 16; cf. Lk 10 20; Ag 21 2+.

12 21 Cf. Ur 19 18, 16; Dt 4 11; Ur 20 19; 19 13; Dt 9 19.

iges egiteko biderik izan ez ba'eban, gutxiago gulk, zerutik berba egiten dauskuna baztartzan ba'dogu. ²⁶ Orduan lurra dardar jarri eban berbotzak, orain agintzari au egiten dau: *Onezkero bein, lurra bakarrik ez, baita zerua be dardaraka jarriko dot**. ²⁷ «Onezkero bein» orrek, gauza aldakorren aldakuntza adierazo-

ten dau, onezkero bete diralako, aldatu ez diran gauzak iraun dagien. ²⁸ Beraz, aldakor ez dan erreinua artzen dogun ezker, gorde dagigun grazia: grazi onen bidez, Jaungoikoaren morroitzan gogo onez, bildurrez eta begirunez jardun dagigun, ²⁹ gure Jaungoikoa su erretzaillea da-ta*.

ERASKINAK

Azken-burubide batzuk

13 ¹ Iraun dagiala zuen artean anai-arteko maitasunak! ² Arrotzakanako txera onaz ez aaztu: abegi oni eskerrak, batzuek, ezer jakiteke, etxean aingeruak artu ebezan-eta. ³ Gogoratu egizuez giltzapekoak, zuek be eurakaz bai'zengozen; baita aurrean erabilliak diranak be gogoratu egizuez, zuek be euren gorputzean bai'zengozen. ⁴ Ezkontza, goragarriztat artu egizue guztiok; ezkonduen ogea, loi bagarikoa izan daitela; aragikerizaleak eta ezkontza-naastailleak, Jaungoikoak ebatziko dauz-ta. ⁵ Zuen bizikerea, diru-gose bagarik izan daitela, dauka-zuenaz pozik bizi izanik: *Ez zaitut itziko, ezta bertan-beera lagako be, Jaungoikoak esan dauanez**. ⁶ Eta ustetsu esan daikegu: *Jauna da nire laguntza; ez naz bildurtuko. Zer egingo daust gizonak*?*

⁷ Gogoratu egizuez Jaungoikoaren itza azaldu eutsuen zuzentzailleak; eta arein bizitzaren elburua ausnarturik, arein sinismena eredutzat artu egizue. ⁸ Jesukristo atzo ta gaur eta betiko, Berbera da. ⁹ Ez ibilli irakaspen aldakor eta arrotzen billa: biotza janariz baiño graziaz sendotzea obe da-ta; izan be, janarion bi-

detik ibilli ziranak ez eben on zani atara. ¹⁰ Guk altara bat dauka-gu, eta Txabola aretako morroiak ez dabe andik jateko eskubiderik*. ¹¹ Pekatuagaitik eskiñitako abereen odola, abadeburuak Toki Santura daroa; arein gorputzak, barriz, *txabolategitik kanpoan erreten dira**. ¹² Orrela Jesus'ek be, erria bere odolaz santutzeko, atetik kanpoan eroan ebazan oiñazeak*.

¹³ Urten gakiogan, ba, etxetik kanpora, bere iraiña geure gainean dogula: ¹⁴ betiko uririk ez dogu emen-eta; gerokoaren billa gabiz, ostera. ¹⁵ Bere bitartez eskiñi daiogun beti Jaungoikoari gorapenezko oparia, edo-ta bardin dana, Aren izena aurtortzen daben ezpanen frutua*. ¹⁶ Alkarri on egiteaz eta lagun izateaz be ez aaztu: olako oparien bidez, Jaungoikoaren ederra irabazten da-ta. ¹⁷ Zuen zuzentzaille diranai, esaneko ta menpeko agertu zakieze: zuen arimai buruz erantzun bear daben ezker, zain bizi dira-ta; orretan pozik jardun dagien, eta ez atsekabez: azken-era au ez litzakizue on-eta. ¹⁸ Otoitz egizue gure alde, barru zintzoa daukagula uste dogu-ta, danetan zuzen jokatu nai dogula. ¹⁹ Otoitz egiteko eskatzen

12 26 Aj 2 6'tik jasoa.
12 29 Dt 4 24+'tik jasoa.

13 5 Cf. Dt 31 6.

13 6 Sal 118 6'garrenetik jasoa.

13 10 Altara au, Kristo'k bere odola isurten dauan gurutzeta da, 11-12, eta ez Eukaristi-maia. Alkartasun Zaarreko Txabola aren serbitzari izaten diarduen judarrak ez dabe parterik gure altaran.

13 11 Cf. Ab 16 27; Ebr 9 6-8.

13 12 Pekatu-zorren ordaintzat oparitan eskeintzen ziran abereen gorpuak uritik kanpoan erreten ebezan, Ab 16 27. Jesus be Jerusalem'dik atarata gurutzeratu eben, Mt 27 32. Bearrezkoa da, ba, kanpora urtetea, au da, judarren eta jentilen siniskera ta oiturak lagatzea.

13 15 Cf. Sal 50 14, 23; Os 14 3.

dautsuet batez be, zuekana lenbailen biurtua izan naiten.

Azken-gurari ta agurrak

²⁰ Jesus gure Jauna, betiko Alkartasunaren odolez ardien Artzain Aundia*, illen artetik jaso dauan Jaungoiko bakezaleak, barriz, ²¹ egite on guztirako osotu zagiezala, Aren gogoa egin dagizuen; baita gudan be atsegin yakona bete dagiala, gizaldiz-gizaldi aintza dagokion Jesukristo'ren bidez. Amen.

²² Burubide-itzaldi au eroapenez onartu dagizuela eskatzen dautsuet, ene anaioi, labur-labur idatzi dautsuet-eta. ²³ Jakin egizue gure anai Timoteo askatua izan dana; laster etorri ba'dadi, beragaz batera joango naz zuek ikustera. ²⁴ Agur egizue zuen zuzentzaille guztiai eta santu (*kristau*) guztiai. Italia'ko *kristauak* agur egiten dautsuee.

²⁵ Jaungoikoaren grazia bego zuekaz guztiokaz.

SANTIAGO'REN IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Santiago'k, Jaungoikoaren eta Jesukristo Jaunaren morroi onek, sakabanatuta* dagozan ama-bi leiñuai, osasuna.

Ezbearretan, eroapena

² Gogoratu egizue, ene anaiok, poz aundia dala tentaldiz inguraturata egotea, ³ zuen sinismenari erasoak iraupena dakartsola jakiniñik. ⁴ Iraupena, barriz, egintza on-ona-kaz lagunduta etorri daitela, bikain-bikaiñak eta akats-bageak izan zaitezen, ezetan utsik egiteke.

⁵ Zuetariko norbaitek, jakintza-bearrean ba'dago, eskatu begio Jaungoikoari —guztiai eurrez eta iñor mindu bagarik emoten dautse-ta—, eta emon egingo yako. ⁶ Baiña sinismenez eskatu begi, ezetariko ez-bai bagarik: ez baitan diarduanak, aizeak itsasoan batetik bestera eragin-eroanka darabilen olatua dirudi-ta. ⁷ Alako gizonak ez dagiala us-te izan Jaunagandik ezer artuko dauanik: ⁸ gizon gogo-bikotxa ta al-dakorra da bere bide guztietan.

⁹ Bizibide apaleko anaia, bere gorapenaz poztu bedi; ¹⁰ aberatsa, barriz, bere beeraldiaz*, albitz-lorea lez igaroko da-ta. ¹¹ Eguzki beroa urten zan, albitza zimeldu, lorea jausi*, eta onen edertasuna galdu egin zan. Olantxe aberatsa be, bere arazoetan zimelduko da.

¹² Zoriontsua, tentaldia ondo

eroan dagian gizona: aretan aztertuta, Jaungoikoak Bera maite dabenai eskiñi dautsen bizitza-koroia artuko dau-ta*. ¹³ Ez begi tentaldian iñok esan: «Jaungoikoak zirikatunau»; Jaungoikoak gaiztakerirako iñori ezin bultzarik egin daikeo, eta Arek ez dau iñor be zirikatzen*. ¹⁴ Norberaren grifia txarrak dira bakotxa zirikatzen, narrasten eta zorutzen dabenak. ¹⁵ Gero, grifia txarrak, sortu ezkerro, pekatua dakar argitara; eta pekatuak, egin ezkerro, eriotza sortzen dau.

¹⁶ Ez ikaratu, ene anai guztiz maiteok! ¹⁷ Sari eder eta ondasun bikain guztiak zerutik dato, aldatzerik ez biurtze-gerizperik be ez dauan argien Aitagandik* jatsita. ¹⁸ Berak nai izanda, egiaren berbaz sortu gaitu, sortutakoetan asikiñak izan gakiozan*.

Benetako onbideak

¹⁹ Jakin egizue au, ene anai maite-maiteok. Izan bedi bakotxa entzuteko zuur, berba egiteko eratsu* eta asarrerako geldia: ²⁰ gizonaren asarrea Jaungoikoaren zuzentasunaz batera ez dator-eta. ²¹ Beraz, loikeri guztia ta gaiztakeri ugaria *alde batera* jaurtirik, artu egizue apal-apalik zuekan mentatutako itza: berba ori zuen arimak onik atarateko lain ba-da-ta. ²² *Jaungoikoaren itza* entzun bakarrik ez, baita eginez bete be egizue, *bestela* zeuen buruak atzipetuko zeukeez-ta. ²³ Itz ori en-

1 1 *Sakabanatutako kristauak*. Jatorriz judar izanik, atzerrian, gerkar eta erromarren munduan bizi ziranai eritxeen; baita jentillen artean bizi ziran kristau guztiai be, naiz-ta jatorriz judarrak izan ez. P 1^a 1 1; cf. Ap 26 7; Ag 7 4; e.a.

1 10 Aberatsa be, txiro ta apalen antzera, goratua izango da, baiña bere burua beeratu ondoren, 1 12; 2 5; 4 13-14; S 1^a 2 7-8; So 2 3+; Lk 1 52; Mt 5 3+; Ag 14 13; e.a.

1 11 Is 40 6-7^{gn}. ataltxoetatik jasoa; cf. P 1^a 1 24-25.

1 12 Cf. Dn 12 12-13; Ur 20 6; Erm

8 28+; Ag 2 10.

1 13 Tentaldian ipinten dau Jainkoak gizona, baiña ez dau gaiztakerira bultzatzen, cf. As 3 3+; Ur 16 4; e.a. Cf. Si 15 11-20; Ko 1^a 10 13; P 2^a 2 9. Pekataria bera da, ba, bere pekatuaren errudun, 15; Erm 7 7-12+; 6 23.

1 17 *Argien Aita*, au da, eguzki ta izarren Egillea, As 1; baita espirituzko argitasun guztiena be, Jn 1 4+; Jn 1^a 1 5+.

1 18 Sinismeneko egiak bizitza barrira sortzen gaitue, Jn 1 12+; 3 3-5; P 1^a 23. Cf. Ko 2^a 5 17+.

1 19 Cf. Si 5 11; Es 10 19; 14 17.

tzun ondoren, bete egiten ez dauanari, izpilluan arpegia begiratzeko dauanari lez jazoten yako: ²⁴ begira dago, ba-doa, eta alde egin orduko, ez da gogoratu be egiten zelakoa dan. ²⁵ Baiña, askatasun-lege* bikaiña ausnartu ta aretan iraun dagiana, entzule alperra izan bagarik, egiñez bete dagiana, orixe izango da zoriotsu bere arazoetan.

²⁶ Bere miiña ezi bagarik, zintzoa dala uste dauanak, bere buruari egiten dautso iruzur, orrelakoaren zintzotasuna alperrekoa da-ta. ²⁷ Jaungoiko Aitaren aurrean zintzotasun garbi ta orbanbagea, auxe da: umezurtzai ta alargunai euron atsekabeetan ikustaldiak egitea, eta mundu onetan loitu bagarik irautea.

Goi-maitasuna

2 ¹ Ene anaiok: ez egizue Jesukristo gure Jaun goragarriaren sinismena norkerietan naastu. ² Zuen batzarrean (*sinagogan*) gizon bat urrezko eraztunez eta jantzi ederrez sartu ba'ledi, eta beste beartsu bat be jantzi loiakaz, ³ eta zuek, jantzi ederduna daroanari begiratuta, «Jesarri emen ondo» esan ba'zengioe, eta beartsuari: «Zagoz zutunik or», edo-ta «Jesarri or lurrean», ⁴ ez ete-zeukee zuen barruan bereizkeririk egingo eta ez zeukee bururakizun gaiztoz epaituko?

⁵ Entzun, ene anai maiteok: Ez al-ebazan Jaungoikoak munduaren eraz beartsu ziranak aukeratu, sinismenean aberasteko ta Bera maite dabena eskiniñitako erreñuaren jabegei egiteko*? ⁶ Zuek, barriz, bear-

tsua iraindu egiten dozue. Ez aldira aberatsak estutzen eta auzitara eroaten zaituenak? ⁷ Ez aldira eura zuek daroazuen Izen ederra birarotzen dabena? ⁸ Baiña, idatzita dagoan Erreiñuko Lege au, *Zure lagun-urkora zeure burua lez izango dozu maite**, beteten ba'dozue, ondo egiten dozue. ⁹ Norkerietan ba'diarduzue, ostera, pekatu egiten dozue, eta Legeak zigortu egiten zaitue, lege-ausletzat artzen zaituela: ¹⁰ Lege osoa beteta be, agindu bat au²¹ dagiana, *agindu* guztien errudun egiten da-ta. ¹¹ *Ezkontzarik ez dozu loituko* esan ebanak Berak, *Ez dozu iñor ilgo** be esan eban. Beraz, ezkontzarik loitu ezarren, norbait il ba'dozu, lege-ausle egin zara. ¹² Askatasunaren legez ebatziak izan bear dabena dagokienez berba egin eta epaitu egizue: ¹³ errukia egin ez dagiana, erruki bagarik izango da ebatzia-ta. Alan be, auzia baiño obe da errukia.

Sinismena ta egintzak*

¹⁴ Zer balio dautso, ene anaiok!, «Nik ba-dot sinismena» diñoanari, egintzarik ez ba'dau? Alakoa sinismenak salbatu ete-daike? ¹⁵ Anai naiz arreberen bat billoizik eta eguneko janari bagarik egon ezker, ¹⁶ zuetariko norbaitek «zoaz bakean, berotu ta ase zaitzez» esan bai baiña gorputzak bear dauana emon ez ba'legio, ori zetarako litzakio on? ¹⁷ Bardin sinismena be: egintzarik ez ba'dau, ilda dago beragan. ¹⁸ Baiña norbaitek auxe esan daike: «Zuk sinismena dozu; nik, barriz, egintzak». Erakutsi egidazu zure sinis-

¹ 25 *Askatasun-lege* au Sinismena da. 18. onartu ta beteten ba'dogu. Ts 1^a 2 13+; Mt 7 24-27; Erm 2 13; Jn 1^a 3 18. Sinismeneko egia askatu egiten dabe gizona, aginduak zintzo bete ba'dagiz, 2 12. Cf. Erm 3 27; 6 15+; 7 1+.

² 5 Beartsuak, 1 9-10+, oraindik dira benetako aberastasunen jabe, So 2 3+.

² 8 Ab 19 18 garrenetik jasoa; cf. Mt 22 34-39+; Erm 13 8-10+.

² 11 Cf. Ur 20 13-14; Dt 5 17.

² 14 Paulo'k diñoskunez, gure egitadak

ez dabe ezetariko ballorik, Kristo'ganako sinismen bagarik. Sinismen onek zindotzen dau pekataria. Erm 1 16+; 3 27; Ga 2 17; 3 22. Baiña benetako sinismena *eragillea* da, maitasunaren bidez, Ts 1^a 1 3; Ga 5 6; eta bakotxa bere egitaden arauz izango da epaitua, Erm 2 6+; e.a. Santiago'k be Abraham'en sinismena dakar eredu lez, 23; As 15 6. Jainkoaren adiskide zintzo izan zan Abraham, Ts 41 8, eta sinisten ebanaren *betetzaille* zeatza. Auxe da *Askatasun-lege bikaiña*, 1 25; cf. Si 44 20-21.

mena egintza bagarik, eta nik nire sinismena neure egintzetatik erakutsiko dautsut. ¹⁹ Jaungoiko bakarra dagoala sinisten dozu, ezta? Ondo egiten dozu. Baita deabruak be sinistu egiten dabe, eta ikaraz jarten dira. ²⁰ Sinismena egintza bagarik alperrekoa dana jakin nai al-dozu, gizon burubage orrek? ²¹ Gure aita Abraham ez ete-zan egintzen bidez zindotu, bere seme Isaak altara-gaiñean eskini ebanean*? ²² Sinismenak aren egintza onetan lagun egiten eutsala ta egintza onen bidez aren sinismena osotu egiten zala ikusten dozu? ²³ Orrelaxe bete zan Liburu Santuak diñoan au: *Abraham'ek Jaungoikoari sinistu egin eutsan, eta zindokuntzarako ezarri yakon, eta Jaungoikoaren adiskide izan zan.*

²⁴ Ikusten dozue: gizona egintzen bidez zindotzen da, ez sinismenaz bakarrik. ²⁵ Bardin Errahab emagaldua be, ez ete-zan egintzen bidez zindotu, mandatariak arturik eta beste bide batetik bialdurik*? ²⁶ Gorputza espiritu bagarik ilda dagoanez, sinismena be, egintza bagarik, ilda dago.

Miiñaren bidez egiten diran pekatuak

3 ¹ Ez zaitze zuetariko asko irakasle* egin, ene anaiok!, zigor audiagoa artuko dogula jakiñik: ² guztioak gauza askotan jausten gara-ta. Berbetan jausten ez dana, ori gizonetzko bikaiña da, bere gorputz osoa lotzeko aiñakoa. ³ Zal diai, esana egin daiskuen, agoan musturrekoa jarten dautsegu, eta orrela arein gorputz osoa artezten dogu. ⁴ Ikusi itsas-ontziak be: audiak izanarren eta aize indartsuak bultza egiten dautsenarren, lema (*timoi*) txiki ba-

tek erabilten dauz artezkariaren (*pilotoaren*) gogotara. ⁵ Bardin, miiña be gorputz-atal txiki bat da, baiña gauza aundietara ausartzen da. Ikusi egizue su apur bat naikoa dala basotzar guztia erretoko. ⁶ Miiña be sua da, gaiztakeri-sorta. Miiña geure gorputz-atal artean dago ipiñita, gorputz osoa loitzen; eta lezako suaz gorituta, geure bizitza guztia goritzen dau.

⁷ Guztietariko pizti, egazti, narrazti ta itsas-abereak ezi daitekezenak dira, eta gizonak ezi egin dauz. ⁸ Miiña, barriz, gizonik batek be ezin ezi daike; *miiña*, gaitz urduri ta eden ilgarri-betea da. ⁹ Jaun eta Aita miiñaz goratzen dogu; eta Jaungoikoaren eredu egindako gizonak be, miiñaren bidez madarikatzen doguz. ¹⁰ Gorapena ta madarikapena ago berberatik datoz. Ez da orrela izan bear, ene anaiok! ¹¹ Zulo beretik ur geza ta ur gazia darion iturririk ba'ete-dago? ¹² Pikondoak maatsik ekarri ete-daike, ene anaiok?, edo maatsondoak pikorik? Ezta itsasoko urak be ezin emon daike ur gezarik*.

Jakituria*

¹³ Zuetariko nor da jakituna ta ikasia? Erakutsi dagizala bere jokabide onaz jakituriaren gozotasunaz egindako egintzak. ¹⁴ Baiña, zuen biotzean ikusi-ezin mingotsak eta eztabaida-espirtua ba'dozue, ez zaitze arrotu, ezta egieren aurka guzurrik be ez egizue esan. ¹⁵ Jakituri ori ez da goitik jatsia; lurrekoa da, abereena, txerrenena. ¹⁶ Ikusi-eziñak eta areriotasuna dagozan lekuan, antxe dagoz naaste ta guztietariko egintza argalak be. ¹⁷ Goitik dan jakituria, leenengo ta bein, garbia da; gero, bakezale, parkabera,

² 21 Cf. As 22 9; Ebr 11 17-19.

² 25 Cf. Jos 2 6; Ebr 11 31.

³ 1 Ez begi iñok norberekeriz irakasle-tza billatu. cf. Mt 23 8; Ko 1^a 12 28-29. Kaltegille izugarria da miiña, eta beronen ardura audiagoa izan bear dabe irakasle

diranak. Cf. Es 10 19; 15 1-4; 18 21; Si 5 11-18; e.a.

³ 12 Cf. Mt 7 16-19; 15 1-4; 18 21; Si 5 11-18; e.a.

³ 13 Cf. 1 5; Ko 1^a 1 17+. Txatal au be *irakasle* zuzentzen dautsela dirudi, 3 1.

adiskidetzaille, errukiz eta frutu ederrez betea, norkeri-bagea, azal-keri-bagea. ¹⁸ Eta zuzentasun-frutua bakean ereiten da, bakea ekarten dabeneztat.

Adiskidetasunaren arerioak

4 ¹ Nondik zuen artean orrenbeste gudu ta burruka? Ez ete-da zuen gorputz-ataletan burrukan diarduan zalekeriakaitik? ² Zalekeria ba-dozue, eta ez dozue ezer jaristen; il egiten dozue, ikusi-eziñez beteta zagoze, eta ez dozue ezer jaristen; alkarri burrukan eta gudu egiten diarduzue*; eta eskatzen ez dozuelako ez daukazue; ³ eskatu egiten dozue, eta zuen griña txarrai atsegiña emoteko, txarto eskatzen dozuelako* ez dozue ezer artzen. ⁴ Ez al-dakizue, zantarrok*, lur onetako adiskidetasuna Jaungoikoaren arerio dana? Lur onen adiskide izan nai dauana, Jaungoikoaren arerio egiten da. ⁵ Liburu Santuak diñoan au: *Zuekan bizi dan espirituak, bera ikusi-eziñak eroan dagiala nai dau;* alperrik diñoala uste al-dozue*? ⁶ Grazi aundiagoa emoten dau oraindiño, diñoan au diñoanez: *Jaungoikoak arroai gogor egiten dautse; apalai, barriz, bere grazia emoten dautse.*

⁷ Jaungoikoari menpetu zakioze, ba; deabruari, ostera, gogor egizue, eta zuekandik urrundu egingo da. ⁸ Urreratu zaiteze Jaungoikoagana, eta Bera be urreratu egingo yatzue. Garbitu eskuak, pekatariok; santutu biotzak, gogo bikook! ⁹ Zuen zoritxarraz mindu ta atsekabetu zaiteze ta negar egizue. Zuen

barrea negar biurtu bedi, eta zuen poza atsekabe. ¹⁰ Beeratu zaiteze Jaunaren aurrean, eta Berak goratuko zaitue.

¹¹ Ez egin mormoxetan alkarren aurka, anaiok. Anaiaren aurka txar-to esaten edo anaia ebazten dauanak, Legearen aurka esaten eta Legearen aurka ebazten dau. Legea ebazten ba'dozu, barriz, ez zara Legearen betetzaille, ebazle baiño. ¹² Bakarra da lege-emoille ta ebazlea, onik atara ta galdu daikena. Zu, ostera, lagun-urkoa ebazten dozun ori, nor zara?

Merkatariai*

¹³ Eta, «gaur edo biar alako urira joango gara, eta an urtebete egongo gara, saltzen-erosten jardungo dogu ta irabaziak lortuko doguz», diñozuenok, ¹⁴ ez dakizue biarkoaz ezer be. Zer da zuen bizitza? Une baterako agertzen dan eta bereala ezerezten dan kea zaree. ¹⁵ Beste au esan bear dozue: Jaunak nai ba'dagi ta bizi ba'gaitez, au edo ori egingo dogu. ¹⁶ Baiña, orain zuen arrokeriaz puztuta zabize. Orretariko arropuzkeria txarra da. ¹⁷ On egiten jakiñarren, on egiten ez dauanak, pekatu egiten dau.

Aberatsen aurka

5 ¹ Eta zuek, aberatsok, garrasika negar egizue gaiñera datorkizuezan zoritxarrakaitik. ² Zuen aberatasuna usteldu egin da, eta zuen jantziaz sitsak janda dagoz; ³ zuen urre ta zidarra ugertu egin dira, eta arein ugerrak zuen aurka autor egingo dau, eta suak lez, zuen aragia

⁴ 2 Kristauen arteko burruka ta alkar aitua ta artu-eziñak.

⁴ 3 Otoitz onak zelakoa izan bear dauan, 7-10.

⁴ 4 Zantarrok. Itz au gerkerazkoan emezkoa da; zantarkeri-alabok esatea lez. Israel'en zintzotasunik-eza gogorazoten dauku. Os 1 2+; Ko 1* 11 2+.

⁴ 5 Aipamen au ez dakigu nundik jaso-

ta dagoan. Cf. 2 7; 5 7-9, 12; Mt 7 1+; Iñor epaitzea maitasunaren aurka doa, eta maitasuna da kristauen Lege Nagusia. 11: 2 8.

⁴ 13 Urrango itz gogor eta zorrotz oneik Alkartasun Zaarreko profetenak dakarskuez gogora, Is 5 8-10; Am 2 6-7; e.a. Aberastanuk aberatsen aurka jagiko dira auzi-egunean.

jan egingo dau. Azken-egunetarako batu dozuez ondasunak*. ⁴ Zuen soletan ebagi daben langilleai emon ez dautsezuen saria deadarka dago, eta igitarien (*segalarien*) deadarrak gudarozteen Jaunaren belarrietara eldu dira. ⁵ Lurrean gozatsu bizi izan zaree ta atsegiñetara makurtu; ⁶ *gizon* zuzena ondatu ta il egin dozue, eta arek ez dautsue gogorrik egin.

Eroapena

⁷ Beraz, anaiok, eroapena izan egizue Jaunaren Etorrera arte. Begira: nekazaria lurak dakarren frutu ederraren zain egoten da, eta eroapenez dago goiz-beranduko euria artu arte. ⁸ Itxaron zuek be, biotzak indartuaz, Jaunaren Etorrerea ur dago-ta. ⁹ Ez jardun, anaiok, alkarren kontrako min-egiñak esaten, ebatziak izan ez zaitez. Begira: onezkerio Ebazlea ataurrean dago. ¹⁰ Jaunaren izenean berba egin eben Profetak artu egizue, anaiok, neke ta eroapen-eredutzat. ¹¹ Begira: leen nekeak eroan ebezanak, orain zoriontsutzat doguz. Ba-dakizue Job'en eroapena, eta Jaunak ari emon eutsan ondorena: Jauna biozpera ta errukitsua da-ta*.

Ziñak

¹² Baiña, leenengo ta bein, anaiok, ziñik ez egin, ez zeruagaitik, ez lurragaitik, ezta bestetariko ziñik

be. Zuen baietza «bai» izan daitela, eta zuen ezetza «ez», auzigarritan jausi ez zaitez*.

Otoitza

¹³ Zuetarikoren bat atsekabetuta al-dago? Otoitz egin dagiala. Pozik al-dago? Abestu dagiala. ¹⁴ Zuetarikoren bat geisorik al-dago? Elizearen abadeai dei egin dagitsela, eta oneik aren alde otoitz egin dagiela, Jaunaren izenean orioaz *geisoa* igurtzirik*. ¹⁵ Eta sinismen-otoitzak ogean dagoan geisoa onik atarako dau, eta Jaunak a jagiako egingo dau; eta pekatuak egin ba'dau, parkatu egingo yakoz. ¹⁶ Autortu egizue, ba, alkarri zuen pekatuak, eta otoitz egizue alkarren alde, osatuak izan zaitez. Zintzoaren otoitz adoretuak indar aundia dauko. ¹⁷ Elias*, geu lako gizona zan, eta euririk ez zeitela jatsi eskatu eban, eta iru urte ta sei illebetean ez zan lurgaiñera euririk jatsi. ¹⁸ Eta barrero otoitz egin eban, eta ortziak (*zeruak*) euria baldu eta lurak bere frutua emon eban.

¹⁹ Ene anaiok: zuetarikoren batek egiatik okertu ba'dadi, eta beste norbaitek bide onera biurtu ba'dagi, ²⁰ jakin begi pekataria bide okerretik zuzenera ekarri dagianak, bere ari-mea eriotzatik onik atarako dauana eta pekatu-pillo aundia estalduko dauana*.

⁵ 3 Azken-auziari buruz diardu emen. 7-9; 4 12. Ain zuzen be, gizadiaren azkenaldietan gagoz, Ko 2* 6 2+; cf. Jk 2 10-20.

⁵ 11 Cf. Ur 34 6; Sal 103 8; e.a.

⁵ 12 Cf. Mt 5 34-37.

⁵ 14 *Geisoa igurtzea*. Abadeak, Jaunaren izenean, geisoaren onerako ta pekatuen parkamenerako egiten daben igurtze onetan *Untziñoko* edo *Igurtzeko Sa-*

kramentua ikusten dau Elizeak.

⁵ 17 Elias'ena artzen da emen egiazko otoitzaren eredutzat, Er 1* 17 1; Si 48 2-3.

⁵ 20 Es 19 12+'garrenetik jasotakoa. Urko-lagunaganako maitasunak, bide onera ekarten dau bide-galdia, Mt 18 15; Ts 1* 5 14; eta, bide batez, norbere onerako izaten da, cf. Lk 7 47; P 1* 4 8; Jn 1* 3 20.

PEDRO'REN LEENENGO IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Pedro'k, Jesukristo'ren apostolu onek, atzerriko* Ponto'n, Galazia'n, Kapadozia'n, Asia'n eta Bitinia'n zabaldua zagozuenoi; ² eta Jaungoiko Aitarene betiko jakintzaz, Espiritu Santuaren santutasunaz, Jesukristo'ren esaneko izatera ta odol-isurtera aukeratuak izan zareenoi*, grazia ta bakea ugaritu daki-zuezala.

Eskerrak emotea

³ Bedeinkatua Jesukristo gure Jaunaren Jaungoiko ta Aita, bere erruki aundiz illen artetik Jesukristo'ren biztueraz, itxaropen bizirako sortu gaitu barriro-ta, ⁴ zuentzat zeruan ezin usteldu, loitu ta zimeldu daiteken ondasunerako. ⁵ Zeuentzat, bai, sinismenaren bidez, azken-aldian agertzeko gertu dagoan salbamena jaristeko, Jaungoikoaren indarrak zainduta zagozontzat*. ⁶ Ori dala-ta, poztu egiten zaree, orain, une baten beintzat, bearbada tentaldi batzuetan atsekabetuta zagozenarren: ⁷ zuen sinismen garbia, sutan garbitutako urre galkorra baiño askozaz bikaiñagoa dana, Jesukristo'ren Agertaldian gorapenerako, aintzarako ta osperako gai biurtu daiten. ⁸ Bera maite dozue zuek, ikusi ez dozuela be, eta Bera ikusi ezarren, orain Bera sinisten dozue ta esan eziñezko poz zoragarriz alaitzen

¹ 1 Cf. St 1 1. Kristauak mundu onetan atzerrian lez bizi dira. 2 11; Erm 12 2+; Flp 3 20; Ebr 13 14.

² 2 Ataltxo onetan Aita, Semea ta Espiritu Santua aitatzen dira. Iru Personok gudan egiten dabena azalduko dau 3-12'gn. ataltxoetan; cf. Ko 2* 13 13+.

³ 5 Jainkoak gure salbamenerako egin dauan guztia ez dogu jakingo gizaldien azkenerarte, 7, 13, 20; 4 13; Ko 1* 1 7-8+; St 5 7+. Cf. Erm 8 17-18+; Kol 3 4.

zaree, ⁹ zuen sinismenaren frutua dan arimen osasuna jaritsirik.

¹⁰ Zuei egindako graziaz itz egin dabene profetak, osasun au erabillean gogoan eta aztertu eben*, ¹¹ eurakan egoan Kristo'ren Espirituak iñoana noizko ta zein alditako ete-zan azterturik, Kristo'ren nekeak eta neke-ondoko goraldiak aurretiaz esatean. ¹² Eta eginbide au, eurentzat bagarik, zeuentzat iragarten ebela jakiñerazo yaken. Eta gaiok, Barri Onaren iragarleak* zerutik bialdu-tako Espiritu Santuaren indarrez ezaguerazo dautsueez orain; eta aingeruak eurak be gaiok arduraz begiratu nai dabez.

Kristauaren santutasuna

¹³ Beraz, estutu egizue zuen adimenaren gerriak, izan zaiteze guztiz neurridunak eta jarri egizue zuen itxaropen osoa Jesukristo'ren Agertalditik datorkizuen grazian. ¹⁴ Seme esanekoai dagokienez, ez egizue leengo illunaldiko zalekeriai jarraitu, ¹⁵ bestetara baiño: dei egin dautsuen Santua eredutzat arturik, zeuek be guztitan santu izan zaiteze, ¹⁶ idatzita dago-ta: *Santu izan zaiteze, neu be santu naz-ta**.

¹⁷ Bakotxak egindakoen negurritz, norkeri bagarik, ebazten dauan Ari, Aita esaten ba'dautsazue, erbeste onetako aldi guztian bildurrez bizi zaiteze, ¹⁸ zuen gurasoakandik artu-

¹ 10 Espiritu Santuaren argiz jakin eben profetak Kristo'k ekarrirako salbameneraren aunditasuna, cf. Ko 1* 10 4+; Lk 24 44.

¹ 12 Geure artean dagoan Kristo'ren misterioa iragarten dabe Apostoluak, Erm 16 25+. Misterio onen barri, sinismenez eta itxaropenez daukagu, 3-5.

¹ 16 Ab 17 1+'garrenetik jasoa; cf. 19 3-6. Urrengo ataltxoetan Urteera liburuarri buruzko aipamenak somatzen dira tariteka. Oso antxiña, Bateorako *katekesian* erabilten ziranak dira.

tako ekandu alperretatik ezer ustelkorrez, ez urrez, ez zidarrez erosiak* izan ez zareena ba-dakizue-ta, ¹⁹ Kristo'ren odol bikaiñaz erosiak baiño. Auxe da bildots garbi ta loi bagariko, ²⁰ lurra lur izan baiño leen ezagutua, eta azken-aldiotan zeuekaitik agertu dana. ²¹ Bere bidez sinisten dozue zuek Jaungoikoagan; eta Onek biztu ta goratu egin dau illen artetik, zuen sinismena ta itxaropena Jaungoikoagan izan daitezcan.

²² Beraz, egiaren menpera etorri-rik, zuen biotzak benetako maitasunerako garbitu dozuezan ezkerro, biotz garbiz maite egizue alkar, gartsu: ²³ ez zaree barriro azi ustelkorretik jaiota, ezin usteldu daitekenetik baiño, Jaungoikoaren berba bizi ta betikoaz*. ²⁴ *Aragi guztiak bedar antzekoak dira, eta aren gorapen osoa bedar-lorea lez. Bedarra igartu ta lorea jausi egiten da.* ²⁵ *Jaungoikoaren itzak, barriz, betiko irauten dau**. Eta orixe da iragarri yatzuen itza.

Giltzarria

2 ¹ Beraz, jaurti egizuez gaiztakeri ta maltzurkeri guztiak, azaluskkeri, ikusiez in eta txarto-esan guztiak, ² eta, ume jaiota-barriak lez, bil-latu egizue espiritu-esne utsa, aren bidez salbamenerako azi zaitezen: ³ Jauna ona dala dastatu dozue-ta*. ⁴ Urreratu zakioze, arri bizia Bera da-ta: gizonak baztartua, bai, baiña Jaungoikoak aukeratua ta ederretsia. ⁵ Zeuek be, arri bizi lez, espirituzko etxe ta abadegintza santu izateko zaree jasoak, eta Jesukristo'ren ederragaitik Jaungoikoak onartu daike-

¹ 18 Cf. Is 52 3.

¹ 23 Bir-jaiotea, 1 3, eta kristautasunean azitea, 2 2, Jainkoaren Itzari zor dautsagu, St 1 18+.

¹ 25 Cf. Is 40 6-8; cf. St 1 10-11.

² 3 Sal 34 9.

² 8 Is 28 16+; Sal 118 22+; Is 8 14-15. Israel'en sinisogorkeria be Jainkoaren asmoetan sartzen da, cf. Jn 12 40+; Ap 4 11+.

zan espirituzko opariak eskintzeko; ⁶ *Liburu Santuan* idatzita dago-ta: *Ona emen giltzarri aukeratu ta bikaiña, Nik Sion'en jarria; eta aregan sinistea dagianik, ez da lotsatuko.*

⁷ Beraz, zuentzat, fededunontzat, goragarri da; sinisbageentzat, ostera, *etxegilleak bazartu eben arria bera, giltzarri biurtu da, 8 laban-ari ta gaizpide-arkaitz.* Ez sinisturik, berba orretan larrapak egiten dabe, itz ori artzeko deituak izan ziranarren*.

⁹ Zuek*, ostera, jatorri aukeratua zaree, errege-abadetza, enda santua, erri aukeratua, illunetik bere argi zoragarritara dei egin dautsuen Aren gorapenak iragarri dagizuezan. ¹⁰ Leen erri ez zintzazenek, orain Jaungoikoaren Erri zaree; *leen* errukirik lortu ez zenduenok, orain errukia jadetsi dozue.

Kristauen eginbearrak: Jentillen artean

¹¹ Arrotz eta bidelari* zareenez, anaiok, arimearentzat kaltegarri diran aragi-grifetatik alde egin dagizuela eskatzen dautsuet. ¹² Eroan egizue bizikera eredugarria jentillen artean: dongatzat zaituenak, zuen egintza onak ikusirik, *Jaunaren* ikus-taldi-egunean egintza donga dirudienotan Jaungoikoa goratu dagien.

Agintariakanako menpetasuna*

¹³ Jaunaren maitasunagaitik, ma-kurtu zakioze edozein giza-agintaritzari: naiz erregeri, agintari nagusi dalako, ¹⁴ naiz erri-buruai, gaiztoak zigortzeko ta zintzoak goratzeko Berak. (*Jaungoikoak*) jarri dauz-ta. ¹⁵ Auxe da Jaungoikoaren naia: zuek

² 9 Jainko-erriari dagokiozan mesede ta eskubideak, Israel'i kendu ta Elizeari emoten yakoz, 5; Ur 19 3-6; Is 43 20-21; Os 1 2-3; 2 25; cf. Erm 9 25-26; Ag 1 6.

² 11 Cf. Sal 39 13; Ebr 11 13; P 1* 1 1+.

² 13 Cf. Erm 13 1+; Tt 3 1.

ona dana egiñez, burubageen jakiñe-za isillerazotea; ¹⁶ zuen buruaren jabe lez, eta ez askatasuna gaiztake-ria estaltzeko erabillirik, Jaungoikoaren menpeko lez baiño. ¹⁷ Guztiai lotsa agertu egiezue, maite egiezue zuen anaiak, Jaungoikoari bildur izan, eta erregeari begirunea.

Morroiak

¹⁸ Morroi zareenok, egon zaitez bildur aundiz zuen ugazaben menpean, biotz-oneko ta negurridun diranen menpean bakarrik ez, baita okerrak diranen menpean be. ¹⁹ Jaungoikoaren ederragaitik bidebagekeriz egindako nekeak eroatea, egikera ederra da. ²⁰ Okerra egin dozuela-ta, zartadak artu eskero, zelan arrotuko zintzakeze, ba? Ona dana egin ezker, oster, nekeak eroapenez eraten ba'dozue, ori, bai, ori Jaungoikoaren aurrean egikera ederra da, ²¹ orretarakoxe izan zintzazen deituak-eta. Kristo'k be zuekaitik nekeak eroan ebazan, Aren lorratzai jarraitzeko eredu zuei itzirik*. ²² Ez eban pekatuak egin, eta *Aren agoan ez zan iruzurrik aurkitu*; ²³ iraindua izanik, ez eban iraiñaz erantzuten; oiñazetua izanik, zemaika asi bagarik, ebazle zuzenaren eskuetan izten eban bere auzia. ²⁴ Berak eroan ebazan bere gorputzean gure pekatuak egur-gaiñean: gu pekatuentzat ilda, zuzentasunarentzat bizi gaitetzan. Aren zaurien bidez izan gara osatuak. ²⁵ Leen, ardi galduak lez zebizen; baiña orain zuen arimen Artzain eta Jagoleagana biurtu zaree*.

Senar-emazteak

3 ¹ Zuek, be, emazteok, zagoze senarren menpean: eurotariko nor-

² 21 Bizitzako neke ta oiñazeetan Jesus da gure eredu, Jn 13 15; Ko 1^a 11 1+; Flp 2 5, gure pekatuakaitik gurutzeratua izan zana, 3 18; Is 53 4-12; cf. Ap 2 23; e.a.

² 25 *Ardi galduak*, Is 53 6, eskerrak sinismenari, artaldean sartu dira, Jn 10

baitzuek Itza sinisten ez ba'dabe, emazteen jokabideaz, berba bagarik, irabaziak izan daitezcan, ² zuen egikera garbi ta eratsua ikusirik. ³ Zuen apainkerea ez bedi ule kopetaz, urrezko pitxiz eta soifneko ederrez azalekoa izan, ⁴ biotz-barruko apainkera ezkutua baiño, ezin usteldu daiteken arima bigun eta baretsuan dagoana. Orixe da bikain Jaungoikoaren aurrean. ⁵ Beiñolako andra on areik be orrelaxe apaintzen ebezan euren buruak, senarren menpean Jaungoikoaren zain egozala. ⁶ Orrela Sara'k Abraham'i esana egin eutsan, oni «jaun*» esaten eutsala. Eta Sara'ren alaba egiñak zaree zuek, onbidean ezeren bildur bagarik ibiltan ba'zaree.

⁷ Zuek be bardin, senarrok: bigun erabilli egiezue zuen emazteak, ontzi makaltxoagoak dira-ta; begirunea agertu egiezue, Bizitza-graziaren oiñordekideai dagokienez. Orrela, ez dabe zuen otoitzak eragozpenik aurkituko.

Guztiakanako eginbearrak

⁸ Azkenez, izan zaitez guztiok gogo bateko, biozperatasunez, errukiz eta apaltasunez beterik; ⁹ txarra dana txarraz ordaindu bagarik, ezta iraiña iraiñaz be*, bestetara baiño: bedeinkaturik, onetarakoxe izan zaree deituak-eta, bedeinkapenaren oiñordeko izateko. ¹⁰ Izan be,

*bere bizi maite dagianak
eta egun zoriontsuak ikusi nai
dagizanak,
zaindu begi miñña gatzetik
eta bere expanak guzurrezko itzetatik;*

¹¹ *aldendu bedi txarretik eta ona egin begi;
billatu begi bakea ta oni jarraitu*

11-16+. Jesus da artalde onen Artzain eta Jagolea. Cf. 5 2-4+.

³ 6 Cf. As 18 12 (LXX).

³ 9 Arerioak be urko-lagunaganako maitasunean sartzen dira, Mt 5 38-39+; Ts 1^a 5 5. Errukitsuak artuko daben bedeinkapena azaltzen da Sal 34 13-17/gn. ataltxoetan.

begio:

¹² *Jaunaren begiak zintzoen gaiñean dagoz-ta;
Aren belarriak, barriz, zabalik,
arein otoitza entzuteko;
baiña Jaunaren arpegia gaiztake-ria egiten dabenen aurka dago.*

¹³ On egiten arduratzen ba'zaree, nok egingo dautsue kalterik? ¹⁴ Alan be, zuzentasuna dala-ta, nekerik eroan ba'dagizue, zoriontsuak zuek! *Ez egizue arein (zuen arerioen) bildurrik izan, ezta artegatu be;* ¹⁵ Kristo jauna gurtu egizue*, oster, zuen biotzetan, eta beti zuur egon zaitezue zuen itxaropenari buruz itandu dagitzuen edonori erantzuteko, ¹⁶ bigun eta lotsaz, baiña. Izan egizue barru zintzoa: Kristo'ganako zuen jokabide ona baltziten dabenak, zuen lepotik diñoenaz lotsatuta geratu daitezcan. ¹⁷ Izan be, obe da —Jaungoikoaren naia alan izan ezker— txarra egitearren baiño *egintza* ona egitearren nekeak eroatea.

Kristo eredutzat

¹⁸ Kristo be kein il zan pekatuakaitik, zintzoa zintzo ez garanokaitik, gu Jaungoikoari eroateko; aragieraz eriotzara emona, baiña espiritu-eraz barru biztua. ¹⁹ Une onetan giltzapean egozan espirituai iragartera joan zan*, ²⁰ beiñola sinisgogor ziranai, Noe'ren egunetan Jaungoikoaren eroapena zain egon yakenean, Noe'k Kutxea gertatzen eban artean: Kutxa aretan lagun gutxi, zortzi, urten ziran onik uraren bidez.

³ 15 Cf. Is 8 12-13 (LXX). Kristauak munduaren aurrean, 2 12, eta batez be auzitegietan emon bear daben autorra, Sinisbageak ez dabe itxaropenik, Ef 2 12. Ts 1^a 4 13.

³ 19 Eriotza-ondoren, berbiztu aurretik, Jesus Hades'era (Inpernuetara) jatsi zan, Mt 12 40; Ap 2 24, 31; Erm 10 7; Mt 16 18+. *Giltzapean egozan espirituai salbamen-mandatu iragarri eutsen*, 4 6. Espiritu oneik, deabruak izan zeitekezan, Kristo'k menperatuak, 22; edo obeto, aurretiko zintzoen arimak, Mesias'en zain egozanak, cf. Mt 27 52.

³ 21 *Kutxa aren eredu dan urak*. Itzeitz: *Kutxa ari dagokio*. Irudia ta eredu

²¹ Orain be, Kutxa aren eredu dan urak* ataraten zaitue onik bateoan: ez aragi-loiak garbiturik, Jesukristo'ren Biztueraren bidez Jaungoikoari barru garbia eskaturik baiño. ²² Jesukristo, zerura igo ta Aingeru, Agintari ta Indardunak Aren menpera etorrita gero, Jaungoikoaren eskumaldean dago*.

Kristo'ren jatsiera inpernuetara

4 ¹ Beraz, Kristo'k aragitan oiñazeak eroan ebazan ezker, zuek be artu egizue iskillotzat (*armatzat*) burubide au* —aragi-oiñazeak eraten dauzanak, itzi dau pekatuata—, ² gaiñetiko zuen aragi-bizitza Jaungoikoak nai dauanez bizi izateko, eta ez giza-zalekerien eraz. ³ Onezker, astirik naikoa emon dozue jentillen naia egiten, nasaikerietan, eta sisi-jainkoen gurkeri iguin-garrietan bizi izanik. ⁴ Arrituta dagoz orain areik alako galdukeri neurri-bageetan arekaz batera naasten ez zareelako, eta iraiñez beteten zaitue. ⁵ Baiña, biziak eta illak ebazteko gertu dagoanari erantzun bear izango dautsoe. ⁶ Ildakoi be onetarakoxe iragarri izan yake Barri Ona, aragi-aldeetik gizonen eritiziz galduak izanarren be, espirituaren aldeetik Jaungoikoaren eraz bizi izan daitezcan.

⁷ Gauza guztien amaia ur dago*. Izan zaitezue, ba, zuur eta neurridun, otoitzari ekin dagiozuen. ⁸ Batez be, alkar maite egizue beti, *maitasunak pekatu asko estaltzen dauz-ta**. ⁹ Al-

daukaguz emen, Ko 1^a 10 6+. Noe'ren kutxea, banaka batzuen salbamenerako soillik izan zana, bateoaren irudi zan, As 7 7; P 2^a 2 5. Bateoa, barriz, gizaseme guztien salbamenerako da: bere balioak ez dauko negurrik, cf. Erm 6 4+.

³ 22 Cf. Ap 2 32-33; Ef 1 20-22+; Flp 2 9-11+.

⁴ 1 Kristo'gaz, beronen neke ta eriotzan, alkaturik, 3 18, kristauak erraz azpiratu daitez pekatuaren ondoren, Erm 1 28, 32; 6 2-3, 7; Jn 1^a 2 16-17.

⁴ 7 Cf. 1 5; 4 17; Flp 4 5+; St 5 3-8+.

⁴ 8 Es 10 12'garretetik jaso; cf. St 5 20+.

kar artu egizue etxean, mormoxeta bagarik. ¹⁰ Bakotzak artu dauan doata besteen onerako erabilli dagiala, Jaungoikoaren askotariko grazien banatze-arduradunai dagokienez*. ¹¹ Norbaitek berba egiten ba'dau, Jaungoikoaren agoari dagokioenez egin begi; egikizunen baten ba'diardu, Jaungoikoak emondako indarrez lez egin begi, edozetan Jaungoikoa goratua izan daiten, Jesukristo'ren bidez: Beronena da agintaritzza gizaldiz-gizaldi. Amen.

Larrialdietan erabilli bear dogun poza

¹² Ez ikaratu, maiteok, zuen azterketarako zuen artean biztu dan suaz*, oi ez dan zerbait jazoten yatzuelakoan; ¹³ bestetara baiño; poztu zaitzeze Kristo'ren neke-lagun izanaz: Aren aintza agertu daitenean be, pozez beterik egon zaitezen. ¹⁴ Zorionekoak zuek, Kristo'ren ize-
nean irainduak ba'zaree! : aintzaren eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan dago-ta. ¹⁵ Zuen artean ez dagiala zigorrik eroan giza-iltzaille, lapur, gaizkille, naiz besteen zalekoi dala-ta; ¹⁶ baiña, kristau izateagaitik, inok nekerik eroan bear ba'dau, ez bedi alakoa lotsatu; Jaungoikoa goratu begi izen ori eroateagaitik. ¹⁷ Jaungoikoaren etxetik auzia aste-ko sasoiu eldu da. Geugandik asten ba'da, barriz, zein izango da Jaungoikoaren Barri Ona sinistu ez dabenen azkena*? ¹⁸ Eta zintzoa onik oxta-oxta urtetan ba'da, zer izango da dongeaz eta pekatariak*? ¹⁹ Beraz,

4 10 Espiritu Santuagandik artutako doai edo *karismak* kristau-taldearen onerako dira, Ko 1^a 12 1+; cf. Erm 12 6-8.

4 12 *Biztu dan sua*. Elizearen aurka gogorkeriz jasotako eraso-aldia, 1 7.

4 17 *Geu gara Jaungoikoaren etxeak*, 2 5. Kristo Auzi-epaillearen *Parusia* edo Etorrera-aurretik zearo garbituak izango dira *etxeok*.

4 18 Cf. Es 11 21 (LXX).

5 1 *Zaarrok*, abadeak dira. Berariz darabil itz au emen Pedro'k, gerotxoago *gazteak* aitatuak dauz-ta, 5 5; cf. Tt 1

Jaungoikoak alan naita, nekeak eroten dabezanak be, on dana egiñik, euren arimak Egille zintzoagan usteonez jarri dagiezala.

Azken-burubideak

5 ¹ Zuen artean zaar* diranai, emen nik, areik lez abade ta Kristo'ren nekeen ikusle ta agertuko dan aintzan* eskuartu dodan onek, eskatzen dautsedana: ² Zaindu egizue zuen ardurapean izateko emon yatzuen Jaungoikoaren artaldea*, gogorrez zaindurik ez, samur-samur baiño, Jaungoikoaren eraz; ezta irabazi zikiñari begira be, biotzez baiño; ³ ez, gero, zuen elizen jauntxo lez, artaldearen eredu izanez baiño. ⁴ Orrela, Artzain Nagusia agertu daitenean, zimeltzen ez dan aintzazko koroia artuko dozue.

⁵ Zuek be bardin, gazteok*: bizi zaitzeze zaarren menpean; eta jantzi zaitzeze guztiok alkarganako apaltasunez, Jaungoikoak arroai gogor egiten dautse-ta; apalai, barriz, bere grazia emoten dautse. ⁶ Apalak izan zaitzeze, ba, Jaungoikoaren esku indartsupean, aldi egokian goratu zagiezan. ⁷ Itzi egiozue Berari zuen arazo guztiak, zuen ardurea Berak dau-ta*. ⁸ Negurridun izan zaitzeze, eta zoli egon: deabrua, zuen arerioa, leoia orroka lez, inguruan dabil-eta, nor iruntsiko zain. ⁹ Gogor egiozue sinismenez, lurrean dozezan anai guztiak neke bardiñetan dagozala jakiñik. ¹⁰ Eta zuek neke labur batzuk eroanda gero, Kristo'gan bere aintzara betiko dei egin

5+. *Agertuko dan aintza* edo Parusiari buruz, cf. 1 5+.

5 2 Jesus'en antzera, 2 25+, artzaiñak biotz zuzen eta garbiz izan bear dau artaldea, irabaziari begiratu, bagarik, cf. Jn 21 15+; Ap 20 28+; Ko 1^a 9 14; Ko 2^a 1 24; Flp 4 5+; Ts 1^a 2 5.

5 5 *Gazteak*, bearbada, artaldeko kristau guztiak dira, *abadeak* (zaarrak) izan ezik, 3 1.

5 7 Cf. Es 3 34 (LXX); Sal 55 23; 22 13-14.

dautsuen grazi guztien Jaungoikoak Berak ondo jarri, osotu, indartu ta sendotuko zaitue*. ¹¹ Berari aintza ta agintaritzza gizaldiz-gizaldi. Amen.

Azken-agurra

¹² Nire ustez anai zintzo dan Silbano'ren bidez labur-labur idatzi dautsuet, Jaungoikoaren benetako

grazia orixe dala irakasten eta autor-tzen. Iraun egizue grazi orretan.

¹³ Zeuek lez aurkeratua izan dan Babilonia'ko elizeak agur egiten dautsue, baita Markos nire semeak be*.

¹⁴ Agur egiozue alkarri maitasun-laztanez.

Bakea Kristo'gan zagozen gutzioi.

5 10 Munduko neke laburren ordaiña, 4 17+; Flp 2 8-9+. betiko aintza ta zoriona, 1 6-7, 11; 5 1; Lk 24 26; Jn 12 32+; Erm 5 3-5; Ko 2^a 5 13 *Babilonia'ko Eliza* au, Errroma'koa da, Jn 2^a 1; Ag 14 8, e.a.

PEDRO'REN BIGARREN IDAZKIA

Agurra

1 ¹ Simon Pedro'k, Jesukristo'ren morroi ta apostolu onek, Jesukristo gure Jaungoiko ta Salbatzailearen zuzentasunaren bidez sinismen bikaina, geuk lez, jaritsi dabena, ² Jaungoikoaren eta Jesus gure Jaunaren ezagueraz grazia ta bakea currez geitu dakizuezala.

Kristau-deiari dagokion zintzotasuna

³ Bizitza zintzorako egoki dan guztia emon dasku utsean bere Jaungoikozko indarrak, bere aintzaz eta aal-izatez dei egin gaituana guri ezaguerazorik. ⁴ Onein bidez, agindutako ondasun eder eta bikainak emon daskuz utsean*, euron bidez Jaungoikozko izatearen gai egin gaitzan, munduan dagoan grina txarren ustelkeritik iges eginik.

⁵ Orregaitik, aalegin guztiak egin bear dozuez sinismenaz zintzotasuna alkartzen, zintzotasunaz ezaguera, ⁶ ezaguereaz negurritasuna, negurritasunaz eroapena, eroapenaz Jainkozaletasuna, ⁷ Jainkozaletasunaz anaimaitasuna, eta anai-mitasunaz goimaitasuna. ⁸ Onbideok zuekan eurrez ba'dagoz, ez zaitue Jesukristo gure Jaunaren ezagueran alper eta agor itziko. ⁹ Aitatutako *onbideok* ez daukazana, itsu ta ikusmen laburrekoa da, eta leengo bere pekatuen garbikuntza aaztuta itzi dau. ¹⁰ Be-

raz, eginak egizuez, anaiok, zuen deia ta aukeratzea sendotzeko; orrela egin ezker, ez zaree inoiz be jausiko, ¹¹ eta Jesukristo gure Jaun eta Salbatzailearen betiko erreinuko ateak zabal-zabal edegiko dautsuez.

¹² Orregaitik, gaiok beti gogora ekarriko dautsuedaz, zuek ba-dakizuezanarren eta orain daukazuen egian sendo zagozenarren. ¹³ Alan be, txabola onetan nagoan artean*, gogoa biztu egin bear dautsuedala deritzat: ¹⁴ Jesukristo gure Jaunak adierazo daustanez, nire txabola au laster bertan-beera itzi bear dodana ba-dakit-eta. ¹⁵ Aalegin guztiak egingo dodaz, orraitino, gaiok une gutietan, ni ilda gero be, gogora ekarri dagizuezan.

Nun aurkitu benetako sinismena?

¹⁶ Izan be, Jesukristo gure Jaunaren indarra ta etorrerea ez geutsuen ipuin ederrai jarraiturik ezaguerazo, Aren aunditasuna geuk geure begiak ikusi dogulako baiño*. ¹⁷ Berak artu eban gorapena ta aintza Jaungoiko Aitagandik, argi bikainetik «Atsegin dodan neure Seme maitea da au» esatean, alako berbotsa entzun zanean. ¹⁸ Eta zerutik jatsitako berbots au, mendi santuan Aregaz gengoanok entzun genduan.

¹⁹ Eta *egia* au geiago indartzeko, emen daukagu profeten itza*; eta zuei be on yatsue berba orri adi-adi

1 4 Jaunaren Egunerako egin yukuzan agintzariak, 3 4; P 1^a 1 5+; cf. P 2^a 3 9-13, Jainkoaren *bizitakide* egiten gaitue, cf. Jn 1 12+; 14 20+; Erm 6 4-5; 8 14-18+; Ko 1^a 1 9; Ef 1 9-10; Jn 1^a 1 2-3+. Oneixek bereitzen gaitu *munduagandik*, Jn 1 9+; Kol 1 13; Jn 1^a 2 14+.

1 13 *Txabola onetan nagoan artean*, au da, lurrean bizi nagan artean, cf. P 1^a 1 2 11; Ko 2^a 5 1-5; Flp 1 23+; Tm 2^a 5 1-5; Flp 1 23+; Tm 2^a 4 6; Is 38 12; Jb 4 19; Jk 9 15.

1 16 Errazoe zorrotzen billa jardun bagarik, eurak ikusi dabena autortzen daskue Apostoluak; baita Semeari buruz Aitak emondako autoira be, 3 4-5; Lk 1 2; Ap 1 8+; Jn 1^a 1 1-3+; Mt 17 1-9; cf. Tm 1^a 1 4; 6 20.

1 19 Idazkai Santuak iragarritakoa, geienbaten bete dala adierazoten dau Aitak Semeari buruz egindako autorrak, 21; P 1^a 1 10-12; Ap 3 21; Tm 2^a 3 16; cf. P 2^a 3 16.

egotea, toki illunean biztuta dagoan argizuziari lez, eguna argitu ta zuen biotzetan artizarra jagi daiten arte. ²⁰ Baiña, leenengo auxe jakin egizue: inok be ezin azaldu daike norbere buruz Liburu Santuko igarpenik, ²¹ inoiz be ez da igarpenik giza-nai-menetik sortu-ta: Espiritu Santuak eraginda egin eben berba Jaungoikoaren gizonak.

Sasi-irakasleak

2 ¹ Baiña, sasi-profetak be izan ziran Israel'en; baita sasi-irakasleak be izango dira zuen artean, guzurrezko irakaspen txarrak sartzen eta birrerosi dauzan Jauna ukatzen, euren gainera laster ondamentia erakarten dabela*. ² Eta askok arein zantarkeriai jarraituko dautsee, eta arekaitik egiaren Bidea lotsagarri biurtuko da. ³ Eta, diru-goseak erabillirik, guzurrezko berben bidez irabaziak atarako dautsuez. Arein ondapena ez dabil nagi aspaldion, eta arein ondamentiak ez dau lorik egiten.

⁴ Izan be, Jaungoikoak, pekatu egin eben aingeruak parkatu berean, barrendira jaurti eta, auzi-egunerarte an eukiteko, illunpeko leza-zuloetara bialdu ebazan. ⁵ Era berean, ez eutsan antxiñako munduari* parkatu, eta gizadi gaizto arein gainera uriola jaurtirik, Noe, zuzentasun-iragarlea, beste zazpigaz batera, onik atara eban. ⁶ Eta gero-ko gaiztoen zigogarriztat, Sodoma ta Gomorra uriak ondatu egin ebazan, auts biurtzen ebazala; ⁷ Lot zuzena, barriz, gizon legebage arein bizikera lizunaz estututa egoana, onik atara eban —⁸ bere erritarrei artean bizi zala, arein egitada txarrak ikusirik eta entzunik, bere biotz zintzoa egun oro oiñazetan egoan-eta—.

2 1 Txatal luze onek, 3 3'garreneraiño-koak, Judas Apostoluaeren eskutitzaren kutsua daroa, 4-16.

2 5 *Antxiñako mundu* au, uriol-aurrekoa da, cf. P 1^a 3 20.

⁹ Ba-daki Jaunak gizon zintzoa larrialditik ataraten, eta gaiztoa auzi-egunerarte oiñazeperako izten, ¹⁰ argiaren atseginai jarraitzen diarduana ta Jauna bazartzen dauana batez bere. Ausarti arrok ez dira «aintzatsuak*» iraintzeko ikaratzen, ¹¹ aingeruak eurak, indarrez eta aal-izatez aundiagoak izanarren, irain-bururakizunik alakoan aurka Jaunaren aurrean izaten ez ba'dabe be. ¹² Orrelako orreik, barriz, sarean artzeko ta usteltzerako izadiaren indarrez jaio diran abere adimen-bageak lez, ez dakiena madarikaturik, euren ustelkeritan galduko dira, ¹³ euren gaiztakeriaren ordain egokia jasorik: zotziona areintzat eguneko atsegin da-ta; gizon zikin eta ustelok egun argiko galdukerietan dabe atsegin, guzurrezko itxuraz zuekaz janaldi ederrak egiten dabezala. ¹⁴ Sasi-ekontzaz beterik dauke begiak; ezin dira pekatuz ase; arima makalak lilluratzen dabez; diru-gosetan azita dauke biotza; madarikapen-seme dira. ¹⁵ Bide zuzena bertan-beera itzirik, galdu egin ziran, Bosor'en semea zan Balaan'en bideari jarraiturik; arek, barriz (*Balaan'ek*), gaiztakeri-saria maite izanik, ¹⁶ bere erruagaitik asarrea beraganatu eban: asto mutu batek, giza-eraz berba eginik, galerazo egin eban profeta-zen zorakeria.

¹⁷ Iturri agortu eta ekaitz-aizeak bultza egindako lañoa dira orreik. Orreintzat, illunpetako lezea dago gertu. ¹⁸ Berba arro ta utsak esanik, sinisbage diranen artetik etorribarri diranak, aragi-zalekeriz eta galdukeriz erakarten dabez*. ¹⁹ Askatasuna eskintzen dautsee, eurak ustelkeriaren morroi dirala: bestek azpiratua izan dana, aren morroi da-ta. ²⁰ Jesukristo gure Jaun eta Salbatzailearen ezagueraz munduko lizunkeritik

2 10 *Aintzatsu* oneik aingeru gaiztoak dirala dirudi.

2 18 Kristau-barriak, sinismen-gaietan sendo oiñarritu bageak eta sasi-irakasleen jarraitzaileak, 2 2.

iges egin ondoren, bertara biurtuta, azpiratuak izaten ba'dira, orrelako-en azken-egoera ori leenengoa baiño txarragoa da*.²¹ Zuzenbidea jakin ondoren, iragarri izan yaken agindu santutik atzerantz egitea baiño obe litzakie orrelakoai zuzenbidea leen ez jakitea.²² Eurakan beteten da benetako esakuna au: *Txakurra bere okadetara biurtzen da**, eta «txarri emea, garbituta, barriro lokatzatan lorrintzen da.»

Jaunaren Eguna:

Profetak eta Apostoluak

3¹ Auxe da, ene maiteok, egin dautsuedan bigarren idazkia, eta bietako gogorapenez zuekan adimen zintzoa bizkortzen aalegintzen naz:² profeta santuak aurretiaz esandako berbak eta zuen apostoluen bidez Jaun eta Salbatzailleak emondako agindua gogoratu dagizuezan*.

³ Jakin egizue leenen: euren zalekerien eraz bizi diran gizon maltzur batzuk etorriko dira isekaz beterik azken-egunetan*,⁴ eta auxe esango dabe: «Non dago Aren Etorrerearen agintzaria? Gurasoak* il egin ziran, eta lurra egin zanetik lez irauten dau danak.»

⁵ Ori esatean, ez dakie beste aldi baten zeruak eta lurra izan ziranik, eta lurra, uretatik eta uraren erdian sorturik, Jaungoikoaren Berbaz* sendotu zanik.⁶ Arekaitik, orduko lurbira uriolaz estalduta geratu zan.⁷ Eta oraingo zeruak eta lurra Itz berberak zainduta dagoz eta gizon gaiztoen auzi-egunean eta ondamen-dian sutarako itzita.

² 20 Cf. Mt 12 45. Sinismena ukatu baiño obe sinisgabea izan. Sinismenak bizikera zuzen eta garbia eskatzen dau, cf. Erm 6 15+; Kol 3 5+; St 1 25+.

² 22 Leenengo esaera Es 26 11'garrene-tik jasota dago. Bigarreña ez da Biblia-koa.

³ 2 Apostoluen eta Alkartasun Zaarre-ko Profeten bidez egin dau itz Jaungoi-koak, 1 18-20; P 1^a 1 10-12+.

³ 3 Pedro'ren profezia au Apostoluen irakatsiai buruzkoa da. Irakatsi orrei irri egingo dautsee azken-aldian agertuko

⁸ Ez aaztu onetzaz, ene maiteok: egun bat Jaunarentzat milla urte lez dala, eta milla urte egun bat lez*.⁹ Ez dau Jaunak bere agintzaria luzatzen, batzuek uste dabenez: zue-kaz eroapena erabilten dau, ostera, eta ez dau nai iñor galdu daiten, guztiak garbatu daitezkan baiño.¹⁰ Baiña lapurra legetxe etorriko da Jaunaren Eguna. Orduan, zeruak zarata-otsez igaro, izakaiak sugarretan ezereztu, eta lurra ta bertako gauza guztiak erre egingo dira*.

Zain bizi-bearra

¹¹ Gauza guztiok onela ezereztu bear daben ezkerro, zelakoak izan bear ete-dozue zuek zuen egikera santuari ta zuen jaungoikotasunari buruz,¹² Jaungoikoaren Egunaren etorrerea itxaroten?, egun aretan zeruak sugarrez ezereztu, eta izakai-ak, erreta, urtu egingo dira-ta?¹³ Baiña gu, Jaunaren agintzariari eutsirik, zuzentasunaren bizi-lekua izango diran zeru barri batzuen eta lur barri baten zain gagoz.

¹⁴ Beraz, ene maiteok, jazopenok itxaroten dozuezan artean, arduraz ibilli zaiteze, Aren (*Jaungoikoaren*) aurrean bakez, garbi ta akats bagarik aurkituak izan zaitezen.¹⁵ Sinistu egizue Jaunaren eroapena geure osasunerako dana. Orixe da Paulo'k, gure anai maiteak be, emon izan yakon jakituriaz idatzi eutsuena,¹⁶ bai-ta bere idazki guztietan gai onei buruz azaltzen dauana be. Ba-dira idazki areitan gai ulergaitz batzuk; eta gizon ezikasi aldakorrak, beste Li-buru Santuak* lez, okerretara adie-

diran sasi-jakitun orreik, Mt 24 24; Ap 20 29; Ts 2^a 2 3-9; Tm 1^a 4 1+; Tm 2^a 3 1-5.

³ 4 *Gurasoak*, au da, leenengo belau-naldiko kristauak.

³ 5 Jainkoak *Itzaren* bidez sortu eban mundua, eta *Itzaren* bidez ondatuko dau, As 7 11-21; P 1^a 3 20.

³ 8 Cf. Sal 90 4; Abk 2 2-3; Si 18 8.

³ 10 Cf. Mt 24 29, 43; Ag 3 3; 20 11; Ts 1^a 5 2.

³ 16 Paulo'ren idazkirik geienak batuta egozan ordurako, eta Biblian legezkozat onartuta, cf. Tm 1^a 5 18-19; M 1^a 12 9+.

razoten dabez, euren buruen ondamendirako.

Azkena

¹⁷ Zuek, ba, ene maiteok, ba-dakizue aurretiaz: zain egon, zuen as-

mo sendotik gizon legebage orrein okerbidez jausi ez zaitezen.¹⁸ Geitu egizue zuekan Jesukristo gure Jaun eta Salbatzaillearen grazia ta ezaguerea. Berari aintza orain eta betiko egunerarte. Amen.

JOAN'EN LEENENGO IDAZKIA

Bizitza-itza: Jesukristo

1 ¹ Asieratik zana, entzun doguna, geure begiakaz ikusi doguna, begiratu ta geure eskuak ikutu dabena bizitzaren Itza* ikutuez, —² bizitza agertu izan da-ta, eta geuk ikusi dogu, eta Aitagaren egoan, eta guri azaldu yakun betiko bizitza au-

tortzen eta iragarten dautsuegu—; ³ ikusi ta entzun doguna iragarten dautsuegu, zuek be geugaz alkartuta* bizi zaitez. Eta gure alkartasun au, Aitagaz eta Onen Seme Jesukristo'gaz da. ⁴ Gure poza bete-betea izan daiten idazten dautsuegu au.

I. ARGITAN IBILLI

Argia ta pekatua

⁵ Auxe da Berari entzun dautsagun Barri Ona, eta Jaungoikoa argi dala ta Aregan illunik ez dagoala iragarten dautsuegu*. ⁶ Aregaz alkartuta bizi garala ba'diñogu ta illunpetan ba'gabiz, guzurrea diñogu ta ez dogu egiaren eraz egiten. ⁷ Bera argitan dagoanez, gu be argitan ba'gabiz, barriz, alkarren alkartasunean gagoz*, eta bere Seme Jesus'en odolak pekatu guztitik garbitzen gaitu. ⁸ Pekaturik ez dogula ba'diñogu, gure buruari iruzur egiten dautsagu ta egia gudan ez dago*. ⁹ Gure pekatuak autortzen ba'doguz, zintzo ta zuzena da Bera gure pekatuak parkatzeko ta gaiztakeri guztitik gu garbitzeko. ¹⁰ Pekaturik ez dogula egin ba'diñogu, Bera guzurti egiten dogu, eta Aren itza gudan ez dago.

Pekatuak autortu

2 ¹ Ene semetxook: pekatuak egin ez dagizuen idazten dautsuet au. Alan be, norbaitek pekatu egiten ba'dau, zuzena dan Jesukristo dogu bitarteko Aitaren aurrean. ² Bera da gure pekatuen ordaingarria; eta geure pekatuena bakarrik ez, baita gizadi osoaren pekatuena be. ³ Aren aginduak gordeten ba'doguz, ba-dakigu A ezagutu doguna*. ⁴ A (*Jesukristo*) ezagutzen dauala diñoanak, eta Aren aginduak bete ez, guzurtia da, eta alakoagan ez dago egia. ⁵ Aren itza gordeten dauanag, barriz, Jaungoikoaren maitasuna bete-betea dago. Ortixek dakigu Aregan gagozana. ⁶ Aregan dagoala diñoanak, Bera ibilli zanez ibilli bear dau norberak be. ⁷ Guztiz maiteok: ez dautsuet agindu barririk idazten, asieratik daukazuen

11 Jainkoaren Itza zan bizitza guztia-
ren iturburua, Dt 4 1+; 32 47; e.a.; Mt
4 4; Flp 2 16. Itz au Semea da, Kristo.
Beronen ondoan bizi izan dira Aposto-
luak.

13 *Geugaz alkartuta*. Fededun guztiak
sartzen dira kristau-*alkartzean*, Jn 1 12+;
14 20+; 17 20-24+; cf. Ko 1* 1 9; P 2*
1 4+. Alkartze onen lokarria Apostoluen
lekukotasuna da, 2 24-25; 4 6; Jn 4 38+;
Ap 1 21 22+; e.a.

15 Egia ta santutasun guztia-
ren iturburua Jainkoa da, Jn 1 4+; 8 12+; Tm
1* 6 16; St 1 17+; Jk 7 26+; Dn 2 22+.

17 Urko-lagunakanako maitasunean
ikusten da, Argia ta Maitasuna dan Jain-
koagaz bat-eginda gagozan ala ez, 1 5;
4 8; 3 23; Jn 13 34+.

18 Gure egunoroko jausteak parkatuaz
barriztatzen da, eten bagarik, kristaun
bizikera santua, 3 3-9; 5 18; cf. Ap 9
13+; Erm 3 9, 19, 23-25+; 6 12-14+.

23 *Ezagutze* au, Os 2 22+, sinismena
da, gure bizikera osoa beartzen dauan
sinismena, 3 23; 5 1; Jn 3 12+. Kristo-
gan bizi garan ala ez jakiteko biderik
egokiena, bere aginduak beteten doguzan
ala ez ikustea da, cf. 1 6-7; 3 10; 4 21;
5 2; cf. Jn 15 14-15; e.a.

agindu zaarra baiño; eta agindu zaar
au, entzun dozuen Itza da. ⁸ Alan
be, idazten dautsuedan agindua, bar-
ria da*; egiazkoa da Aregan eta
zuekan, illunaldia igarota benetako
argia agertu da-ta.

⁹ Argitan dagoala diñoanak, eta
bere anaia-ri gorroto ba'dautso, ori
illunetan dago oraindiño. ¹⁰ Bere
anaia maite dauana, argitan dago,
eta alakoagan ez dago juspiderik.
¹¹ Baiña, bere anaia-ri gorroto dautsa-
na, illunetan dago, eta illunetan da-
bil nora doan ez dakiala, illunak be-
giak itsutu egin dautsaz-ta.

Munduari iges egin

¹² Zeuei, semetxooi, idazten dau-
tsuet, Aren izenagaitik zuen peka-
tuak parkatuak izan diralako. ¹³ Zeu-
ei idazten dautsuet, gurasooi, asie-
ratik dan A (*Jesukristo*) ezagutu
dozelako. Zeuei idazten dautsuet,
gazteoi, gaiztoa azpiratu dozelako.
¹⁴ Zeuei idazten dautsuet, umeoi,
Aita ezagutu dozelako. Zeuei idaz-
ten dautsuet, gurasooi, asieratik da-
na ezagutu dozelako. Zeuei idazten
dautsuet, gazteoi, indartsuak zaree-
lako, eta Jaungoikoaren Itza zeue-
kan dagoalako, eta Gaiztoa azpiratu
dozelako*. ¹⁵ Ez egizue mundua
maite, ezta munduan dagoanik be.
Norbaitek lurra maite ba'dau, ez
dago aregan Aitaren maitasunik.
¹⁶ Munduan dagoan guztia, aragi-gri-
ña, ikusmiña ta bizitzako arrokeria
da: au ez da Aitagandik etorten,
mundutik baiño. ¹⁷ Mundua igaro
egiten da, baita ango zalekeria be;

Jaungoikoaren naia egiten dauanak,
barriz, betiko irauten dau.

Antikristoak

¹⁸ Ene semetxook: au azken-aldia
da, eta Antikristo* datorrela
entzun dozue, asko Antikristo
egin dirala dirautsuet orain; eta
orrexegaitik dakigu azken-aldia da-
na. ¹⁹ Geure artetik sortu ziran, bai-
ña ez ziran guretariko. Geuretariko
(*geuretiar*) izan ba'litzaz, geugaz ge-
ratuko litzakezan; baiña olantxe
agiri izan da ez dirana guztiak gure-
tariko. ²⁰ Baiña, zuek *Espiritu* San-
tuaren igurtzia* daukazue, eta dana
dakizue. Ez dautsuet egia ezagutzen
ez dozelako idatzi, ²¹ ezagutzen do-
zelako baiño, eta ba-dakizue egia-
tik guzurrik ezin sortu daitekena.
²² Nor da guzurtia, Jesus Kristo'a
dala ukatzen dauana baiño? Orixe
da Antikristo, Aita ta Semea uka-
tzen dauzana. ²³ Semea ukatzen dau-
an edonok, Aita be ez dau onartzen;
Semea autortzen dauanak, Aita be
onartu egiten dau. ²⁴ Iraun dagiala
zuekan asieratik entzun dozuenak.
Asieratik entzun dozuenak zeuekan
iraun ba'dagi, zeuek be iraun egin-
go dozue Semeagan eta Aitagari.
²⁵ Eta auxe da Berak egin euskun
agintzaria: betiko bizitza.

²⁶ Bide txarrerara eroan nai zaitue-
nai buruz idazten dautsuet au.
²⁷ Zuei buruz, barriz, Aregandik ar-
tu dozuen igurtzia, zuekan irauten
dau; eta irakasle-bearrik ez dozue*;
Jaunaren igurtziak dana irakasten

28 Antxiñako Legeak gertaturiko agin-
du au, Ab 19 11+, bere maitasunagaz
sillututa itzi euskun Jesus'ek, Jn 3 16-17;
13 34+. Ain zuzen be, agindu au izan zan
asieratik egiazko kristaunen ezaugarri-
bereziarena, 3 11.

24 Semeagaz bat-eginda egoteak, gaiz-
takeritik babestu egiten gaitu, cf. 1 8+,
eta mundua azpiratzeko indarra emoten
dasku, 4 4-6; 5 4-5; Jn 1 9+; 14 30;
16 33; cf. Ga 6 14+; St 4 4.

28 Azken-aldietan agertuko dan Anti-
kristoak, Ts 2* 2 3+, amorrutik biziz jazar-

tuko dauz Kristo Jainko-Semeagan sinis-
ten dabena, 4 2-3; cf. 5 5-10; Jn 1 18+;
14 6+.

20 Cf. 2 27. *Espiritu Santuaren igur-
tzia*. Igurtzi au Jainkoaren Itza da, Kris-
to'gan agertua, Jn 6 69, eta *Espiritu* San-
tuaren bitartez gudan lanean diarduana,
11 2+; 61 1+. *Espiritu* au fededunakan
dago, goi-jakintza isuriaz, 3 24; 4 13;
Ko 2* 1 21-22+; Ts 1* 4 8; Jn 16 13;
Ko 1* 2 14-15. Cf. Ur 30 22+; Mt 1 16+.

27 Kristo'ren *Espirituak* sinisgarri-
biurtzen dau Apostoluen autorra, 20; 24;
Jn 6 45; Jn 1* 1 3+.

dautsuen ezkerro ta Bera egizale dan ezkerro ta ez guzurti, iraun egizue Beragan, Berak irakatsi eutsuenez. ²⁸Orain, ba, semetxook, iraun

egizue Aregan: Bera agertu daiteanean, uste osoa izan dagigun eta Aren Etorrera-egunean lotsatuak izan ez gaitzan.

II. JAUNGOIKOAREN SEME LEZ BIZI

²⁹ Jesus zuzena dana ba'dakizue, jakin be egizue zuzentasuna egiten dauan edonor, Jaungoikoagandik jaio dana.

3 ¹ Ikusi egizue Aitak erakutsi dauskun maitasuna: Jaungoikoaren seme-izena ta izana doguz-ta! Orregaitik, munduak ez gaitu ezagutzen, Jaungoikoa be ez dau ezagutzen-eta. ² Guztiz maiteok: gero izango garana oraindiño agiri ez danarren, orain Jaungoikoaren seme gara. Alan be, ba-dakigu, Jesus agertu daitenean, Aren antzeko izango garana, Bera danez ikusiko dogu-ta*. ³ Eta uste on au Jesus'egan dauan edonor, garbitu egiten da, Bera be garbia danez. ⁴ Pekatu egiten dauanak, Legea be ausi egiten dau, pekatua lege-austea da-ta. ⁵ Ba-dakizue, barriz, pekatua kentzeko etorri izan zana, eta pekatuik Aregan ez dagoana. ⁶ Aregan irauten dauanak, ez dau pekatuik egiten*; eta pekatu egiten dauanak, ez dau A (Kristo) ikusi, ezta ezagutu be.

⁷ Semetxook: ez dagitzuela iñok iruzurrik egin; zuzen dabillena, zuzena da, Bera be zuzena danez; ⁸ pekatu egiten dauana, txerrenagandik dator, asieratik txerrenak pekatu egiten dau-ta. Onetarakoxe agertu zan Jaungoikoaren Semea, txerrenaren egintzak ondatzeko. ⁹ Jaungoikoagandik jaio danak, ez dau pekatuik egiten, Jaungoikoaren azia aregan dago-ta; alakoak ezin egin daike, barriz, pekatuik, Jaungoikoa-

gandik jaio da-ta. ¹⁰ Onetantxe ezagutzen dira Jaungoikoaren semeak eta txerren-semeak: zuzen ez dabillena, ez da Jaungoikoarena, ezta bere anaia maite ez dauana be. ¹¹ Asieratik entzun dozuen irakatsia, auxe da: alkar maite izan dagigula. ¹² Ez izan Kain'en antzeko: arek, gaiztoaren ume zan ezkerro, anaia il egin eban. Zer dala-ta il eban, barriz? Bere egitadak okerrak eta anaiarenak zuzenak ziralako*.

Anai-maitasuna

¹³ Ez arritu, anaiok, munduak gorroto ba'dautsue. ¹⁴ Ba-dakigu, geure anaiak maite doguzalako izan garana eriotzatik bizira aldatuak. Maite ez dauana, eriotzan dago. ¹⁵ Anaiari gorroto dautsan edonor, gizailtzaille da; eta ba-dakizue gizailtzailleak beragan betiko bizitzarik ez daukana. ¹⁶ Ezagutu dogu Jaungoikoaren maitasuna zelakoa dan: Arek bere bizia geure alde emon eban-eta. Geuk be gure bizitza anaien alde emon bear dogu. ¹⁷ Ondasunak daukazanak, bere anaia bearrizanean ikusi ba'dagi ta bere biotza itxi ba'dagio, zelan iraungo dau aregan Jaungoikoaren maitasunak? ¹⁸ Semetxook: ez daigun berbaz eta miñez maitatu, egiñez eta benetan baiño. ¹⁹ Orretantxe ezagutuko dogu egierenak garana, eta gure biotzak Jaungoikoaren aurrean nasai-nasai geratuko dira. ²⁰ Eta gure biotzak errudun garala ba'dirausk, Jaungoikoa

emoten noizik-beiñiko uts eta jaustea, 1 8+; 5 18.

³ 12 Emen asita 4 6'gn. ataltxoraiño, aurrez-aurre ezarten dauz Joan'ek, egian eta maitasunean bizi diran Jainko-semeak, eta pekatu ta gorrotoan murgilduta dagozan gizasemeak, cf. Jn 3 12+; 8 12+.

gure biotza baiño aundiagoa da, dana daki-ta*.

²¹ Guztiz maiteok: biotzak errudun garala ez ba'dirausk, Jaungoikoagana bildur bagarik jo daikegu; ²² eta edozer eskatuta, Aregandik jadesi egingo dogu: Aren agindua bete ta atsegin yakona egiten dogu-ta. ²³ Eta auxe da Aren agindua: Jesukristo bere Semearen izenagan sinistea izan eta alkar maite izan dagigula, emon euskun aginduaren eraz. ²⁴ Aren aginduak beteten dauzana, Jaungoikoagan dago ta Jaungoikoa aregan; eta onexegaitik ezagutzen dogu geugan dagoala: emon dauskun Espirituagaitik.

Guzurraren espiritua ta egiaren espiritua

4 ¹ Guztiz maiteok: ez egiozue sinistu edozein espirituri; aztertu egizuez, ostera, espirituak, Jaungoikoagandik ete-diran*: gizartean sa-

si-profeta asko agertu dira-ta. ² Jaungoikoaren espiritua onetantxe ezagutu daikeuz: Jesukristo aragiz etorri zala autortzen dauan edozein espiritu, Jaungoikoagandik dator. ³ Baiña, Jesus autortzen ez dauan espiritua, ez dator Jaungoikoagandik. Espiritu ori Antikristoarena da: entzun dozuenez, Antikristoa ba-dator eta onezkerro munduan dago. ⁴ Zuek, semetxook, Jaungoikoagandik zaree, eta areik (areioak) azpiratu egin dozuez, zuekan dagoana mundukoa baiño aundiagoa da-ta. ⁵ Areik munduarenak dira; aregaitik, munduaz egiten dabe berba, eta munduak entzun egiten dauz. ⁶ Gu Jaungoikoarenak gara. Jaungoikoarena danak, entzun (aditu) egiten gaitu; Jaungoikoarena ez danak, ez gaitu entzuten. Onetantxe ezagutzen dogu egiaren espiritua ta guzurraren espiritua.

III. MAITASUNAREN ETA FEDEAREN ITURRIETAN

Anai-maitasuna ta Jaungoikoaganako maitasuna

⁷ Guztiz maiteok: alkar maite dagigun, maitasuna Jaungoikoagandik dator-eta; maitasuna dauan edonor, Jaungoikoagandik jaio da, eta orrelakoak Jaungoikoa ezagutu egiten dau. ⁸ Maitasunik ez dauanak, ez dau Jaungoikoa ezagutzen, Jaungoikoa maitasuna da-ta*. ⁹ Gunganako Jaungoikoaren maitasuna, onetantxe agiri da: Jaungoikoak bere Seme bakarra lurrera bialtzean, Aren bidez, bizi gaitzan. ¹⁰ Onetantxe dago maitasuna. Izan be, Jaungoikoa guk maite ez genduala, Berak maite izan genduzan leenen, eta bere Semea

bialdu euskun gure pekatuak ordaindu egizan.

¹¹ Guztiz maiteok: Jaungoikoak onela maite izan genduzan ezkerro, geuk be alkar maite izan bear dogu. ¹² Jaungoikoa ez dau iñok bein be ikusi; alkar maite ba'dogu, Jaungoikoa geugan dago, eta bere maitasuna gugan eldu-eldua da. ¹³ Onetantxe ezagutzen dogu Aregan gagozala, eta Bera gugan: guri bere Espiritua emotean. ¹⁴ Guk, barriz, Aitak Semea munduaren Salbatzailletzat bialdu dauala ikusi dogu ta autortzen dogu. ¹⁵ Norbaitek Jesus Jaungoikoaren Semea dala autortzen ba'dau, Jaungoikoa aregan da-

³ 20 Jainkoak, maitasuna danez, 4 8+, geuk baiño obeto ezagutzen dau gure barrua (kontzientzia), eta guk geure buruari baiño errazago damosku parkamena, cf. 4 4; Jn 21 17; St 5 20.

⁴ 1 Ez da naikoa norberak benetako Espiritua daukala uste izatea. Munduaren espiritua izan daiteke, bearbada, eta ez Jesukristo-gandikoa, 3-5; 2-3; 3 24. Apos-

toluak dabe *espirituak* bereizteko doaia, 6; cf. 1 1-3+.

⁴ 8 Jaungoikoak benetan maite eban Israel, Dt 4 24; 6 5+; Is 54 8+. Jainkoak bere Semea mundua salbatzera bialtzean, Jainkoa *Maitasuna ber-bera* dala agirian ipiñi dauku, 16; baita Jainko-seme garan kristaun maitasuna be Aita ta Semeagandikoa dala, 1 3; 2 8; Jn 15 9; 17 23.

go, eta bera Jaungoikoagan. ¹⁶ Eta guk ezagutu ta sinistu dogu Jaungoikoak dauskun maitasuna. Jaungoikoa maitasuna da; eta maitasunean dagoana, Jaungoikoagan dago, eta Jaungoikoa be bai aregan.

¹⁷ Maitasuna guban oso-oso ba'da, auzi-egunean nasai egongo gara, mundu onetan Bera (*Jaungoikoa*) danez gara geu be-ta. ¹⁸ Maitasunaz ez dago bildurrik; maitasun osoak, barriz, bildurra kanpora jaurtiten dau, bildurrak zigorra dakar-eta; bildur danak, barriz, ez dau maitasun osoa lortu*. ¹⁹ Beraz, maite izan dagigun Jaungoikoa, leen Berak maite izan gaitu-ta. ²⁰ «Maite dot Jaungoikoa» norbaitek ba'diño, eta bere anaiari gorroto ba'dautso, orrelakoa guzurtia da: ikusten dauan anaia maite ez dauanak, ikusten ez dauan Jaungoikoa be ezin maite daiket-ta. ²¹ Eta agindu au dogu Aregandik: Jaungoikoa maite dauanak, bere anaia be maite izan dagiala.

Iru autorleak

5 ¹ Jesus Kristo'a dala sinisten dauan edonor, Jaungoikoagandik jaioa da; eta Sortzaillea maite dauan edonok, Aregandik sortutako *Semea* be maite dau. ² Jaungoikoa maite izatean eta Aren aginduak betetean ezagutzen dogu Jaungoikoaren semeak maite doguzana*. ³ Jaungoikoaren maitasuna auxe da-ta: Aren aginduak betetea. Aren aginduak, barriz, ez dira nekegarri: ⁴ Jaungoikoagandik jaiotako edonok, mundua azpiratu egiten dau-ta; auxe da, barriz, mundua azpiratzen dauan garaipena: geure sinismena.

⁵ Eta nor da mundua menpera-

4 18 Seme on batek aitari dautsan maitasunak uxatu egiten dau bildurra. Eukitekotan, bildur bat bakarrik izaten dau, au da, aita bear dan lotsa ta biozperatasuz maite ez izatea, Dt 5 29; 6 2-5; Es 1 7+.

5 2 Jainkoaganako maitasuna, urkolagunaganako maitasunean ikusten da, 1 7+. Maitasun bion ezaugarria, aginduak betetea da, 2 3+; Mt 22 34+; Jn 14 15; 15 9-10.

tzen dauana, Jesus Jaungoikoaren semea dala sinisten dauana baiño*? ⁶ Jesukristo da urez eta odolez etorri zana; urez bakarrik ez, urez eta odolez baiño. Eta Espiritu *Santua* da ori autortzen dauana, Espiritua egia da-ta. ⁷ Iru dira autortzen dabenak: ⁸ Espiritua, ura ta odola; eta irurok bat dira*. ⁹ Gizonen autorra onartzen ba'dogu, Jaungoikoaren autorra aundiagoa da: bere Semeari buruz Jaungoikoak egiña da-ta. ¹⁰ Jaungoikoaren Semea sinisten dauanak, autor au beragan dauko. Jaungoikoari sinisten ez dautsanak, Jaungoikoa guzurti egiten dau: Jaungoikoak bere Semeari buruz autortzen dauana ez dau sinisten-eta. ¹¹ Eta Aren autorra auxe da: Jaungoikoak betiko bizitza* emon dauskula, eta bizitza au Aren Semeagan dago. ¹² Semea daukanak, bizitza dauko; Jaungoikoaren Semea ez daukanak, barriz, ez dauko bizitza.

Eskaria ta uste ona

¹³ Auxe idazten dautsuet Jaungoikoaren Semearen izenean sinisten dozueno, betiko bizitza daukazuela jakin dagizuen. ¹⁴ Eta auxe da Aregan dogun uste ona: Aren naiari dagokiona eskatzen ba'dogu, jadesi egiten dauskula. ¹⁵ Eta zerbait eskatzen dautsagunean, entzun egiten dauskula jakifilik, ba-dakigu eskatu dautsaguna jadetsi egiten doguna. ¹⁶ Norbaitek bere anaia eriotzarako ez dan pekatua egiten ikusten ba'dau, otoitz egin begi, eta eriotzarako ez dan pekatua egiten dabenai bizitza emongo dautse. Ba-

5 5 Sinismenaren bidez azpiratzen dau kristauak mundua, 4-5; 2 14+; sinismenak erakusten dauskuzan gaiak, begiz ikusten diranak baiño askoz bikaiñagoak dira-ta.

5 8 Odola ta ura dira, Jn 19 34+, Espirituagaz batera, 2 20, 27, Kristo'ren alde autortzen dabenak, Jn 10 25+.

5 11 *Betiko bizitza*, Jainkoaren bizitza bera da, fededunai Kristo'ren bidez emona, 13; Jn 3 15+.

dago eriotzara daroan pekatua; ez diriot alakoaren alde inok eskatze-ko*. ¹⁷ Edozein gaiztakeri, pekatu da; baiña pekatu guztiak ez dira eriotzarako. ¹⁸ Ba-dakigu Jaungoikoagandik jaiotakoak pekatu egiten ez dauana; bestetara baiño: Jaungoikoagandik jaio danak bere burua zaindu egiten dau, eta gaiztoak ez dautso ikuturik be egiten.

¹⁹ Ba-dakigu Jaungoikoarenak ga-

rana, eta mundu guztia gaiztoaren diriot alakoaren alde inok eskatze-ko*. ²⁰ Baita jakin be ba-dakigu Jaungoikoaren Semea etorri egin zana, eta Egiatzko *Jaungoikoa* ezagutzeko adimena emon dauskuna*; eta gu Egiatzko *Jaungoiko* orretan gagoz, bere Seme Jesukristo'gan. Auxe da egiatzko Jaungoikoa ta betiko bizitza. ²¹ Seme-txook; sasi-jainkoen irudietatik alde egizue.

5 16 Emen aitazten dan pekatua ez da erraza zein dan jakitea. Jainko-bizitza ukatzea dala dirudi, au da, Espiritu Santuaren aurkako pekatua, cf. 2 18-29; 4 3; Mt 12 31-32+; Ebr 10 26-31.

5 20 Egiatzko Jainko bakarra, egiaren bidez ezagutzen dana, 2 3+; cf. Jn 17 3+; Ts 1^a 1 9; Ag 3 7, 14. Itz onekaz, sasi-jainko guztiak bazartuta geratzen dira, 21; cf. Ko 1^a 10 14, 19; 12 2; Is 40 18+.

JOAN'EN BIGARREN IDAZKIA

Agurra

¹ Zaarrak Andra aukeratuari* ta aren semeai, benetan maite dodazan ezkerro; eta nik bakarrik ez, baita egia ezagutzen daben guztiak be, ² geugan irauten dauan eta beti geugaz egongo dan egiagaitik. ³ Grazia, errukia ta bakea izan daitezala zuekaz Jaungoiko Aitaren eta Aitaren Seme dan Jesukristo'ren izenean, egian eta maitasunean.

Maitasun-agindua

⁴ Poz aundia artu dot zure semeak egiaren bidean dagozala jakinik, *zeruko* Aitagandik artu dogun aginduaren eraz. ⁵ Eta orain, andra orri —agindu barririk idatzi bagarik, asieratik daukagun agindua baiño—, auxe eskatzen dautsut: alkar maite izan dagigula. ⁶ Eta auxe da maitasuna: Aren (*Jaungoikoaren*) aginduen eraz ibilli gaitzala. Eta agindua auxe da; maitasunez ibilli gaitzala, asieratik entzun dozue-nez.

Antikristoak

⁷ Orain iruzurti asko jagi dira munduan, Jesukristo aragi-eraz etorri dala autortzen ez dabenak. Orixe da iruzurti ta antikristoa*. ⁸ Begira, gero, zuek!, lan egin dozuena galdu ez dagizuen, eta sari bete artu dagizuen. ⁹ Bide okerrera doanak eta Jesukristo'ren ikasbidean irauten ez dauanak, ez dauko Jaungoikoa; Aren ikasbidean irauten dauanak, orrek Aita ta Semea daukaz. ¹⁰ Zuekana norbait ba'dator eta ikasbide au eroan ez, ez egizue etxean artu, ezta agurtu be alakoa ez egin: ¹¹ alakoa agurtzen dauana, aren egintza gaiztoakaz alkartzen da-ta.

Azkena

¹² Askoz geiago idatziko neuskizue, baiña ez dot papelez eta idazturez (*tintaz*) egin nai izan, zuekana joateko ta agoz-ago berba egiteko ustez nago-ta, gure poza bete-betea izan daiten. ¹³ Zure aizta Aukeratuaren semeak agur egiten dautsue.

¹ Zaarra, Joan Apostolua bera da, eta *Andra aukeratu* Asia'ko Elizaren bat, Zaarraren ardurapean dagoana, eta sasi-irakasleak ondatu nai dabena. ⁷ *Antikristoa*, Jn 1^a 13; 2 24-27; Tm 1^a 6 20+.

JOAN'EN IRUGARREN IDAZKIA

Agurra

¹ Zaarrak zuri, benetan maite zaitudan Gaio* laztan orri.

Gaio goratzen

² Guztiz maite ori: guztitan aurerra egin eta osasun ona izan dagizula opa dautsut, zure arimeak be ba-daukanez. ³ Poz aundia izan neban anaien etorrereaz eta egiaren autorraz, egiaren bidetik zabizala jakin nebanean. ⁴ Nire semeak egiaren bidetik dabizala entzutea baiño poz andiagorik ezek be ez daust emoten.

⁵ Guztiz maite ori: zintzo jokatzen dozu anaiari ta baita arrotzai be egiten dautsezunaz; ⁶ eurak goratu dabe zure goimaitasuna Elizearen aurrean. Guztiz ondo egingo dozu, arei joanaldi egokia atonduaz, Jaungoikoari zor yakon eraz: ⁷ izan be, Aren (*Jaungoikoaren*) izenagaitik joan ziran, arrotzakandik ezer be artu bagarik. ⁸ Beraz, alakoai abegi ona egin bear dautsegu, egiaren alde arein lankide izan gaitzan.

Diotrefes'en jokabide okerra

⁹ Idatzi neutsan zerbait Elizeari.

Baiña Diotrefes'ek*, arein artean toki gorena artu nairik, ez gaitu onartzen. ¹⁰ Beraz, orra joan ba'nadi, aitaturko dautsadaz berak egiten dauzan egintza gaiztoak, gure aurka lotsa bagarik diñozan txarkeriak. Eta ori naikoa ez dalakoan, ez dauz anaiak onartzen eta anaiak ondo artu nai dabezanai galerazo egiten dautse, eta alakoak Elizatik jaurti egiten dauz. ¹¹ Guztiz maite orrek, ez jarraitu ikasbide txarrari, onari baiño. On egiten dauana, Jaungoikoagandik dator; gaiztakeria egiten dauanak, ez dau Jaungoikoa ikusi.

Demetrio* goratzen

¹² Demetrio'ri guztiak autor ona egiten dautsoe, Egiak berak be bai; geuk be bai; eta zuk ba-dakizu gure autorra egiatzkoa dana.

Azkena

¹³ Askoz geiago idatziko neuskizui, baiña ez dot idazturez (*tintaz*), eta lumaz egin nai. ¹⁴ Laster zu ikusteko ustez nago, eta agoz-ago egingo dogu berba. ¹⁵ Bakea zugaz. Adiskideak agur egiten dautsue. Agurtu egizuz adiskideak banan-banan.

¹ *Gaio*: Zaarraren ikasle bat, 3-6. ⁹ *Diotrefes*: kristau-lagunartearen buruzagi au arroa ta gora-zalea da; eta Zaarraren agintaritza ez dau begi onez ikusten.

¹² *Demetrio*: kristau-lagunartean apostoluzan zintzo diarduanen bat da. *Zaarra* ta *Egia*, au da, Joan eta Kristo aren alde dagoz. Naikoa da ori, Demetrio'gan uste osoa izateko, cf. Jn 19 35; 21 24.

JUDAS'EN IDAZKIA

Agurra

¹ Judas'ek, Jesukristo'ren morroi ta Santiago'ren anai onek, zuei, Jaungoiko Aitagan maitatuoi, Jesukristo'gan deituoi ta gordetakooi: ² errukia, bakea ta maitasuna geitu beitez zuekan geroago ta geiago.

Sasi-jakintsuak

³ Guztiz maiteok: gure alkarren osasunari buruz gogo beroz idatzi gurarik, zuei idatzi-bearra izan dot nigan, zintzoai bein betiko emon yaken sinismenaren alde egiteko eskatzen dautsuedala*. ⁴ Izan be, gure Jaungoikoaren grazia nasaikeri biur-tzen eta Jesukristo gure Jaun eta Jabe bakarra ukatzen, ondamendira-ko epaiatz aspaldian izentatuta dagozan gizon donga batzuk ixil-ixilik sartu dira.

Sasi-jakintsuen biraoak

⁵ Bein orrezkero guztia dakizue-noi, auxe aitatu nai dautsuet: Jaunak, bere erria Ejipto'tik atarata gero, sinisgogorrek galdu egin ebazala; ⁶ eta, nausitasuna gorde bearean, euren bizitokia galdu eben aingeruak, egun aundiko auzirako betiko giltzapean, illunpean, gorde ebazala. ⁷ Baita Sodoma, Gomorra, eta areik lez zantar eta aragi-biurkeriz iguingarri ziran inguruko uriak be, ikasbidetzat lur jota geratu ziran, betiko suaren nekea eroanik.

⁸ Oneik be*, amestiok, euren aragia zikindu, Jauna gutxitzat artu ta Aintzatsuak beeratu egiten dabez. ⁹ Mikel goiangerua Moises'en gorputza zala-ta, txerrenagaz burrukan

³ Apostoluak irakatsitako sinismenean ezin daiteke ezertxo aldatu, 5; cf. Ko 1^a 11 2+; Tm 1^a 6 20+.

⁸ Sinismen-ausleak edo erejeak ez dira ikaratzten aingeru gaiztoak arturiko zigorraz be, 6-7. Guzurretan eta zantarkeritan bizi dira. Txatal guzti oni buruz, cf. P 2^a 2-3.

ziarduala, ez zan aren (*txerrenaren*) aurka irain-epairik esatera ausartu, eta auxe bakarrik esan eutsan: «Jaunak zigortu zagizala*.» ¹⁰ Orreik, ostera, ez dakien edozer madarikatzen dabe; eta sentzun bagako abereak lez, susmoz ezagutzen daben edozetan usteltzen dira.

Arein gaiztakeria

¹¹ Orrein zoritzarra! Kain'en bidean sartu, Balaan'en zorakeritan sariagatik ondatu, eta Koe'ren biurkeritan galdu dira*. ¹² Orreixek dira zuen maitasun-janaldiak loitzen dabezanak; sabela betez, lotsa bagarik zuekaz jaten dabenak; aizeak daroazan odei urbageak dira; frutu bagako zugatz berandukorrak, birritan illak, eta zusterretik igartuak; ¹³ itsasoko olatu biziak euren zikin-kerien bitsa dariela; betiko illunetan geratu bear daben izar igeslariak. ¹⁴ Orrei buruz be esan eban aurretiaz Enok'ek, Adan'en ondorengo zazpigarrenak: «Ba-dator Jauna bere millaka santuakaz, ¹⁵ guztien aurka auzia egiteko, eta gaizto guztiak egin ebezan gaiztakeriakaitik lotsaz izteko, baita pekatari dongak Aren aurka esandako gordinkerri guztiakaitik be*.» ¹⁶ Oneik mormoxetan diarduenak dira, negarti, euren griña txarren azpian bizi diranak, agoa arrokeriz daukenak, euren irabazirako beste batzuen aurrean makurtzen diranak.

Apostoluen irakaspina

¹⁷ Baiña zuek, guztiz maiteok, gogoratu egizue Jesukristo gure Jaunaren apostoluak esan eutsueena*.

⁹ Aipamena: Za 3 2. Emen aitazten dan burruka au sasi-idazki edo apokrifito bate-tik artuta dago.

¹¹ Cf. As 4 3; Zn 22-24; Zn 16. ¹⁵ Enok, judar-idazlearen liburutik artuta.

¹⁷ Cf. Ap 20 29-30; Tm 2^a 3 1-5; P 2^a 2-3.

¹⁸ Azken-aldian guzurti batzuk etorriko zirala zirautsuen, euren griña txarren atzean ibillirik*. ¹⁹ Oneixek dira eztabaidak berotzen dabezanak, gizon lurkoi, espiriturik ez daukenak.

Maitasun-eginbearrak

²⁰ Zuek, barriz, guztiz maiteok, daukazuen sinismen santu-santuan sendotuta, Espiritu Santuagan otoitz egiñik, ²¹ Jaungoikoaren maitasunean iraun egizue, betiko bizitzarako Jesukristo gure Jaunaren errukia itxaronik*. ²² Arei buruz, barriz, batzui asarre egizue, oraindiño ezbai-

tan bizi dira-ta: ²³ salbatu egizuez besteak, sutatik atararik; eta erruki zakieze besteai bildurrez beterik, euren aragiaren loikeriaz zikinduta dagoan jantzia be iguindurik*.

Azkena

²⁴ Pekatu guztitik zuek gorde ta bere aintzaren aurrera loi bagarik eta pozez beterik zuek eroan zaiken Ari, ²⁵ Jaungoiko bakarrari, Jesukristo gure Jaunaren bidez geure Salbatzaillea dan Ari, aintza, aunditasuna, aal-izatea ta agintaritzatza aldi guztien aurretik, orain eta gizaldi guztietan. Amen.

¹⁸ Aipamen au ez da agiri Alkartasun Barrian; ez beintzat itzez-it.

²¹ Jainkoaganako iru onoiemenak, Ko 1^a 13 13+.

²³ Ez doguz bardin maite izan bear, sinismenean garbi dirauenak eta sinis-
mena euren erruz kutsututa daukenak.

JOAN'EN AGERPENA

(APOKALIPSIS)

Sarrera

1 ¹ *Aita* Jaungoikoaren agerpena, laster jazo bear diranak bere morroiari erakusteko, Jesukristo'ri egiña, eta, bere aingerua bialduta, Joan bere morroiari adierazoa*; ² Joan da, barriz, Jaungoikoaren Berbaz

eta Jesukristo'ren autorrez, ikusi dauan guztiari buruz autor egiten dauana. ³ Zorionekoa, igarpen onetako berbak irakurten dauzana, baita bertan idatzitakoa entzuten eta beteten dauana be! Aldia urr dago ta*.

I. ASIA'KO ELIZAI IDAZKIAK

Agurra

⁴ Joan'ek Asia'n dagozan zazpi elizai: grazia ta bakea izan daitezala zuekaz, danaren, zanaren eta datorrenaren izenean*, ⁵ baita Aren errege-jarleku aurrean dagozan zazpi Espirituen izenean be; baita Testigu zintzo, ildakoen Leenseme, lurreko erregeen Buru dan Jesukristo'ren izenean be: Berau da gu maite gaituana ta gure pekatuetatik bere odolaz askatu ta ⁶ bere Jaungoiko ta Aitaren errege ta abade egin gaituana. Beroni gorapena ta agintarritza gizaldiz-gizaldi. Amen*.

⁷ Orra non datorren odei-artean. Begi guztiak ikusiko dabe, Bera urratu ebenak batez be; eta Agaitik lurreko jatorri guztiak, bular-joka, negar egingo dabe. Egia da, eta alan izan dadilla. ⁸ «Neu naz alfa ta omega*» diño Jaungoiko Jaunak, danak, zanak eta izango danak, guztiz Aal-tsuak.

Asierako agerpena

⁹ Nik, Joan'ek, zuen anai ta Jesus'egaitik nekeetan, erreñuan eta eroapenean zuen lagunkide onek, Jaungoikoaren Itzagaitik eta Jesus'en autorragaitik Patmos deritzan ugar-tean nengoala, ¹⁰ Jaunaren egun baten (*igande baten*) zorabiatuta, nire atzean adar-otsa lako berbots aundi bat entzun neban, ¹¹ «Ikusi dagizuna, liburu baten idatzi egizu ta bialdu egiezu Efeso'n, Esmirna'n, Pergamo'n, Tiatira'n, Sardes'en, Filadelfia'n eta Laodizea'n diran zazpi elizai» iñoala. ¹² Berba egin eustan berbotsa norena zan ikusteko atzerantz begiraturik, urrezko zazpi argimutil ikusi nebazan, ¹³ eta urrezko zazpi argimutilen erdian Gizaseme antzeko norbait*, soifiek luzez jantzita ta bularpeak urrezko gerrikoaz estututa. ¹⁴ Aren buru ta uleak, artule ta edurra baizen zuriak ziran; eta Aren begiak, sugarren antzekoak. ¹⁵ Aren oiñak, la-

¹ ¹ Jaungoikoak argitara dakaz bere *ezkutua*, batez be gizaldien azkenaldiai dagokiezanak, 19; Ko 1^a 1 7; Erm 16 25+; cf. Is 24 1+; Ez 38 1+. Argitarate au Bildotsa dan Jesukristo'ren bitartez egiten dau, Joan Apostolua egiazko lekuko dala; cf. 22 6-9.

¹ ³ Cf. Ko 2^a 6 2; Ga 4 4+; Flp 4 5+.

¹ ⁴ *Dana, zana eta datorrena*, Jainkoizen irukoitz au, aspaldiko judar-tradiziño bati jarraituz, *Urteera* liburuak dakarrenaren azalpen zabalago bat da, Ur 3 14; 1 8: 4 8; e.a.

¹ ⁶ Kristo Errege ta Abade da, eta

Berak askatu dauzan guztiak be Errege ta Abade dira, 5 10; Ur 19 6+; P 1^a 2 9. Cf. 5 13-14; 19 4-8. Liburu onen txatal askotan leenengo kristauen liturgia-aztarnak somatzen dira, munduaren azkenaldiai egotzirik, 3; Cf. Erm 16 27+.

¹ ⁸ *Alfa ta Omega*. Gerkerazko ABD'ren leenengo ta azken-izkiak. Kristo da, beraz, gauza guztien asiera ta amaia, 21 6; 22 13; cf. 1 17; Is 44 6+.

¹ ¹³ *Gizaseme antzeko norbait*. Mesias da, gizadi osoa epaituko dauana, Dn 7 13+; Mt 8 20+. Beronen ezaupideak, bereala datozen zazpi idazkien asieran aurkitzen dira, cf. Dn 10 5-6, 9.

ban burdin-ori urtua baizen goriak ziran; eta Aren berbotsa, uriolarena lakoa*. ¹⁶ Eskuman zazpi izar eukazan, eta agotik ortz biko ezpata zorrotza urteten yakon; eta Aren arpegia, eguzkia bere indar guztiaz argi egiten dauanean lakoa zan.

¹⁷ Bera ikusi nebanean, Aren oiñetara jausi nintzan, ilda lez. Eta bere eskumea neure gainean jarri eban, esanez: «Ez ikaratu! Ni leengo ta betikoa naz*, ¹⁸ eta bizi dana ta illa izan zana; eta orain gizaldien gizaldietan bizi naz, eta eriotzaren eta lezearen (*inpernuaren*) giltzak daukadaz. ¹⁹ Idatzi egizuz, ba, ikusi dozuzanak, orain diranak eta onein ondoren izango diranak*. ²⁰ Auxe da nire eskumaldean ikusi dozuzan zazpi izarrai ta urrezko zazpi argimutillai buruzko antz-agiria: zazpi izarrak, zazpi elizen aingeruak* dira; eta urrezko zazpi argimutillak, zazpi elizak.»

Efeso'ko Elizeari idazkia*

2 ¹ Efeso'ko elizearen aingeruari, auxe idatzi egiozu: «Auxe diño bere eskuman zazpi izarrak daukazanak eta urrezko zazpi argimutillen erdian dabillanak: ² Ezagutzen dodaz zure egintzak, zure lanak eta zure eroapena. Ba-dakit gaiztoak ezin jasan (*erpan*) dozuzana, eta, apostoluak izateke, apostolu dirala diñoenak aztertu ta guzurti aurkitu dozuzana; ³ eta eroapena daukazu: nire izenagaitik atsekabeak eroan zenduzan, eta ez zagoz gogait egin-da. ⁴ Alan be, ba-dot zerbait zure aurka; zure leengo maitasuna gal-tzen itzi dozula. ⁵ Gogoratu egizu,

1 15 Cf. Ez 43 2.

1 17 Cf. 1 8+; 2 8; 22 13.

1 19 Orañaren eta geroaren profeziakzko ikustea, 2-3, 4-22. Izan be, onetantxe datza Liburu onen bereiztasuna, 1 1; cf. Dn 2 28.

1 20 Aingeruen ardurapean dagoz munduko izaki guztiak, 7 1; 14 18; 16 5; baita gizaki ta giza-taldeak be, cf. Ur 23 20; Aj 1 13; Ml 2 7.

2 1 Zazpi eskutizok oso jakingarriak

ba, nondik jausi zaran, eta garbatu zaitez, eta egizuz leengo egintzak. Bestela, damutu ez ba'zaitez, zugana etorririk, zure argimutilla bere tokitik kendu egingo dot. ⁶ Auxe dozu, orraitino, zure alde: Nikolao'ren* aldekoen egintzai gorrotoa dautsezula, neuk be gorrotoa dautsedanez. ⁷ Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Kristo'ren* Espirituak dirautsena. Irabazi dagianari, nire Jaungoikoaren atsedentokian dagoan bizitza-zugatzetik emongo dautsat jaten*.»

Esmirna'ko Elizeari idazkia

⁸ Eta Esmirna'ko elizearen aingeruari, auxe idatzi egiozu: «Auxe diño leenengoak eta azkenak*, ilda egon zanak eta bizitzara etorri zanak: ⁹ Ba-dakidaz zure atsekabea ta txirotasuna —a b e r a t s zagozanan—; baita, Satanas'en batzarreko baiño izan ezarren, eta, judar izan bagarik, eurak judar dirala diñoen guzur-baltza be ba-dakit. ¹⁰ Ez ikaratu igaro bear dozun nekeaz. Begira: deabruak zuetariko batzuk giltzapera jaurtiko dauz, aztertuak izan zaitez, eta amar eguneko* larrialdia izango dozue. Iraun zintzo eriotzararte, eta bizitza-koroia emongo dautsut. ¹¹ Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Jesukristo'ren* Espirituak dirautsena. Irabazi dagianak, ez dau bigarren eriotzaren* kalterik eroango.»

Pergamo'ko Elizeari idazkia

¹² Eta Pergamo'ko elizearen aingeruari, auxe idatzi egiozu: «Auxe diño ortz-biko ezpata zorrotza dau-

doguz orduko Elizen egoera ta goraberrai buruz. Bakotxaren egoera agertu ondoren, agintzariak datoz, edo-ta zigor-zemaiak. Bitzuok, geroke bizitzari begira.

^{2 6} *Nikolaotarrak*. Bai oiturretan eta bai jaurespenetan jentil-kutsua erion kristau-talde bat.

^{2 7} Cf. As 2 9; 3 22-24; Ag 22 2.

^{2 8} Cf. 1 17+.

^{2 10} Cf. Dn 1 12, 14.

^{2 11} *Bigarren eriotza*: betiko ondarena.

kanak: ¹³ Ba-dakit non bizi zaran: Satanas'en jarlekua dagoan tokian. Eta nire izenari errime eusten dautsazu, eta nire sinismena be ez dozu ukatu, ezta Antipas'en egunetan be, nire autorle ta «jarraitzaille» zintzo oni zuen artean Satanas bizi dan tokian bizia kendu eutsonean. ¹⁴ Alan be, ba-dot zerbait zure aurka: Israel'go semeen aurrean jauspideak jarten, sasi-jainkoen oparietatik jaten eta aragikeriak egiten, Balaan'ek Balak'i irakasten eutsanez, Balaan'en jarraitzailleai itzi egiten dautsezula. ¹⁵ Baita Nikolao'ren aldekoen ikasbideari jarraitzen dautsoneai be itzi egiten dautsezu. ¹⁶ Garbatu zaitez, ba; bestela, laster etorriko nakizu, eta nire agoko ezpataz burrukan egingo dautset. ¹⁷ Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Jesukristo'ren* Espirituak dirautsena. Irabazi dagianari, *mana** ezkutua emongo dautsat, baita arri-txo zuri bat be, eta artzailleak baiño iñok ezagutzen ez dauan izen bat arrian idatzita.»

Tiatira'ko Elizeari idazkia

¹⁸ Eta Tiatira'ko elizearen aingeruari auxe idatzi egiozu: «Auxe diño sugarra lako begiak eta burdin-oria (*brontzea*) lako oiñak daukazan Jaungoikoaren Semeak: ¹⁹ Ezagutzen dodaz zure egintzak, zure maitasuna, zure sinismena, ta zure lanbidea. Zure azken-egintzak, barriz, leengoak baiño obeak dira. ²⁰ Alan be, ba-dot zerbait zure aurka: bera profeta dala diñoan Jezabel zure, emazteak nire morroiari aragikeriak egiten eta sasi-jainkoen oparietatik jaten guzurrez irakasten eta bultza egiten dautsela; eta zuk itzi egiten dautsazula. ²¹ Damutzeko astia emon dautsat; arek ez dau, ostera, bere

aragikeriaz damutu nai. ²² Begira: ogera jaurtiko dot, eta aregaz loitzen diranak atsekabe aunditan izango dira, euren gaiztakeriaz damutu ez ba'daitez. ²³ Eta aren semeak erioztaz ilgo dodaz; eta eliza guztiak ezagutuko dabe Neu nazana gultzurrunak eta biotzak aztertzen dauzana. Eta bakotxari zeuen egintzai dagokienez emongo dautsuet*. ²⁴ Zuei, ostera, Tiatira'ko gaiñetikooi, orrelako ikasbideari jarraitzen ez dautsazuenoi, eta Satanas'en sakonak ei'diranak ezagutzen ez dozuezanoi, ez dot zuen gaiñera sorta barririk jaurtiko; ²⁵ ba-daukazuena bakarrik, ori bai, euki errime neu etorri arte. ²⁶ Eta irabazi dagianari eta nire egintzak azkenerarte iraunerazo dagianari, atzerrikanako agintaritzaz emongo dautsat, ²⁷ eta burdiñazko makillaz erabiliko dauz, eta buziñazko ontziak legetxe izango dira ondatuak*. ²⁸ Nik be neure Aitagandik artuta daukadanez, goizeko izarra* be emon egingo dautsat. ²⁹ Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Jesukristo'ren* Espirituak dirautsena.»

Sardes'ko Elizeari idazkia

3 ¹ Eta Sardes'ko elizearen aingeruari, auxe idatzi egiozu: «Auxe diño Jaungoikoaren zazpi Espirituak eta zazpi izarrak daukazanak: Ezagutzen dodaz zure egintzak: bizi-izena dozuna be ba-dakit, baiña ilda zagoz. ² Zain egon zaitez eta sendotu egizu il-zorian dagoan beste guztia, ez ditut on-onak aurkitu zure egintzak Jaungoikoaren aurrean-eta. ³ Beraz, artu ta entzun dozuna gogoratu ta bete egizu, eta garbatu zaitez. Zain egon ez ba'zaitez, lapurra legetxe etorriko naz, eta ez dozu jakingo zugana etorriko nazan

^{2 17} *Mana*, zeruko zoriona da, cf. Jn 6 32-35+. *Arri-txo zuria*, zerurako txartela lez da. *Izen barria* emoteak auxe adierazoten dau: artzen dauana zeroo barriztatua izanik, zerurako duin dala, 3 12; 19 12; cf. Is 1 26+; 62 2; 65 15.

^{2 23} Cf. Sal 62 13+; Erm 2 6+.

^{2 27} Cf. Sal 2 8-9.

^{2 28} *Goizeko izarra*: aal-izatearen ezau-garria, Is 14 12; cf. Zn 24 17. Kristauak, Kristo berbizuagaz bat-egitziak, zeruan izango dauzan aintza ta dizdira adierazoten dau emen, 22 16; cf. Ap 2 36+; Ef 2 6+.

ordua. ⁴ Alan be, ba-dozuz Sardes' en lagun batzuk: orreik ez dabez zikindu euren jantziak, eta neugaz ibilliko dira zuriz jantzita*, orretarako gai dira-ta. ⁵ Irabazi dagiana, soñeko zuriz jantziko da, aren izena neure Aitaren aurrean eta Beronen aingeruen aurrean autortuko dot. ⁶ Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Jesukristo'ren* Espirituak dirautsena.»

Filadelfia'ko Elizeari idazkia

⁷ Filadelfia'ko elizearen aingeruari, auxe idatzi egiozu: «Auxe diño Santuak, Egiazaleak, Dabid'en giltza daukanak, edegiten dauanak eta beste iñok ezin itxi daike, isten dauanak eta beste iñok ezin edegi daike*»: ⁸ Ezagutzen dodaz zure egingtzak. Begira: indar gutxiko zarannaren, nire Itza gorderik, eta nire izena ukatu ez dozun ezkerro, iñok be ezin edegi daikeen atea itzi dot zabalik zure aurrean. ⁹ Begira: Satanas'en batzarreko batzuek, judar izan bagarik, eurak dirala guzurrez esaten diarduen batzuk emongo dautsudaz. Begira: etorrerazo egingo dodaz orreik, eta zeure oiñen aurrean auzpaztuko dira, Nik maite zaitudala jakin dagien*. ¹⁰ Nire iraupen-itza gorde dozun ezkerro, Neuk be, lurrean* bizi diranak aztertzeke, lurrera etorteko danaren larrialditik gorde egingo zaitut. ¹¹ Laster nator. Ba-daukazuna ondo gorde egizu, zure koroia besteren batek eroan ez dagian. ¹² Irabazi dagiana, neure Jaungoikoaren etxeko zutabe egingo dot, eta andik barriro iñoiz be ez da urtengo; eta aren gainean neure Jaungoikoaren izena eta neure Jaungoikoaren Uriaren izena —neu-

re Jaungoikoagandik jatsiko dan Jerusalem barriarena— idatziko dodaz, baita neure izen barria* be. ¹³ Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Jesukristo'ren* Espirituak dirautsena.»

Laodizea'ko Elizeari idazkia

¹⁴ Laodizea'ko elizearen aingeruari, auxe idatzi egiozu: «Auxe diño Amen'ek*, testigu zintzo ta egiazaleak, Jaungoikoak egindakoaren Sorburuak: ¹⁵ Ezagutzen dodaz zure egingtzak; ez otz ez bero zarana be ba-dakit. Ai, otz edo bero ba'zintzaz! ¹⁶ Baiña epela zaran ezkerro, ez otz ez bero, nire agotik okadaka jaurtiteko zorian nagokizu. ¹⁷ «Aberatsa naz, aberastu egin naz, ez dot ezeren bearrik», diñozu-ta; baiña ez dakizu gixajo, errukarri, eskeko, itsu ta narru-gorri bat zaranik. ¹⁸ *Orregaitik*, artu nigandik burubide au: erosi egidazu sutan garbitutako urrea, aberastu zaitez; *erosi egidazuz* soñeko garbiak be, jantzi zaitez eta narrugorritan agertu ez zaitez; baita zure begiak igurtziteko begi-ura be, ikusi dagizun. ¹⁹ Nik, maite dodazan guztiak, zuzendu ta zigortu egiten dodaz. *Bide* onera bizkortu zaitez, ba, eta garbatu zaitez*. ²⁰ Begira: zutik nago ate-ondoan, ate-joka. Norbaitek nire berbotsa entzun eta atea edegi ba'dagi, aren etxean sartuko naz eta aregaz apalduko dot eta arek neugaz*. ²¹ Irabazi dagiana, nire errege-jarlekuan neugaz jarrezazoko dot, neuk be irabazi nebanez eta nire Aitagaz Aren errege-jarlekuan jesarri nintzanez. ²² Belarririk euki dagianak, entzun begi elizai *Jesukristo'ren* Espirituak dirautsena.»

3 4 *Jantzi zuria*, garbitasunaren eta garaipenaren irudi da, 3 18; 7 9, 13-14; e.a. Cf. 13 8; e.a.; Ur 32 33+.

3 7 Cf. Is 22 22+.

3 9 Cf. Is 45 14; 60 14; 43 4; Dt 4 37; 7 8; e.a.

3 10 *Lurrak*, kristau zintzoen arerio dan mundua esan nai dau emen, Jn 1 9+.

3 12 Cf. Is 62 2.

3 14 *Amen*: Kristo egi-zalearen izena, 1 5; 19 11-13; Ko 2* 1 17+; Is 65 16.

3 19 Cf. 3 12; Ebr 12 7+.

3 20 Kristo'ren eta fededun zintzoen arteko alkar-kutuntasuna, cf. Jn 14 23. Apari au, zeruko zoriona aurretiaz dasatzen astea da, Mt 8 11; Lk 22 29-30; e.a.

II. PROFETA-IKUSPENAK

1. JAUNGOIKOAREN «EGUN ANDIKO» LEEN-BIDEAK

Auzi-ebazle nagusia*

4 ¹ Gauza onein ondoren, ikuspen bat izan neban; eta zeruan ate bat ikusi neban zabalik; eta leengoan entzun izan neban turutotsa lako abotsak berba egiten eustan, eta auxe iñoan: «Igo zaitez ona, eta onein ondoren jazobearrak erakutsiko dautsudaz». ² Bat-batean, zorbioak artu nenduan, eta zeru-erdian errege-jarleku bat ipiñita, eta aulki-gaiñean Norbait* jesarrita ikusi neban. ³ Jesarrita egoanak, jaspe ta sardonize-arriaren antzeko zirudian; eta aulkia inguratzen eban ostar-kuak esmeraldearen antzeko zirudian. ⁴ Aulkiaren inguruan beste ogeitalau aulki ikusi nebazan; eta aulkion gaiñean, soñeko zuriz jantzita eta urrezko koroiz buruan, ogeitalau agura* egozan jesarrita. ⁵ Aulkitik tximistak, zaratotsak eta trumoiak urtetan ziran; eta aulki-aurrean, Jaungoikoaren zazpi espiritua* diran suzko zazpi kruselu egozan iziotuta. ⁶ Aulki-aurrean, leiar antzeko itsaso gardena; eta aulkiaren erdian eta bere inguruan, lau bizidun*, aurre-atetik begiz betetik. ⁷ Leenengo biziduna leoi-antzekoa zan, bigarren biziduna zezen-antzekoa, irugarren bizidunak gizon-antzeko arpegia eukan, eta laugarren biziduna arrano egalari antzekoa zan. ⁸ Lau bizidunok seiña

ego eukezan, eta guztiak, inguruan eta barruan, begiz betetik egozan, eta gau ta egun, atsedetik arteke, «Santu, santu, santua da Jaungoiko Jaun guztiz Aaltsua! Zana, dana ta izango dana», esaten ziarduen*. ⁹ Eta bizidunok aulkian jesarrita gizardiz-gizardi bizi danari aintza, dedu ta eskerrona emoten eutsoen baktxean, ¹⁰ ogeitalau agura areik, aulkian jesarrita dagoanaren aurrean auzpazten ziran, eta euren koroiak aulki-aurrera jaurtiten ebezan, esanez: ¹¹ «Aintza, dedu ta agintzaritza artzeko gai ba-zara Zu, gure Jaungoiko Jaun ori! Gauza guztiak Zeuk egin zenduzan, zeure nai-izatez dira ta izan ziran egiñak-eta.»

Bildotsa

5 ¹ Eta aulkian jesarrita egoanaren eskumaldean liburu* bat ikusi neban, barrutik eta azaletik idatzita eta zazpi ezaugarritz itxita. ² Aingeru errime bat be ikusi neban, deadar aundiz auxe iragarten ebal: «Nor da liburua zabaltzeko ta onen ezaugarriak askatzeko gai?» ³ Eta iñor be ez egoan, ez zeruan, ez lurrean, ezta lurpean be, liburua zabaldu ta aztertu eikeanik. ⁴ Liburua zabaltzeko ta aztertzeke gai aurkitua iñor be izan ez zan ezkerro, negar baten jarri nintzan. ⁵ Baiña aguretariko batek auxe esan eustan: «Ez egin ne-

4 1 Zeruan asi ta astiro-astiro lurbira osoa artzen dau Joan'i *agertutakoak*, 1 1, 19, Ezekiel'en eta Isaias'en esaerak somatzen dira, Ez 1; 10; Is 6.

4 2 Aulkian jesarrita dagoan ori Jaungoikoa da; baiña Joan'ek ez dau Aren izenik emoten; zelakoa dan be ez dau azaltzen, azaldu-eziña da-ta.

4 4 Zer dira ta zer adierazoten dabe Jainkoa gurtzen diarduen, eta aulkietan urrezko koroekaz jesarrita dagoan agura oneik? Jainkoa *aldi* guztiak baiña leenagokoa dala eta *aal* guztien gaiñetik dagoala. 4 9-11; 5 9; e.a.

4 5 Zazpi espiritua oneik goren-maillako aingeruak dira, 3 1; 8 2; Tb 12 14-15+.

4 6 Cf. 1 20+; Ez 1 5-21. Begiz beteta dagozan lau *bizidunok*, izadiaren ardurea dauken aingeru jagoleak dira. Gurtu ta goratu egiten dabe Jainkoa, 8-9. Ireneo Deunak lau Ebanjelarien irudi dirala diñosku.

4 8 Jainko Egillea goretzen dabe, 4 11; 14 7. Zeruko liturjia onen lorratzak Alkartasun Zaarrean be agiri dira, Is 6; Dn 4 31; e.a.

5 1 *Liburua*, Jainkoaren muga bagako iakituraren irudi bat da, 10 4; Ez 2 9; Dn 12 4. Jakituri au ezkutuan gordeten daben zazpi *ezaugarri* edo *silluak* banan-banan urratuak izango dira 6 garren atalitik aurrerantz.

garrik! Begira: Juda'ren leiñuko Leoiak, Dabid'en Kimuak* irabazi dau, Berak zabalduko dauz liburua ta onen zazpi ezaugarriak.»⁶ Eta aulkiaren eta lau bizidunen erdian alde batetik, eta lau aguren erdian bestetik, Bildotsa ikusi neban zutik, ilda lez*, zazpi adar eta zazpi begi eukazala. Oneik, Jaungoikoaren zazpi Espirituak dira, lurralde guztietara bialduak.⁷ Bildotsak, urreraturik, aulkian jesarrita egoanaren eskumatik liburua artu eban.⁸ Eta liburua artu eban, lau bizidunak eta ogeitalau agurak Bildotsaren aurrean auzpaztu ziran, bakotxak bere zitarea ta usaingarriz berteriko urrezko edontziak eukazala: usaingariok santuen otoiitzak dira.

⁹ Eta kanta barri bat abestu eban: «Liburua artzeko ta aren ezaugarriak askatzeko gai zara, illa izan zintzazan ezker, jatorri, izkera, enda ta erri guztitik zeure odolaz erosi z e n d u z a n Jaungoikoarentzat-eta; ¹⁰ gure Jaungoikoarentzat errege ta abade egin dozuz, eta lurrean erregetza dauke*.»

¹¹ Eta *ikuspen barri bat izan* neban. Eta aulki ta bizidun eta aguren inguruan, aingeru askoren berbotsa entzun neban; millaka ta millaka ta milloeka ta milloeka batuta*, ¹² deadarka auxe iñoen: «Indarra, aberastasuna, jakituria, aalizatea, dedua, aintza ta gorapena artzeko gai da illa izan dan Bildotsa». ¹³ Eta zeruan, lurgaiñean, lurpean eta itsasoan diran guztiai, auxe entzun neutsen erantzuten: «Aulkian jesarrita dagoanari ta Bildotsari gorapena, dedua, aintza ta nagusitza

gizaldiz-gizaldi.»¹⁴ Eta lau bizidunak, «Amen» erantzun eban. Eta agurak, auspaz, gurtu egin eban.

Ezaugarriak zabaltzea*

6¹ Eta *ikuspen barri bat* izan neban. Bildotsak zazpi ezaugarrietariko leenengoa zabaldu eban, lau bizidunetariko bati auxe entzun neutsan, trumoi-antzeko berbotses iñoala: «Zatoz!»² Begiratu ta zaldi zuri bat ikusi neban, eta aren gaiñean jarriak ustai bat eroian, eta koro bat emon eutsoen, eta nagusi urten zan, aurrerantzean be irabazteko.

³ Bigarren ezaugarria zabaldu eban, bigarren bizidunari auxe entzun neutsan esaten: «Zatoz!»⁴ Eta beste zaldi gorrizka bat urten zan, eta aren gaiñean jarriari, bakea lurretik kentzeko ta batak bestea ilteko aal-izatea emon izan yakon, baita ezpata aundi bat be.

⁵ Irugarren ezaugarria zabaldu eban, auxe entzun neutsan esaten: «Zatoz!» Begiratu ta zaldi baltz bat ikusi neban, eta aren gaiñean jarriak eskuan aztaken (*pisu*) bat eukan. ⁶ Eta lau bizidun-artetik berbots antzeko au entzun neban esaten: «Libra bi gari, *denario* baten; orioa ta ardaoa, barriz, ikutu be ez.»

⁷ Laugarren ezaugarria zabaldu eban, laugarren bizidunaren berbots au entzun neban esaten: «Zatoz!»⁸ Begiratu ta zaldi berdizka bat ikusi neban; eta aren gaiñean jarriak Eriotza eban izena, eta Lezeak jarraitzen eutsan. Eta lurreko laurenaren gaiñean gizakiak ezpataz,

⁵ 5 Juda'ko Leoiak ta Dabid'en Kimua, Mesias'i dagokiozan izen bi, As 49 9; Is 11 1. Kristo, Satanas'en eta munduaren garaille dala adierazoten dabe, cf. Jn 2 14+. Beraz, Berak bakarrik edegi daike Liburua.

⁶ 6 Ildako Bildotsa Kristo da, Jn 1 29+; Ko 1* 5 7. Zutunik, berbiztuta eta aintzaz beterik agiri da, gizadi osoaren jaun eta jabe lez, 14 1; 21 2+. Adarrak eta begiak, Kristo'ren aal-izate ta jakituria adierazoten dabez, cf. Za 4 10; Is

11 2+.

⁵ 10 Cf. 1 6; 20 6; Ur 19 6+.

⁵ 11 Cf. Dn 7 10; Ebr 12 22.

⁶ 1 Profetiazko ikuspenak datoz ondoren, Elizearen jazarle izan dan Erroma'ko Agintaritzaren ondamaena ta azkena iragarritz. Zaldiak eta zaldunak, Israel'en eta mundu gaiztoaren aurka iragarritako zigorrak adierazoten dabez, cf. Za 1 8-10; 6 1-3. Pizti basati, gudaketa, gosete ta izurriteak izango dira zigor oneik, cf. Ab 26 21-26; e.a.

gosez, izurritz eta lurreko basapistiz ilteko aal-izatea emon izan yakon*.

⁹ Bosgarren ezaugarria zabaldu eban, Jaungoikoaren Itzagaitik eta *Jesukristo'gaitik* emon eban aurtoragaitik ildakoan erimak ikusi nebazan altara-azpian*. ¹⁰ Eta deadarka auxe iñoen: «Noiz arte luzatuko dozu ebaztea, Jaun santu ta egizale orrek, lurrean bizi diranai gure odolagaitik zigorra ezarteke?»¹¹ Eta jantzi zuri bana emon eta une baten isildu zeitezala esan yakon, eurak lez ilbearrak ziran euren morroi-kide ta anaien kopurua bete arte.

¹² Eta *ikuspen barri bat* izan neban. Seigarren ezaugarria zabaldu eban, lurrikara aundi bat izan zan, eta eguzkia auntz-ulezko zorro bat baizen baltz biurtu zan, eta illargia odola lez*, ¹³ eta ortziko (*zeruko*) izarrak lur-gaiñera jausi ziran, pikondoak aize-boladaren bultzaka-deaz pikoak jausten izten dauzan antzera. ¹⁴ Eta ortzia batu egin zan, liburu bat biribiltzen dan antzera; eta mendi ta ugarte guztiak zirkin egin eban euren lekuetan. ¹⁵ Lurreko errege, aundiki, agintari, aberats, indartsu, jopu ta euren burujabe guztiak artzulo ta mendiko atxetan gorde ziran. ¹⁶ Mendi ta atxai auxe zirautsen: «Jausi zaiteze gure gaiñera, eta aulkian jesarrita dagoanaren arpegitik eta Bildotsaren asarretik gorde gagizuez, ¹⁷ Aren asarregun aundia eldu da-ta! Nor geratu daiteke, barriz, zutik?»

Ezaugarri-dun-taldea

7¹ Orren ondoren, lau aingeru ikusi nebazan lurraren lau zokondoetan* zutik, lurreko lau aize-

ak geldi eukiten, legorrean, itsasoan eta zugatzetan (*arboletan*) aizerik jagi ez zedin.

² Eta beste aingeru bat ikusi neban eguzki-sortzaldetik igoten, eta Jaungoiko biziaren ezaugarria eukan; eta lurrari ta itsasoari kalte egiteko aal-izatea emon izan yakon lau aingeruai, *aingeru arek* berbots aundiz deadar au egin eutsen: ³ «Ez egin kalterik lurrari, ez itsasoari, ez zugatzai, gure Jaungoikoaren menpekoai bekokietan sillau ezarri daiegun arte». ⁴ Eta ezaugarria* artu eban kopurua be entzun neban: eun eta berrogei ta lau milla* Israel-darren semen leiñu guztietariko ezaugarri-dunak.

⁵ Juda'ren leiñutik, amabi milla ezaugarri-dun; Erruben'en leiñutik, amabi milla; Gad'en leiñutik, amabi milla; ⁶ Aser'en leiñutik, amabi milla; Neftali'ren leiñutik, amabi milla; Manases'en leiñutik, amabi milla; ⁷ Simeon'en leiñutik, amabi milla; Lebi'ren leiñutik, amabi milla; Isakar'en leiñutik, amabi milla; ⁸ Zabulon'en leiñutik, amabi milla; Jose'ren leiñutik, amabi milla; Benjamin'en leiñutik, amabi milla ezaugarri-dun.

Zeruko beste taldeak* (15, 2-5)

⁹ Gero, begiratu ta iñok ezin zenbatu eikean enda, jatorri, erri ta izkera guztietariko talde aundi bat ikusi neban aulkiaren eta Bildotsaren aurrean, soiñeko zuriz jantzita eta eskuan palma-adarrak eukezala. ¹⁰ Eta deadarka auxe iñoen: «Gure osasuna, aulkian jesarrita dagoan geure Jaungoikoari zor dauzagu, eta geure Bildotsari!»¹¹ Eta aingeru guztiak zutik egozan aulkiaren, agu-

⁶ 8 Cf. Ez 14 21.

⁶ 9 Erre-oparien altara-azpian martiriak agiri dira, 8 3; 9 3; e.a.; cf. Er 1* 8 64. Martiri oneik Kristo'ren eriotzagaz bat-egitnik dagozala esan nai da emen; cf. Flp 2 17+.

⁶ 12 Izadian agiri diran ezaugarri bildurgarri oneik, Jainkoaren asarre ta sumiña adierazoten dabe, mundu gaiztoaren aurka, cf. Is 13 10; 34 4; 2 10, 19; Am 8 9+; Mt 24.

⁷ 1 Cf. Ur 7 2; Za 6 5; Jr 49 36.

⁷ 4 Ezaugarria dabe, Jainkoak bere babespean daukazala adierazoz, Ur 13 9, 16; Ez 9 4+; cf. Ko 2* 1 22+. Euan eta berrogeita lau milla dira, au da, zenbatu ezin-ala seme-alaba, egiazko Israel dan Elizearenak, cf. 20 9; 21 14; Ga 6 16+; Ebr 12 22-24.

⁷ 9 Zeruko aintza lortu daben martiriak, 14; 15 2-4.

ren eta lau abereen inguruan; eta, aulkiaren aurrean auspaz, Jaungoikoa gurtu eben, ¹² esanez: «Amen! Gorapena, aintza, jakituria, eskerak emotea, dedua, aal-izatea ta indarra gure Jaungoikoari gizaldiz-gizaldi. Amen.» (21, 3-4; 22, 3-5)

¹³ Eta aguretariko batek berba egin eta auxe esan eustan: «Nor-tzuk eta nondik etorri dira soñeiko zuriz jantzitako orreik?» ¹⁴ «Ene Jauna, ori zeuk dakizu», erantzun neutsan nik. Eta arek niri: «Larrial-di aunditik etorri diranak eta euren soñeikoak Bildotsaren odolaz ikuzi (*garbitu*) ta zuritu dabezanak dira orreik. ¹⁵ Orrexe gaitik dagoz Jaungoikoaren aulki-aurrean, eta gau ta egun Aren etxean Aren morroitzan diardue; eta aulkian jesarrita dagoanak bere txabolea euron gainean zabalduko dau. ¹⁶ *Onezkeroko ez dira gose izango, ezta egarri be, ezta eguzkiak edo inungo sargorik be ez dauz nekatuko;* ¹⁷ aulki-erdian dagoan Bildotsak *larratu ta bizitzako ur-iturrietara eroango dauz;* eta arein begietatik edozein malako Jaungoikoak *kendu egingo dautse*.*»

Leenengo lau turutotsak

8 ¹ Eta Bildotsak zazpigarren ezau-garria zabaldu ebanean, zeruan ordu erdiko-edo isillaldia egin zan*.

² Eta Jaungoikoaren aurrean zutik egozaz zazpi aingeruak ikusi nebazan. Eta zazpi turuta emon izan yakezan. ³ Eta beste aingeru bat etorri ta altara-ondoan gelditu zan zutik, eskuan urrezko intzentzu-ontzia eukala; eta usaingarri asko emon yakozan: santu guztien otoitzai dagokienez, aulki-aurrean dagoan urrezko altaran eskiñi egizan. ⁴ Eta santuen otoitzakaz batera, usaingarrien kea aingeruaren eskutik Jaungoikoaren aurrera igo zan. ⁵ Eta aingeruak, intzentzu-ontzia artu ta al-

tarako txingarrez beterik, lur-gaiñe-ra jaurti eban; eta trumoiak, burrundarak, oiñaztuak eta lurrikarak asi ziran*.

(16, 1-9)

⁶ Eta zazpi turutak eukezan zazpi aingeruak, turutak joteko gertu jarri ziran. ⁷ Jo eban leenengoak turuta, eta txingorraz eta odolaz naastutako sua asi zan, eta lur-gaiñera izan ziran jaurtiak; eta lurretik irutarik bat erre egin ziran, eta zugatzak irutarik bat erre egin ziran, eta bedar eze (*berde*) guztia erre egin zan.

⁸ Bigarren aingeruak be turuta jo eban; eta mendi aundi bat zirudian zerbait, itsasora izan zan jaurtia; eta itsasoa irutarik bat odol biurtu zan, ⁹ eta itsasoa bizi diranak irutarik bat il egin ziran, eta itsasoko ontziak irutarik bat galdu egin ziran.

¹⁰ Irugarren aingeruak be turuta jo eban; eta argizuzi bat lez iziotutako izar aundi bat jausi zan zerutik, eta ibai ta iturrietako irutarik baten gaineña jausi zan. ¹¹ Eta izar orren izena «Asentsio» da. Ura irutarik bat asentsio-bedar biurtu zan, eta gizakume asko, mingots biurtu ziran urakaitik, il egin ziran.

¹² Laugarren aingeruak be turuta jo eban; eta eguzkia irutarik bat, eta illargia irutarik bat eta izarrak irutarik bat zaurituak izan ziran, areitan irutarik bat illunduta gertzeraiño, eta egunak bere argia irutarik bat galdu egin eban, baita gauak be.

¹³ Eta *ikuspen barri bat* ikusi neban. Eta arrano bati, zeru-erdian egaz ebillela, deadarka iñoan au entzun neutsan: «Ene, ene, ene!, negargarriak lurrean bizi diranak!, joteko gertu dagozan iru aingeruen beste turutotsakaitik!»

7 17 Is 49 10-11 eta 25 8'garrenetik jasota.

8 1 Cf. Abk 2 20; So 1 7; Za 2 17.
8 5 Cf. Ez 10 2; Ab 16 12.

Bosgarren turutotsa

9 ¹ Bosgarren aingeruak be turuta jo eban; eta izar* bat ikusi neban, zerutik lurrera jausten zala: eta Leza-osiñeiko giltza emon eutsoen. ² Eta Lezako osiña edegi egin eban; eta osiñetik ke-moltzoa, laba aundi bateko kea lez*, igo zan; eta osiñeiko keagaitik, eguzkia illundu egin zan, baita eguratsa be. ³ Eta ke-moltzotik lur-gaiñera matxingorrikoak urten ziran, eta lurreko lupuena lako indarra emon izan yaken. ⁴ Lurreko bedarri, ortu-ariri ta zugatz ez egiela kalterik egin esan yaken, euren bekokietan Jaungoikoaren ezaugarririk euki ez egien gizakumeai baiño. ⁵ Azken-oneik ez egiezala il, agindu yaken, bost illebetean oiñazetu egiezala baiño; oiñaze ori, barriz, lupuak gizona zauritzen dauanean gizonari emoten dautsan oiñazea lakoak zan. ⁶ Egun areitan gizonak eriotzaren billa ibilliko dira, eta ez dabe idoroko* (*aurkituko*); il nai izango dabe, baiña eriotzak arekandik iges egingo dau.

⁷ Matxingorrikoak, gudarako gertu dagozan zaldien antzekoak ziran; buru-gaiñean urrezko koroi-antzekoak ekarrezan, eta arein arpegiak gizon-arpegiak lakoak ziran; ⁸ ulea, emakumeen ulea lakoak euken, eta arein agiñak leoiarenak lakoak ziran; ⁹ bularrekoak, burdiñazko bularrekoak lakoak eukezan, eta arein ego-otsa, gudara arrapaladan doazan zaldi askoren burdiena lakoak zan. ¹⁰ Lupuen eta eztenen antzeko buztanak eukezan, eta gizonai bost illebetean kalte egiteko indar guztia euren buztanetan euken. ¹¹ Erregetzat, eberkeraz Abaddon eta gerkeraz Apolion* deritzan lezako ainge-

rua dabe. ¹² Igaro da leenengo «ene!» au. Begira: onen ondoren, beste «ene!» bi be ba-datoz.

Seigarren turutotsa

¹³ Seigarren aingeruak be turuta jo eban. Eta Jaungoikoaren aurrean dagoan urrezko altarearen lau ertzetatik etorren berbots bat entzun neban, ¹⁴ turuta eukan seigarren aingeruari auxe zirautsala: «Askatu egizuz Eufrates ibai aundian lotuta dagozan lau aingeruak». ¹⁵ Eta ordu aretarako, egun aretarako, ille aretarako ta urte aretarako gertu egozan lau aingeruak askatuak izan ziran, gizonetarik irutik bati eriotza emon egioen. ¹⁶ Eta zaldizko gudariak bereun milloez ziran: neuk entzun neban arein kopurua. ¹⁷ Eta zaldiak eta zaldi-gaiñetan jesarrita egozanak, olantxe ikusi nebazan: zaldizkoak, su, ubel eta azufre-kolorezko bularbabeskiñak eroiezan; zaldien buruak, barriz, leoi-buruak zirudien, eta agotik sua, kea ta azufre erien.

¹⁸ Iru zigorron bidez —edo bardin dana, suaz, keaz eta agotik erien azufreaz—, gizonak irutarik bat il egin ziran. ¹⁹ Zaldiak euren indarra agoan eta buztanetan dabe; izan be, arein buztanak suge-antzekoak dira, bakotxa bere buztanagaz, eta oneixen bidez egiten dabe min.

²⁰ Alako zigorraz bizia galdu ez eben gaiñetiko gizakumeak, ez ziran euren esku-lanaz garbatu; eta deabruak, eta ikusteko, entzuteko ta ibilteko ezer ez diran urre, zidar, burdin-ori, arri ta zurezko irudiak gurtzen ez ziran gelditu*; ²¹ ezta euren giza-ilteak, sorginkeriak, araginkeriak eta lapurretak be ez ebezan iguindu.

9 1 Zerutik jausi dan izar au, aingeru gaiztoren bat da; Satanas, urrean. Bero-nek edegiten dau deabruen zigor-lekua. Matxingorriko oneik inpernuko espirituak izan datekez, bekokian Jainko-ezaugarria ez daukanak zigortzera bialduak. Cf. Jl 1-2.

9 2 Cf. Ur 19 18.

9 6 Cf. Jb 3 21.

9 11 *Abaddon eta Apolion*, au da, Ondamendia ta Ondatzailea.

9 20 Cf. Is 17 8; Dn 5 4, 23; Sal 136 15-17.

Joan'ek irunsi eban liburtxoa

10 ¹Eta aingeru errime bat ikusi neban, odei bataz batuta zertutik jatsiten zala; buru-gaiñean ostarkua eukan, eta aren arpegia eguzkia lakoa zan, eta aren oiñak suzko abeak lakoak. ²Eskuan liburutxo* bat eukan, zabalik. Eta eskumako oiña itsas-gaiñean eta ezkerrekoa lur-gaiñean ezarririk, ³leoiak orro egiten dauan antzera, deadar aundi bat atara eban. Deadar egin ebanean, zazpi trumoiak euren danbarradaz erantzun eben. ⁴Eta zazpi trumoiak erantzun ebanean, idazteko gertu nengoan; baiña zertutik berbots bat entzun neban, auxe ziraustala: «Zazpi trumoiak esandakoa ixilpean gorde egizu ta ez egizu idatzi». ⁵Itsas-gaiñean eta lur-gaiñean zutik egoten ikusi izan neban aingeruak, bere eskua zerurantz jaso eban. ⁶Eta gizaldiz-gizaldi bizi dan Aregaitik, zerua ta ango guztiak, lurra ta ango guztiak, itsasoa ta ango guztiak egin dauzan Aregaitik, zin au egin eban: «Onezkero ez da astirik izango; ⁷zazpigarren aingerua bere turuta artu ta jo dagianean beteko da Jaungoikoaren Asmo ezkutua*, Jaunak bere morroi profetai iragarri eutsenez.»

⁸Zerutik entzun izan neban berbotsak barriro berba egin eta auxe esan eustan: «Zoaz, artu egizu itsas-gaiñean eta lur-gaiñean dagoan aingeruak eskuan zabalik daukan liburtxoa». ⁹Joan nintzan, ba, aingeruagana, liburtxoa emon egistala esatera. Eta ba-diraust: «Artu ta jan egizu; sabela mingostu egingo

dautsu; baiña agoan ezta baizen gozoa izango yatzu.» ¹⁰Artu neban, ba, liburtxoa aingeruaren eskutik, eta irunsi egin neban, eta nire agoan ezta baizen gozoa zan; baiña irunsi nebanean, sabela mingostu egin yatan*. ¹¹Eta auxe esan eustan: «Barriro be erri, atzerri, izkera ta errege askoi buruz igarketak egin bear dozuz.»

Autorlari biak

11 ¹Makilla antzeko kaiñabera bat emon eusten, esanez: «Jagi zaitetz eta Jaungoikoaren Etxea*, altarea ta ango gurtzailleak negurtu egizuz. ²Jaunaren Etxeko ataurrea, barriz, negurtu bagarik itzi, jentillai emon yake-ta; jentil oneik, berrogeita bi illebetetan* Uri Santua ostikopean erabilliko dabe. ³Eta nire aginduz, testigu bik*, zakuz jantzita, igarketak egiten jardungo dabe milla ta berreun eta irurogei egunez. ⁴Oneixek dira lurraren Jaunaren aurrean dagozan oriondo biak eta argizuzi biak. ⁵Eta norbaitek kalte egin nai ba'dagitse, arein agotik sua urtengo da eta euren arerioak irunsi egingo dauz. Arei kalte egin nai dagitsen guztiak, il egingo dira. ⁶Oneik ortzia (zerua) isteko aal-izatea dabe, euren igartaldi-bitartean lurrera euririk jausi ez dadin; baita ura odol biurtzeko ta, nai leukeen bakotxean, lurra edozein zigorrez joteko be aal-izatea dabe. ⁷Eta euren autorra amaitu dagienean, Pisti batek, Lezatic igota, gudu egingo dautse, eta azpiratu ta il egingo dauz*. ⁸Eta antz-iruditan

¹⁰ 2 Liburutxo au ez da gorago aitatu dan Liburua. 5 1-2.

¹⁰ 7 Cf. Am 3 7. Jainkoaren Asmo ezkutua, cf. Erm 16 25+. Asmo ezkutu onetan dago Kristo'ren Barri Ona, azken baten arerio guztien gaiñetik garaille urtenda, Jainkoaren Erreiña ezarriko dauana, 17-18; 20 7-10.

¹⁰ 10 Elizeak, garaille urten aurretik, erasoaldi gogor eta latzak eroan bear izango dauz, cf. 11 1-13.

¹¹ 1 Jerusalem'go Jauretzea Elizearen irudi da. 2; 20 9; 21 2+; cf. Ko 1* 3

¹¹ 2 Berrogeita bi illebeta, au da, iru urte ta erdi. Orixe da erasoaldiak, gitxi gora-beera, irauten dabena, 13 5; Dn 7 25; 12 7.

¹¹ 3 Jauretxearen edo Elizearen barriz-taille biok, Moises'en eta Elias'en antza dabeno, nortzuk ete dira? Pedro ta Paulo dirala uste izan dabe askok; ain zuzen be, biok izan ziran martiri Erroman, Neron'en agintaritzapean, 7-8. Cf. Mt 17 3+.

¹¹ 7 Cf. Dn 7 21.

Ejipto ta Sodoma deritzan Uri Aundiko* plazan, arein Jauna gurutzera izan zan urian*, areitariko bakotxa gorpu geratuko da. ⁹Erri, jatorri, izkuntza ta endak arein gorpuak iru egun eta erdian ikusiko dabez, eta ez dabe arein gorpuak illobian jarten itziko. ¹⁰Eta lurreko bizi-lagunak arein lepotik poztu ta alaitu egingo dira, eta alkarri bezuzak bialduko dautsoez, profeta biok lurreko bizi-lagunen oiñazea ziran-eta. ¹¹Baiña iru egun eta erdi ezkerro, Jaungoikoagandiko bizitza-espíritu bat sartu zan arekan eta zutundu egin ziran, eta bildur aundia jausi zan arein ikasleen gaiñera. ¹²Eta zertutik berbots aundi bat entzun neban arei ziraustela: «Igo zaitetz ona!» Eta odei baten igo ziran zerura, arein arerioak begira-begira egozala. ¹³Ordu aretan lurrikara aundi bat sortu zan, eta urian irutarik bat lurrera jausi zan, eta lurrikara aretan zazpi milla lagun il ziran; eta enparaduak arrituta geratu ziran, eta zeruko Jaungoikoari gorapena emon eutsoen. ¹⁴Igaro da bigarren «ene!» au. Ona emen irugarren* «ene!»

Zazpigarren turutotsa

¹⁵Zazpigarren aingeruak be turuta jo eban, eta zeruan deadar aundiak entzun ziran, auxe iñoela: «Eldu da mundu-gaiñera gure Jaungoikoaren eta Beronen Kristo'ren erreiña, eta errege izango da gizaldiz-gizaldi». ¹⁶Jaungoikoaren aulkiaurrean jesarrita egozan ogeita lau

agurak auspaztu egin ziran eta Jaungoiko gurtu egin eben, esanez: ¹⁷«Eskerrak emoten dautsuguz zaran eta izan zintzazan Jaungoiko Jaun guztiz aaltu orri, zure aal-izate aundia zeureganatu dozulako ta errege izaten asi zaralako. ¹⁸Atzeritarrak asarre bizitan jarri ziran; baiña eldu da zure asarrea, baita ildakoak ebazteko aldia be, baita zure morroi diran profetai, santuai ta zure izenaren bildur diran txiki ta aundiai saria emoteko eta lurra ondutzen ebenak galtzeko aldia be bai*.»

¹⁹Orduan, Jaunaren Etxea*, zeruko, zabaldu egin zan, eta Aren Etxean Alkartasun-kutxea agertu zan, eta oiñaztuak, danbarradak, oiñaztarriak, lurrikarak eta txingorrada aundiak izan ziran.

Emakumea ta sugea

12 ¹Eta ezaugarri aundi bat agertu zan zeruan: emakume* bat eguzkiz jantzita, oinpean illargia ta buruan amabi izarreko koroia ekazala. ²Eta seindun zala, seiña egiteko miñez eta egin-zorian garrasika egoan.

³Beste ezaugarri bat be agertu zan zeruan; eta su-kolorezko iransuge* aundi bat ikusi neban, zazpi buru ta amar adar ekazala, eta buru-gaiñetan zazpi koroia. ⁴Aren buztanak zeruko izarrek irutarik bat beragaz eroan eta lurrera jaurti ebazan. Iransugea, seiña egiteko zorian egoan emakumearen aurrean geratu zan, seiña jaoala irunsi egion. ⁵Emakumeak seme* bat izan eban,

¹¹ 8 Uri Aundia, Babilonia da, au da, Erroma, 16 19; 17 5; e.a. Arein Jauna gurutzera izan zan uria: Jerusalem da, aurki. Baiña, antza, emen profeten itzaille diran irudi lez artzen da.

¹¹ 14 Bigarren Ezbearra, 9 15'ean ikusi dogu. Irugarrena, barriz, 17'garren atalean azalduko da.

¹¹ 18 Cf. Sal 2 1, 5; Am 3 7; Sal 115 13.

¹¹ 19 Jauretze au ez da 11 1-2'garrenetan aitatu dana. Onek betiko Alkartasunaren kutxa dauko barruan, Ur 25 10+; Ag 15 5; 21 3, 22; cf. M 2* 2 4-8.

¹² 1 Eba gogorazoten daukun Emakume au, As 3 1-2, 15+, fededunen Elizea da. Baita, kristau-tradiziñoak beti uste izan dauanez, Birjiña Maria be, Mesias'en eta Elizearen Ama.

¹² 3 Iransugea, Satanak da, Elizearen arerio nagusia, cf. Jb 1 6+.

¹² 4 Cf. Dn 8 10.

¹² 5 Seme au, Mesias da, Is 66 7, Elizearen Buru dan Jesukristo, Sal 2 9; cf. Ag 2 27; 12 2. Jaiobarri menperatzen dau arerioa. Emakumeak, au da, Elizeak, munduko basamortuan jarraitzen dau, arerio guztiakandik Kristo'k babesten daua.

burdiñazko zigorrez erri guztiak zuzenduko dauzana; baiña seme ori artu ta Jaungoikoagana ta Aren aulkira eroan eben. ⁶Emakumeak basamortura egin eban iges; Jaungoikoak atondutako bazter bat eukan an, milla ta berreun eta irurogei egunez janaritu egien.

Zeruan gudaketan

⁷Zeruan gudaketa bat izan zan: Mikel* eta beronen aingeruak iransugearen aurka burrukan egin eben, ⁸iransugeak eta beronen aingeruak be burrukan egin eben; eta oneik ezin irabazi izan eben, eta arrezkerro oneintzat ez zan zeruan tokirik izan. ⁹Eta iransuge aundia, Txerren eta Satanas deritzan aspaldiko suga, gizadi osoa lilluratzen dauana, amildu egin eben; lurrera jaurti eben, eta aren Aingeruak be suga-gaz batera amilduak izan ziran.

¹⁰Eta deadar aundi au entzun neban zerutik: «Oraintxe dator osasuna, indarra, gure Jaungoikoaren erregetza ta Aren Kristo'ren aal-izatea: gure Jaungoikoaren aurrean gure anaiak gau ta egun salatzen ebazana, jaurtia izan da-ta. ¹¹Baiña areik, Bildotsaren odolaz eta emon eben autorraz, *iransugea* azpiratu egin eben, euren bizitza bera be ez eben eriotza baiño maiteago izan-eta. ¹²Poztu zaiteze, ba, zeruok eta bertan bizi zaren guztiok! Zuen zoritxarra, barriz, lur-itsasoonan!, zuekana txerrena jatsi da-ta, asti gutxi geratzen yakola jakifiik.»

Iransugea Salbatzaillearen Amaren aurka

¹³Iransugea, lurrera jaurti izan

¹² 7 Etenaldi bat egiten dau emen Joan'ek Mikel'en eta Iransugearen arteko gudaketa azalduaz, 7 12; cf. Dn 10 13. Jainkoaren eta Kristo'ren garaipenaz amaitzen da erasoaldia.

¹² 13 Barrero Elizaren aurkako eraso ta burruka. Basamortuan, 14, aurrean erabilliak diranen iges-lekuan. Ur 2 15; M 1* 2 29-30, zaintzen dau Jaungoikoak iru urte ta erdian, 11 2+.

ebela ikusi ebanean, Seme a egin eban Emakumeari erasoka asi yakon*. ¹⁴Baiña emakumeari arrano aundiaren ego biak emon eutsuezan, basamortuko bere baztarrera egaz egian; eta an, sugearen arpegitik urrun, urte baten eta beste urte baten eta urte ta erdian* azi egiten da. ¹⁵Iransugeak bere agotik Emakumeari ibai-ura lakoa jaurti eutsan, ibaiak Emakumea eroan egian. ¹⁶Baiña, lurra Emakumearen alde etorri zan; eta lurrak, bere agoa zabaldurik, iransugeak bere agotik jaurtitako ibaia iruntsi egin eban. ¹⁷Iransugea Emakumearen aurka asarre-bitsetan jarri zan, eta aren (*Emakumearen*) jatorriko enparaduai —Jaungoikoaren aginduak beteten dabezanai eta Jesus autortzen dabenai— gudu egitera joan zan*. ¹⁸Eta itsas-ondar-gaiñean gelditu zan zain.

Itsasoko aberea*

13 ¹Eta abere bat ikusi neban itsasotik urtetan. Amar adar eta zazpi buru eukazan, eta adarren gaiñean amar zerrenda, eta buruen gaiñean birao-izenak. ²Ikusi neban aberea panterearen antzekoa zan, eta aren oiñak artzarenaren antzekoak, eta aren agoa leoiarenaren antzekoa. Iransugeak indarra, bere aulkia ta aal-izate aundia emon eutsazan. ³Aren buruetariko bat eriotz-zauriaz jota lez ikusi neban; baiña eriotz-zauria osatu egin izan yakon. Lur osoak, arrituta, abereari jarraitzen eutsan. ⁴Eta iransugea gurtu egin eben, abereari aal-izatea emon eutsalako; baita aberea be gurtu egin eben, esanez: «Nor aberea lakorik?

¹² 14 Edo bardin dana, iru urte ta erdian.

¹² 17 Cf. 1 2-3, 9; 14 12; 20 4; As 3 15; Erm 8 29+.

¹³ 1 *Itsasoko* (Mediterraneo'ko) *Abere* au, Erroma'ko Agintaritza da. Berau da, ain zuzen be, Kristo'ren eta Elizaren aurka joan diran arerio guztien irudi. Arerio onein aal-izatea Satanas'egandikoa da, 12 3; cf. 17 3, 7-12; Jn 12 31; Lk 4 6; Dn 7 2-8; 11 36.

Nok egin daike burrukan aren aurka?» ⁵Eta abereari arrokeriak eta biraoak esaten ebazan agoa emon eutsoen, baita berrogeita bi illebe-tean jarduteko eskubidea be. ⁶Eta bere agoa zabaldu eban, Jaungoikoa ta Aren izena ta Aren txabolea ta zeruan diranak biraokatzen ebazala. ⁷Santuai guda egiteko ta areik azpiratzeko indarra emon yakon, baita edozein jatorri, erri, izkuntza ta atzerri menpean eukiteko aal-izatea be. ⁸Eta munduaren asieratik, il eben Bildotsaren bizitza-liburuan euren izena idatzita ez dauken lurreko bizi-lagun guztiak, aberea gurtu eben. ⁹Norbaitek belarririk ba'dauko, entzun begi. ¹⁰*Norbaitek norbait espetxera eroan ba'dagi, espetxera joango da; norbaitek norbait expataz il ba'dagi, expataz ilgo da**. Onetantxe dago santuen iraupena ta sinismena!

Bigarren aberea: basokoa

¹¹Beste abere bat ikusi neban lurretik* igoten; bildotsaren antzeko adar bi eukazan, baiña iransugeak legetxe egin eben berba. ¹²Leenengo aberearen aal-izate osoa erabilen aren aurrean; eta lurra ta lurreko bizi-lagun guztiak erakarri ebazan eriotz-zauria osatu izan yakon leengo aberea gurtzera. ¹³Miragarri aundiak egin ebazan, gizonen aurrean sua zerutik lurrera eratsite-raiño. ¹⁴Eta leengo aberearen aurrean miragarriak egiteko emon eutsoen aal-izateaz, lurreko bizi-lagunak lilluratu egiten ebazan, ezpañazauria eukiarren bizirik geratu izan

zan aberearen omenez irudi bat egin egiela, arei esanez. ¹⁵Eta aberearen irudiari bizia emoteko aal-izatea emon yakon, aberearen irudiak berba egiteraiño, eta aberearen irudia gurtu ez egian edonori bizia kentzeraiño*. ¹⁶Eta guztiai, txiki ta aundi, aberats eta beartsuai, nor bere burujabe ta jopuai, eskuman eta bekokian ezaugarri bat ezarrerazo eutsen, ¹⁷ezaugarri* ori aberearen ize-naz edo beronen izenaren zenbakiaz euki egianak baiño beste iñok erosi edo saldu aal ez egian.

¹⁸Ona emen jakituria! Adimena (*euki*) dagianak, asmatu begi aberearen zenbakia, giza-zenbakia da-ta. Zenbaki au, barriz, seireun eta irugogea sei (666)* da.

Bildotsa ta Onen jarraitzailleak* (7, 1-8)

14 ¹Eta *ikuspen barri bat* izan neban. Sion-mendi gaiñean Bildotsa egoan, eta Aregaz batera eun eta berrogeita lau milla lagun, Bildotsaren izena ta Beronen Aitarrena bekokietan idatzita eukezala. ²Eta zerutik etorren deadar bat entzun neban, uriol-ots eta trumoi aundi baten burrundarea lakoa. Eta entzun neban deadara, zitara josten ziarduen zitaralariena lakoxea zan. ³Eta kanta barri bat abesten ziar-duen aulki-aurrean eta lau abereen eta aguren aurrean. Eta abesti a iñok be ezin ikasi eban, lurretik erositako eun eta berrogei ta lau milla areik izan ezik. ⁴Emakumeakaz loitu ez ziranak dira oneik, garbiak dira-ta. Oneik Bildotsari edonora ja-

¹³ 10 Cf. Jr 15 2; Mt 26 52. Elizea beti egongo da bear danez zainduta.

¹³ 11 *Lurreko Abere* au (Asia), leenengoaren serbitzuan dago, eta sasi-profeten irudi da, 16 13; 19 20; 20 10; cf. Mt 7 15; 24 1-24. Espiritu Santuaren sasi-txurea artzen dau, Iransugeak Aitarena ta Semearena artzen dauanez.

¹³ 15 Cf. Dn 3 5-7.

¹³ 17 *Ezaugarri* au, Jainkoak ezarria da.

¹³ 18 666: Zenbaki onetan norbaiten

izena dago. Izenaren izki edo letra bakotxa *zenbaki* edo numero bat da. Nor ete-da emen ezkututzen dan gizon au? Izen asko emon dira; euron artean, Neron'ená.

¹⁴ 1 Piztiaren eta onen alderdikoan aurrez-aurre Bildotsa ta onen aldekoak dagoz, 5 6+; 7 1+. Gutxi dira oneik, eraso guztietan zear zintzo irauan dauan *ondar* bat. Askatasun-eresia abesten dabe, cf. 15 3-4; Ur 15 1-18. Bildotsak sortutako mundu barriaren eresia da, 21 1-5; Is 42 10; Sal 96 1; e.a.

rraitzen dautsoe. Oneik gizartean erosiak izan ziran, Jaungoikoarentzat eta Bildotsarentzat asikiñak lez; ⁵ eta arein agoan ez zan guzurrik aurkitu: akats-bageak dira*.

Iru aingeruen igarpenak*

⁶ Eta beste aingeru bat ikusi neban zeru-erdian egaz, eta betiko barrri ona eukan, lurreko bizi-lagun, atzerri, jatorri, izkuntza ta erri guztiai iragarteko; ⁷ eta deadarka auxe ifioan: «Bildur zakioze Jaungoikoari ta Bera goratu egizue, Aren auzialdia eldu da-ta. Gurtu egizue zeru, lur, itsaso ta iturburuak egin dauzana*.»

⁸ Aingeru onen ondoren, beste aingeru batek ekin eutsan, esanez: «Jausi da, jausi da Babilonia andia, erri guztiai bere asarre-ardaoa* edanerazo eutsena.» ⁹ Eta aingeru bion ondoren, beste aingeru batek ekin eutsan, esanez: «Norbaitek aberea ta irudia gurtu ta bekokian naiz eskuman aren ezaugarria artu ba'dagi, ¹⁰ orrek Jaungoikoaren asarre-ardaoa, Aren samin-ontzian naaste bagarik gertuta dagoana, edango dau, eta orrelakoa Aingeru santuen eta Bildotsaren aurrean suaz eta azufrez oiñazetua izango da. ¹¹ Orrelakoen oiñaze-kea gizaldiz-gizaldi gora igoko da, eta atsedetik ez da gabez ez egunez* izango aberea ta aren irudia gurtu eta aberearen ezaugarria artu dagientzat.» ¹² Ementxe dago Jaungoikoaren aginduak eta Jesus'en sinismena gordeten dabezanen iraupena!

¹³ Eta berbots bat entzun neban, zerutik auxe ifioala: «Idatzi egizu: Zorionsuak Jaunagan ilten diran ildakoak! Aurrerantzean, bai, diño

Espiritu *Santuak*: euren lanetan atsedena artu dagiela, euren egin-tzak jarraitzen dautsee-ta*.»

Leenengo zigorrak*

(Jl 4, 12-13)

¹⁴ Begiratu ta odei zuri bat ikusi neban, eta odei-gaiñean Giza-semea zirudian norbait jesarrita, buru-gaiñean urrezko koroia ta eskuan igitai zorrotz bat eukazala. ¹⁵ Eta beste aingeru batek, Toki Santutik urtenda, odei-gaiñean jesarrita egoanari berbots aundiz deadar au egin eutsan: «Ezari igitai ori ta ebagi (*itaitu*) egizu; igitaldia eldu da, eta lurreko solo-aria elduta dago.» ¹⁶ Odei-gaiñean jesarrita egoanak bere igitai lurrari ezarri eutsan, eta lurra itaituta geratu zan.

¹⁷ Eta zeruko Toki Santutik beste aingeru bat urten zan, arek be eskuan igitai zorrotz bat eukala. ¹⁸ Eta beste aingeru batek, sua bere menpean eukanak, altaratik urtenda, igitai zorrotza eukanari berbots indartsuz deadar au egin eutsan: «Ezari igitai zorrotz ori ta batu lurreko maastiko mordoak, aren maatsak elduta dagoz-ta.» ¹⁹ Aingeruak bere igitai lurrari ezarri eutsan, eta lurreko maastia batu egin eban, eta maatsa Jaungoikoaren asarrearen upa aundi batera jaurti eban. ²⁰ Eta uritik kanpoan maatsa zapaldu egin eban, eta odola upatik zaldien muturrekoetaraiño eldu zan, milla ta seireun estadioko bidean.

Moises'en eta Bildotsaren abestia

15 ¹ Zeruan beste ezaugarri aundi ta arrigarri bat ikusi neban: zazpi aingeru azkenengo zigorrak eukezala: Jaungoikoaren asarre

14 5 Cf. Jr 2 2-3; So 3 13. *Birjiña garbiak* eta *guzurrik ezaqutu ez dabenak* dira, au da, egiazko Jainkoaren zintotasunean bizi izan diranak.

14 6 Pekatutan gogortutako gaiztoai damurako deia egiten vake, 16 2: e.a.

14 7 Cf. Ur 20 11.

14 8 Cf. Is 21 9; Ag 18 2-3. *Asarre-ardaoa*, Jainkoaren asarre ta sumiñaren

irudia. 16 19; e.a.; Is 51 17; Sal 11 6+.

14 11 Cf. As 19 24; Is 34 8-10.

14 13 Altara-azpian ezarritako martiriak, 6 9-11+, orain bake ta zorionaren iabe dira, cf. Ebr 4 9-10; Ko 2^a 5 8; Flb 1 23.

14 14 *Igitaita ta maatsbatze*: Auzi-egunaren irudiak dira, 19 11-20. Cf. Is 63 3; Jl 4 12-13; e.a.

areixen bidez amaituko zan-eta. ² Suaz naastutako leizko itsaso antzekoa ikusi neban; eta aren irudia ta aren izenaren zenbakia azpiratu ebezanak, leizko itsas-gaiñean zutik egozan eta Jaungoikoaren zitarak eukezan. ³ Eta Jaungoikoaren morroi Moises'en abestia ta Bildotsaren abestia abesten ziarduen, esanez*:

«*Aundiak eta arrigarriak dira zure egintzak,*

Jaungoiko Jaun guztiz aaltsu ori!
Zuzenak eta egiazkoak zure bideak,

atzerrien Errege ori!

⁴ *Nor ez da zure bildur izango,*
Jauna,

eta nok ez dau zure izena goratuko?

Izan be, zeu bakarrik zara santu. Atzerri guztiak etorri ta zeure aurrean auzpaztuko dira,

zure egintza zuzenak agirian geratu dira-ta».

⁵ Onen ondoren, *ikuspen barri bat* izan neban: zeruan Autor-Txablearen Toki Santua zabaldu zan, ⁶ eta Toki Santutik zazpi zigorrak eukezan zazpi aingeruak urten ziran, ⁷ liño garbi ta argitsuz jantzita eta bularrak urrezko gerrikoz estututa. ⁸ Lau bizidunetarikoa batek zazpi aingeruoi urrezko zazpi edontzi* emon eutsezan; edontziok, barriz, gizaldiz-gizaldi bizi dan Jaungoikoaren asarrez beterik egozan. ⁹ Eta Toki Santua Jaungoikoaren aintzaren eta aal-izatearen kez* bete zan; eta zazpi aingeruen zazpi zigorrak igaro arte, Toki Santuan ifior ezin sartu zeitekean.

Edontziak

(8, 6-12)

16 ¹ Eta Toki Santutik berbots bat entzun neban, zazpi aingeruai zirautsela: «Zoaze, eta ustu egizue lur-gaiñean Jaungoikoaren asarrearen zazpi edontziok!» ² Joan zan, ba, leenengoa, eta bere edontzia lur-gaiñean ustu eban; eta zauri txar eta kaltegarri bat sortu zan aberearen ezaugarria euken gizonakan eta aren irudia gurtu ebanakan.

³ Bigarrenak, bere edontzia itsas-gaiñean ustu eban; eta ildakoaren odola lez biurtu zan, eta itsasoan bizidun guztiak il egin ziran. ⁴ Eta irugarrenak, bere edontzia ibai ta iturburuen gaiñean ustu eban; eta iturburuak odol biurtu ziran. ⁵ Eta uretako aingeruari auxe entzun neutsan esaten: «Zuzena zara Zu, zaran eta zintzazan Santu ori, orrelaxe erabagi dozu-ta. ⁶ Santuen eta profeten odola isuri eben ezkerro, zuk odola emon dautsezu edateko; zor yakena dauke.» ⁷ Eta altareari auxe entzun neutsan esaten: «Bai, Jaungoiko Jaun guztiz aaltsu ori! Egiazkoak eta zuzenak dira zure zigorrak.»

⁸ Eta laugarrenak, bere edontzia eguzki-gaiñean ustu eban. Eta gizakiak suaz kiskaltzeko eskubidea emon yakon; ⁹ eta gizakiak bero aundiaz kiskalduak izan ziran, eta zigor onein buruzko aal-izatea daukan Jaungoikoaren izena biraokatu egiten eban; baiña ez ziran garbatu Bera (*Jaungoikoa*) goratzeko.

¹⁰ Bosgarrenak, bere edontzia aberearen aulki-gaiñean ustu eban, eta aberearen erreifua illunetan geratu zan; eta gizakiak, miñez beterik,

15 3 Askatasun-eresia, Askatzaillearen omenez; cf. 14 1+; Sal 92 6; 98 1; 145 17; Dt 32 4; Jr 10 7; Sal 86 9.

15 8 *Edontzi* oneik, Ejipto'ko zigorrak dakaskuez gogora, 8-9'garren ataletako turutak lez. Jainkoa Autor-txabolan egoan eta antxe alkartzen zan Moises'egaz jar-

duteko, Ur 25 8-9+, 22; Zn 9 15. Cf. Ag 11 19+.

15 9 *Kea*, ezaugarri bat da, Jainkoa bertan dagoala adierazoten dauana, Ur 19 18; Er 1^a 8 10; Is 6 4. Ifioren bitartekotasunak ez dau indarrrik, Jainkoak bere zigorraldia amaitu arte.

norberaren miñari aginka egiten eutsoen. ¹¹ Eta min eta zaurien eraginenez, zeruko Jaungoikoa biraokatu egiten eben; baiña ez ziran euren jokabideaz garbatu.

¹² Seigarrenak, bere edontzia Eufraates ibai aundian ustu eban; eta aren ura agortu egin zan, Eguzki-aldeko erregeentzat bidea atonduta gelditzeraino. ¹³ Eta iransugearen agotik, aberearen agotik eta sasi-profeten agotik ugario antzeko iru espiritu zikin urteten ikusi neban. ¹⁴ Mirariak egiten dabezan txerren-espirtuak dira oneik, eta lurralde guztietako erregeakana jotzen dabe, Jaungoiko guztiz aaltuaren Egun aundi aretako gudaketarako areik batzeko*. ¹⁵ Begira: lapurra legetxe nator. Zorionsua iratzaririk dagoana ta bere jantziak beragaz daukazana, billoizik ibilli ez daiten eta aren lotsariak inok ikusi ez dagi-

zan! ¹⁶ Eta oberkeraz Armagedon* deritzan lekuan batu ebezan.

¹⁷ Zazpigarrenak, bere edontzia aidean ustu eban; eta Toki Santu barrutik Jaungoikoaren aulkitik etorren deadar au urten zan: «Eginda dago!» ¹⁸ Eta oiñaztuak, trumoiak eta danbarradak izan ziran, baita gizakumeak lurgainean diran artean iñoiz izan ez dan lurrikara aundi bat be*. ¹⁹ Uri Aundia iru zati egin zan, eta atzerrien uriak jausi egin ziran, eta Jaungoikoaren aurrean Babilonia aundia gogora ekarria izan zan, bere asarre-ontzitik ari (*Babilonia'ri*) ardao errea emoteko. ²⁰ Eta ugarte guztiak iges egin eben, eta mendiak ezereztu egin ziran. ²¹ *Talentua* lako txingorrada aundia jausi zan zerutik gizakumeen gainera; eta txingorrada-zigorragaitik, gizakumeak Jaungoikoa biraokatu egin eben, txingorradearen zigorra benetan guztiz aundia zan-eta*.

2. BABILONIA'REN ONDAPENA

Emagaldua*

17 ¹ Zazpi edontziak eukazan zazpi aingeruetariko batek, etorrita, neugaz egin eban berba ta auxe esan eustan: «Zatoz! Ur aundien gainean jesarrita dagoan emagaldu aundiaren zigorra erakutsiko dautsut: ² arexegaz egin dabez aragikeriak lurreko erregeak, eta lurrean bizi diranak aren aragikeriaren ardaoaz moskortu egin ziran.» ³ Eta andik irudimenez basamortura eroan nenduan; eta emakume bat ikusi neban abere baten gainean jesarrita; aberea birao-izenez beterik egoan, eta zazpi buru ta amar adar eukazan. ⁴ Emakumea, soñeko ubel eta gorritzak jantzita egoan, eta urrez, arri ederrez eta pitxiz apain-

duta; eskuan urrezko edontzi bat zantarkeriz eta bere aragikeriaren lizunkeriz beterik eukan. ⁵ Bekokian izen ezkututsu au eroian idatzita: «Babilonia aundia, emagalduen eta lurreko zantarkerien ama.» ⁶ Emakume ori, santuen odolaz eta Jesus'en martirien odolaz, moskortuta egoala ikusi neban; eta a ikustean, arritu be arritu egin nintzan. ⁷ Eta aingeruak auxe esan eustan: «Zer dala-ta arritzen zara? Neuk azalduko dautsut emakumearen eta emakumea gainean daroan zazpi buru ta amar adarreko aberearen isilpekoa.

⁸ «Ikusi dozun aberea leen ba-zan, baiña onezkero ez da, eta Lezatic igoteko ta ondatzeko zorian dago; eta lurraren asieratik euren izenik

¹⁶ ¹⁴ Arerio diran jentil-erriok Eufraates ibaiaren bestekaldean alkartzeak, ¹² euren ondarena gertu dagoala adierazoten dau, 17-21.

¹⁶ ¹⁶ *Armagedon*, au da, *Megido* mendia, Josias erregea menperatua. zauritua ta illobiratua izan zan mendia, Er ²

23 29; Za 12 11.

¹⁶ ¹⁸ Cf. Dn 12 1.

¹⁶ ²¹ Erroma'ren ondamentia ur dago.

¹⁷ ¹ *Emagaldu* au (sasi-jainkoen gurutzaille au, 2 14+; 18 3), Babilonia deritxona. 14 8; 16 19, *Erroma* da. 9. Laster datorkio irabazi dauan zigorra.

bizitza-liburuan idatzita ez dauken lurreko guztiak, arritu egingo dira, aberea ba-zala eta orain ez dala konaturirik; baiña barriro agertuko da. ⁹ Ementxe bear da adimena, ementxe jakituria! Zazpi buruak, emakumea gainean jesarrita dauken zazpi mendiak dira. Baita zazpi errege be ba-dira: ¹⁰ jausi dira bost *errege*, bat ba-da; bestea ez da oraindiño etorri; baiña, etorri daitenean, aldi gutxian iraungo dau. ¹¹ Leen ba-zan eta orain ez dan aberea, zortzigarrena da, eta zazpiretarikoa da, eta ondamentia doa. ¹² Ikusten dozuzan amar adarrak, oraindiño erregetza artu ez daben amar errege dira*; baiña, abereagaz ordu beteko errege-agintaritzartuko dabe. ¹³ Asmo berbera dabe erregeok, eta euren agintaritzta ta aal-izatea abereari damotsoez. ¹⁴ Bildotsari burrukan egingo dautsoe, eta Bildotsak azpiratu egingo dauz, jaunen Jauna ta erregeen Errege* da-ta. Bildotsagaz dagozanak, barriz, deituak, aukeratuak eta zintzoak dira.»

¹⁵ Eta auxe esan eustan gainera: «Emagaldua jesarrita dagoan lekuan ikusi dozuzan urak, erri, laguntalde, atzerri ta izkuntzak dira. ¹⁶ Eta ikusten dozuzan amar adarrak, baita aberea be, emagalduari gorroto izango dautsoe, utsik eta billoizik itziko dabe, aren aragia jan*, ¹⁷ eta erre egingo dabe sutan. Jaungoikoak arein biotzai zirkin eragin dautse, gogo batez Jaungoikoaren asmoa erabilli dagien, eta euren erregetza abereari emon dagioen, Jaungoikoaren berbak bete arte. ¹⁸ Eta ikusi dozun emakumea, lurreko erregeen

gainean agintaritzta daukan Uri Aundi a da.

Babilonia'ren ondapena aurretiaz iragarria*

18 ¹ Onen ondoren, beste aingeru bat aal-izate aundiz zerutik jatsiten ikusi neban, eta aren argitasunaz lurra argi-argi geratu zan. ² Eta berbots erremez deadar egin eban: «Jausi da, jausi da Babilonia aundia, eta deabru-zulo, zikin guztien bizitoki ta egazti loi ta iguingarri guztien apia eginda geratu da*»; ³ aren aragikeri amorratuaren ardaotik erri guztiak edan dabe; lurreko erregeak, barriz, aregaz aragikeriak egin ebezan, eta lurreko merkatarri guztiak aren ondasunen indarraz aberastu egin ziran.»

⁴ Eta zerutik etorren beste berbots au entzun neban: «Urten zaitetz andik, ene erri ori, aren pekatuetan eskuartu ez dagizuen eta aren zigorraldiak artu ez zagiezan*»; ⁵ aren pekatuak zeruraino eldu arte pillatu dira; aren dongakeriak, barriz, Jaungoikoak gogora ekarri dauz. ⁶ *Biurtu egiozue berak emon eutsuenez**, baita alako bi be aren egiñen negurritz; edaten emon eutsuen edontzian emon egiozue, eta beste arenbeste be bai. ⁷ Bera goratu ta dotore bizi zan negurritz, emon egiozue beste arenbeste oiñaze ta min. *Bere biotzean auxe diñoan ezkeror: «Erregiña legetxe nago jesarrita; ez naz alargun, eta ez dot iñoiz be negarrik ikusiko»; ⁸ orregaitik, aren zigorrak, eriotza, negar eta gosea egun baten etorriko dira*, eta suak kiskaldu egingo dau: a ebatzi dauan Jaungoiko Jauna aal-tsua da-ta.»*

¹⁷ ¹² Cf. Dn 17 24. Erroma menperatuko daben erregeen agintaritzta oso laburra izango da, ordu betekoa.

¹⁷ ¹⁴ *Jaunen Jaun eta erregeen Errege*. Jaungoikoari dagokiozan izen biok, Dt 17 10; Dn 2 47; M 2 13 4, Kristo'ri emoten yakoz emen. Berau izango da arerio guztien menperatzaille, 19 11-21.

¹⁷ ¹⁶ Zatareria adierazoteko erabilli oi diran irudiak, Os 2 5+.

¹⁸ ¹ ¹⁷ garren atalean iragarritako zigorra gainean dago, 1-3. Cf. Ez 43 2.

¹⁸ ² Cf. 14 18; Is 21 9; Jr 50 39; Is. 13 21-22.

¹⁸ ⁴ Zintzoak, leenen, alde egin bear dabe gaiztoakandik, au da, Erri-aukeratuak urten egin bear dau Uri gaiztoik. Cf. Jr 51 6, 45; Is 48 20; Mt 24 16.

¹⁸ ⁶ Cf. As 18 21; Jr 51 9; 50 15. 29. ¹⁸ ⁸ Cf. Is 47 8, 9.

⁹ Eta aregaz aragikeriak egin eta dotore bizi izan diran lurreko erregeak, negar egingo dabe ta aretzaz bular-joka ibilliko dira, aren suaren kea ikusi dagienean; ¹⁰ eta aren oiñazeakaitiko bildurrez urrun geldituko dira, esanez:

«Ene, bada, ene!, Uri Aundia!
Babilonia uri indartsua!
Zure zigorra ordu betean eldu da!»

¹¹ Eta lurreko merkatariak negarrez eta alaka dagoz ari buruz, onez-kero iñok ez dautso salgairik erositako-ta: ¹² ez urre, zidar, arri eder, pitxi, liño, purpura, seda ta eun gorrikarik; ez zur usaintsurik; ez marfillez, zur ederrez, burdin-oriz, burdiñaz naiz marmolez egindako ezer be; ¹³ ez zinamomo, usaingari, mirra ta intzentzurik; ez ardao, orio, urun eta garirik; ez zamari, ardi, zaldi ta burdirik; ez jopu, ez gizakumerik. ¹⁴ Eta uda-beranduko zure frutuak, gartsu gura izan zenduzan frutuak, iges egin dabe zugandik; eta gauza aberats eta eder guztiak galdu egin dira zuretzat, eta ez dira iñoiz be agertuko.

¹⁵ Gauza guztion merkatariak, aren lepotik aberastu ziranak, aren oiñazeakaitiko bildurrez urrun geldituko dira, negarrez eta alaka, ¹⁶ eta esanez:

«Ene, bada, ene! Uri Aundia!,
liño, purpura ta eun-gorritz jazten,
eta urrez, arri ederrez eta pitxiz
apaintzen zan uria!»

¹⁷ Orrenbesteko aberastasuna ordu betean ondatuta geratu da!»

Eta itsasontzi-buru guztiak, eta itsasoz dabizan guztiak, itsas-gizonak eta itsas-lanetan diarduen guztiak, urrun gelditu ziran, ¹⁸ eta aren suaren kea ikustean, deadarka auxe

¹⁸ 20 Zerua, barriz, poztu egiten da, cf. 19 1-10; Ko 1^a 12 28; Ef 2 20. Arria uretara jaurti ondoren, barriro asiko dira negar eta ai-enak, cf. Ez 26 13; Jr 25 10; 16 9.

esan eben: «Zein uri, Uri Aundi onen antzekorik?» ¹⁹ Eta norberaren buru-gaiñera autsa jaurti eta negarrez eta alaka deadar egin eben: «Ene, bada, ene! Uri aundi onetan, itsasoan itsasontziak eukezan guztiak aberastu egin ziran orko ugaritasunaz; eta ordu betean utsik geratu da!»

Santuen poza

²⁰ Poztu zaitez orretzaz, zeru* ori!, baita zuek be, santu, apostolu ta profetok! Jaungoikoak zuen auzia aren aurka erabagi dau-ta.

²¹ Orduan, Aingeru errime bategen errota-arri aundia lako arri bat jaso ta itsasora jaurti eban, esanez: «Onelakoxe indarrak jaurtiko dabe Babilonia uri aundia, eta arrezkero ez da iñoiz be agiri izango. ²² Iñoiz be ez da zugan zitara-otsik entzungo, ez abestirik, ez txirrolarik, ez turutarik; iñoiz be ez da zugan langille jaiorik aurkituko; iñoiz be ez da zugan errotarri-otsik entzungo; ²³ iñoiz be ez dau zugan argi-ontzik argi egingo, ezta senar-emazteren berbotsik be zugan ez da iñoiz be entzungo: zure merkatariak lurreko aundikiak ziran, eta zuen sorginkeriz erri guztiak burua galdu eben-eta. ²⁴ Aregan profeten eta santuen odola ta lurrean samea ebagi eutseen guztien odola aurkitu zan.»

Zeruko poza*

19 ¹ Onen ondoren, laguntalde aundien antzeko deadar-otsa entzun neban zeruan esaten: «Aleluia! Osasuna, aintza ta aal-izateara gure Jaungoikoari, ² Aren zigorrak egiazkoak eta zuzenak dira-ta. Emagaldue aundia, aragikeriz lurra usteltzen ebana, ebatzi egin dau, aren es-

¹⁹ 1 Abestaldi bik ospatzen dabe Babilonia'ren ondamedia ta Jainkoaren garaipena, 18 20. Barriro agertzen dira goragoko liturjiatan agiri izan diran aingeru, agura ta abar, 4-5; 11 15-18; 14 1-5. Babilonia'renak egin dau.

kuakaz isuritako bere morroien odolaz zuzen eskaturik.» ³ Eta bigarrenez be «Aleluia!», esan eben. Uriaren kea gizaldiz-gizaldi gora doa*. ⁴ Eta ogei ta lau agurak eta lau bizidunak auspazu egin ziran, eta aulkian jesarrita dagoan Jaungoikoa gurtu egin eben, esanez: «Amen; aleluia!» ⁵ Aulkitik berbots au urten zan: «Goratu egizue gure Jaungoikoa Beronen morroi guztiok eta Aren bildur zareenok, txikiok eta aundiok*!» ⁶ Eta gizatalde aundien zarata-otsa, uriolaren orro ta trumoi gogorren burrundarea lako ots bat entzun neban esaten: «Aleluia! Jaungoiko Jaun guztiaalduna errege izaten asi da: ⁷ poztu ta alaitu gaitazan; Bera goratu dagin, Bildo-

tsaren ezteguak eldu dira-ta. Aren emaztegaia gertu dago*, ⁸ eta liño utsez eta argitsuz jazteko aukerea emon yako. —Liño ori, barriz, santuen egintza onak dira—.»

⁹ Eta aingeruak auxe esan eustan: «Idatzi egizu: Zoriontsuak Bildotsaren ezteguetako aparitara deituak!» Eta euxe esan eustan gaiñera: «Jaungoikoaren benetako berbak dira' oneik». ¹⁰ Eta aren oiñetara auspazu nintzan bera gurtzeko. Baiña auxe esan eustan: «Begira: ez egizu egin orrelakorik; zure ta Jesus'en autorra daben zure anaien morroikide naz. Jaungoikoa gurtu egizu!» Izan be, Jesus'en autorra, igar-teko espiritua da*.

3. JENTIL-ERRIEN ONDAPENA

Aberearen ondapena

(20, 7-10)

¹¹ Eta zerua ikusi neban zabalik; eta ara!, zaldi zuri bat, eta aren gaiñean jesarrita egoanak, izena «Zintzo» ta «Egiazole» dau, eta ebazketan eta gudan zuzena da*. ¹² Aren begiak sugarraren antzekoak dira; zerranda (*zinta*) asko daroaz bere buruan, eta Berak baiño bestek ezagutzen ez dauan izen bat dauko idatzita. ¹³ Aren soiñekoa odol-txipristiñez beterik dago, eta Aren izena «Jaungoikoaren Itza» da* ¹⁴ Zeruko gudarozteak zaldi zurien gaiñean jarraitzen eutsoen, liño utsez eta zuriz jantzita. ¹⁵ Aren agotik ezpata* zorrotz bat urtetan da, ezpataz jen-

tillak zauritzeko. Eta Berak zuzenduko dauz burdiñazko zigorrak; eta Jaungoiko guztiz Aaltsuaren asarremiñaren ardao-dolarea Berak zapaltzen dau. ¹⁶ Bere soiñeko-gaiñean eta bere iztar-gaiñean bere izena dauko idatzita: *erregeen Errege ta jaunen Jauna**.

¹⁷ Eta aingeru bat eguzki-gaiñean zutik ikusi neban, ortzi gorenean egaz ziarduen egazti guztiai deadar aundiz esaten: «Zatoze, eta batu zaitez Jaungoikoaren aparti aunditarako*!», ¹⁸ erregeen aragia, eta indartsuen aragia, eta zaldi ta zaldizkoen aragia, eta nobere burujabe diranen eta jopu guztien aragia, eta txikien eta aundien aragia jan dazgizuen.»

¹⁹ 3 Cf. Is 34 10.

¹⁹ 5 Cf. Sal 115 13.

¹⁹ 7 Ezteguok, 21 garren atalean azalduko dira.

¹⁹ 10 Jaungoikoaren itza, Jesus'ek eta kristauak autortu dabena, Espiritu Santuaren egitez ulertu ta onartzen da Elizan, 1 2; 20 4; 6 9; 12 17; cf. Jn 14 15-16+.

¹⁹ 11 Mesias Zintzo ta Egi-zalea, 3 14+, Jaunaren Eguna betetera dator, 12 5; 14 14-20; 17 12-14; Am 5 8+, Elizearen arerio guztiak ondatuaz. Cf. Is 11 4.

¹⁹ 13 Cf. Is 63 3. Zaldun onen izena

beste iñok ez daki. Baiña bereala agertzen yaku izen ori: *Jaungoikoaren Itza*. Berauxe da Jesus, Jainkoaren izatea agirian ezarri daukun Mesias, Jn 1 1+, 14+, eta Jainkoaren auzi-erabagiak beteazoten dauzana, 20 11-13; 22 12; Jk 18 14-18.

¹⁹ 15 *Ezpata* au, Jainko-Itzaren irudi bat da, gaiztakeri guztia garbituko dauana. cf. 1 16; Jk 18 16; Os 6 5; Ts 2^a 2 8. Cf. 2 27; 12 5; Sal 2 9.

¹⁹ 16 Cf. 1 5; 17 4+; Flp 2 9-11. Izen au edonok ulertzekoa da.

¹⁹ 17 Cf. Ez 39 17-20.

¹⁹ Eta aberea, eta lurreko erregeak eta euren gudarozteak ikusi nebazan, zaldizkoari ta aren gudarozteari gudu egiteko batuta. ²⁰ Eta aberea atxillotu egin eben, eta aregaz batera sasi-igarlea be bai, aren aurrean mirariak egiten ebazana eta, mirari arein bidez aberearen ezau-garria artuta, irudia gurtzen ebenen lilluratzaille izan zana; eta biak, bizirik, azufreaz iziotzen dan su-lezara izan ziran jaurtiak. ²¹ Beste guztiak, zaldizkoaren agotik urtetzen zan ezpataz il ziran, eta egazti guztiak ase ziran arein aragiz.

Milla urteko erregetza

20 ¹ Eta aingeru bat ikusi neban zerutik jatsiten, Lezako giltza ta kate aundi bat eskuan ekazala. ² Eta iransugea, Txerren edo Satanas dan antxiñako sugea, artu ta milla urterako lotu eban*. ³ Eta Lezara jaurti, giltzaz itxi ta gainean ezaugarri bat ipiñi eban, milla urteak bete arte atzerriak barriro lilluratu ez egizan. Milla urteok bete ondoren, bai, une baterako askatua izango da.

⁴ Aulki batzuk be ikusi nebazan; eta areitan jesarritakoai, ebazteko eskubidea emon yaken*. Eta Jesus'en autorrageitak eta Jaungoikoaren Itzagaitik buru-moztuen espirituak ikusi nebazan, baita aberea edo aren irudia gurtu ez ebenak be, baita aren ezaugarria euren bekokian naiz eskuan artu ez ebenak be. Guztiok bizitzara biurtu ta Kristo'gaz errege izan dira milla urtean*. ⁵ (Beste illak ez ziran bizitzara biurtu, milla

urte igarotakoan baiño.) Orixe da leenengo biztuera. ⁶ Zoriontsu ta santua, leenengo biztueran eskuartu dauana! Alakoai buruz, bigarren eriotzak* ez dau eskubiderik, bes-tetara baiño: orreik, Jaungoikoaren eta Kristo'ren abade izango dira, eta Aregaz batera errege izango dira milla urtetan.

Azken-burrukea

(19, 11-21)

⁷ Eta milla urteok bete daitezanean, Satanas bere katepetik askatu egingo dabe, ⁸ eta lurreko lau ertzetan bizi diran atzerriak, Gog eta Magog*, axatzera ta gudarako batzera urtengo da; arein gudaroztea, barriz, itsasoko ondarrak beste da. ⁹ Lur zabalera igoko dira, eta santuen guda-txabolategia* ta uri maitagarria erdian artuko dabez. Baiña zerutik sua jatsiko da eta iruntsi egingo dauz. ¹⁰ Eta txerrena, arein axatzaillea, su ta azufrezko lezara jaurti eben; antxe dagoz aberea ta sasi-igarlea be, eta egunez ta gabez gizaldiz-gizaldi oiñazetuak izango dira.

Azken-auzia*

¹¹ Eta aulki aundi ta zuri bat ikusi neban, baita aretan jesarrita egoana be; eta aren arpegitik zeru-lurrrak iges egin eben, eta areintzat ez zan lekurik aurkitu. ¹² Illak be ikusi nebazan, txikiak eta aundiak, aulki-aurrean zutik; eta liburuak zabalduak izan ziran. Baita beste liburu bat be —bizitza-liburua— zabal-

²⁰ 8 *Gog eta Magog*. Izen onekaz adierazoten dira Elizearen aurka jagiko diran agintari gaizto guztiak, cf. 16 14-16; 19 17-19. Cf. Ez 38-39.

²⁰ 9 *Guda-txabolategia*, Jerusalem da, au, da, Elizea, 21 2+; cf. Ez 38 22. Cf. Ur 14 14-20.

²⁰ 11 Gizaseme guztiak berbirtu ondoren, Epaille Nagusia dator, 2 23+; 3 5; 19 13+; Dn 7 10+; 12 1+. Mundu zaarra amaitu ta barria asiko da, 21 1+; cf. Sal 102 27; Is 51 6; Ap 3 21; Erm 8 18-22+.

²⁰ 2 Pizti bien eta erregeen ondoren, Iransugea be ondatua izango da, 12 3, 7-9. Cf. As 3 1+. Iransugea, au da, Satanas, lotua izango da milla urtean, au da, luzaroan; 12 7-12; cf. 11 2; eta gero betiko ondatua, 7-10.

²⁰ 4 Cf. Dn 7 9, 21-22, 26. Iransugea lotuta dagoan bitartean, Elizea barriztatua izango da. Aldi au martiriakaz asi zan, 6 9-11; 14 13. Auxe da Egunaren zain dagoan Jainkoaren eta Kristo'ren lurreko Erreiñua, 11-15.

²⁰ 6 *Bigarren eriotza*, betiko galtzea da, cf. 2 11; 20 14; 21 8.

du eben. Eta areitan idatzitakoan eraz izan ziran ebaztiak ildakoak, norberaren egitadai egokienez. ¹³ Eta itsasoak bere barruan eukazan ildakoak biurtu egin ebazan; baita Eriotzak eta Lezeak euren barruan eukezan ildakoak be biurtu egin

ebazan, eta bakotxa bere egitadai egokienez izan zan ebaztia. ¹⁴ Eriotza ta Lezea suzko zingirara jaurti ebazan. Auxe da bigarren eriotza: suzko zingirea. ¹⁵ Eta bizitza-liburuan idatzita ez egoana, suzko zingirara jaurti eben.

4. GEROKO JERUSALEN

Ortzi ta lur barriak*

(7, 15-17)

21 ¹ Eta ortzi barri bat eta lur barri bat ikusi nebazan, leengo ortzia ta leengo lurra igaro egin ziran-eta; itsasorik, barriz, onezkerro ez dago. ² Eta Uri Santua, Jerusalem* barria, ikusi neban, Jaungoikoaren izenean zerutik jatsiten zala, emazte apaindua enarrarentzat lez. ³ Eta aulkitik, berbots au entzun neban: «Ona emen Jaungoikoaren bizitokia gizonen artean, eta bere bizitokia arein artean jasoko dau, eta Aren erri izango dira, eta arekaz dagoan Jaungoikoa bera izango da arein Jaungoiko*. ⁴ Begi-malako guztiak legortuko (*sikatuko*) dautsez*, eta ez da aurrerantzean eriotzarik izango, ez negarrik, ez garrasirik, ez miñik: leengoak igaro dira-ta.»

⁵ Eta aulkian jesarrita egoan auxe esan eban: «Begira: nik gauza guztiak barriztu egiten dodaz.» Eta auxe be bai: «Idatzi egizu; Berba oneik berba zintzo ta egiazkoak dira.» ⁶ Auxe be esan eustan:

«Eginda dago! Ni alfa ta omega naz, asiera ta azkena. Egarrri izan daitenari, Nik ur bizia darion iturritik utsean emongo dautsat edaten*. ⁷ Gauzok, irabazi dagianak artuko dauz oiñordekotasuntzat, eta Jaungoiko izango nakio, eta bera seme izango yat*. ⁸ Koldarrak, barriz, sinisgogor, iguingarri, gizaitzaille, zantar, azti, irudi-gurtzaille ta gurzti guztiak suzko ta azufrezko zingiran izango dabe euren arloa. Auxe da bigarren eriotza.»

Jerusalem barria

⁹ Eta azkenengo zazpi zigorrez beteriko zazpi edontziak eukezan zazpi aingeruetariko bat etorri zan eta neugaz egin eban berba, eta auxe esan eustan: «Zatoz, eta Bildotsaren ezkonbarria erakutsiko dautsut.» ¹⁰ Eta irudimenez mendi aundi ta goi batera eroan nenduan*, eta Jaunaren Uri Santua erakutsi eustan, Jaungoikoagandik zerutik jatsiten, ¹¹ Jaungoikoaren aintza eriola*. Aren ditzirea, arri ditziratsue-na ta jaspri-arri landuarena lakoa zan. ¹² Arresi aundi ta jaso bat eukan;

²¹ 1 Aldi barri onetan dana jantziko da Jainkoaren aintzaz, bai izadia ta bai kristauak, 20 11; Is 65 17; 66 22; Mt 19 28+; P 2* 3 11-13.

²¹ 2 *Jerusalem*, Babilonia'ren aurrez-aurre dagoan aukeratuen Erri Santu au, 17, Jainkoaren doai bat da, cf. 10. Jerusalem zan israeldarren Uriburua ta erlejiñoaren eta Mesias'i buruzko itxaropen guztien ardatza, S 2* 24 18; Sal 122; Is 52; Sal 87; e.a. Emengo *Jerusalem barri* au Kristo'ren Elizea da, 3 12; 11 1+; 20 9; cf. Ga 4 26; Ebr 12 22; Flp 3 20. Berau da Kristo-Bildotsaren emazte zintzoa, 19 7-8; Ef 5 22+; cf. Is 61 10; 62 4-5; Os 2 16+.

²¹ 3 Bein eta betiko Alkartasuna, maitasunezkoa. Cf. Ur 25 8+; Ab 26 11+; Ez 37 27; Is 8 8-10; Za 2 14; 8 8; Jn 1 14+; Ko 2* 6 16+.

²¹ 4 Cf. 7 17; Is 25 8; 35 10; Jr 31 16.

²¹ 6 Cf. 1 8+, 17+. *Ura*, bizitzaren eta Espiritu Santuaren irudi da, 7 17; 22 1, 17; Is 12 3; 55 1; Jn 4 7+; 7 38+.

²¹ 7 Dabid'en oiñordeko Mesias, *Jainkoaren Seme* da, S 2* 7 14+. Jainkoaren seme izatea, Jesus berbirtuagan sinisten daben guztiak dagokie, Ap 2 36+; Ebr 1 4-5; Jn 1 12+; Erm 8 29+.

²¹ 10 Cf. Ez 40 2-3.

²¹ 11 Cf. Is 60 1-2; Ko 2* 4 4-6.

arresian, barriz, amabi ate, eta amabi ate-gaiñetan amabi aingeru ta izenak idatzita; izen oneik, Israel'en semeen amabi leiñuenak ziran: ¹³ eguzki-sortzaldean iru ate; iparraldean iru ate; egoaldean iru ate, eta sartzaldean iru ate*. ¹⁴ Uriko arresiak amabi oiñarri eukezan, eta arein gaiñetan Bildotsaren amabi Apostoluen amabi izenak*.

¹⁵ Nigaz berbetan ziarduanak urrezko negurri bat eukan, urrezko kaiñabera bat, uria ta aren ateak negurtzeko. ¹⁶ Uria, lauko bat zan, eta aren luzeerea aren zabalera lakoa. Eta uria kaiñaberaz negurtu eban, eta uriak amabi milla estadio eukazan, aren luzeera, zabalera ta gorakoa bardiñak zirala. ¹⁷ Eta uriko arresia negurturik, eun eta berrogei ta lau besoerdi eukazan, giza-negurritan, aingeruarena be bazana. ¹⁸ Arresia, jaspri-arriz egindakoa zan; eta uria, leiar garbi antzeko urre utsa. ¹⁹ Uriko arresi-azpiak, guztietariko arri bikaiñez landuta egozan: leenengo azpia, jaspezkoa zan; bigarrena, zafirozkoa; irugarrena, kalzedoniozkoa; laugarrena, esmeraldazkoa; ²⁰ bosgarrena, sardoniozkoa; seigarrena, kornalinazkoa; zazpigarrena, krisolitozkoa; zortzigarrena, berilozkoa; bederatzigarrena, topaziozkoa; amargarrena, krisoprasazkoa; amaikagarrena, jazintozkoa; eta amabigarrena, amatistazkoa. ²¹ Amabi ateak amabi perla ziran; ate bakotxa, perla bat; eta uriko plazea, leiar gardena lako urre utsa. ²² Ez neban an Toki Santurik ikusi; ango Toki Santua Jauna, Jaungoiko guztiz Aaltsua data, Bildotsagaz batera*.

²³ Uriak ez dau ez eguzki ez illar-gi-bearrizanik: Jaungoikoaren aintzak argitzen dau, eta Bildotsa da aren argiontzi. ²⁴ Aren argitan ibilliko dira atzerriak, eta lurreko erregeak euren aintza eroango dautsoe. ²⁵ *Aren ateak ez dira egunez itxiko*, an ez da gaurik izango-ta. ²⁶ *Atzerrien aintza ta ondasunak araxe eroango dabez**. ²⁷ An ez da garbi ez dan gauzarik sartuko, ezta iguingarri edo guzurti danik be, Bildotsaren bizitza-liburuan izena idatzita daukenak soilik baiño*.

Zeruari buruz azken-azalpena

22 ¹ Eta ur bizizko ibai bat erakutsi eustan, leiarra baizen argia, Jaungoikoaren eta Bildotsaren aulkitik eriola. ² Uriko kale-erdian eta ibai-ertz bietan *Bizitza-zugatz bat egoan, illebetean bein, urtean amabi bidar, frutua emoten dauana; eta zugatzaren orriak jentillentzat osungarri dira**. ³ An ez da barriro madarikapenik izango, eta Jaungoikoaren eta Bildotsaren aulkia urian egongo da*, ⁴ eta Jaungoikoaren morroiak gurtu egingo dabe, baita Aren arpegia ikusi be, eta Aren izena bekokian eroango dabe.

⁵ Arrezkero, ez da an gaurik izango, ezta argi-zuziren naiz eguzki-argiren beirik be ez da izango, Jaungoiko Jaunak egingo dautse argi-ta; gizaldiz-gizaldi errege izango dira. ⁶ Eta auxe esan eustan: «Berba oneik, benetakoak eta egiazkoak dira; eta igarmena profetai emoten dautsen Jaungoiko Jaunak bere aingerua bialdu dau, laster jazo bear diranak bere morroiak (*kristauai*)

²¹ 13 Cf. 7 1-8+; Ur 28 17-21; Ez 48 30-35; Mt 19 28+.

²¹ 14 Guztientzat eta alde guztietara ateak zabalik daukazan Eliza onek Apostoluak ditu oiñarritzat, 18 20; Ef 2 20+. Eliza orretan alkartzen dira Israel'go leiñu ta jentil-erri guztiak, 24-26; cf. 14 6-7; Erm 16 25+.

²¹ 22 *Jauretzerik* ez dago, 11 19+. Oparitan eskeiñitako Kristo-Bildotsaren

gorputza izango da aurrerantzean espiritu-tuzko gurtza barriaren ardatza, cf. Jn 2 21+; 4 21-23+; Ebr 9 11-12+; 10 4-10+. Bera izango da zeruko Elizearen argi bakarra be, 23; 22 5; Jn 8 12+.

²¹ 26 Cf. Is 60 3, 11.

²¹ 27 Cf. Is 35 8; 52 1; Ez 44 9.

²² 2 Cf. 21 6+; Ez 47 12; As 2 9-14.

²² 3 Cf. Za 14 11. Jainkoa ta Bildotsa era berean gurtzen dira, 5 13; 7 10.

erakusteko*. ⁷ Eta begira: laster nator. Zorionsua, liburu onetan aurretiaz esandako berbak beteten dauzana!»

⁸ Gauza guztiok neuk, Joan nazan onek, entzun eta ikusi dodaz. Entzun eta ikusi nebazanean, erakusten eustazan aingeruaren oiñetara auspazu nintzan, bera gurtzeko. ⁹ Baiña auxe esan eustan: «Ez egizu orrelakorik egin, zure ta zure anai profeten eta liburu onetako berbak beteten dabezenen morroi-kide naz-ta. Jaungoiko gurtu egizu!» ¹⁰ Eta auxe esan eustan: «Ez itxi ezaugarriean liburu onetan

aurretiaz esandakoak, aldia urr dago-ta. ¹¹ Gaiztoak, gaiztakerietan geiago jardun dagiala; zikiñak, zikiñago*; zuzenak, zuzenago; eta santuak, santuago. ¹² Begira: laster nator, saria neuzag ekarririk, bakotxari bere egitaden negurriz ordaiña emoteko*. ¹³ Ni alfa ta omega naz, asiera ta amaia*. ¹⁴ Zorionsuak, euren soiñekoak garbitzen dabezanak, bizitza-zugatzetik jan eta ateetatik urira sartu aal izateko! ¹⁵ Utikan (*kanpora*) txakur, sorgin, zantar, gizaiztazaille, irudi-gurtzaille, eta guzurra maite ta egiten daben guztiak*!»

AZKEN-ITZAK

¹⁶ Neuk, Jesus onek, bialdu neutuen nire aingerua, elizai buruz zuei ori agertzeko. Neu naz Dabid'en kimua ta jatorrikoa, goizeko Izar diztiratsua.»

¹⁷ Eta Espirituak eta Emazteak, «Zatoz*!», diño. Eta entzun dagianak, «Zatoz!», esan begi. Eta egarri izan daitena, etorri daitela; eta nai dagianak, artu dagiala utsean ur bizia*.

¹⁸ Ona emen, barriz, liburu onetan aurretiaz esandakoak entzun dagian edonori autortzen dautsadan au*: Norbaitek *liburu oni* zerbait

geitu ba'dagio, Jaungoikoak alakoari liburu onetan idatzitako zigorrak leporatuko dautsaz. ¹⁹ Eta liburu onetan aurretiaz iragarritako berbetatik norbaitek zerbait kendu ba'dagi, alakoari bizitza-zugatzetik eta Uri Santutik eta liburu onetan azaldu diranetatik dagokiona, Jaungoikoak kendu egingo dautso ari dagokion atala.

²⁰ Guztiok autortzen dauzanak, auxe diño: «Bai, laster nator». Amen! Zatoz, Jesus Jauna*!

²¹ Jesus Jaunaren grazia izan daita guztiokaz. Amen.

²² 6 Itz onein ziurtasunak, 1 1-3, 22 16, eta Dn 8 26 dakaskuez gogora.

²² 11 Jainkoaren asmoak eragozpen eta ukatzaille guztien gaiñetik beteten dira. ²² 12 Cf. 2 23; Sal 62 13+; Erm 2 6+.

²² 13 Kristo-Epaillearen Jainko-izenak, 1 8+, 17+.

²² 15 Gizadi osoa talde bitan banatuko da: alde batean, fededunak, au da, gar-

biak; eta bestean, sinismen bakoak, au da, *loiak*, 21 7-8, 27.

²² 17 *Zatoz!* Auxe da liturjiako *Marana tha!* Ko 1^a 16 22+; Flp 4 5+; cf. Ag 22 10, 20. Cf 3 20; 21 6; Is 55 1; Jn 7 38+.

²² 18 Oar bizi bat egiten dau Joan'ek, Liburu onetik iñok ezer kendu ta aldatu ez dagian, cf. Dt 4 2; 13 1; e.a.

²² 20 Asierako gaira joten dau barriro, 1 3+, 7; 3 11; 22 7; Ap 3 20-21; Ko 1^a 15 23+.

IZTEGITXOA

aal-izate, aalmen: poder, potencia.
 abadeburu: jefe de los sacerdotes.
 abade nagusi: sumo sacerdote.
 abegi: acogida.
 abere: animal.
 abestu: cantar.
 abiatu: dirigirse.
 abots: voz.
 adibide: ejemplo, ilustración.
 adimen: mente, entendimiento, inteligencia, juicio.
 adin: edad.
 aginpide: autoridad.
 agintaritz: mando supremo, poder.
 aginterri: imperio.
 agintzari: promesa.
 aien: sarmiento.
 aiko-maiko: excusa, pretexto.
 ain zuzen be: precisamente.
 aintza: gloria, loor.
 aiña: tanto como.
 aiñen: maldición.
 aitagiñarreba: suegro.
 akara: nardo.
 alarao: alarido.
 albista: noticia, nueva.
 alditsu: lunático.
 aloe: zul usaintsu bat.
 amagiñarreba: suegra.
 amildu: precipitarse.
 antz-aldatu: transfigurarse.
 antz-aldatze: transfiguración.
 antzi: suspiro, gemido.
 arao: imprecación.
 arauz: según, conforme a.
 arditegi: redil, aprisco.
 argiontzi: lámpara, farol.
 argizuzi: antorcha.
 arizai: orla, fleco.
 arkaitz: roca; arkatxa: la roca.
 arrantzara noa: me voy a pescar.
 arrapakin: botín, presa.
 arri-bizi: roca.
 arrillobi: monumento funerario, panteón.
 arrotz: forastero, extraño.
 artega: inquieto, intranquilo.
 artegatasun: inquietud, agitación.
 artzekodun: acreedor, prestamista.
 artzuri: alabastro, piedra blanca.
 asabak: antepasados.

381

asarre-bitsetan jarri: enfurecerse.
 ase: hartarse, saciarse.
 askatasun: libertad.
 askatu: soltar, liberar, librar, rescatar, desatar.
 ataltxo: versículo.
 atondu: preparar, disponer, arreglar.
 ats: hedor.
 atzamatu: apagar, sofocar, extinguir.
 atzerritar: extranjero, advenedizo.
 aukeratu: elegir, escoger.
 aume: cabrito.
 aurka: contra.
 aurkeztu: presentar.
 aurkitu: encontrar.
 aurean erabili: perseguir.
 aurrelari: precursor.
 aurretiko: antepasado.
 auspaztu: postrarse, prosternarse.
 auzi-aulki: asiento del tribunal.
 auzi-egun: día del juicio.
 auzi-epaille: juez.
 auzitegi: tribunal, audiencia, foro.
 auzuna: barriada, barrio, aldea.
 azaldu: explicar.
 azalpen: relato, explicación.
 azartu: atreverse.
 azpi-joko: complot, intriga.
 azteraldi: prueba.
 ba = bada: pues (conjunción).
 ba-: si condicional (conjunción).
 ba-: afijo adverbial confirmativo.
 baimena: permiso, autorización.
 banakuntza: división.
 banandu: separar, dividir.
 banatu: repartir.
 barauts: espuma de la boca.
 barri izan: importar.
 basarri, baserri: aldea.
 bat: uno; unos, poco más o menos, aproximadamente.
 batan: menta, hierbabuena.
 baterako: coincidente.
 be = bere: también.
 be ez: tampoco.
 beaztun: hiel.
 begiratu: mirar.
 beraz: por tanto, por consiguiente, así pues.
 berbakera: lenguaje, modo de expresión.
 berbartu: tartamudo y tartamudear.
 berbatu: comprometerse de palabra.
 berbots: voz, ruido de palabras.
 berealako: urgente.

berebiziko beroenaz: con fiebre muy alta.
 berekautan: a sí mismo.
 beroen: calentura, fiebre.
 betetasun: plenitud.
 bidebagekeri(a): injusticia.
 bidezko: lícito, justo, legítimo.
 billatu: buscar.
 biotz-mindu: entristecerse.
 birao: blasfemia.
 biurrerazo: hacer retorcerse a uno.
 biurri: rebelde, indócil.
 bizilagun: habitante (de un pueblo).
 boskoitz: ruda (planta).
 burubide: consejo.
 burupeko: cabezal, almohada.
 bururapen: pensamiento.
 burutu: llevar a cabo, ejecutar, cumplir.
 buruzagi: caudillo, jefe.
 bustialdi: baño.
 debekatu: prohibir.
 diru-batzaille: recaudador de impuestos, publicano.
 dirubatzte-mai: despacho, mostrador de impuestos.
 diru-ordain: tributo, contribución, impuesto público.
 dirutza: capital de dinero.
 doai: don.
 dolara: lagar.
 dolu: luto.
 duin: digno.
 ebatzi: dirimir, resolver, juzgar.
 edari-bizi: licor, bebida alcohólica.
 eder: hermoso; gracia, agrado, complacencia.
 edontzi: cáliz, copa, vaso.
 egiaztu: acreditar, comprobar, cerciorar.
 egikera: modo de actuar, conducta.
 egikizun: ministerio, misión, quehacer.
 eginbide: disposición, obligación.
 eginkor: factible, posible.
 egitura: estructura.
 Eguzkialde: Oriente.
 eio: moler.
 ekaitz: tempestad; ekatxa: la roca.
 ekandu: tradición, costumbre.
 elbarri: parálisis; parálitico.
 elbarridun: parálitico.
 emagaldu: prostituta, ramera.
 emokor: fértil, que da, produce.
 enparadu: los demás, el resto.
 entzute-txarreko: de mala reputación, de mala fama.
 epai: sentencia, fallo (del juez).
 epaitu: juzgar.
 erakarri: hacer traer, atraer.
 eralgi: gastar, malgastar, despilfarrar.

erantzunbear: responsabilidad.
 eraso: atacar, acometer; ataque.
 eratsi: bajar, descolgar.
 eratu: formar, ordenar, proporcionar.
 erdaindu: circuncidar.
 erdaintza: circuncisión.
 eredu: modelo.
 ereintza: sembrado, siembra.
 eroan: llevar; sufrir, soportar.
 erostaka: lamentándose.
 erratillu: fuente, plato grande.
 erran: suegra.
 errauts: ceniza.
 erregetza: reinado.
 erreñu: reino.
 erren: cojo.
 erre-opari: holocausto.
 errubaga, errubage: inocente.
 ertzain: guardia (del pueblo).
 esanai: significado.
 esi: valla, seto.
 eskegi: colgar.
 eskubide: autoridad, facultad, derecho.
 eskuartu: tomar parte en un asunto.
 esku-igar: mano atrofiada.
 espetxe: cárcel.
 estun: grillete.
 etxagintza: construcción.
 etxegain: terraza, azotea.
 etzan, etzun: tumbarse, recostarse.
 eunka: en grupos de cien.
 eurekautan: para sí mismos.
 ezaguerazo: dar a conocer.
 eze: verde, fresco (árboles y plantas).
 ezereztu: aniquilar, anular.
 ezin, ezinezko: imposible.
 gai: apto.
 gaizkille: malhechor.
 galbae: harnero, criba.
 galbedar, zoragari: hierba dañina, cizaña.
 galburu: espiga del trigo.
 galdubide, gabide: camino de perdición, escándalo.
 galebate: tiempo de siega de trigo.
 galepailla, galepaille: segador, gavillador.
 galerazo: impedir.
 garaille: vencedor, victorioso, triunfante.
 garautegi: granero.
 gauzaez: inútil.
 gauza izan: ser capaz, útil.
 geiso: enfermo.
 gelditu: detenerse, pararse, cesar.
 geratu: quedarse.

Iztegitxoa

Iztegitxoa

gertatu: preparar.
 gizaldi: generación.
 Gizaseme: Hijo del hombre.
 gizatalde: gentío.
 gizon-arrantzale: pescador de hombres.
 gogorazo: hacer recordar.
 golde: arado.
 gomutapen: conmemoración, recuerdo, memoria.
 gorapen, goramen: honor, alabanza, elogio.
 gorapen-kantu: himno.
 goratu: ensalzar, glorificar, dar gloria.
 gordetegi: depósito, almacén.
 gorpu: cadáver.
 gudaletxe: pretorio; (cuartel).
 gudari: soldado, militar.
 gudarozte: ejército.
 gudu, guda-: guerra.
 gura izan: desear.
 gurari: deseo.
 gurtza: adoración.
 gurtzaille: adorador.
 ibai: río.
 ibar: ribera, vega.
 idatz-atal: pasaje de un escrito.
 idatzi: escribir.
 idazkun: letrero.
 idoro: hallar.
 igaro: pasar, atravesar, cruzar.
 igarpen: profecía.
 igortzi, igurtzi: ungar, untar.
 ikasbide: ejemplo.
 ikusi-ezin: envidia.
 ikusmen: sentido de la vista.
 ikuspen: visión.
 ikustaldi: visita.
 ilgarri: cosa que produce muerte, veneno.
 ilkutxa: ataúd, féretro.
 illeta: entierro.
 illobi: sepulcro, sepultura.
 illobiratu: sepultar, enterrar.
 illobitegi: cementerio.
 illondu: embalsamar.
 iltzaille: asesino.
 ipuin: cuento, parábola.
 irakasle: maestro, profesor.
 irakaspén: enseñanza.
 irakastaldi: tiempo de enseñanza.
 irakatsi: enseñar, instruir, adoctrinar.
 iraunkor: duradero, constante.
 iren: eunuco, castrado.
 iruzur egin: engañar.
 iruzurti: embaucador, impostor, seductor.

iskillo: arma.
 itaun(a): pregunta.
 itandu, itaundu: preguntar.
 itsasi: pegarse, adherirse.
 itun: triste (véase "biotz-mindu").
 itxurakeri(a): hipocresía.
 itxurazale: hipócrita.
 itz: palabra.
 izen-emote: empadronamiento, censo.
 iziotu: encender.
 izpi: tilde, ápice, brizna.
 izurrite: tiempo de epidemia, peste.
 jadetsi: alcanzar, obtener, conseguir.
 janaritegi: despensa.
 jario: flujo, emanación.
 jardun: ocuparse, estar (haciendo algo).
 jaso: construir, edificar, levantar.
 jatorri: linaje, origen, ascendencia.
 jatorri-talde: tribu.
 jatun: comilón, glotón.
 jarraitzaille: prosélito, partidario, seguidor.
 jauregi: palacio.
 jauretze: templo.
 jaurleri: gobernador.
 jazo: suceder, acaecer, acontecer.
 jazoriko: sucedido, acontecido.
 jentil: pagano, gentil.
 jesarrerazo: hacer sentarse.
 jokabide: conducta, proceder, comportamiento.
 katigu: cautivo, preso.
 kutxa: arca.
 kutun: amuleto, filacteria; íntimo, predilecto.
 lagun: compañero.
 laguntalde: gente, gentío, grupo de personas.
 laguntzabide: medio de socorrer.
 lain: parte proporcional.
 laketu: permitir, dejar.
 landa: campo.
 lan-sari: salario.
 larrain: era, plazoleta.
 larratu: apacentar.
 lau: cuatro; persona o cosa llana, sencilla.
 lau alde nagusiak: los cuatro puntos cardinales.
 lautu: allanar, aplanar.
 legamin: levadura.
 Lege-irakasle: maestro de la Ley.
 legenar: lepra.
 legenardun: leproso.
 lez: como (adverbio).
 leza: sima, abismo.
 lorrindu: revolcarse.
 lortu: conseguir.

losadura: enlosado, acera.
 lotura: atadura.
 lupu: escorpión.
 maatsaien: sarmiento.
 madarikatu: maldecir; maldito.
 mandatari: mensajero, comisionado.
 madatu: mensaje, recado, misiva.
 masustondo: morera.
 matxiñada: motín, sublevación, insurrección.
 matxingorri: langosta de campo, saltamontes.
 mende: siglo.
 miaztu: probar algo (comidas o bebidas).
 miazkatu: lamer, chupar.
 miesa: lienzo, tela.
 mirabe: esclava, criada.
 miritza: ungüento.
 moztaza-azi: grano de mostaza.
 nai izan: querer.
 nekazari: labrador.
 oarpen: advertencia, observación, recomendación.
 obari: producto, provecho, ventaja.
 oberuzko: mejoría de un enfermo.
 obiratu: enterrar, sepultar.
 odei: nube.
 oi izan: tener costumbre.
 oiñarri: cimienta.
 oiñaze: tormento, suplicio.
 oiñazpi: planta del pie, bajo el pie.
 oiñordeko: heredero, sucesor.
 oiñordetza, oiñordetokasun: herencia.
 okerbidera eroan: extraviar.
 onartu, ontzat artu: acoger, recibir, aceptar.
 onbideratu: convertirse, enmendarse, arrepentirse.
 ondasuntegi: tesoro.
 ontzigin: alfarero, hollero.
 opari: sacrificio, ofrenda, regalo.
 opari-eskintzak: ofrecimiento de sacrificios.
 ora: masa.
 osagille: médico.
 ospatsu: de honor.
 ostendu: esconderse.
 otu: ocurrírsele a uno, venir a las mientes.
 ozpin: vinagre.
 parastarrak: fariseos.
 patin: pozo artificial, aljibe, cisterna.
 pedar: cántaro.
 pikondo: higuera.
 sabai: techo, pajar.
 sabel-legor: estéril.
 sadokarrak: saduceos, partidarios de Sadok.
 sakabanatu: dispersar.
 sakel: bolsillo.

saltzaille: vendedor; traidor.
 sarbide: entrada.
 sarleku: entrada.
 sartzalde: occidente.
 sastegi: estercolero.
 sen: juicio, estado normal.
 sein: niño, infante.
 seindun: mujer embarazada.
 sendor: véase "sorta".
 sinisgogor: incrédulo.
 sinismen: fe, creencia.
 sinistedun: creyente.
 soingaiñeko: manto, capa.
 solo-ari: mies, cosecha de la heredad, del campo.
 sorta: carga.
 sortzalde: occidente.
 talde: grupo, conjunto, cuadrilla, muchedumbre.
 triskatu: destrozar.
 ulertu: entender, comprender.
 urkatu: ahorcar.
 uri: ciudad, villa, población;
 urlia: fulano.
 urrean: tal vez, probablemente.
 urtegi: estanque, piscina.
 txarpoil-bedar: comino.
 txatal: remiendo, pedacito; pasaje (de un escrito).
 txerren: diablo.
 -tzaz: acerca de, sobre.
 -z: con, de, por (sufijo).
 zaborreri, zabor: basura, desperdicios, escombros.
 zarraparra: alboroto, tumulto.
 zarta: látigo, varapalo, vara.
 zelatari: espía.
 zemai: amenaza.
 zenbatu: contar, computar.
 zeru-egun: día celestial.
 zin: juramento.
 zio: motivo, razón.
 zirika-zirika: tentando.
 zirikatu: tentar, hostigar, poner a uno a prueba.
 zori: suerte, ventura.
 zorian: a punto de.
 zotz egin: echar a suertes.
 zugatz: árbol.
 zuritu: blanquear; justificar.
 zuritzaille: blanqueador.

(A = Agortuta - Agotado.)

1. Orbelak (1959) (A).
2. Bitargi (1960) (A).
3. Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-61) (A).
4. Apostoluen Egiñak (1961) (A).
5. Eguneroko Meza (Missale Romanum: 1963) (A).
6. Gogarteak (Aita Basabe—Kerexeta: 1963) (A).
7. Didaje eta Apostoluen Siniskitza (1965) (A).
8. Apostoluen Egiñak eta Idazkiak (1965) (A).
9. Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak (1965) (A).
10. Argi-bide Txikia (Zugasti—Kerexeta: 1965) (A).
11. Jesukristo gure Jaunaren Berri Ona (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1966) (A).
12. Jesukristo'ren Barri Ona (lau Ebanjelioak: 1966) (A).
13. Itun Berria (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixe—Kerexeta—Zugasti: 1967; 1974) (A).
2ª edición:
14. Salmutegia (1967) (A).
15. Salmudia (gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1968) (A).
16. Umeen Biblia (1969; 2ª edición: 1974; 3ª edición: 1982).
17. Umeen Biblia (gipuzkeraz: Kerexeta—Zugasti: 1969). (A).
18. Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco (cinco volúmenes: 1970-71-72 y 74).
23. Gure Salbaziño-egintza (Alkartasun Barria: Ascea—PPC-na: 1972).
24. Alkartasun Barria (Novum Testamentum, osorik; 2ª edición: 1972) (A).
25. Jesukristo'ren Barri Ona (2ª edición; bilingüe: 1973) (A).
26. Ebanjelio Alkartuak (1973) (255 orrialde, 300 pta.).
27. Kristau-Ikasbidea (4-garrena) (1974).
28. Eliz-Guraso Apostolikuak (Padres Apostólicos) (1975) (Premio "Agirre-Saria" en Baio na en 1976) (293 orrialde, 500 pta.).
29. Euskal-Biblia (Biblia completa) (1976) (1,500 pta.).
30. Mezako Irakurgaiak Euskal-Biblian (1976) (100 pta.).
31. Astegunetako Meza-Otoitzak eta Jainko-Erriaren Otoitza (1977) (300 pta.).
32. Diccionario Euskérico (1977).
33. Iparragirre'ren Bizitza (1978).
34. Gernika'ko beste Arbola (1979).
35. Orbelak, Bitargi (2ª edición), Udazken (bilingüe) (1980) (217 orrialde, 300 pta.).
36. Elizearen Otoitza (1982) (270 orrialde, 300 pta.).
37. Domeka eta Jaiegunetako Ospakizunak Abade bagarik (1982).
38. Bolibar (bilingüe: 1984) (333 págs., 800 ptas.).
- 39-40. Vascos en Colombia (2 volúmenes) (1985). (8.500 ptas.).

41. Casas Solariegas de Bizkaia (vol. I) (en orden alfabético) (1987) (343 págs., 1.500 ptas.)
42. Linajes y Casas solariegas de Elorrio (245 págs. de texto y 393 fotografías). (1988).
43. Lau Ebanjelioak (1988) (670 pta.)
44. Berrio-Otxoa (bilingüe) (1988) (texto y 36 fotos). (100 ptas.)
45. Fededunen Otoitza (1988). (160 pta.).
46. Casas solariegas de Bizkaia (vol. II) (por pueblos) (1988).

EN IMPRENTA:

Kunran (manuscritos de) (euskeraz).
Ebanjelio Alkartuak.

EN PREPARACION:

Vascos en Chile.

Vascos en Ecuador.

Escudos Vascos (de los siete territorios vascos; texto y dibujos; seis volúmenes).

Primer volumen: Escudos de Bizkaia.

Jaime de Kerexeta.
Elizburu, 24.
48230 ELORRIO (Bizkaia).
Tel. 682 00 12.